E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1999, 1
44. liburukia
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.maila: euskalbilbo@jet.es

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Henrike Knörr Patxi Goenaga Jose A. Arana Martija Miren Azkarate Beñat Oihartzabal Patxi Altuna
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564
Euskera
ISBN. 85479
Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 Bilbo

Publimail 2000. Bilbo-Galdakao errepidea, 18, Arzubi etxea, 4. solairua, 48004 BILBO

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

ANTONIO MARIA LABAIENEN MENDEURRENA

Jose Gurrutxaga, herriko alkatea, *Antonio Maria Labaienen mendeurren ospakizuna* 13

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, *Antonio Maria Labaienen mendeurrena* 15

Juan San Martin, *Antonio Maria Labayen euskaltzainaren oroimenez* 17

Joxe Ramon Zubimendi, *Antonio Maria Labaien (1898-1994) hitz bitan* 25

Patri Urkizu, *Antonio Maria Labaien (1898-1994) eta Euskal Antzertia* 37

Josep Lluís Sirera, *El teatro valenciano en su contexto festivo* 51

B. Oihartzabal, Iker sailburua, *Noizkoak diren Zuberoako pastoralei dagozkien lehen dokumentuak* 69

Txomin Peillen, *Bizitzaren komediak Zuberoan* 89

Adolfo Arejita, *Peñafloridaren literatura eta hizkera ekarriaz* 107

Xabier Kaltzakorta, *Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak* 129

Juan Mari Lekuona, *Pedro Ignazio de Barrutia: Gabonetako ikuskizuna* 211

Martzel Etxehandi, *Besta-Berriko ibilaldiaren sinbolikaz* 217

Joxemari Aranalde, *Orixeren **Euskaldunak** eta festa-giroa* 223

Francesc Massip, *El infierno en escena: presencia diabólica en el teatro medieval europeo y sus pervivencias tradicionales* 239

Kepa Fdez. de Larrinoa, *Zuberoako* maskaradak *izeneko herri antzerkiaren ahozko literaturaz* 267

Mattin Irigoien, *Tobera berriaz, ... edo hobeki erran: gaurko toberaz* 283

Antton Luku, *Oraingo antzerkiaz* 293

Jean-Louis Davant, *Pastoralaren aldaketaz* 301

XI. BARNE JARDUNALDIAK

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea, *Jagon sailaren organigrama Barne Jardunaldietan zehar: 1979-1999* 323

Miren Azkarate, Jagon sailburua, *Jagon saila: gaurko egitasmoak* 339

Juan San Martin, *Jagon sailaren ardurapeko lehen lanari buruz* 351

Koldo Zuazo, *Euskararen osasuna eta euskalkiak* 355

TXOMIN AGIRRE-REN *AUÑEMENDIKO LOREA*-REN MENDEURRENA

Ana M.ª Toledo, ***Auñemendiko Lorea** (1898): Euskal eleberrigintzak ehun urte* 365

Sebastián García Trujillo, *Domingo de Agirre eta Zumaiako Karmeldarren ikastetxea* 377

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK ETA ADIERAZPENAK

Euskaltzaindiaren ARAUAK:

92.—Zuberoako herri izendegia 393

93.—Hiztegi batua: *nahi-oihan* 402

94.—Hiztegi batua: *oihanbide-orburu* 414

95.—Hiztegi batua: *ordain-ortopediko* 422

96.—Hiztegi batua: *ortozik-pasmo* 426

97.—Hiztegi batua: *paso-pikaldi* 435

BATZAR AGIRIAK

Bilbon, 1998ko azaroaren 27an 443

Ageriko batzarra 448

Gasteizen, 1998ko abenduaren 18an 450

Bilbon, 1999ko urtarrilaren 29an 456

Ageriko batzarra 461

Baionan, 1999ko otsailaren 26an 463

XI. Barne Jardunaldiak 468

Bilbon, 1999ko martxoaren 26an 471

XI. Barne Jardunaldiak (jarraipena) 475

* * *

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea, *1999. urterako Euskaltzaindiaren batzar egutegia* 477

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UPV-R.A.L.V. / EUSKALTZAINDIA

1998.eko Hitzarmena 483

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA (EUDEL) ETA EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

José María González Zorrilla, EUDELko elkarteburua, *Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL) eta Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B.* .. 487

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, *EUDEL-Euskaltzaindiaren arteko* Hitzarmena *sinatzea* 489

1999ko ***Hitzarmena****, Euskadiko Udalen elkartearen (EUDEL) eta Euskaltzaindiaren artekoa, Euskal Autonomia erkidegoko herri, auzo eta kaleen izenen normalizaziorako* 491

JASOTAKO TXOSTENAK

HIZTEGIGINTZA

Michel Morvan, *Commentaire critique sur les "materiales para un diccionario etimológico vasco"* 499

Jon Jatsu Azkue Barrenetxea, Angel Bidaurrazaga van Dierdonck, Jon Patrick, *Gorputza, osasuna eta gaixoa Azkuerengan (I): gorputz atalen izendapena* 507

ONOMASTIKA

Mikel Gorrotxategi Nieto, *Luis Alberto Aranberri* 581

Mikel Gorrotxategi Nieto, Patxi Salaberri Zaratiegi, *Hiri-izendegia: irizpideak eta erabiltzeko arauak: (I) Donostia / San Sebastián* .. 583

Dictamen sobre Egilatz 589

Josemari Satrustegi, ***Euskal izendegiak*** *egindako bidea* 591

LITERATURA

Joxemari Aranalde, ***Euskaldunak*** *poemaren sortaroa eta beraren ikuspegi orokorra* 601

Patxi Salaberri Muñoa, *Axularren aipamen Bibliko-erlijiosoez zerbait* 615

GRAMATIKA

Jesus Mari Makatzaga, *Gramatika batzordearen irizpena Azkue Bibliotekako zuzendariaren galderari buruz* 639

Jesus Mari Makatzaga, *Gramatika batzordearen irizpena Santutxuko AEK-ko Patxi Zuluagak egindako galderei buruz* 640

Jesus Mari Makatzaga, *Gramatika batzordearen irizpena Durangoko Udaletik egindako galderari buruz* 641

BERRIAK

FEDERIKO KRUTWIG-EN HILETA ZIBILEAN

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, *Federiko Krutwig-en hileta zibilean* 647

Josu Lavin, *Federiko Krutwig-n hileta* 649

Manuel Antonio Federico Etxabe Krutwig, *Ceremonia civil celebrada con motivo del fallecimiento de D. Federico Krutwig Sagredo* .. 651

Xabier Amuriza, *Federico Kritwig-en hileta zibilean* 653

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA-SARIAK

Jose Ramon Bilbao, *R. M. Azkue Literatura-sariak* 661

R. M. Azkue sariak, 1998 663

Premios literarios: BBK - Euskaltzaindia 664

BBK-Euskaltzaindia: R. M. Azkue saria 667

R. M. Azkue saria 669

EUSKARAREN KONTSEILUAK EUSKALTZAINDIARI OMENALDIA

Xabier Mendiguren, *Omenaldia Euskaltzaindiari* 675

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, *Euskararen gizarte kontseiluak Euskaltzaindiari omenaldia* 679

DURANGOKO XXXIII. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

J. L. Lizundia - R. Badiola, *Durangoko XXXIII. Euskal Liburu eta Disko Azoka* 685

LIBURUEN AURKEZPENAK

Antoine d'Abbadie 1897-1997 agiriak: *Liburukiaren aurkezpena* 695

* * *

Jean Grenet, maire de Bayonne, ***Vasconiana*** 697

Pello Salaburu, EHU/UPV-ko errektorea, ***Vasconiana*** 698
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, ***Vasconiana*** *aurkeztean* 699
Jean Grenet, maire de Bayonne, *Amaierako hitzak* 703

* * *

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, ***Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*** 705
Pedro de Yrizar, ***Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*** 707

HIL BERRIAK

Xabier Kintana-Luis Villasante, *Federiko Krutwig Sagredo (1921-1998)* 713
Karmelo Etxenagusia, *Jaime Iñazio Kerexeta Gallastegi (1918-1998)* 727
Juan San Martin, *Yon Etxaide Itharte (1920-1998)* 735
Xabier Gereño, *Julia Berrojalbiz-en omenez (1923-1998)* 759
Juan San Martin, *Iñaki Barriola Irigoyen (1906-1998)* 763

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA ETA ORGANIGRAMA

Euskaltzainburugoa, eragileak eta ordezkariak/Cargos académicos, ejecutivos y delegados 769
Egoitza/Sede 771
Ordezkaritzak/Delegaciones/Délégations 773
Euskaltzain osoak/Académicos de número/Académiciens titulaires 775
Euskaltzain ohorezkoak/Académicos de honor/Membres d'honneurs de l'Académie 777
Euskaltzain urgazleak/Académicos correspondientes/Membres correspondants de l'Académie 779
Batzordekideen helbideak 787
Euskaltzaindiaren aurkitegia eta organigrama 791

ANTONIO MARIA LABAIENEN MENDEURRENA

V. Herri-Literatura Jardunaldiak:

Herri-antzerkiaz

Tolosa, 1998-XI-13/14

Herri-Literatura azpibatzordea:

Burua: Juan Mari Lekuona
Idazkaria: Pello Esnal
Kideak: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Xabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

Antolakizun batzordea:

Jose Luis Lizundia, Juan Jose Zearreta, Pello Telleria, Maixa Goikoetxea.

ANTONIO MARIA LABAIENEN MENDEURREN OSPAKIZUNA

Tolosa, 1998-XI-13

Jose Gurrutxaga,
herriko alkatea

Gabon guztioi, eta ongi etorri Tolosara. Ohore handia da Tolosako Herriarentzat gaur eta bihar Euskaltzaindia bertan izatea, batetik, herri-antzerkiari buruzko jardunaldiak aurrera eramaten, eta, bestetik, Antonio Maria Labaienen jaiotzaren mendeurrenaren ospakizun honetako antolatzaile eta partaide gisa gure artean izatea.

Antonio Maria Labaienek goreneko tokia du tolosar ospetsuen artean. Areto hau bera, Antonio Maria Labaien Kultur Etxeko aretoa da. Bestalde, herriko plaza batek haren izena darama. Esan nahi dudana da oso gogoan dugula Antonio Maria, eta ez bakarrik idazle eta euskaltzaina izan zelako, baita ere herriko alkate izan zelako Errepublika garaian, ondoren alde egin behar izan bazuen ere.

Lehen esan dut oso gogoan dugula Antonio Maria, eta orain esango dut gazteek badutela nor begiratu, norengandik ikasi, hainbeste aldaketa eta noraez dabilen garai honetan.

Besterik gabe, gaurko ekitaldi honek Antonio Maria Labaien hobeto ezagutzen lagunduko digulakoan, hitza nire alboan ditudan jaun-anderei ematen diet.

ANTONIO MARIA LABAIENEN MENDEURRENA

Tolosa, 1998-XI-13

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Jose Gurrutxaga, Tolosako alkate jauna,
Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuorde anderea,
Euskaltzainkideak,
Jaun-andereak. Agur,

Ez da lehen aldia egoten dela Euskaltzaindia Tolosan. Duela bi urte areto honetan ginauden II. Jagon jardunaldietan eta Jose Ariztimuño "Aitzol" tolosar apaizaren ohoretan.

Aurten hemen Euskaltzaindiak antolatu ditu V. Herri literatura jardunaldiak. Urratsez urrats doa literatura batzordea, jakinik bosgarren aldikotz biltzen dituela ez bakarrik Euskal Herriko ikerleak bainan ere bertze eskualdetako edo atzerrietako erakasle-ikerleak, hala nola aurten Valentziako eta Bartzelonako Unibertsitateko bi erakasle.

Hain zuzen aurten Jardunaldien gaia da: Herri antzerkia, denbora berean omenaldi bat eskaintzen diolarik Euskaltzaindiak Antonio Maria Labaien tolosar eta euskaltzainkide zenari bere sortzearen ehungarren urtemugan.

Onarzkitzu, alkate jauna, ene eskerrik beroenak, alde batetik, orain erran dituzun hitz goxoengatik eta ere udalak eskaini dizkigun baliabideengatik. Baginakien esku zabaleko hiria zela Tolosa, bertze froga bat eman digu.

Nahi nituzke agurtu hemen dauden Antonio Maria Labaien zenaren bi semeak: Matxin margolaria eta Ramon Kultura sailburu lehenbiziko Eusko Jaurlaritzan eta Donostiako alkate izana, biak aitaren seme jatorrak.

Ez naiz hemen mintzatuko ikertuz nor zen Antonio Maria Labaien. Goiz honetan Patri Urkizuk aztertu du antzerki-egilea, ene ondotik mintzatuko da Juan San Martin euskaltzaina eta ikusiko dugu Joxe Ramon Zubimendik eginikako ikus-entzutekoa.

Zuk eta nik, alkate jauna, Tolosako udalak eta Euskaltzaindiak ohoratu nahi dugu Antonio Maria Labaien, zuk hiriaren izenean, tolosarra, Tolosako alkate izana 1934etik anaiarteko gerla arte, Euskaltzaindiak idazlea, antzerki

egilea, euskaltzaina. Denek badakite gutaz urrundu zela euskara batuaren auzia zela eta, beldurrez urrunegi joan zadin Euskaltzaindia. Bainan azpimarratu nahi dut nola aldatu zen gero, nola konturatu zen bide onetik zoala Euskaltzaindia idatzi zuelarik *Alternativas para una factible unificación y desarrollo del euskara* liburua, gizon zintzo eta leial baten emaitza.

Ongi merezitua du Antonio Maria Labaienek gaur egiten diogun omenaldia, bere izena daukan kultura etxe honetan. Ohore hari eta haren familiari, eskerrak zuri, alkate jauna, eta Tolosako Udalari.

ANTONIO MARIA LABAYEN EUSKALTZAINAREN OROIMENEZ

Tolosa, 1998-XI-13

Juan San Martin

Tolosako hiri hontan etorri zen mundura, duela ehun urte, Antonio Maria Labayen Toledo zena; hau da, 1898ko abenduaren lean. Eta hemen bertan hil zitzaigun 1994. urteko urriaren 12an.

Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian azaldu nuen bere hilberrikoa (ikus *Euskera*, 1995, XL, 579-583. orr.) eta gaurkoan zilegi zait hura oinarri harturik bere bizitza eta laneri buruzko beste zenbait berri ematea. Aldi berean, zenbait zuzenketa eginaz.

Tolosako Eskolapioetan egin zituen lehen ikastaroak, Zaragozako Komertzio Eskola Nagusian bukatzeko. Ondotik familiaren lantegian sartu zen. Bigarren Errepublikaren etorreran, 1931. urtean, Tolosan zinegotzi hautatu zuten Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean, eta handik bi urte barru, alkate. Alkatetzan iraun zuen 1936ko gerratera arte, eta ondorenez, erbesteratua ikusi zuen bere burua, familiarekin batean, Lapurdiko Saran zortzi urtez exiliaturik bizitzeko. Euskaldun izateari esker, lapurtarren artean ez zen sentitzen atzerriratua, deserriratua baizik. Euskaldunontzat Euskal Herria ez baita atzerria, bi Estaduren artean zatiturik egonarren. Eta han ere euskal kulturari buruzko lanetan jarraitzeko aukera kemenez bete zuen.

Ondoko belaunaldikook euskal idazle ezagutu genuen, bereziki antzerkigintzan, baina beste era askotariko lanak egin zituen saio eta artikuluz, beharbada hain ezagunak ez direnak; baina horregatik ez uste izan garrantzi gutikoak direnik.

Izenorde anitz erabili zituen bere idazkietan, gazterik hasita hainbeste aldizkaritan barreiaturik aurkituko ditugunak. Zeren euskal kulturaz arduratu diren aldizkari gehienetan argitara eman izan zituen bere lanak, bere izen-deituraz edo izenordez, bai euskaraz eta bai erdaraz. Hemen, hitzaldi hau aspergarri ez egiteko, ez ditut guziak errepikatuko. Hortaz zerbait jakin nahi duenak, erabili zituen izenordeak eta non kolaboratu zuen, aipatu dudan 1995. urteko *Euskera* agerkarian aurkituko ditu.

Antzerki lanean berriz, zer esan? Euskal literaturan lehen mailetan jarriko nuke egile eta eragile zen aldetik.

Meriturik aski bazuen gizonak euskaltzaina izateko eta, Euskaltzaindiak euskaltzain osoen kopurua hamazortzitik hogeita laura jaso zuenean, usterik edo ustegabean, 1832. urtean J.P. Ullibarrik gutunez P. Novia de Salcedori agertu zion gogoa betetzera ausartu zirela esango nuke. Une hartan heldu zitzaion Labayeni aspalditik merezia zuen aulkia hartzea. Beste batzuk ez genuen horrenbesteko merezimendurik eta hara hor, kopuru berria osatzean, 1964. urteko abenduaren 18an, euskaltzain berri nola izendatu gintuzten: A.M. Labaten, A. Zavala eta ni. Hirurotarik inork, arauz behinik behin, ez genuen beste inoren hutsarterik betetzen, kopuru berria betetzera gentozen aldetik. Hirurok ginen literatura alorrean genbiltzanak eta hirurok gaztaroan mendizale.

Egia esan, nik Antonio baino lehen ezagutu nuen bere anaia Frantzisko (Pantxo) mendi-kiroltzale bezala, artean Antonio Saran zela eta elkarren artean euskaldunok hautsi ezinezko muga madarikatua. Antxon Zavala, ordea, Aizkorri gailurretan ezagutu nuen, baina Euskaltzaindiak 1958. urtean Bilbon eratu zuen Biltzar Nagusian euskaltzale gisa elkarrekin topo egin genuenetik etengabeko harremana dugu.

Hala ere, aitortu behar dut Antonio Labayenen lehen berria ni euskaltzale izatera heldu baino lehenagokoa dudala. Gerra ondoan oraindik mutiko nintzela Eibarko Club Deportivo delako elkartean zegoen biblioteka hartan ordu asko igarotzen nituen irakurketan, han zeuden era askotariko liburuak miatuz. Behin, *Pyrenaica* aldizkari zaharrak begiztatzean, han aurkitu nituen lehen mendizale kiroletan aritu zirenen kontakizunak eta horien arteko bat zen Antonio Labayenek Patxi Tudurirekin 1926. urteko ekainaren 26an Zuberoako Orhi mendiaren gailurrera igon zirenekoa. Ibilaldiaren berri emanez, Larraiñetik Erromendi zehar, eta aldi berean doinu politaren jabe den kanta hura oroituz eta aipatuz: "San Josefen ermita, desertian gora da...". Denbora haietarako oso egoki adierazia, eta oinak gailurrean jartzeko igoera hura 2 oren eta 42 minututan osatu zuten (ikus "El pico de Orhy", *Pyrenaica*, 1926, Vol. I, n.º 2, 37-40 orrialdeak). Musikarako grina erakutsiz, aipaturiko kanta horri ohar bat erantsi zion, non aditzera ematen zuen, horren doinu politaz Usandizaga donostiarra *Mendi-mendian* operako *Kaiku* deritzan kanta osatzeko baliatu zela.

Gero, nik dakidanez, Antoniok ez zuen izan mendi ibileretarako beta askorik. Baina, urteak igaroaz ere, zuberotarrek esan ohi duten bezala: "Orhiko xoriak, Orhi laket". Tolosarrek sortu zuten Aralarko Adiskideak zeritzan elkartekoa zen Antonio eta aldi berean Aralarko Igaratza babes-etxea eraiki zutenetakoa eta ez errefujio hartara bidaia guti egindakoa, ez horixe. Horregatik, elkartearen berrogeita hamar urte betetzeaz bat, 1978an, artikulu ederra eskaini zigun ospakuntzaren oroitzapenetan Donostian argitaratu zuen liburuxka batean: *Aralar'ko goraberak* zeritzana.

Euskal Herriko Mendizale Federakuntza sortzetik, gure aurreko eibartar mendizaleek harreman estuak zituzten tolosarrekin eta nik neuk ere haien bidez ezagutu nituen hemengo zenbait. Oroitzen naiz berrogeigarren hamarkadan

nola egin genuen Indaleki Ojanguren argazkilariarekin batean Periko eta Jesus Elosegi lagun genituelarik Aralarrera ibilaldia. Amezketatik Igaratzara eta handik San Migelera zuzen joan ziren aipatzen ditudan hirurok eta gazteago ginen beste hiru eibartarrok, Igaratzatik Putterri gailurrera, ilunabarrean denok San Migelen berriz elkartzeko. Gero, Arantzadi Zientzia Elkartea sortu berri, 1949an, mendi eskaladan monitore aritzen nintzenez, kirol horretako teknikaz baliatzeagatik deitu ninduten harpeetako zenbait leize ikertzeko. Hortarako harreman estuak izan nituen Arantzadiko Espeleologia sailburu zen Jesus Elosegirekin. Jesus eta Antonioren emazteak, Pilartxo eta Karmen, ahizpak zirenez hortik izan nuen Antonio pertsonalki ezagutzeko aukera, eta euskararekiko kezkak elkarri azalduz gure hizkuntza honen alde lan egiteko. Ez ziren denbora onak, baina elkarren laguntzaz euskararen alderako ahaleginetan saiatzen ginen.

A.M. Labayen zenak musika zuen bere beste zaletasunetariko bat, atsedenez hartzen zituen txolarteetan biolina jotzea gogoko zitzaion. Idatzi ere, zenbait aldiz idatzi zuen musikaz, 1949an *Eusko Jakintza*-n eman zuen "Bibliografía musical vasca" eta Eduardo Mokoroa Arbillagaren heriotza gertatu zenean saio bikaina agertu zuen "Mocoroa, apóstol de la música" izenburuz *Bol. de la R.S.V. de los Amigos del País* buletinean (1959, XV. urteko 2. kuadernoan, 143-161. orr.). Gainera, buletin berean daude 1979an Cremencio Galicia Arrue biolinjotzaileari buruz egindako idazlana eta "Pequeña historia del violín en Tolosa" izenburua duena.

Antonio M.ª Labayenek idatzi dituen liburuen artean balio handikoa dugu *Escenas papeleras* (1947) deritzana, non aztertzen zuen Euskal Herriko papergintzaren historia. Zer esanik ere ez gai hortan Tolosa zela nagusi. Gainera, balio berezia du paper filigranak eta hauen noiztikakoa bertan biltzean, eskuizkribuen ikertzaileei eskaintzen zaizkienez agirien hainbat lekukotasun. Horrez gainera, *Investigación y técnica del papel* aldizkarian kolaboratu zuen, non agertu zuen 1970. urtean "En un lugar llamado Erasote" zeritzan ikerlan bikaina, Leitzako papergintzari buruz.

Beste saiakera aipagarri bat *Compendio del Poema Euskaldunak de Orixe* (1951) deritzana dugu ezpairik gabe, zeren adierazpen honen irakurketaren ondotik hobeto ulertzen baitugu Orixeren poema mardula. Denok dakigunez, poema honek batez ere gure kanta zaharrik aipatuenak, artzaintza eta nekazaritza mundua erakusten digu, une labur batean olazaharren zatitxo bat jasoarren. Nikolas Ormaetxea "Orixe"ren *Euskaldunak* poema liburu hori, hizkuntzaz eta bertsoz aberatsa dela uka ezinezkoa da. Hala ere, noizbait esan nuen poesia inspirazio edo etorri liriko aldetik ez zitzaidala iruditzen hain ona zenik. Aburu hau, beste askok ere azaldua zen. Baina nik ez dakit nondik eta zelan asmatu edo nahastu zuen Labayen zenak nik *Egan*-en argitaratu nuen "Zeren billa" kontaera hura *Euskaldunak*-ren kritika zela, *Orixe* (1965) omenaldi liburuaren 22. orrialdean datorrenez.

Orain ere, hemen, publikoki argitu eta aitortu beharra dut, berari ahoz agertu nioena: umorezko narratiba hura idatzi nuenean ez zitzaidala burutik pasa Orixeren poemarik. Are gehiago esango dut, Orixeri, euskaltzalerik gehienek bezala, beti gorde izan diodala ongi merezia zuen ospea eta itzala. Gainera, euskararen etorkizunaz aski etsipendurik geunden garai ilun haietan zenbat aldiz ez ote nituen, aipatu ez ezik errepikatu ere, poemaren hasierako bertsoak, gure sentipenen eredutzat:

"Zatozkida Goi arnas
eizu nerekin lan,
erri baten arnasa
mamitu dezadan.
Geroak esan beza:
«Erri bat izan zan»
edo-ta ats emaiogun
ontan iraun dezan."

Bertso horrekin berpizten genuen gure gogoa, adorea erortzeke lanean jarrai ahal izateko. Beraz, nola ez eskertu Orixeren mezu hori?

Antonio Labayenek biografiagintzan ere ahalmen berezia erakutsi zigun eta hor dugu lekuko *Muñagorri eskribaua, pakegille ta fuerozale* (1976), agiriz nahiz garapenez ongi hornituriko liburua, gaztelerazko laburpen eta guzti. Eta bere seme Matxinen eskutikako irudiak edergarri dituela.

Esan bezala, saiakeran orotariko gaiez anitz artikulu idatzi zituen eta liburuxka bat ere bai, Txillardegiren *Huntaz eta hartaz* kritikatuz argitara eman zuen hura adibidez, *Tajuz eta zentzuz* (1967) deritzana.

Baina, aipaturiko gai eta lan guzion gainetik, arestian esan bezala, nabarmen azaldu zen antzerkigintzan. Hor izan zituen berebiziko emaitzarik oparoenak. Jose Ariztimuño "Aitzol"ek eta bere ingurukoek Errepublika garaian sortu zuten "Euskaltzaleak" zeritzan mugimendu hura baino askozaz lehenagotik erakutsia zuen teatrogintzarako lehia autore bezala, baina Euskaltzaleak sortzeaz egile eta eragile bihurtu zen. Hain urte gutxitan agertu zuen ekintzaz bazirudien euskal literaturak historian inoiz lortu ez zuen urrezko aldia zetorrela, baina anaiarteko gudu madarikatu hark eten eta etorkizunaren itxaropen guztia hankazgora jarri zuen, eta gure gizon langile zintzoa, deserriratua. Hala ere, historiak zentzurik gabe zatiturik utzi zigun mugaz harandiko Euskal Herrian erori zen eta lehengo elkarlaneko mugimendu hartatik berezirik. Gainera, buruzagi agertu zen Aitzol bera ere armaz hila izan zen. Haatik, zoritxarra gaindituz jarraitu zuen euskal lanean. Ordukoak ditugu *Gernika, Euzko-gogoa* eta *Eusko Jakintza*-n argitaratu zituenak. Bestalde, Lapurdiko egoera hartan hurbilagotik ezagutu zuen hemen baino lehenagotik zuten hango literatur tradizioa, eta euskararen erabilera aberastu zuen. Hala eta guztiz ere, aberaste hori baino galera handiagokoa izan zen anaiarteko gerra hura, utzitako ondorenak oso latzak izan baitira, urteetan zehar gure egunotararte.

Euskaltzaleak mugimenduan antzerkiaren sustaketa bere ardurapeko hartu zuen Labayenek. Antzerkian, "Teatro txikia baina gurea" erabili zuen lema bezala. Gabriel Arestik zerbait handiagoaren nahiaz zenbait kritika egin zion lema horri; baina nire ustez, Gabrieli esaten nioen bezala, esaldi horrek egiazko izate edo errealitatea erakusten zigun, berez herri txikia izateaz zerbait kondizionaturik geundenez, eta Bizkaiko esaldiari lotuko nioen: "Garean gareana legez". Harrokeriarik gabe, ez gehiago eta ez gutiago. Beraz, Labayen ez zebilen hain oker. Gainera, bazekien Domingo F. Sarmientok zer esan zien *Teatro argentino* liburuan bere garaiko antzerkigileei. Ikus aburu hori *Teatro euskaro* (1965) delakoaren lehen liburuaren 96. orrialdean Labayenek jaso zuena. Kontseilu hartako jokabidea eskatzen zuen "Txikia baina gurea" esaldi horren bidez, bai baitzekien Argentinan zer ondore lortu zen antzerkigintzan. Horregatik zioen Sarmientoren hitzetan: "Las obras señeras no se producen por generación espontánea, sino vienen aprovechando enseñanzas ajenas y tentativas anteriores, cuando llega el momento oportuno".

Bi liburukitan argitara eman zuen *Teatro euskaro* (1965); lehen liburukian teoria agertu zigun eta bigarrenean zenbait aburu, kronika eta antzerki lanen katalogoa. Obra horretan agertzen zuenaren funtsezkoa, laburki, euskaraz ere agertu zuen *Teatrogintza eta yakintza* (1973) liburuan. Hiru zati nagusitan banatzen da liburu hau: lenenik, Antoniok berak Biblian oinarrituriko bere sorketazko antzerkia, *Agar'en seme... Ismael* (1970. urtean "Agora" saria irabazia), alde batetik, antzerkigintzaren eredugarria dirudi, baina horrez gainera, hiru ekitaldidun obra baten aurkezpena; bigarrengoa, oraingo teatroaren aurrezaurre, 1965eko irailaren 25ean Donostian Euskaltzaindiak eraturiko jardunaldietan eman zuen hitzaldia da, bere iritziak agertzea du oinarritzat; eta, hirugarrena, *Teatroa erbeste eta gurean* saiakera, nori eransten dion azkenean "teatroa gurean" soil-soilik, Zuberoako pastoraletatik hasi eta orainarteko emaitzak aurkezten dituena.

Hitzaldi eta saio horietan, bere iritzien muinean agertzen zigun, antzerkigintzarako bete beharrezko arauak zertan diren. Publikoari begira, orotariko gai eta erak behar omen ziren, ez klasistak, entzun-ikuslea orotarikoa denez gero. Arte-legeak, antze-lana eta argitasuna bitez aintzindari, politika, soziologia eta gainerako ideologiak beren lekuan utzirik: "Zeren teatroari larregi eskatzen baldin badiozute alperrik galdu eta fin gaizto eginen dugu", gomendatzen zigun Antonio M.ª Labayen zenak. Azkenik, beste honako aburu hau aldarrikatuko zigun: "Teatroan gizonaren problema guziak sar ditezkela: gizarte auzi, griñak, garraztasunak. Teatroak justiziaren alde jokatu behar du, bai. Egiaren alde teatroaren eremuan, poz, atsegin eta zoriona billa behar da. Gazteak!: Zuek ikus zer bidetatik jo! Zeuon eskuetan dezute aukera. Baina kasu eman! Ibil zaitezte arduraz, teatroaren lege, neurri eta araupean" (87. orr.).

Alabaina, fedea obrekin erakusten zekien gizona zen Antonio. Gainera, egile eta eragile antzerkiaren esparruan. Antzerki liburuxka saila sortu zuen, bereak ez ezik, besterenak ere argitara emateko. Horrez gainera, antzezlari tal-

deak zuzpertzen eta bultzatzen egin zuen lana ez zen makala izan. Baina lanik garrantzitsuena, euskal literaturan beti kontutan hartu behar duguna, antzerkigile eta antzerki itzultzailetzan datza. *Teatro euskaro*-ren bigarren liburukiaren bukaeran euskarazko obren katalogoa agertu zuen, 153-183. orrialdeetan, lehendik Jose Aranak egindako 1880tik 1928 bitartekoari, urte horretatik 1965.erakoa bere lumaz erantsiz.

Katalogatze horretan bere lanak 171-172. orrialdeetan datoz, sortuak eta itzuliak, guztira 25. Asko izanik ere, 1965.a ezkeroztik beste zenbait gehitu behar zaizkio.

1977an Bilboko Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak hiru liburukitan argitara eman zuen A.M. Labayen *Teatro osoa euskeraz*, itzulpenak alde batera utziz, Jose Lasa zenaren aurkezpenez. Baina hutsegiterik bada hor, zeren *Maya, Mateo txistu* eta *Jostuna* falta ditu Labayenek berak aipaturiko katalogoan jarri zuen zerrendatik. Geroztik egindako beste hiru antzerkiren izenburuak ere falta dira. Laugarren liburuki batean sartzeko asmoz edo utziak ote? Hala ezik, ulerkaitza baita.

Dena dela, hona hemen bere sorkuntzaz atzeman ditudan antzerki guztiak zerrendan: *Txinparta buruzagi*, 1921 (Donostiako Udaiak 1920. urtean saritua); *Ostegun gizena*, 1930; *Maya*, 1930; *Euskal Eguna*, 1931 (1930.ean Donostiako Antzerki-batzaldian lehen saria); *Mateo txistu*, 1932; *Iparragirre*, 1933; *Gizon bizarpeituti eta emazte bizartsuti*, 1935; *Irunxeme*, 1935; *Muga*, 1954; *Lurrikara*, 1955; *Jostuna*, 1956; *Petrikillo*, 1956; *Jokua ez da errenta*, 1960; *Galtzaundi*, 1961; *Malentxo, alargun!*, 1962; *Domenjon de Andia, Gipuzkoako erregia*, 1965; *Su ta gar*, 1966; *Perretxiko jatea*, 1967; *Pestaburu*, 1967; *Lapikoa*, 1969; *California... ku-ku!*, 1969 (1967an "Agora" saria, eta 1968an Egibilla taldeak Urnietan aurkeztua); *Agar'en seme... Ismael*, 1973 (1970ean "Agora" saria); eta *Muñagorri* (?).

Itzulpen lanean ere saiatu zen. Bere aburuz: "Euskal-teatro argala indartzeko ez dago, apika, gure enbor zaharrai txerto berriak itsastea bezelakorik" zioen japoniar *Taniko* antzerkitxoa itzultzean *Bai esalea* eta *Ez esalea* izenburupean (1963) Bertolt Brecht-ek alemanierara egin zion aldaeran oinarriturik, "Der ja Sager" eta "Der nein Sager".

Baina itzulpenetarako gogoa aspaldiago erakutsi zuen, artean aski gazte zelarik. Adibidez, 1933an Henriette Charasson-en "Sermon de mariage" itzuli zuen, *Irri Itzaldi* izenburuaz eta egile beraren "Séparation" hurrengo urtean *Berezi* (1934) titulupean.

Geroztik, absurdoa ez zuela maite aitortuarren, era horretako saioen aukera ere eskaini zigun honako hauekin: Dürrenmatt-en *Gizona eta kidea*, "Der doppelgänger" 1963an, eta Ionesco-ren *Neskatilla ezkongai*, "La jeune fille à marier" 1964. urtean euskaraturik argitaratuz. Bide horri jarraitu zion Max Frischen "Die Brandstifter", *Su-emailleak* 1966an argitara emanaz eta, gainera, J.J.

Rousseau-ren "Le devin du village" Mozart-en operarako prestaturiko liburuxkan oinarriturik, eta "Les assureurs", *Bastian eta Bastiane* eta *Mesner*, argitaragabeak nonbait. Azkenik, H. Ibsen-en "Gengangere", *Mamuak*.

Lan guzi horiez gainera, ahaztu ezinezkoa zaigu Euskaltzaleak mugimendu barnean egin zuena. Ekintza haretan lagun zuen aski gazte hil zen Xabier Lizardi (José María Agirre, 1896-1933), ospe handiko olerkaritzat ezagutzen duguna, eta Antoniori esker, orain badakigu antzerkigile bezala zituen ahalmenen berri. Lizardiren *Ezkondu ezin ziteken mutilla* deritzan antzerki argitara gabea atzeman zuen senitartekoen artean eta *Egan* (1953) aldizkarian argitara eman bere hitzaurre jakingarriarekin. Aurkezpen horrekin ere ondo erakusten zigun literatura genero hortaz zenbat zekien. Baita ere, aldi beran, hain lagun zuen Xabier Lizardiganako leialtasuna.

Baina gaurko hitzaldi honetan, kontutan izanik milatik gora direla euskaraz katalogaturik dauden antzerkiak. Hor ditugu antz-irudi erabilgarri, beste hizkuntzetan ohi bezala. Eta une honetan, euskaltzale kontzientziak eskatzen dit honako hau esan beharra, egoki deritzadala Euskal Telebistari dei bat egitea: esanaz, euskaldunei begira on dela horietan oinarrituriko saioak agertzea, gazteleraz gaizki mintzatuz "umore" gisako *"Qué pasa, pues!"* bezalako saio lotsagarriei leku egin baino lehen. Antzerkia, literatura generoan, garrantzitsua baita elkarrizketa biziaz gainera mintzabidearen artea erakusten duen aldetik eta antzez-taldeak oso beharrezko gure hizkuntza etorkizunean zinemagintzara eramateko aukera duenez gero. Aldi berean, berebiziko omenaldia eskainiko genioke A.M. Labayeni ere, bere gogoa zenez burutu zituen lanak herriari aurkeztea.

Labayen, zahartzaroan etxetik irten ezinik aurkitzen zelarik, urtean behin bederen bisita egiten hasi nintzen, horrenbeste lan burutu zuen gizon zintzo bezain apalak ondo merezia zuelako. Han aurkitzen nuen bere emazte leiala zuen Karmenen gozamenezko ardurapean. Libururen bat edo beste eramaten nion, baina azkenaldira irakurketarako gogoa urritu zitzaion. Inoiz biolina jotzeari ematen zion eta azkenengo batean, Alarcón kardenalaren artikulu bat irakurtzen aurkitu nuen eta gauza zen irakurria gogoan hartu eta zuzen adierazteko.

Aldi honetan beti galdetzen zidan Justo Garate eta Teodoro Hernandorenaz, jakitun zenez beste biokin nituen harremanetaz. Besteongandik ere izaten nituen galderak. Beraz, adin berdintsukoak, nolabait zubi hartu ninduten. Eta aipatu ditudan hirurok 1994. urte berean zendu ziren. Goian beude, euskal kulturaz hainbeste lan eredugarri burutu zutenok.

ANTONIO MARIA LABAIEN (1898-1994) HITZ BITAN

Tolosa, 1998-XI-13

Joxe Ramon Zubimendi

Zenduaren bi semeak, Ramon eta Mattin, beren aita zenaz mintzo dira bideo-dokumental honetan: nor bere aldetik mintzo dira, batak bestearen adierazpenen berri jakin gabe. Horretan oinarriturik dago dokumentala: puntuak eta kontrapuntuak gidoigilearen baitan sortutako jokoan.

Gidoia hamar ataletan banatua dago: *Tolosarra, Gizona, Etxeko giroa, Euskaltzalea, Antzerkigilea, Abertzalea, 1936ko gerratean, Exiliatua, Azken urteak* eta *Mitoa* izenekoetan.

Ikus-entzunekoak 32 minutu dirau, eta Tolosako Kultur Etxean eman zen estreinako aldiz, 1996ko azaroaren 13an; gaurko egun eta leku berean, hain zuzen, duela bi urte.

Hurrengo urtean, 1997an, *Auspoa* liburutegiko 246. alean argitaratu zuen Sendoa editorialak, *Bidezkoak* izenburua duen liburuaren eranskinean, Joxe Ramon Zubimendiren kazetari-lanekin batera.

Egile honek bere esker ona adierazi nahi die Labaiendarrei, Eusko Ikaskuntzari, Tolosako Udalari, Sendoa Argitaletxeari eta, batez ere, Juanjo Franko Zabalegiri.

Eusko Ikaskuntza elkarteak aurkezten dizu:

ANTONIO MARIA LABAIEN
(1898-1994)
HITZ BITAN

Dokumentalaren zuzendaria: Juanjo Franko Zabalegi
Gidoigilea: Joxe Ramon Zubimendi

Antonio M.ª Labaien: tolosarra

RAMON: Tolosak badu bere berezitasuna, tolosar batentzat benetan maitagarria dena. Gure aita zenak maite zuen Tolosako giroa, bera tolosar sentitzen zen eta. Han zeuzkan lagunak, han zeuzkan... beno, gauza asko: oroimenak eta itxaropenak. Nik uste dut dena zeukala Tolosan. Oso tolosarra zen gure aita. Dudarik gabe.

MATTIN: Hemengo ikastola gure aita zenak sortu zuen, gerra ondoren. Gure aita zena, Federiko Zabala eta Manuel Ugarte: horiek izan ziren Tolosako ikastola sortu zutenak.

RAMON: Tolosan beti izan dira horrelako pertsonak. Nik uste dut hori dela Tolosaldeko berezitasuna: beti horrelako pertsonaiak sortzen dituela eskualde honek. Ez dakit zergatik eta nola; baina beti izaten dira Tolosan horrelako jende bereziak.

Antonio M.ª Labaien: gizona

RAMON: Artistaren izaerakoa zen gure aita: ez zen industriala, ez zen tolosar arrunt bat. Tolosan, aitaren garaian, denak ziren fabrikak, papelerak eta abar; giroa oso pragmatikoa eta oso industriala zen, nolabait esateko. Gure aitak, ordea, gehiago zeukan idazle aldetik, poesia aldetik, musika aldetik, artearen aldetik.

MATTIN: Ez bakarrik idazlea eta abertzalea; baina gizona ere bazen. Inportantea da gizon izatea ere, lehenbizi pertsona delako. Gero dator beste guztia: euskalduntasuna, abertzaletasuna, kultura... Baina lehenbizi gizona da: beti pertsona bezala jokatu, beti bihotzarekin eta tolerantziarekin jokatu. Hori erakutsi zigun, e!

RAMON: Ez zen oso gizon praktikoa; etxearen zama gure amak eraman du beti: errealitatearen zama. Aita, ordea, zera bizi zen... lainotan bezala ikusten genuen pixka bat. Bere munduan bizi zen, bere lagunekin; eta denak ziren intelektual tankerakoak.

MATTIN: Gero, bidaiatu, gure aitak asko bidaiatu zuen. Horrek ere asko egiten du. Asko atera zen, asko bidaiatu zuen: ez bakarrik Alemaniara; joan zen Austriara, Txekoslobakiara, Suediara, Israelera...

RAMON: Nik uste dut... Nik esango nuke gure aita ez zela behinere izan enpresagizon. Lan egiten zuen familia bat zeukalako; baina oso interes eskasa azaldu zuen beti, bai enpresario izatearekin eta bai bere lan profesionalarekin. Bere mundua kulturaren mundua zen eta, beno, hortik ateratzen zen beste erremediorik ez zuelako.

MATTIN: Gure aitak era guztietako jendearekin egin zuen lana. Nahiz eta bera euskaltzalea eta sinistuna izan, bestelako jendearekin oso tolerantea zen. Orain gu ez bezala; orain intolerante samarrak gara hemen.

RAMON: Ez zuen batere autoritarismorik izan. Oso eskuzabala izan zen, oso liberala. Eta gu, etxean, bi anaiok, denok pozik bizi izan ginen. Askatasun giro bat zegoen horretan. Nolabait, pixka bat anarkikoa izango zen; baina ondo bizi ginen.

Antonio M.ª Labaien: etxeko giroa

MATTIN: Hemen dago, hemengo gela honetan, gure bizitza hemen dago: musika, literatura, pintura, euskara... Hemen dago gure bizitza, hemen sartuta dago. Gure giroa, gure kultura... hemen dago dena. Horrela bizi gara eta horrela hilko gara.

RAMON: Gure gurasoek beti jo izan zuten musika, egunero, aitak biolina eta amak pianoa. Beti liburu asko izan dira gure etxean, eta beti, ba, euskal kulturaren mundu horretako jendeak beti etxean izan ditugu; bai hemen eta bai beste aldean, Ipar Euskal Herrian.

MATTIN: Gure aitak sartu zigun kultura-grina: euskararen grina, kulturaren grina eta baita artearena ere (niri, pintura eta). Musikarena ere berak sartu zigun. Baina berak ez zuen derrigortzen; ideologia politikoa ere derrigortzen ez zuen bezalaxe. Horretan ere lehengo estilokoa zen: berak bazuen bere ideologia, baina inor derrigortu gabe.

Hemen, gela honetan ikusten duzu zer den kultura-giroa: musika, liburuak... dena. Hemen bizi izan gara. Giro honetan sortu gara eta, alde horretatik, pribilejiatuak izan gara. Hori esan beharra dago. Askok, gehienek ez dute izan pribilejio hori. Garai hartan, gutxiago. Jendea, lanera, fabrikara; eta kultura, ba... Ez dute izan estudiatzeko aukerarik. Guk izan dugu suerte hori: estudiatu, ikasi, liburuak eta... Giro honetan bizitzea suertea izan da, eta pribilejioa. Egia da, e!

Antonio M.ª Labaien: euskaltzalea

MATTIN: Orain ere etxeko giro hori barruan daukat: zer gauza! Eta horrela bizi naiz eta horrela hilko naiz. Beti aitarekin hitz egiten, elkarrizketan, mila gairi buruz hitz egiten, beti zerbait ikasten eta...

Asko zekien, bere jakinduria izugarrizkoa zen. Ez zuen ematen; oso umila baitzen, berez, isila, eta ez zuen ematen hainbeste zekienik. Baina, joba!, zenbat zekien! Denetatik zekien hark: bai politikaz, erlijioaz, arteaz, kirolaz, musikaz... denetatik zekien! Gazte-denboran Alemaniara joan zen, eta alemana hitz egiten zizun euskara bezala: igoal-igoal. Alemana, ingelesa, frantsesa, espainola eta euskara: bost hizkuntza zekien. Eta idazten zizun bost hizkuntzotan.

RAMON: Gure aita euskalduna zen, eta euskaltzalea. Euskalduna izatea da, ba... euskalduna izatea. Euskaltzale izatea, ordea, maitasun bat da.

MATTIN: Euskaltzalea; baina, gero, unibertsalista. Beste kulturak ere bai, aizu; ezin ditugu ukatu. Ondo dago gurea eta euskara defenditzea; baina ezin ditugu begiak itxi. Gurea bakarrik ez; besteak ere bai. Gure aita horrelakoa zen: abertzalea, bai; baina abertzale unibertsalista, unibertsala edo.

RAMON: Euskaltzaleen mugimendua, Aitzol apaizak sortua, Tolosaraino ailegatu zenean, hor ibili ziren denak sartuta. Eta hortik atera zen hainbat euskal idazle. Eta hori bai zela berritasun bat, behintzat, gure egoeran eta gure ingurumarian. Tolosaldean, hor zebiltzan Lizardi (Zarautzen sortua), Orixe (Orexan sortua) eta beste; baina denak Tolosaldean zebiltzanak.

MATTIN: Gerra, lehenbiziko gerra, Lehen Mundu Gerra bukatu ondoren, orduan hasi zen hemengo euskal mugimendua: 1918an edo 1920an. Batzokiak sortzen hasi ziren, eta orduan hasi zen mugimendua: bai politika aldetik abertzaletasuna, bai kultura aldetik, euskara aldetik, artista aldetik... Orduan sortu zen *Renacimiento Cultural Vasco* izan zena: Euskal Berpizkundea.

Hor nagusi izan zen Lizardi, bera hasi zen —egia esan behar da—. Hemen, Tolosan (ez dakit beste lekuetako berri; baina Tolosakoa bai, badakit; ondo gainera!), hemen izan ziren... hiru izan zirela uste dut euskal mugimenduaren buru eta sortzaile: Xabier Agirre "Lizardi", Nikolas Ormaetxea "Orixe" eta Jose Ariztimuño "Aitzol". Eta aita ere bai: gure aita. Lau horiek izan ziren euskal mugimendua sortu zutenak hemen, Tolosan, euskara aldetik, abertzaletasun aldetik... Aitak berak esan zidan hori.

Euskal mugimenduaren sustraia edo arkaitza lau horiek izan ziren. Etortzen ziren gure etxera —goiko pisuan bizi ginen orduan—, eta horiek hasi ziren lanean: Lizardi, Orixe, Aitzol eta gure aita. Horiek, Tolosan. Eta, gero, beste batzuk ere etortzen ziren: Fausto Leunda eta.

Lehenbiziko batzarra Iparragirre antzokian egin zen, eta orduko fotografian han agertzen dira... Isaak Lopez Mendizabal ere bai, barkatu! (Bere semeak hilko nau!). Isaak Lopez ere bai. Horiek izan ziren hemengo sortzaileak.

RAMON: Negoziante txarrak eta, nik uste, intelektual garbiak.

MATTIN: Eta, orduan, euskal mugimendua Elizaren itzalean sortu zen. Dudarik gabe. Aitzol bera eta... Gehienak apaizak ziren. Hala da, aizu; baina gaurko gazte-jendeak ez du hori aitortu nahi. Eta hor daude Resurrección M.ª de Azkue, Lekuona, Barandiaran eta... Beste bat ere bazen: Markiegi. Markiegi ere fusilatu egin zuten, makina bat jende bezala. Markiegi Mondragoeko abadea zen, eta fusilatu egin zuten. Hamasei apaiz fusilatu zituzten. Horiek egin zuten lana euskararen alde, apaizek. Dudarik gabe, Elizak egin du lana! Hori...

Antonio M.ª Labaien: antzerkigilea

RAMON: Gure aita idazlea zen, eta antzerkizalea: horregatik egin zituen antzerkiak. Baina historialari neurri bat ere izan du: hor utzi ditu Elisanbururen bizitza, Muñagorri bakegilearen bizitza... Historialaria ere bai, beraz, bere neurrian. Gustatzen zitzaion antzerkia, gustatzen zitzaion historia... gustatzen zitzaion euskaraz idaztea.

MATTIN: Lan asko dauzka hor, argitaratzeko.

RAMON: Antzerkiak beti izan du kostunbrismoaren tentaldia edo kostunbrismoaren erraztasuna edo kostunbrismoaren maitasuna. Esan dezakezu Moliere ere kostunbrista zela. Dudarik gabe, aizu! Molierek ematen dizu Luis XIV.aren garaiko gizarteko berri, argi eta garbi: burgesia baten izaera ematen dizu. Baita Moratinek ere, eta baita Plautok eta Terenziok eta gure aitak euskaratutako horrelako beste hainbat idazlek ere! Jakina, gure aitaren antzerkia kostunbrista zela!

MATTIN: Jendeari barre eragiteko asmatzen zituen antzerkiak. Jendeak nahikoa negar egiten zuen bestela ere, nahikoa negar bazegoen bazterretan. Negar eragiteko ez zuen teatrorik egingo; baizik eta jendea dibertitzeko, jolasteko.

Baina badauka beste obra bat: *Muñagorri. Muñagorri* pixka bat ateratzen da aitaren antzerkien bidetik; teatro historikoa baita, bukaera tragikoa duena. Uste dut aitak idatzi zuen tragedia bakarra izan zela. Muñagorri, pertsonaia historikoa, han ibili zen fueroak eta bakea defendituz gerra-denboran, lehenbiziko karlistadan; eta hil egin zuten. Teatro hori bai, tragedia da; baina gure aitak besterik ez dauka horrelakorik.

Badauka *Mugak*, Saran gertatzen dena... Baina beti barre eragiteko, irri eragiteko. Horrela ikusten zuen teatroa: jendea alaitzeko bide bat bezala. Baina ez helburu sozial edo politikoarekin; ez, intentzio hori ez zeukan.

RAMON: Alde batetik, antzerki oso sinplea zen, baliabiderik ez zegoelako; baina jende asko erakartzen zuen, gerra aurrean ez zegoelako ez irratirik eta ez telebistarik. Gero, telebistaren garaia heldu zenean, euskaltzaleek ez zeukaten modurik, ez zeukaten telebistan aterako zen zerbait idazteko aukerarik. Gure aitarentzat, Euskal Telebista berandu etorri da.

MATTIN: Hori salatzen diote aitari, esanaz teatro pixka bat zera dela: *un poco jebo*. Baina giroa, orduan, halakoa zen, aizu. Orain hori ez dago; orain pertsonaje horiek joan dira. Orduan halakoa zen giroa: herriko pertsonaje umilak. Baserrikoak ere bai; baina, batez ere, Tolosako kaletarrak, sagardotegietan ibiltzen zirenak eta hango... Hango giroa, nik uste, margotu zuela. Hango giroa halakoa zen, eta askok ez dute aitortu nahi; baina hala da: historia den bezalakoa da; ez da guk nahi dugun bezalakoa. Ezin da historia okertu, ezin da historia politagoa egin, oso gauza polita. Ez, ez, ez. Herriko giroa halakoa zen, e!

RAMON: Aitaren antzerkia, nolabait, konbentzioz beteta zegoen, dudarik gabe; baina euskal gizartea bera ere halaxe zegoen. Kostunbrista zen; baina eusko gizartea ere oso mugatuta zegoen: eusko gizartea oso erlijiosoa zen, garai hartan —ez dakit erlijiosoa edo ritualista; baina horrelako zerbait—. Eta horrek, nola ez!, mugak jartzen ditu. Gaur ere, 'progre' izateak mugak jartzen ditu: 'progre' batek ezin ditu egin hainbat gauza. Horrek ere, progresismoak ere, mugatu egiten zaitu; denak mugatzen zaitu. Dena aukera da, bizitzan.

Gure aitaren aukera garbi zegoen: bera zen *católico, apostólico, romano* horietakoa. Eta alderdikide, alderdi konfesional batean. Garai hartan PNV konfesionala zen, eta beti apaizez inguratua. Gure etxetik pasa ziren Euskal Herriko apaiz abertzale guztiak, nik uste.

Antonio M.ª Labaien: abertzalea

MATTIN: Jainkoa eta Lege Zaharra: hori zen gure aita. Bere bizitza horretan laburbil daiteke: Jainkoa eta Lege Zaharra.

RAMON: Garai hartakoa izan zen, egoera politikoa baino gehiago, egoera kulturala (erlijioa ere kulturan sartuta).

MATTIN: Tradizioak, erlijioak, fedeak eta denek bat egiten zuten, e!

RAMON: Nik uste dut horiek izan zirela azken karlistadaren semeak edo bilobak, azken desilusioaren semeak eta bilobak: Euskal Herriak bere burua benetan zapaldua ikusi zuenean sortu zirenak.

Bigarren Karlistadarekin sartzen da hemen Guardia Civila, sartzen da soldadutza derrigorrezkoa, sartzen dira gauza asko. Gelditzen dira kontzertu ekonomikoak, besterik ez; eta frustrazio bat bezala dago jende artean. Eta ikusten da euskara desagertzen ari dela, eta erreakzio bat sortzen da.

Nik uste dut azken karlistadan kokatu behar dela erreakzio horren hasiera. Gure aita, esate baterako, azken karlistada pasa eta handik berrogei urtera hasten da idazten: bigarren belaunaldikoa da, nolabait. Aitzolen euskaltzaleak 1920an, 1925ean... orduan hasi ziren.

MATTIN: Aitak esaten zuenez, gauza bat hizkuntza da: euskara, euskaldun guztion hizkuntza, zabaldu behar den hizkuntza... euskal kultura bat da; eta politika, beste bat. Horiek biak ez dira nahastu behar.

RAMON: Sabino Arana Goiriren aurkikuntza, nire ustez, zera izan zen: kulturak, loratzeko, politikaren beharra zeukala; eta politikak ez zeukala zentzurik oinarri kulturalik gabe. Bata bestearekin osatzen zirela.

Baina hori gerrarekin jarri zen praktikan lehen aldiz. Gerra, izan ere, eten bat izan zen. Han ez zegoen bromarik. Batzuek irabazi zuten gerra; baina, azkenean, ez zuten irabazi. Azkenean, besteek irabazi dute gerra. De Gaullek esango zukeen bezala: 1936ko bataila galdu egin genuen; baina 1975ekoa, irabazi. Eutsi egin genion. Iraun.

MATTIN: Gero, beste pertsonajea oso inportantea izan zena gure aitaren bizitzan: Aita Donosti, musikalaria.

RAMON: Jende horiek guztiak, neurri batean edo bestean, bazuten zerikusirik PNVrekin. Orduan, abertzale zirenak Batzokira joaten ziren: batasun bat bezala zegoen mugimendu abertzalean. Eta mugimendu horren barnean zeuden, ba, alor kulturalak, alor politikoak, alor elektoralak eta denetatik pixka bat; baina zera zen: gizarte osoa bizirik, ideia baten inguruan.

Antonio M.ª Labaien: 1936ko gerratean

MATTIN: Zoritxar handia izan zen 1936ko gerra: zoritxarrik handiena. Tragedia izan zen, drama izugarria. Uste dut oraindik ez dugula aztertu drama hura zer izan zen. Aitarentzat ere bai: bera bakegizona zen, bakezalea. Denak bezala, e! Partidua ez zen... PNV ez zen gerrarako partidua; ezta inola ere! Euskara, euskal lana, Euskal Herria...; baina gerra? Ezta pentsatu ere! Gerra ez zen sartzen haien pentsamenduan; eta gutxiago, gerra zibila. Baina orduan sortu zen, eta orduan...

RAMON: Lehenengo aldiz egin zen gerra bat eusko abertzaletasunaren izenean: ez zen egin Don Karlosen izenean edo fueroen izenean; baizik eta eusko abertzaletasun baten izenean. Hor jende asko hil zen, jende asko joan zen kanpora, eta, nolabait, ba, herri honetan sortu zen mugimendu berri bat: gaur egun ezagutzen duguna. Bere argiekin eta, baita ere, egunotan ikusten dugun bezala, bere akatsekin, bere ilunekin. Baina zerbait jarri zen martxan. Dudarik gabe.

MATTIN: Hemen, Tolosan, hamabi hil zituzten: gorriek edo mili-zianoek hamabi hil zituzten. Gure aitari leporatu zioten hori (bera zegoelako Tolosako alkate), eta, orduan, nahitanahiez alde egin beharra izan zuen.

RAMON: Besteak beste, politikan ere sartu zen edo sartu zuten aita. Bera abertzalea zen, dudarik gabe: abertzalea kulturaren aldetik, seguru asko, politikaren aldetik baino gehiago —hor beti izan da muga bat bezala kulturaren eta politikaren artean—. Baina politikan sartu zen, Tolosako alkate izan zen eta, hemen gertatu zirenak ikusiz, Tolosako alkategotik Sarako atzerrira joan zen, Donibane Lohitzuneko atzerrira: exiliora, esaten den bezala.

Antonio M.ª Labaien: exiliatua

RAMON: Gure aitak, besteak beste, Ipar aldean asko irakurri zuen, horretarako denbora izan zuelako; Tolosan ez zeukana. Berak alemanez oso ongi zekien, ingelesez ere bai, frantsesez ere bai. Eta asko irakurri zuen eta asko euskaratu zuen: Bertolt Brecht eta horrelakoak. Horrek beste neurri bat eman zion, dudarik gabe: Tolosako mutil gazteak ez zeukan neurria. Gure aitaren bilakaera autodidakta batena da: sortzen da, joaten da eskolapioetara, gero ematen dizkiote Zaragozan estudio komertzial batzuk eta, gero, lantegira. Hori horrela izaten zen. Eta hortik aurrera, berak ikasten zuena, berak harrapatzen zuena Tolosako giro hartan (Tolosako giroak zeuzkan mugekin 1920an, 1925ean eta 1934an). Gero Ipar aldera pasa zen, eta handik itzulitakoan antzerkilaria ez da berbera, beste gizon bat da.

MATTIN: Gure aita ez balitz erbestera joan, ez zen izango izan zena, aizu. Dudarik gabe. Erbesteak markatu zuen; erbesteak pixka bat indartu, gogortu edo zaildu egin zuen. Alde guztietatik, gainera. Ikasi egin zuen. Hortaz, ez zen dena txarra izan; erbesteak bere alderdi ona izan zuen, kultura aldetik.

RAMON: Gerra denboran izan zuen gutxi ezagutzen den misio bat (uste dut 1937an izan zela). Garai hartan, Londresen kongresu bat izan zen, estaturik gabeko nazioen kongresu bat, eta gure aita joan zen Euskadiko Gobernuaren izenean. Hura izan zen bere azkeneko ekintza politikoa. Orduztik, gizona benetan leporaino sartu zen kulturaren munduan, eta hor jardun zuen, hil arte.

Antonio M.ª Labaien: azken urteak

RAMON: Gure aitaren belaunaldi hori, nik uste, beti itxaropenean bizi izan zela. Gauzak ikuspegi pragmatiko batetik begiratuta, pixka bat *iluso* bezala izan ziren, ameslariak; baina, azkenean, asmatu egin zuten.

MATTIN: 1964an egin zen *Bihotz begietan*, Lizardiri egin zitzaion omenaldia, hemen, Tolosan. Omenaldi hori gure aitak antolatu zuen. Gure aita ez zen agertzen, teloiaren atzean zegoen, bera ez zen agertzen; baina bera ari izan zen hariak manejatzen.

RAMON: Hizkuntzaren alde hartu ziren zenbait erabaki Euskaltzaindian (adibidez, hatxe letraren gaia eta hori dena), eta erabaki horiek interpretatu ziren maniobra politiko bat bezala. Gure aitak ez zuen hori onartu. Gauza da Euskaltzaindiatik alde egin zuela eta, beno, urte askotan benetan harreman zakarrak izan zituztela batak eta besteek, edo talde batak bestearekin. Gero, pittinka-pittinka, gauzak samurtzen dira, konpontzen dira, eta, azken urteetan, gure aitak benetan armonia osoa zeukan: berak onartua zeukan... ez dut esango euskara batua, baizik eta gaur egun sortzen ari den euskara. Ez dakit zer euskara den: pentsatzen dut telebistaren euskara dela.

MATTIN: Arantzazun batzar bat egin zuten (1968an egin zen batzar nagusi hori) Koldo Mitxelenak eta Euskaltzaindiako jendeak (gure aitak eta horiek). Txilardegi ere han zen, ez dizut aipatu lehenago. Idazle ona da; hori ere ezin da ukatu. Jakintsu azkarra da; baina... To!

Egin zen batzarra, eta orduan sortu ziren bi talde: hatxeren aldekoak eta hatxeren kontrakoak. Gure aita orduan jarri zen hatxeren kontra. Bere ustez, hatxe letrarena jokaldi politikoa zen, ezkerrarena. Sabino Aranaren kontra zihoazen, eta, orduan, gure aita kontra jarri zitzaien.

Beno! Pasa ziren urteak, eta gure aitak zera aitortu zuen: "Euskararen batasunerako, neure joera pixka bat bigunduko dut". Eta orduan, ba, hatxeri eman zion bere... "ongi etorria" esango dugu? Ba, eman zion bere ongi etorria, eta hasi zen bera ere hatxerekin idazten. 86 urte zituela egin zuen hori.

Hori bai dela gauza handia: 86 urterekin eman zuen amore, zuzendu zuen bere postura. Hori gauza handia eta ederra da! Umildade lekzio bat eman zuen, esanaz: "Ni oker nenbilen eta, beraz, zuzendu egiten dut. Ni Akademiaren menpean jartzen naiz. Akademiak onartu egin du hatxe, eta nik ere onartzen dut. Akademiak esaten duena onartu egin behar dugu; disziplinagatik, sikiera".

Horretan izan zuen jarrera bat oso... tolerantzia-keinu bat egin zuen.

RAMON: Kontuan hartu Franco hil zenean gure aitak bazituela 77 urte, ez zela galtzamotzeko mutikoa; agurea zela, aitona. Baina ikusi zuela... nik uste dut belaunaldi horrek izan zuela bataila irabazi duenaren sentimendua. Hor egon ziren, 40 urtez, ea nor hiltzen zen lehenago: Franco ala beraiek. Eta Franco hil zen lehena. Horrelako zerbait izan zuten: bataila irabazi duenaren sentimendua. Eta, gero, benetan izugarria izan zen giroaren aldaketa: berriro ekintza politikoak eta... Aita bera ez zen zuzenki sartu (interesa aspalditik galdua zuen); baina, bai, bai, ingurune kulturala mugitzen hasi zen eta berpizte bat ezagutu zuen Euskal Herriak. Eta aitak bizi izan zituen berpizte horren hogei urte. Suerte handia izan zuen gure aitak: denetarik ikusi zuen.

MATTIN: Gure aita gizon konpletoa zen: denetatik zekien, denetatik idazten zuen... Gauetan, batez ere gauez hitz egiten genuen, eta denetatik zekien; arteaz ere bai, asko. Lastima izan zen aita hiltzea. Urteak ere bazituen, 97 urte bazituen, eta azkenean, ba... Baina...

RAMON: Gure aitaren kasuan, bere azken urteetan ezagutu zuen hainbeste ametsen loratzea. Suerte hori izan du: berak ezagutu eta bere begiekin ikusi bere gaztaroan posible izatea ez zirudiena posible bihurtzen.

Antonio M.ª Labaien: mitoa

MATTIN: Aitak zera egin du, idazle bezala: artikuluak, teatroak, hitzaldiak... Eta itzulpenak ere bai. Bizitza batean egin daitekeen lana, nik uste, egin duela. Jainkoari eskerrak, luzaro bizi izan da eta poz handia eman digu, eta hiltzean pena handia eman digu. Baina horixe egin du: lana.

Orain alfer samarrak gara. Aitak hori esaten zuen, eta egia da: alfertu egin gara. Hori egia da. Lehenago, etxean sartu eta, benga! Hor, txoko horretan aritzen zen lanean. Sartu eta, benga! Orduak eta orduak eta orduak idazten. *Gratis amore!* Gainera hori, beste gauza bat: lana egin zuen, bai; baina dena doan, ezer kobratu gabe. Gainera, bere poltsikotik, bere dirutik jarrita, gainera!

RAMON: Gauza asko egin ditu euskararen alde, eta, neurri horretan, gaur eguneko gizartearen alde zerbait egin du gure aitak. Nolabait, sinbolo bihurtu da. Pertsonaia horiek guztiak mitifikatu egiten dira eta, azkenean, benetako garrantzia duena ez da errealitatea, ez da zer izan ziren; baizik eta jendearen ustez izan zirena. Sinboloa da errealitatea baino inportanteago, eta gure aitaren kasuan ere hala izan da.

Belaunaldi horrek asko eman ditu horrelakoak, eusko mito bihurtu diren pertsonaiak. Literaturan, hor dauzkagu Orixe eta Lizardi; kulturan, Barandiaran eta Lekuona. Eta hainbeste jende erdi mitifikatua, hil baino lehen mitifikatuak izan direnak: besteak beste, gure aita.

Hor dago, hor sortu dugu gizaldi honetan, nolabait, eusko olinpo bat bezala; eta hor daude gizon horiek. Nik uste dut edozein gizartek, edozein naziok behar duela bere olinpoa.

MATTIN: Euskaldunok gara... badakizu zer garen? Pixka bat mitozaleak, mitosortzaileak gara. Orain ere jarraitzen dugu. Hala esaten zuen gure aitak: mitosortzaileak garela. Errealitateari pixka bat bizkarra ematen diogu; eta hori ezin da, aizu! Orain ere, politikan, ikusi egin behar da Euskal Herriko errealitatea.

RAMON: Herri batek behar ditu liturgiak eta behar ditu sinboloak. Eta behar ditu olinpo bateko gizonak; eta nik uste dut, beno, gure aita, bere neurrian, olinpo horretako partaide dela. Eta hori inportantea da; izan ere, azkenean, denek onartzen dituzten pertsonaiak izaten dira: beren akatsekin, beren ahultasunekin...; baina jendeak onartzen ditu.

MATTIN: Tolerantziaren aldetik, asko lagundu dit: ni zorretan nago aitarekin. Lastima, hil zela! Mekatxis! Gehien behar nuenean, orduan joan zen. Hasia nintzen ikasten, hasia nintzen pixka bat zabaltzen, eta orduan hil behar. Jos! *¡Qué faena, e!* Zer faena!

ANTONIO MARIA LABAIEN (1898-1994) ETA EUSKAL ANTZERTIA

Tolosan, 1998-XI-13

Patri Urkizu

Gure txikian aiek bezin aundi izan gaitezke ondo ikusten gure inguruko gizadiaren sakona; eta itzez eta egitez neurriz tajutzen badakigu: Irria luze, nigarra labur. (A.M. Labaien, ***Gure teatroa ta beste***, *Egan*, 1959, XII, 159-161)

Jaun-andreok: egun-on denoi.

Antonio Maria Labaienen jaioturtearen mendeurrena ospatzera goazelarik, eta aitzaki honekin Euskaltzaindiaren V. Herri-literatura Jardunak hastera, egoki iruditu zait Euskal Herria eta Euskal Antzertiaren alde hainbeste lan egin zuenaren aholku hitzokin hasiera ematea nere solasari, bere obraz gogoeta zenbait burutu aitzin.

Izpirituaren zaindaria da oroimena, halaxe dio Shakespeare-k *Macbeth* izeneko tragedian, eta halaxe da, hain zuzen, bene-benetan behar-beharrezkoa baita gure historia zahar eta hurbilaren gertaerak behin eta berriro aztertzea eta oroitaraztea, ahantz ez daitezen eta beraietarik behar diren irakaspenak atereaz, erabaki zuzenak har ditzagun euskaldunen izpiritua gal ez dadin.

Bidenabar bihoa nere oroitzapena duela egun gutti hil berria den Iñaki Barriola, antzertizale handiarengana, Abelino Barriola, euskal teatroaz lehen katedra 1914ean sortu zuenaren semea eta mediku izateaz gain, antzezlari eta idazle izan baikenuen, hor dugularik bere lanen bat irakurri nahi duenak "Gerraurreko antzerkigintza"-z burutu zuena (1).

Antonio Maria Labaien Toledo, ongi dakizuen bezala Tolosan jaio zen 1898ko urtarrilaren 12an. *Domenjon de Andia*-ren sarrera eskaintzan (2) egi-

(1) *Jakin*, 37, 1985, 31-45.

(2) *Domenjon de Andia, Gipuzkoa'ko erregia. Kondaira-dramakizuna.* Iru ekitaldi (Lau gerta-leku ta azken zati batean). Zarautz, Itxaropena. 1965, 124.

leak esaten digunez, Orkaiztegi'tar Patrizio Antoniok (3) bataiatu eta euskalzaletu zuen. Garaikide ditu, besteak beste, bi urte lehenago Zarautzen jaio baina Tolosan hil zen Lizardi, tolosarra zen ere Jose Ariztimuño "Aitzol", urte bat lehenago jaioa zen Manu Sota euskal antzertiaren mezenas eta itzultzaile handia, urte berean jaioak ziren ere Ander Arzelus eta Jose Zubimendi, urte bat beranduago Nemesio Etxaniz, eta beste. Denak teatrozaleak. Urte berean jaioa dugu ere XX. mendeko teatrogile handienetarikoa: Bertolt Brecht.

Ez natzaizue mintzatuko Labaien, mendizale, politikari, musikazale, edo historialariaz, gizonaren alde hauek ezagutu nahi dituenak irakur baititzake Juan San Martinek (4) idatzitakoa *Euskera* aldizkarian. Ez eta euskararen inguruan zituen iritziez, horri buruz Patxi Goenaga (5) mintzatu baitzen bere euskaltzain sarrera-hitzaldian. Ez, Labaien eta Antzertia hartuko ditut mintzagai bakar bezala.

Eta antza denez Tolosako eskolapioetan bertan lehen ikasketak emanez teatrozaletu zitzaigun Labaien. Bestalde, izan zuen Tolosan bertan aitzindaririk. Bat, Ramos Azkarate Otegi, zapatagina (6), Ihauteri guztietako burruntzalia, eta gaur egun abesten diren kantez aparte bi antzerkiren egilea: *Ijituen kontratuba eta ezkontza* (1885), eta *Beotibar'ko jatzarraren oroipena* (1886). Bestea, Baleriano Mokoroa (7), *Ibaizabal* aldizkarian 1902. urtean zatika *Aitortu egin bear edo guraso baten estuasunak* plazaratu zuena.

Komeriak eta kondaira dramakizunak. Bi antzerki mota nagusienetakoak, bai garai hartako antzerkigintzan, bai eta Labaienenean.

XIX. mendearen azken laurdenean Marzelino Soroak, Serafin Barojak, Biktoriano Iraolak eta Toribio Alzagak besteen artean ipini zuten martxan Teatro Berria ezagutzen duguna. Tespis-en gurdi zaharraren eraberritzea Donostian hasiz, hau gero eta arinago, gero eta biziago, gero eta jantziago eta oparoago zabaltzen joan zen probintzia osoan ez ezik, Bizkai aldean eta Euskal Herri osoan barrena, eta nola ez, Tolosara iritsirik, bertan txertaturik, eman zuen fruitu eder eta ikusgarririk.

Parisen eta Donostian 1907. urtean Julio de Urquijok bere *Revista Internacional de Estudios Vascos*, atzerriko eta barrengo ikerketak bildu nahiz sor-

(3) Patrizio Antonio ORKAIZTEGI (1840-1924): Santa Kruz apaizaren aholkuemailea, euskal idazle bezala *Euskalzale, Ibaizabal, Euskal Esnalea* (bertako lehendakari-orde izan zen) eta *Gipuzkoarra* aldizkarietan idazten zuen.

(4) Juan SAN MARTIN, 1995: "Antonio M.ª Labaien Toledo (1898-1994)", *Euskera*, Euskaltzaindia, Bilbo, 579-585.

(5) Patxi GOENAGA, 1995: "Euskararen batasunaz eta duintasunaz", *Euskera*, Euskaltzaindia, Bilbo, 651-669.

(6) Ramos AZKARATE OTEGI (1847-1904). Ikus A. Zavala (ed.), 1988: *Ijitoen kontratuba eta abar*. Auspoa, 197, Etor, Donostia.

(7) Baleriano MOKOROA (Tolosa, 1871-1941): *Aitortu ..., Ibaizabal*, 9, 1902. Justoren aita, hau da, *Genio y Lengua* (1935) saiogilearena.

tzen zuen urte berean, Tolosan ere, apalago noski, erabaki zuten euskaltzale amorratu batzuek *Euskal Esnalea* aldizkaritxoa euskaraz argitaratzea, eta honen ondorio eta emaitza izango da 1911. urtean *Euskalerriaren Alde*, Gregorio Mujikaren zuzendaritzapean sortzen den aldizkaria.

Berrizale-k (8), honela eta beste ezizenez sinatzen baitzuen Serapioren semeak, kudeatuko du aldizkariaren ontzia, eta bere lema zuzenez orrialdeen itsasoan antzerkiek aurkituko dute portutxo eta babesik. Garaiko antzertiaren eragile, bultzatzaile eta sortzaile handienetakoa dugu beraxe, antzerki iruzkinak idatziz, komeriak sortuz, eta antzerki sail berezia, *Izarra* izenekoa eratuz.

Hemen, hogeita hiru antzerkitxo plazaratu zituen, Zabala, Amundarain, Larrea, Iruretagoiena, Rekondo, Telleria, Alzaga eta beste zenbait antzerkigileren xelebrekeria eta umore biziz ondutakoak, irakurlearen atsegin eta irrieragingarri. Dudarik gabe ondo irakurriak zituen Labaienek, bai horiek, bai erdarazko komeriak lehen antzerkia idatzi eta saria irabazi zuenerako, alegia, 1920. urtean antolatu zen nor-lehenkan *Txinparta Buruzagi edo irugarren karlatar-gudatea* deitu zuena, eta 1921ean *Kaiku, Asteroko Ingi Abertzale ta irritsua*-n plazaratu zena (9).

Euskal Esnalea-n eman zigun Labaienek 1923an antzertiari buruzko lehen saio ttipia, *Euskal Antzerti'tzaz* izenburuarekin. Bi kapituluxkatan banatua dago. Lehenean 'Joan dan gizaldiraño'-koa aipatzen digu, eta bigarrenean 'Gaurdaño'. Iraganari buruzko azterketa ez bazen oso sakona, mende honetaz eta etorkizunaz itxaropentsuago ageri zaigu, azken partean hauxe baitzioen: *Antzertia'k diraun artean erria bizirik dago* (10).

Labaienek berak gaztelaniaz idatzitako beste lan batean (11) aitortzen digunez, 1920-1930 hamar urteko bitarte horretan indartu eta zabaldu zen gehien antzertia, behin ere iritsi ez zen lekuetara helduz, adibidez, Donostian Gran Casino, Teatro Victoria Eugenia eta Gran Kursaal-en euskal ahotsa entzun baitzen, eta euskal antzertiak lehen aldiz antzoki eder horietan entzuteko eta ikusteko aukera eta parada izan baitzuen.

Horrela L. de Ayanbe ezizenez egin zuen teatro kronika batean, Toribio Alzaga bere Euzko Iztundea antzeztaldearekin parte ematen zuen Shakespeareren *Macbeth*, euskaraz *Irritza* izenez moldatuaz eta 1924eko abenduaren 21ean Antzoki Zaharrean emandakoaz, honakoa zioskularik:

---

(8) Gregorio MUJIKA (Ormaiztegi, 1882-Donostia, 1931): *Jeme, Berrizale, Zarzale, Deñoka'tar Goserio...* ezizenez.

(9) *Txinparta Buruzagi edo irugarren karlatar-gudatea, Kaiku, Abertzale ta irritsua.* Donostia, 1921-1922, I, 13-14; II, 9-10; III, 13-15; IV, 13-15; ...; VI, 9-15. *Teatro osoa euzkeraz (Obras completas de teatro vasco)*, (Aurrerantzean TOE) 3 T., Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1977, 35-55.

(10) Labayen'dar Andonin M.ª, 1923, "Euskel-Antzertitzaz", *Euskal-Esnalea*, 234-235 z., 101-104, 121-123.

(11) "Temporada invernal 1952-1953 de teatro lírico (vasco)", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1953, XII, 98-99.

Admitido que el ensayo fue afortunado, tengo para mí que en la hora presente es estéril y prematuro hacer más experiencias en ese sentido... Necesitamos reproducciones más o menos sublimadas de la vida vasca y a la medida de la aptitud receptora de nuestro público.

Alegia, horrelako esperimenduak goiztiar eta alferrikakoak zirela, eta ikuslegoaren harrera ahalmenari egokitutako ikuskizunak behar zirela. Gauza beretsua zioen urte zenbait beranduago Piarres Lafittek (12) Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia eta Santi Onaindiaren idazle klasikoen itzulpenez:

Zer pentsa Sopokeleren trajeriez? Errazago direla grekeraz euskeraz baino. [...] Eskual-unibertsitate edo Ikastegi goien bat eraik baladi egun batez jalgi berria daukuten itzulpena arras baliosa litake, goreneko mailean litazken ikaslentzat. Anartean badut beldurra irakurle gutti izanen duen, zeren holako lan batek ez baitu oraikotasunik.

Dena den, ene uste apalez eta jakina denez, aitzindaririk, bide urratzailerik gabe ezin da aurrera egin, eta, beraz, ez dute gure txaloak baizik merezi gure muga hertsiak zabaltzeko buruturiko saio eta ahalegin horiek.

1931. urtean, uztailaren 22an hil zen Gregorio Mujika, eta berekin eraman zuen hogei urte luze biziarazi zuen *Euskalerriaren Alde*, euskal antzertiaren oihartzun ongarria. Baina utzi zuen lekukorik, esan baitezakegu lekukoa, alde batetik, Aitzolek hartu zuela kultura arloan *Yakintza* (1933-36) aldizkaria sortuz eta, bestetik, Labaienek *Antzerti*-rekin teatro munduan.

Honek dagoeneko idatzirik eta argitaraturik zituen zenbait antzerki, hala nola *Ostegun-Gizena* (13) eta *Euskal-Eguna* (14), hiru ekitalditan burututakoa. Hona zein iritzi eman zuen Lizardik (15) bere adiskide Labaienek 1931an plazaratutako *Euskal-Eguna*-z, aste honetan Euskadi irratian Joxe Ramon Zubimendiren eskutik eta ahotsetik berreman dena:

Esku antzetsuz tajututako lana da. Egintzean banaketa txit egoki: badute zeñek-bere nortasuna, gaiez, garaiez ta notiñez ere. Ikaslearen gogoa tenka dagoke, aspertzeka.

Elkar-izketa, jario errezekoa ta ateraldi gazi ugariez maniatua. Irria noiz-nai datortza ezpañetara, ustegabean.

Ene adiskide onek badu ziñez (ongi ezagutzen baitet) urkoa ta urkoarena begi jostalariz ikusteko aalmena. Eusko-aldarte jatorrekoa da. Sagardo bikañak ere bear izaten ditu alako bunbulo bakan "ttipitto" batzu, beetik gora ta ontzi garbiari itsatsiak.

(12) Piarres LAFITTE, 1990: *Euskal Literaturaz*. Patri Urkizuren edizioa. Erein Donostia, 28.

(13) *Ostegun-Gizena*. 1930, Tolosa, Navarro, Del Teso y Cia.

(14) *Euskal-Eguna. Iru ekitalditan antzerkia*, 1931, Tolosa, López Mendizabal. Berredizioa, Habe, Donostia, 1993 Joxe Ramon Zubimendiren egokipenarekin. Antzoki iluna saila, n.º 13.

(15) J.M. AGIRRE: "Lizardi'tar Xabier", 1931, "Atari-Jarduna", *Euskal-Eguna*. Tolosa, López Mendizabal, 4.

Bizitzearen gozoa, munduaren alaia, ongi sumatzen ta ematen daki gure gizonak. Barka dezaidala, baña, ikusi batean, zalantza naiz ez al-digun euskalegun irrikoitxoegia eman...

1931an ere eman zuen Donostiako *Novedades* aretoan, *Euskal-Esnaleak* eraturik abenduaren 21an hitzaldi bat, *Euskel Antzertia'ren edestirako apur batzuek* (16) deitu zuena, eta euskal teatroaren lehen historiatxotzat jo dezakeguna. Honekin ase ez zelarik, gerra piztu arteraino iraun zuen *Antzerti* aldizkaria sortu zuen 1932an, euskeraz izan den antzertiari buruzko lehen errebista, eta hona zer zioen bere aurkezpenean (17):

Gaur lenengoz, irakurle maitea, Antzerti *azaltzen zaizu.* Antzerti *bai, au da; Euskel-Antzertiaren aldizkingia. Txiki ta apal datorkizula egia da; baita ere ordea, asmo aundi ta uste onez ornitua. Guziak, euskera ta gure Erria, antzertiaren bidez, suspertzearren.*

Asmo oriek bete al izango ditugun ala ez gure adiskiden eskuetan dago. Ez ba'diguzute laguntzarik ukatzen ez degu utsegingo ta gero ta geiago gaur sortu dan aldizkintxo auxe sendotzen ta edertzen aleginduko gera.

Bete zituen bai asmo haiek 54 ale izan zituen gerraurreko aldizkari honek. Bertan era guztietako antzertiari buruzko albiste eta berriak agertzen zaizkigu. Bai bertako bai eta kanpoko antzeztaldeen gora beherak xeheki. Hala Ostrowski eta Gorki errusiarrez nola Pariseko *L'Atelier, Les Quinze* eta *Arlequin* antzeztaldeez mintzatzen zaigu, Zumalakarregiz antzerki bat idatzi zuen Friedrich Senbold alemanaz, Flandriako kristau antzez talde eta antzerkigileez, Bretainakoaz eta beste.

Hileko gertaera nagusienak, etxeko zurrumurruak, aholkuak, jakingarriak, eusko filmeak, Gipuzkoan ez ezik Lapurdin eta Bizkaian antolatzen ari ziren eta ematen ziren ikuskizunak, irratian antzertiak zeuzkan agerraldi edo, hobeto esateko entzunaldiak, batez ere Beorlegi eta Egilegorren ahotsen medioz, antzerti sariketak, 1934-35 eta 36an eman ziren Eusko Antzerti Egunak eta bere aurreko antzezemanaldiak, eta batipat 54 aleetan 46 antzerki argitaratu ziren. Horietarik zenbait gaztelaniatik, frantsesetik, alemanetik edo grekeratik itzuliak, agertzen diren antzerkigileak, itzultzaileak barne hartuta 22 direlarik (18).

Errepublika garaiko Antzerti Kronika egin nahi duenari ezinbestekoa zaio, noski *Antzerti* aldizkarira jotzea, hala nola *Aintzina, Gure Herria, Argia, Euzkadi, El Día*, edo beste aldizkarietara.

Ez ditut hemen aipatu gabe utzi nahi garai hartan Ixaka Lopez Mendizabalek eta Jon A. Irazustak itzulitako Martinez Sierraren *Canción de cuna* eta

(16) Andoni M. LABAYEN, 1933: *Euskel antzertia'ren edestirako apur batzuek*. Tolosa. Lopez Mendizabal'en etxean.

(17) *Antzerti*, 1932, 1.go zenbakia. T. Alzaga, *Aterako gera!*. Ilbeltza. Tolosa.

(18) Patri URKIZU, 1984: *Euskal Antzertia*. Antzerti zerbitzua. Eusko Jaurlaritza, Donostia, 132-133.

Madrigal-en, hau da, *Seaska-kanta* (1932) eta *Losintxak* (1933), antzeztu zituztenak, hala nola Lizarditarrak izenarekin Lizardiren *Artatxuriketak* eta *Ana Joxepa ta Lizarbe* (1935) obretan parte hartu zuten tolosar gizon eta andereño antzezlari jajoak: Elosegi, Perez Izagirre, Galdona, Insausti, Esnaola, Leunda, Muñoa, Urkiola ahizpak, Munita, Artolazabal, Sansinenea, Agirre, Brau eta Ayerza... Bihoakie txalo bero-bero bat garai haietan zuzia pizturik mantendu zuten euskaltzale jator haiei.

Bertan ere *Matxingorri* ezizenez agertu zituen Labaienek bere antzertiari buruzko iritziak. "Ondo antzezteko bidea", "Komeriak idazteari buruz", "Aolkuak", "Euskal teatroa nolako", eta "Antzezlari talde batzarren egitekoaz", titulua zeramaten artikulu labur baina mamitsutan. Alegia, obra egokiak hautatzeaz, banaketa aproposaz, ahotsaz, deklamazioaz, jantziaz eta kosmetikaz, irria luze eta negarra labur behar direla, eta beste.

Hona perla bitxi gisara teatroan abertzaletasun gehiegixko nabarmentzeaz zioena:

> *Idea edo gogai "ba ezpakoa" dago gure artean antzerki aberkoia danari buruz. Askok usten dute antzerkian ez ba'da aitatzen politika arakoa; ez bada esaten, aria etorri ala ez, euzkotarrak gerala eta ez beste ezer. Gure aberria Euzkadi dala edo beste onelako aitorpenak; azkatasuna gora ta bera; ta bear ba'da ez ba'dira bizpairu antzez-lagun erailtzen, usten dute, ura ez dala antzerki aberkoia. Oker au zuzentzearren zerbait esan nai nuke.*
>
> *Abertzaletasuna zabaltzeko egia da egin ditezkela antzerki lan ederrak. Orretarako teatroa biderik onenetakoa da. Bañan ez da aztu bear lenen-lenengo baldintza teatroa'n zur eta neurriz jokatzea dala (19).*

Zuhur eta taxuz, beraz, jokatu behar zuen egileak eta ahalegin guztiak egin edergose zen ikuslea, ikusle arrunta asper-asper eginda antzokira gehiago ez itzultzeko erabakiarekin bertatik irten ez zedin.

Pizkunde hark, tamalez, etenaldia ezagutu zuen anaien arteko gerra zibilarekin, eta beste hainbestek bezala Labaienek, Tolosako alkate abertzaleak 1933az geroztik, erbesteko bidea hartu beharrean suertatu zen, baina bestaldean anaia euskaldunen babesa eta laguntza topatu zuen, Sarako herrixka pollit-pollitean, hain zuzen. Hauxe dio beraxek *Muga* (20) antzerkiaren aitzin-solasean:

> *Mme DUTOURNIER'i*
>
> *Egun batez mugatik igesi nentorrela ezagutu nuen SERORAENEA'ko Etchekandre bihotz zabalari, gaur esker on eta adiskidetasunez opa diot ene baitako "puska" chume hau.*
>
> *Ez ahal dute mugazainek atzemanen.*

(19) *Antzerti*, 1934, 31 zenbakia. Uzta, Tolosa, 49.

(20) *Muga*. 1951, Irri-antzerkia, ekitaldi bitan. *Eusko Jakintza*, V, 293-308; 1952, VI, 194-206; 1954, Bayona.

Nere iduriko ere, ez zuela luzaro luma kamusten utzi gerra garaian. A.M.L. hizkiez estaltzen den antzerki itzultzailea bera delakoan bainago. Alegia, *Gachucha, Gure Herria*-k (21) 1938. urtean argitaratzen hasi zenarena.

Zortzi urte luze erbestean iragan ondoren, berriro Tolosan hasi zitzaigun baratxe-baratxe teatro berriak emanez. Hasiera batean gaztelaniaz, noski, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada del País* aldizkarian, eta 1953an, hau da, bi urte geroxeago *Egan*-en, eta Xabier Lizardiren *Ezkondu ezin ziteken mutilla*-ren itz-aurrea emandakoan, euskaraz.

Ez bakarrik *Egan*-en, itsasoaz bestaldean argitaratzen hasi zen *Euzko Gogoa*n plazaratu zituen Labaienek zenbait antzerki (*Lurrikara* (22), eta *Jostuna* (23), baita ere Bizkaian Santi Onaindiak zuzendutako *Olerti*-n Bertolt Brecht-en eta Plautoren obra itzuliak emanez (*Bai esalea, Ez esalea* (24); eta *Lapikoa* (25)).

Polliki-polliki, baina etengabe, urte haietako kronista dugu Labaien, eta gogoeta-komentarioak bilduz iritsiko zaigu, hala nola, besteak beste, Olaizolaren *Oleskari zarra* operaz (26), Etxanizen *Euskal-Antzerkiak* (27), edota Pedro Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna*-z (28) bere iritzi-miritziak emanez. Azken honen komentarioan Gabriel Arestiri "pormalidade" pixkat gehiago eta hiperbole gutxiago eskatutakoan, hauxe esaten digu:

> *... beraz, gure Barrutia'k, nere ustez, ez zuan gauza berri aundirik sortu baizik erdal literaturan eta antziñatik prantsez "moralités" eta antzeko liturji-teatrotik zetorrenaz baliatu.*

Donostian 1960an sortutako *Jarrai* antzeztaldearen saio berrizaleen aurrean, hau da, Tennesse Williams, John Priestley, Eugene O'Neill, Henrik Ibsen eta beste esperimendu aurrerazale eta ederrak zirela eta, ez zegoelarik oso konforme hona zer idatzi zuen:

> *Teatroa berritu bear omen! Ondo dago asmoa, bañan Katua zinkezko tellatu gañean* ta antzeko berrikeri ezezerezak egitekotan obe da klasikotan geldi-tu (29).

---

(21) "Gachucha, «Bécassine» de Leone Calvez et Henri Caouissin, adapté à la scène basque", *Gure Herria*, Bayonne, 1938, 106-113.

(22) "Lurrikara. Lau ekitalditan", *Euzko Gogoa*, 1955, VI, 115-138.

(23) "*Jostuna*. Bi ekitalditan antzerkia neskatxa bakarrentzat", *Euzko Gogoa*, 1956, VII, (Iraila-Urrila) 20-40; VII, (Azila-Gabonila) 20-27; (Ilbeltza otsaila), 12-28.

(24) *"Bai esalea, Ez esalea"*, Bertolt Brecht-en itzulpena, *Olerti*, 1963.

(25) "Lapikoa", Plautoren itzulpena. *Olerti* 1969.

(26) "Oleskari-zarra (ópera de J.M. de Olaizola)", *BRSVAP*, 1953, IX, 131-135.

(27) ETXANIZ, N.: "Euskal-Antzerkiak", *Egan*, 1959, XII, 95-99.

(28) "Pedro Barrutia Mondragoiko Eskribauaren GABONETAKO IKUSKIZUNA (Acto para la Nochebuena)", *Egan*, 1961, 4-6, 249-252.

(29) "Erri-teatroa", *Egan*, 1960, XIII, 73-75.

Koldo Mitxelenak, bere aldetik, *Malentxo alargun* (30) komeria 1962an plazaratu zuenean erreseinan hitzok idatzi zituen:

> *Labayen jauna eraberritzeko gogoz euskal teatroan agertu zenez gero —eta aspalditxo agertu zen, hemen bere lanen berri laburrean ikus daitekeenez—, ez du hutsik utzi aurreneko hartan hartu zuen leku jasoa. Patxadan, itobeharrezko presarik gabe, aurrera darama hasieran hartu zuen asmoa, gero eta trebeago, gero eta maixuago. Ez die berritasunei ez berrikeriei muzin egiten, baina ez du uste haize berriei atea zabal-zabalik irekitzeaz gehiegizko irabazirik izango genukeenik. Leialki dabilkio ondotik atzoko teatroari, atzokoa ez ezik, gaurkoa eta betikoa ere delakoan. Ez dabil oker, noski (31).*

Labaien izan zen zenbait aldiz Mitxelena, Euskaltzaindia eta Orixeren arteko bitartekari, eta badira honetaz gutun benetan interesgarriak, baina Koldok eta Antoniok elkarrekin izan zuten gutun gurutzaketaren adierazgarritzat eman dezakegu ondoren emango dudana, non osasun eta diru kontuetaz aparte, antzerti gorabeherak ere aipatzen diren:

Tolosa, 1963-III-12

> *Agur Koldo: Zure azken eskutitzari erantzunez adieraziko dizut Tauer jaunari bidalitako liburuen ordaña, ots, Auspoa 1963 arpidea, pts 270 eta Anuario E. Folklore 80 = 385 pts dirala guzira (!). Beraz gutxi gora bera ark esandako zorra.*
>
> *Nolanai, dirutza ori eskura nai badidazu aski duzu Fausto Arozena'ri uztea jaso dezadan arengana noalarik.*
>
> *Ez beintzat orregatik zere burua larritu. Lasatasunak asko balio bait du mundu ontan. Ea bada zure kinka txarra garaitzen duzun zure lanetan eroso jarraitzeko. Aspaldi zamar lantxo bat igorri nizun "Praile itz totela" deritzana ta EGAN argitaratzeko din ez ba derizkiozu, arren itzuli zaidazu atzera, beste nunbait artzen ote duten. Eskean ari zaizkit eta.*
>
> *Oraintxe orain eskuartean Dürrenmatt'en "Der Doppelgänger" antzerkitxoa dizut. Euskeraz itzulia dut eta GIZONA eta KIDEA izentzat eman diot. Beste izen egokiagorik sumatuko ba zenu, otoi, ikusarazi zaidazu. Antzerki arras labur ta berrikera duzu, 16 orrialdetan errez sartuko lizatekena urrengo EGAN-en banakoan.*
>
> *Zure berrien zai beti zure...* (32)

Dürrenmmatt-en itzulpena urte horretan bertan plazaratu zen, baina *Praile itz totela*-ren berri ez dut aurkitu, adierazten didanak egiteko dagoela oraindik Labaienen lan guztien, argitaratu eta argitaragabeen zerrenda benetan osoa. Labaienek han-hemenka sakabanaturik zituen ideiak, oharrak, azterketak, elka-

(30) *Malentxo, alargun! Komeria iru ekitalditan*, Zarautz, Itxaropena, 1962.

(31) K. MITXELENA, 1962: "Antonio Maria Labayen, malentxo alargun! komeria iru ekitalditan", *Egan*, 4-6, 303.

(32) Donostiako Koldo Mitxelena Kultur unea. Julio Urkixo ondarea. 091 Mitx. cor.

rrizketak, liburu zerrendak eta artikuluak bilduz lan mugarri eta nagusia plazaratu zuen 1965ean, alegia, *Teatro Euskaro* bezala bataiatu zuena.

Mugarri, zeren bi liburukitan agerturiko *Notas...* eta *Entrevistas...* direlakoak oinarrizkoak diren euskal teatroaren nondik norakoaz zerbait jabetzearren eta, zer esanik ez, euskara ez zekitenentzat, erdaraz egindako lehen saioa izan baita (33), eta neronek zertxobait osatuz duela bi urte egindakoa (34) agertu arte bakarra.

Egia da, ohar horiek zertxobait zaharkituak gelditu direla Euskal Antzertiaren etorkiaz dagokionean bederen, zeren geroztikan albiste, ikerketa eta lan mordoxka —ez gogoko genukeen adina, egia esan—, argitaratu baita. Adibidez, ez dira aipatzen ez Jean-Alexandre Buchon, ez Lope Martinez de Isasti, ez Otxoa Kapanagakoa, ez geroago Piarres Lafittek plazaratu Allande Oihenarten 1665ko *Art Poétique basque*, edota neronek bildu ditudanak bai *Jundane Jakobe Handiaren Trageria* (35) aztertu eta plazaratzerakoan, bai *Zuberoako Irri-teatroa*-ren bilduma (36) argitara eman dudanean.

Laburzki esanda, baditugula albisteak XV. mende bukaeran (Iruñean, 1494ean, adibidez), 1530ean Baionan, 1565ean Donibane Garazin, 1566an Lesakan, Oiartzunen XVI. mende bukaeraldean Joanes Larrumbideren eskutik, 1599an Errenterian, 1602an Hondarribian, 1614ean Donostian, 1643an Otxoa Kapanagakoaren zuzendaritzapean Durangon eta, beraz, Euskal Herriko probintzia guztietan barrena, zeinetan adierazten den teatro ikuskizunak ematen zirela.

Dena den, funtsean bat dator Labaien Vito Pandolfi-k (37) dioenarekin, alegia, antzertiak eta bereziki liturgi dramak bilakaera komuna izan duela europar nazio guztietan, zenbait alditan eliza beraren etsaigo nabarmena pairatu arren, honen adierazgarri liratekeelarik hainbat eta hainbat teologo, kontzilio eta sinodoren debekuak, batez ere Eguberri, Bazko edota lekuko saindu zaindariaren festa egunen inguruan, errepresentazio sakratuekin batera ematen ziren jokaldi profanoen kontra.

Honen adierazgarri dira adibidez Juan Kruz Labeagak (38) bildutako bai Logroño bai Iruñeko Konstituzio Sinodaletan ematen diren debekuak

(33) *Teatro éuskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco.* Tomo I; *Teatro euskaro. Entrevistas, Reseñas, Crónica. Catálogo de obras dramáticas.* Tomo II. Auñamendi, San Sebastián.

(34) Patri URKIZU, 1996: *Historia del teatro vasco.* Orain, Donostia.

(35) Patri URKIZU (ed.), 1996: *Jundane Jakobe Handiaren Trageria (1634). Lehen euskal antzerkia.* Bilduma 10, 131-294, Errenteriako Udala.

(36) Patri URKIZU (ed.), 1998: *Zuberoako irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques.* Préface de Jean-Baptiste Orpustan. Editons Izpegi. Baigorri.

(37) Vito PANDOLFI, 1989: *Història del teatre.* I. Institut del teatre. Barcelona.

(38) Juan Kruz LABEAGA, 1995: "El teatro en Viana en los siglos XVI y XVII", *Príncipe de Viana*, n.º 205, Pamplona.

1539 ... *que las vigilias que se celebren en las yglesias y ermitas no dancen ni baylen dentro delllas, ni representen farsas sino fueren conformes a las festividades que se celebran...*

1545 ... *ordenamos a los curas y clérigos que no hagan ni permitan hacer tales representaciones...*

1590 ... *ordenamos... ni se disfrace para hazer representaciones profanas ... so pena de dos ducados para pobres, y execucion de justicia, y diez dias en la carcel...*

... ordenamos, y mandamos que ninguna persona ecclesiastica, ni seglar use de vestimentas sagradas, que la Iglesia tiene para su servicio, en ninguna representacion profana, o auto, ni en ellos introduzgan clerigos , ni frayles, ni monjes, ni otras personas ecclesiasticas, so pena de excommunion mayor y de seys ducados... (39)

Debeku guzti horiek, hala nola aipatu obra guzti horiek adierazten digute teatroa dudarik gabe gure herrietan bizi izan zela XVI eta XVII. mendeetan, bere ikerketa tamalez behar adina ikertua ez dugun arren. Lafittek zehazki hitzokin eman zion ongietorria *Herria* astekarian *Teatro euskaro...* liburu bikoitzari:

> *Antonio Maria Labayen da teatro-gaietan Eskual-herriko gizonik adituena. Ez du bakarrik izkiriatu hainitz obra, molde guzietakoak, bainan beti danik ari izana da teatrolarien berotzen eta akulatzen. Bertzalde, ez nahiz bere xokoan mutxitu, urrungo airea ere hartu du arrotz herrietako teatroaren herri bilatuz...*
>
> *Orai dugun aitor teatroari buruz ez daudela teatrolari guzi-guziak Labayen jaunarekin adox, xehetasun guzietan. Batzuek hetxiegi aurkitzen badute, zeren den lege zaharren frango atxikia eta bereziki errespetuari, askok ez ote dute zabalegi kausituko, zeren lirikari edo dantzari leku emaiten baitiote komedian? (40)*

1965eko irailaren 25ean Donostiako herri liburutegian Euskaltzaindiak eratutako teatro-hitzaldi sortan zortzi urte beranduago *Teatrogintza eta Yakintza* (41) liburuan plazaratu honako titulua zeramana eman zuen: "Aspaldiko teatro-zale bat oraingo teatroaren aurrean". Bertan diosku, gazte itxura gordeagatik gerria gogortzen hasia zeukala, bihotza epeltzen eta oraindik okerrago zena, burua, barne-muinak ihartzen. Halere, ez dut uste hala zenik, beste hogei urtez gutxienez lanean arituko baitzitzaigun.

---

(39) *Constitutiones Synodales del obispado de Pamplona, compiladas, hechas, y ordenadas por Don Bernardo de Rojas, y Sandoval, Obispo de Pamplona, del Consejo de su Magestad, &c, En la Synodo, que celebro en su Iglesia Cathedral, de la dicha ciudad, en el mes de Agosto,* de MDXC, años. En Pamplona, por Thomas Porralis, MDXCI, 120v, 121.

(40) Piarres LAFITTE, 1965: "Teatro euskaro", *Herria*, 17-24, VI.

(41) Antonio M.ª LABAYEN, 1973: *Teatrogintza eta Yakintza*. Kuliska sorta, 77, Zarautz. 67-88.

Egia da, hitzaldi horretan Lafittek esaten zuen bezala, modu zaharren frango atxikia ageri zela, eta ez batere moda berrien zale. Esate baterako teatroaren historian gailurtzat har daitezkeen hainbat autore (Lope de Vega, Shakespeare, Goethe, Pirandello, Camus, Dürrenmatt, Brecht...) aipatu ondoren dadaismoaren eta bere izter-lehengusuen, sasi-eskola berrien kontra jasoko du bere ahotsa: *Dadaista aiek, asmo zuzenez, gizarteko gaitz, diruaren morroitza, justizia eza, bidegabekeria, sendatu gura zutekean. Zakur-amets urdiña!* (42)

Eta hitzaldiaren beste zatitxo bati honako goititulua ematen zion "Bide berriak bai, bainan ez okerrak". Noski, honek burura dakarzkigu gerraurrean Lauaxeta eta Lizardiren poema liburuen gainean sortutako eztabaidak, eta nola Lizardik erantzun zien zenbait artikulurekin, hauen artean "Bide Berriak? ... Bide Guziak" eta nola "Rumbos peligrosos" izenekoan bere iritzia hitzotan hezurmamitzen zuen:

> *El progreso de una literatura no se puede dirigir a golpes regidos de batuta sino que es preciso admitir la variedad simultánea de diversos estilos, desde el bertsolari más primitivo, hasta el novista más rabioso, pues la obra de éstos, como un poco de vanguardia al fin, ejerce siempre cierta acción de levadura (43).*

Alegia, legamiak eragiten duen moduan eragin dezaketela abangoardiek, baina badirudi bide okerrak, bide makurrak bezala jotzen zituela Labaienek dadaismo, surrealismo, absurdo munduan murgildurik zebiltzanak. Eta "Teatroa erbeste eta gurean" (44), adibidez, saio horiek eta Grotowskiren eta antzekoenak arlotekeriatzat jotzen zituen arren, nik, beti gogoko izan ditut aitzindariak eta zakur-amets urdinak arte ederretan, batez ere fantesiari, irudimenari eta sormenari leihoak ireki izan dizkiotelako, eta arruta arruntetarik ihesi izpiritua aberasten eta gizonaren orotasuna konprenitzen ahalegindu izan direlako.

Halere, aitortu beharra dago beste inor baino gehiago saiatu zela beste hizkuntzetatik gureganatzen atzerriko antzerki obra ospetsuenetarikoak, eta gure teatro murritza aberasten. Jadanik gerraurrean frantsesetik moldatuak zituen Henriette Charasson'en *Séparation (Berezi)* (45), eta antzinako *Joyeux sermon du mariage* (Irri-Itzaldia) (46) bezala itzuli zuena, eta Antzerti bilduman plazaratuak.

Interesgarri deritzogu ere alemanetik haurrentzat ondu zuen antzerkitxoaz zioena errepikatzeari:

---

(42) Aip. lib., 78.

(43) *Argia*, 1993-II-12.

(44) Aip. lib., 91-144.

(45) Henriette CHARASSON: *Séparation, Berezi. Antzerti* 31, Tolosa, Lopez Mendizabal, 1934.

(46) *Irri-itzaldia.* (Eztaietarako). Antziñako "Joyeux Sermon de mariage" batetik euskerara itzulia, Antzerti 31, Tolosa, Lopez Mendizabal, 1934.

Onelako bat "Don Bosco Verlag" (Munich, 1966) liburutik artuta euskeratu ta nere gisara antolatu dut: PERRETXIKO-JATEA izenez bataiaturik. Bateon-batek sukalde-teatrotzat jo lezake (Brecht'en KULINARISCH, alegia). Eta zer? Gauza txarra alda sukaldea? (47)

Aipatu ditugun frantses lan horiek eta Brecht eta Dürrenmatt-en itzulpenez aparte beste zenbait ere egin zituen benetan lehen mailako idazleenak zirenak eta teatroaren historian aipatuenetarikoak direnak. Esate baterako, dadaismoaren, surrealismoaren eta absurdoaren antzertia sortu zutenen artekoen (Samuel Beckett, Fernando Arrabal...), hots, gizonen arteko komunikazio ezintasunaz eta gizonaren desegiteaz mintzatzen zaigun Eugène Ionesco-ren *Neskatila ezkongai* (48) (1964). Piscator-en eskolakoa eta nazioartean antzerti baliorik tinkoenetakoa den Max Frisch-en *Su emailleak* (49) (1966). Kristo aitzin II. mendean bizi izan zen eta Komedia Berriaren sortzaile eta komediagilerik indartsuenetakoa, eta Errenazimendutik egundaino antzerkigilerik moldaberrituena izan den Plauto-ren *Lapikoa* (50) (1969). Eta Galiziako antzerki espresionista sortu zuen Alfonso Castelao-ren *Agureok maitemindu bear ez* (51) (1984).

Antzerti-ren bigarren aroa sortu zenean 1982an eta bertako antzezle ikasleak jotake lanean grekar tragediarekin borrokan hasi zirenean hona utzi zigun iritzia:

Eta oraingo teatrozale berriok TROYAR EMAKUMEAK ikasten lehertu dira. Ene iritzian bide honetatik euskal teatroak indar gutxi hartuko du eta erakar ahalmen eskasa Aristofanes bere Lysistrata eta nabarmenkeriaz josia etorriagatik. Hortxe nonbait eta gainerako kaikukeria eta lapikokeriez alaitzera ba datorkigu ere (52).

Ikasle haiek, ordea, gaur egun antzezle benetan onak dira zein nahi obrari arrakastaz heltzeko gai, eta hor dugu, adibidez, Elena Pimenta *Ur-teatro* antzeztaldeko zuzendaria, bere Shakespeare-ren moldaketekin eta euskal antzezlariekin munduan barrena ikuskizun paregabeak eskaintzen.

Dena den, amaitzeko eta laburbiltzeko esandakoak, esan dezadan Labaienen merituak euskal antzertian kontaezinak direla, eta mereziko lukeela orain Tolosako herriari eta dagozkien erakundeei proposatu nahi diedan egitasmoa burutzea, ahal izanez gero.

ALAIE, hau da, Antonio Labaien Antzerti Ikerketa Egoitza sortzea, honen helburuak hauexek liratekeelarik:

---

(47) "Aur-teatroa edo antzerkiak umeentzat", *Egan*, 1967, XXVI, 177-179.
(48) *Egan*, 1964, 1-6, 154-179.
(49) *Egan*, 1966, 1-6, 165-215.
(50) *Olerti*, 1969.
(51) *Antzerti* 70, 1984.
(52) "Euskal teatrogintza", *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXIX-2, 1984, 247-260.

1. Antonio Labaienen obra osoa behar bezala eta duintasunez, alegia, behar dituen oharrez eta ikerketez hornituz argitaratzea.

2. Euskal antzertiaren eta erdal antzertiaren liburutegi ahalik eta osatuena bideratzea.

3. Egunotan ospatzen ari diren bezalako beste jardunaldiak antolatzea eta plazaratzea.

4. Antzertiari buruzko era guztietako ikerketak bultzatzea.

5. Euskal Herriko antzeztalde guztientzat behar-beharrezko dokumentazio eta erreferentzi-leku bilakatzea.

Eta besterik ez. Mila esker zuen arretagatik.

EL TEATRO VALENCIANO EN SU CONTEXTO FESTIVO

Tolosa, 13-XI-1998

Josep Lluís Sirera,
Universitat de València

El marco cultural e histórico

Uno de los problemas fundamentales con que nos encontramos tanto los historiadores del teatro como los antropólogos y, en general, los historiadores de la cultura, es la gran complejidad del País Valenciano. A la dualidad que constituiría la esencia misma de su formación (1), y que estaría justificada por la presencia de repobladores catalanes y aragoneses asentados a partir del siglo XIII en el recién creado Reino de Valencia, habría que unir la existencia de una importante población morisca, que en el año de su expulsión (1609) todavía representaba el treinta por ciento del total de los habitantes del Reino (2). Y no sólo esto: porque no podemos olvidar que tras la división provincial de 1833, en 1849 el País Valenciano vio sus fronteras ampliadas substancialmente al integrársele varias comarcas que habían pertenecido hasta aquel momento a Castilla, y que poca o ninguna relación guardaban, ni en lo lingüístico ni en lo cultural, con las valencianas.

Como es bien sabido, especialmente a partir del fundamental estudio de Joan Fuster citado en nota [1], la dinámica histórica valenciana se ha visto profundamente afectada por esta complejidad. Y, de forma semejante, lo ha sido la vida cultural. De aquí que un estudio de las formas de la cultura popular del pueblo valenciano necesite tener bien presente todos estos factores. Y necesite, igualmente, no perder en ningún momento de vista que la afirmación

(1) La formulación clásica de esta dualidad en: Joan REGLA, *Aproximació a la història del País Valencià* (València, L'Estel, 1968). Se recogía en esta obra, en lo esencial, lo afirmado por Joan FUSTER en *Nosaltres els valencians* (Barcelona, Edicions 62, 1962). Las obras históricas más recientes han matizado en parte estas afirmaciones, pero sin llegar a cuestionar nunca lo esencial de esta tesis: la complejidad histórica de la evolución del País Valenciano y la existencia en su interior de realidades muy diferenciadas. Vid., por ejemplo: VV.AA.: *Història del País Valencià* (Barcelona, Edicions 62, cinco tomos, 1990), o Ernest FURIÓ, *Història del País Valencià* (València, Institució Alfons el Magnànim, 1995).

(2) A las obras citadas en la nota anterior, habría que añadir: E. CISCAR y R. GARCIA CARCEL: *Moriscos i agermanats* (València, Tres Quatre, 1974) y Joan FUSTER: *Poetes, moriscos i capellans* (València, Tres i Quatre, 1986).

de las particularidades, de la especificidad si se prefiere, de la cultura valenciana no puede erigirse como frontera que separe tajantemente el marco cultural valenciano de su contexto natural: el de la cultura catalana, como —mucho menos todavía— tendría que aislarse el valenciano del catalán, del cual no es sino uno de los dialectos que lo configuran (3). Ahora bien, esta necesaria contextualización tampoco tiene que hacernos perder de vista que, al igual que desde el punto de vista lingüístico el valenciano es uno de los dialectos constituyentes del catalán occidental, desde el cultural —y desde el antropológico— el folclore valenciano se relaciona más estrechamente con el de la *Catalunya Nova* (comarcas incorporadas al Principado de Cataluña a partir del siglo XII) que no el de las comarcas que conformaron originariamente la *Marca Hispánica*.

Resulta evidente que la conjugación de todos estos factores se ha traducido en la configuración de un universo folclórico particularmente complejo, con un alto grado de hibridación, visible en todos los terrenos, incluido el festivo. Un universo cuya preservación hasta tiempos relativamente recientes ha venido favorecida por el carácter predominantemente *rural* que la sociedad valenciana mantuvo hasta avanzado el segundo tercio del presente siglo (4).

Esta preservación ha tenido, desde luego, factores positivos. El más importante, convertir las diversas manifestaciones folclóricas en un elemento de identificación comunitaria, mucho más fuerte que la historia o que la lengua. Muchos valencianos viven, en efecto, las fiestas o la gastronomía como la única forma posible de manifestar su pertenencia al pueblo valenciano y, a la inversa, los que han deseado integrarse en él han recurrido a participar en las fiestas para lograrlo. Tiene esto, desde luego, un aspecto negativo: hacer una lectura empobrecedora y excluyente de lo que significa ser valenciano, en perjuicio de formas más articuladas —y *racionales* si vale la expresión— de recuperar la conciencia nacional. En fin, una exaltación de lo folclórico (y de lo festivo) sin un previo ejercicio de reflexión, de racionalización, conduce tam-

(3) El tema. que desborda por completo los límites de este artículo, es de candente actualidad en el País Valenciano, donde los defensores de la existencia de una *lengua valenciana* diferente de la catalana se han encastillado en posiciones de fuerza (en connivencia con determinadas opciones políticas), con el firme propósito de conseguir lo que, en última instancia, se pretende *siempre* que se propugna la fragmentación lingüística: el empobrecimiento primero, la desaparición muy poco después, de la lengua a la que se ha impuesto dicha fragmentación. En todo caso, los trabajos de Manuel Sanchis Guarner resultan hoy día fundamentales para situar —en términos estrictamente científicos— el problema del valenciano y sus relaciones con el catalán. Vid. por ejemplo, Manuel SANCHIS GUARNER: *La llengua dels valencians* (València, Garbí, 1967). Carácter igualmente básico tiene el *Informe sobre la llengua del País Valencià*, dictamen emitido por la Facultad de Filología de la Universidad de València (València, Universidad, 1978).

(4) De dicho carácter no escapaba ninguna de las ciudades valencianas, pese a que en ellas —y desde la época medieval— se hubiese desarrollado una floreciente actividad artesanal y comercial. Para el caso de la capital, Valencia, continúa siendo modélico el estudio de Enric SEBASTIÀ: *València en les novel·les de Blasco Ibáñez: proletariat i burgesia* (València, L'Estel, 1966).

bién a una exaltación de la fragmentación, del localismo llevado a la exasperación, que acaba en la ignorancia mutua, cuando no en el desprecio, entre las diferentes poblaciones valencianas (5). En definitiva, a la fragmentación, al aislamiento, a la ruptura de la concepción unitaria de pueblo...

Niveles de relación entre teatro y fiesta

Planteada así la importancia de las fiestas en el contexto cultural valenciano, cabe preguntarse ahora hasta qué punto es lícito establecer relaciones entre ellas y el teatro. Un puente fundamental entre unas y otro es el que viene establecido por la *espectacularidad* de las primeras. Una espectacularidad que desborda los límites genéricos que para el espectáculo nos brinda Patrice Pavis (6), ya que no sólo implica el hecho de *observar* sino que para el caso valenciano presupone hacerlo de forma activa, participativa (7). Y es este carácter precisamente el que sirve de puente hacia una concepción *teatral* de la fiesta misma. Una concepción que podemos encontrar plasmada en diferentes niveles que —en síntesis— serían:

a) En el más elemental, la fiesta como representación: espectáculo en el que se mimetizan diferentes historias, acciones, etc., dentro del conjunto de las ceremonias festivas.

b) El teatro se convierte ya en un elemento identificable y aislable dentro del conjunto festivo.

c) El teatro deviene elemento central de la fiesta.

(5) Hace ya algunos años, Manuel Sanchis Guarner recogió un impresionante muestrario de esta exaltación de lo local y de rechazo hacia el vecino expresado en términos paremiológicos: *Els pobles valencians parlen els uns dels altres* (València, Tres i Quatre, cuatro volúmenes, 1982-1983). Las rivalidades entre ciudades como Alicante y Valencia estallan, nada casualmente, con ocasión no sólo de los choques deportivos sino con motivo de las fiestas: uno de los rituales que marcan el final de las fiestas de Sant Joan de Alicante consiste, precisamente, en un rosario de virulentos insultos contra la ciudad de Valencia —y los valencianos— proferidos por los asistentes a la quema de las hogueras que se alzan en aquella ciudad durante dichas fiestas.

(6) "Es espectáculo todo lo que se ofrece para ser observado", nos dice sencillamente este teórico del teatro (Patrice PAVIS: *Diccionario del teatro*; Barcelona, Paidós, 1983, p. 191)

(7) Precisamente uno de los grandes problemas de las *fiestas* valencianas en estos últimos años consiste en la creciente disociación entre la vertiente participativa de la fiesta y la de simple observación. Las grandes fiestas *modernas*, alejadas de sus raíces tradicionales, implican un aumento constante de los que las *miran* en perjuicio de los que las *viven*. Las *exposiciones* (regionales, nacionales, mundiales) llevan hasta el paroxismo esta tendencia, que encuentra en los deportes de masas una especial concreción. En otras fiestas, de raíz más tradicional, su *modernización* provoca tensiones y debates: es el caso de las fallas, fiesta participativa en sus orígenes y que se ha convertido en la actualidad en una fiesta esencialmente para *espectadores* pese las posibilidades teóricas de integrarse en ellas, de participar. Vid. el fundamental estudio de Antonio ARIÑO: *La ciudad ritual. La fiesta de las fallas* (Barcelona, Anthropos, 1993).

d) Finalmente, y como coronación de esta escala, el teatro cobra vida autónoma a partir de su separación del contexto festivo en que se originó. O, alternativamente pero desde unos planteamientos epistemológicos diferentes, el teatro hace de la fiesta argumento, o sirve —incluso— a ésta de reflexión.

Veamos con algo más de detenimiento estos cuatro niveles, con sus correspondientes ejemplos.

La fiesta como representación

No haré ningún descubrimiento antropológico, desde luego, si indico que la excepcionalidad temporal y espacial que la fiesta instaura, implica —casi inevitablemente— una serie de mecanismos que suponen la *teatralización* entendida en sentido amplio. Destacaré aquí dos en concreto: el primero, la inversión de roles sociales (de sexos incluso), de acuerdo con el tan conocido principio de "el mundo al revés". El segundo, la asunción de papeles muy codificados, pero alejados de los que sus protagonistas juegan en la vida real; festivalización del principio que podríamos calificar como del "gran teatro del mundo".

Sin pretender entrar en honduras antropológicas y sociológicas, estas dos alternativas las podemos ver bien representadas en las fiestas valencianas, dando pie además a actos y a situaciones de una innegable teatralidad. Veamos ejemplos concretos.

La inversión de roles sociales

Horregatik entseiatu dira ikertzaileak zerbait seinale aurkitzera pastoraletan, aurreragoko mendeetako lekukotasuna zekarrenik (5). Alderdi horretarik autoreek gehienik aipatu duten elementu historikoa, pastoraletan gaiztoei ematen zaien *türk* deitura eta itxura izan da. Vinsonek, Hérellek, bai eta Lafittek ere aipatu dute puntu hau, nahiz ez dituzten ondotik datazio berak atera (Oiharzabal 1984). Ideia da elementu berezi eta garai markatzailea dela türken joko hori Europako antzerki tradizioetan, menturaz Espainiaren konkistara itzularazten duena (13-15. mendeak, Vinsonentzat) (6), edo bederen turkoen beldurra Europan oraino nabari zen garai batera (16. mendea, Hérellerentzat) (7). Gainera, Frantziako eta Italiako literatura dramatikoan turkoen itxura guztiz aldatu baitzen hamaseigarren mendearen hondarrean, turkeriak antzerki elementu irri egingarriak izanik handik aitzina, aitzinagokoa izan behar litzateke Zuberoako tradizioa (Hérelle eta Lafitte) (8).

Aitor dezagun biziki argumentu orokorra dela türken antzezjokoari dagokion hau, dokumentazioaren aldetik euskarririk gabe gelditzen den neurrian,

(4) F. Michelek, halere, bere hipotesia zerbait eztitzen zuen: *A quelle époque peuvent remonter ces sortes de représentations? C'est ce qu'il semble impossible de déterminer. Les sujets que l'on y traite, presque tous tirés de la vie des saints, de la Bible et des chansons de geste, la fixeraient au XIIIe et XIVe siècle, temps où la représentation des mystères et la lecture des romans de chevalerie furent le plus en vogue. Cependant les nombreuses pastorales sur la lutte des chrétiens contre les musulmans, celle qui roule sur la mort de Roland, et d'autres circonstances, feraient supposer que ces pièces sont moins des imitations des mystères qu'une création indigène* (F. Michel, 1857: 52).

(5) Hemen aipatuko ez ditugun argumentuen artean bat seinalatzen dut ohar honetan: pastoral deitura bera, Léonen (1909) arabera horrek Nafarroako Margaritaren antzerkien eragina seinala baitezake. Hitz horren erran-nahi desberdinez, ik. Hérelle (1926: 81) eta Oyharçabal (1981/1991: 08 eta 396).

(6) Honela dio Vinsonek: *Ce qui frappe le lecteur dans les pastorales, c'est la préoccupation constante de faire tourner la pièce à l'honneur de la religion chrétienne, à la honte des Sarrazins et du Mahométisme. La date de ces compositions est ainsi facile à déterminer: elles remontent évidemment aux dernières phrases de ce que les Espagnols appellent la guerre de reconquête, du XIIIe au XVe siècle environ* (Vinson, 1883: XVIII-XIX).

(7) *Il est évident que les Turcs des pastorales sont ceux de la première période* [Lepanteko bataila baino lehenagokoa], *les guerriers barbares et envahisseurs, les mécréants qui mettent en péril la civilisation occidentale et la foi chrétienne; et les oeuvres dramatiques qui les présentent sous cet aspect doivent avoir été conçues au temps où leurs formidables succès militaires et leur marche triomphale vers l'Occident épouvantaient l'Europe, c'est-à-dire entre 1453 et 1571* (Hérelle, 1926: 109).

(8) Lafitteren arrazoinamendua Hérellerenari darraio: *Lepante-ko garaitzatik landa, Frantziako eta Italiako literaturetan Turkoen alderako izialdura ez zen bakarrik eztitu, baina arras itsabasi. Turko gaizoak irringarri bilakatu ziren, eta komedietan "turkeriak" 1578a baino lehen agertu ziren, orduko Jean de Léry idazlea lekuko* (Lafitte, ikus Casenave, *Santa Grazi pastorala*, aitzin-solasa, 10. o).

franko ahula. Literatura herrikoiaren munduan, bereziki nobeletan aurkitzen den hartan, turkoen itxura ez da Frantziako teatro klasikoan bezala agertzen, eta Inperio Turkiarraren beldurrik ez izanik ere gehiago azken mendeetan Mendebaldeko Europan, hemeretzigarren mendea arte iraunen du turkoen itxura basa beldurgarriak literatura herrikoian (Oyharçabal 1981/1991: 09). Eta, dakigun bezala, honetarik hartzen zituzten beti beren gaiak tradizio zaharreko pastoral ontzaileek.

Mintzairako arkaismoak

Beste elementu bat aipatua izan dena, berrikiago hau, pastoralen zahartasunaren erakusteko: mintzaira. Léonen (1909) eta Saroïhandiren (1927) ondotik, Peillenek (1981) du bereziki eta zehazkienik argumentu hori jorratu. Oroz gainetik aipatzen diren zubererazko forma zaharkituak pertsona izenorde indartuak dira (*ore, nure* bezalakoak), eta adizkera trinkoak.

Balio ote dute morfema horiek kopien iturriak hamasei edo hamazazpigarren mendeetan segurki kokatzeko? Peillenek dio, adibidez, Tartasek 1666an (*Onsa hilceco bidia* argitaratu zen urtea) ez zuela *neure, heure, nore, nure, ore* bezalakorik erabiltzen, eta beraz: ***ore, nure*** *17. mendean galdu badira ez da dudarik* ***heure, neure*** *lehenagotik, hamaseigarren mendean* (Peillen 1981: 840). Beraz, ikusmolde horren arabera, pastoral testu batean gisa horretako izenordeak aurkituz gero, iturriak araberako garaietan kokatu behar lirateke: hamaseigarren mendean (*neure* edo *heure*) edo hamazazpigarrenean *(nure, ore).*

Azterka dezagun puntu hau (9), eta bereziki *ore* eta *nure* formak (10).

(9) Egia erran, ez du iduri pertsona izenorde indartuen erabilera markatzaile historiko egokia dela kasu honetan garai horietako. Rebuschik (1995) erakutsi bezala, Iparraldeko ekialdeko euskalkien ezaugarria da ez dutela izan eredu bateraturik pertsona izenorde genitibo soilen eta indartuen arteko bereizkuntzan 16-17 mendeetan. Leizarragaren euskaran neutralizatua da izenordeen arteko oposaketa pluraleko formetan (*zure* barne). Etxepareren euskaran sistema are markatuago zen: i) forma indartu erreflexiborik ez zen erabiltzen izenordea sintagma subjektuaren osagaia zenean; ii) lehen pertsona singularraren kasuan, sistema ahuldua zen, eta *ene* ere ager zitekeen kontestu erreflexiboetan (*Nik eniak dakuskit* [236: 34]), *neure*-ren orde. Zubereraz ere ez bide zen jokabide bakarra garai haietan.

(10) Erran behar da, zubererazko literatura tradizioan autore bihi batek ez duela *neure* forma erabili, Iparraldeko bere gisako orotariko euskara moldatu nahi izan zuen Tartasek baizik (eta Oihenartek ere, are orotarikoago egin nahi izan baitzuen honek bere euskara). Peillen-en baieztapena zuzentzekoa da, beraz: *Onsa hilceco bidia* liburuan, irakurtzaileari egiten zaion abisuan, lehenbiziko perpausean berean, hiru aldiz segidan agertzen da *neure* forma: ***neure*** *adesquidia, igarén udan egun batez nangoela çuhainçé batén itçalbian* ***neuré*** *orenen errayten ninçala, loac harturic, eguindut* ***neure*** *loan ametz handibat eta misteriosbat* (Tartas, 1666: 28). Eta hamarka konta daitezke obran zehar *neure* formak. Pastoraletan Saroïhandik (1927) seinalatzen du bi esku-izkributan *neure doloria* sintagma aurkitu duela.

Hamazazpigarren mendearen bigarren partean, Tartasek (1666 eta 1672) (11) eta Belapeyrek (1696) (12) erabili dute *ore*. Egia da, handik mende erdira-edo, Maisterren Imitazioaren itzulpenean (1757), ez dela forma horien hatzik aurkitzen, baina horrek erran nahi ote du zubereraz ez zela gehiago batere horrelakorik? Nekez (13). Alabaina *ore* bezalako formak atxematen dira, hemeretzigarren mendeko zenbait kantu eta testutan. Agertzen da, adibidez, *Ürzo lüma gris gaixoa* kantuan, itxura guztien arabera mende horren hastapenekoa delarik hau (ikus Lakarra, Biguri, Urgell, *Euskal baladak*, 2, 129-34). Astros Baionako apezpikuaren kateximaren zubererazko aldaeran (1872an argitaratua) ere aurkitzen da *ore* izenordea Elizako manamenduetan: ***Ore** Kreazalia errezebi ezak, berantena Baskoz ümilki* (7. o.) (14). Halaber *nure* agertzen da *Üskara librü berria*-n (1837), *ene* formaren ondoan: *Eta Jesüs-Kristeki batian **nure** büriaz egiten deizüt Sakrifizio oso bat* (44. o.).

Gauzak horrela izanik, gaitz da, ene ustez, erratea forma horiek, batere dudarik gabe ahulduz joan direnak zubereran mende horietan, osoki hilak zirela orotan edo ororentzat joan den mendean (lehen partean bederen), edo aitzineko mendean. *Charlemagne*-ren pastoralaren Saffores errejentaren esku-izkribuan aurkitzen diren *nure, ore* eta gisa horretako forma indartuak oraindik mintzairaren parte bide ziren zuberotar batzuentzat, erregistro horietan bederen, duela bi mendeko garai haietan.

Orobat pastoraletan aski aise kausitzen diren adizki trinkoentzat. Horrelako adizkeren aurkitzea hemezortzigarren eta hemeretzigarren zubererazko testuetan ez da hain harrigarria eta ausartzia handia da oinarri horretan finkatuz besterik gabe baieztatzeko testu horiek hamaseigarren edo hamazazpigarren mendean itzali ziren formen hatzak atxiki dituztela. Hemezortzigarren mendearen atarian Belapeyre batek erabiltzen zituen *egon* edo *ebili* aditzen era trinkoak (Agirre 1996: 726, 830), eta joan den mendean oraino izkiriozko tradizioaren berri guti zekikeen Etxahun batek sartzen zituen bere kantuetan (*nindiagozün, diagozü, daudianak, zabiltzanak, nabilazü*, etab...). Nolaz gisa horretako adizkeretan berma, testu baten iturri zuzenaren datazioa bizpahiru ehun urte lehenago jartzeko?

Ongi pentsatu-eta, egiazki arkaikotzat jo genitzakeen formak ez ditugu aurkitzen pastoraletan (15). Eman dezagun, modu segurean arkaismotzat har di-

(11) Adibide bat: *Eman ezak **ore** diharia **ore** anaie gatik* (Tartas, *Arima penitentaren occupatione devotac*, Altunaren argitalpeneko 113. o.).

(12) Belapeyrek ez du forma indarturik 1. pertsonarentzat: ez *neure*, ez *nure*. *Ore* forma bi aldiz agertzen da haren idatzietan, bi aldietan erreflexiboa izanik. Agirrek (1996: 906) seinalatzen du, haatik, testuinguru berean *hire* ere erabiltzen zuela Belapeyrek.

(13) Dena den, *nure* eta *ore* formak bereizteko bide dira hemen, lehenbizikoa lehenago desagertu bide baitzen. *Charlemagne*-ren pastoralean, *nure* 4 aldiz agertzen da, eta *ene* 163 bider (2,5 %), baina *hire* izenordeak 57 agerraldi dituelarik, *ore* 25 aldiz kausitzen da (44 %).

(14) Elizako sei manamenduak bi tokitan zerrendakatuak liburu horretan; ohargarria da, batean *ore* erabilia dela, eta bestean *hire*, jaunartzeari dagokion manuan.

(15) Hiztegian ere arkaismo garbirik ez da aurkitu oraino (erran nahi dugu, segurtamen zer-

tzakegun forma aoristoak *(jin zedin, egin zezan, ...)*, edo *albait-* bezalako aditz aurrizki arkaikoak, Leizarragak oraino erabiltzen zituenak, baina hamazazpigarren mendearen hondarreko osoki itzaliak bide zirenak, ez dira agertzen orain arte ikertu diren pastoraletako eskuizkribuetan. Hori ez da kontrako froga, noski, zeren pentsa baitaiteke, kopia zaharrez baliatu behar izan balituzte, kopistek horrelako formak kanbia zitzaketela, baina erakustera ematen du mintzairaren zahartasunaren argumentua kasu honetan indar gutikoa dela pastoralen sorrera denboran urrun, hamaseigarren mendean, adibidez, emateko, frogabide segurak, hain zuzen, ez baitira aurkitzen testuetan.

Kanpoko oihartzunak (16): 1595eko gutuna

Azkenik hitz bat erran dezagun pastoralen oihartzun gisa ekarria izan den kanpoko dokumentu batez, han eta hemen hark ere aipamen izan baitu. Floristan Imizcozek (1993) duela zenbait urte argitaratu espioi gutunetako bat da, hamaseigarren mendearen hondarrekoa, Charles de Lussek (17), Nafarroa Garaian erregeorde kargutan zegoen Calderón jaunari 1595ean igorria (gutuna alabari idatzarazi zion Charlesek). Honela dio gutun horretan egileak: *halaber suplicazen nicaucu auctore pareba nahi derautacun chercatu neure duhuruian* (Floristan, 1993: 204). Lerro hauetan agertzen den *auctore* hitza *actore* itzuli zuen Otsagin zegoen Palacio izeneko artekari batek garai hartan berean (honi darraio Satrustegi, moldatu duen gutun horietako glosarioan (1993: 467)). Floristanek iruzkin hau egiten du gero argitalpenaren aurkezpenean:

> *En fin, como detalle significativo de la conexión existente entre ambas vertientes pirenaicas cabe destacar la petición que se hace de dos actores, sin duda para las representaciones teatrales populares, género literario de gran arraigo en el Soule de la época y posterior* (Floristan 1993: 182).

Komeni da, ene ustez, gogoan har dezagun, arras gauza harrigarria dela euskal kulturaren historiaz irakurketa horrek adierazten duena. Alabaina zer

---

baitekin hamaseigarren edo hamazazpigarren menderaino itzularaz gaitzakeenik, Saroïhandik nahi lukeen bezala (1927: 21)). *Eroan* > *eraman* forma aldaketa izan zitekeen markatzaile historiko egokia. Badirudi, alabaina, aditz horren formaren aldaketa hemezortzigarren mendean egin dela zubereraz; ik. OEH. Belapeyreren idazkietan ere *eroan* da oraino forma nagusia, nahiz behin bederen *eraman* forma ere agertzen den haren idazkietan (ik. Agirre 1996: 739). Dena den, ez du iduri behin edo beste zenbait pastoral testutan aurkiturik ere, *eroan* formak markatzen duen zahartasunak lagun gintzakeen testu horien hemezortzigarren mendean segurki kokatzeko. Etxahunek *eruitia* dakar Hegilüzeko jaun anderen kantorean (1848); ik. Haritschelharren argitalpena (1970: 624).

(16) J. Casenavek (1983) sail horretako beste argumentu bat erabili du duela zenbait urte. Dioenaz, Zuberoako bi elizatan ikus daitezke bi itxura, haren begietan, pastoralen itxurak diratekeenak. Adierazgarriena, Santa Graziko elizan (10. mendea) da eta harburu batean zizelkatua da. Beldur naiz, haatik, herri-hatsa aurkitu nahiz dabilen poetari zor zaiola bereziki irakurketa hori, eta ez baitezpada dokumentu azterkatzaile begi-ilun, gogo-hitsari.

(17) Uzten dut izenaren forma *(Lusse)* eskuizkribuan ageri den bezala. Forma estandarra, *Luxe* da; euskaraz: *Lukuze*.

erran nahi luke horrek? Erran nahi luke, teatro bat izan zela garai hartan Zuberoan edo inguruetan, diruaren truk aritzen ziren aktoreak (*auctore pare* delakoa dirutan ordaintzekoa zela argiki baitio gutunak) baliatzen zituena, eta, gerla giroak oraino zirauen mende hondar hartan bazebiltzala aktore horiek Nafarroako erresumako bi alderdietan batetik bestera beren lanetan. Kontua are harrigarriago gertatzen da teatro hori Zuberoako pastoralen tradizioarekin bateratzen bada, Floristanek egiten duen bezala, zeren hain zuzen pastoralen ezaugarrietako bat baita ez dela haietan ofizioko aktorerik, eta aktoreak ez direla ordainduak. Arras datu berria eta ustegabekoa litzateke, beraz, jakitea hamaseigarren mendearen bukaeran zuberotarrek —jaun handi zenbaitek ordainduz— Nafarroa Garaitik ekarrarazten zituztela pastoraletako aktoreak.

Beraz, merezi du hurbiletik eta begi kritiko batekin beha diezaiogun delako gutuneko testuari.

Agertzen den hitza *auctore* da, eta gutunean erabilia den ortografiaren arabera bi modutan irakur daiteke: edo *auktore*, edo *auztore*. Izan ere, *c* letrak bi balio bereziki izan ditzake ortografia horretan (araberako afrikatua bazter utzirik), eta egungo ortografian *k* eta *z* letrek adierazten dutena seinala dezake: *esciribatuc geroc, principalci, irabaci, adiscide batec, nicac*, etab.

Argi da, ene ustez, zein den bi irakurketen horien artean zailtasun gutiena ekartzen duena hala forman nola zentzuan. Forman, *aktore* irakurtzeak eskatzen du hitzean huts bat bederen zuzentzea letra bat kenduz (*auctore* → *actore*) (18), eskribatzaileak *adiectio* errakuntza bat egin izan balu bezala; aldiz, *auztore* irakurtzeak ez du aldaketarik eta zuzenketarik eskatzen, zeren forma hori (*-au-* diptongoa duena) ongi dokumentatua baita Zuberoan Oihenarten errefrauetan (19). Zentzuan ere *auztore* irakurtzeak (*aztore*, hots) ez ditu ekartzen *aktore* irakurtzeak sortzen dituen arazoak, gorago aipatu ditugunak, zorigaitzez errazago baita pentsatzea mugaren bi aldeetako handi-mandien arteko gisa horretako harremanak usuago zirela ihize tratuetan, teatro gauzetan baino.

Beraz, hitz batean erranik, ez digu deus ere ekartzen Charles de Lusse-ren gutunak Zuberoako pastoralen historiaren egiteko baliagarri denik.

Lehen parte honetako bukaerara heltzean, ikus dezakegu zeiharkako frogabideek oinarri guti eskaintzen dutela Zuberoako pastoralen sorrera zehazki finkatzeko. Franko garai desberdinak aipatu dira, baina ez da argumenturik aur-

(18) Egia da frantsesean eta, iduriz, Erdi-Aroko latinean ere, izan dela denbora batez nahaste bat *aucteur* (<lat. *auctor*) eta *acteur* (<lat. *actor*) formen artean. Baina beste aldera gertatu da nahasketa, diptongorik gabeko forma *(acteur)*, "autore" ("egile", hots) errateko baliatu baita zenbait mendez: "liburu baten autore" hamahirugarren mendetik hamaseigarrena arte, eta "edozein gauzaren autore" hamabosgarren mendetik hamazazpigarrena arte (Bloch & Wartburg 1968). *Acteur* hitzaren erran nahi berria frantsesez (pastoralen tradizioan *aktür* hitzari dagokiona) hamazazpigarren mendearen bigarren partean agertu zen.

(19) Errefrauek honela diote: *Belatz duana ez utz hagati, auztore jingei denagati* (85) eta *Neke da beleaz austore* (sic) *egitea* (652). Ikus hitz horren forma desberdinez OEHko sarrera.

kitu, ez sendorik bederen, teatro horren sortzea Zuberoan hemezortzigarren mendea baino anitzez aurrerago kokatzeko.

DOKUMENTU ZUZENAK

Ikus dezagun orain nolakoak ditugun dokumentu zuzenak deitu ditugunak. Pastoralak direnaz bezainbatean, dokumentu zuzenetan aipatu beharrekoak dira, ene irudiko, debeku ageriak, herritarren eta ikusliarren lekukotasunak, eta eskuizkribuak.

Debekuak

Pastoralak ekitaldi publikoak izanik, herritar anitz biltzen zituztenak, erakunde publikoek edo elizako kargudunek ez bide zituzten beti begi onez ikusten, edo bederen begia izan nahi zuketen haien gainean. Ezaguna da elizagizonek kontrako jarrera agertu izan dutela, hemeretzigarren mendearen bigarren partean behintzat eta gero hogeigarren mendearen lehen partean ere, orduan nabari baitira bereziki jarrera horren ondorioak (20). Herriko erakundeek laguntza ematen zieten batzuetan elizagizonei pastoralen debekatzeko, hala nola gertatu baitzen 1859an Barkoxen Etxahunen kantoreetan ageri den bezala (Haritschelhar 1970: 486).

Lehenbiziko debeku aipatua (21) 1796koa da. D'Etchardy, Zünharretako kantonamenduko zuzendaritzako komisarioak galdegina zuen, eta ez baitzen errespetatua izan debeku hura, kantonamenduko agintariek agiri bat egin zuten ondotik Alozeko agintarien ahulezia salatuz, eta pastoralean parte hartu zuten guztiak, errejenta bereziki, *zentsuratuz*. 1796/04/3ko agiria da, haren arabera Alozeko pastoralaren errejentak (*auteur et souffleur de la tragédie* gisa ekarria da agirian) Elissalt baitzuen izena. Pastorala *Charlemagne* edo *Roland* zatekeen (Oyharçabal 1981/1991: 25).

Ikus dezakegunaz, hemezortzigarren mendearen hondar partekoa da dokumentu hau, eta ez gaitu laguntzen esku-izkribuen araberako datazioa baino urrunago joatera.

---

(20) Apezpikuek zabaldu debekurik ez da ezagutzen, ez hemeretzigarren mendean, ez lehenago. Joan den mendearen lehen partean Chahok ez du elizaren jarrera gogor hori aipatzen (ez eta lehenago Egiategik ere). Buchonen (1839) lekukotasunaren arabera 1839an Santa Grazin egin zen pastoralean *(Trois Martyrs)*, Aita Sainduaren jantziak herriko erretoreak utzi zizkion antzezlagunari. Segurenaz ere hemeretzigarren bigarren partean gogortu zen elizagizonen jarrera, zenbaitena bederen. Hérellek (1922: 206) kondatzen du nola 1857an Bonaparteren ohoretan *Nabuchodosor*-en pastorala egin zenean, Inchauspe kalonjeak nahiago izan zuen ikusliarren artean ez agertu, eta leiho batetik segitu zuen ikuskizuna.

(21) Debekuaren galdearen testua ez da argitaratua izan. Bai, ordea, debekua hautsi ondoan, kantonamenduko herri kudearitzak egin zuen ageria. Lanorek argitaratu zuen lehen aldikotz (1905); Hérellek *RIEV*-en (1910) eta Oyharçabalek ere (1981/1991) eskaintzen dute.

Ikusliarren edo herritarren lekukotasunak

Antzerkia ageriko ikusgaia denaz gero, ikustekoa da noizkoak diren ikusliarrek ematen dizkiguten lehenbiziko lekukotasunak. Horretan ere, garbiki erran dezagun, ez dugu aurkitzen, gaur egun arte ikerketek plazaratu datuen arabera bederen, Jauliberren eskuizkribua (1750) baino zaharragoko lekukotasunik. Alabaina molde horretako lekukotasunik zaharrena, oraingo itxura guztien arabera, Egiategirena da, eta T. Peillenek argitaratu testuei esker, ezagutzen dugu (Peillen 1981). Hiru tokitan aipatzen ditu Egiategik (1983 [1785]) pastoralak, eta bera zuberotarra izanik, ez da dudarik Zuberoako herri teatroa aipatzen duela pastorala hitza erabiltzean, hala nola aita bati galdatzen diolarik, haren seme alferraz ihardukiz, ea ez ote den ohartu hark *lana dialha hügünt, merkhatü, eliza besta ta pastorala* (sic) *bakoitzari hütsik egiten eztiala ta züganik hartakoz diharürik eztiala, ezetare jesanik, arren diala ebatsirik?* (Egiategi, 1983 [1785]: 200).

Eskuizkribuak

Pastoraletako hitzak betidanik idatziak izan direnaz geroz, testuak berak ditugu haietaz ditugun dokumentu garrantzizkoenak: ez liburuak, noski, baitakigu pastoralak ez zirela argitaratzeko idazten (22) (eta berant eta bakan (23) egin baitziren lehen argitalpenak), baina bai errejentek baliatzen zituzten eskuizkribuak. Eta ez dira guti, Hérelle-k berrehun bat kontatu baitzituen, kaier zahar batzuetan atxikiak. Ez da harritzeko, horretaz, pastoralen tradizioaren berri ematen digun dokumentu iturri aberatsena eskuizkribuek eskaintzen baitute. Gainera, anitzetan aise da erratea eskuizkribu horiek noizkoak diren, zeren ohitura baitzen pastoral kaieren bukaeran pastorala noiz eta non *egina* (24) izan zen zehazki adieraztea, errejenta-kopistak bere izen-deiturak ere maizenik ematen zituela.

Gure auzian ere eskuizkribuek jakinbide baliagarriena ematen badigute, erran behar da batzuetan zenbait puntu eztabaidagarri agertzen direla: edo zenbait eskuizkribuk datarik ez dakartelako, edo ekarririk ere urte zenbakiak nola irakurri behar diren guztiz argi ez delako. Zalantzarik uzten ez duten eskuizkribuetan fidatuz gero, pastoralen lekukotasun zuzen zaharrena gaur egun es-

(22) Tradizioko pastoralez ari gara, ez tradizio horretan oinarriturik idazle zenbaitek egin dituzten teatro lanez (Zuberoatik kanpo lehenik, hemeretzigarren mendean, eta Zuberoan berean ere, gero).

(23) Orain egiten diren pastoralak argitaratzen badira (errepresentazioaren egunean saltzen dira testuak), errepertorio zaharreko trajerietarik arras guti dira argitaratuak izan direnak: *St Julien d'Antioche* (1891), *Hélène de Constantinople* (1909, modu barreiatu batean), *Roland* (1927, partez), *Charlemagne* (1981), *Jean de Paris* (1994), *St Jacques* (1996).

(24) *Pastoral baten egitea* tradizioan ez da pastoral baten idaztea baizik ere errepresentatzea edo antzeztea.

kuen artean ditugun dokumentuen arabera 1750ekoa da, erran nahi du eskuizkribu horietan agertzen den errepresentazio datarik zaharrena hori dela (*Sainte Elisabeth de Portugal*, Eskiulan, Jauliber izanik errejenta) (25). Halere, literaturan aipatzen dira beste lau eskuizkribu, lehenagokotzat ekarriak:

— Lehena, *Clovisen* pastoralarena, 1500 urtekoa omen zen (Hérelle 1926b: 17-19).

— Bigarrena, *Artzain gorria* deitua, 1565 ingurukoa omen zen, eta Oihenartek ematen digu haren berri.

— Hirugarrena *Saint Jacques*-en pastoralarena, hemeretzigarren mendekoa baina hartan, zenbaitek egiten duten irakurketaren arabera (Hérelle, Urkizu) 1634ko data agertzen da.

— Laugarrena, *Jeanne d'Arc*-en pastorala, oraindik eskuzta daiteke. Urterik ez dakar, baina Hérellek 1723ren inguruan kokatzen zuen (urte hori irakurririk paperaren filigranan), eta Baionako Euskal Erakustokian 1712ko urtea dakarren karpeta batean emana da, iduri bailuke Lacombek ezarria zuela urte hori.

Lau dokumentu horietarik biga galduak dira, beraz, eta pastoral ikertzaile bihi batek ere ez ditu egiazki ikusi ahal izan. Hitz batean, aipuzko dokumentuak dira. Hirugarren eskuizkribua ikus daiteke oraino, Pariseko Biblioteka Nazionalean baita. Laugarrena dela-eta, aitor dezadan ez dudala aurkitu nik Hérellek paperaren filigranan irakurri zuen 1723ko urtea, eta ez dakigu zer arrazoinez adierazi zuen 1712koa zela Lacombek (edo, honek egin ez bazuen, nornahi izan zedin, egin zuenak). Dena den *Jeanne d'Arc*-en pastoralak ez du halako muntarik gure gaiarentzat, hor aipatzen diren urteak berak ere hemezortzigarren mendeko mugetarik haratago ez baitoaz (26). Beraz, ez gara pastoral honetaz ariko hemen.

Ikus dezagun bada nola azter daitezkeen beste hiru dokumentuak.

Clovis (1500?)

Gauza guti erran dezakegu *Clovis*-en pastoralaren eskuizkribuaz. Buchon izeneko artxibozainak eman zigun eskuizkribu horren berri joan den mendean *Le Capitole* eta *Mémorial des Pyrénées* agerkarietan (1839) (27). Saffores,

(25) Irakurketa txar baten ondotik aurkitzen da 1759ko erreferentzia zenbait ikerlanetan. Baionako erakustokian den eskuizkribu hartako ex-librisaz, ikus Oiharzabal (1984: 57).

(26) Pastoral horren eskuizkribua Baionako Euskal Erakustokian da (25 zb.); ik. Oyharçabal (1981/1991: 6).

(27) *Mémorial de Pyrénées* Paueko agerkarian (1839ko urriaren 31 eta azaroaren 2a) argitaratu zena *Le Capitole* Toulouseko agerkarian argitaratu zen lehenxeago, Alexandre Dumas-i eginikako gutun gisa aurkeztua (ikus Vinsonen bibliografia).

Chahok ere (1856: 124-125) aipatzen duen errejent atharraztarrari erosi omen zion 1839an, 1500koa omen zatekeen delako eskuizkribua. Hérellek bereziki garrantzi handia eman zion lekukotasun horri. Alabaina, dio Hérellek, paleografian jakile berezia zen Buchon, eta haren errana, menturaz hitzez hitz interpretatzeko ez izanagatik, ezin baztertuzkoa (28).

Hérellek, bestalde ere, pentsatzen baitzuen hamaseigarren mendearen bigarren partean hasi zela Zuberoako pastoralen tradizioa, Buchonen lekukotasuna ez zitzaion hain harrigarria, bereziki 1500 zenbakia mende izendapen gisa ulerturik (ik. 28. oharra). Guretzat, berriz, itxura hitsagoa du kontu horrek. 1500 eta 1750 artean bi mende eta erdiren artea dugu, eta ez dugu ongi ikusten nola, aurreko mendeetako tradizioko lanetarik *Clovis*en eskuizkribua soilik atxiki zen ordu arte, iduriz pastoral kaieren tratutik atera gabe. Alabaina, hark berak dioenaz, Buchonek delako eskuizkribua Saforres errejentaren etxean atxeman zuen *parmi une collection de 60 à 70 pastorales*, eta honi erosi zion.

Eskuizkribu hori ez guk, ez Hérellek, ez beste inork Buchonez kanpo, ez baitu ikusi ahal izan, nekez fida gaitezke horrelako ohar labur batez ondorio sendorik ateratzeko Zuberoako tradizioaren zahartasunaz. Are gehiago, *Saint Jacques*-en pastoralaren datazioan ere baliatu izan baita jakileen lekukotasuna, ikusiko dugu, nik hala uste dut behintzat, gisa horretako erranak begi kritiko batez hartzekoak eta ikertzekoak direla beti.

Buchonen lekukotasuna kontuan hartzeko dela ukatu gabe ere, datatze horren egiantza zerbait indartzen duen beste dokumenturik aurkitzen ez duguno, hobe dugu dagokion fitxa xoko batean gordetzea, ea noizpait handik atera dezakegun. Baina esperantza handiegirik gabe. Hemeretzigarren mendearen erdialde horretan behin baino gehiagotan egin dira Europan, eta Euskal Herrian berean ere, jakingabez edo jakinaren gainean, testu herrikoi (ustez) zaharren inguruko irakurketa okerrak. Are zuhurrago izan behar dugu eztabaida pizten duen dokumentua aipatu bezain laster osoki desagertu izan delarik. Horretan ez nator bat Hérelle eta Urkizurekin: azterkatzaileak eginbidea du horrelakoetan sinesgogor agertzea.

(28) Hérellek jarrera doi bat bitxia izan zuen lekukotasun horren aitzinean. Buchonez egin zuen aurkezpen batean (Hérelle 1926b) agerian ematen du historialari horren esperientzia aberatsa hamabosgarren eta hamaseigarren mendeetako dokumentuen azterketan eta argitalpenean. Gisa horretan honela zioen: *La compétence de Buchon ne peut être mise en doute* eta, beti artikulu horretan berean, *le témoignage de Buchon suffit pour établir qu'il a existé un manuscrit de pastorale "qui datait certainement de 1500"*. Halere, neke zitzaion pentsatzea egiazki 1500 inguruko eskuizkribua izan zitekeela hura, eta interpretazio berezia ematen zien Buchonen hitzei, haren errana doi bat bortxatuz. Honek erran baitzuen: *L'une* [pastoralez mintzatuz], *intitulée* ***Clovis***, *est certainement un manuscrit de 1500, et je le* [eskuizkribua] *lui* [Saffores-i] *ai acheté*, Hérellek ohar hau egin zuen urteaz: *Cette expression, "un manuscrit de 1500", paraît employée ici par Buchon avec le sens que les Italiens donnent à l'expression "cinquecento", pour dire le XVIe siècle* (Hérelle 1926a: 110).

Artzain gorria (~1565)

Oihenartek bere *Art poétique basque* (1665) delakoan ematen digun lekukotasuna arras bestelakoa da. Hark ere hamaseigarren mendeko pastoral baten eskuizkribu baten berri ematen digu, eta kasu honetan ere haren hitzari fidatu behar gara osoki, beste inork ez baitu lan hori aipatu eta aldebat desagertu baita. Oihenarten lekukotasuna, ordea, ez da nornahirena, eta ongi ikertzekoak dira hark erranak. Hona zer dioen:

> *Il y Eust Un autre prestre, natif de St Jean Pied de Port, nommé Mr Jean dEtchegaray qui s'adonna aussi a la poesie basque; Cest Lautheur de La pastorale Intitulée arzain gorria qui a été Iouee plusieurs fois en Cette Ville. Il escriuoit il y a Cent ans. Iay Ueu Un Volume de ses rimes basques Escrit de sa main, La plus part de ses Uers sont aussy composes de quinse syllabes, Et on les mesmes manquements, En la forme, que Ceux dEtchepare* (Lafitte, *Gure Herria*, 1967: 228).

Mintzatua naiz behin baino gehiagotan aipu horretaz eta ematea komeni litzatekeen interpretazioaz (Oyharçabal 1981/1991, 1984). Ez ditut errepikatuko lan haietan adieraziak, soil-soilik azpimarratuko hor agertzen diren xehetasun guztiak (garaiaz, tokiaz, autoreaz, izenburuaz, süjetaz, bertsugintzaz) bihirik ere ez dela Zuberoako pastoralen tradizioaz dakigunarekin bat datorrenik, eta segurenaz ere anakronismo lexikal baten ondorioz kokatu dutela zenbait euskalarik Oihenartek aipatu *Artzain gorria* Zuberoako pastoralen tradizioaren barnean. Itxura gehiago du pentsatzeak beste antzerki mota bati zegokiola Etxegarairen antzerki hura, Donibane Garazin eman zena.

Ikuspegi horri jarraikitzen bagatzaizkio Oihenarten lekukotasuna, ustegabetarik, kontrako hipotesiaren indartzera heldu da. Izan ere, Oihenartek idazlan hartan euskal berstugintzako joera nagusiak aipatu bazituen, herrikoienak ere bai, ez ote zuen Zuberoako pastoraletako bertsetez ere zerbait erranen bertsu mota hori ezagutu izan balu eta indarrean izan balitz haren herrian? Iruditzen zait baietz.

Saint Jacques

Saint Jacques-en pastoralaren kasua da azken urteetan eztabaida gehienik sortu duena. Lehenik erran dezagun auzia nola agertzen den.

Bada Pariseko Biblioteka Nazionalean pastoral hari dagokion eskuizkribu bat (211 zb.), segurtamen guztiarekin baitakigu nork kopiatu duen eta zein mendetakoa den: Saffores izeneko joan den mendeko errejent famatua (29) da

(29) Chahok (1856: 124-125) estimu handitan zeukan. Biziki errejent famatua izateaz gain, badakigu pastoralak idatzi zituela (*Napoléon Empereur* eta *Cartouche*), ikus Oyharçabal (1983). Gorago erran bezala, hari erosi zion Buchonek *Clovisen* pastoralaren 1500ekoa zatekeelako eskuizkribua.

kopiatzailea, eta kopia beraz joan den mendekoa da. Ezin izan daiteke horretaz duda izpirik.

Eztabaida ez du, beraz, eskuizkribuak sortzen, baina beste zerbaitek: eskuizkribu horretako ex-libris delakoak, hain zuzen. Hona zer dioen horretaz Hérellek (1926: 110)

> *La copie du Saint Jacques de la Bibliothèque nationale, n.° 211, a été faite il y a une centaine d'années seulement, et néanmoins on y lit, après l'épilogue, la date très lisible du "29 août 1634". Comment expliquer cette date qui ne peut être celle de la copie? M. Omont, conservateur du département des manuscrits, avec l'autorité de sa grande expérience en la matière, estime que cette date a dû être reproduite par le copiste d'après une inscription que portait l'ancien cahier sur lequel la copie nouvelle a été faite* (Hérelle 1926a: 110).

Horretan gelditu zen Hérelle, urrunago joan gabe, eta hari jarraiki zaio Urkizu ere berriki pastoral horren aurkezpen orokorra egitean (1994). Altabada, hemen ere datua franko bitxia da. Urteagatik lehenik, baina bestalde ere irakurketa horrek eskatzen duelakotz onartzea errejentak bere kopiako ex-librisean idatzi zuela testu iturri zuen eskuizkribuko urtea (eta orduan bi mendetako jauzia eginez!).

Pastoralaren tradizioaren berri dakienarentzat (Hérelleren kasua segurki; ez, pentsa daitekeenaz, Omont jaunarena) arras arradoa hori, zeren beste kasu bihirik ez baita ezagutzen non eskuizkribuaren jabeak kopiatu baitu beste eskuizkribu bateko errepresentazio urtea. Areago dena, eskuizkribu hartako ex-librisak deus berezirik ez du, eta urtea agertzen da egunaren, hilabetearen eta tokiaren ondoan, beste ex-librisetan bezala, inola ere ez baitu seinalatzen kopistak beste nonbaitetik hartzen dituela egunari dagozkion erreferentzia horiek. Dudarik batere gabe, irakurketa horrek ere eskatzen du hurbil-hurbiletik berriz azterkatua izatea.

Hiru posibilitate dira gutienik:

— 1634 irakurketa makurra izatea.

— Irakurketa zuzena izatea baina kopiatzaileak errakuntza bat egin izana urtea idaztean (1834 izkiriatu orde, 1634 idatzirik).

— Irakurketa zuzena izatea, Saffores-ek idazketako errakuntzarik egin gabe.

Lehen puntua ikustekoa da lehenbizikorik, zeren Hérellek segurtatzen badu ere 1634ko data ongi irakurtzen *(très lisible)* dela eskuizkribuan, eta hala egiten badu Urkizuk (1994) ere, dudan emateko baita, ene ustez, baieztapen hori. Eranskinean aurkituko du irakurleak ex-libriseko parte horren argazkia (1. argazkia), bai eta ondoan konparantza egiteko kopista berak idatziriko 6 xifrea

(2. argazkia) eta 8 xifrea (3. argazkia). Hona hemen xifre horietaz neronek egiten dudan irakurketa.

Eztabaida dakarren xifrea bigarrena da urteko zenbakian (1. argazkia). Lehenbiziko soakoan, 6 baten itxura eman badakioke ere xifre horri, piska bat hobeki behatu-eta, laster ohar daiteke ez dela hain segura irakurketa hori. Konparatzen delarik, bestalde, Safforesek berak 6 xifrea (2. argazkia) nola idazten duen, berehala ageri da, guztiz bestelakoa dela zeinua (goitik beherako marra da 6-rena; ez da batere horrelakoa azterkatzen dugun urteko zenbakiaren bigarren xifrekoa). Hitz batean, 1634 irakurketa dudazko bihurtzen da.

Zer xifre izan daiteke hura? Lehen behakoan, ez du iduri batere 8 baten itxurarik duela. Baina hurbilagotik azterka dezagun.

Zenbaki edo letra bat irakurri behar denean, agertzen denari bezainbat behatu behar zaio batzuetan eskuak izan duen nondik-norakoari, zeren jestuari jarraikiz aiseago ikusten baita zenbaitetan tintazko marretan argiki ageri ez den zeinua. Eta uste dut hori dela gertatzen gure kasuan.

Entseia gaitezen, bada, lehen argazki hartako bigarren xifreari behaturik, eskuaren bideari jarraikitzera (argazkien ondoko marrazkian nabariago egiten dugu bide hori urratsak zenbakituz batetik bostera): abiapuntua zeinuaren erdialdean da (1), halako biribil-erdi bat eginik eskuinera buruz (2), beheiti heldu da trebeska zeinuaren beheraino, eta hor doi-doia ezagun bada ere, ikus daiteke puntu bat bezala (3), ageri baita eskua gelditu dela puntu horretan, marra kontrako eskualdetik goiti abiarazi aitzin. Gero mugimendu batez gora doa marra, biribil-erdi zabal batean (4), eskuin alderako hondar batekin bururatzen delarik (5) hastapeneko biribilaren gainetik.

Azterketa horrek baztertzen du osoki 6 irakurketa, inola ere ez baitaiteke esplika zeinuaren interpretazio hartan behealdeko puntu hura. Are gutiago egin daiteke kontuan hartzen badugu Saffores-ek 6 xifrea idazteko zerabilen zeinua, eta segitzen zuen goitik beherako bidea.

Orain behatzen badugu Saffores-ek nola egiten zuen 8 xifrea (30) (3. argazkia), ikus dezakegu marraren nondik-norakoa gorago deskribitu jestuari darraiola bere bost urratsetan. Ondorioak, hala da, arras desberdinak dira; ez, ordea, marra bi kasuetan gidatzen duten jestuak. Batean (1. argazkiko dudazko xifrea) puntua agertzen den tokian, bestean (3. argazkiko 8 xifrea) behereal-deko biribila aurkitzen da, lehen argazkiko xifrea egitean, kopistak behereko biribila osoki egin gabe, luma gelditu baitu kontrako eskualdetik abiarazteko goiti. Eskuak segitu bideak bi zeinuetan bertsuak dira, eta ez da ikusten zein xifre izan litekeen Saffores-en idazketan 8 baino egokiago litzatekeenik hor.

(30) Bi modutan egiten zuen 8 xifrea Safforesek, manera bera erabilirik, baina lateralizazio simetrikoetan. Hemen guretzat baliagarri den modua baizik ez dut aurkezten.

Lehen ukaldian ezinezkoa iruditu zitzaigun irakurketa, beraz, hurbileko azterketa egin ondoan, arrazoizko bihurtzen da, hainbestenarekin alferrikakoak baitira ex-librisaren argitzeko emanikako esplikabide arradoak, eta, halaber, bazterturik gelditzen baitira, ene iduriko, urte horren bestelako irakurketek sorrarazi hipotesiak.

Azken hitza

Azterketa honen ondorio gisa zer erran ote daiteke? Lehenik, gauza guti erants diezaiekegula Hérelleren denboran jadanik jakinak ziren gauzei. Buchonen lekukotasunak ez du batere berrespenik izan, nahiz handik hona dokumentu berriak agertu diren, hala nola bereziki Oihenarten *Art poétique* delako idazlana, edo Charles de Lusse-ren gutuna, zenbaiti iruditu baitzaie zerbait berri ekar zezaketela dokumentu horiek pastoralen historiaz. Ordea, gauzak hurbilagotik ikertuz, deus guti gelditzen da dokumentu haietarik, Zuberoako pastoralei zuzenean doakienik eta sendo eta doi bat segurtatua denik.

Alderantziz, ikusten dugu zein den beharrezko kontu horietan dokumentu azterketa xeheki eta xorroxki egitea zerbait funtsezkorik edo segurtaturik erran aitzin. Hitz baten erran nahia ez baita beti bera garai desberdinetan, are gutiago kultura era desberdinen izendatzeko erabilia izan delarik hitz hori *pastoral* bezala. Halaber, ikusi dugu beharrezkoa dela iraganaldietako ortografiaren anbiguitateen kontuan hartzea testuen interpretatzeko, garaikoentzat ere engainagarri baitzitezkeen zenbait forma, *auctore* hitza bezala 1595eko gutunean.

Areago dena, *Saint Jacques*-en pastoralaren Pariseko eskuizkribuko urtearen idazketa artoski ikertu ondoan, argi gelditu da, gure ustez bederen, bazterzeko dela 1634 irakurketa, Hérellek segurtzat-edo ematen zuena eta zenbait ikertzailek ere oraino ontzat ematen dutena. 1834 da, duda-mudarik gabe, idatzia dena ex-librisean, eta beste eskuizkribu guztietan bezala bat datoz kasu honetan ere kopiaren urtea eta errepresentazio urtea. Ez da esplikabide arradoren beharrik ex-libris horren argitzeko.

Berriz ere, diogun ezin froga dezakegula ez zela hasia hamaseigarren mendean Zuberoan pastoral trajikoaren tradizioa, Lafittek edo Hérellek, eta bestek geroztik baieztatu izan duten bezala (nahiz, hemen aurkeztu den interpretazioaren arabera behintzat, Oihenarten isiltasunak ez duen laguntzen hipotesi hori). Haatik, erran behar da baieztapen horren egiteko ekarri argumentuak ez direla indar handikoak, eta edozein modutan ez dituztela berme gaur egun eskuen artean ditugun dokumentu doi bat fidagarri direnak.

ERANSKINA

Urtearen irakurketa *Saint Jacques*-en pastoralaren esku-izkribuko ex-librisean (19. mendea, Safforesen kopia)

[Pariseko Biblioteka Nazionaleko esku-izkribua (Euskal saila, 211 zb.)]



1. argazkia



Xifre eztabaidatuaren marra bidea



2. argazkia



6 xifreari dagokion marra bidea



3. argazkia



8 xifreari dagokion marra bidea

BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, P. (1996): *Athanase Belapeire: Catechima laburra (1696): Autorearen garaia, nortasuna eta idazlanak, grafiak eta fonologia. Edizio kritikoa eta hiztegia*, Gasteiz, EHU.

BLOCH, O. & WARTBURG, W. von (1932): *Dictionnaire étymologique de la langue française*, 5. argitalpena, berriz ikusia, PUF, Paris.

BUCHON, J.-A.-C. (1839): "Représentation d'un mystère dans le Pays basque", *Mémorial des Pyrénées*, Urriaren 10a eta Azaroaren 2a, Paue.

CASENAVE, J. (1976): *Santa Grazi*, Jakin, Oñati.

CASENAVE, J. (1983): "Zuberotar antzertiaren sortzeaz eta iturriez", *Antzerti*, Donostia, 4-10.

CHAHO, A. (1856): *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan*, 2. lib., Baiona.

EGIATEGI, J. (1785 [1983]): *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia*, T. Peillenen argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo.

FLORISTAN IMIZCOZ, J.M. (1993): "Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos", *FLV*, 63, 177-219.

GAVEL, H. (1911): "A propos du chant du prologue dans les pastorales", *RIEV*.

HARITSCHELHAR, J. (1969): *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Euskaltzaindia, Bilbo.

HERELLE, G. (1910): "Les représentations des pastorales basques dans la Soule pendant la période révolutionnaire", RIEV.

HERELLE, G. (1922a): "La musique et la danse au théâtre basque", *Gure Herria*, Baiona.

HERELLE, G. (1922b): *La représentation des pastorales à sujet tragique, BSSLAB*, separata gisa, 1923, Paris.

HERELLE, G. (1926a): *Les pastorales à sujet tragiques considérées littérairement*, Paris.

HERELLE, G. (1926b): *"Une pastorale de l'an 1500", RIEV.*

HERELLE, G. (1928): *Le répertoire du théâtre tragique*, Baiona.

LAFITTE, P. (1967): *L'art poétique basque d'Arnaud d'Oyhénart (1665), Gure Herria*ren separata, Baiona.

LAKARRA, J., BIGURI, K. & URGELL, B. (1983): *Euskal baladak*, 2 lib. Hordago, Donostia.

LEKUONA, M. (1935): *Literatura oral vasca*, 3. arg. Kardaberaz bilduma, 22-B, urterik gabe, Tolosa.

LEON, A. (1909): *Une pastorale basque. Hélène de Constantinople. Etude historique et critique*, Paris.

MICHEL, F. (1857): *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs.* Argitalpen berria 1981, Elkar, Baiona.

OYHARÇABAL, B. (1981/1991): *La pastorale souletine: édition critique de Charlemagne*, 3 liburuki, Doktorego tesia, Université de Bordeaux 3; argitaratua testuaren itzulpenik gabe *ASJU*n 1988-1989, eta *ASJU*ren gehigarrietan, XVI, 1991.

OYHARÇABAL, B. (1983): "Deux pastoraliers du XIXème siècle", *Bulletin du Musée Basque*, Baiona.

OIHARZABAL, B. (1984): *Zuberoako Herri Teatroa*, Antropologia euskal bilduma, Haranburu, Donostia.

PEILLEN, Tx. (1981): "Euskal antzerki zaharrenak", *Euskera*, 2, 699-706.

REBUSCHI, G. (1995): "Weak and Strong Genitive Pronouns in Northern Basque: A diachronic perspective", in J.I. Hualde, J.A. Lakarra eta R.L. Trask (arg.) *Towards a History of the Basque Language*, John Benjamins, Amsterdan & Filadelfia, 313-356.

SATRUSTEGUI, J.M. (1993): "Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI", *FLV*, 443-475.

SAROÏHANDY, J.D. (1927): *La pastorale de Roland*, separata *BSSLAB*, Baiona.

TARTAS, I. (1666): *Onsa Hilceco Bidia*, P. Altunaren argitalpena, 1995, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

TARTAS, I. (1672): *Arima penitentaren occupatione devotac*, P. Altunaren argitalpena, 1996, Mensajero, Bilbo.

URKIZU, P. (1994): "Jundane Jakobe pastoralaren maileguak", in J.-B. Orpustan (arg.) *La langue basque parmi les autres*, Izpegi, Baigorri, 25-42.

VINSON, J. (1883): *Le Folk-lore du Pays Basque.* Argitalpen berria, Mayenne, 1967. Paris.

VINSON, J. (1891): *Saint Julien d'Antioche, pastorale basque*, Bordele.

WEBSTER, W. (1899): "Les pastorales basques", in *La tradition au Pays Basque*, 2. arg. 1994, 243-261, Elkar, Baiona.

BIZITZAREN KOMEDIAK ZUBEROAN

Tolosa, 1998-XI-13

Txomin Peillen

Bizitzaren komediak deritzaiet Zuberoan XX. menderarte ematen ziren ekitaldiei, eguneroko bizitzaren berri ematen digutelako. Ekitaldi horiek berdurak, kantoreak, tzintzarrotsak, astolasterrak dira; pluralean erabiltzen diren izenak dituzte.

Bertutearen izenean

Zuberoan ez du aspaldi bertutearen aitzakiarekin gizarte zentsurak egiten zirela, eta "bekatuaren" arauera, kantu, parantzerki eta antzerki ematen. Zuberoatik kanpo holakoak ezagunak dira eta beste izenekin, manexen artean, galarrotsak, toberak eta tobera mustrak. Zuberoan behintzat ez dago nahasketarik, tzintzarrotsak parantzerkiak dira, frantsesezko "charivari"ak dira eta "xaribari"; hori euskaraz hegoaldeko ikerlari batzuek asmatua da, bestalde astolasterra antzerkiak dira, frantsesez "parades charivariques" edo "farces charivariques*" izenez ezagutuak.

Nor ukitzen zuten? Nornahi, herriko kargudun, dirudun aitoren seme edo ez, apez edo apezpiku. Noiz egiten? Noiznahi eta maiz errepikatzen ziren ekitaldiak. Baita baliatzen trajeria serio baten erdian emateko.

Khantoreak

Halare bakoitzak baldintza bereziak ditu; *khantoreak* dira hedatuenak (hitza kasu hortan pluralean erabiltzen da beti) eta "bekatu" guziak aipatzen dituztenak, gizarte legehauste guzien aurka eta nornahiren aurka egiten direnak, senar emazte zaflakariak, emagalduak, apezak, haur hiltzaileak "khantoreak" eginaz epaituak dira. Horien artean daude zuberotar koblakariek eginak hala nola Etxahun Barkoixek idatzi zituen *Gaztalondoko neskatilak, Maria Solt eta Casterot*, baita *Ama alhaba, Elhartxü eta Miñau* ere. Orain, naski ez dakigu norentzat eginak izan diren ainitz, non ez den etxearen izena agertzen.

Halatan ere joan den mendekoak izan arren edo oraingoak izenak aldaturik *Igelan* eman genituen bi XIX mendekoak Nafarroa Garaiko bat Aingeru Irigaraiek igorria, beste bat Zuberoakoa eta azkenik 1962.an U.ko apezari norbaitek egina, azken kasu hortan orduko gazteek harrapatu zuten artzain hori adinez gutiengo zen neska batekin hotel batean. Auzapezak neska deiturik jakin zuen hamalau urteetan hasita jokuan zebilala. Holako kasuetan urrunago ikusiko ditugun berdurak egiten ziren, eta ez beti zuzenez.

Satira guziak ezin dira hor sartu, ordea, *Llelle*ren mozkor kantua orokorrago da, eta *Musde Imaz* eta Etxahunek apezekin izan zituen eztabaidak hortik kanpo daude. Halaber kantore irringarri baina ez gaixtoa egin zion ligiar batek Ahuzkiko ostatuan lehenago etxekandre zen *Xixili Baratzabal* eta beste bat *Ligiko kantu txapelketa*ren aurka, auzapeza mindu nahiz.

Khantoreen berezitasuna da, eresi edo melodia bat daukatela eta gazteek "biktimak" topatzen dituztenean mimoz, ikahinkaz eta parantzerki kanta dezaketela, maiz beren khantoreen ahaidea txistuz *hüstülotsez* eta musika soilez *kantalotsez* entzunarazten zaie. Askotan kantoredunari herrian ezinbizia egiten zaio. Gogorra da baina auzitegiei salatzekoaren ordez egiten da. Khantoreen egitea oraino modan dago batez ere maskaradaetan ematen direlarik politika gizonenak.

Berdurak

Egintza hortan ez dago testurik. Sexu legehauste edozein izan denean bakarrik egiten da, merezi ala ez bi bekatu egileen etxeak bidez bide ezpelez, ostoz, lastoz edo irin zahiz markatzen ziren. Hala L. herrian, gehienbat apez gogor batez mendekatzeko, F. eta G. andere piadosen etxeak berduraz lotu zituzten apezetxearekin. Hor, agian, apez gogor batez mendekatzeko, izan zen, soinuzale edo dantzalditara zebiltzan neskei kofesio txartela ukatzen zietelako.

Ixilik eta gauaz egiten bazen, batzutan uzten zuen beste lekuko bat "txorimalo" gisako panpina bat. Azken berdura hori ezagutu dut, duela hogei urte, Basaburuko herri batean, andere batek susmoa baitzuen senarra auzotegiko andere batekin zebilala bordazale zeudenean; bi bordak berduraz markatu zituen eta senarraren borda alboan "mustra" bat ezarri bi egurrez egin gurutze bat landatu zuen eta gurutzearen buruan senarraren txapela zahar bat ipini eta gurutzearen besoetan haren "kasabeta" edo txaketa hedatu. Beko aldetik lurrean banana bat bi liranjaz inguraturik eman zituen.

Tzintzarrotsak (manexen galarrotsak)

Norentzat?

Tzintzarrotsa —hala deritzaio zintzarriekin egiten delako— da parantzerkiaren bideko hirurgarren urratsa, baina askoz mugatuago da. Ez da egiten zintzarrotsik alargun eta ezkontzekoen karietan baizik, ezkongabeen arteko sexu harremanetaz ez da egiten, ez adulterio kasuetan ere, beti alargun bat edo alarguntsa batek egon behar du gai.

Maiz Belaren lekukotasuna aipatzen da Donapaleun egin zen tzintzarrots baten gatik, baina Mauleko beste jakilegoa badago eskuidazki berdinean: "Plaisanterie" kronikan hau kondatzen digu Jakes Belakoak.

Naski izan zitezkean eta batikbat kargudunen aurkako ekintzak tzintzarrotsen itxura zeukatenak, baina hemen Egiategik ere aipatzen duen mozorroen erabilera agertzen da. Gainera duela hogeita hamar urte Santa Grazin astearte gizenez mozorrotuak etxez etxe zebiltzan, ez ondotik ikusiko dugun bezala gaizki egiten, ordea:

"Ainsi le Sieur Serey, conseiller au parlement de Navarre, lequel logea en la presente ville de Mauleon chez Burro, a la conduite du sieur de Belaspect, bailly et juge royal de ceste dite ville le soir du mardy-gras 25 de fevrier 1648 eux dus venant de Basse Navarre et passant icy pour par eux aller à Pau le lendemain. A cause qu'il y eut des masques qui alerent faire des momeries et fadesses ordinaires a telles gens et en suite les dit masques de laché des coups de pistolet devant la porte du logis de Burro, disans voila pour monsieur le commissaire."

("Halaxen Serey jauna Nafarroako parlamentukoa Burroenean Maule honetan zegoen, hiri hortako epaile eta auzapeza zen Belaspect jaunaren ardurapean, 1648 ko otsailaren 25.ean astearte gizenez arratsean, Nafarroa Beheretik Pauera joan behar zuelarik biharamenean. Gertatu zen mozorrotuak jende horiek ohi dituzten tximinokerien eta ahulkerien egiten ibili zirela eta gero mozorrotuek pistolekin tiroka eman zirela Burro jaunaren etxeko atearen aintzinean, ziotelarik: Hau komisario jaunarentzat.")

Nork egiten?

Herriko mutil gazteek, naski, batzutan lauzpabost mutilek, besteetan hamar hogeieraino; gero baziren entzule eta ikusleak ere urruntxago segitzen zutenak. Zahar bat edo beste sartzen zen taldean, kobla zenbaiten "hontzeko" edo edana zelako; maiz aitzinetik apur bat "pintukatuz" berotzen ziren gazteak.

Tzintzarrotsen iraupena?

Ligiko eta Santa Graziko berriemaileen arauera, egarritu arte bizpahirur oren iraun dezake, baita errepika diteke urteetan ere, alargunak gazteriari dirua eman arte, dantzaldia edo afaria egin dezaten. Kasu bat eman zitzaigun gerla aurrean eta oraino gerla ondoan zintzarrotsak izan zituen gizon behartsu batena.

Haboro dena, senaremazte elibat —bata alargun ezkondu zena— La-tik H. ra bizitzera ihesi joanik eta haraino La-ko gazteek jarraiki zitutela. Halaber beste alarguntsa bat Li-tik H.ra oinez zoanean herriko gazteek zintzarriak harturik, bizikletaz jarraitzen zitzaizkion urteetan.

Noiz?

Gutitan egiten egunaz non ez zen andere bakartu bati; gehienetan, ordea, gauaz egiten zuten, gizon bat hurbil zegoenean. Ez ziren etxetik hurbiltzenegi baitzekiten "tiro bat biltzen" ahal zutela. Baina etxekoek entzuteko gisan zen zarata eta "tzintzarrada".

Nola egiten?

Beren musika "tzintzarri" handiekin egiten zuten, alegia "küsküillü" borobilekin, behi metalekin eta tai gabe inarrausten zituzten joalteak. Denbora berean behi adar turuta jotzen zuten, baita zurezkoa ere; azken honek izugarrizko marruma egiten omen zuen. Zurezko turutak kono baten itxura zuen kanpotik eta barnetik ahoaren lekuan hestunea. Lizarrez, altzez (altzak baitu bihotza) edo pagoz egiten zen Allande Elixagarai gure berriemaileak dionez.

Bertsoak eta zino minoak

Ikusleentzat baziren mimoak, zinominoak, ihakinak eta bi motatako bertsoak. Ohidurazkoak ia beti berdinak eta kasuan kasurako eginikakoak haizeak eramaten zituenak bekatarien beharrietarat eta kontserbatzen ez zirenak maiz; beharbada Etxahunen *Maria Solt eta Castero, Eihartxü ta Miñaut* tzintzarrots koplak zitezkean ez baziren astolaster batekoak? Hona ohiturazkoak pastoralaren psalmodiarekin ematen zirenak.

Deia **Bada hotz, bada bero**
gaur egin dezagün tzintzarrots
Jaun erretorak erran beiteikü
egin ditzagün gaü oroz.
(Altzai Lakarri, Santa Grazi, Junes Casenave Harigilek emana)

(Hemen apezaren baimenarekin egiten dute, Napoleon III.ak Ezpeletako gaztei "tobera" baten egiteko baimena eman zieten bezala P. Urkizuk oroitarazi digun gisa.)

Türüt eta türütots
gaur eginen dügü tzintzarrots
Peirot hunek erran beiteikü
egin dezagün gaü oroz
(Ligi, Allande Artigau Elixagarai ligiarrak emana).

Astolasterren mehatxua

Tzintzarrotsak oraiko
astolasterrak geroko,
Peirotinak zer egin?
Tzintzarrotsen lotsaz, thüpiñala khakegin
(Ligi, Allande Artigau Elixagarai, ligiarrak emanik)

(Honekin dakusagu jendea ohitu zitekela tzintzarrotsari baina astolasterra ekintza gaiztoagoa zela eta nekez jasaiten zena).

Mehatxutik mespretxura

Peirotina zirintü
phiko berde jan beitü;
Peirot horrek behar dü
ürrin hunik senditü
(Ligi, Allande Artigau Elixagarai ligiarrak emanik)

Itzuleraren mehatxuak

Ai! eia! zer da hau!
lagun aphur gira gaur
Iragaraiko mala ziloan
itho zaizku hamalaur.

Peirotina, Peirotina,
adio bihar arrats artino
bihar arratsen jinen gütüzü
bi dozena haboro
sonu baten egiteko (J. Casenave Harigile)

(Hemen Allande Elixagaraiek ere ezagutu tzintzarrotsen zenbakia dator dotzena batetik hirur dotzenaraino, zeren biktimen askaziak kenduz geroz ezin baitzen gazte gehiago bildu).

Bertsoak euskaraz ziren, baina batzutan deia bearnesez adierazteko gauza parregarria izango zela. Berdin Peirot, Peirotina, Peiroton, maskaradetako behartsu, ergel, buhame eta bazterkin jendeen izengoitiak ziren maskaradetan.

Okzitaniera parre eragiteko erabiltzen zen eta arloteentzat, hala nola kantu ezagunean.

Buhamiek badakite
trinkuntrankun egiten
ahate bat ebats eta
galtzapean gordatzen
Lo Peyroto, lo Peyroton, a lo praube Peyroton

Astolasterrak

Zuberoako astolaster gehienak Patri Urkizuk argitaratu *Zuberoako irri teatroa* liburuan daude. Bat edo beste dabilala nonbait badakigu baina ez ainitz eta baldin badira hogeigarren mendekoak dira, hain zuzen oraindik hurbilegi direnak jendeak mindu gabe agertzeko. Ez natorkizue Patriziok idatzitako guzien errepikatzera, hala nola "Ainozkurtsni", izenarekin Hardoiek *Gure Herrian* eman eszenografia "Instrukzioniak", ez eta beste batzuren lekukotasunak oro. Baina corpus ia osoa eskuen artean daukagunez geroz aipatu liburuan, gogozketa batzu ekarri nahi nizkitzue.

Nork norentzat eginak

Koblakariek eginak ziren. Badirudi Etxahunek egin zituela, J. Haritschelharrek idatzi zuen bezala, eta kantu nagusia salbatu badu herriaren oroimenak, familiak paperak erre zituenaz gain testu osoak ez ditugu sekulan aurkituko. Etxahunen izenaz kanpo Jakes Oihenarten bat agertzen da eta bestalde badakigu Sorhuetako Hegiaphaltarrek astolaster ainitz egin zituztela eta euskaltzain urgazle genuen Marzelino edo haren aitak XX. mendean idatzi zutela, bai eta Leon Sallaberek ere.

Santa Grazin Hardoi oihantzain eta azken astolasteregilearen berriak kontatu zizkigun Junes Casenave Harigilek. Koblakari harek ez zituen astolasterrak idazten, benetan ahozko literatura praktikatzen zuen, antzerki idazte peripatetikoa eginaz. Astolasterrak emango zituzten bizpalau lagunekin oihanera joaiten zen egotzi behar ziren zuhaitzen markatzeko estakuruan. Bertso bat "hontzen" zuen, zuhaitzari aizkora ukaldi bat eman ondoren, eta ondoan, alboan zegoen jokulariari, lauzpabost aldiz errepikarazten, halaber egiten zuen besteekin eta eskolagabeko eta eskola guttiko jendeek daukaten oroimen harrigarriaren bidez, Hondagneu-Jauregi ostatuaren alboan zegoen belardian emaiten zituzten Hardoien "ikasleek" bertsoak astolasterretan.

Noiz emanik

Dakizuen bezala asko XVIII. mendekoak dira, trajeria baten barnean salbaturik eta askotan pastorala baten emankizunaren erditan jokatuak eta hala agertzen da *Petitun eta Petik Hun* astolasterraren sarrera hitzaldian

Ditzagün ützi erregiak
bere zentruetan
permiti ezadazie sar nadin
herriko egitekuetan.

Pastoralak Pentakoste aldian ematen zirenean, astolasterrak tarteka zitezkean, baina Ihauteri garaia eta haren aitzakian astolaster hutsa eman zitekean. Tzintzarrotsak errepikatzen baziren, astolasterrak ez, ezen jokuaren biktimek batzutan auzitegira deitzen baitzituzten.

Zer idaztankera?

Distikoetan baina beti lau lerrotan idatziak hemistikioa markatuz. Nik bertso elastikoak deitzen ditudan horietakoak dira, erran nahi baita silaben kontua nola nahixka doala, hala nola *ditzagün ützi* bertsoa 9/ 6, 11/ 8. Batzutan errima, gehienetan asonantzia agertzen da. Bertso asko zortzi silabatako bertso lerrora hurbiltzen saiatzen dira.

Argitaragabeko XX. mendeko astolaster batean ikusi dugu hitz lauezko zatiak badaudela. Hizkuntz atlasaren egiten zebilelarik X. Videgain holako pitxiak bildu ditu idatzizkoa edo ahozkoak.

Zentsuratutako bi jendetarik batek frantses izena eraman dezake, gizonezko *Petit-Jean* (Joanes txikia), *Pierrot*, anderezko *Marceline* edo bestelan izengoitikoa gizonezkoak *Kabalzar, Joanik Hobe* (joanda hobe) eta andereak, *Petik hun* (azpitik on), *Xiloberde* (Txuloberde), *Beltxitina, Arieder.* Astolasterren izenburuak bikun dira eta lehena beti gizonarena; batzutan tituluan ez da agertzen biktimaren izengoitia, baina *Ligi* delakoa pentsatzeko da ligiarra edo liginagarra zela.

Didaskaliak pastoraletan bezala dira eta ez frantses ereduan orainaldian, baina iberiar ereduan agintaldian, *jalki, mintza, igain, paseia, retira/erretira.* Distikoak lau lerrotan idaztea, agian Espaniatik heldu da, baina errateko manerak ere agintzen du, hemistikioko mozturan botzaren pausu bat egiten zelako.

Mintzairen erabilera

Gaztelania ez zuten irriaren sortzeko mintzatzen. Parrea eragiteko sasi frantsesa, sasi latina eta batikbat bearnesa zerabilten, tzintzarrotsetan baino gehiago.

Halaxen Saroïhandy-k Santa Graziko Jauregian Hondagneu ostatuan, 1916.an Margaita xaharrari bilduek bearnesen bidez adierazten dute komikoa izango dela:

Si bou boulets crede
aqueso qu'ey bertat,
Igantian dirate astolasterrak.

Egia da biktima bietatik bat bearnesa baldin bazen batzutan bearnes bertso bat edo beste esanarazten zitzaiola. Oroitzen naiz ahal bezala grafiatuako bearnes harekin eta Urkizurekin zer buruhausteak izan genituen, Paueko bearnes irakasleek laguntzarik ezin emanez, bi kasutan postako bearnes karteruak, irakurri eta ulertu zituen bertsoak.

Hain zuzen Santa Grazin eman ziren azken astolasterrak bereziki *Bala ta Vilota* astolasterrean, bearnes ahapaldi asko agertzen da. Bearnesaren edo okzitanieraren erabilera hori maskaradetako beltzetan ere ikustèn dugu.

Santa Grazin diotenez azken aldikotz, 1930.aren inguruan, astolasterrak eman zituztenean herrian, B.ko neskatilaren ohoretan, hedexuriek, jendarmek jokulariak atxilotu zituzten eta Donapaleuko euskaldun tribunalera eraman; han askatu zituzten pena bezala etxera oinez sartzea emanik. Ez zen zigor handia baitakigu gerla aurrean bazirela Larraiñetik Donapaleura oinez joaiten zirenak merkatzale.

Astolaster eta tragikomedietan egunorozko bizitza: medikuntzaz

Ihauterietan ematen ziren tragikomedia eta P. Urkizuren lanetan irakur daiteke nola ematen ziren, baita Iñaki Mozosen liburu batean testu osoak. Askotan esan baita etnologia iturria izan litekela, uste dut lehena izan naizela hortan begia sartu dudana. Hain zuzen *Anuario de Eusko Fokloren* bi urtetakoak, 1994-1995ekoak, nire lan batekin bete dira, eta da euskaraz emana *Zuberoako herri sendakuntzaz* ikerketa luze bat. Lan horretarako atera nituen astolasterretatik eta ihauteriko tragikomedietatik 109 bertso euskaraz, bat sasi espainolez eta bizpahirur sasi frantsesez.

Lekukotasunen seriostasuna

Fartsak direnak gain uste izateko zen horietan agertzen den sendakuntzak ez zuela ezer ikusteko garaiko bizitarekin, baina hain zuzen XVIII.mende eta XIX. hasierako testu horietan agertzen direnak frantses administraritzaren idazkiekin, ekarpenekin bat egiten dute. J.P. Thillaud frantses medikuak *La Maladie et la médecine au Pays Basque au XVIIII ème siècle* delako liburuarekin bat egiten dute bertso gehienek, ez baita hain irriegingarriagorik nola eguno-

rozko bizitzan herriak entzuten zituen jakintzalari txipien hitzak baino. Esan nezake euskara jakin balu ikerlariak aurkituko zituela hor berak ezin hatzemanez deitoratzen zituen iturriak.

Medikuen formakuntzaz

Sendagileak ezin duela merkeago egin egiaztatzeko bere formakuntzaren eta kokatzearen gastuak aitortzen dizkigu.

799 **Eta eskolen egitea**
Montpelliereko Unibertsailetan
mila libera zitadazün
kostatzen urtean (Pantzart).

Ondotik beste gastuak eri dirudunentzat botiga edo senda etxe bat eraiki duelako, naski ez baitziren dirugabekin ospitalera joaiten.

800 **Butiga badiantazüt**
hamar mila libera

Bertsoak jarraitzen du liburutegiaren kostuarekin

eta biblioteka
"contant" berrogei pistola (Pantzart).

Halaber potikariak bere jakituria nondik duen azaltzen digu

252 **Armenian izan niz**
bai eta Italian
gaüza ederrik eta küriosik
ikusi dit haietan (Pantzart).

253 **Droga etselentez**
hona niz kargatürik.
han ediren ahal
bezain arraroetarik (Pantzart)

Barberua edo barberak zer?

196 **Bordelen sarthü nintzan**
aprendizajearen egiten
eta aprobatü izan nintzan
hantik sarri Chartresen (Pantzart).

(Honekin badakigu XVIII. menderaen lehen erdian ikasi duela barberuak zeren mendearen erditik goiti Baionan izango baita barberu eskola (ik. JP. Thi-

llaud). Egia da XVIII.ean zela benetan antolatu barberuen ofizioa, bizargileen gandik hautsiz eta medikuetara hurbilduz, orduan ere errege diplomak izan zirela, eta bertsoak ongi dio kaxetaz, zigiluaz mintzo:

203 **Fabülaz mintzo nizala**
ez dezazüela pentsa
ezi so egizüe non düdan
erregeren kaxeta (Pantzart).

Emaginen ofizioa

J.P. Thillaud-k kondatzen digu nola XVIII. mende erditsutan Euskal Herriko emagintsek azterketa bat pasatzen zuten Baionako barberu nausi baten aurrean eta beste azterketa bat parropiako erretoraren aitzinean ohidura onak eta zintzoak zirelako agiriaren ukaiteko. Hortakotz, ofizioaren zintzotasunaz arrazoinekin dio bertsoak:

26 **Düela zerbait denbora**
ikusi züntüdan izorra
eta orai aldiz
ontsa meherik sabela (Ardeatina).

27 **Aperentziak manatzen dizüe**
haurra galerazi düzüla
ez denez geroz izan etxen
Graziusa emagina (Ardeatina)

Garai haietan bi Graziusa emagintsa zeuden Zuberoan, bata Altzürükün, bestea Muskildin eta inguru haietakoa mintzaeran testua.

Bubane eta Xiloberde astolasterrean emagina zintzotasunaren eredu bezala agertzen da.

Bubane 112 **Etxerat ützüli nintzan**
emaginareki(n)
emaztea ediren nüan
haurra sorthürik mithilareki(n)

Malku eta Malkulinan neska izorra berriz parregarria.

Barbera 312 **Bizkitartean ikhusi dit**
malür heltzen haregatik
xirringa mokoa sarthürik
kontrako xilotik.

313 **Ikhusi dit hartarik**
inkropisia (sic) lotzen

eta bederatzi hilabete
ez erremediatzen.

311 **Operazione garratza**
ez dea hori othean
sekülan ez da behar ezarri
hatza düen xiloan.

Haur galeraztea ez da oraikoa eta Malkulinak deitoratzen du izorra izatea.

254 **A! ez deia malerus**
emazteen zortea,
izan behar puntzela
edo tripa betea (Malku ta Malkulina).

Eta erabakia

287 **Zerbait gisaz nik hura**
behar düt jauzerazi
haren lotsarik gabe
nahi nüzü trankil bizi.

Gorago aipatzen inkropesia edo hidropisia duela emazte izorra batez erratea Europa guzian, agian ipuin iturria da hau bezalakoa, haur baten eta ama baten hizketa, andere izorraz ari:

—Ama! zer du andere horrek sabel haundi horrekin?
—Hidropisia du, ura sabelean eginik.
—Orduan ama! umea itoko zaio!

Neska izorrari buruz maiz holako bertsoak badira hemeretzigarren mende hasierako *Martzelina ta Xiberoa* astolasterrean, hain zuzen neskak nagusi guziekin ume batez izorra geratzen delako eta bere lehen maitale zozoena Xiberoak denak adarrekin onartu behar dituelako, azken epaiketan.

Haurren sortzea

Gure mendearen hastapeneraino iraun duten ohiturak Zabalaineneko Davantarra senar-emazteek, Ürrüstoien azaldu zizkidaten; hamazortzigarren mendeko emazteen erditzea, moda zaharrean, berdin berdina zen. Ohar dezakegu ohitura hori munduan zeihar oraindik bizirik dagoela, eta teknika batentzat, behintzat, azken hogei urteetan "modernoek" berriz erabiltzen dutela. Irakur ditzagun bertso zaharrak.

Pierrot eta Xarrot astolasterrean Xarrot emazteak dio gizonari:

253 **Ai! ei! Pierrot!**
hanitz gaizto dit trenpüa

inposiblezki gaur
sorthü behar dit hümea.

254 **Otoi jeiki zite**
eta sü handi bat egin
hartan berotzera
ni ere jeiki nadin (Pierrot eta Xarrot)

Bubane eta Xiloberde astolasterrean, morroinak etxekandreari dio haurraz erditu ondoren:

114 **Orai libre zirade**
Jinkoa dela laidatü;
zure sabelak behar dizü
ene zintüraz trozatu.

Mutilak etxekandreari eskaintzen diona oihalezko gerriko zabala da erditu ondoren sabelaren atxikitzeko.

117 **Hots emazü oherat**
eta har koraje
salda ekarriren dereizüt
oren erdi bat gabe.

Halaxen ere mende hasieran Zuberoako baserrietan emazteek kokoriko edo zizailuan jarririk, sutondoan, haurraz erditzen ziren eta gero ohean etzaten janari bakarra zutelarik orduan oilo salda.

Kokorikoz haur sortzea orain berriz modan dago eta etzanik baino hobeki egin dezake emazte batek haurra, non ez duen sezariana bat edo indizio bat, pikura bat hartu haurraren sortzeko.

Diru arazoetan egonik, Thillaud jaunak ez du ez errezeta ez kondu gehiegi aurkitu artxibotan. Geronek errezeta bat aurkitu genuen Barkoixen Peillenekoneko jatorri etxean, 1702.koa, eta Pantzarten errezeta bat agertzen da. Biologo ez den batek esango luke —ez da zientifikoa— behin inardetsi zidaten bezala, baina ohartu nintzen bazirela purga errezeta hortan senda belar gisa landare ezagunak. Jose Elhorga bidarraitar farmazian doktore denari galdetu nion eta erantzun zidan errezetako gai gehienak oraindik erabiltzen zirela. Jo nuen *Dictionnaire de la Pharmacopée Française* hortara, Pariseko Bibliothèque Nationalean ikustera eta han ezagutzen ez genituen bi landare ez zirela asmatuak izan ikasi; baina landare horiek azteken sendabelar zirenak ez ziren beti on gertatzen Europara iristen zirenean eta utzi zen Mexoakan eta Xalap delakoen erabilera.

Naski parregarri zitzaion eskolagabeko jendeari entzutea agian euskaraz idatzi errezeta zaharrena.

246 **Sena kassa hobenetik**
Errübarba eta Agarik
Eskamonea, Aloea
Polipoda eta Turbit.

247 **Hermodate, Mexoakan**
eta Xalap harekilan
behar düzü orotarik
aments libera bedera.

248 **Zeren eta eri honek**
korpitz handia beitü
drogak ere hala hala
arrazunable behar dü.

Jakina holako purgak azkenean Bakus sendatu zuen, baina Bakusek nahiago zukean ardoarekin eta purga harez, urean egosia dena ez du hartu nahi:

Potikaria 270 **Ekarzu pinta bat hur**
eta ezar hirakitera
eta drogak oro
hüts bertan hara.

Bakus 273 **Ala edateko karratxa**
Zer infame ezarrio düzie?
Ahotik kakegiten
sarri ikusiren naizüe?

Aurretik eman aiuta edo labamentuak ez dio ezer egin. ez eta jendeari irri eragiteko aipatu diren beste bi purgek bata azti erremedioa behi-korotzarekin egina eta bigarren geronek gazte garaian ezagutu dugun gatz purga.

254 **Eta bestalde hainitx**
persona dira abüsatzen
ema txar eli baten
beitireie kristel emaiten (Pantzart).

(Oraindik gerla honen aurrean eta azken gerla denboran Zuberoan bazebiltzan etxez etxe andere xahar batzu erremedio eskaintzen. Hemen agertzen kristel emaitea: klisterio ematea da eta ondotik dator baten konposizioa ezaguna eta beharbada oraindik erabilia).

257 **Bena haien labamentia**
zertaz date konposatürik
Uthürri hur eta nafar gatz
alkarrekin hirakitürik (Pantzart).

Bitxia da nafar gatzaren aipamen hori ezen Zuberoan kabalen sendaketan ere erabiltzen baitzen Barkoixen idatzi Dassanzaren aldaera batean irakurri dugun bezala, orain gatz larria esaten diogu gatz mota honi.

Sangratze edo seinatzeak

Odolaren kentzea, klistero eta purgekin XVIII-XIX. mendeko sendaketa arruntak ziren eta parregai Europa guzia. Baina zertan datza komiko baliapidea edo litroka kentzen dela odola edo idiei bezala zangopetik.

234 **Hogeita lau libera odol**
idek'ezozu besotik
eta aski ezpada
beste haiñbeste zankhotik.

310 **Sangre bat behar düzü**
lehenik zankhotik
odola behera
eraits dakizün bürütik (Pantzart)

351 **Behar zünüke orai**
sangre bat zankhotik
ezpadüzü odola
arras harritürik (Malku ta Malkulina)

Kolpe eta zauriak

Zaurien azterketa eta *praetium doloris* bat agertzen zaigu Pantzarten dokumentuetan oso gutti aurkitzen dena, salbu hain zuzen antzerki hortan eta Zuberoako foruan.

Foruak diona.

Jakes Belak 1667.an dio *ordaintzeaz* bi zauri mota daudela legearen aldetik desberdin direnak pakatzekotan eta karioago dela desleialtasunez eginikakoa eta gaineratzen du, ohitura zaharrez, hogei sos, Hogei Morlaseko sosen ordaintzen zina hiru eliza ta elizatxotan egiten dela Zuberoan. Ematen zen dirua dolorearen gatik eta barberuaren ordaintzeko zen, lehen diru bezala, pentsionea kondatu gabe.

Eta neurtzeaz dio foruak: *"Legezko zauria hau da, barberuek neurriak hartzekotan diotena: luzean ontza batekoa edo kana bostgarrena. Neurtzeko lau zatitan, lau aldiz egin behar da, erditan zulo txuri bat utziz".*

Astolasterrak, berriz:

Barberari errozu jin dadin
plagen estatüarekin
jaun horiek falta gabe
nahi düela ikhusi.

Barberuak ordaindu arte ez luke eman nahi estatua, azkenean irakurtzen da frantsesez, euskaraz ezarri genuena:

"Nik Nudigas Jauna ikusi dudala egiaztatzen dut, hirur erpuru luze ta lau zabal duen zauria aurkitu diodala buruan... zauri hori Pantzart jaunak egin dio ta nire sendaketa, sendagailuentzat zor zaizkit hogei ta hamarpistola."

Euskaraz jarraitzen du:

ezpada osatzen (zikiratzen) Phantzart
debrüek zutie eramanen

Baztangak eta txertazeak

Pikotek edo baztangak izutzen zituen jendeeak, batikbat andereak, begitartean uzten zituen orbain zulo txikien gatik huna lehenik serioski aipatzen zen, gero hurrengo ahapaldian trufara iragaiten, alegia izterren artetik txertatua izari dela:

Barbera 348 **Ai! Ei eta anderea!**
pikotak heltü zereitzü
ageri dütüzü elkhiten
bilhoa bezain üsü (Malku eta Malkulina)

Arieder 349 **Jauna eztüzü posible**
eztit pikotarik
txartatürik nüzü mila aldiz,
bi azpien artetik (Malku eta Malkulina)

Ez ditugu gure ikerlan luzean aipatu sendakuntzazko praktika zahar guziak hemen azalduko, baina zuberotar zaharrentzat badirudi egunoroko bizitza zela karkaza iturri ederrena. Agian parre minegingarria, eta gaiztoa kanpotarren gandik hartu dugunean urte askotarako gure buruez irri egiteko ohiturak galdu ditugu.

Ondorioz

Zuberoan, gaur, kantoreak egiten dira beti, berdurak ere bai noizpeinka. Moda zaharreko tzintzarrotsik ez da egiten gehiago. Egiazko astolasterrak, 1936.an eman zituen Leon Sallaberek Ezpeize-Ünduraiñen, *Piarres eta Katixa* izenburuarekin. Azken testu hori Junes Caseneve Harigileren eskuetan dago Lehenagoko astolasterrek inor mindu gabe arrakasta bat izan dezakete. Badirudi 1938.an Lakarrin ere eman zela. Behin, Germain Lexardoi zenak astolaster zahar bat, inoren izena ukitzen ez zuena, berriz emanarazi zuen, 1979.an. Maskaraden karietara berritan eman zen Barkoixen.

Halaber politikazko astolaster berria eman nahi izan zuen Junes Casenave Harigilek duela bederatzi urte Iraultzaren jakobinismoaren salatzeko. Hamar bat lagun hartu zituen jokulari izateko baina ikusgarria eman baino bi hilabete abertzale politikazko egitekotan sartu ziren eta antzerkia utzi. Hau da Zuberoako azken astolaster hautsiaren kondaira laburra. Testua beti egilearen eskuetan dago eta Mauleko *Miroir de la Soule* agerkariak zatika argitaratu zuen, *Mila zazpi ehun eta lautanhogeita bederatzi* izenarekin. Egileak berriki erran bezala, antzerkiaren aurretik satanak buhame dantzetan agertzen ziren eta gero komedia hasi baino lehen, Iraultzaren satiraz "khantoreak". Testua bera ohitura zaharrez pastorala baten gisa idatzia zen. Bost pertsonaia zituen, haietarik hiru zuberotarrak. Herriz herri eman behar zen. Oren bat eta erdiko emankizuna zitekean.

Jakina, Zuberoako lehengo eta gaurko maskaradetan eguneroko bizitza agertzen da, gizarte kritika badago, baina mugatua nintzenez beste lekukotasun emaile antzerki eta parantzerkietara jo dut. Hortaz gainera François Fourquetek eta Iñaki Mozosek lan onik egin dute eta Dicharry zuberotar gaztea dabila orain testu horien aztertzen.

Gaur erran dezakegu gizartea ez dela hain gogorra sexuaren inguruko legehausteen aurka, baina gizarte kritika orokorki ez da hila, aski bizia da Zuberoan maskaradetan ikerketek erakutsi duten gisa, Kepa Larrinoak aipatuko dizuen bezala. Nafarroa Beheran, politikazko tobera mustra onak ematen dituztenean, hala nola *Amikuzeko tobera*, halaber Hirigoyen anaiek eta Antton Lukuk tobera ereduetan idatzitakoak, ohitura ez da galdua; galarrots eta toberez nik baino hobeki hitz egingo dizuete, bihar.

Badakigu ere urte askotan nafartartu testu batekin Pantzart tragikomedia Iruñean ematen zela urtero. Noiz Zuberoan zuberotar testu zaharrarekin?

ERABILITAKO IDAZKIAK

FOURQUET, F.: *La mascarade d'Ordiarp*, BMB, 129 zbk, Baiona, 1990.

HARDOY, J.B.: "Instruccionia ou Instruction pour la mise en scène des parades charivarique", *Gure Herria*, Baiona, 1923, 311-325.

MOZOS MUJIKA, I.: *Ihauteria euskal literaturan*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1986.

PEILLEN, Tx.: "Euskal Antzerki zaharrenak", in *Euskera* XXVI, Bilbao, 1981.

PEILLEN, Tx.: "Komiko baliapideak Zuberoako herri literaturan", in *Antzerti*, Donostia, 1985.

PEILLEN, Tx.: "Herri-sendakuntza eta sendagingoa Zuberoan", *Anuario de Eusko Folklore*, t. 39, 1994-1995, Donostia/San Sebastián, 1998.

PEYREGNE, Léonce: *Casaurang de Lanne et son adaptation "Mardy-Gras" de la pastorale basque* (Pantzarten bearnes itzulpena 1802.koa).

URKIZU, P.: *Euskal antzertia*, Antzerti, Donostia, 1987.

URKIZU, P.: *Zuberoako irri teatroa, Astolasterrak*, Donostia, GK, 1988.

URKIZU, P.: *Zuberoako irri teatroa*, Izpegi argitaletxea, Baigorri, 1998.

PEÑAFLORIDAREN LITERATURA ETA HIZKERA EKARRIAZ

Tolosa, 1998-XI-13

Adolfo Arejita,
euskaltzain urgazlea. Labayru Ikastegikoa

0. Sarrera

Txosten hau atxakia bikaina gertatu zait Peñafloridaren euskarazko lan biak berriro irakurri eta gogoeta egiteko XVIII. mende erdiruntz euskal letretan gertatu zen berritze-aire horren baldintza, giro eta ondorioez. Neurriz laburra da berez kontearen euskal emaitza: *Gabon sariak,* 36 orrialdeko sorkuntza poetikoa, sarreran bost bat orrialde hitzlauz dituela, eta *El borracho burlado* gaztelania-euskarako antzerkitxoa, hau luzeagoa (54 orrialde), baina obra esanguratsua literatur sorkuntza bezala, genero, gai, motibo eta estiloen aldetik.

Edozein literaturatan gertatu diren berrikuntza guztiak bezala, hau ere ezin zatekeen gizarte- eta ekonomia-mogimenduetatik ate gertatu, eta gaur ere ezin dugu ondo ulertu ez interpretatu, ingurune horri ohartu gabe. Espainiako erreinuan Carlos III.aren erregetza pean aldakuntza nabarmenak gertatu ziren alderdi guztietatik: industria, nekazaritza, merkataritza, hezkuntza eta pentsamoldearen eremuetan izan ziren batez ere aurrerakuntza eta garapen nabariak. Horretan ekintza bikaina izan zuten han-hor-hemen sortzen joan ziren Batzaredo Ekonomia-Elkarteek. Horietan lehena Xabier Mª Munibe kondeak, beste jaun zaldun batzuekin batera eraiki zuen Euskal Adiskideen Batzarra izan zen, jakina denez. Berritze eta aurrerakuntza-fenomeno hau, ideia, jakintza eta letren eremuan Ilustrazioaren izenaz ezagutu izan da. Frantzian lehenago eta indartsuago erne eta garatu zen ideia-uholdea, muga iragazi ondoren, Hego Euskal Herrian berez-berez sartu zen, lurralde hauetako jende goi-mailako eta eskolatuenen eskutik.

Euskal ilustrazioaren giroaren epeletan sortu zen Peñafloridaren euskal antzerkia ere, zientziak eta letrak elkarri zeutsela joan behar baitzuten, egiazko eta sinesgarriak izango baziren.

1. Peñafloridaren biografia-zertzelada batzuk

Hil zen urte berean (1785) argitaratu zen Adiskideen Batzarraren boletinean haren biografia bat, luzea eta zehaztasun askokoa, estilo oso literarioan

ondua. Hura bihurtu da gerora bibliografia-iturri oinarrizkoetarikoa. Hurretik ezagutu zuen herrikidearen lekukotasun hurrekoa, hil ostetxokoa. Ikertzaileek gerora beste zertzelada gehiagorekin aberastu dute haren biografia. Muniberen kasuan, pertsonalitate ospetsu eta izendatua izateak bere alde ona agertu zuen, biografia fidagarri baten jabe egitea, zeren garai beretsuko beste euskal idazle batzuen nonzeberriak hain zehe jakiten ez baita erraz. Gain-gaineko bizitza-zertzelada batzuk gogoratuko ditugu, berariaz beraren euskal lanarekin zerikusia izan dezaketenak.

Azkoitiko hirian jaio zen Xabier Munibe Idiakez 1729an, Aita Larramendik Salamancan bere gramatika *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada* (*Arte*) atera zuen urte berean. Seme bakarra. Etxe onekoa. Jesuiten ikastetxean ikasi zuen lehen eskola eta gramatika. Etxe giroan zaldun bati zegozkion mendu eta ekanduak hartu bazituen ere —hala tokatzen baitzen—, era guztietako herri-jendeaz izan omen zuen harremana mutikotan eta gaztetan.

Irudimen handia omen zuen, eta musika eta literaturara joera handiagoa gramatika lehorrera baino. Izaera otzan eta barea bazuen ere, zolia eta jakingura handikoa ei zen. Goi eskola har zezan, gurasoek Frantziako Tolosara bidali zuten 14 urteko zela, jesuitek han zuten ospe handiko ikastetxe batera. Han trebatu zen konde-semea zientzietan: matematika eta fisika esperimentala, besteak beste. Lau urteko ikasketen ondoren bihurtu zen Azkoitira. Ama alargundua zen artean. Gazte-gazterik ezkondu eta politika ardura eta karguetan sartzen joan zen: hiriko alkate, probintziako diputatu nagusi, besteak beste. Elizan zein gizarte-ospakizunetan ere aurrerengo zebilen: hainbat konposizio ondu omen zituen, bai elizan kantatzeko, bai herriko plazan soinutzeko. Herri-musika eta dantzen babesle sendoa izan omen zen.

1748 inguruan Akademia-Bazkune baten taiua hartu omen zuen Azkoitiko gau-bigira edo tertuliak. Beste hiri askotan bezala batzen omen ziren han ere arratsero zaldun, elizgizon eta hiriko jende izendatua orohar, lagunarte gozoan egoteko. Azkoitiko zaldun eta elizgizon argi eta ikastunak bildu omen ziren eta araudi bat zehaztu ere bai. Asteko iluntze bakoitzean jardungai berezia izaten omen zen: zientzia gaiak (matematika eta fisika), gai humanistikoak (historia, literatura) eta musika lantzen ziren batez ere.

Bergarak San Martin Loinazkoaren omenez eratu zituen festetarako prestatu zituen opera-antzerki, musika-saio eta bestelako antolakizunen bidez goratu zen euskal gizartean kondearen hotsa. Eta han erne zen Adiskideen Batzarraren asmoa ere, *Sociedad de Amigos del País* izenaz, eta baita eraiki ere (1764), Peñaflorida bera buru izendatu zutela. Horren hurrengo, Bergarako Erret Mintegiaren sorrera etorriko zen hamabi urte geroago (1776), euskal zaldunsemeen hezkuntza-eskola izango zena. Mintegi hori berezia gertatu zen erreinuan, zientziei ematen zitzaien garrantziagatik. Hitz baten esateko, Peñaflorida izan zen Batzarraren eta Mintegiaren gidari, buru eta bihotz. Oraindik gazte zela hil zen 1785ean, kutsatutako eritasun batek jota.

2. Peñafloridaren euskal lana

Eskenaratzeari atxikirik daude obra biak. *Gabon-sariak (GS),* antzerkia ez bada ere zentzu hertsian, eskenaratzeaz eta publikoaz loturik dago: badira korutaldeak, pertsonaia edo pertsonai-talde desberdinen adierazkizunak kantuz ematen. Bestalde, *El borracho burlado* (*EBB*) antzerki-generoan sartzen da oso-osoan, eta honen azpian, komedian. *Ópera cómica* bezala aurkezten da sarreran.

Obra bitzuk inprenta bidez argitaratu ziren eskenaratze-egunerako: entzulego bat izan zen emaitza bien lekuko, eta testu irarriaren bidez zabalgo handiagoa izan zuten obra haiek, unean bertan zein ondoko aldietan. Datu garrantzitsua da hau literatura-lanaren hedapen eta eraginari begira; kondeak bere sortzapenaren oinatz eta lekukotza ziurra utzi zuen ondoko belaunaldientzat.

Kondeak teatroarekiko atxikimendua Frantziako ikaste aldian hartu zukeela pentsa daiteke, eta Tolosan jasoko zuela Molière, Corneille eta Racine-n garai loretsuaren berri. Nolanahi ere, kondeak, eta haren inspirazioz Batzarrak eta Mintegiaren sortzaileek berebiziko garrantzia ematen zioten genero honi literatura-espresioen artean. Antzerki neoklasikoa defendatzen dute ilustratuok. Gabon giroko antzerki barrokoak ez ditu asetzen; aitzitik, hezibide eta ekandu onen bermatzaile izango den antzeki-eredu bat bultzatu nahi dute. Bergaran finkaturiko printzipioek dioten bezala, Batzarrak antzerkia erabiltzea proposatzen du, bertute-eskola izan dadin, ez galbide-eskola, garai hartako Elizak modu susmagarriz ikusten zuen bezala. Elizak orohar eta jesuitek bereziki ez zuten begi onez ikusten Batzarrak antzerkiari ematen zion papera, honen irizpidea baitzen, genero hori guztiz baliokoa zela, ez bakarrik denbora-emangarritzat, baizik batez ere gazteriaren eta gizarte osoaren hezibiderako. Ingurune honen barruan ulertzen dira hobeto kondearen eta haren ingurukoen antzerkigintza, eta gainerako literaturgintza.

Gabon-kanten inguruan beste sorrera-arrazoi bat ere eman daiteke. Eliz ospakizunetan biziro parte hartzen omen zuen kondeak, familiaz ere elizkoia baitzen Munibe. Eliz zeremonietarako hainbat kantu ondu omen zituen, eta halaxe gabon-kanta hauek ere, Azkoitia hiriko gabon-elizkizunari zegokion goratasuna ematearren, ospakizun horretan hiritar orok parte hartzen baitzuen era batera edo bestera. Baldintzakizun honi, aurreko urteetan beste hiri batzutan egiten zirenen aurretikoa gehituez gero —egileak sarreran arrazoi nagusitzat ematen duena—, ez da azalbide gehiagoren beharrik.

2.1. *Gabon-sariac*

Hau da, dakigula, Peñafloridaren lehenengo euskal obra. 36 orrialdeko plegu mardula osatzen du lan inprimatuak. Artean eta geroago inprimatu ohi ziren gabon-kantak baino mardulagoa edukiz eta txukunagoa itxuraz eta letra-tipoz. Azkoitiko Miserikordian bertan irarri bide ziren.

Peñafloridak ez zituen bere izenez argitaratu Azkoitian 1762an gabon egunez kantatu ziren *Gabon-sariak.* Luisa Miserikordiakoa alegiazko monja-izena erabili zuen hartarako, ezizen bat, gaur ziur dakigunez. *EBB* opera komikoaren lehen edizioan ere ez da ageri egilearen izenik, baina bai behintzat aitatasuna antzematen uzten duen *Un Cavallero Guipuzcoano* mozorro gabekoa. Gabon-sariak, ordea, egiletasun mozorrotuaz atera ziren: emakume baten alegiazko izena, Luisa, eta eliz-andere baten izenondoa: Miserikordiakoa.

Zertzelada honen aipua egiten dut, agian egilearen gogoan ere genero bata eta bestea guztiz bereiziak zirelako. Opera komikoa, zaldun baten kondizioari hobeto zihoakion gabon-kanta bat baino, literatura-sorkuntza bezala. Publikoa ere ez zuten bat: antzerkia publiko jantziago eta goi mailakoarentzat pentsatua zegoen: zaldunak edota haien seme eskolariak, elizgizonak. Gabon-kantak liturgiaren aldamenean edo gerizpean aspaldiko tradizioa zuen; nolanahi ere, herri zehea, edo eliztar zeheak ziren genero horren hartzaileak.

Ondoko edizioetan ere ez da egilearen benetako izenik eman oraintsura arte. Hurrengorik hurrengo: *Euskalerria* aldizkarian lehenengo J. I. Aranaren eskutik (1883, 566-570). Mende honetan Manuel Lekuonak *Egan*-en (1956, 9-53), eta berandutxoago G. Arestik (1965, *Auspoa* 48, 47-77), *EBB* antzerkiaz eta Barrutiaren *Acto*-arekin batera.

Gavon-Sariac izenburu nagusiak, *edo* juntagailu ondoko azalpeneko azpituluan, beste bi sinonimo ditu: *Gavon-Cantaac edo Otsaldiac.* Lehenagotik ere euskal literaturan ezaguna den poesia mota baten aurrean gaude, gaztelaniaz *villancico*-etan ordezko adiutua duena. Egileak berak aitortuko du hori batere atzerakuntza gabe, eta agian bere emaitzaren arrazoi ematearren:

> Ygazco Gavonetan ecussinituan gure echean maquiñabat Gavon Canta imprimitu: batzuec Bilbaocoac cirala, besteac Madrilcoac, Carizcoac, ta eztaquit nun an urrutietaco batzuec [...] ¿beste iñun diran Eleizaac imprimierazotzen ditue ateratzen dituen Cantaac, (azquenic Bilbaoco San Praiscuco Praille gajoetaraño) ta gure Azcoitico Eleizaederrean cantatzen diranac, illumpean guelditubeardeve? (*GS* 5-6)

Aurretikoen artean, Bilbo eta frantziskotarrak ditu aipu Euskal Herriari doakionez, Madril eta Kadizkoekin batera. Baina hiri gehiago ere baziren, artean gabonez halako kantuak soinutu edo antzeztu ohi zituztenak gure artean. Agiri bidez on egin daiteke, behinik behin, Bilboz ostean, Gernika eta beste hiri batzutan ere kantatu izan zirela. Besteak beste, Bilboko Jandone Fraiskuko 1855ekoak (1). Gernikako Gandararen bat ere lehenagokoa da (1757) (2), baina

(1) Cf. «Villancicos / en basquence, que se han de cantar en el / Real, è Imperial Convento de N. P. S. Francisco de la M. N. Villa de / Bilbao, en los Solemnes Maytines del Nacimiento de N. Sr. Jesu-/ Cristo, en este año de mil setecientos y cinquenta y cinco, puestos / en Musica por el P. Fr. Martin de Oaraveytia, Organista, y / Maestro de Capilla de dicho Convento.»

honek onduriko eta ezagutzen ditugun hirurak (1762 eta 1764koak beste biak) argitaratu izan zirenen berririk ez dugu.

Kondeak frantziskotarrak hartzen ditu ahotan. Horrek berorrek salatzen du zeharka, agian haien gabon-kantak ziratekeela beste guztien artean hotsik gehien egiten zutenak. Frantziskotarrek orduko Abandon bazituzten komentu bi, gutxienez: bata, apalagoa, Basurtun, eta bestea nagusia eta itzal handikoa, *Convento Imperial de San Francisco* zeritzana, gaurko San Frantzisko kalean zetzana hain zuzen, eta karlistatean suntsitu zena. Beranduago hor loratuko zen, kasurako, Pedro Astarloaren obra. Baina komentu horrek XVIII. mendean, eta XIX.ean ere, loraldi bikaina ezagutu zuen Gaboneko Kanten sorkuntzan, beranduago Jandone Jakue Bilboko eliza nagusian ere oihartzuna izango zuena. Munibe-k *praille gajo* bezala ematen baditu ere, ez dirudi garai hartan Bilboko hiri ondoko komentu hori hain diru-urri zebilenik. Agian, Kantabria Probintziako aberatsenetarikoa zen. Horregatik inprimarazo bide zituen Gaboneko Kantok. Baina atxakia hori eraz datorkio Jaun Kondeari, berarenen inprimatzearrazoia sendotzeko.

Tipografia da besteak beste deigarriena inprimaldi horretan, X. Altzibarrek zuhurki ohartzen duenez (1991, 32). Konposizioaren luzera (36 orrialde) ia liburu txiki batenera hurreratzen da, areago kuarteta neurrietan inprimatu zela jakinik.

Edizio-taiuaz gainera, beste berritasun bat ere berariaz aipu du egileak, hizkera garbiarena. Arteango batzuk erdal usaineko hizkera narratsagoan eginak zeuden antza, eta kondea euskara garbiaren zale azalduko da, aurretiaz Larramendi eta bestek defendatu zuten bideari dautsala: *Ezdebe beste erdara mordollozko abek ainbat merezi?* (*GS* 6). Horretan, zeharrez baino ez bada ere, aitor du Larramendirekiko zorra. Zehazkiago azterkatuz gero, haren hiztegia (*DT*) eta gramatika (*Arte*) eskuartean erabili zituenen duda handirik ez dago: *Cantaac* erdaratikoaren ordezko *Otsaldiac* darabilen azalean bertan, adibidez.

Gabon-kanten izenak dioenez, kantatzeko ondu bide zituen *Otsaldi* hauek, orduan beste tokietan ere egin ohi ziren bezala. Tamalez *GS*-en doinurik ez da gugana heldu, ez eta *EBB*-ko bertsoena ere orohar —«Canzoneta de Chanton de Garrote» ataltxoarena agiriratu zen, hurrean—; baina berberak aitor du, eder emango dutela entzutean: *gure Azkoitiko Musika Aingeruzkoak kantatuko dituan iru Kanta aldia (GS* 6). Sarreran azaltzen ditu, gainera, nolako bertso moldeak eihotzen saiatu den, berarentzat zailen edo zirenak gailenduz; hain zuzen, *seguidilla* eta *aria* direlakoak (*GS* 7).

Egitura ondo taiutua du obrak:

Edizio bat baino gehiago ditu. Cf. Alfonso Irigoyen (1977): «Bilbo eta euskara», *Euskera*, 393-394. J. A. Arana Martija (1981): *Canciones de Navidad*. Berrarg. faksimilez, 17.

(2) Cf. Jose Antonio Arana Martija (1976): «Gabon Kanta de Guernica de 1757», *Euskera* 1976, 89-98.

a) Lehen Otsaldia. Lehenenik, eskenaren kanpotiko ikuspegia: abeletxe bat herriko sartzaieran. Entzuleen arreta eskatzen da, gaian sartu aurretik [*Tonadillea*]. Ondoren, koadroa hurbildik pintatzen da: haurtxoa sehaskan, asto eta idia aldamenean. Birjina Amandrea alboan hari begira. Hurrengo, egiazko aita Jainkoaren miraria azaltzen da: argia kristal garbian sartzen den bezala, sartu da Jainkoaren hitza Amandrearen sabel garbian. Ondoren, aitaordekoa. Hurrengo, hango bakartade giroa. Itxurazko soledadea, ezen zeru guztia du lagun: aingeruak ditu kantari, berri ona iragarten. Azkenik, herritar guztiei erregudeia, haurragana hurbil daitezen, umilki adoratzera eta eskariak egitera. Hark eroango gaitu Aitaren magalera [*Segidilla*].

b) Bigarren Otsaldia. Aurreko eta ostekoa baino askoz laburragoa. Naturaren alabantza, izadiari eta haren osagarri ederrenei (eguzki, ilargi, izar, zeru-lur, mendi, muino, ibar, ibai, erreka) bizia ematen diela [*Rezitatua*]. Jaioberria munduaren kreatzaile [*Ariatxoa*].

c) Hirugarren Otsaldia da luzeena. Artzain-kanta baten bilbatzen da otsaldi hau. Hitzlauzko sarrera-azalpenaz, *Adirakia,* abiatzen da. Ondoren Tirfin eta Filis artzainen kopla-segida luzea dator, artzain-koruaren laguntzaz kantatzen dutela.

d) Atzenean, *Kopla jostailuak.*

2.2. *El borracho burlado*

1764an plazaratu zen Azkoitian, uztailean (2tik 7ra) egin ziren Batzarretan, itzulitako beste antzerki-lan birekin batera (Metastasio-ren *La clemencia de Tito,* Joakin Maria Egiak itzulia, eta *El mariscal en su fragua,* frantsesez Quetant-ek onduriko *Le Maréchal Ferrant* zeritzanaren egokitzapena, Peñafloridak berak atondua). Urte bereko irailean (11an) antzeztu zen Bergaran, San Martinen ohoretan ospatu ziren jaiak zirela-ta. Hots handia egin omen zuen, eta zaldun asko joan bertara ikusten. Harik denbora gutxira sortuko zen *Batzarra.*

Argitaratzea ere urte berekoa da. Bergarako Udalak antzezte egunerako inprimarazo baitzituen Muniberen opera bitzuk, berak sortua eta itzulia.

Obra honek ere, lehenengoz argitara zenetik, bere transmisioan ia mende eta erdiko etena ezagutu du. *RIEV* aldizkarian atera zen atalka lehen edizioaren reprint bat (3), eta askoz beranduago bigarren edizio faksimil bat egingo zen 1969an *Biblioteca de la Gran Enciclopeadia Vasca*-n. Artean, gorago aipatu dugun Aresti-ren *Auspoa*-ko edizioa dugu (1965) (4).

Izenburua, azaleko testu guztia, pertsonaien aurkezpena, azpititulu, deskripzio eta aurkezpen guztiak gaztelaniaz daude. Testu antzeztua euskara-gaztelanian dago, baina gaztelaniak arlo handiagoa hartzen duela esan daiteke.

(3) Cf. *RIEV,* 1907: 383-408, 481-496; 1908: 298-301, 564-568; 1909: 248-260.
(4) *Auspoa,* 48 znb., 79-160.

Euskaraz esateko idatzia dagoen testu guztiak gaztelaniazko itzulpena du aldamenean (5). Horren arrazoia begien bistakoa da: euskara aditzen ez zutenek ere antzezlana arazo barik konpreni zezaten. Euskarazko testua, bestalde, hitz neurtuz dago: egileak berak ohartzen duenez, kantatzeko egina da. Ilustrazioaren estetika asmoen barruan, antzerki musikatua bultzatu zuen Batzarrak, Frantziako komedia-opera eredutzat hartuz. Hala bada, gaztelania da antzezlarien hizkuntza oinarrizkoa, eta euskara kantuzkoan.

Obra honen egitura, gaia, balio literarioak eta eraginak behin eta berriro aipatuak izan direnez, ez naiz horretan luzatuko.

3. Hizkera euskal testuetan

Honezaz ere azterketa batzuk eginak dira, eta hizkuntzari dagokionez X. Mendiguren (1987, 135-162) arduratu da berariaz gai hau *EBB*-n aztertzen. Hurrengo, X. Altzibar (1991) murgildu da testu bietan, obraren edizio kritikoari ia bostehun oin-ohar eta glosarioa erantsi zizkiolarik.

Ondoren emango ditudan zertzeladetan, haiek esandakoaz gainera zerbait gehitzen saiatuko naiz, gauzaren batzuk errepikatzeko arriskuari gehiegi begiratu gabe, hala ere.

3.1. Gipuzkera da kondeak bere izkribuotan darabilen dialektua, eta zehazkiago, mendebal gipuzkera. Beraz, Otxoa de Arin ordiziarraren eredutik hurbilago dagoke morfologiaz, Mendiburu edo Kardaberaz-enetik baino. Baina senide hurrekorik izatekotan, Larramendiren Azkoitiko sermoia dateke bat. Hura 1737an predikatu zuen jesuita euskalzaleak Birjinaren izenaren egunean, irailean, Xabier Maria artean zortzi urteko mutikoa zela, eta ezin da pentsatu argitaratuko zenik, ez baitzen usu. XVII. mendeko Azkoitiko monja baten gutunak ere —Satrustegik *FLV*-n argitara emanak— aurretiko egokiak lirateke zenbait forma kontrastatzeko. Nolanahi dela ere, morfologia aldetiko kidetasun edo hurbiltasun bat bada aipatu testuen eta Muniberenen artean, Azkoitiko, Urolako edota Gipuzkoa mendebaldeko hizkera lotgune duena. Hango bertako hizkeraren zenbait forma isladatzen direla kontearen idatzietan, berehala ikusiko dugu.

Hala ere, testua irakurriz ohartzen gara ez dela euskara lokala; tokiko hizkeraren eta mendebaldeko formen kutsua berez berez irristatzen bazaio ere, ekialde edo erdi-ekialdeko ereduen presentzia nabaria du. Horretarako gogoan izan behar da, ordurako gipuzkera literarioa loratzen hasia zela: Larramendiren gramatika (*Arte*) eta hiztegia (*DT*) lehenengo, hegoaldeko euskal literaturaren pizgarri eta oinarri izango zirenak. Horrez gainera, Munibe idazten hasi zeneko, Mendiburuk argitaratuak zituen artean *Devocioa* (*JVD*) (1747) eta *Otoizgaiac* (1760), eta Kardaberazek ere bai *Cristavaren bicitza* (1760), *Egercicioac*

(5) Elebitasun hau, eta halako sorkuntza-obra baten barruan, interesgarria dateke testu konparaketa baterako ere. Aintzindari dugu Munibe holako testu mota baten itzulpen-saioa egitean.

(1760-61) eta agian *Astete*-a eta beste opuskuloren batzuk. Ereduok gipuzkera literarioa ekialderantz zeramaten, eta kondea ere ez dago prestijio-eredu horren kutsutik libre: halako koine antzeko bat eihoko du, behin mendebalde, behin ekialdeko formak erabiliz. Orohar, Larramendik *Arte*-n deskribatzen eta *DT*-ko adibideetan eskaintzen duen ereduari hurbildik jarraitzen zaiola esan daiteke. Hala bada, erakusleetan, 2. graduan *oriec* (*escu orietatic,* GS 4) erabiltzea izan daiteke adigarri on bat, beste askoren artean. Aurrerago aitatuko ditugu *DT* iturri duten neologismoak ere.

Bizkaieraren eragina ere ezin da ukatu. Sortetxea Markina ondoan zuten Munibetarrek, eta kondeak harreman estuak zituen odolez eta adiskidetasunez hango jendearekin. Berriz gogoratuko dugu emaztea ere oñatiarra hartu zuela. Arrazoi batzuk edo besteak izan, Bizkai tradizioko hitzez eta egituraz josita dago kondearen obra.

Gehitxoago sakon dezagun hizkera-berezitasunen puntuan.

3.2. *Morfosintaxia*

Aditza

a) Mendebal gipuzkeraren ezaugarritzat jo daitezkeen honako formak aipa daitezke:

— *erazo* faktitiboa, beste idazle gipuzkoar askotan ere zabal dabilen arren, mendeb. hizkerarekin dago kidetua. Aditzoinaz zein partizipioaz, bietara darabil: *argierazotzen* (*GS* 4), *sartu arazoko aut* (*EBB* 5).

— Aditzizenak eraikitzeko *-te / -tze* bitasuna gertatzen da hainbat aditzeredutan Bizkai eta beste euskalkien artean. Behin baino sarriago hautatzen du Bizkai erakoa. Adib. *Kanpaiak jotera* (*EBB* 8). Baina hurrengo bertso-lerroan: *Kanpaiak asitzen dira, asi-tzen* eredua darabil.

— Laguntzaile iragankorraren adizkietan, *deu, debe, neban* (6).

Iragan datibokoa laguntzailean *dizku* darabil, bizkaierako *deusku / -z* adizkiaren nori-hizki berbera duena (7).

— *Egin* lag. aoristoa hiru pertsonako adizkietan sarriro darabil, bestalde gipuzkera klasikoan ugari eta zabal lekukotua. Hala darabiltza *egiozu, egiezu* edo *egiztak* obj. pl.duna (8). Baina *ezan* lag.eaz ere baditu holako adizkiak, adb. *zaiogun* (9).

— Aginteerako adizki laguntzaileak gero kutsukoak direnean *-ke* atzizkiaz eraikirik ikusi ohi dira Bizkai tradizio zaharrean, eta berdin hain zaharra ez den

(6) Cf. *Jaincoac nai* badeu (*GS* 6), *guelditubear*deve (*GS* 6), *secula alacoric nola ecussi ere ez* nevan *ecin asmatu nevan* (*GS* 7).

(7) Cf. *bialtzen* dizcuen *azquero* (*GS* 4).

(8) Cf. *eman* eguiozu (*GS* 4), *adierazo* eguiezu (*GS* 4), *lotara ezarri* eguistac (*EBB* 6).

(9) Cf. *Esca*zaiogun (*GS* 16).

Añibarro eta Juan Mateo Zabalagan ere. Munibek, Txantonek saltzaileari emandako erantzunetan, aginteera kutsu garbikoak daude: *Ara nere Emakumea, orain zer egintxo bat daukat, ta gero biur daitezke* (*EBB* 34), *Andretxoa, orain presa degu, beste ordu baten zatozke* (*EBB* 35), *Atozke bazkal onduan.* (*EBB* 35).

— Aniztun (pl) baliorako bakun (sing) zentzuko adizkiak erabiltzearen azterrenak Bizkai ekialde eta Gipuzkoa mendebaldeko testuan ematen dira noizbehinka. Kondearenean ere badira halako batzuk: *zera* (zuek), *zaude* (zuek), *dezu* (zuek), *zauzka* (zuek) (10). Mogelen testuetan hainbat adibide idoro daiteke, baina modurik erregularrenez darabilen idazlea Frai Bartolome dugu.

— Aditz trinkoetan *ikusi* aditzaren adizkiak ditugu: *dakusgun*, bizk. *dakuskun*, eta *dakustan* (11).

b) Ekialde joerakoak dira, ordea, ondokoak:

— Mende-atzizkietan *-en, -ela* egitea, mendebal erako *-an, -ala* barik. Hala, *dela, dena* erakoak darabiltza (12).

— *dute, dituzte* egiten ditu *edun* aditzaren 3. pers. aniztunak, beraz *-te* hizkiaz, eta ez *-e* hizkiaz (*due, ditue*), gipuzkera mend.ak ohi duenez. Beraz, gipuzkera ekialdeko joera (13).

— *dadukat* adizkia, *daukat* baino ekialde joera handiagokoa da (14).

— *Etzan* aditzaren *dautza, zautza* adizki aniztunak, gip. eta ekialde euskalkiei dagozkie (15).

c) Arkaismoez ezin hitz egin daiteke zentzu hertsian obra hauek direlata, zeren idazleak, beste klasiko askok bezala, garaiko entzuleen ulergarritasuna bilatzen baitu. Hala ere, gaurko ikuspegitik zahar-azterrentzat jo daitezke *zendozena* (zentozena), *gengian* (genkian, genekien) bezalako adizkiak, *n* ondoko ozendurak bitxi bihurtzen dituenak. Inguruko hiztunek hala erabiliko zituztela pentsatu behar da.

d) Tokiko edo inguruko hizkeraren adigarritzat jo daitezke beste hauek:

(10) Cf. *Eguzqui andia / Yzar arguia / Lastotan dautzan / aurcho orrec / sortuac* cera, / *ta orren mendera / vici artean / zaude zuec* (*GS* 19), *Ain gueldirican / ceuen toquian / lecu batean /* zausca *zuec* (*GS* 19), *Eranzun bada lagunac / essan*dezun *bezela* (*GS* 23).

(11) Cf. *nola guc* dacusgun *gaur* (*EBB* 22), *baña* dacustan *ea / nere Chapelcho adobatuba.* (*EBB* 24).

(12) Cf. *Gurequin* dela (*GS* 16), *naiz* dena dela (*GS* 16).

(13) Cf. *bocic onenac* dituztenai (*GS* 21), *ceintzuec au eguiten* duten *canta berri onetan* (*GS* 21).

(14) Cf. *aur biurturic / gaurco gavean /* daducat *nic / guizon tristéa* (*GS* 19).

(15) Cf. *zuc gordeco dituzu / òr* zautzan *lecutic* (*GS* 24).

— *diaz* (doaz) adizkia, berariaz gipuzkera mendebaldean ezagutzen dena. Besteak beste Mogelen gipuzkerazko testuetan guztiz ugaria da; ez, ostera, beste giputz autore klasikoetan (16).

— *zat,* bizk. *jat* eta gip. *zait* adizki-formen erdibidekoa, gaurregun ere bertsotan, puntuak hala eskaturik, sarri erabilia (17).

Mugatzaileak, deklinabidea eta beste

a) Mendebaldea zentzurik zabalenean hartzen badugu, bizkaieraz gainera, gipuzkera mendebaldekoa barruan dela, eta nolabait ekialdeko gramatika-ezaugarriekin oposatu, ugariak direla esango dugu mendebal hizkeren bereizgarriak testuan. Baten batzuk garanduko ditugu:

— Perts. izenordainetan, 3. pers. anizt. *eurak* darabil batzutan, edo honen gen. edut. *euren* (18).

— *-ea* sintagma mugatua *-a* bokalez amaituriko hitzetan. Adb. *Tonadillea* (*GS* 9).

— *-ori, -au* eta batez ere *-ok* mugatzaile hurbilak ugariak dira lan bietan, Bizkai testuetan gertatu ohi den bezala. Hala zentzu positibo zein negatiboko izenondoekin eraikitzen diren bokatibo-sintagmetan: *Emen engoan i / urde zikiñori* (*EBB* 4). Baita ere lehen edo bigarren pertsonei, sing. edo pl., dagozkien izen-sintagma markatugabeetan ere: *Eldu bada irurok, / ik burutik, / ik gerritik, / eta ik oin aldetik* (*EBB* 13). Era berean, lehen edo bigarren graduko posesiboen ondoko izenetan: *zuben gosariori / ozten oidago* (*EBB* 18) (19).

Baina Bizkai euskaran usu denaren kontra, mug. generikoa erabiltzen ere badaki halakoetan: *Artzen badegu / bi*en *artean...* (*EBB* 9).

— *Orien mesedeok,* Bizkai tradizioan sarriro ageri den *euron mesedeok* goi-tratamenduko izenordainaren parekoa da (20).

— *-az* instr. soziatiboaren lekuan darabil, Bizkaiko *-agaz* hizkiaren pareko bezala. Hala nabari da *beraz batera* adizlagunean. Ziurrenik, bost silabako neurriari egokitu beharrik forma laburtu hori hautatu du (21).

— [Izen *-ekin / -gaz* + Izen] juntadura edo koordinazio balioko egitura, Bizkaiko aldean baino Gipuzkoakoan ia sustraituago dagoela esan daiteke, berariaz mendebal gipuzkera osatzen duten Urola eta Goiherrikoan. Lardizabal

(16) Cf. *alcar aturic* diazela (*GS* 21), *ura / empleatzera* diaz (*GS* 33).

(17) Cf. *Ay niri cer eguin* otezat*!* / *oñez ibilten aztu*zat. (*EBB* 1).

(18) Cf. Euren *damu gaistoan* (*GS* 25).

(19) Ondoko adibide honetan: *Jaun andi*au *ecustean* (EBB 31), *ni* lehen pertsonaren ordez dago mug. hurbildun IS.

(20) Cf. *Egun on Jaungoicoac dietela* / orien messedeoi. / *Urte ascotan egon ditezela* / orien messedeoc. (*EBB* 33).

(21) Cf. *guero eramango gaitu* / veraz *batera* (*GS* 17).

eta Iztuetaren testuak apurren bat jorratzea asko da hori frogatzeko. Gipuzkoako alderdian gaurdaino bizirik iraun du gainera egitura honek. Azkoitian bertan arruntak dira hiztunentzat, *aitarekin ama etorri dira* eta halakoak. Peñafloridarenera itzuliz, soziatiboaz barik, *-az* instr. mugatuaz ere eraikitzen du balio hori, *-ekin* soziatiboaren gainera. Itxura guztien arabera, haren hizkeran guztiz ohizkoa izan behar zuen egitura honek (22).

— *-rean* ablatibo arkaikoaren azterrena ere badugu *sekularean* horretan. Euskara zaharrean, bizkaiera baino eremu zabalagoa hartzen bide zuen (23).

— Zenbatzaile multzokari aniztuna adierazteko, *guziak / guztiak* formaz gainera, *izan* aditzaren orainaldiko flexioak erabiltzen ditu. Hala *diranak* 3. perts., baina baita *zeranak* 2. koa ere. B eta G euskalkietan zeharo hedaturik dagoen multzokari zahar kutsuko hau —ez dakit gaurregun Azkoitian erabilia den— bizi da oraindik Oizpeko auzoetan, besterik ezean *diran guztiak* bezalako perifrasietan. Dena den, XVIII. eta XIX. mendeetan lekukotasun ugariak ditu, batez ere Bizkaiko aldean: *dirianak, dirianok.* Muniberen testuan bereizgarririk interesgarriena, *zeranak* 2. pertsonakoa erabiltzean datza (24).

— *ezpada* junt. aurkariaren erabilera, Bizkai euskaran ugaria dena (25).

— Mende-perpaus osagarrietan *-na* atzizkia erabiltzea, Bizkai euskaran ezeze, gipuzkeran ere zabal dabil, baina berariaz gip. mend.ean. Ugaria da, esaterako Goiherri aldeko izkribatzaileetan (Iztueta, Lardizabal). Urolako hizkeran gutxienez gaurdaino iraun du, eta areago erabili ohi da bertsotan, puntua hornitzeko egoki datorrenean. Kondearen testuetan ere ezaguna da, jakina (26).

— Izenaren eskuman kokaturiko perpaus erlatiboak, Mogelegan hain ugariak direnak, Munibek ere lekukoturik ditu inoiz. Hala: *Nola naizan Zapatari / fama andia dudana...* (*EBB* 15). Berez euskara osoko egitura da hau, baina Bizkai autoreetan, berariaz Markinaldekoetan, are ugariagoa.

— *ain... zein da* korrelazio-egitura konsekutibo zentzukoa, berariaz Bizkaiko tradizioan dokumentatua dena ere badarabil, ondorioko aditzari menderagailurik ipini gabe gainera: *ain da poz nere gogoa /* zein da *ezdakit zer egin* (*GS* 17).

b) Erdialde edo ekialdeko hizkera-ezaugarritzat eman daitezke beste hauek:

---

(22) Cf. *Ceruaz Lurra, ta Ychasso zavalac* (*GS* 18), *itz batean Cerua vere arguiaquin / Lurra, ichassoaz, ta ur guciaquin* (*GS* 18).

(23) Cf. *gurequin bearco dezu / beti* secularean (*GS* 24).

(24) Cf. *essango ditut* diranac (*GS* 10), *Ezda Arzayric guelditu / inguru gucian, /* diranac *emen datoz / bada elcarren leyan* (*GS* 23), *atozte, atozte ni gana* ceranac (*GS* 18).

(25) Cf. *ecin beste modus pagaguitzaqueala* ezpada *arequin* (*GS* 4).

(26) Cf. *Arzayzat* zendozena */ ainciña guenguian* (*GS* 25), *Essagundu Munduac / Jesus jaio* dena (*GS* 32).

— Erakusleetan *abek* ald. gipuzk. mend.ari dagokio. Era berean *aura* 3. pers. sing., Deba arroko gipuzkeran ere erabilia dena. Mogelek horraitio *ura* hobesten du testuetan (27).

— *berak* 3. graduko izenordain aniztuna eta berari dagokion *beren* edutezkoa aniztuna (28).

— Izenordain edutezko bihurkarietan ere, *nere, gere, zere* eredukoak ditugu. Nolanahiere ez dago oraindik *gure / gere* neutralizariorik. Edutezko arruntak forma neutroekin osatzen ditu (29).

— *-(e)z* instr. mugagabea *bat* bezalako zenbatzaileekin (*batez*) nekez erabili ohi da bizkai euskaran (30).

— *ainbat* berdintasun konparazioko posp. bezala: *Ezdebe beste erdera mordollozko abek ainbat merezi?* (*GS* 6). Bizkai euskaran *-en beste, aina* edo antzekoren bat agertu ohi da.

— *zein* anaforikoa erlat. mende-perpausetan mugaturik deklinatzen da, eta ez Bizkai euskaran bezala mugagabez. Hala *zeinean* (*canta onen irudidea,* ceiñean *asmatzen dan...*, *GS* 21).

— *bait-* aditz aurrizkia, giputz euskaran ohi denez, kausa-zentzua markatzen darabil: *bait da* (*donzella /* bait *da garbia, GS* 12, *mirari aiñ andiau / guertatu* bait *da, GS* 12).

— *-tekotzat* hizkia, helburua markatzen duena, ugaria da aditzizenekin ekialde euskalkietan, baina gipuzkeraz ere ezaguna. Larramendik ere aipatzen du bere *Arte*-an (ed. Altzibar, oh. 148, 183). Behin baino sarriago darabil kondeak: *ta ongi etorri on-bat / ematekotzat* (*GS* 22), *ogi puskatxo bat / irabaztekotzat* (*EBB* 14).

3.3. *Lexikoa*

a) Hemen ageri da nabarien Larramendiganako atxikimendua, adibidekopurua hain ugaria ez bada ere:

adiraki, 'oharra' (*Adiraquia, GS* 21).

askideatu (*asquidatu, ta cumplitudezue, GS* 5).

egokilkida, 'metafora', testuan *egokikilde* bezala datorrena (*Arzayaren egoquiquilde edo Metaphoraren azpian, GS* 22).

irudide (*canta onen irudidea, GS* 21),

(27) Cf. *utci erassoco disca / laster baster* avec (*GS* 25), *Beti goiz, ta gabean, /* aura *picher artean* (*EBB* 3), *ta ni* aura *billatcen* (*EBB* 3).

(28) Cf. *Avereac* verac (GS 11), veren *arnassaz* (GS 11).

(29) Cf. *ezgaitzala arren utci /* guere *vician* (GS 16), Gurequin *dela* (GS 16).

(30) Cf. *laguntzeas / Estrivillo batèz gucien artean* (GS 22).

mirari (*GS* 9).

ongiro, 'benignidad' (*nai oi dezun onguiroarequin, GS* 4).

b) Bizkai edo mendebaldeko euskalkiarekiko kidetasuna salatzen dute hainbat hitzek. Hitz bat edo beste izendatuko dugu Bizkai airekoen adigarritzat:

albo (*alboan jarrita, GS* 11).

algara, Bizkai euskaran da erabiliena, idatziz zein ahoz, baina giputz mendebaldeko autoreetan ere ezaguna da (31).

ames ald. (*amez alegreaquin,* EBB 7) Bizkai taiukoa da, *amets* erdi eta ekialdekoaren ondoan.

antxinako (*Melon anchinaco Organista buapo arc, GS* 7), *aintzinako* barik.

atxur, erdi eta ekialdeko *aitzur* barik (32).

ausi, pentsa daiteke mendebaldeko *ausi* ald. dugula, eta ez *(h)autsi* erdi. eta ekialdekoa (33).

bear, 'lan', eta *beargai,* 'zeregin', Bizkai euskaran erabiltzen diren bezala darabiltza, baina *langai* ere bai (34).

berariaz (*GS* 5).

burdinara (*Burdiñara, GS* 33), *burdin* + *are* osagaiez eraikia, mendebal kutsuko hitza da, duda barik.

ediro, 'aurkitu' (*ediro ecindet, EBB* 1), Otxoa de Arin Ordiziakoak, Barrutia eskribauak eta Mogelek darabilte besteak beste aldaera berau, Bizkaiko beste idazle askok *idoro* darabilen bitartean. Nolanahi ere, Urola eta Goierrin arrunta zen hitz hau (35).

eleiza (*Eleizaac, GS* 6), *eliza* barik.

elkarren leian, 'zeinek gehiago', gipuzkera tradizioan ezaguna, baina askoz ugariagoa Bizkai ekialdekoan (Mogeldarretan adib.) (36).

eskerge (*Mendi esquerguea, GS* 19), bizk. *eskerga,* Bizkai euskara tradizioan ugaria, berariaz bizk. ekialdean, baina gipuzkerakoan ere ezaguna (Kard., Izt.).

(31) Cf. Algara, *farreac* (*GS* 32).

(32) Cf. Achur, *Burdiñara, ta / golde biurturic* (*GS* 33).

(33) Cf. Aussiric *gabe* (*GS* 13).

(34) Cf. *bada bici guera / bere* bearrarequin (*EBB* 14), *goicean goiz* bearrerá (*EBB* 15), *Aimbeste* bearguairequin, / *au ecusten badet nic* (*EBB* 14), *estubenac* langairic / *iñoz escuartean* (*EBB* 14).

(35) Cf. Barrutia: *Pobrero xaio zara Jesus dulzea /* ediro *ezin arren ostatu obea* (*Acto* 21).

(36) Cf. *diranac emen datoz / bada* elcarren leyan (*GS* 23).

ete bizk. ald. ere inoiz badarabil, *ote* orokorrarekin batera (37).

idizil, 'zigor, barda' (*verga*). *DRAE*-k Bizkai euskarakotzat dakar, D. Agirreren *Kresala*-ko adibidea ematen duela (38).

igaroko (*Ygaroco urtetan, GS* 5), gaurregun ere Bizkai aldean bizirik dirauena laburdura bidez: *idako / irako astebetean* erako esapideetan.

ingura(tu), 'maneatu, bizkortu', Mogelek darabilen *ingira adi / zaite* agindu-lokuzioaren parekoa da (39).

inoz (*GS* 9), *inoiz* aldaera barik.

inunzi, 'erratz, ginarre' birritan ere badakar Munibek. Tokiko euskarako ald. ematen du, literaturan oso gutxi lekukotua. Larramendik dakartzan hurreneko aldaerak, *iunzia, igunzia* dira (40).

onguiñai (*GS* 4), *-gin* atzizkiaz.

ugariro, mendebal joerako *-ro* aditzondo-atzizkiaz (41).

zoro (*zoro biurturic,* GS 11), *ero* barik.

Gabon hitza da adierazgarrienetarik, lehen testu guztian hain maiz eta testuinguru desberdinetan erabilia: *Gabonak* (*Ygazco Gavonetan, GS* 5), *gabon egin,* 'celebrar la Navidad' (*gavon eguiteco, GS* 5), *gabonsaria,* 'aguinaldo' (*GS* 5).

c) Erdi edota ekialdeko kutsua ageri dute, aldiz, beste hitz batzuk:

andre (*Andre onen, GS* 13), eta ez *andra* mendebaldekoa.

apeta, 'capricho' (*cer apetec edo eroaldic emandidan,* GS 5).

arzai (*Belen inguruco Arzaiac,* GS 21), eta ez *arzain* (*artzain*) Bizkai euskaran bezala.

aurtxo (*an dago aurchoaz, GS* 13), nahiz *ume* mend. ere darabilen.

biribilatu, 'inguratu, batu, elkartu', Larramendik ere darabilen aditz bitxia, eta Arakistainek ere jasoa (cf. Altzibar oh. 23), baina testuetan gutxi lekukotua (42).

(37) Cf. *Au nola* ete *dijoan / veguira beza.* (*EBB* 17), *Amezetan* ote*nago?* (*EBB* 24).

(38) Tamala da hiztegi batzuk *idizil* hitzari sarrerarik ere ez ematea, hitz lexikalizatu osoa izan eta zentzu guztiz propioa duenean.

(39) Cf. *ecin* ingura *leique / goicean goiz bearrerá* (*EBB* 15). Mogelegan: *Nescatilla,* inguira *zaite* (*PA* 11).

(40) Muniberen adibideak: *nola* iñunciac *eguiten ere daquian* (*GS* 7), Yñunci *onequin / Denda au, / gaur garbituco det* (*EBB* 13). cf. Larramendi, *DT* I, 339.

(41) Cf. *Garia, eta Artoa / merque ta* ugariro (*GS* 34).

(42) Cf. *ecin iñoz echera / vere aurren aldera /* biribillaturic (*EBB* 3).

erdietsi (*erdietsi dessazula, GS* 4).

estrabi, 'aska', G eta AN euskalkietan ageri da (Larr., Kard., Arrue). Añibarrok (*VocB* v. Pesebre) beren-beregi markatzen du G euskalkikotzat, bizkaierazkotzat *askea* eta *estramiña* dakartzan bitartean. Hitz honen senide hurbila da *estramiña, -ea,* Bizkai mendebaldeko Añib. eta Zabalak darabiltena (43).

etsai, (*Etsaya alferric dabil, GS* 24, *gure Etsay guztiac, GS* 25), eta ez *arerio:*

etzin (*auzpez etziñic, GS* 4, *etziñic au paz, GS* 11), eta ez *etxun.*

farra, farre, eta ez *barre* (44).

gabe, nahiz *bage* gip. mend.eko aldaera ere bai *naibage* berban (45).

guzi (*guizon on gucientzat, GS* 15), baina *guzti* ere badarabil.

jatsi (*jatcitacoa EBB* 1), eta ez *jetsi,* giputz klasikoetan ere ageri dena, Bizkai euskarako ald. bera da.

lendabizi (*lenda bician, GS* 16), *maiz* (*GS* 12).

naski (*Argatic nasqui / dabil Mundua igassi, GS* 15), *ongui* (*ongui baguera, GS* 16).

zai (*Chabolac zai gabe, GS* 24), eta ez *zain.*

d) Tokiko hizkerako aldaera asko goiko sail bietan emanak dauden arren, berezitasuna duten hauek gehituko ditugu:

erten, bizk. *urten* eta ekiald. *irten* barik (46).

kopra, 'kopla' (47).

paratu, 'prestatu, atondu': *ispillu bat bezin / garbi, lau / ta eder parako det* (*EBB* 14).

e) Zahar kutsuko hitz eta adizkiak ere ageri dira testuetan, baina kondeak halako uste barik darabiltzanak. Berarentzat ezagunak ziratekeen hitz-moduok, eta ziurrenik ahozko iturritik jasoko zituen, eta ez aurreko autore eta idatzietarik. Hartakotzat jo daitezke:

Badarauntza, 'jotzen du' (*Campaeac badaraauntza ya, GS* 8).

(43) Cf. *Munduaren Salvatzaillea jaiozala* Estrabi *batean* (*GS* 21).

(44) Cf. *malcoac / oi dira* farra *baño / gozoagoac* (*GS* 13), *Algara,* farreac (*GS* 32).

(45) Cf. *zai gabe [...] arduraric* gabe (*GS* 24), *Len gucia zan pena / negar, nai* bagueac (*GS* 32).

(46) Cf. *nola sartu, ta* erten (*GS* 12).

(47) Cf. Copraric *gueienac* (*GS* 6).

Madura, 'fadura, padura', ibai hegal lauak. Azkuek (*Dicc*) Bergarako lekukotasuna jasotzen du.

Munotxoa, 'muinotxoa' (*Munochoac salto bildotzchoen guisara, GS* 18).

Ostia (*Ostia sentitcéan, EBB* 8), gaurregun ere Urolaldean bizi den hitza, adib. *osti-zaparrada* konposatuan. Mogelek ere gipuzkeraz badarabil, eta arterago Larramendik jasoa du *Trueno* hitzean (48).

Sartzaiera (*Gure Errico sartzayeran, GS* 9). Aditz etorkiko izen-aldaera horrek *-tzaite, -tzaiera* nominalizatze-berrekailua du. Holakoak silaba biko aditz batzuekin egin ohi dira bizk. zaharrean: *artzaite, batzaite, eltzaite, kentzaite, saltzaite, sartzaite* eta bestetan. *Sartzaiera* izena zabal dabil Bizkaiko klasikoen artean (cf. Añibarro).

4. Estilo-baliabide batzuk

4.1. *Hitz-andanak*

Kategoria bereko hitzen enumerazio edo lerrokak oso gustuko ditu kondeak. Testua bertso-neurrian ondurik egonda, hainbat erosoago izan ohi da baliapide honetara jotzea. Izenen lerrokak dira ugarienak, obra bitzutan gainera:

ta orain atzeguin, gusto / Algara, farreac. / Gorroto, errierta, / auciac, ta guerrá, / gaitzac, gosse, guezur, ta / intencio oquerrác (*GS* 32)

Abogadu, Escribau, / eta Merioac, / Medicu, Barberó, ta / Boticarioac (*GS* 32-33)

Emango digu lurrac / Garia, ta Artoa, / gastaña, sagardoa / ta ardoa naicoa. / Juan da emendic trampa, / ta fede gaistoa, / ya ur bague saltzenda / Tabernan ardoa. (*GS* 33-34).

Izenondoenak ere ez dira falta halako kateaketak:

Senar ordia / alfer naguia (*EBB* 2), isopillu bat bezin / garbi, lau, ta eder paraco det (*EBB* 14).

4.2. *Adjetibo adierazkorrak*

Adierazkizun-preminen araberako adjetiboak hautatzen jakitean dago sarritan konposizioak sorrarazten duen zirrara edo eraginaren giltza. Herri-iturritik jasoak diren heinean, maisukiro jadesten du eragin hori lortzea Munibek. Adibidez, *triste* izenondoaz aurkezten du Txantonen emazte dohakabea: *ai Maritxo tristea/ / Ire zorigabea/* (*EBB* 3) (49). Adjetibo markatuen kasuan batez

(48) Cf. *Jaiqui zan* Ostia *illun edo eguraldi trumoezcoa* (Mogel *CC* 131). Larramendi (*Dicc* II, 353): «Trueno, [...] *ostotsa, odotsa, ostiya* [...]».

(49) Gaurregun ere inoren beharrean dagoen jendea izendatzeko hala erabili ohi da herrihizkeran: (a) *Hareek ume* tristeak, *aitarik ez amarik ezagutu ez dabenak!* (b) *Gizon* tristea! *Andrea hil jakonetik bururik be ez dau altzau.*

ere, are gehiago zentzu gaitzesleaz edota berdin onesleaz direnean, logratuago ematen du testuak. Senar-emazteen tirabira guztian, izenondoen kontrajartzean dago gatza eta berakatza. Batetik, *urde zikinori* (*EBB* 4), *likitsa* (*EBB* 5)... Bestetik, *laztana* (*EBb* 4).

4.3. *Errepikak*

Adierazpide hanpatzaileen artean, baliabide guztiz arrunta. Hala, Txantonen atsedeten uzteko eskariari Maritxok ezetz erantzuten dionean, Txanton gogor tematzen da: *Bai, bai, bai, bai* (*EBB* 4). Isiltasuna eskatzeko, hiru pertsonaiak batera kantatzen dute: *Txit, txit, txit, txit / goazen ixil ixilik* (*EBB* 13).

Bertso-ahapaldi labur samarrak behin baino gehiagotan dira errepikatuak. Hala: *Or konpon Marianton / ajolarik etzat* esaldia birritan emateak erritmo eta jaikitasun berezia eransten dio eskenari. Aurrerago, *Eldu bada irurok, / ik burutik, / ik gerritik, / eta ik oin aldetik* bertsoa hirutan kantatzea, ekintza korapikatzen den puntuan gertatzen da.

Euskal atala kantatzeko egina izateak zerikusi zuzena du ia beti errepika-egitura honekin, antzezlariak kantore-koru bihurtzen balira bezala.

4.4. *Hitanoa*

Hitano trataerak pertsonaien arteko etxekotasuna, hurkotasuna adierazten du: etxe eta lagun giroko berbeta-modua da, eta giro horretan ohi darabil Munibek ere, txukun gure ustez. Dena den, senar-emazteen artean, Txanton eta Maritxoren artean hika egitearen arrazoia ez dakigu zertan datzan: hala ekantzen zelako garai hartan, ala kondeak berariaz ipinita, andre-gizonen arteko harreman garraztua markatzeko. Lehen hipotesiak dirudit sinesgarriago. Elizgizonen gomendioen lokarrietarik askaturik jokatzen duke antzerkigileak, hala izanez gero.

4.5. *Hotsitzak*

Hotsitzen bidez entzuleengan sortzen den eraginaz ondo daki baliatzen idazleak. Hala, kanpaiotsa irudikatzean: *din dan, din dan, din dan* (*EBB* 8), iterazio-egitura hirukoitzaz. Berdin trumoiotsa: *Trumoiak aditzen dira / trrrum, trrrum* (*EBB* 8). Edo zigorraren hotsa: *zirt zart* (*EBB* 9). Herrenaren oinotsa: *Nere erren guziarekin, / banabil, trik trak, trik trak* (*EBB* 14).

4.6. *Soziatibo emendiozkoa*

[ISnor + IS-ekin] sintaxi-egituraz adierazten den emendio-egitura ez da *eta* juntagailuaz adierazten den berbera, ene ustez; hau markatugabea den bitartean, hura markatua da. Hitzlaua baino egokiago gertatzen da, gainera, bertsoa, egitura honen indar estilistikoa isladatzeko: Emaztea aurrakin / *aztuerazo egiztak* (*EBB* 7) (50).

(50) Ez dago gogora zertan ekarri Bizkaiko amodio kantu zahar hartako kopla ezaguna: *Ene begiakaz biotzeen artean / errenkore andiak erne zitean* (Mitxelena, *TAV*, 3.1.22.).

5. Herri-tradizioko ondarearen ekarri batzuk

5.1. *Pertsona-izenak eta goitizenak*

Herri-pertsonaiak dira obra batean zein bestean kondeak aurkezten dizkigunak, nahiz ekintza-protagonista ez diren beti hauek, are gutxiago *GS*-n. Gabon-kanta honetan aipu soila baino ez du egiten, baina interesgunea beren izendeituretan datza. Munibek inguruan zukeen gizarte euskaldun hartatik hautaturiko bene-benetako herri-pertsonaiak dirudite, batez ere izenari eta lanbideari dagokienez: *Martinbeltz gixagajoa* (*GS* 7), *Melon antxinako Organista buapoa* (*GS* 7), *Lorentxo dantxaria* (*GS* 7). Ohar bedi pertsona-izenok forma hipokoristikoz emanak daudela, herritarren artean entzuten ziren bezala. *EBB* antzerkiko pertsonaien zerrenda irakurri baino ez dago: *Txanton Garrote*, *Maritxo*, aurrekoaren emaztea, *Martiniko* zapataria, *Matxalen* honen emaztea. Era berean, *Antontxo, Juantxo* bezalakoak. Izen batzuk itxura bikoiztuaz ematen ditu euskara-gaztelanietan, hala nola, *Peru / Periko* (*EBB* 9). Nolanahi ere *-txo* atzizki gutitzailedunak dira ugarienak izenetan. Jaun zaldunak *Don* titulua aurrean dutela izendatzen dira, *jaun* statusa ondo agerian dela. Hala, *Don Pedro, Don Antonio, Don Diego.* Hauek ere, ezin ukatu, gizarte hartako pertsonaiak ziratekeen, Muniberen lagun hurrekoak eta bera bezain umoretsuak, nonbaiten ere.

5.2. *Hizkera-lokuzioak*

Herri-hizkeraren ezaguera ona ezeze, haganako eraspen handia erakusten du kondeak euskal lanetan. Horretan aurretiko jesuita euskalzaleetarik ez zebilen urrunegi. Larramendi, Kardaberaz zein Mendiburuk erreferente nagusitzat dute herri euskara, hiztunen hizkera, esatez eta egitez. Hala aitortzen dute, batez ere lehenengo biek, eta hala aplikatzen dute beren euskal idatzietan.

Aztergai darabiltzagun testuetan, herri-hizkeraren islada alderdi desberdinetan nabari bada ere, lokuzioak begiz joko ditugu, eta baten batzuk aurreratu:

Ajolarik etzat, bizk. *ez deust ardura,* giputz hizkeran oso hedatua.

Aren pasiua! (*EBB* 24, 36), gaztelaniaz '¡Voto a tal!' itzultzen duen ateraldia.

Auxe bai gizona diabruetxera (*EBB* 31), gazt. 'Este sí que es hombre con mil diantres' itzultzen du.

Bost gaubela ta izerdi gozo, zeinetan *bost* zenbakia balio mugagabez erabilia den; bestalde, enumerazio-kate adierazkorra osatzen dute IISS biek (51).

Esan da egin (*Orrabada* essan da eguin *nun imprimierazo ditudan, GS* 6), agindu baten betekuntza iragarteko.

(51) Cf. *bost gaubela, ta izerdi gozo co ta bazaitzit ere* (*GS* 7).

Gatutua egon, 'hordirik, mozkorturik egon', edo *katubaz egon* Mogelen erara, zabal dabilen irudia da euskaran (52).

Gizonaren panparroia! (*EBB* 16), [Iz + *-en* + Adj] egituraz eraikia, zentzu hanpatzailea adieraziaz.

Gogoango didak, gazt. 'me las pagarás', mehatxu-esaldia, Mogelek ere behin baino sarriago darabilena bestalde, eta Larramendik hiztegian jasoa (*Acordarse*). Bizkai ekial. eta gipuzk. mend.ean lekukotua (53).

Mesederik asko, bearrikan asko, gaurregungo *eskerrik asko* formularen egituraz eraikiak darabiltza, non *-ik* part. + *asko* zenbatzaileaz balio hanpatzailea ditxekan esaldiari (54).

Or konpon Marianton (*EBB* 5), gaurregun ere bizi-bizirik dirauen ateraldi zaharra, esaleak bere burua zuritzeko erabili ohi duena (55).

Ordu onean perifrasi klitxetua, gazt. 'enhorabuena', garaiko hizkeran zabal zebilkeen.

Poliki baten, bizk. *polito baten* (*Poliqui baten cantatcen die aren passioa, EBB* 36).

Urtikan, 'kanpora' (56).

5.3. *Atsotitzak*

Errefrau edo atsotitzik bat edo beste baino ez dugu idoro testuan. Bi dira aitagarrienak:

(1) «Oh! y con quanta razon / dixo aquel gran Vizcayno: / *Auntzac ichi baleyo / Aquerrac ichi leyo.*» (*EBB* 6)

(2) «Alaje Dendariac, / eta Zapatariac / ire erriertaacgatic / milla itz emanagatic / gogoric ez badute / ecer eguingo ez dute, / *alper da Maria maquillatu / berdin berez behardu.*» (*EBB* 8)

Bitzuk dira ezagunak eta berariaz mendebaldeko tradizioan hotsa egin dutenak. Herri-jatorriko beste hainbat hizkuntz-baliabide bezala, atsotitzok testuan josteko idazleak agertzen duen trebetasuna nabarmen jartzekoa da. Horrek adierazten du kondeak bazuela halako jakinmin eta sentiberatasuna herri-hiz-

(52) Cf. *edo nago zoratuba, / edo bestela* nago gatutuba. (*EBB* 25).

(53) Cf. *Farra eguiten didac /* gogoango didac (*EBB* 5). Mogelek ere mehatxu-kontestu berean: "*Goguango deubat, deunat,* o *deutsut;* no te lo hecharé en olvido: amenaza" (*PA Nomencl* 161), "Ichoc bada: *goguango doc* niri bazcarija ucatuba" (*Ip* 30).

(54) Cf. *Martin beltz guissagajoac* messederic asco *eguiñic* (*GS* 7), *Atozte, eguindezute /* bearrican asco (*EBB* 18).

(55) Esamoldearen zentzua hurrengo bertsoak uzten du agerian: *Or compon Marianton / ajolaric etzat.*

(56) Cf. *Urtican ichura gaistoori* (EBB 36), *Urtican petral ori*(*EBB* 36).

kera eta herri-jakintza gaiei buruz. Baina ez da ahaztu behar, bestalde, Larramendiren hiztegian izan zuela aurretiko aberats bat errefrau kontuan, hiztegian zehar horietarik asko baitago sakabanaturik.

Lehenengo atsotitza erraz izan liteke etxe giroan edo Markinaldeko gizartean ikasia, bizkaitar baten aipua egiten baitu. Bigarrenaren lekukotasunak ere ugariagoak dirudite Bizkai aldean (Mogel, Uriarte, Obieta, Azkue), baina gipuzkerazko bersio hau da arretagarriena, *berdin* lokailu bitxi horrekin josia. Aurretikorik zuzenena Larramendirena dateke (57).

Errefrau bion aipua ez dator alferrik, zeren argitaratu zirenetik ia berrogei urte beranduago J.A. Mogelek berriro jasoko zituen *PA-n,* lehenengoa IV. berbajarduneko zerrenda hotzean, baina bigarrena abade-fraileen arteko atzeko jardunean, eta modu honetan:

«11. Auntzac ichi baleijo, aquerrac ichi leijo» (*PAb* 66);

«alper da Maria maquillatu» (*PAb* 131).

Ondorioa atera daiteke, behintzat, Muniberen euskal obrak era bateko edo besteko eragina izan zuela ondoko literaturan, batez ere Batzarrarekin harremana edo lotura izan zuten autoreetan.

5.4. *Herri-kantak*

Herri-kantuen oihartzuna etengabea da Muniberen obran, antzerkian berariaz. Argitan uzten du datu horrek herri-folklorea ikasi eta dastatzeko zuen sena. Musikazale eta herri-festen zale handia zela jakinez gero, ez gaitu inolaz ere harritu behar sintonia horrek.

Ardo-kanten aztarna aipa daiteke lehenik. Edanaren inguruan uzta ugaria dugu euskal herri literaturan, aldi eta alde guztietakoan berriz. Munibek ere, bere gogo irrieragileaz, behin eta berriro joko du edanaren topikora; are arrazoi gehiagoz, kantuz diharduela badakigu:

— Batean, Gabonetan asko edo gehiegi edanaren kalteak gutxiesteko, honako zirikaldiak bilatuko ditu:

Ta Ardoac galdurican / lengo malicia / ez gaitu moscortuco, / edan cia, cia. (*GS* 34).

— *EBB*-ko lehen ahapaldiak ere edan-kantak dira, euskal tradizioan antzeko eredu ugari dutenak. Bigarrenak hala dio:

Edari eztitzu gozoa / Cerutic jatcitacoa / cembait eta ondorago / ambait aiz gozoago. / Jaincoac bedinca azala / nic bedincatze audan bezala. (*EBB* 1)

(57) Cf. Larramendi: «MAQUILLATU, apalear; *alper da Maria maquillatu, berez bear du.*» (*DVCI* 263).

Baina are deigarriagoa da *Donostiatik gatoz* (*EBB* 32) hasten dena. Herri-tradiziotik oso-osoan hartua dirudi, eta intentzio osoz hautatua, kondeari beti darion irri eta umore senak eraginda.

Era berean, plaza-kopla ezagun baten bertsioa eskaintzen digu, Bizkai aldean oraindik ere erraz jaso daitekeena: *Arako aintxinako / bioen kontuak / ixil egonagatik / ez dauzkat aztuak.* (*EBB* 35).

Gaztelaniaz dakarren *Vengo de Peregrina* (*EBB* 37) ere eske-kopla egin-egina da.

EBB-ko azken eskenako kopla batzuk ere herri-tradiziotik jasoak dirudite. Lehenengoa adibidez: *Txanton Birigarro / amesetan dago / txepeltx bat izanik / egin da Karrastaro. / Lakirikon parrirareña / Lakirikon / pararirraron.* (*EBB* 53). Eta berdin azken aurrekoa: *Ezta ez ere Andrerik / edate eztubenik / naiz nafar, naiz klaret, / ta naiz Endaiakorik. Lakirrikon...*

6. **Beste literatura-ezaugarri batzuk**

6.1. *Komikotasuna*

Umorea eta *burlazahar* edo *trufa* egiteko dohain apartaren jabe ageri da Munibe. *EBB*-ko solas eta autuetan askoz nabariago, gaiak ere gehiago laguntzen baitu. Baina *GS*-en ere ateraldi barregarriak ez dira falta.

— Hala, irakurleei egiten dien agurrean, inprimatzeko erabakia aditzera ematerakoan:

Ez bada, Jaincoac naibadeu, ta datorren urtean vici banaiz, soñean daramadan gona au salduco badet ere, imprimitu bearco deve Deamuchoetan. (*GS* 6) (58).

— *Martinbeltz*, *GS*-etako musika ontzen lagundu omen diona, herri-pertsonaia bat da zalantzarik gabe, eta haren trebetasunen artean, era bitakoak ematen ditu: bata gogozkoa, musikagintza, beste lanbidezkoa, erratzgintza. Adar-jotzea edo barre-burla azal-azalean ditu konteak:

Martin beltz guissagajoac messederic asco eguiñic lagun eguinda batez ere Seguidilla, ta araco Aria edo Copra andi aetan [...]; ta are berriz, nola iñunciac eguiten ere daquian, asco daqui, ta guizon jaquintzubat da (*GS* 7).

— Burua monja eginik, bere burua abonatzen hasten da, inor baino kantari hobea dela esanez, eta boza ez bada ere, entzumen aparta duela aitortuz. Bitara adi daitezkeen hitzak darabiltza irakurle-entzuleen entretenigarri:

---

(58) DEAMUTXOETAN. *Demonino* hitzaren forma hipokoristikoa, *demon(ino)txoa* edo *demun(ino)txo* hitzetik. Ekialdean badu aldaki bat, *demuntxo* (*OEH*, VI, 97), baina mendebaldean bada *diamotxo, diamutxo* itxura, Larramendik (*DT*) eta Añibarrok (*VocB*) jasotzen dutena, eta gaur egun oraindik Ondarroan bizi dena eta Domingo Agirreren idatz lekukotasuna duena: *Diamotxo, diamotxoena! Oiñ erdiz eraman dio, oiñezdiz bakarrik!* (*EE* 1917, 202) (*OEH*, VI, 203).

Ala ere ezdide cantatzen ventajaric eramango ez batac, eta ez besteac; ta ala icassi nai devan gucia<c> ez dauca ni gana etortzea baño, ta nic berealaje eracussicodiot; bada eztarri garbi garbia ezbadet ere, belarriac galantac ditut. (*GS* 8).

— Ez auzirik, ez eritasunik egon ezagatik, legegizon eta osagileen beharrik ez dela egongo adierazteko, hara zer ateraldi duen:

Abogadu, Escribau, / eta Merioac, / Medicu, Barberó, ta / Boticarioac, / ez dira bear; ta argatic / izango da sarri / Hipocrates gajoa / sagûen janari (*GS* 32-33).

— *Agurra* egiteko, plaza-kopletan bezala, eztarria urraturik edo katarroa emango ditu aitzaki barregarri bezala:

Baña canta berriau / gueicho luzatu da / nere eztarri tristea / y à urratu da: / Naiago det issildu / catarratu baño / Agur nere genteac / urrengo urteraño. (*GS* 35-36).

— Hainbat arrazoi gehiagoz, *GS*-en atzeneko *Copla Jostalluac* deritzenetan. Beste motibo batzuen artean, salerosietako iruzurrak ditu mintzagai, beste gabon-kanta batzutan ere azaldu ohi direnak (59).

Ez da onesquero essango / guezurric batere, / eguia essango dute / Dendariac ere. (*GS* 34).

— *EBB*-n, Txanton Garroteri eskarmentu on bat emateko burubidea hartzen dutenean Don Antonio eta Don Pedro jaunek, hara zer kantatzen duten:

Artcen badegu / bien artan / eguingo degu / aren soñean / troqueo danzá / gure modurá, / joten degula / *zirt, zart* idicil batequin. (*EBB* 9).

Bibliografia behinena

Mendiguren, Xabier (1987): «*El borracho burlado*ko euskararen azterketa (1764)», *ASJU*, XXI-1, 136-162).

Munibe, Xabier: *Gabonsariak. El borracho burlado.* Xabier Altzibarrek prestaturiko edizio kritikoa. Eusko Legebiltzarra. Gasteiz, 1991.

(59) Gernikako 1801-eko Gabon-kanta bat dut gogoan, neuk *Litteræ Vasconicæ* aldizkarian ezagutarazia (6. znb, 1993).

SEBASTIAN ANTONIO DE LA GANDARAREN EUSKAL LANAK

Tolosa, 1998-XI-13

Xabier Kaltzakorta,
euskaltzain urgazlea

1. NOR DUGU IDAZLEA

Euskal literaturako manualik oinarrizko bezain ezagunenetan, Luis Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca*, zein Luis Villasanteren izenburu bereko lanean ere, ez da aurkitzen Gandara delako Bizkaiko idazlearen aztarrenik. Zergatik? Aipatutako literatura-manualak 1960 eta 1961 urteetan argitaratuak direlako, artean idazle honen berri ez genuela. Handik bost-sei urtera, 1966an, J. Ignacio Telletxeak eta Manuel Lekuonak *Boletin de la Real Sociedad de Amigos del Pais* aldizkarian, Gernikako idazle honen berri lehenengoz eman zuten arte, ez genekien, gure jakinez handian, inoiz Gandara izeneko idazlerik euskal letren baratzean izan dugunik. J. I. Telletxeak Larramendiren paperak arakatzen eta aztertzen ari zelarik, Madrilgo Real Academia de la Historia delakoan, hemezortzigarren mendeko, 1764ko Gernikako *Gabon-kanta* batzuk aurkitu zituen. Gabon-kantok aipatu dugun aldizkarian argitara eman zituen Telletxeak, Manuel Lekuonaren iruzkin literarioekin horniturik. Ikertzaile handi biren lanak bateraturik, euskal idazle baten berri ematen duen artikulurik interesgarrienetako bat dugu, inolako zalantzarik gabe (1). Zorioneko aurkikuntza batek idazle zahar baten ezaguera eman zuen. Idazlea, gainera, ez zen nolanahikoa, bikaina baizik. Larramendi maisuaren onespena hitz hauetan jaso baitzuen: *"Iracurri ditut Gabon cantac, eta azquenean paratu diotet imprimantur, ain ederrac, gozoac, quilicorrac"*.

2. GANDARAREN EUSKAL LANAK ETA HAUEN GAINEKO IKER-LANAK

Telletxeak eta Lekuonak argitaratu zuten gabon-kantak izan zuen, zorionez, segida luze xamarra. Lehenik, Mitxelenaren hizkuntza-oharrez jositako

(1) MICHELENA, Luis (1966): "Acotaciones de un lector", *Boletín de la Real Sociedad Vasca de Amigos del País*, 260-263 or.

artikulu zehatza dugu. Maisu errenteriarrak eskuartean erabiliak zituen Gandararen eskutitzeko gabon-kantak, zein Larramendiren erantzun bizia. baina artean garrantzi gehiegi eman gabea zen. Artikulu horren ondoren hirugarren artikulu bat dugu, Jose Antonio Arana Martija euskaltzain eta liburuzainarena "Gabon Canta de Guernica de 1757", *Euskera* agerkarian, 1976, 89-98or. Artikulu honek idazle beraren beste dokumentu baten aurkikuntzaren berri ematen zuen. Dokumentu horretako testu berrien artean, beste gabon-kanta bat agertzen zuen. Artikulu-egileak Gandararen beste gabon-kanta bat argitaratzeaz gainera, etorkizunean testu gehiago argitaratzeko asmoa agertzen zuen. *Idatz eta mintz* aldizkariaren 2. alean, 1982 an, "Gandararen gabon kanta ezezagun bat (1762)" artikuluan, Joseba Andoni Lakarrak Academia de la Historia delakoan aurkitu zuen Gandararen beste gabon-kanta bat argitara eman zuen Adolfo Arejitak. Artikulu honetan agertzen den alea zuzendurik agertu zen J. A. Lakarraren "XVIII. mendeko zenbait bilantziko berri" *ASJU* XVI, 1982, 172-176 lanean. Eta, azkenik, Jose Antonio Arana Martijak 1984ko *Euskera* agerkarian, 2. alean, 499-510 or. "Sebastian Antonio de la Gandara Bizkaiko idazlea" artikuluan, aurreko bere lanean agintzen zuen "Ama maitegarriari zortziko", "Ama maitegarriari bere jaiozan" eta "Ardoaren ganian" konposizioak eman zituen argitara.

Gandararen euskal lanak, beraz, sei bertso-sortatxo dira, sei sorkari laubost artikulutan sakabanatuak, lehen artikulua 1966koa, eta azkena 1984koa, hogei urteren epean. Euskal lanez landa, baditu erdal bertso-sorta edo sorkariak ere. Erdarazkoen orijinala edo jatorra, euskal sorkari gehienak bezalaxe, Jose Antonio Arana Martijaren eskuetan daude, eta euskarazkoetan egin duen bezalaxe, erdarazkoak ere argitara emateko gogoa agertu du behin baino gehiagotan. Artikulu honetan ezagutzen ditugun euskal sorkari barreiatuak ezezik, erdarazkoak ere emango ditugu argitara, J. A. Arana Martijak bere jatorrizkoaren kopia bat utzi baitu gure eskuetan. Aipatu ditugun sei bertso-sortatxoak Xabier Amurizak berriki argitaratu duen *Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak* liburu marduleko 55-71 orrialdeetan aurkitzen dira bildurik. Txalogarria da denak liburu batean bildu izana, baina bertso batzuen transkripzioan akatsak agertzen dira (2).

(2) *Idatz & mintzeko* zenbait akats Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak salatu zituen. Amurizak Gandararen "Gabon Canta Guernicacoa, Hurte 1762" sorkaria *Idatz & Mintz*-etik hartu beharrean "XVIII. mendeko zenbait bilantziko berri" lanetik hartu balu, agertzen diren bi huts edo erratok ez lirateke agertuko. Zuzenketak honelaxe behar luke:

5-Zeruak, zeu bazkatzeko	6-Baioatzuz begixeok
seinetan titi hutsaz,	gustuzko negarretan
bere bular gozatsuak	zeu baxen samurrik ez da
amari bete deutsaz.	hemengo bazterretan
Jesus, hartzazu titia,	beraro jausten da intza.
zeurea dozu *guztia*. (eta ez *gustua*)	Egia ez diñot, Gaintza. (eta ez *berazo*)

1999 Oinarri-oinarrizko zuzenketak dira hauek *guztia* eta *beraro*. Gaur eguneko euskara standardera testuok ekarteak uste baino zailtasun gehiago ematen ditu. Esate baterako, Bizkai-euska-

3. GANDARA IDAZLE LANDUA

Marijesiak gehien landu dituen gure arteko ikerlariak, Jose Antonio Arana Martijak, Gandararen sorkariak edo pieza poetikoak askoz landuagotzat zituen Gernika inguruan kantatzen diren gabon-koplak baino. Herri gabon-kantak baino landuagoak ezezik, Peñafloridaren lana baino landuagotzat du Martijak Gandara bere herritarra. Landutasun horri atzemateko ez da bakarrik bere olerkizko sorkarietara jo behar. Larramendiri zuzendu zion eskutitzean Andoaingo maisuaren ikasle umiltzat harten du bere burua: *Ontzatuten deustazula, yaquitea izango da nire atseguin betea: eta berau gonburutuko yat, ecertacotzat euqui nai banozu.* Artikulu honetan berean emango ditugun bi eskutitzetan argi ikusten da Gandarak erabiltzen zituen Larramendiren hiztegiko hitzak, Larramendik berak ere ez dituela erabiltzen bere idatzietan. Larramendiren eskutitza, horretaz, askozaz herri-kutsuagoakoa eta biziagoa egiten delarik.

Gonburutu herri-hitza izan daiteke, beharbada, *ontzatu* ontzat eman adierazteko hitz larramenditarra dugu. Badira elementu landuak adierazten duten egitura eta baliapideak ere. Baina guri herri-literaturatik duen neurrian interesatzen zaigu, baina kontu hori utz dezadan geroko.

4. GANDARAREN ANTZERKI (KUTSUKO) ALEAK

Herri-literaturako antzerki-jardunaldi hauetan Gandararen gaineko gure lana txertatu dugunean, antzerkia denaz bezainbatean, edo antzerki kutsua duen aldetik dela interesgarri iruditu zaigu hasiera batean. Herritasuna argi ikus daiteke, geroxeago aztertuko dugunez. Antzerkitasuna, ordea, hain argi ote dago? Gaur egun Gernikaldean Gabonetan kantatzen diren Marijesiek ez duten arren antzerki-arrastorik, Arana Martijak garai zaharragoetan antzeztuak izan zitezkeelako ustea azaltzen du. Zer esan, bada, gabon-kanta bezala heldu diren ale hauetaz?

Goian zerrendatu ditugun sei euskal sorkarien artean zeintzuk dira antzerki munduan sartzekoak? Seietatik argitaratu ziren lehen hirurak, hau da, gabon-kantak. Telletxeak eta Lekuonak agertutakoan, akto bakarreko gabon-kanta bat litzateke, una Opereta navideña, artikulu egileak esaten duen bezalaxe. Badago sarrera bat *sarmen*, badaude bi pertsonaia, "Bizkaitarra" eta "Muxil". Koru bat edo *guztiac* ere badugu, eta estribillo, lelo edo *euscarichu* bat ere bai. Pieza txiki honek badu antzekotasunik Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* lanarekin. Muxil eta Bizkaitarra Belenera doaz Amabirjina bere haur sortu berria-

---

rako seigarren bertsoko *basen* ondo ikusten dut baxen jartzea, nahiz eta *baizen* batetik etorri. Era berean *nas* < *naiz* batetik. Arazoa, ordea, bestetan dago. *Samur* nola jarri? Gandarak ez dakar *samur/xamur* aukera bietatik bigarrena jartzeko arrazoirik. Dudazko kasuan *samur* markagabea jarri behar dela deritzat. *Intza* 'rocío'ren kasuan, gaur egun *ihintz* idazten dugu, baina modu horretara ez dugu silaba bat gehitzen?

rekin ikustera. Barrutiaren *Acto*-an badago Gracioso pertsonaia. Pertsonaia honek barre eragiten du. Barre eragite hori, Muxilen kasuan, bere euskara gaiztoaren bidez egiten da. Gandararen gabon-kanta antzeztua zela pentsatzeko arrazoiak testuan berean aurki daitezke bukaera honelaxe baita:

Apaintzalleari
Osaiac
enda Baltzolari
graciac.
Eguin dan bihar
biraldu bear
Yacaz Muxhilari
sariac.

Antzerki-lantxoa apaindu edo prestatu zion pertsonari eskerrak ematen zaizkio. Baita aktore-lanetan ere ibili denari, horrexegatik agertzen da azkenean Baltzola delako bat. Antzezte kontu hau erabat inportantea da, zeren Larramendik berak Gandarak bidali zionean bere gabon-kanta honela erantzuten du:

Iracurri ditut Gabon cantac, eta azquenean paratu diotet imprimantur, ain daude ederrac, gozoac, quilicorrac. Etzaiteala aurreraco naguitu, ez alpertu; itchequi saill oni, molda itzatzu orrelaco asco ta ugari, esna ditecen lotiac, eta urte osoetan ecer danik eguin bague vici diranac. Ordaña bialtzen dizut Azcoitian aurten cantatu diranac, musica quilicora batean, Peñafloridaco Condeac eguin dituenac, eta berac musican paratu dituenac.

Beraz, Peñafloridak egin eta musikan paratu bazituen, antzeztuak ere izango ziren.

Bigarren iruzkindu nahi dugun gabon-kanta, Arana Martijak bere lehen artikuluan eskeini ziguna, hamabost bertsoz osatua dago. Zer da hor kontatzen dena? Jesus jaio den gaua da, gau argia, gerizarik edo itzalik gabekoa, izarrak jira-bira ari dira, eguzkia bero dago, arbolak txaloka, mendiak saltoka. Artzainek orduan Jesus beren begiz ikusi, agurtu eta erregaluak eramateko asmoa hartzen dute. Behin Beleneko estalpera direnean, lehenik 9garren bertsoan Jesus agurtzen dute:

9-Agur, sein maitea,
ceugaz da baquea
ceurorri
etorri
Angueruen ahoric
enzuna dinot nic
Fararira
Bestec ecarri esteuzt
belarrira.

Jesus umea agurtu ondoren artzainak, bigarrenik, Ama Birjina agurtuko dute:

10-Biz ordu onean
Birgina
ceure sabelean
eguina
ogui Cerucoa
yatorcu gozoa
Fararira
Nic beguia beti dot
yanarira.

Ama Birjina agurtu ondoren, azkenik, San Jose, edo, nahiago izatera, Josepe agurtuko dute artzainok:

11-Pozic sagos aujaz
orainche Zeure
esposiagas,
Josepe,
Sein onen aurrean
Angueru artean
Fararira
Batu gara guztioc
mirarira.

Behin estalpean dauden Jesus haurra, Ama Birjina eta San Jose agurtuz gero, erregalu-eskaintza etorriko da.

Egitura argikoa da, beraz. Lehen zatia aingeruen agerrera eta mirariak: arbolak txaloka, mendiak saltoka, buruak loka. Bigarrenik, Belengo estalpean daudenei agurra, eta azkenik, opari-eskaintza.

Arana Martijak bere artikuluan Gandararen lan honen eta Barrutiaren antzerki-lanaren arteko konparantza linguistikoa egiten du, izan ere hizkuntza aldetik dauden bateratasunak harrigarriak dira. Artzainek opari-eskeintza egiten dutenean berdin esaten dute kasu bietan, Gandararen kasuan, esaterako, "Ain guichiagaiti parcatu" eta Barrutiarenean: "Gutxiagaiti parkatu". Zerrenda uste baino luzeagoa denez gero, ez dut hemen jarriko. Lantxo honetan egituraren ordenaz hitz egingo dut. Garai bateko gabon-kanta mota batzuetan, eta garai horiek XVIII. mendea eta aurreragokoak izan daitezke, antzezte-egitura bat zaintzen zen. Zehatzago esango dut, gabon-antzerki kantatuetan, zein ttiki edo ez hain txikietan (Barrutiarena kasu), ematen zen ordena bat bera izango zen, kasu gehienetan. Hemen azterkizun izan dugun honetan ere badago amaiera gisako bat, Belengo estalpekoei ezezik, entzuleei ere zuzentzen bide zaiena:

15-Adio gustiay
adio
ecer albaguinai
balio:
Euquico gozuez
egun eta gauez
Fararira
Gustiz prest etorteco
ceuen deira.

Antzerki kontu honetan azter dezagun azkenik hirugarren pieza. *Idatz & Mintz*-en agertua. Hemen ere, aurrekoaren antzera, aingeruak urduri daude Belengo berri ona alde guztietara eramaten. Gero Jesus haurrari eta Ama Birjinari zuzendutako bertsoak agertzen dira. Poesiari dagokionez, beharbada, finen eta trinkoena date, esaterako:

Bildoschua, izan zaite
ondo zeú etorria:
amá onak emon deutsu
dozun azal gorria.
Epea eldu dinean,
echiko dozu curtzean.

5. HERRI GABON-KANTAK ETA ANTZERKITASUNA

Badago antzerkitasunean besterik ere. Manuel Lekuonak "Gabon-misterioak Euskalerrian" (3) lanean zenbait herri-kantatan halako teatro-hondakin bat ikusten bide zuen. Oharpen zorrotza da benetan. Garai bateko Erdi-Aroko "Misterioetan", hau da santuen bizitzako antzezpenetako *teatro-hondakin* batzuk ikusten zituen zenbait gabon-kantatan. Lekuonak jartzen duen adibidea hau da:

Bi eta iru bider
Joxepe'k jotzen du;
gizonak bentanara
nekez irtetzen du.

Adibide argiagoak ere aurki eta zerrenda luze xamarra osa daiteke herri gabon-kanten artean ere, baina kontua besterik da: egile ezagunen gabon-kantek ere bide estilistiko bera jarraitzen dute. Hau da, autore batek gabon-kanta bat bere baitarik asmatzen duenean, artzainen arteko elkarrizketa pipertsuen bidez egin ohi du teatralitate edo antzerkitasunez horniturik. Adibideak Manuel Lekuonak berak sortutakoetan ezezik, XVIII. mendeko piezetan ere ikus dai-

(3) LEKUONA, Manuel (1978): "Gabon-misterioak Euskalerrian", *Idaz-lan guztiak II*, Kardaberaz bilduma-23, 158-165 or.

teke. Eman dezagun, kasurako, diogunaren lekuko, Manuel Lekuonak Laurgainen, Segurako Lardizabaltarren etxeko ganbaran bildu zuen ale zoragarriko pasarte bat. Alea 1705koa da, XVIII. mende hasierakoa beraz:

(Estribillo 1705)

Eder dek olaan gabia;
larre onean ardia.
Nafar baño obe diagu
Zaragoza'ko zuria.

Brindatzen diat, Zeledon:
onixek egiten dik on:
Sekulako onezkero
izango gaituk gu on.

Estribilloan edo hasieran ikusten da hika ari direla artzain bi. Antzerkitasuna Lekuonak zioen mugimendu, zein elkarrizketa gisako kopletan ematen da:

Belen'eko portalepean
omen-zeagok Jaungoikoa:
ura ekusten an omen-dek
Paskoal gure aldekoa.

Goazen gu ere, Petiri:
Paskoal ez dek agiri:
ardiaz kontu dadukala
esan zeagot Gatxi'ri.

Ikusten denez, garai bateko artzainen herri-izenak agertzen dira: *Petiri, Gatxi, Pascoal.* Aginduak, edo nahiago bada, aditza aginteran: "Guazen gu ere, Petiri!". Hau da, labur zurrian, Lekuonak zioen antzerkitasuna. Beste horrenbeste gertatzen da Nikolas Zubia Araozek (1647-1694) bere liburu *Doctrina Christiana en Bascuence* (Donostia) gaur egun galduan, sartu zituen gabonkantetan. Hona gabon-kanta hauek Jose Lezamizek (1654-1708) *Vida del Apostol Santiago* liburuan:

Dialogo entre los pastores:

1 Matxiniko
zer dio, Txeru?
Atzorik ona
ze barri dogu?

Barri dogu ze
angeru mila
gure menditi
igaro dira.

Gandarak ere ba ote ditu honelekoak? Erantzuna baiezkoa da, ikus dezagun, esaterako:

Or dagoala, derichat,
cantau guraz Carpio:

Pozen pozac dauco alan.
Eta nun dogu Pio?
Onec ez ece, ni bere
ausa banas alegere.

Antzerkitasun hau da gabon-kantari bizitasuna ematen diona. Bizitasuna, bizkortasuna eta herrikotasuna. Literaturaren balio aldetik Ama Birjinari eta Jesusi zuzendutakoak dira onenak, baina herrikoitasuna emateko ez dago tankera honetako elkar-hizketa bezalakorik. Tankera horretako elkarrizketa bi gabon-kantatan agertzen dira, goragoko *Idatz eta mintz* sortakoan eta baita Arana Martijak agertutako lehen artikulukoan:

7
Eznea Perico,
arzazu
gastaea, Joanico,
ez aztu.
Ardaoagaz, Anchon
contu pichiruon
Fararira
Presente eguin eah
Zast hurira.

Hiru adibide jarri ditugu, eta guztiak dira parekoak. Lehenean agertzen diren artzain-izenak Pascoal/Petiri/Gatxi. Bigarrenean Carpio/Pio. Hirugarrenean Periko/Joaniko/Antxon. Gehienetan aginduak eta galderak agertzen dira. Hirugarrenean artzainen herri-izenez gain agertzen dira, gaztaea, ardoa, esnea, hurbiltasuan bat emanez. Hemen, argiro ikusten denez, artzainak dira elkarren artean hizketan daudenak. Manuel Lekuonak erdarazko *villancico* edo *villanesca* euskaraz *artzain-kanta* deitu ohi zien: "Erri-xume kanta alegia. Erri-ezjakin-kanta. Kanta oietan olerkariak-olerkaririk jakintsuenak ere- ezjakin-papera egiten du; eta bere esan-bearrak ezjakin-itxuran ditu esaten. Olerkari ez baño artzai izaki alegia. Eta artzai batek Jesus'en jaiotzaren aurrean jelkiko lituzkean itz eta sentiera ber-berak jelki berak ere... Orixe da *Villancico*a. Orixe da Artzai-kanta" (4). Guk jarri ditugun Gandararen bi azken adibideak herri-patroi edo ereduan ebakiak dira. Lehena, Lakarrak berak, euskaraz ere, *bilantziko* (5) deitzen duena, eta bigarrena, Arana Martijaren lehen artikulukoa.

(4) LEKUONA, Manuel (1956): "Eguberri-kanta zarrak", *Egan*, 7-44 or.

(5) Ez dugu hemen *villancico* hitza nondik datorren, zein olerki-moeta den eta abar adieraziko. *Artzain-kanta*, hots, euskaraz deitzeko era Larramendi eta Añibarroren hiztegietan agertzen da *Pastorela, égloga* adierazteko. Jose Vicente Echagarayren bertso-paper batean ere agertzen da "Donostiako gazteak 1850 garren urteko errege bezpera gauean" delakoan *Pastorela, edo artzai-kanta* izenburu bezala. Ikus *Festara*, Auspoa 35-36 alea. Mende honetako autoreen arteko adibideetan Ibiñagabeitia, Andima eta Juan Ignacio Goikoetxea "Gaztelu"-renak agertzen dira *Orotariko Euskal Hiztegia*-n. Lekuonarenik, ordea, ez.

6. HERRI-LITERATURAKO BALIAPIDEAK GANDARAGAN

Gandarak herri-literaturako baliapideak erabiltzen dituela ez dago dudarik. Herri-literatura eta literatura landuak edo kultua uztartzen ditu oreka eder batean. Oraingo atalean herri-literaturako baliapideen artean kopla zaharren teknika aipatuko dugu. Kopla-zaharren teknikan bertan, baliapide desberdinak daude. Klasikoena Laurgaingo gabon-kantaren mutur bietan aurkitzen ditugunak lirateke:

Eder dek olaan gabia:
larre onean ardia...
Nafar baño obe diagu
Zaragozako zuria.

Astoak on dik oloa;
idiak arto-lastoa...
Festa onetan edan dezagun
Betiri ekark ardoa.

Baina kopla zaharren teknikadunen artean badago mota berezi bat, zenbakiak erabiltzen dituena. Hona zenbait adibide:

Eman dezadan ifarraldeko bat:

Lau arrosa, lau begi
Bortz arrosa'ta bortz begi,
Gizon debocharen haurrak, maiz gose'do egarri (6).

Eta orain Bizkaiko bat:

Ortxe goien bost ardi,
iru yantzan ta bi adi
Etxe ontako (Mari Bitori)
klabelin gorri dirudi (7).

Bi ale hauek ikusi ondoren zer ondorio atera dezakegu? Badago kopla zaharren teknika horretan sail berezi bat, zenbakiduna deituko duguna. Irudi zenbakiduna duten kopla zaharrak badira. Zenbakiak beti begi bistako zerbait agertzen dute zenbaki bidez, esaterako, *Lau arrosak lau begi*, eta berean, *bortz arrosak bost begi.* Bigarren kasuan bost ardi daude etxeburuan: *Ortxe goien bost ardi / hiru yantzan ta bi adi.* Hiru dantzan ari badira, beste biak begira. Begibistako kontuak aipatzen ditu kopla zahar teknikako zenbakidun irudiak.

Kopla zaharren teknika ez da bakarrik mugatzen kopletara, bestetara ere zabaltzen da, denok dakigunez. Eman dezagun amodio-kantu zoragarri bateko irudia:

Zazpi uso doazi hamalau hegalez,
beren mendi-lephoak atxeman beharrez;
Kanpoan hiltzera noa, maitia, zure minez,

(6) IZEN GABEA (1953): "Agur Etcheko-Andria", *Gure Almanaka*, 40 or.
(7) AREJITA, Adolfo (1982): "Santa Ageda koplak Sopelana-Urduliz inguruan", *Eusko Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos*, 85-93 or.

Bortha idek zadazu, Jaunaren amorez,
Jaunaren amorez.

Amodiozko kantu honetan ere irudia zenbakiduna da, eta irudia zenbakiduna den kasu guztietan, adibide gehiago ere eman daitezke, begi bistako ondorioak ateratzen dira zenbakien bidez. *Zazpi uso doaz hamalau hegalez* delakoan, uso bakoitzak bi hegal baditu, guztira hamalau hegal izango lirateke. Ardao-kanta batean, esaterako, *zortzi ta sei dira hamalau* (8) esaten da. Guzti honek zer ikuskizun du Gandararekin? Gure ustean Gandarak ere badarabil azaldu dugun teknika horretako baliapidea:

6 Enas ni yoango
utsean,
dodaz eroango
aldean
arrandun lau bildots
eguin deguien ots,
Fararira
Menmenean bi ta
bi lauxhe dira.

Lau bildots eramango ditu Belengo portalera, eta bukatzeko bi eta bi *lauxhe* dira dio. Hau da, "dos y dos son exactamente cuatro". Hemen ere zenbakiak erabiltzea herri-poesiako baliapide estilistiko bat dela deritzagu.

7. GANDARAREN ESKUIDATZIEN TRANSKRIPZIOA DELA ETA

Gorago azaldu dugunez, gure artikulu honetan Gandararen eskuizkribuen argazki, zein transkripzio zuzena eskeintzeko asmoa agertu dugu. Gure asmoa eskuidatzi guztiak transkribatzea izan da: euskarazkoak zein erdarazkoak. Euskarazkoak, zorionez, letra argiagoan agertzen dira. Erdarazkoak transkribatzeak uste baino buruhauste gehiago eman digu. Gure transkripzioa erdarazkoetan, behin behinekoa dela deritzagu, hainbat ilunune baitaude (9). Batek baino gehiagok pentsatuko du erdarazkoen maila ez dela bikainegia, betegarri eta irri antx nabarmenekoak direla. Gandararen izpiritu jostalari eta biziaren erakusgarri direnez gero, transkribatzeko erabakia hartu dugu. Euskarazkoek, egia

(8) AZKUE, Resurrección María de (1990): *Cancionero Popular Vasco*, 212 or. Tercera Edición, Euskaltzaindia, 1990: *Zortzi ta sei dira amalau, /apaldu bearrak gaituk gaur:/ kapoi erre ta ollasko/ardangi ona edateko/lagunarte onetarako.*

(9) Ilununeek aurpegi guztiak agertzen dituzte. Noiz jarri maiuskula, noiz minuskula ez da erraza erabakitzen. Puntuazioari dagokionez ere ez da lanbide xamurra. Idazlearen berariazko puntuazioa ez da erraz bereizten. Tinta markak ez dira erraz ikusten noiz diren berariazkoak, noiz zirriborroa...

esan, badituzte euskalzaleontzat hainbat enkantu eta parmerial, hain dira eder eta pollitak...

Zergatik agertu eskuidatzien argazkia? Gandararen euskara berezia da, zinez. Hainbat egitura agertzen dira beste inon nekez aurkituko ditugunak. Indartzaile bereziak, aditzera zaharkituak eta abar. Lan monografiko sakon bat merezi du gure gernikarraren euskarak. Orain arte argitara diren Gandararen euskal lanek, kasu guztietan ez bada ere, askotan izan dituzte akatsak edo erratak, Mitxelenak eta Arana Martijak salatu dutenez. Harri berean ez behaztopatzen ahalegindu gara. Eskuidatziak zuzen transkribitu eta argazkia bera ere argitara eman ondoren, gerora inork landu nahi baditu, bide erosoagoa eskeintzen diogula uste dugu.

8. ESKUIDATZIEN ITURRIAK

ella Reina a su Rey
como Rey de Ceremonia

8

Algo quisiera dexar
a Jorge mi buen
amigo: mas como
muere con mi [illegible]
p.a q.e le de llamar
Yo le quisiera apro-
piar lo de officio
y adherentes, a que
fuimos pretendientes
pero ya por sus pe-
cados el [illegible]
tador, sin que sea
a sus parientes.

9

Sea por ultimo
do, si esto a mal
se me lleva, [illegible]

lin con la marca
nueva a mi herma-
no Fernando.
Quise ir agregan-
do poco a poco ma-
estados, como sus
antepasados, mas
de mis huellas se
aparta fue siem-
pre mas clarte,
que el numero de
soldados.

10.

Bien pueden quedar
Contentos los que tie-
nen pretension con
la fiel disposicion
de estos mis Reparti-
mientos. Volaron
mis pensamien-
tos. Eso mi altivez,
mi guerra. Y pues
de mi me destierra
el mundo, a quien
di pesar, deme para
descansar, solo siete
pies de tierra.

Ita Politici lusere
Atantus Carpeta-
norum.

Ardaoaren gañian.

1

Ni nas aguintari
bat ez guizon, es an-
dra, munduan bici
dirián lau partiēn
Jabe: Guichi vizi lei-
teque munduan ni
bague : Estauco gusto-
rican enabenac maite

2

Ardaoa dot izena au
gusto gozoa gustiac
berac mindu espa-
dau ardaoa . ardaoric
estanián daguenac
gorputza, muguerta-
suna salbuta, zacu
bat vira .

3

Erregue, ta Erregui-
na, apaizac, anaiac
Zarrac, eta gasteac
dirade Staleac. Mun-
du gustiac naidu
ardaoa adiguide

PEDRO IGNAZIO DE BARRUTIA: GABONETAKO IKUSKIZUNA

Tolosa, 1998-XI-13

Juan Mari Lekuona

Herri antzerkiari buruzko jardunaldiotan Barrutiaren idazlana badakargu hizbide, ez da hainbeste antzerki hori herri mailakoa dela bete-betean jotzen dugulako, baizik eta da, teatro horrek hegoaldeko literatur herri-tradizioa, eguberriei dagokiena, neurri ederrean ispilatzen duelako. Garaiko antzerkien artean bakanetakoa izanik ere, badirudi herri-tradizio bizi eta zabala duela atzean.

Bestalde, P.I. Barrutia, antzerkiaren egilea, gizon ikasia dugu: Arrasateko letradua, udaleko eskribau numerokoa (1); eta, beraz, unibertsitate mailako ikasketak edo egina, alderdi honek bide ematen diolarik Barrutiari eguberritako antzerkiaren bibliografia bat ezagutzeko, eta inguruko beste lurraldeetan egiten zen teatro erromanikoaren berri izateko.

Beraz, aramaioarraren antzerkia aipatzen eta aztertzen dugu; ez hainbeste kanpoko eraginik gabea eta oso bestelakoa delako, baizik eta erabiltzen dituen gaiak, baliabideak, ohiturak eta moldeak euskal tradizio herrikoi batenak direlako, jaiotza teatroaren bidez herrian ospatzeko erak eta moldeak aurkezten dizkigula.

1. ESKUIZKRIBUA ETA KOPIA

Harrigarria da nolaz iritsi den guganaino Barrutiaren eskuizkribua. Mende eta erdi familiako paperen artean ezkutuan egon ondoren, J.C. Guerrak kopia bat, berak egina, igortzen dio R.M. Azkueri, honek lehen aldiz idazlan hau argitara emanez 1897an (2). Euskaltzaindian gordetzen den kopia hori izan da iturri bakarra gero etorri diren argitalpenetan, erabat galdutzat ematen zelarik eskuizkribua.

(1) J.M. VELEZ DE MENDIZABAL: "Biografi zertzeladak" in *Gabonetako Ikuskizuna (Acto para la Nochebuena)*, 1983, Diputación Foral de Alava, 231. or.

(2) R.M. AZKUE: "Gabon Gaberako Ikuskizuna", *Euskalzale*, 1 (1987), 402-405. or.; 412-415. or.

Gaur, zorionez, eta *Latxaga*-ri esker (Jose Maria San Sebastiani esker), honen begi argiari, miaketari eta zorteari esker, eskuartean dugu Barrutiaren jatorrizko testua, edizio facsimilean argitaratua (3). Honek hutsegite guztiak erabat zuzentzeko modurik ematen ez badigu ere —beti egongo dira ilundurak eta zalantzak—, laguntasun betea eskaintzen digu J.C. Guerraren kopiako hutsegiteak ezezik, geroko erabiltzaileek egin eta sartutako hutsegite berriak ere zuzentzeko, Latxaga berarenak barne. Dena dela, hutsegiteak zuzendu errazak direla esan behar eta agian, ez hain garrantzitsuak literaturaren aldetik begiratuta behintzat.

2. ANTZERKIAREN BARNE-EGITURA

Barrutiaren antzerki hau eszenetan banatu izan da. Arestik 19 (4) zati markatzen dituelarik, eta J. Kortazarrek 17 eszena (5), pertsonaia berria taularatzen denean eszena berria hasten dela kontuan hartuz. Guk, argitasunaren amorez eta egituraren alderdi zabalak gogoan edukiz, hiru parte bereizten ditugu, nahiko desberdinak, gaurko aurkezpen honetan.

2.1. **Lehenengoa:** Jesusen Haurtzaroko Ebanjelioa, pasarte eszenifikatuetan antzerki erara jendaurreratua. Irrizko bi agerraldi tartekatzen dira: bat, oinarri hartuz Ebanjelioan Zesaren tributua pagatzea aipatzen denean, irri egiten zaio Arrasateko agindu bati, zeinetan behartzen baita mutilek dantza egiteagatik dirua pagatzera; eta bestea, Belengo ostatu-eskearen aipamenaz baliatuz, nagusi-morroien arteko eztabaida topiko, barregarria tartekatzen da (6).

2.2. **Bigarrena:** Hau ere teatro-eredu jakinei atxikia, Graziosok kudeatua. Pertsonaia honek komikotasuna agertzen du, bai deabruen tratamentuan, bai senar-emazteen tobera modukoan, bai artzainei Graziosok bertsoak jartzerakoan: Kontrastean jartzen ditu artzainek, aingerua agertu zitzaienean, esandako hitzak, eta Graziosok beretzat artzainak egiaz zer ziren adierazten duenean (7).

2.3. **Hirugarrena:** Maria, Jose eta artzaien gurtza eta eskaintzen agertzea, pietatea eta tradizioa azaleratzen direla. Hirugarren parte honetan, sentipen ohikoenen haritik, aurkezten dira eguberritako kantu generoen zenbait eredu nagusi, hala nola kantika liturgikoak, koplak, bilantzikoak, gorazarreak eta

(3) LATXAGA: *Acto para la noche buena*, 1983, Lopez-Mendizabal, Tolosa.

(4) G. ARESTI: "Pedro I. de Barrutia. Mondragoeko escribauaren GABONETAKO IKUSKIZUNA euskeraz eskribidutako lelengo teatruzko lana", *Euskera*, 5 (1960), 273-291. or.

(5) Jon KORTAZAR: "Literatur analisia", in *Gabonetako Ikuskizuna (Acto para la Nochebuena)*, 1983, Diputación Foral de Alava, 135. or.

(6) LATXAGA: Ibid., 15-17 or.; eta 19-23. or.

(7) Id., ibid., 23-43. or.

kontaketak (8). Jesusen jaiotzako festari herriak emaniko erantzuna ispilatzen da bertan.

3. METRIKA ALDERDIAK

Barrutia jaio zeneko hirugarren mendemugan (1682-1982), Arabako Diputazioak aramaioarrari eskainitako elkarlanean, egokitu zitzaidan autorearen metrikaz jardun beharra. Horrelatsu ziren nire orduko ondorioak, estrofei buruzko zehazketa deskriptiboetan atereak.

3.1. **Polimetria nabaria:** Azpimarragarria zen moldeen ugaritasuna, sei estrofa-mota desberdin bereizi genituelarik, errenko emanak eta gehiago ere bai noiz edo behin, oin hautsien modura, tartekatuak. Eredu anitzen zale agertzen zaigu Barrutia eta monotoniaren etsai.

3.2. **Bertso-lerro gutxiko estrofak:** Eredu motxen aldeko joera, bikoak, laukoak, kopla motxa eta kopla direlarik gailentzen direnak, kontapoesiaren —baladen eta erromantzeen— ildotik. Gehiago oraindik, ditxolarien eta zirtolarien teknikara jotzen du eszena komikoetan, atsotitzen, erantzun zorrotzen, esaldi errimatuen haritik. Azkarra eta arina, asperduraren etsai, egitura metriko aberatsak sortzeko dohaia du aramaioarrak.

3.3. **Modulu bakoitzak herri giro jakina dakar gogora:** Koplak, Eguberritako auzoen arteko diosala; marijesiak, Eguberriak prestatzeko errondagiroa, gaiaz eta egituraz konnotazio jakinak ezartzen dituena; billantzikoak, horrelako kantuetan ezin-utzizko gai pintoreskoen aipamen xumea; noel antzekoak, Eguberritako kantika liturgikoekin lotzen direnak. Eredu bakoitzak dakar ohitura eta giro jakinen oroitzapena, kantuek bizten eta sustatzen dutena.

3.4. **Pertsonaia jakinarentzat neurri jakina:** Badira estrofa-moldeak pertsonaia sakratuei loturik datozenak; polimetria, aldiz, pertsonaia komikoen ahotan jarria erabiltzen da; komikotasuna azpimarratzen dute lauko nagusian neurkera desberdinak tartekatzen direnean; ditxolarien sakeak ere komikotasunaren haritik doaz. Bada modulurik Mariaren eta Joseren ahotan bakarrik, eta behin, agertzen denik.

3.5. **Hausturak noiznahi sartzeko joera:** Oso gogokoa du esaera motzak tartekatzea: erdarakadak, galdera motzak, ai-hotsak, izen propioak, esklamazioak. Antzerkiaren bizitasuna du helburu Barrutiak, haustura horietan guztietan; eta erakusten digu nolako askatasuna duen idazle den aldetik (9).

(8) Id., ibid., 45-57. or.

(9) J.M. LEKUONA: "Barrutiaren metrikaz" in *Gabonetako Ikuskizuna (Acto para la Nochebuena)*, 1983, Diputación Foral de Alava, 222-224. or.

4. DRAMATIS PERSONAE

Alderdi hau oso zehatz, bizi eta aberats ematen digu Arestik, antzerkian matazatutako pertsonaien karakterea eta arima azalduz. Bi eratako pertsonaiak datoz: sakratuak eta ez-sakratuak, bigarren hauetan ikuspegi bat aurkezten delarik, oso zehatza ez dirudiena eta iritzi irristakorrak sortu dituena literatur azterlarien artean.

4.1. **Arestiren iritzia:** Aingeruak, *Gloria in excelsis* kantatutakoan, berebiziko zirarra sortzen du artzainengan, hauek beren iritzia damatelarik Aingeruari buruz. Egia da utopikoki dakusatela zeruko mandataria; baina Barre-eragileak ikusarazten du, bertsoak jarriz, bata dela lilurapean diotena antzerkian eta bestea artzainen errealitate pertsonala, eguneroko bizitzan.

Baina errealitate hau ez da historikoa, literaturazkoa baizik. Arestik esango digu Txarles Barre-eragile koplariak, "bertsoak etaraten deutsez pastoreeri, baña ez Belengo pastoreeri, ezpada arein erropak jantzi dituezan euskaldun gizoneri"... "Barregarriarentzako zati onetan, pastoreak eztiraz pastore, ezpada egun gustietako lagun Mondrautarrak" ... "Sermonadore barriorri egon naizaco begira. Ori da Peru..." (10) Baina ez dirudite pertsonaia errealak direnik, fikziozkoak baizik. Ez dugu ahaztu behar, Barreragileak koplak tartekatzen dituela, behar bada ezagunak zirelako:

— "Arichavalcho gurea
zezen toreadorea
penitenzia eguiteori
eztoc ynsaur salsea" (11).

— "Beisteguico Gabriel
Cañaberan Cascavel
Lindo mozo despachazeco
de vino blanco unpichel" (12).

Gero, albo-herrietako kontu zelebreak aipatzen dira: "Oñatico Peru Jaincoen mutila /"; "Durangon errementari, pergaminoa bustita guero eracusia suari", "gorputza nativitate subila" (13). Eta lehenago, Barre-eragileaz, "audoc mutil balz Vergaraco danzari koplaria" (14). Bai koplak eta bai albo-herrietako aipamenak, badirudi badutela *vis comica*-rik aski efektu komikoak entzuleen artean sortzeko.

4.2. **Ibon Sarasolaren lehengo iritzia:** Lehen aldi batean uste du "hausten dela aktorea-pertsonaiaren bitasuna, teatroaren eta errealitatearen arazoa Pi-

(10) G. ARESTI: Ibid., 144. or.
(11) LATXAGA: Ibid., 39. or.
(12) Id., ibid., 39. or.
(13) Id., ibid., 41. or.
(14) Id., ibid., 31. or.

randellok bezala planteiatuz", eta "Barrutia teatro modernoaren aintzindari dela, eta bere antzerkiak *bizi eta antzestu* problematika aurreratzen duela". Gero, asko erlatibizatzen du iritzi hori, gauza hauek ez dituela hain garbi ikusten esanez. "Iritzi guztiak funtsik gabeak lirateke, harik eta Barrutia aurreragoko europear herri teatroaren kontestuan sakonki aztertzen ez den arte" (15).

Europako teatroari bere balioa emanez, iruditzen zaigu ahozkotasunak erakusten diguna ere kontuan hartzekoa dela; eta beste ikuspegiak baino lehenago ere bai, eskuera daukagulako, hurbileko informazioa delako. Horrelako komikagintzak memoria kolektibotatik hartzen du bere indarra, bere *vis comica.* Eta XVIII. mendean, klixe bihurturik zeuden irri eginarazteko moldeak: pertsonaiei buruzko koplak (hemen *Arichavalcho* eta *Beistegiko Gabrieli* erantsiak); albo-herrietakoei erantsiriko gertaera barregarriak, Oñati, Durango eta Bergarari; eta gero Barrutiak aipaturiko hiperboleak, erdal atsotitzak, konparaketak, ardozale izatea, jan-edanen aipamenak, giza itxura txarreko akats eta okerrak, burlak: horiek dira nahiko irri-egingarri, fikziozko sormenetik datozenak, eta, memoria kolektiboa darabilten heinean, antzerkiaren hezurdura direnak, eta ez hainbeste aktoreen pertsona errealak eta antzerkiko pertsonaiek erakutsiriko kontrasteak. Hau kontuan izanik, uste dugu ez dagoela Europako teatro modernoa aipatu beharrik, eta gutxiago antzindaritza Barrutiari opa beharrik, esplikazio hurbilagoak eta koherenteagoak daudelarik. Fikziozko klixeak, memoria kolektiboan gordeak, dira herri literaturaren oinarri, eta antzerki komikoaren euskarri, eskuarki bederenik.

5. BARRUTIAREN DRAMATIKAZ

"*Gabonetako Ikuskizuna* neo-klasizismoaren arau dramatikoetatik beste muturrean legoke", J.M. Lasagabasterren ustez. Ez dira gordetzen hiru unitateak, lekua, denbora eta ekintzarena; nahasian datoz antzerkiaren genero desberdinak (drama eta teatro komikoa); agertzen da Barre-eragilearen (Graciosoren) figura, teatro neo-klasikoak baztertu zuena; egiazkotasun historikoa ez da kontuan hartzen, batera antzesten direlarik Ebanjelioan kontaturikoa eta Arrasaten XVIII. mendean gertatutakoak.

Antzerkiaren freskotasunak modernotasun aire bat damaio idazlanari. Erabat librea eta xumea delako, sintonia haundiagoa du gaurko antzerkiarekin, beste berriagoko euskal antzerki askok baino.

Barrutiaren antzerkia, bestalde, zail da esplikatzen gutxieneko tradizio bat eduki gabe, gutxieneko antzerki kontestu bat izan gabe. Hor dago erdal tradizioa, J. Kortazarrek eta J. Lakarrak sakon eta zabal aztertu dutena (16). Eta

(15) J.M. LASAGABASTER: *La literatura vasca entre 1700 y 1876,* "Noveno Congreso de Estudios Vascos", 1983, Bilbo, 269. or. eta 52. oharra.

(16) J. LAKARRA: Ibid., 17-58. or.; eta Jon Kortazar, ibid., 156-160. or.

euskal munduan ere Barrutia ez da bakarra, gaurko mintzaldiok eta berarizko ikaskuntzek erakusten digutenez (17). Gainera, Barrutiak, bere obra aztertzetik atera daitekenez, ezagutzen zuen tradizio edo teatrozko kontestu hori; berorietan, tradizio eta kontestuan, argibideak izan zituen, eta hauetaz baliatu zen bere antzerkigintzan. Hori bai, J.M. Lasagabasterrek zehazten digunez, "testu jakinak baino gehiago antzerki-emankizunak izango lirateke, oso kodifikaturiko testuak, genero dramatiko ezagutuen oinarrizko motiboen araberakoak" (18). Eguberria ospatzeko teatroa ere jaikizun ederra zen, tradizio oparoa zuena gurean. Barrutiak horrelako antzerki-mota asko ikusiko zituen; ez beti teatro ospetsua, baizik antzerki apala ere bai. Eguberrietako festen ospakizunari eskaini zion bere lana; "euskaraz ez da idatzi gauza baliosogorik", Arestik esan zuenez (19).

AZKENA

Barrutia jaio zeneko hirugarren mendemuga ospatu zenean, *Gabonetako Ikuskizuna*-ren "argitalpen kritikoa, itzulpena eta zenbait ikerlan" burutu ziren. Lehenagokoak ziren Arestiren lanak. Geroztik, eskuizkribua agertu zenean, *Latxaga*-k eskaini zion, besteak beste, *Análisis del teatro de Barrutia*, eskuizkribuarekin batera argitaratu zena. Urte berean, J.M. Lasagabasterren aipamena, Barrutiaren obra bere ponentzian aurkeztuz *(La literatura vasca entre 1700 y 1876)*, eta honela zehaztuz: "Euskal teatroa, mediebalismoaren, populismoaren eta modernitatearen artean". Uste dugu gauza eder asko esan dela *Acto para la Nochebuena* obrari buruz. Gaurko lana zen, euskarazko herri teatroaren esparruan Barrutia ere kokatzea eta kontestu horretan jartzea, tradizio bizi eta zabala duelako atzean. Bidezkoa zen horrelako bereizkuntza egitea Aramaioko euskal antzerkigileari gure kontestu honetan.

(17) Ikus programazioko mintzaldiak, batez ere Peñafloridako Kondeari eta J.A. Gandarari dagozkienak.

(18) J.M. LASAGABASTER: Ibid.

(19) G. ARESTI: Ibid., 140. or.

BESTA-BERRIKO IBILALDIAREN SINBOLIKAZ

Tolosa, 1998-XI-13

Martzel Etxehandi



1. irudia

Zuetarik zenbaitek pentsatzen bide du Besta-Berrik (Korpus egunak) zer lotura duen herri antzerkiarekin. Besta-Berrik aurkezten duena ez da antzerki bat, baizik errito bat.

Baina, dakigunez, Europa mendebaleko antzerkiaren sehaska eliza izan da, gero beregaintasuna hartu baldin badu ere. Gainera, gaur egun oraino, bada antzerkirik, erritoaren antza duenik. Urtero hor dugu Xuberoko pastorala, antzerki errituala. Eta hortxe ditugu ere, adibidez, Joxean Artze batek emaiten dituen poema irakurketak, antzerki eta erritoaren artean, bide erdi.

Oro har, erritoaren eta antzerkiaren arteko muga ez da hain zorrotza: batetik bestera errezki pasa daiteke. Holako arrazoi zenbait zuketen gogoan jardunaldi hauen eratzaileek txosten bat eskatu zidatelarik Beste Berriren ospakizunaz.

Hastean, txostenaren gaia aski zabala eman nuen: "Besta-Berri eta haren sinbolika". Bainan gero muga hertsitan sartu naiz, entzuleentzat asegarriegi izan ez nadin.

Behin eta bat, nahiz-eta gaia erlisionekoa den, ez naiz elizan sartuko. Kanpotik begiratuko diot (ez dut erran axaletik), kanpotik. Flash batzu emanen ditut.

Gero eta bi, argitan emanen dut soilik Besta-Berriko errito batek, batek bakarrik, prozesioak, ibilaldiak zer nolako harremanak dituen ingurumenarekin, espazioan nola ohatzen den, edo espazioaz nola jabetzen den.

Beraz, Besta-Berriren berezitasun bat da ibilaldia. Elizatik atera eta ibilbide jakin bati harat joaiten ohi da jende ostea. Baina ibilaldi hori ez da edozein gisetara egiten. Baditu bere arauak, arau zehatzak.

Arau horien ulertzeko herriaren egiturari so bat egin behar zaio. Mapa zehatz bat idek dezagun, 1/25000 koa, adibidez. Ohartzen gara gure herriak lau gurutzeren artean eraikiak direla. Lau gurutze landaturik daude herriaren lau haizeetan: iparralde/hegoalde, sortalde/sartalde. Lau gurutze horiek paisaian gurutze handi bat marrazten dute, zeinaren erdian baitago herria, eta herriaren erdian herriko eliza *(1. irudia).*

Erdigunea baldin bada, ingurua ere bada nahitaez, eta inguru hori jadanik aipatu lau gurutzeek markatzen dute bere lau pundu garrantzitsuenetan.



2. irudia

Erdigunearen eta haren inguruaren irudia, sinbolo guziak bezala, aria da, eragilea. Erdigune oro energiaren iturri da, eta geldigabe bere inguruarekin harremanetan ari da. Konkretuki herriaren kasuan, erdigunera, hau da, elizara (kristau munduan) biltzen da jendea inguru guzitik. Erdigunea bilgune da eta erdigunearen energiak indarturik barreatzen da jendea ingurune guzira. Joanjin mugimendu etengabeko hori da herriaren oinarrizko bizi bateratzailea *(2. irudia).*

Erdiguneak bere-berea du mugimendu bikoitz hori: zabaltzea eta erakartzea. Alabaina iturriak berezkoa du emaitea, isurtzea; eta aldi berean erakargarria da, hain zuzen emankorra delakotz.

Herri batean mugimendu bikoitz hori egun guzietakoa da edo astean behingoa, igandekoa, eliza-erdigunearen inguruan.



3. irudia

Bigarren erritmo bat erantsi behar da, zabalagoa, urtean behin gertatzen dena: Errogazioneak. Gorago aipatu ditut herriaren lau haizeetan landatuak diren lau gurutzeak. Ez daude han, mugarri batzu iduri. Haiek ere erdigunearekin harremanetan dira, erdigunea gabe zentzurik ez baitute. Bada urteko sasoi bat, harreman horiek nabarmentzen dituena: udaberria. Apirilean eta maiatzean, lau egunez (apirilaren 25ean, maiatzaren 10, 11 eta 12an (1999) herriko jendeak, erdigunetik abiatu eta, inguruko lau gurutzetara egiten du ibilaldia, gero berriz erdigunera itzultzeko. Gurutzera heldu eta apezak, aldizka, lau haizeetara egiten du gurutzearen seinalea, lau aldeak ur benedikatuz ihinztatzen dituela. Errito hau apotropaikoa da, hau da gaitzaren urruntaraztekoa: gaitza izan dadin izpirituala edo eguraldiak dakarrena, adibidez ekaitza, bereziki uztak suntsitzen dituen harri-erauntsiak *(3. irudia)*.

Hemen ez dut zehaztuko gurutze kosmikoaren eta Jesu Kristoren gurutzearen arteko lotura eta eduki sinbolikoa. Aipamen bat bakarrik errito honetan baliatzen den uraren sinbolikaz: ura da bizia, ura da ere herioa, hondamena. Eta hain zuzen hemen, urak bizia dakar erritualki herria dagon zirkuluaren barnera, eta hondamena muga horren harainditik datorkeen gaitzari.



4. irudia

Uste dut orain hobeki ulertuko dela Besta-Berriz gertatzen dena.

Egun horretako erritoetarik bat —ezagunena— ibilaldi erituala da. Jadanik aipatu dudan egitura beraren barnean kokatzen da, bainan ez du egitura hori modu berean gauzatzen. Goazen ikus *(4. irudia)*.

Besta-Berri goizean, herritarrek karriketan 4 aldare eraikitzen dituzte, idealki herriaren lau haizeetan. Horra gurutze kosmikoa espazioan finkatua. Noski eredu hori ez da nahi bezala gauzatzen ahal. Ibilaldiak karriketan barna iragan behar du eta karrikak ez dira zirkulu forman marraztuak, lauki forman baizik. Baina xehetasun horrek ez du garrantzirik sinbolika arloan. Ibilaldia hala ere idealki zirkularra da, berez: elizatik abiatzen da, berriz han sartzeko, lau aldareetan egonaldi bat eginik. Ibilaldiak bere bidea ez du sekula gurutzatzen, ez da sekula bide beretik itzultzen. Zirkulua abiapunduan hesten da.

Biribilak gauza osatua adiarazten du. Besta-Berriko ibilaldiak bere baitan aurkitzen du bere erdigunea eta helburua. Errogazioneetako ibilaldiek joan-jin zuzena dute: erdigunetik inguruko gurutze batera. Besta-Berrikoa beti biribila da.

Ibilaldi horrek ez du bakarrik zirkulua marrazten erdigunearen inguruan. Jadanik errana dut lau aldare badirela zirkuluaren gainean, biribilaren lau haizeetan. Hain zuzen ibilaldia pundu horietan gelditzen da, eta apezak, eguzki sainduaz gurutze bat egiten du aitzinean duen jendeari buruz, eta aldi berean erdiguneari buruz, eta hori lau aldareetan.

Ikusten da Besta-Berriko ibilaldi erritualak ere arian ezartzen duela egitura kosmikoa, eta hori berezitasun ohargarri bat marraztuz: ingurua, zirkunferentzia. Laburbilduz: egitura kosmikoaren osagai nagusiak harremanetan ezartzen ditu: 1) Erdigunea. 2) Herriaren eremu guzia zeharkatzen duen gurutzea, lau haizeetarik erdira buruz, eta 3) Ingurua.



5. irudia

Eskema hori espazioan marraztea zenbait aldiz ezinezkoa da. Adibide bat emanen dut. Lapurdiko Ezpeletan, karrika nagusia trafikoak osoki hartzen duelakotz, Beste-Berriko ibilaldia beste egitura baten arabera egiten da. Ibilaldia elizatik pilota-plazara doa, eta handik berriz bide berez elizara. Pilota-plazaren erdi erdian eraikitzen da aldare bat, eta haren ingurua "beztituek" egiten dute, zirkuluari mugimendu emaiten diotela dantzaren bidez ("beztituak" dira dantzariak eta musikariak). Egonaldia bururatzean, apezak, eguzki sainduaz lau gurutze egiten ditu lau haizeeri buruz. Hemen ikusten da ohiko eskema egokitu dela: 1) Pilota-plazaren erdian begientzat indar handia duen erdigunea finkatu da: aldarea eta haren gainean eguzki saindua. 2) Inguruan, jendez osatutako zirkulua egin da. 3) Erdigunetik, apezak, eguzki sainduaz lau-gurutze eginez, erdigunearen energia lau haizeetara zabaltzen du *(5. irudia)*.

Hemen gertatu dena da erdigunea tokiz aldatu dela; bainan egitura kosmikoa bere hartan dago, zeren ezin baita aldatu erritoa hautsi eta suntsitu gabe.

Egitura hori zibilizazio askotan ezagutua da, gisa bat edo beste, eta bizirik dirau gure artean; jendeen gogoan ez hainbeste agian, bai, ordea, paisaian eta kristau liturgian.

ORIXEren EUSKALDUNAK ETA FESTA-GIROA

Tolosa, 1998-XI-13

Joxemari Aranalde

OHAR BAT

Beste jaun batzuek eta nik osatzen dugun Herri Literatur deitu batzordea Euskaltzaindian, talde gustagarria da benetan. Han dauden jaunak —andrerik ez da oraingoz—, jende jantzia dira, zentzuduna eta errespetozkoa. Umorerik ere, berriz, ez da falta izaten han. Talde gustagarria da benetan. Norbaiti bertara sartzeko eskeintzarik egingo balitzaio inoiz, ez dezala kupirarik izan sartzeko.

Jakin beza, ordea, taldegai berriak, badela bazter-ezineko arrisku bat barnean, non eta mutua ez den taldekide berria. Burutazio on bat izatearena da arrisku hori. Baldin eta noizpait, balio duen idearen bat jaiotzen bazaio delako bihankako horri, laster erantsiko zaio idea hori errealite egiteko eginkizuna. Beraz, bitan pentsatu behar da, ahoa ideki baino lehen, norberak bere burua zuloan ikusi nahi ez badu.

Nik banuen arrisku horren berri; baina ez nintzen gauza izan ihes egiteko. Harrapatu egin ninduen, lagun omen ditudan hoiek jarri zidaten zepoak. Zera esan nuen behin: Orixeren *Euskaldunak* poeman sail haundiak hartzen zituela festak eta jaiak eta jokoak eta jolasak eta ospakizunak eta abarrak. Eta hori guztia errituałki ematen zela. Arau batzuen arabera mugitzen zela herri osoa zeregin horretan. Eta beste bururakizun hau ere sartu nuen: herri-antzerki baten itxura zuela guztiak.

Esan banuen esan nuen! Lasţer esan zuen nik dakidan batek. "Hortxe duzu gai polita hitzaldi baterako".

Burutazio hori izan nuen, eta esan ere egin nuen, eta oso denbora gutxi behar izan zuten ene lagunek, zeini zegokion bururatzea erabakitzeko. Niri jarri zitzaidan obligazioa, eta hona hemen orain zuen aurrean, esana egiten.

ABIERA

Duela hamar urte eman nuen hitzaldi bat Orixeren *Euskaldunak* poemaz.

Egilearen jaiotzako mendeurrena zen. Ez dakit zergatik, ez zen argitaratu hitzaldi hura. Han esana utzi zuen, Orixek herri alai bat erakusten duela bere "Uhitzi liburua" deituan. Herri pobrea aldi berean, eta lanpetua, batez ere emakumezkoa; baina herri alaia, jostagina, dantza eta kantu eta irri asko egiten duena.

Orain, beste behingoz, hitzaldia prestatu beharrez, *Euskaldunak* osoa irakurri dudanean, areagotu egin zait lehengo uste eta aburu hura. Eta kantu bakoitzean areagotu ere. 15 ditu guztira, eta bakoitzak mereziko luke hitzaldi bat, alde guztietatik eta alde guztietara darion grazia jasotzeko. Noizpait egingo al du lan hori, nik baino esku hobea dukeen norbaitek.

"Arrai" du, beraz, "aurpegia", Xalbadorrek Mattinengatik esaten duen bezala, Orixek bere poeman agertzen digun herri horrek. Bekozko ilunik ez da hor; begitarte argia baizik.

Hala ote zen egiaz eta benetan Orixe hazi zuen herria? Aurpegi hori erakutsi ote zion gure idazleari? Edo gero berak asmatutako zerbait da "Uhitzi Liburua" deituan kontatzen eta kantatzen digun herria? Beraz, hutsegin zion "res ipsa loquatur" delako harek. Hor ez da "gauza bera mintzo". Hor idazlea da mintzo, eta ez Orixeren haurtzaroko Uhitzi. Hitz batean, erromantiko baten Uhitzi ote dugu Uhitzi poemakoa?

"ERREKALDE"

Hori du izena Orixe hazi zuten etxeak Uhitzin. Han dago orain ere zutik bere haundian eta ederrean. Hura izan zuela dio bere "lênengo euskal-eskola" bere "sortetxeko alde". Orexako bere xortetxean lekurik ez harentzat eta Uhitziko Errekalden hazi zuten gure hiruxkia. Hura izan zuen bere etxe Orixek. Eta ez nolanahikoa.

Hasteko, ez da familia bakarreko etxea. Hiru sukaldeko etxea da, eta Orixe haur zenean, "bi ama-alaba banetan ziraden bizi". Beraz, bi familia bizi dira, ahaideak biak.

Honek bakarrik asko markatzen du biziera eta bizimodua. Familia ez dago bere baitan itxirik. Elkarrengana idekiak daude biak, eta horrek asko hornitzen du beren bizitza harremanez eta harreman bestelakoz.

Bakarra denean familia etxape batean, bertakoen harremana agortua gelditzen da askotan, ezer berririk ez delako gertatzen beren artean. Beste zen-

baitetan, berriz, elkarrekin konpondu ezinak, etenda uzten ditu. Muturtuak eta mututuak gelditzen dira bertako jendeak.

Familia bat baino gehiago bizi diren teilatupeetan, ordea, nori ez zaio jaiotzen, bateko eta bestekoen joan-etorri horretan, bakoitzeko ilunaldi eta beltzaldi horiek uxatu errezagoak direla eta gutxiago irauten dutela?

Ez da dudarik, muturrak delako horiek, askoz ere presentzia ahulagoa dutela horrelako elkarbizitza batean.

Eta teilatupeko bizitza hornituago eta ugariako eta argiago batek, kanpokoekiko harremanak ere ugariagotu egiten ditu. Loturak gehiago dira kanpokoekin, eta haien sarrera ere, errezagoa, eta alde askotatik, aberatsagoa denentzat. Hesirik ez dagoen lekura errezago sartzen da nornahi.

Eta Errekalde etxeak duen kokapena duen etxe batera, errezago eta maizago. Lekunberritik Leitzara doan errepidearen alboan dago kokatua etxe bikain hori, eta Lekunberritik Uhitzin barrena Gorritira doanaren alboan. Bi horiek elkar guzutzatzean sortzen den angeluaren txokoan dago kokatua, Orixe hikukia hazi zuten etxea. Berezia kokagunea. Ez ote zen, delako Errekalde hau, garai bateko benta haien moduko zerbait? Nik tankera hori hartzen diot.

Baina tankerak tankera eta itxurak itxura, zera da egia: Jende askoren bilgi edo bilgune edo aterpe dela Orixe hazi zuten etxea. "Amaika jendên zokoa" esango du idazleak.

Han dira eskaleak, ezer den guztian, dela txerriltze, dela pestaburu edo dela eztai. Eta nola ez bildu Errekaldera, halako harrera egiten bazaie? Entzun Orixek Mikelen ahotan jartzen duen bertso hau, Garaziren senargaia nexkaren amonaren gorpuaren aurrean hildakoaren aipuak egiten ari dela:

"Ez zinun utsik bein ere bial
eskalea ate-ondotik;
sukal-barnera bai sartu, eta
eman ere maiekotik;
etzauntza garbiz irastortza ta
bi maindire, zeuk eginik;
bizi zaraiño ez zaie âztu
etxe ontara biderik."

Eta eskaleetan bat apartekoa bazen Errekalden. "Azpiroz'ko Mattolo" zen bera. "Mattolo zintzoa", ezkondu zen urte berean suak etxea eta bere emaztea erre, eta geroztik "erruki-okelaren" truke han eta hemen lan egiten zuen Mattolo. Ez zuen gehiago bihotzik izan bere etxe izandako hartara itzultzeko eta "etxekal" zebilen geroztik. Hau ere Errekalden da, eta Garazi laguntzen du liho-lanetan, neskatxak bere zuritasuna antolatu dezan ezkontzeko, eta Garazik ordainetan, jana ez-ezik, ohe zuri bat ere agin dio gure Mattolori. Orixek aipamen bihoztia egiten dio azpiroztar honi.

Errekalden da "Anton Koko" axurketaria ere. Ez da etortzen aitona Zimurriok nahi haina aldiz. Aitonak maite du kokoa, agortzen ez den xahakoa ekartzen baitu berekin eta handik ematen gure Zimurriori. Norbaitek zerbait ederrik irakurri nahi badu, irakur beza gure aitonaren piura edo jitea axurketari honen inguruan. Zer da hori! Axurketaria ere, Errekalden.

Baina bada besterik. Gizatalde bat da oraingoa. "Basagizon, ikazkin, egurgile ta arotz" ez dago osatua taldea. "Ikazkin lantegi" den "baso maitea" dute beren bizileku. Han egiten dute lan, jan eta lo astegunez, eta "zortzian bein Mezara kristau-egitekoz" "ta atsaldez erriari eragiteko poz" agertzen dira herrian. Eta hauek ere Errekalde dute beren biltoki igande gauero. Orixe mintzo da:

"Basagizonak ara ziraden
igende gauez eta neguz:
bizi giñanen belarri, biotz
pozten ipuiez ta kantuz;
Jai egin eta, goiko ostatuan
oi baño obeki afalduz,
basora baño len, an genitun
adiskidêngana agertuz."

"Basagizonak". Guk *basomutilak* esaten dugu. Hauek ere Errekaldera datoz, beren basoko kamainara edo etzauntzara bildu baino lehen. Hemen bukatuko dute festa. Azkeneko ekitaldia dute hau, beren adiskideen aurrean eta artean egingo dutena. "Kolkoa betea dute —dio Orixek— berri ta kontu, ipui ta kanta"; eta hemen hustuko dute.

Gaurkoari hasera Zarauzko Letek emango dio, harako "Zapi aizparen gai den oiala..." eginez hasten den kantu famatuarekin. Eta beste hainbat eta hainbat kanturekin segiko dute. Euskal Herriko zoko guztietatik bilduak badira talde honetan, eta bakoitzak bere eskualdeko kantua hasiko du eta denek hura kantatu, eta denen artean gure Herri zaharraren herritasuna ospatuko dute. Horregatik esango du Orixek, "Ango kantu eta kanta alaietan bat zan guzietan alai: Euskalerria, guzien ama, elkar ezagutuz anai".

Baina ez da ama Euskal Herria bakarrik alai dagoena. "Eleder an zan, belarri-erne / ipui ta bertsu jakin nai". Han da haur, eta han da muttiko, eta han da gaxte gure Orixe —poeman Eleder mozorropean gordea—, festa hori guztia jasotzen eta ospatzen eta paregabeki, irri eta kantu eta kontu, eskola-giro argian, bere buru eta bihotza horni eta horni, eta ase eta ase, eta bereganatu eta bereganatu "Erri baten arnasa", gero berak poeman txertatuko duena. Hori eskola Herri baten kulturaz hazteko eta hezteko eta jabetzeko! Eta hori etxea gure "hirukiari" tokatu zaiona bere "sortetxeko alde"! Eta zein harri, *Euskaldunak* poemako herria festajario eta grazijario eta alaitasun-jario izatearekin? Zer besterik erakutsi dio Errekaldeko eskolak? Eta ez da horretan agortzen etxe haretako irakaskuntza.

Berex utzi dut, eta berex hartzen dut oraingo pertsonaia hau, berezia baita bera. Nexka gajo bat da, ments edo erdi-ments horietako. Mikela du izena eta Bordako deitzen du Orixek. Irrigarria da, eta irrieragile eta irriegile.

Hori neskatxa! Entzun Orixek dioena:

"Ortzak zorrotzik su-atzean da
Mikela-Borda baldana.
Amaika baba ta artopil bero
ango sukaldean jana.
Etxeko andre zabalak badu
zabala bear-izana:
otordu batez errez jan leza
lau egunetako lana.

Arta-jalkitzen ari duzu
bazkaltzetik afaltzera;
arek jalkia zamari batek
ba daramake eiotzera.
Etxe-orde dun bazter artara
laister datorke atzera,
egun ta eguzki egin ez dizun
artzekoa lakatzera.

Eta hurrengo bertso honetan jakingo dugu nolako piura edo itxura duen gure neskatxak:

Okotzaundia, begi-ezkela,
galbaia aiñeko ezpaiña;
ortzez ederra, agoz betea,
gaiñez dario mingaiña.
Oiñak igesi, besoak zintzil,
koloka du bizkar-gaiña;
ipurdia, aldiz, galdu-eiñean...
orra neskazar liraiña.

Gazte-jendeak ba du parraldi,
esanaraziz ipui bi.
Azpikoz-gain esan oi ditu,
bat bera zuzen ez daki.
Kantetan ere saiatua da,
naiz lêna kantatu beti.

Eta orain dator ona:

Aretxengandik ikasi nizun
lên eta azken-ahapaldi:

«Nik zartaria,
zuk burruntzalia:
sutegiko lana
biok erdi bana.
Bestek eman jana
ta poltsan bear dana,
aisa bizi diteke
bera nor dana».”

Horra gure “neskazar liraiña”. Par egiten du eta par eragiten, baina ez isekarik edo burlarik jasotzen. Hori ere irakasle da Errekaldeko eskolan. Horri jaso dio Orixek, eta hor jarri du *Euskaldunak* poeman, beste inori entzun gabeko kantu hori. Bere musika eta guzti agertzen da.

Zeinek ez du ikusten, Errekalde horretan dabiltzan pertsonaia hauek denak ikusita, bizitoki argi eta alai bat tokatu zaiola gure Orixeri bere sortetxeko orde, eta Euskal Herriaren kultur-gune aberats bat ere bai?

Baina uztagun etxea, eta atera gaitezen herrira, Uhitzira. “Igande gauez ta neguz” Errekaldera bildu diren jende horiek, egunez ez dira geldi egonak. Beren igandeko eginkizunak ez dituzte bukatu meza entzutearekin. Esan zaigu lehen: “Basa-gizon, ikazkin, egurgile ta arotz, zortzian bein Mezara kristau-egitekoz, ta atsaldez erriari eragiteko poz”. Zertan? Dantzan, pilotan, palankan, bertsotan, edozertan. Ez dira bakarrak. Badute lagunik. Eta ikus Uhitziko giroa igandeetan bezperondoan:

“Bezperondoan, neska ta mutil,
—artzai gaisoak mendira— (Orixe ere bai)
larraiñetara, txelaietara,
mordoskan banatzen dira.
«Ingurutxo» bi molda ditute,
bada jendea begira.
Pilotan eta palankan ere
nekez palta da partida.”

Hori mobida, gaur esango genukeen bezala, Uhitzi txikian! Hori festa! Hori herriaren bizitasuna! Hurrengo bertsoak adierazten digu ederki astegunaren eta igandearen arteko kontrastea:

“Bitarte artan isil basoa,
ez aste-eguneko oiurik:
aizkorak zerrak, otsik ez eta
gurdiak ere ez negarrik.
Ango musika errian, dena,
aire berri biurturik.
Gaur Plazaolak isilarazi,
trena arren ere, damurik.”

Poemaren barnean esan hau, ez da dudarik, asko esatea dela. Harrigarri ere iruditzen zaigu ia, herria horrela festa-leku bihurturik ikustea edozein igandez. Baina ez dirudi horrela denik.

Poemaz kanpo ere badauka aitatua gauza hau bera, eta han esaten duena harrigarriago gertatzen da oraindik. *Quito'n arrebarekin* deitu liburuan dago aipamen berri hau.

"Uitzi ta Orixe" konparatzen ari da eta bakoitzak dituen abantailak ateratzen. Eta honako hau dio bere herri-ordeaz:

"Nik ez dinat esango zein politago, baiñan neretzako bayun bakoitzak bere zorapidea. Nik, beñipein, Uitziren bearra izan diñat. Nere lenbiziko euskal-eskola gure sukalde ua izan zinan. Artaz egina diñat liburu bat: onezkero bidean din. Ango belardi, baso, ikazkin. Igandean alaiago zinan Uitzi garai artan orain Pestaburuz baino. Ezagutu diñat ingurutxoa iru tokitan batean ateratzen: erriko enparantzan, Marieneko larraiñean, Irurte-Txabalean. Plazaolako burni bidea egin zunaten eta, agur ango alaitasuna! Lekunberritik ere etortzen zitinan atsaldea pasatazera".

Hori igande arratsaldearen edertasuna Uhitzin! Zinez tokatu zaio Orixe "erbestetuari" herri egokia, Euskal Herriaren kantuzko eta dantzazko ete bertsozko eta kirolezko kulturaz hornitzeko, gero *Euskaldunak* poeman mamitu zezan.

Ba al dago esan beharrik, irakurri eta entzun ditugunak entzun eta gero, poeman aurpegi alaiarekin ematen digun herri hori ez dela asmatua eta erromantiko batek sortua, baiziketa Orixek ikusia eta ezagutua? Hor, egilearen asmoa zen bezala, "gauza bera mintzo" da, hots, "res ipsa loquatur". Horrela zen Uhitzi Orixe han hazi zuten urteetan, lehengo gizaldiaren azkenengoetan eta gizaldi honen lehenengoetan.

Eta asmo bera eta printzipio bera, hots, "res ipsa loquatur", izango ditu gure idazle haundiak bere neurri, poemako graziaren beste itturri bat den jan-edan kontuak erabiltzean ere.

Jan-edan kontuak ugariak dira *Euskaldunak* poeman, eta Orixek ematen dien ukituarekin, ugariagotu bezala egiten dira. Hain ditu paregabeki tratatzen eta kontatzen! Hona talo berriaren inguruko xaltxa guztia. "Artajorra" kantuan dago, eta "Artoaren nekea" izeneko zatian. Artoa nola ereiten den, eta nola jorratzen eta zeintzu etsai dituen eta bat eta beste kontatuta gero honela dio:

"Aitonak amets guzia,
gertu lên-eiotaldia.
Labean sar, sutean jalki
—iztarpean su-burnia—...
Ainbat arretaz eiara-arriak
emanen talo guria.

Etxean bada eztirik
edota sardiña zârrik,
aundienetik txikienera
listua dario ortzetik.
Taloa lagun, nork egin, aiek
bezain otordu goxorik?

Txigurtzen danean zitzi,
zartai-barrenak igurtzi;
koipe naiz ezti, beatza atzetik
xurgatu gabe ezin utzi.
Nekazariak beste langillek
âmen au ez du merezi."

Hori entusiasmoa janarekin, eta hori gozamena, eta hori aitormena, gozamenaren truke, nekazariari!

"Aundienetik txikienera / listua dario ortzetik". Hor da listua, janari ongietorri edo galdea egiten dion gorputzaren seinale. Beste mila lekutan ere agertuko da listua. Esaterako —Tolosan baikaude—, hor dago Lizardi gurean poesiaren 2. bertsoan. Etxeko sapailo edo balkoian dago goizean goiz jeikita gosal aurretik "sare gainean erdi-etzanik / bi besoak guzutzera". Eta honela dio:

"Aizea arnastu, listua kurka,
goiz-listu ugariren poza."

Listu-jario eta hizjario jartzen du gure Orixe jan-festak. "Bazkaria mendian" du izena "Belarrekoan" kantuaren zati batek, eta izana ere hala du, bazkaria. Uhitziko belardirik gorenean segariek eta besteek egiten duten bazkaria da. Hori debozionea berriz ere otorduaren inguru. Hona hasiera:

"Eliz-dorreko ezkil-ertzera
eldu dalarik itzala,
begi ta sabel jabetzen dira
maierako ordua dela.
Listu ugarigo, zorrotzago ortza
mîari eragin-âla.
Etxetik kanpo bazkaldu dunak
nolabait suma dezla. (Listua hor dugu)

Saskietako bazkarien ta
lur beroaren lurruna...
elkarri nasiz sudurra-barna
deramaten osasuna!
Nekazariak irabazten du
ondasunen ondasuna;

inori bezain oni zor zaio
dakarren alaitasuna.

Andik-emendik bide ta baztar
bazkari-eramaileak,
zeruetatik berri on duten
inguma zuri maiteak.
Itzalpeetan kokatzen dira
ara deituz langileak;
ba-datoz, segak bizkarrean, ta
eskuan makil-sardeak.

Jarri dira gure gizonak lizar haundi baten gerizan, eta honela jarraitzen du bazkariarenak:

Txingurri-lurra bertan bada ta,
Garazik erne begi;
txingurrik ere sumatu dizu
usai oneko bazkari;
larratz nasia dan arren, ark du
bidea zuzen bereizi:
apur legun bat ostuta berriz
lengo bidetik igesi.

Lotsa-bageko dan nimiño bat
aitonaren kutxarera.
Nexkak ikusiz «Or txingurria
kider azpitik aurrera».
Izketan ari dan bitartean
atera zaio gainera:
«Koipe geiago» esanez, sar du
lasai babakin barnera."

Zeinen ederki jaso zuen milatan entzuna dugun "Koipe geiago" delako hori. Nexka ikaratu da, guk atzera egiten genuen; baina aitonak ez dauka horrelako eskrupulorik eta "sar du lasai babakin barnera" xomorro "nimiño" hura. "Gaztainaro" kantuan dagoen bazkarian, beste kontu bat jasotzen du, etxetik urruneko bazkari haietan askotan gertatzen zena: koilara edo kutxara eskas. Ustez mahainerako behar ziren gauza guztiak jartzen saiatu arren, askotan falta izaten zen zerbait. Hori bakarrik zenean gaitz-erdi! Gure hauen bazkarian, eskasia hori, ez da ahaztuarena. Lagun bat gehiago bazkaltzera bildu zaielako da. Edo hobeki esan, bildu dutelako. Lurrean mahaia zabalduta bazkaltzeko prestatzen eri direla, ikazkin Erramun Mari agertu zaie arlora bidean, eta gaztainbiltzaileen nagusiak, bertan jar arazi du, heiekin bazkalduko duela eta. Entzun:

"—Orrenbeste artua nauzu
—dio— ni zure basoan.

Artzai nintzala, ikazkin-baba
biok jana dut gogoan."

Gonbite hori onartu dizu ikazkinak eta jarri da mahainean. Eta orain dator arazoa: koilara bat eskas.

"Kutxarez, orde, bat gutxiago.
Estupiderik etzuan;
lantegîn bertan ikasi baitzun
ogiz ta artoz zurgingoan.

Ogi-ertzari mamia kenduz
egin dio zorrotena;
jan-âla bustiz beratzen da ta
beura jaten dizu urrena;
Berriz ta berriz xalinko berri
eiteko ba du âlmera.
Eltzeko ondarrak bukatu arte
axalak ba du iraupena."

Horra konpondu arazoa. Ohiko konponketa zen hori, koilarak etxean ahaztuta utzitakoan, eta hor jaso du Orixek.

Eta jan kontuetan ari garela, ezin dut inola ere jale bat aitatu gabe utzi. Xaxtian du izena. "Eztaiak" kantuan agertzen da, "ezkon-afaria" zatian. Afaltzeko tenorea iritsi da eta ezkonberriak jarri zai dago jendea, afaltzen hasteko. Xaxtian jarrita dago mahainean jada. Ikus:

"Aiek sartu-begira afaltzen asteko;
Xâstian ogi-jaten ari zen orduko,
atera begiraka jana noiz elduko;
etortzerako badu baso bat ustuko.

Badator eztai-zopa begi-lausogarri;
biak zorrotz ditio Xâstianek ari;
katurik aragira ez da ain iratzarri;
eske bizian ditu listu ta eztarri. (Listua berriz)

Bein bete ta bein ustu, bigarren aldian
nork nai dun galdeari luza Xabastian;
irugarrenez ere ondarren tirrian;
gerta litiokenik ordûn ez zekian.

Urrenik, eltzaria guriñaz ondurik
—etxean egunero ez da ôlakorik—;
artatik ere jan du bitan mukururik;
ezpainak garbiketan badu naiko lanik.

Ogia galdu gabe ezker-eskutikan,
puska puskaren urren jaten ditu ozkan,
saldan igurtzika, naiz legor-legorrean;
tarterik ez, urrena etorri artean.

Aragi egosia; usaia ere berri;
—orain urrena noiz jan zun ezin igarri—;
artatik sartu ditu lau libra giberri;
galtzak estutu, eta lasa hear gerri.

Urrena zekorkia, egoski, erreki;
Xâstian'ek zer jan dun sukal-pertzak leki.
Edan erruz egin du bultzatzeko obeki;
nai baino lên ez balu andik bear jeiki...

Urrenik egaztia; Xâstian'ek arnas;
izardia arintzeko jarri da buru-has.
Jarraitzeko, barnean tokia du eskas;
zer asperen egin zun ez dakinak ikas:

«Gurdi-sesto nai nuke tripa, sasoi ontan.
Mami, gozoki ta abar, onenik, ezin jan»...
Negar egiten zizun itzok esatean;
baiñan jarri zioten egaztia aurrean...

Usaiak gaitz egiten, barrena bigurri;
gora-naiak eman ta gaindu zaio neurri.
Maietik altxa eta ikuilura korri;
bota artean izan du lertu bear gorri.

Itzuli da maiera, aurpegia zurbil;
berriz ere nai luke afarian murgil.
Labur arnasa artu-ta ezkerrean opil,
berriz asi da ondarrak ezin bil."

Horra Orixe gose-pasatuaren esanetan jan eta jale kontuak. Hori zaporea poemarena mahai inguruko zera guzi horien presentziari esker! Hori "jus goxo", Xalbadorrek liokeen bezala, gure gogoaren mingainean jartzen zaiguna! Eder-gosea daukan edozein gogorentzat jaki paregabea da Euskaldunak.

Baina goazen festa-giro bereziagoaren bila, nahiz eta mahaiaren inguruko festa-giro hori baino ederrago gutxi izan.

Errekalde, festa-leku esan dugu. Herria festa-leku ikusi dugu igandeetan; baina badago beste festarik poeman. Festaldiak eta festa egunak dira hauek, hots, dibertsio hutsezko ospakizunak.

Hasi ere, *Euskaldunak* poema, festarekin hasten zaigu. "Pestaburu" du izena lehen kantuak, eta "pesta-aurre-egunetik" hasten da istorioa. "Danbolin soi-

nua da Amarkar'en bêra" dio idazleak. Eta zein dugu danbolin jotzaile hori? Zein izango da. "Zubieta'ko Pontxo urteroz errira". "Amazkar" gainetik behera jaisten da Pontxo soinua joz, eta horrekin ematen zaie Samiel egunez ospatzen diren jaiei hasiera.

Hasi festarekin egiten da poema *Euskaldunak*, eta bukatu ere bai. "Amonaren iletak" du izena azken-kantuak; baina "Apezen pilota jokua" du izen iletaegunaren azkenak. Eta ikusi zernolako irrikaz espero duten uhitziarrek ordu hori, Orixe gaztea den urteetan:

"Ilkizunetan, gazte giñala,
egun guzian onen zai:
ikuskarririk, gauza atseginik,
jairik balin bada, AU DA JAI.

Beso biguiñez, begi zorrotzez,
apeza adin ez inor gai;
gizonak plazan ertzetan daude
noiz asiko diran zai."

"Jairik balin bada, au da jai". Festarekin hasi eta festarekin bukatu egiten du Euskaldunak poemak.

Eta bitarte horretan, noiz eta non eta zertan ez da ospakizun "atseginik"?

Uhitziko Ihauteriek sei egun hartzen dituzte. Lehenik, hiru ostegun jarraian Ihauteri egunaren aurretik. "Gizakunde" du izen lehen ostegunak, "Emakunde" du bigarrenak, eta "Orakunde, Ihauterie gunetik hurbilenak. "Ikauteri" eguna da gero, laugarrena hau. "Asteleniaute" bosgarrena eta "Astearteiaute" seigarrena, Tolosako "astelenita" eta "asteartita" dira azken bi hauek. Bada egun horietan denentzat, haundi nahiz txiki, festarik eta ikuskarririk, ospakizunik eta gauza atseginik.

Hor da Elentzaro, hor da Doniane. Bada horietan ere ospakizunik eta festarik, gazteen eske eta bat eta beste.

Hor dira apustuak, sega, nahiz aizkora, nahiz lasterka, nahiz palanka edo satai, nahiz ahari talka, eta... Hor dira estropadak, ia-ia kantu bat osoa hartzen dutenak. Zer gehiago behar da?

Gehiagorik ez dakit behar den, baina bada besterik ere. Beste hauek lan artekoak edo lan ondokoak dira, dela "artajorra", dela "iruleak", dela "eultzia", dela "artazuriketa". Hauek denek badute erdian eta ondotik festarik eta ospakizunik, eta mardulak eta beteak. Kultur-gune apartak gertatzen dira lanbide hauek denak. Zenbat kantu eta kanta eta ipui eta herri-jakinduri banatzen den eta jasotzen den lanordu horietan zehar! Horiek giza-eskolak eta euskal-eskolak! Analfabetoak ere ederki eskolatzen dira horietan.

Eta *Euskaldunak* honen festagiroa aitatzean, ezin dut alde batera utzi, bertan erlijio-inguruko ospakizunetan darion alaitasunari. "Meza alaiera doaz gauerdi denean" dio Orixek Gabon Gaueko elizkizunarengatik. "Meza alaiera". Ez doaz nolanahi. Hala dio: "Soin berria dute aurrek jazteko eguna; inpernuko beltzari kenduz begi bana". Garai haietan zerbait berria jazteak zuen graziarekin. "Sorgin-afaria" dute gero. Arloteenak ere gau horretarako jasotzen du puska goxoren bat, eta egiten du ohikoa baino afari ederragoa. Eta aurretik, ikus zeinen ohidura zoragarria. Alaitasuna eta festa ez da bihankakoentzat bakarrik. Harago zabaltzen da eta lauhankakoetaraino iristen da. Ikuilokoak ere afariaren zai daude. Ez daude lo bestetan bezala, "Janaren eske daude, elkar milikatuz". Eta haietara doaz eta afaria banatzen die: "agotza aurrena ta alea beiari; lasto-orde belar biguin asto gaxoari". Hori da ontasunaren edertasuna! Hori da erlijio-giro alaia!

"Meza alaia" da Gabon gauez. "Santa Garazi alaia" da uhitziarrek mendian daukaten elizatxoaren zaindaria. Hara dute beren beila urteoroz, eta bada beilaririk:

"Andik mordoska, emendik saila,
itzez alaituz bidea,
Leitza, Berûta, Larraun-eldetik
inguratu da jendea.
«Zer diozu»-ka, erriko ta arrotz,
denek dute zer galdea,
igaz nola zan, aurten oraingoz
nola den urtea."

Horrela dator jendea "Santa Garazi alaia"rengana.

Eta nola utz hitz bitan aitatu gabe Aralarko Aingeruaren urteoroko bisita? "Aingerua erriz-erri" du izena zati honek, eta "Letari" kantuaren barnean sartua dago.

Zati horren aurrekoa, honako bertso honekin bukatzen da:

"Zenbat gizaldik kokatu dute
irudi ontan ezpaiña!
Zâr ta aurrek oro, naiz ez ikusi
begiz Aralar'ko gaiña.
Bera jeisten da erririk erri
urbilduz bakoitzagana,
Aralar-mendi, zerua bera
aramanez aiengana."

Mundu guztiak kokatu ahal izan du beraz bere ezpaina Aingeruaren irudian, nahiz inoiz izan ez Aralarko tontorrean. Aingerua bera dator, harengana joan ezin duenarengana.

Hona etorrera hori:

"Gogoan bizi dut nola giñan
Lekunberri'ko mugara.
Erri-gurutza, mutil mordoska,
gizon larrien illara...
Mugan itxaron; luzaro bage
malkorrak kanta-dandara.
Ara aingerua! lerden nabari;
ura biotzen dardara!

Erri-Gurutzêk elkarri mun, ta
oro belaunez lurrera...
VENI CREATOR esan ondoren
guziok jeikitzen gera.
Aingerudunak ugal-potoak
bere gerritik atera;
urren erri aingerudunak
aurrekoaren jazkera.

Oian, bei, ardi bedeikatuaz
doa mugatik errira.
Ezkil-dorrean bi mutil daude
noiz agertuko begira.
"Txanpurrion'go biur-gunean
egin duteneko bira
dandaraz dute usuagotzen biotz
biotz guzien pilpira.

Ez dut bein ere ain alai egin
erri maitean sarrera".

"Meza alaia" Gabon gauez, "Santa Garazi alaia" mendiko elizatxoaren zaindaria, eta "alai"a Aingeruarekin herrian sarrera, beste inoiz ez bezain alaia.

Aski erakusgarri edo muestra badugula esango nuke ikusteko *Euskaldunak* poemako herria, Uhitzi, herri argi bat dela, herri bizi bat, alaia, mila modutako ospakizunez betea. Beraz, ez da idazlearen inbentu bat, hor ageri den herriak erakusten duen aurpegi arrai hori. Hori, ikusi egin du Orixek. Areago: Hori, bizi egin du. "Gauza bera mintzo" da poeman, egileak desio zuen bezala; hots, "res ipsa loquatur". Orixe kronista bat da, berak "Letari" kantuaren barnean egiten duen otoitzean jartzen duen bezala.

Ehundaka pitxi gehiago bada poeman zehar festa-giro hori hornitzen eta ugaritzen eta ederragotzen duenik; baina ez zegoen denak honera ekartzerik. Erakusgarri batzu bakarrik dira hemen bildu ditugunak.

Hasieran esan dut nola nere batzordekideei esan nien herri-antzerki baten tankera hartzen nion nik poemako herri honen izaerari. Niri iduri zaidana, zera da: Ohiko diren arau batzuren arabera mugitzen dela herri osoa ospakizun hauetan denetan, herritar bakoitza berari dagokion tokian eta unean eta zereginean agertzen delarik.

Zubietako Pontxo "urteroz" danbolina joz sartzen da herrian festa-bezperan. Lehen ehotaldia errotarako aitonak prestatzen du.

Amonak eragingo dio odolari txerrihiltzean pertzean. Bi gurasoek emango diote baietza gazteen amodioari. "Atxomotxa" ezizenez ezagutzen den andreak emango dio hasera artazuriketetako ipuin kantaketari. Arreoa zabaltzen, "Sutegi'ko Joxepe" eta "Martin Burruntzali" dituzu beti. Hiletetan apezena da pilota partida. Eta ez gaitezen sar festa ofizialetan. Hor guztia dago arautua. Guztia egiten da ohikoaren arabera.

Kautereen jokoa ez da jaunaren ezpata zorroztearen truk diru-kobrantzarekin bukatzen, zeren kobratu orduko Pitxua hiltzen baita. Kabana handiak pitxu zenaren testamentua irakurtzen du. Hona hemen 1992. urteko Eskiulako Maskaradak Barkoxen irakurritako Pitxunaren testamentuaren zati bat:

Ountxa zen Pitxuna! Bazin hountarzuna!
utxi deïku testamentu hau ... Eakouriko deïziet:
Uzten du: bere haurrak, bere xenharraï
be zenhara, hartu nahi dinaï
Zuhetatzen deïo ... lazgariko oxagaria!
Uzten du: erhatz bat herriko kantonieaï ...
Uzten du: be fusuil zahara aphezaï ...
Holçarten ursokan aïtzeko!
Guelhaïxaï usten du be agenda beria, héritarer
eraïteko, nouiz apheza libre den, hoïen
ezkountzeko edo ehorzteko.
Khuña uzten du herriko emaste gazte hoïer ...
biba ziek eta xantza houn!

IIIe. AZKENEKO KANTOIA

Bukatzeko, eta moneinak dantzatu aitzin, maskarakaiak biltzen dira elkarrekin kantu bat emateko. Normalki kantu berria da, espreski egina. Hona Eskiularsek 1992.eko Maskaradan kantaturikoa:

Khanta dezagün gogotik
Zahar gastik harrotürik
Desiratüz osagarri
Pentsa bethi ESKIULARI

Agur adixkidiak esker milak zier
Eman deiziegü amodio bezain plazer
Zer othe balio dü orai bizitziak
Ez badütügü zaintzen gure deskantsiak

Xibero xoko ejerra eskual lilia
Zurekin date gü uduri den gazteia
Gure zaiñetan odola kurritzen bero
Bizi bedi orhidüra orai eta gero.

IV. AZKEN HITZAK

Artikulu hau ikerketa luzeago baten zati txikia da. Delako ikerketak *Berbarekiko etnografia* du izena, bertan Maskaradan antzezten diren testuen gorabeherak aztertzen direlarik. Arestian aurkezturiko testuek, eta oro har *berbarekiko etnografia* deritzan ikerketak erakusten duenaren arabera, honako ezaugarriak garrantzitsuak dira Maskaradaren testu literarioei buruzku gogoetan. Lehenbiziko ezaugarria da testuaren antzezleak eta sortzaileak pertsona berberak ez izatea. Normalean, aurreneko jokalariek erakusten diete berriei nola eta zer jokatu (kantatu, erran, oihukatu...), zer hori idatziz iragaten delarik. Idazkuntza ezaugarri inportantea da Maskaradetan transmisio kontuetan. Kautereen, buhameen eta zorrotzen koplak idatzi egiten dira, eta idatzita ematen dira herririk herri eta belaunaldiz belaunaldi, oraingo Maskaradetak antolatzean bederen. Areago, goizeko barrikadetan txorrotxek, kopla berriak osatuko balituzte ere, berauek idatzi egiten dituzte ikasi eta kantatu aurretik. Idazkera oso ezberdina izaten da herririk herri. Eta herri bakoitzean berdin gertatzen da urte ezberdinetako Maskaraden artean. Grafia gisa bat baino gehiago dago, grafia frantsesa eta zubereraren tokian tokiko ahoskera herrikoiak libreki nahasten baitira noiznahi, nonnahi eta nolanahi testuetan zehar. Bestalde, arratsaldeko beltzen mintzaldiak aginte zibilak eta erlijiosoak erabiltzen dituzten hizkuntza erretorikoaren iraulpena edo karnabalizazioa dira, partikularzki apaizen eta notarioen formula erretorikoenak.

Kopletan eta pheredikietan zati batzu errepikakorrak eta erretorikoak dira. Beste batzu, ordea, berriak, mementurako espreski asmatuak. Kopletan eta pheredikietan jakinarazten dena oso lekukoa da, beraz aktoreak buruan duen audientzia bisitaturiko herria da. Bestela esanda, linguistiko, sozial eta komunikatikoki ikusita, Maskaradak osatzen duen komunitatea txikia da, maskarakaiak eta berauek bisitaturiko herritarren artekoa.

TOBERA BERRIAZ, ... EDO HOBEKI ERRAN: GAURKO TOBERAZ

Tolosa, 1998-XI-14

Mattin Irigoien

Ene lekukotasuna ez da tobera ikerle batena izanen. Ikertzen, muntatzen hastean hasi nintzen. Erran behar da, lagun zonbaitekin egin ibilbide kulturalean —zokoratu euskal izaitearen berreskuratzeko ibilbidean— tobera naturalki inposatu zaigula.

Enea, beraz, gehienbat transmisioaren, sundaren eta esperientziaren emaitza diren hipotesiak dira.

Gaurko toberaz mintzatzerat gomitatua izan naiz. Alabainan atzokoa eta gaurkoa bereizten dira. Lehengoa da hogoigarren mende hunen erdirat arte agertzen dena, eta berria deitzen da 60 hamarkadatik landa agertua. Egia eten bat kokatzen dugula hor. Eten bat mugaz gure aldeko euskaradun gizarte osoak ezagutu duena, eta toberen bilakaeran ere isladatu dena. Ez-euskalduntzea, euskalduna bere izaiteaz ahalgetzea, mundua irakurtzeko nor bere begiaren arroztea, ..., hots, alienazioa, kolonizazioa, akulturatzea, folklorizatzea, denek ezagutzen ditugun gaitzak, eta oraino ere dirautenak, eta ez bakarrik frantsestu euskaldunen baitan, bainan ere euskaldungoaren berpizle bezala agertzen garen hainbat adierazpen, ekintza, ikusgarri, jarrera edo egituratan.

Eta kontestu hortan sortu tobera da gaurko tobera. Tobera berria erran dute batzuk. Zonbait denbora eta beste zonbait tobera (agian) eguruki beharko da jujatzeko ea tobera hau berria den ala iraganekoaren muina berritua duen karreatzen gure menderat. Ispixoa egiten dut halere, ikerketa eta ekintza uztarturik eremaitean, aurkikuntza interesgarririk eginen dugula gehienbat aitzinean dugun bidean.

Lehenago tobera zenaz zer ikasi dugu?

Asko idatzi da formari buruz. Funtzioari buruz gutiago. Forma eta funtzioa bereiz ditazkea?

Adibidez forma aldetik tobera, dantza, antzerkia, bertsua eta hunenbeste ingrediente batzen dituen ikusgarria izan daike. Bada gaur egiten diren tobera

izenarekilako ikusgarrietan, irakurketa motz eta laburtzaile hori egiten duen joerarik. Errituala finko baten berritzea. Ez dea mamiaz hustea hori?

Funtzioari dagokionez, tobera, gizarte batek, memento zehatz batean, sortu espresio satirikoa da. Funtzio askatzailea duen emanaldia da, gaizki biziak, ezin biziak, eta ordre plantatuaren parodia irriaren, fartsaren, trufaren, inprobisaketaren, eta gizarte bereko talde batek ereman xedearen bidez obratzen dena.

Antzerki soilaren bidez egin ditaike hori. Tobera deitu dira azken urteetan funtzio hori (ustez bederen) betetzen zuten zonbait antzerki ttipi emanaldi. Formaren laburtzaile ote?

Funtzioari buruz, batek pentsatuko duke, arras idealisaturik dakartala hemen. Alabainan, auzoko ipurdi ixtorioen edo bikote kexaduren berri plaza erdirat ekartzen duen ekitaldia, molde irringarriz bainan kutsu moralistarekin, ez ote da funtzio askatzailetik baino gehiago gizarte hetsi eta hertsi baten tresna zapaltzaile gisa, ordre moral garbi eta kontserbadore baten aldeko ekintza bezala ulertu behar?

Galderazko punttua gure buruari ere egin dugu. Bainan axalezko begirada hortarik barnago jo behar dela iduritzen zait.

Nork antolatzen zituen toberak: gazteriak. Ez da hemen autoridade moral edo erlijioso baten manurik. Aldrebes izaitekotz. Jada erregeen denboran, berdin errepublikarekin, noiz ez betiko elizaren ganik, podereak etengabe saiatu dira tobera edo araberako mustren debekatzerat...

Guhaur hazi garen inguramenetik imajinatzen ahal dugu nolako giroa ditaken gure herri ttipietan aitzinako garaietan. Zerk bultzatzen du gazteria eta ezkongabe talde osoa, horrelako kemen haundian, sekulako builleria sortzen duen gai baten inguruan, berdin debekatua den ikusgarri baten muntatzerat?

Gure gaurko begiek ahantzi dute bainan ohartu gaiten herri hori mundu ttipi bat dela. Orduko Internet sarea askazien, merkatuen eta herritarren zirkuluak ez dua mugatzen? Bizitzaren mugimendua bera arras ziklikoa da, naturaren sasoinek markatua, ziklikoa eta ere geldoa. Kontziente naiz ez dela ikuspegi hau ere arras egiazkoa, gerlek, goseteek, eritasunek eta beste mila gertakarik eguneroko saldari biper ekartzen diotelako. Bainan halere... Elgarri so bizi gara. Elgarrekin ere. Lanaren dorpeak, esku lanaren omni-presentziak, auzolana du aterabide. Lanaren dorpea elgarrekilako bizi jakitate eta kalitate horrek du orekatzen. Kanpoko lanak mahainean bukatzen dira, eta mahaikoak mahai pean maiz. Kantuak, jokoak, dantzak, eta nolaz ez bertsu inprobisaketak bere lekua du hor. Leku naturala. Imajina orduan gizarte nukleo horrek gazteria indartsu bat daukala bere baitan, indartsu kopuruz eta elgar-bizitzaz. Natural bilakatzen da noizean behin, desafio bat botatzea beren burueri bezainbat giderrak dituzteneri, hitza hartuz plaza gainean. Irriaren bidez, trufaren bidez, ikusi ororen begitako lasto zikin guzien salatzez, eta bixtan dena bakoitzak bere

jeinuen bahetik. Kantarienak kantuz, ziminoenak ziminokerian, ditxolarienak bertsuka, dantzarienak dantzan, eta abar... Ihauterien funtziotik badu toberak. Maskaradek, galarrotsek, kabalkadek, libertimenduek, karrusek, asto lasterrek, ... eta hamarnaka izenez aurkitzen diren ahaide horiek guziek duten bezala. Lekuan lekuko üsantxen arabera. Eta orain artino heldu zaizkigun formetan ere, aipatu ezaugarri horiek iraun dute. Begira Maskaraderi. Lasarten ere Santa Anaz, uztailez, gure toberen antzeko zerbait jokatzen omen da oraino. Ikusterat joan beharko dugu.

Ororen buru forma eta funtzioaren bereizteko joera horrek ez du zentzurik. Forma eta funtzioa arras lotuak daude. Funtzioaren araberako forma sortuko dugu, eta hain segur formaren iduriko funtzioa izanen du.

Euskaradun gazteri bat indarrean, indarrean den euskaradun gizarte batean, izango bagenu, ez genuke honelako ele sinpleen erraitearen beharrik.

Ohartzen gara, gai huntaz dauden izkribuak arakatuz, 1914ko gerlatik landa jada tobera gutiago emaiten dela. Eta 1945kotik landa bat ere ez. Emaiten du gerla horiek, 14-ekoa bereziki, ezin errepublikanotuz dauden Frantzia ama sainduko baserritar gibelkoien ildoan emaiteko egin zirela. Euskaldunentzat historia ez da diferent egin. Ainitzek mugaz bestalderat edo Ameriketarat ihes egin zuten, eta geroztik ez itzuli intsumiso bezala ekarriak baitziren, eta gaineratikoak, bizia ez bazuten galdu, beren osagarria, gorputzekoa nahiz mentala, galdu bai Verdun edo Chemin des Dames-ko lubaki eta haragi-zelai lohitsuetan. Tobera gose guti handik itzul eta. Horren egiteko belaunaldiko ordezkari gutiago ere egia erran.

Ororen buru tobera osagarri marka da gizarte batentzat. Osasun horrek du esplikatzen debekuaren beldur ez hori. Gizarte borobil eta nahiz hertsi baten ihauteri orekatzailea bezala ulert ditakena menturaz. Eguneroko trinkotasunak zuen leiho idekitzea permetitzen irriaren bidez (permetitzen: uztearen zentzuan bezainbat ahalen libratzearenean). Gizartearen oreka ez du kondenatzen, ez eta nihundik ere.

Bakoitzak badaki bere gazte denborako esperientzia (iniziatikoa) egiten ari dela. Gerorago, ezkontzean, mugaren beste alderat pasatuko dela eta bera izan ditakela gaur antzesten duenaren suiet. Baina erran, gauzak erraiten dira.

Debekuak kanpotik heldu dira, gure arteko orekatik kanpo diren instantzietarik. Eta, hitz dizuegu, ez ditugu hutseginen plazan beren eskarnioak eginen ditugularik!

Aldiz, gerlatik landa, soldado ohiak frantses nazionalismoaren bandera bere odoletik eta bere odolean sartua du. Debekuak ez du kanpotik jiterik. Orden moral arrotza barneratua da gehiago, eta ondorioz poderearen, zaintzen gaituen eta zaintzen dugun poderearen trufatzea, lehenago orekaren begirale zena, oreka berriaren hautsle bihurtzen da, ez-egoki eta sakrilegio! Debekua euskal

gizarteak, bere aldatzearekin batera, beretu du, barneratu. Ordurarte tokiko notable eta elizgizonek beren euskalduntasuna komodoski baliatu zuketeen kanpoko podere zentralistaz bereizteko. Gerla horiekin, gerlari ohi kontu eta beste, berak ere podere arrotz horren zerbitzari sutsu agertzen dira (Ybarnegaray eta *Eskualduna* agerkaria ditugu horren lekuko). Hortik aintzina deus ez da berdin. Debekua tokiko jendeak, gizartearen parte poderedunak du espresatzen. Eta bi gerlen artean jada, tobera edo karrusa ez da hoin finki agertzen. Erdi gordeka, libertimendu edo kabalkada izenaren gibelean, entsegu batzu eginak dira, bainan sumetitzen ari den gizartearen azken putarrak direla sendi da. Izen aldatzea, familia batzuetako gazteen ez parte hartzea eta herri batzuetan izan diren kalapita eta joka partida gaitzak horren lekuko ditugu.

Frantziako euskaldunez ari gara. Mugaz hegoaldean, baliteke debekuak jasan direla gehiago. Zuen makurra, ez da gure xantza izan. Gerla bakoitzak frantses gizartetiar belaunaldi bat eratu du, Aljeriako gerlak azkenik. Nahiz hortik den minoria bat hasi gure kulturan zentratzen den ikuspegi baten berriz garatzen, kanpoko kulturak gure buruaz hazten zigun ahalgeari buru egiten eta gure duintasuna komunitate eta nortasun guretiar batean berriz finkatzen.

Kontra-puntu hortarik aintzina da berriz agertzen hasi tobera, gaurko tobera...

Enetzat argi da toberaren forma eta funtzioak zaindu dituzten emanaldiak izan direla geroztik. Haatik, argi da ere formari eta errekonstituzioari hurbilago diren ikusgarriak antolatu direla ere izen beraren pean. Arras gauza desberdinak izanki, ezin ditugu biak batera tratatu. Berregite sailari hurbilago bezala ezartzen ditut gizarte eskandalu batetik sortu ez diren toberak. Baigorrin eman zen "Panpale Beti Xut" (1979) Daniel Landartek idatzia, geroztik beti Baigorrin "Pontzio Gauxori" (1991) eta "Otto Kristobal" (1994) Pantzo Irigaraienak. Baigorrin ageri da kabalkaden, dantzaren, maskatzearen eta karrika ibilaldien afizione haundia dutela. Geroztik, Itsasun kabalkada bat muntatu da 1997an, tartean antzerki saio bat Arrolanen auzipetzeari dedikatu zutela, bidenabar gaurko zonbait gertakari sakatuz. Azkenik, azken urte hauetako Lekorneko kabalkadan ere, antzerkiak tarte bat izaiten duela badakigu.

Beraz, hurbilagotik interesatuko gitzaizkie zonbait tobereri, iduritzen baitzait gizarte mailako gertakari batzuen ondorioz eta beraien salatzeko muntatu diren toberak direla, eta holaz, aintzinakoen hari beretik doazela.

Berpizte ikaragarria da aipatu 60ko hamarkadako urte horietan euskal kulturaren mailan. Gazteria oso bat galgarikan dago. Sozial, ekonomiko eta gizarte mailarako bezala, kulturaz, kultur ekimenen zereginaz eta nundik norakoaz pentsaketak egiten dira. Mundu osoak bizi duen oldar hori, gure eguneroko bizitokietan aplikatzerat saiatzen dira.

1971, 1973an (hor nunbait), Aberri Egunakari, tobera deitzen den emanaldi zerbait muntatzen dute. Mezu politikoa hedatzeko hain segur.

Iholdiko afera deitu denarentzat da tobera egiazki berriz agertzen. Iholdin Herriko kontseiluak aintzira bat egiteko estakuruarekin, eiherazaina nahi du eiheratik kanporatu. Auzi luze eta korapilatsua da. Herria bi parte jartzen da: eiherazainaren aldekoak eta Herriko kontseiluaren aldekoak. Gazte ainitz eiherazainaren alde dira. Ber garaian euskarazko antzerkiaren usaia hedatua da, eta gazte horietarik batzu antzerkian arizanak dira. Eta horra nun muntatzen ari den saltsa tobera baten bidez salatzea gogoratzen zaien. Kristian Etxalus, Daniel Landart eta Eñaut Etxamendi aurkitzen dituzte beren bidean, eta denek batean emeki emeki ikusgarria osatzen dute, idaztetik muntatzeraino. Lan kolektiboa. Antzerkia, kantuak eta bertsuak badira. Egun hartan ikusi zen ere mota guzietako dantzak eman zirela. 1974ko abendoaren 29an Iholdiko plaza toberazaleek eta toberak debekatu nahi dituzten herriko kontseiluzaleek aldizka okupatuko dute, guduka epikoak burutuz egun osoan. Traktorez, ur botaka, sirena hotsez, elektrika moztuz, ukamiloka, tiraka, pusaka eta hain segur zer nahi erranka, denak on izan ziren toberen trabatzeko. Halere eman ziren.

Urte bat eta erdi berantago, 1976ko maiatzean, Baigorrin emaiten da beste tobera bat "Etxe sartzea" deituko dena. Azken hilabeteetan, lurra maiz tokiko laborari gazte eta nunbaiteko markesa aberats edo baserritar pausa-lekuz gose den kanpotiarren arteko enfrentamentu gaia da. Laborari gazteak, abertzale gazteak, behin baino gehiagotan antolatu dira "lurra lantzen duteneri" lema obratzeko. Baigorrin bada gazte multzo eder bat mugimendu hortan parte hartzen duena. Hor ere, antzerki talde batean ibiltzen dira batzu. Beste batzuk dantza taldean parte hartzen dute. Iduritzen zaie tobera tresna egokia dela beren ikusmoldea plazaratzeko. Berriz ere Kristian Etxalus eta Daniel Landarten laguntzarekin, taldeak ikusgarri oso bat sortzen du. Ideiak, testoa, dena elgarren artean ikusten, eztabadatzen eta finkatzen dute.

Ikusgarria pesta giro batean iragaiten da. Ez da Iholdiko gisako giro elektrikorik. Erran behar da ez dela egiazko ixtorio batean finkatzen tobera. Fikzio bat da antolatzaileen ideien eta ikusmoldeen erakusgai.

1988a, hamar urte igurikatu behar da beste tobera baten ikusteko. Eiheralarre eta Ezterentzubiko gazteek emanen dute Eiheralarreko plazan. Antton Luku hor gaindi dabila toberaren bereskuratzeko asmoz. Giro bat eta gazteria bat bada bi herri horietan. CRS eta armadek mendia okupatzen dute mugaren zaintzeko aitzakiarekin. Gaia hortik abiatuko dute eta haraneko beste gai zonbait zirikatuz muntatuko da "Deabruaren boketa" tobera. Taldea Antton Luku, Jakes Ahamendaburu eta Xebaxtian Ihidoi zenaren inguruan moldatzen da eta idazte lana Gillom Irigoieni konfiatzen dute. Han zirenek gogoan dute, Eiheralarreko plaza airean atxiki zuen zirtzilen jokoa bai eta garai hartan omnipresente zagoen armadaren okupazioaren simulazioa.

Amikuze Toberetarat heltzen gara 1991an.

Amikuzen ere giro berezi batetarik partitzen da tobera. Lantegi heste batzu badira, enplegu murrizteak zerbitzu publikoetan, eta holako hunenbeste mehatxu, krisi sozio ekonomiko baten iragarle. Honen aurrean sindikatuak, langile nahiz laborarienak, eta gizarte mailako elkarte frangok ihardokitze bat antolatzen dute hautetsien geldotasuna salatzeko eta podere publikoen zentralizazio hautueri buru egiteko. Borroka hortan, euskaltzale frango inplikatuak dira bainan tamalez, guzia frantsesez eremana da. Euskaltzale mundua, kultur elkarteen inguruan, euskal kultur aste baten antolatzerat badoa. Bi gauza agertzen zaizkit bixtarat orduan:

— Amikuzen dagoen krisia ezin aproposagoa da tobera baten bidez agertzeko.

— Krisi, ekonomiko sozialari euskaldun gisa bizi dugun krisi kulturala uztartu behar zaio, hots salaketa euskaraz espresatu.

Horrela du toberaren ideiak bide egin elgar osatzen zuten bi munduak bateratuz. 1991ko buruilaren 22an emanak izan dira Donapaleuko plazan. Interes gutiko fikzio baten bidez Amikuzeko egoera aztertua da lehen parte batean, eta bigarren partean egiazko auzia abiatzen da gaurko egoeraren erantzule bezala emaiten diren hautetsi, eliz buruzagi eta Estadoko funtzionarien epaia eginez alegia deus ez.

Toberen egitura zaharra gaurkotua da ibilaldiko karroetarik haste. Zaldieria eta mando edo asto tropek gizarte desberdinkeriaz deus guti argitzen dute gaur. Izaitekotz, iragan garai mitikoen nostalgia zerbait dute sortzen, hots, helburutik urrun eremaiten gaituzte. Gure hautua izan da jauneria guzia traktore apain eta haundietan eremaitea, eta beren ttipikeriaz hobendun diren populu ttipikoak, indar gutiko traktore zahar baten puntan. Pertsonaien sartzerako ere musika moldeentzat gaurko erreferentzietarat jo da, zinematik, telebistatik eta gure tradizio azkarretik hartuz. Antzerki denboran, zirtzilek errola garrantzitsua izan dute gertakizunen eskarnio permanente bat antzestuz eta "pentsatzaile onak" zuzenki kontrariatuz beren ateraldiekin eta irri egiteko gogoarekin. Tobera guzia tritzotan emana da eta bertsulariek ere noiztenka ikusgarriaren komentario bat emaiten dute. Tokiko dantza taldeak ere parte hartzen du pausa guneetan eta toberak mutxikoekin bururatzen dira, publiko eta aritzale guziek emanik.

Eta heltzen gara orai gure mintzaldiaren azken parterat: Zer da beraz berria gaurko toberan, zer interes du oraino bizirik mantentzeak?...

Ikusten dugun bezala, nahiz jatorriz, gaiez, protagonistez eta moldez arras desberdinak izan gaurko tobera hauek, guretzat tobera berriaren eta zaharraren arteko lotura arras ongi isladatzen dute.

Derragun nola eta zertan:

— **Gaia:** eskandalu edo gizarte mailako ezin jasan bat dute abiapuntu toberek. Tobera gizarte mailako egoneza salatzeko sortzen da. Lehen ipurdi ixtorioetarik hurbil ziren gai guziak. Izan dira halere beste gisako batzu ere. Behin larderiatsuegia zen apez bati egin zioten astolasterra. Etxahunen bertsu batzuek ere holako zerbait salatzen dute. Gaurko toberetan haatik sexu harreman gutiago aipatzen da. Lehendanik aise pudikoagoak gara. Egia erran, lehen kabala eta animalien artean bizitzeak gai horri buruzko hiztegia eta irudimena aise gehiago bazkatzen zuen. Arruntago eta egunerokoago zen sexu solasa gisa hortan. Gaurko harremanak, lankideen artean, herritarren artean, auzoen artean ere berdin, axalezkoagoak dira gehienetan. Gizartearen partaide bezala gure buruaren senditzeko moldea ere aldatu da. Zentzu kolektiboa bera aldatu da, eta gehienetan delegatu. Ez da harritzeko, beraz, eskandalu gaia aldatzea mendea aldatzean. Lehengokoan lehen tokia zeukana gutiago tratatua da orain, eta gizarte eta podere harremanak dira tratatuak lehen planoan.

— **Emaile taldea:** gizarte osoko parte batek ditu antolatzen. Gazteria da oraino ere protagonista haundiena, nahiz kasu batzuetan adin gehiagoko zonbait hurbildu han hemenka. Gaiak nor interesatzen duen eta araberako jendea hurbilduko da. Bainan hala ere plaza gaineko ekimen ahalge gabearen protagonista nagusia bihar ere gazteria izanen dela iduritzen zait. Alabainan adin batean plantatuago edo irri biderako arintasunetarik urrunago aurkitzen gara ez?

— **Irria, parodia, kritika:** gertakariak, gizarte maila guziak, eguneroko biziko jasan beharrak eta jasan ezinak arma berdinarekin ihiztatuak dira. Irriaren bidez asko erraiten da, lehen bezala orai ere. Irriaren bidez, satiraren bidez, egoeraren edo gizartearen irakurketa indartsua posible egiten da.

Hala ere, ene ikuspegi pertsonaletik, pertsona baino gehiago pertsonaia da irringarri. Pertsona den bezalakoa izan ditaike, baina bere hautuak, bere funtzioa dira buluzten, bere erantzunkizunak dira kritika eta trufa bide. Irriak ere mila aurpegi ditu eta errexkeriaren bidean sartzen denean, mespretxu soil, desberdintasunen ukatzaile eta alderdikeria huts baten gisa joka dezake. Irri egiteko moldean ere hautu baten aintzinean gara, mugak bereiztea ez bada beti errex ere.

— **Hizkuntza:** hizkuntzak hobeki erraiteko. Lehengo herrestoetan ikusi dugu euskaraz bestalde hizkuntzen baliatzen zekitela: latinetik hasirik, biarnes, frantses, espainol eta berdin berek asmatu mintzamoldeak ere. Bixtan da euskararen barianteak ere baliatuak zirela. Zein mailako jendea den mintzo, zein mailako jendeari den mintzo eta araukako mintzamoldea erabiliko da, oraino zorrotzago eta egiazkoago eginez trufa. Erregistro desberdinen baliatzeko ahal oparoak uzten baitizkigu euskarak.

Gaurkoan ere ahal horiek diraute. Kanpoko hizkuntzak ez zaizkigu arrotz. Izaitekotz euskara zaigu gehienik arrotz. Jendeen arteko harremanerako funtzioa ez baitu guti baizik betetzen. Dakitenentzat eskolako edo familiako gauza

bat gelditzen da maiz. Hau ez da toberaren arazoa bakarrik, baina hizkuntzarena orokorrean.

Haatik, biziarekilako lotura zuzena duelakotz toberak, egunerokotasun horrek agertu behar du hizkuntzan ere. Amikuzekoan, "merkatuko euskara"-ren hautua egin zen, frantses eta euskararen nahasteka bat, egunorotakoan entzuten dena. Koplaka edo tritzoka egiteko ahala gelditzen da ere oso osorik. Beti Amikuzekoan, ohartu ginen ez ziola nihundik ere ikusgarriari graziarik kendu, izaitekotz emendatu.

— **Espresa moldeak:** antolatzaileen ahalak eta jeinuak dira loratzen gaur ere toberaren bidez. Lehen bezala. Dantzariak azkar eta gaian inplikatuak badira araukako presentzia izanen dute. Bertsulari bat edo sasi-bertsulari zonbait badira hor gaindi, bertsuek ere beren tokia izanen dute. Antzerki talde batek lan egin badu eskualde hartan, emanaldi denboran sendituko da. Plaza antzerkiaren zentzua duen emailerik balin bada, joko inprobisaketa posibleago eginen da, publikoarekilako trukea tinkiago izanen da, are gehiago deskribitu toberaren funtziorat hurbilduko gara...

Maleruski, gaur jeinu horiek guziak guti landuak dira zentzu hortarat gure aldean. Hizkuntzaren beherekada segitu dute ere.

Lehen gerlak egin zuena, geroztik hezkuntzak eta telebistak burutu dute (agian ez bururatu!).

Kultura aldetik, herritarra kontsumitzaile edo so egile pasibo egin da. Komunitatean bere eskuz edo bere jeinuz parte har dezakenaren zentzua galdu balu bezala. Gaur norbait dantzan hasten bada dantzari erranen diogu, kantuz hasten bada kantari, bertsuka hasten bada bertsulari eta erran gabe doa idazten badu idazle. Norberaren demisio kolektiboa bakar batzuen ustezko jakitate edo titulu eman ohi da. Hola bakotxa errex xuritzen da eta erantzunkizuna besteen esku uzten. Espezializatze joera horrek kultur ekileak bakartzen ditu eta gaineratiko jendea so-egile bihurtzen. Bestalde, arloen bereizte horrek, nunbait funtzio beraren zerbitzuko elkarlanean agertzen ziren jeinu bereizi horiek guziak, zentzu gabetzen, indar gabetzen, momifiatzen eta funtzio sozialetik urruntzen dituela dirudi. Bizirako sustrai zena azaleko ondare bilakatzen ari da.

Dantzak baluke ainitz irabazteko, zentzuaren aldetik, toberaren bidez bere muina berritu bat aurkitzen ahal balu.

Antzerkia, kale antzerkiaren jakitatetik, umore bide berriez, biziko dramen hurbiltze sano batez aberats daiteke toberen bidean segitzen balu. Zer ez erran bertsuaz. Zikiro eta eliza-saioetarik kanpo du bere bidea bertsuak. Egundainotik bertsulariak bere lekua toberan du. Inprobisaketaren erregeak ez du espontaneitatearen bestan mutu egoiterik.

Gaurkoan, toberaren apustua egitea, gizartearen kreatibitatearen apustua egitea da. Gizarteari buruz ikuspegi kritiko baten hedatzeko molde pedagogiko

bat, eta zerbait gehiago. Bakoitza, bere kulturaren sorteko, birsortzeko ahaldun egiteko kultura du garatzen tobera berriak. Kontsumitzaile izaitetik partaide aktibo izaiterat.

Urrun gara horren aplikatzeaz. Haatik entseguak egiten ditugu, antzerkian, bertsugintzan, hizkuntzaren erabileran, beste batzuk agian dantzan.

Azken urteetako ihauterietako espregu batzuk, gazte antzerki emanaldiek eta sasi bertsu-eskolek noizbait beren fruiturik emaiten badute, toberen funtzioaren ildotik emanen dituzte. Asuntoa ez da bakarrik tobera egitea, da bertsua, antzerkia, dantza eta gure baitan ditugun beste hainbat jeinu, gure gizartearen eta gizartetiar irakurketa baten, irakurketa guretiar baten ildotik garatzea, kreatibitateari ateak idekiz, eta ikuspegi kritiko bat (gizarteari bezainbat gure burueri) mantenduz.

Eman diezaiegun sentsu gure urratseri.

BIBLIOGRAFIA LABURRA:
Toberen testu eta beraien bilakaerari buruzko saio batzuk

Zuberoako irri teatroa. Patri URKIZU. Editions Izpegi (1998). Saioaren bigarren edizio huntan, astolaster ainitzen testu, kantu eta bertsoen bilduma gehitu zaio.

Pastorale et Tobera contemporains en Iparralde: de l'ambiguité de la notion de théatre populaire. Hélène ETCHECOPAR-ETCHART (1996). Eusko Ikaskuntzaren babespean.

"Toberaren definizio baten bila", lizentzia txostenetik Antton LUKUk prestatzen ari duen saioa, noizbait argitaratzekoa.

1991ko AMIKUZEKO TOBERAK: "Bethi gibelekoz aintzina". Mattin IRIGOIEN. MAIATZ argitaletxea (1991). Toberaren testua eta kontestua.

ORAINGO ANTZERKIAZ

Tolosa, 1998-XI-14

Antton Luku,
idazlea

Hasi aitzin erran beharra da, Jean Haritschelharrek ez zidala zehaztu "oraingo antzerkia" zer eremutan ikusten zuen. Mattin Irigoien toberaz eta Jean-Louis Davant pastoralez ariko direnez, nik Iparradeko oraingo antzerkia edo oraingo herri-antzerkia dut aipatuko, baita, nik uste, nitaz bestalde Hegoaldekoaren aztertzeko, berriki atera aldizkari eta guzti.

Antzerki edo herri antzerki?

Duela zazpi-zortzi urte Txomin Peillenek hitzaldi bat eman zuen Baionan, literaturaz eta batuaren baliatzeaz, eta iduri zitzaion orduan, Iparraldeko idazkietan batua hedatzen ari zela, "salbu herri-antzerkian eta holako gauza berezietan". Eta herri-antzerki horretan Gillom Irigoienen antzerkia sartzen zuen. Bitxi iduritu zitzaidan orduan, delako "herri" osagai hori, orain berriz, xuxen.

Ez du kentzen "herri, herritar edo herrikoi" hauek oro aski irizpide lausoak direla, "oraingo" emendatzen bazaie ez du deus errexten.

"Herri... eta ez herri"

Herri edo herrikoi nozio hauek biziki aurriritzi baikorra daukate Euskal Herri barnean nahiz kanpoan. Iradokitzen du, hola, batere urtatu gabe, landare basen aran jalgi litekeen kultura naturala: kolonialismo eta kultura burjesari buru egiten ezkerrekoentzat, estatu laikoari, eskuinekoendako (apezen garaian Iparraldekoon kasuan), estatuei orain...

Kanpotik ikusirik, musikan adibidez, trad mugimenduak bere merkatua badauka, musika etnikoak abiapundu edo mestizaie ingrediente dira maiz. Antzerki profesionalean, txosten muntaketa sorkuntza bera bezain funtsezkoa da diru laguntzen ardiesteko. "Ondarea" hitz-giltza baita Frantziari sos zerbaiten kentzeko, munta gaitza badu konpainia euskaldun, eta gehiago oraino ez eus-

kaldunendako beren errotzearen froga ekartzeak. Ondorioz gure herritartasunari hartu seinale sinbolikoak (euskara zatiño edo elementu mitologikoak) ikusten dira han eta hemen loratzen.

Artekaño hau, erakusteko hitz horrek bere pizua baduela, eta funtsari berriz lotzeko zein da Herrian dagoen antzerki naturala edo zer eskatzen du Herriak?

Koropiloaren askatzeko, metodo bat daiteke, gure "antzerki-idazle" buruari galde egitea zer idatzi dugun besteek eskaturik eta Iparraldean egiten denaren lehen katalogo bat genuke.

Lehen lehenik, antzerkia idazten da taldeak direlakotz, taldeak antzerkia behar baitu antzerki-taldea izaiteko. Pantzo Hirigaraiek Xirrixti-Mirrixtirentzat idazten du, nik ikastetxeko antzerkilarientzat. Eskolen inguruan, ikastola eta beste, antzerkiak badu leku bat, eta erakasleek edo animatzaileek, etxekoz etxeko, beren gain hartzen dute testuarena, Janine Urruty, Kattalin Sallaberry edo Irene Bordak egiten duten bezala. Funtzio soziologikoa dutela hauek gure Iparralde nimiño hartan ezin uka, gero, galde herritarra edo animatzailearen ekimena denez, hau berantxagoño trenkatzekoa da. Gizarte taldeetan antzerkiak behar dituzte ere. Sindikatek, presio taldeek, politikoak edo ez, animazio elkarteek. Testuari eskatzen zaio artetan taldearen ideien aldarrikatzea, prestigio edo legimitate politiko bat ere, espedizio bat kausituz kulturalen munduan. Hemen irrati-antzerkiak, presoen sostenguz egin horiek, ihauteriak eta holakoak aipatu nahi ditut. Segur naiz jada bi sail hauetako idatzi testuak bilduz bagenukeela bolumenean antzerki klasikoetan baino aise gehiago.

Duela hamar urte anitz denbora iragan dugu, solas alferretan, aipatzen ditudan antzerki tipi ezberdin hauek ezin sailkatuz. "Tobera, definizo baten bila" lizentzia txostena ere horretaz egin genuen Xan Otaburu eta biek. Jakin behar genuen zertan ari ginen, ondarrean, zer zen hor antzerki, zer sketx, tobera edo gau-beila.

Gau-beilek aski ongi erakusten dute delako herritartasun edo herriak maite ukaite honen anbiguotasuna. Nork eskatzen ditu gau beilak? Herriak ala garai bateko militanteek dizkiote herriari eskaintzen, denboran turismoaren aurkako ekintzengatik edo antzerki politikoetan erre ondotik barkamenaren ardiesteko.

Mito hauetan aipatu beharrak: herriak, gure herri tipiak. Berriki arte —garaiak laster aldatzen baitira interesgarria izanen da sarri "oraingo" honi lotzea, ikusteko zer aldatu den— berriki arte, taldeak herri bereko gazteez osatzen ziren.

Azken bizpalau urte hauetan galde hau azkartu da, eta tentatuak izan dira batzu —ez da sekulan helburu politikorik gabekoa— herri-antzerkia eta herrietako antzerkia nahastea. Harremanetan garelarik herri horiekin, eta hor ere norbait bada telefonaren puntan, "buruzagi" bat, ohartzen da laster ez duela antzerkia helburu, honen motibazioa ez dela herri hartako saltsa politikoan bai-

zik bilatu behar. Honentzat antzerki guziak konplikatuegi izanen dira, taula gainean agertzeko, estakurua du bilatzen testu batean, gaztediaren biltzaile gisa agertzeko parada. Antzerki emaiteko egunean ageri da berehala ez dugula gauza bera aipatzen. Ez dut gutietsi nahi, batzuetan, animazio mailan, euskararen presentziaren aldetik, adibidez —funtsezkoa da orain Iparraldean—, hor egina den lana. Baina Iparraldeko guziek gogoan dute, gure talde kasik guziak giro horretatik ateratu baitira, bigarren proiektuaren moldatzeko unean izan diren eztabaidak, antzerkia egitearen eta herrian egoitearen alderdien artean.

Idazten dugunarekin bukatzeko, argi da manatua ez den antzerki batek, talde batentat idatzia ez den antzerki batek, ez duela emana izateko xantza izpirik. Baina ez du honek bere herritartasuna zalantzan ezartzen, aipatu adibide guziek eragile edo helburu soziala dutelakotz. Ez dira landare baten gisan loratzen. Hortaz, herri-antzerkiaren definizio zaharren ingurua egin behar dugu, Euskaltzaindiarena da ere iduriz, ikusiz nola bilduak garen egun: tobera, pastorala, maskarada, astolasterra elgarrekin ezarriak dira. Forma batzuk dira, mende hastapeneko etnografoek biziki finki deskribituak, egitura alda-ezinarekin. Iparraldean, unibertsitateko lanetan dira gehienik aipatzen. Hérellek *Chiquitoa* eta bertsularitza sail berean ohatzen zituen. Orain hauek bereizten dira eta adierazgarria zait, errailearen erantzunkizuna engaiatzen diren sailak herri-antzerkitik kentzea. Toberen izengabeko autorea edozein jokolari izan zitekeelarik, bazuen libertimenduak beste biperrik. Jokolariek beste zerbait ere asumitzeko.

Beobidek *Argia* aldizkarian erran zuen behin Iparraldean ez zela irri egiteko antzerki txarra baizik. Zertaz ari zen? Maskarada esketxe txarren bat zukeen ikusi (xilarrak ere badira eta ez da sekulan aski konduan hartzen karrika antzerki mota horren interesa; asto-lasterren eremua dantzariei soilik uzten ez batzaie ardura egiten den bezala orain), edo ez da sekulan Iparralderat joan, garai hartan preseski urrunxeago aipatuko ditudan taldeak indarrean baitziren. Interesgarria, halarik ere, delako txar horren definizioa, funtsik gabeko irri horrena. Herrikoitasuna nahasten baita denek konprenitzeko gisan egina den antzerkiarekin. Erran nahi dute egileek, intelektualago egin lezaketela baina zozoek uler dezaten heinean uzten dutela auzia: hots, apezen garaian erraten zen bezala, jende xehearentzat egina. Euskararen funtzioa baita hori. Nik uste dut Herria abila dela eta ez konprenituarena ere badakiela egiten, gustukoa ez duen zerbait entzun duelarik. Denena egitea hautu politikoa da ere, hitz-hartzea bezainbat, beraz ez da herrikoiagoa. Digresio hau aldarrikatzeko ez direla "herri" eta "errex" lagun.

"Oraingo"

Garaiak nahasi ditut hor eta bazterren altxatzeko poxiño bat, Izuran Herri-antzerkiaz egina izan zen gaualdi bat hartuko dut abiapundutzat. Han Lan-

dartek bere haur denborako antzerkia aipatu zuen, apezek arras kontrolatua, guk "patronaia" deitzen duguna. Interesgarria bai, baina hunkigarriago izan zen, zer lan egin zuten Landartek eta orduko euskalzaleek euskal-antzerkiari beste tornu baten emateko, delako denena egiteko "herrikoitasun" hura utzirik. Lan hori EATBren sorreran bukatzen da eta Landartek antzerkilari bezala egin duen azkenean: Xirrixti- Mirrixti taldea eta *Nola jin hala joan* antzerkia.

Zer ahanzten du Landartek hor? Bi gauza: apezek beren patronaia erein aitzin zen guzia. Abantxu erre duten herri-antzerkia, gure tobera. Ahanzten ditu ere, ene ustez, bere lan indartsuenak, antzerki politikoak, *Nola jin hala joan* egin aitzin toberak arrapiztu dituela, *Biper beltx* taldea eta sorkuntza kolektiboak, Kristiana Etxaluzekilako kolaborazioak. Guk ikusi dugun antzerkia, ororen buru zaletu gaituena. Ez formaz beti, baina izpirituz, segur, hari indartsuena hortik arrapizten da. Apezek kasatu ahal izan ez duten izpiritua baita toberarena.

Hau sasi bertsulari, dantzari, eta ostatuko krepauten antzerkia zen. Libertimenduak fartsitzen zituzten esketx horiek ez ziratekeen beti finetarik, gustua, segurrenik ere, aldatuz joan da, baina sorkuntza gune horrek zentsura ikaragarria jasan du.

Manex Etxamendi ezterenzubiarraren bertsuetarik frogatzen da toberak herriak dituela baztertu. Bera, ordea, ez zen Herria baina Elizaren botza. Ezterenzubin auzapez zen eta elizako giltzain, apeza, berriz, herriko etxeko idazkaria zelarik. Begi bistakoa da apezak zuela podere osoa, laiko eta morala, mera txontxongiloa zelarik, Lafittek nahi duena erranik ere. Loriatzen bazen bezperen kantatzen, gure Manexek zer eginen zuen libertimendu batean, orduan sasi-bertsulariz tapatua zen herri batean. Bertsutan erran behar bazuen irrigarria zela, jakin ezazue ez zela bere herritarrendako hain argi izan behar.

Toberatik heldu den izpiritu hori, maisuki errekuperatu du Larzabalek baina ahoa nahitara lanpustu dio Elizako helburuak baitzituen. Agortzekotan zen iturria, Gillaume Irigoien jin arte.

Krepauten salbatzerat heldu da politika. Antzerkiak hitz-hartzea erran nahiko du. *Maiatz*-en solasaldi batzuetan —gaia "berrikuntza eta haustura euskal antzerkian" zen— erran zuen Irigoienek lehengo Hiruak-bat hauek Larzabal eta bereziki Landarten antzerkiak eman zituzten eta *Biper beltxen* segida izatea zuela helburu. *Biper beltxek* Landartek idatzi *Egarriak eta Mee-mee ardi kaka mehe* sorkuntza kolektiboak eman zituen... Hari beretik ikusten zuen bere burua Irigoienek, alta, honek duke haustura gehienik ekarri.

Parodia eta ironia barnekaldeko errugbitzearen kontra Don Iban eta Ibai gorrirekin, salatze politikoa *Poluzione Pullozionen*, ELBren teoriak *Apetitu onean*, Galen aldekoei muturrekoa Eskalapoinaken. Baina ene ustez berriena *Hamar manu minduak* izan da, popularrena ere, eta denbora berean estiloz ausartena: krepaukeria erreakzioaren etzian. Hizkuntzaren ahalak erreindibikatzen

ditu, "bere burua" pertsonaiaren sortzearekin. Jauntziak: Kattalin gorriz ziren jokolariak, metafora sortuz, espazioa sinbolikoki antolatua zen, herri bertsulari edo zirtolari pertsonaia, baikorra normalean, herriaren gustukoa, antzerki horretan utzikeriaz hobendun. Gaia: herri tipiak sortzen dituen zurrumurruak bere seme-alaba ausartenen kalitzeko, herri hau erreakzio toki naturaltzat erakutsia. Ikuskizuna pastorala batean bukatzen da, manikeismo salagarri horren itxuratzaile argia. "Azal orizta, muin betirakoa": Lizardik erran zuen bezala, edo "joko berri bat oraingo euskal-erreferentzien itxuratzeko". Geroztik anitz entsegu eginak izan dira, baina, erran dezagun, gure antzerki amateurraren bidea hor zitekeen.

Hurbil iragana

80 urteetan EATBk zituen Iparraldeko talde guziak biltzen. Xirrixti, Bordaxuri, Maribisos, Oztibarre, Hiruak bat, Ezterenzubiko Zentzu gabeak. Maribisosek antzerki biziki on bat eman eta gelditu zen testu eskasez. Ez zen arrazoina ene ustez. Janine Urruty kide zen eta eginen zukeen. Denbora eskasez zitekeen: militanteek nahi bezainbat alor baitute beren buruaren meskabatzeko. Hau, Iparraldea aipatzen delarik, ez da ahantzi behar.

Gelditzen direnak Xirrixti eta Bordaxuri dira. Hauen erkatzean interes pollita atera daiteke. Xirrixti Landartek Baionan sortua. Lehenik Xirrixti-Mirrixti, Larzabalen antzerkia muntatzen dute, testua biziki moztuz. Gogoan hartzen du hor zuzendariak, Landartek, predikuen garaia bukatua dela, jantziak, dekorrak arintzen dira. Beste gauza ere badu gogo zokoan: Baionan finkatuz, hiriaren konkista. Begiak herrietatik profesionalek muntatzen dituzten ikuskizunetarat makurtzen dira. Xirrixtiren sormarka *Nola jin, hala joan* izanen da. Antzerki herrikoia, arin eta omoretsua. Hirigarai bide beretik ariko da. Erreindibikatzen du irrigarritasuna, burua hautsi gabe. Familia-ikuskizun funtzioa betetzen du, eta ontsa. Landarten bidetik kalitatea hitz nagusia dago Xirrixtin. Hiriaren konkista, aldiz, utzia dute, barnealdean dute lehena egiten. Batuari uko, Hegoaldean aritzeari ere. Landartek zazpi egin ahalak egin dituelarik zazpi Euskal Herrien batzeko.

Landartek gorpuzten duen Iparraldearen diakronian arizan badira Xirrixtin, sinkronia izan da Bordaxuriren alorra: ezberdin urtero. Itzulpenari anitz eskatu diote, antzerki profesional arrotza izan da hauen eredu. Bilatu dute vaudevilletik haste, autore frantses garaikideetaraino. Euskal antzerkia hobetu nahi ukan dute jokoaren bidez, paper sendoetan beren burua neurtuz; frantsesa eta euskararen artean zen biztanlego horretan publikoa bilatuz. Helburu profesionala ez dute sekulan gorde. Hauek dute sartu zuzendari profesionala antzerki amateurrean. Talde gero eta tipiagoa, behar ukan dute, kalitatearen zaintzeko. *Bordaxuri* Larzabalen antzerkian hiru errola ematen dizkiote berari, eta sartzen dute tragedia estetika bat, Ganix zaharraren pertsonaia kenduz, erran nahi baita

Larzabal beraren botza. Hots, Txomin Hegi eta Frantxua Cousteau Iparraldeko lehen profesionalak dira orain.

Oztibarre ez nuke nahi ahantzi, batetik, arrahastekotan baitira, gazte andana batekin, baina ere leku haundia atxiki baitute luzaz gure erreferentzien saskian. Instituzioa izan da. Toki bat bazuten: Pekotxeko sabaia. Orain dut ulertzen xehetasun honen garrantzia. Hogei bat ikuskizun eman dute, euskaltasun indartsu baten lekukoak, Monzonen antzerkietan dute beren hoberena atzeman, euskararen errateko molde biziki errealista eta fina baitzuten, sinesgarritasun haundia ardietsiz.

EATBren belaunaldi hau orokorki zahartu da eta, sustut, zerga haundia pagatu euskal militantismoari.

Nahitez ezin da EATB gauza hiltzat atxiki orain. Erreferentzia egoten da, "Euskal antzerkia" erraten delarik garai haietan egin edo ikusi gauzak daude. Bere laiotza ere badu: ez da euskaraz izatea aski euskal antzerkia izateko. Entzuten da noiztenka. "Hau ez da euskal antzerkia". Tradizio bat bada, beraz, edo berriz behaztopa gintezke "ondare" hitz madarikatuan. Bada Iparraldeko jokoan konbentzio bat, naturaltasuna ez den normaltasun bat testuaren erratean, apezen prediku edo antzerkietarik heldu den enfasia, gehiago entzuten ez duguna. Batzuentzat, berriz, ontsa aritze hori, testua molde horretan erratea da. Neutraltasuna trabatzen duen heredentzia.

Trenkatu gabe dagokigu errextasuna eta herrikoitasunaren arteko koropiloa. Bezace zuzendari frantsesari berriki galde egin diotelarik zer zen antzerki popularra orain: "Deus, jateko egiten diren ikuskizunak. Errezeta hau da: publikoaren balakatzea, bere hartan atxikitzea, testu jada entzuna, irudi jada ikusiak xerbitxatuz". Beraz, hau profesionalen arteko eztabadak dira. Hautua izaten ahal da gibelerat so egitea, eta pilpilean diren gaiak ekiditea polemika ez dadin sor. Gure herri-antzerkitik baztertzea, ulertu ez dutenendako.

Orain

Ekoizpenean, 90etik honat kazetetan agertzeko on ziren antzerkiak bakandu dira. Baina saihetsetik egin dira besteak. Irrati-antzerkian atzeman izan da esperientzia inportanta, Heletako toberak ezin ahantziak dira ere. Horiek hamar urtez, urrian, emanak izan diren presoen aldeko ikuskizunak dira, sorkuntzak beti. Iparraldeko idazle guziek zerbait egin dute horgo, erran nezake hor garela gehienik, idazterat ausartu eta gure estiloa atzeman: bordela sakatzearena. Eta bereziki hor bildu dela bere lana egiteko prest zen publiko bat: eskatzen zuena adiarezteko gai. Agerian uzten baitu harria ez dela bakarrik antzerkilarien baratzean.

Orain gazteak hor dira, hemen eta han, forma tipi edo haundiagotan arizanik, eskolan gehienik, Kanbo, Hazparne, Hendaia, Garazi, Uztaritzen..., edo

herrietan Lekornen, Oztibarren, Lekuinen... ihauterietan ere. Kostaldean izpi mendreak ageri dira "Kiska theatre" bezalakoa, hauek euskaraz egin dituzte gauzatto batzu euskal girotik kanpo. Agian lagunak dituzte. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi EKEk antolatu zuen lehen ikastaldian-Kakotx izenaren pean arizan ziren- bigarrena zirkuitoaren asetzeko baitzen, lehen ikastaldian, nion, rokeroak bildu zituzten eta orroit naiz arrunt joko berria ikusi genuela, preseski ene ustez naturaltasun berria sortuz, eta herri antzerkiari hartua, ezenatoki haundiaren beharra agertzen zitzaien: gorputzaren lekua arraheldu zen. Musikak jokolari horiek arrahartu ditu, bainan nork daki...

Udaberria?

Zer falta da, beraz, udaberrirako? Iduritzen zaigu orain gauzak zaildu direla, konpetentzia anitz behar direla, espazio solas ari gara, toki, zuzendaritza, estilistika eta testu on eta ez on. Hiztegi hori guzia ez genuen baliatzen duela hamar urte. Profesionalak, frantsesez ari diren konpainiak gure artean dira. Euskal Herria interesatzen zaie, argi baitzaie publiko bat badela.

Gure publiko hori gure begiez begiratzen badugu, errex zaigu ohartzea biziki galkorra dela. Bordaxuri eta Xirrixtik Garazin egiten baitute lehena, han biltzen den jendea banan-banan hartuz, ageri da bakoitzak harreman xuxen-xuxena ukan duela lehengo talde batekin. Eskoletan edo herrietan egin lanak gaztetu du jendalde hori, baina, maiztasun zerbait ez bada atxikitzen, eta sustut funtsez ez badugu bazkatzen, hor baizik agertzen ez diren gauzak ez baditu antzerkiak aldarrikatzen, husten da edo zahartzen da gela bat hamar urtez.

Herriak ez badu deus eskatzen, edo eskaintzen zaionarekin egiten badu, guri da jakitea zer nahi dugun. Konduan atxiki behar dugu, gustuaren alorrean alde haundiak badirela. Piarres Ainziartek erran zidan, behin, antzerki solas ari ginelarik, haien denboran ezin zela pentsatu ere antzerki egitea, gorputza berez zikina zelakotz. Tradizioak ekarri digun joko soil hori tabu hauek kutsatu dutela ezin uka. Hausturak izan dira, izanen da besterik. Ikasiek erakutsi didaten gauza nagusitzat daukat hau: antzerki batean ez ditugu jitez zati berak maite.

Zaila da tradizioa uztea, zaila, iduriz, publikoa kontra ukaitea, eskatzen dituelarik jada entzun gauzak, jada ikusi irudiak. Baina hain batua dea? Publiko baturik badea edo nortasun, enbeia ezberdinak bata bestearen ondoan jarriak. Nola jakin?

Guk amateurrek orroitu behar dugu ez dugula deus galtzerik, eta sustut gure Iparraldean antzerkia izan dela tradizioan polemika gunea. Hizkuntzaren borroka ere hor egiten dela eta beste nihon. Kantuak ditu hemen jende ezberdinak biltzen problemarik gabe, hor da ekumenismoaren espazioa eta joka niro profesionalek horretarat joko dutela antzerkian baino gehiago.

Bi hitz testu eskasari buruz. Landartek delako Izurako solas hartan atera zigun, bere esperientzia konbokatzen bazuen, antzerkia sor zedin nonbait, norbait, eragile bat behar zela. Hori hor ez zeno, izaten ahal zirela ba jokolari eta ba testu, ez zela deus egiten. Nahiz, ene ustez, jokolariaren ekarpena ere berriz aitzinatu behar den, uste dut xuxen dela berriz ere gure maisu zaharra, eta eragile horrek zuzendaria duela izena. Orain Iparraldean eta EATBko heredentzia da hau, zuzendaritza erosia da, gehienik Hegoaldean. Antzerti baten autodeterminazioa horretan da. Uste dut indar egin behar dugula hauen formatzeko, Herrian inplikatuak baldin badira, zuzendariek jakinen baitute Herriak eskatzen duenaren usaintzen. Honek testu eskasa ere tapatzen du. Badira antzerkiez kanpo anitz testu euskaraz idatziak eta gai horiek aski izan badira euskaldun baten jarrarazteko bere idazmakinaren aitzinean, ontsa antzerkiturik, publikoa jarririk atxikiko dute.

Argi izan gaitezen: deus ez da hemen idatzia izan profesionalen kontra, amateurrei orroitarazteko baizik herri-antzerkia berauena dela, eta beren erantzukizunak asumi ditzaten.

Bultta batendako bide zaila ukanen du antzerki euskaldunak, minoria batek eginik minoria batek prezia dezan. Jada entzuten da garrantzitsuena antzerkia dela eta ez hizkuntza... Ezagunak dira sirena hauek: Frantziak bere hamaika buruekin nahi du hark uzten digun lekua edo behar duena bete dezagun. Heldu da orduan, dikotomia guzien zaldiko-maldikoa: erruralitate eta hiria, kultura jakintsuna eta herritarra, burjesa eta popularra, aberatsa eta pobrea, idatzia eta ahozkoa. Hauetan gurea beti apalesgarriena. Minoriaz minoria dena onetsi behar. Nik karrika nahiago dut, plaza, frontoia, edo beste, toberaren haritik egin ikuskizunen prestatzeko, tipitik bildua dugun irri isekagarria aho zokoan. Bide horretarik ibili garelarik beti publiko bat izan dugu, eta beti uste baino zabalagoa.

PASTORALAREN ALDAKETAZ

Tolosa, 1998-XI-14

Jean-Louis Davant

I. PASTORAL IDAZLEAK GAUR: KRONOLOGIA

8 denetara: 7 bizirik.

1.	Pierre BORDAÇARRE	ETXAHUN-IRURI (1908-1979)	
2.	Junes CASENAVE-HARIGILE	1924-an jaioa	1. trajeria noiz emana: 1976
3.	Allande AGUERGARAY	1943	1985
4.	Jean-Michel BEDAXAGAR	1953	1988
5.	Jean-Louis DAVANT	1935	1990 (1985ean idatzia)
6.	Pierre-Paul BERÇAITS	1952	1991
7.	Roger IDIART	1931	1991
8.	Patrick QUEHEILLE	1965	1998

Idazleari lehentasuna emaiten diot, baita leku handiena, hura delako trajeriaren aita. Harek emaiten dio muina, mamia, ginarria, ekaia, eta gehiago ere: harek du bideratzen nagusiki, eta haren ildotik ari behar dute beste guziek.

Bizkitartean, testuaren azterketarik ez dago, salbuezpenez kanpo (Roger Idiart *Enbata* astekarian, Peyran *Miroir de la Soule* aldizkarian), ez du hanbat aintzakotzat hartzen pastoralaren kritikak, ez du sakonean ikertzen. Hutsune larria dago hor, idazlearentzat aspergarria. Berak asmatu behar baitu ongi ari den ala ez.

Beste ohar nagusi bat: lehen mailako eskola zuen Etxahun Irurikoaren publikoak; guk, aldiz, orokorki bigarren maileko formakuntza duen batentzat idatzi behar dugu, eta gainera telebistaren aroan.

Azken bat zati honetan: azken hamaika urte hauetan, lehen ez bezala, pastoral bat jokatzen da urtero, eta batzutan biga emaiten dira, liskarbide gertatuz gure ibar hertsian. Hots, lehian daude herri batzuk, ahal bezain laster agertu nahiz publikoaren aintzinean.

PASTORALAREN ALDAKETAZ

Plurala behar litzateke hor (Pastoralaren aldaketez), ez baita bakuna ez eta lineala trajeriaren bilakaera. Aniztasuna da nagusi: publikoena, errejentena, süjetena... baina lehenik idazleena, zazpi baikara bizirik, bakoitza bere gisakoa. Hargatik, Etxahun-Iruri zena dugu pastoral berriaren aita: lau orenez pera ekarri zuen, kantoreen tokia zabaldu, heroi euskalduna sartu ohiko santuaren lekuan. Mende laurden batez hurbil idazle bakarra izan zen (1953-1975).

1976-an agertu zen Junes CASENAVE, harekin lehian, eta laster bakarka. Zer ekarri zuen berririk: euskararen maila gora bat eta historiaren errespetu zorrotza. Bertsugintzan ere zorroztasuna (*).

1985-ean Allande AGUERGARAY-ek *A. d'Oihenart* antzerkian, bikoiztu zuen kantoreen kopurua (14 abesti), baina testu luzeari eutsiz eta euskara puska bat erreztuz, mordoilokeriara jautsi gabe.

1988-an BEDAXAGAR abeslariak, *Agosti Xaho*-rekin, hiru ordutara laburtu zuen, horretan erreferentzia bihurtuz. Kalitateko euskara herritarra.

1990-ean DAVANT itzuli zen, gaiak beharturik, luzetasunera (3 ordu eta 40 minuta), *Abadia Ürrüstoi*-rekin, baina geroztik hiru orenetatik hurbil egoiten da, dozena bat abestirekin. Haren kezka nagusia: euskara idatziaren tradizio luzeari eutsiz, zuberera klasiko baten egokitzea teatroari, ozentasun eta sonoritateari toki handia eginez.

1991-an IDIART-ek eta BERZAITZ-ek, *Xalbador* eta *Harizpe*-rekin lehentasuna eman zioten kantuari, bertset arrunten testua murriztuz. Gaurko heroi bat aipatu zuen Idiartek, arrisku handiak hartuz.

Aurten idazle berri bat agertu zaigu, zinez gaztea, Patrik QUEHEILLE Barkoxekoa (*Herriko Semeak*): moda berrien aurka joanez, antzerki luze bat idatzi du (3 oren eta 40 minutakoa), 13 kanturekin, testuari garrantzi handia emanez, maila oneko euskara herritar batekin, eta bizkitartean... arrakasta ederra ukan du. Badugu hor zer pentsa.

Beraz, idazle bezainbat antzerki mota ikusten dugu, eta hobe segur. Baina testua ez litzateke gehiegi laburtu behar, erreztasuna bilatu nahi duen publiko berri bati plazer egiteko. Beste publiko berri bat ere badago, bereziki gazte ikasien artean, historia eta ixtorioa ezagutu nahi dituena.

(*) Gaurko pastorala lehengoa ez bezala, Casenave-ren ildotik, kreakuntza da. Aintzinetik, Etxahun-Iruri barne, beste norbaitek frantsesez idatzia zuen ixtorio batetik abiatzen ziren, ixtorio hori euskaraz emaiten zuten, beren gisa egokituz.

Orain, ordea, historia ikertzen du idazleak eta horretarik asmatzen du bere ixtorioa. Casenaveri zor diogu beraz aldaketa nagusi hori.

Beste arrisku bat, ber ildotik: pastoral goxoegietara lerratzea, lehengo frantses *bergeries* loretsu haien zelairuntz. Ez ahantz *trajeria* dela pastoralaren ohiko izena.

JOERAK:

Bi joera ikusten ditut gaurko pastoral idazleen artean: batetik, idazle-idazleak, besteetik artistak:

— Idazle-idazleak: Casenave, Aguergaray, Queheille eta ni: garrantzi handia emaiten diegu deklamatzen diren bertsuei, dela zenbakiz, dela mailaz, dela ideiek hartzen duten leku eta tokiaz.

— Artistak ditugu, aldiz, Bedaxagar, Idiart eta Berçaits: kantari, soinulari, aktoreak, gizon-orkestrak Etxahunen ildotik.

• Bedaxagar, tradizionala, bihozpera eta sakona, Zuberoako herriak oso bere-berea duena.

• Idiart, klasikoa eta herrikoia, publikoa nola hunki eta mugiaraz ongi badakiena.

• Berçaits, modernoa, teatro gizon eder eta ikusgarria: gazteriaren gostukoa, bereziki Zuberoatik kanpora.

Azken bi hauek dute, Idiart eta Berçaitsek dute, beraz, pastorala hobekienik esportatu. Kontuz, halere bide hortarik: publiko berri bat beretu behar du, baina Zuberoako iturritik aldendu gabe.

Idazle-idazleek gure aldetik, publikoa ez dugu aspertu behar prediku luzeegiz.

INFLAZIOA:

Idazleen inflazio bat ikusten dut hor, bi ondorio dauzkana:

1. Batetik, garrantzia galtzen du berriz idazleak; lehenago ez zuen: errejenta zen bakarrik aipatzen, harek zuen testua ekartzen. Gero goiti joan zen idazlearen itxura Etxahun eta Casenaverekin. Adibidez, Etxahunen pastoraletan haren izena zen agertzen libretaren axalean, emailerik ez zen aipatzen ere. Orain antzesten duen herria da hor ikusten handi-handia; nork idatzia den jakiteko, libreta zabaldu behar da eta txerkatu.

2. Bestetik, pastoral oso desberdinak ikusten ditugu, eta hobe. Arrisku bat badago, halere: zeingehiagoka horretan, besteetatik bereizi nahiz, desbidera gaitezen, pastoraletik urrunduz edo hura gehiegi aldatuz. Gainera hortara bultzatzen gaitu publiko berri batek, pastoral iraultzaleak eskatuz. Baina pastoralak ez du iraultzale izan behar: pastoral egon behar du, ederra entzuteko, ederra ikusteko eta mezu baten ekarle.

3. Idazleak manipula ditzakete herriek, adibidez, bati antzerkia manatuz eta gero beste batena jokatuz. Ene jakinean bi kasu gertatu dira azken urte hauetan.

Ene beldurrik handiena da entzun-ikusgarri polit eta goxo bat izatean muga dadin pastorala. Trajeria du izen nagusia eta ni behintzat trajediaren inguruan atxikitzera entseatuko naiz.

II. ERREJENTAK

Ikuskizunean eragin handia du errejentak, ahoskeraz gutiago arduratzen da. Idazlearen ikuspegiaz eta nahiaz axola du. Baina bere moldea badu errejent bakoitzak.

1. Battitta URRUTY orain erretiratuak ospea, erromantizismoa, jestu zabala, batzutan antzerkia luzatuz.

2. Jean-Pierre RECALT-ek bizitasun handia, bakuna, soila, garbia, eranskinik gabekoa.

3. Fabien LECHARDOY barkoxtarra, bere lehenbiziko lanean, entzutearen errezteari eman da, aktoreak publikoari begira ezariz usu eta maiz, adibidez mahain baten atzetik. Hara-honaraka dabiltzalarik aktoreak, bereziki atzerantz itzultzen direlarik, asko galtzen du entzuleak.

4. Herri batzuetan, errejentaren ondoan, euskaraz arduratzen den norbait agertzen hasi da, ongi ahoska dezaten, hutsik egin gabe. Zinez beharrezkoa da, batetik, grafia batua zubererak duen fonetikatik urruntzen baita, bestetik, gero eta gutiago baitira euskaraz ongi ez dakiten aktore gazteak.

III. AKTOREAK

1. *Süjetaren eragina.*

Süjetak erritmo bat inposa diezaioke taldeari. Adibidez, Arrokiagan 1995ean, bizitasun handiz jokatu zuen Agirre lehendakariaren lekua betetzen zuen Pierre LARRORY-Munautek, eta hiru orduz tolestu zuten antzerkia. Alderantziz, Atharratzen 1997an, *Atharratze Jauregian* trajeria lau orenetara hurbildu zen, *Aguirre Presidenta*-rena baino askoz ere laburragoa zen testu batekin: Charles de Luxe jaunaren tokia betetzen zuen CHUBURU "anpleki" ari izan baitzen, zubereraz diogun bezala. Halere, pozik egon zen publikoa hor ere.

2. *Emakumeak.* Seriostasun handia emaiten diote pastoralari, bereziki mustrakan, edana eta liskarbideak baztertuz.

Koroan sartu zituen HEGUIAPHAL errejent zenak 1976an, *Santa Grazi* trajerian, izen horretako herrian. URRUTYk jokoan ere sartu zituen 1980an Urdiñarben, *Iparragirre* pastoralean. Gero eta leku gehiago hartzen dute. Heguiaphal-ek zioen ez zirela ongi entzuten, eta batzutan hala da. Baina beti hobetzen ari da pastoraletako soinua, eta asko laguntzen du mikrofono pertsonalak.

3. *Aktoreen aniztasuna.*

Herriak lehian daude, besteek baino aktore gehiago agertu nahiz. Pertsonen zaletasun handiarekin bat dator joera hori, asko baitira tauletara igan gura duten zuberotarrak. Marka hautsi zuen Garindainek 1996an *Sabino Arana Goiri* piezarekin, ehunetik gora taularatuz. Deseskalada bat hasi du aurten Barkoxek arauka, norbaiten erranetik hiru pastoral ber egunean emaiteko aski aktoregai balukeelarik.

Aktoreen aniztasunak antzerkiaren maila zinez apaltzen du. Gainera, sarjalgiak luzatzen ditu. Baina pastoralaren eskualde zinez demokratikoa da herritarren parte hartze hori, eta neke da batzuren baztertzea: gaizki har lezakete, pastoralaren giroa nahasiz. Baina gogotik ikus nezake herri bat berrogei lagunekin antzezlari, lehen bezala.

Satanetan ere, dozena bat edo gehiago agertzen da gaur edozein pastoraletan, lehenago bizpahirurekin emaiten zituztelarik. Dantzaldi bat ote da pastorala? Egia da bide ona dela dantzari berrien edo taldeen sortzeko eta sustatzeko.

4. *Jantziak.*

Jantzien aldetik ere, lehia gogorrean gaude. Gero eta ederragoak behar ditugu, beraz, garestiagoak. Gero eta historikoagoak ere, baina pastorala ez da historiaren errepikapen bat, ez da teatro errealista bat: antzerki sinbolista bat da, eta bere sinbolikatik asko galtzen du garai bakoitzeko jantziak errepikatuz.

Türk eta kiristi gudarien jantzietan bederen, sinbolika bat atxiki edo berriz eskuratu behar genuke. Arrokiagak indar bat egin zuen, duela bi mendeko uniforme gorri eta horiak emanez türkei, lehengo pastoralen ildotik nolabait. Eskas duguna da kiristien uniforme lirain bat, zuri eta urdina: bilatu behar genuke lehengo euskal jantzien inguruko zerbait, adibidez Erronkarikoetan.

IV. PUBLIKO DESBERDINAK

Entzun-ikusleen artean, mota desberdinak badaude: publikoaz orokorkiegi mintzo gara, bat eta bakuna balitz bezala, gero eta gehiago zatitzen ari delarik ordea.

1. *Zuberotar zaharrak*, bereziki gizonezkoak, asko pastoral batean ari izanak. Horientzat aktoreen jokoak du munta handiena: ederki dabiltzanez, jestu noblea ote duten, botz ozena, jauzi lirain eta trebea dantzan. Historiaz eta mezuaz axola guti dutela, ni beldur.

2. *Kermezara bezala oso lasai datozenak*, bereziki nik uste adin bateko emakumeen artean: aktore bakoitzaren pertsonari begiratzen diote gehienik, nongoa den, zein familiakoa, noren askazia... Publikoan ezagutzen dituztenez halaber... Dena gora-gora komentatzen dute, inguruko zaleen kalteetan.

3. *Antzerki mota hori orokorki maite dutenak*, ederra delako, xehetasunetan gehiegi sartu gabe, agian ez dutelako aski ezagutzen, horretarako urteak behar baitira. Berritzapenez gose da publiko berri hau, "pastoral eijerra" eta ernea maite du, ahalaz erromantikoa, maitasun ixtorio polita duelarik ardatza.

4. *Beste publiko berri bat*, historiari eta testuari garrantzia handiena emaiten diona: Zuberoatik at hedatzen ari da, mugaren bi aldeetan: 30-40 urteko jende nahiko ikasia da, eta horrek sustatzen du gehienik, ene ustez, pastoralaren geroa.

Beraz, publikoan, testuari ez diote kasu handirik egiten batzuek, besteek, aldiz, gero eta gehiago, hots-hedagailuen laguntzarekin. Horretan laguntzen ditu halaber libretak: entzun-ikusleen erdiak erosten du eta bikote asko baitago publikoan, asma dezakegu gehienek testua dastatzen dutela guti edo asko, itzulpenean bederen.

V. BUKATZEKO

Aldakuntza gehienik ekarri dutenak dira batetik lehen biak (Etxahun eta Casenave), besteetik aurtengoraino zauden azken biak (Berçaits eta Idiart).

Lehen biek pastorala berritu dute, publiko guziaren onespenarekin. Egin zaizkien kritikak, euskararen aldetikoak izan dira soilki: mordoilegia zuela Etxahunek, garbiegia duela Casenavek.

Queheille-ren aintzineko azken biei bota zaie batetik pastoraletik atera direla, gehiegi erraitea baita zinez, bestetik zeruetaraino altxatu eta jaso dutela, gehiegikeria baita hori ere.

Arteko hiru idazleek eta aurtengokoak, ene ustez, oreka bat jarri dugu, bai euskara motari dagokiola, bai bertsu eta kantuen artean.

Pentsakera berri bat hedatzen ari da: pastorala ezagutzen ez dutenei atsegin egitea gatik, laburtu behar dela. Horretaz ere nire gogo berri emana dut ixtorio bat kondatu behar dela. Pastorala ez da kantaldi soila, ez genuke hartara lerratu behar. Dialogoak ezin dira gehiegi murriztu.

Gainera, lege batzuk bete behar dira idazkeran ere, bi neurtitzetako bertsua atxikiz.

Pastoralak pastoral egon behar du. Beste zerbait idazten duenak beste izen bat eman behar dio. Hala egin du Berçaits-ek 1992 udazkenean, *Oihenart* ikusgarriarekin eta geroztik *Elkanoren semeak* sonatuarekin.

Gaurko Pastoral idazleak: eranskina

I. ETXAHUN-IRURI

1. ETXAHUN KOBLAKARI	1953 - Barkoxen.
2. MATALAZ	1955 - Eskiulan.
3. BERTERRETX	1958 - Maulen eta Ligin.
4. ZANTXO AZKARRA	1963 - Gotainen.
5. DE TREVILLE	1966 - Irurin eta Maulen.
6. XIKITO de CAMBO	1967 - Maulen.
7. PETTE BERETTER	1973 - Gotainen.
8. XIMENA	1979 - Atharratzen eta Irurin.
9. IPARRAGIRRE	1980 - Urdiñarben.

I. Pierre BORDAÇARRE, Etxahun-Iruri - 9 pastoral
Pastoral berriaren aita. Pastorala salbatu du berrituz.

A) *Zer ekarri duen berririk:*

1. Euskal süjetak, salbu *Ximena. Ondokoek berdin.*

2. Lau orduz petik. *Horrela eginen dugu haren ondotik.*

3. Eguneroko euskaran, frantses hitz askorekin. Horretan ez du *jarraikilerik.*

4. Euskal kantua sartu du. Aintzinetik ez zen emaiten, salbu eliza kantu zenbait, latinez gehienetan, egoerak manaturik.

B) *Zertan ez den berrizalea:*

1. Itzulpenezko lana egin du, zaharrek bezala: adibidez *Etxahun koblakari*, Pierre Espil-en *Etchahun le malchanceux* liburutik. Beraz, historiatik baxter ari da.

2. Ortografiarik ez du. Fonetikatik ari da, frantses grafian.

II. Junes CASENAVE - HARIGILE

1. 1976 - *Santa Grazi*, Santa-Grazin.

2. 1978 - *Ibañeta*, Garindainen.

3. 1982 - *Pette Basabürü*, Pagolan (Toribio Altzaga saria, 1980).

4. 1989 - *Zumalakarregi*, Altzain.

5. 1992 - *Sanata-Cruz*, Santa-Grazin.

6. 1994 - *San Mixel Garikoitz*, Donaixtin.

Bestalde idatziak, ez emanak:

1. *Maitena Basabürü.*

2. *Dabid.*

3. *Judith.*

4. *Agotak,* (Toribio Altzaga saria, 1992).

Pastoral berriari maila goratu dio eta klasiko egin du.

A) *Casenaveren ekarpen berriak:*

1. Historian oinarritzen da, ikerketa luze eta sakonak eginez. Horretan segituko dugu Aguergaray, Bedaxagar eta nik.

2. Literatura maila bat emaiten dio eta euskararen maila zinez goratzen dio. Horretan ere segituko dugu.

3. Bertsutan idazten du, neurtitzak zehaztuz: erritmoa eta errima finkatzen ditu. Bertsetak bi neurtitz, hamasei oinetakoak (silabakoak), bakoitza zortzi oinetako bi zatitan: errima bigarren eta laugarren lerroan.

Aintzinetikoek, Etxahun barne, asonantzia zuten soilik, eta erritmo zinez askea zerabilaten, lerro bakoitzean emanez sei eta bederatzi hamar silabaren arteko ahapaldia.

Casenaveren bide hori hartu dugu lehenbiziko ondokoek, Aguergaray, Bedaxagar eta nik alegia, hastean behintzat.

B) *Casenaveren berezitasun pertsonalak egon diren berritzapenak:*

1. *Euskara garbizalea:* Batetik, hitz xahartu arraro asko, bestetik, hitz berriak erabiltzen ditu frango ugari.

2. Idazkera preziosoa du, sonoritate gutikoa.

3. Zerebrala da, grafiaren aldetik ere: begiari eta buruari mintzo, ez belarriari eta bihotzari.

4. Kantu guti du sartzen: sei edo zazpi pastoral bakoitzean.

5. Batzutan kolektiboa da Casenaveren "süjeta" edo protagonista: Santa-Graziko herria *Santa-Grazi* pastoralean; nekazari mundua *Pette Basabürün*; euskaldunak *Ibañetan.*

Segitzale guti du sail horretan. 1993an Gotainen entsaiatu naiz *Euskaldünak Iraultzan* pastoralarekin: süjeten aniztasuna kritikatu didate batzuek.

6. Gai orokorrak eta unibertsalak eta hunkitzen ditu *Judith* eta *Dabid* izenekoekin, baina pastoral emaileek ez dizkiote hartzen, orainokoan euskal "süjetak" nahiago dituzte.

Iduritzen zait unibertsaltasun hori ere atxiki behar duela pastoralak, abertzaletasun hutsean hertsirik egon gabe.

Ene pastoraletan, mezuaren zabaltzera entsaiatzen naiz. Baina ez nago segur eskualde hori aditzen duela entzulegoak.

III. Allande AGUERGARAY, Bordaxar, Muskildikoa, frailea, erakasle dago Lurden

— *Arnaud d'Oihenart*, 1985, Muskildin.
— *Sabino Arana Goiri*, 1996, Garindainen.

A) Ekarpen berriak:

1. Hamalau kantu *A. d'Oihenart*-en.

2. Euskara natural, on bat, erdi bidetik.

3. Poesia sartzen du trajeriaren mamian.

B) Baina bestalde, aintzinekoen altxorra baliatzen du:

1. Casenaveren ildotik, historia errespetatzen du.

2. Zuberotar grafia klasikoan: hau da Guillaume EPPHERRE eta LAFONT euskaltzainek duela berrogei bat urte moldatu zutena, eta bereziki elizkizunetan erabiltzen dena. Fonetika errespetatzen du, baina hitzak osoan idatziz, Euskaltzaindiko alfabetoan.

3. Halere bultaka, hitzak ahoskatzen diren bezala idazten ditu, adib.: bokalen arteko "R" janez, erritmoaren atxikitzea gatik. Kritikagarria iduri zait, hala nola *helazten* idaztea, beste toki batean *helarazten* idatzi delarik gainera. Edo, lehen pheredikia ikusten dutan bezala, *Uskal-Herrin* (4. bertsetean) eta hurrunago *presundegian* (7. bertsetean).

Zuberoan ortografiaz dugun auzia hunkitzen dugu hor...

IV. Jean-Michel BEDAXAGAR
Urdiñarbekoa - Burdin arotza - Kantaria

Agosti Xaho, 1988, Urdiñarben.

A) *Ekarpenak:*

1. Hiru orduz azpitik eman du.

Jelkaldi laburrak ditu. Baina kontuz bide horretarik: gaia ezin da errexki sakondu.

2. Euskara natural, on, gihartsu, tinkoa: behar bada denetatik onena.

3. Kantu berri, hunkigarriak.

B) Klasikotasuna grafian: xaharra derabila, hots, elizakoa.

V. Jean Louis DAVANT

— *Abadia Urruztoi*, 1990, Maulen.
— *Eüskaldünak iraultzan*, 1993, Gotainen.
— *Aguirre Presidenta*, 1995, Arrokiagan.

A) *Ekarpen berriak:*

1. *Euskara klasiko bat.* Tokika berezitasunak baditu zubererak, adibidez Barkoxen, Santa-Grazin, eta abar. Zuberera klasikoa hartzen dut eta hartan aukeratzen ditut euskaldun gehienek ulertzen dituzten hitzak, gutiz gehienetan. Hitz berriak batutik, eta ez neronek asmatuz.

2. *Sonoritatea.* Belarria jo behar da, entzun errexa izan, nire ustez.

Jendeak ongi aditu behar du eta abian ulertu. Pastorala ez da harpa eta mandolinaren tokia, tronpetaren lekua da.

3. *Ixtorioan logika bat:* bost zatitan banatzen dut eta zati bakoitzean emaiten ditut elgarrekin zerikusia duten gertakizunak, batzutan kronologia puska bat aldatuz.

B) *Gainerakoetan:*

1. Kantuari dagokiola, Aguergarayren bidetik noa: 13 kantu lehenbiziko pastoralean, 11 beste bietan: arauka ber kopurua.

2. Grafian berriz, erdibide batetik ibili naiz, xaharraren eta arras berriaren artetik; Euskaltzaindiko arauak bete nahi nituen, Zubereran ahozkera gehiegi zauritu gabe. Baina horrela kritikak jasan ditut bi aldetatik eta hautu bat egin beharko dut.

VI. Pierre Paul BERÇAITS
Muskildiarra da. Pauen lan egiten du banko batean.

— *Harizpe*, 1991, Muskildin.
— *Atharratze jauregian*, 1997, Atharratzen.

A) *Ekarpenak:*

1. Kantua nagusi: 18 kantu, gehienak berri.

2. Bertsua lau neurtitzetan zatitzen du, lau perpausetan, batean errimekin, bestean gabe.

3. Euskara erreza du, egunerokoa, Etxahunenaren antzo, baina frantseskeriarik gabea. Batzutan ekialdeko baxe-nabarreratik hartzen ditu hitzak eta esaldiak.

4. Jelkadi laburrak ditu.

B) Kritika gogorrak jaso ditu HARIZPEK ikusle aditu batzuen aldetik.

1. Batzuek erran dute ez zela pastorala. Gehiegi erraitea zait, ezen erregela nagusiak errespetatu ditu. Kantari baten obra da, pixka bat Bedaxagarrena bezala: idazkeraren aldetik ez hain landua izana gatik: kantuz eta musikaz aberatsa, bertsuz laburra.

2. Historia ez duela errespetatu erran da, eta ez beti arrazoinik gabe. Baina ez da historiako lan bat antzerkia eta bere asmakizunak hor ager ditzake naski artistak.

3. Horiek hola, uste dut berritzapenen aldetik ez dela urrunegi joan behar.

Adibidez, testua ezin da gehiegi laburtu, ixtorio bat kondatzen baitu pastoralak, eta hori bertseten bidez egiten da gehien bat.

Orokorki, artista handia da Berçaits, gizon-orkestra, denak ederki egin ditzakeena, errejengoa barne: hots, enetzat Etxahunen ondokoa. Bere idazkera du, bere nortasun bikainari doakiona. Baina horretan baliteke jarraikitzailerik gabe, imitatzailerik gabe gera dadin, Etxahun egon zen bezala.

VII. Roger IDIART
Xalbador, 1991, Larrainen

Lapurtarra dugu hau, Azkaingoa, baina luzaz erretor egona Zuberoan, eta zubereraz oso ederki badakiena.

A) *Ekarpenak:*

1. Artista lana egin du honek ere, arras ongi asmatua, gustagarria, baina itxuraz Berçaitsena bainoa tradizionalagoa.

2. Bertseta lau neurtitzetan zatitu du honek ere, baina errima zehatzarekin. Neurtitzak zinez landu ditu. Baina printzipioa zait kritikagarria eta efektua ere bai, mintzaldia 4 perpaus laburretan puskilatzen baitu, ditxo eta zirtoka bezala, ohiko bi perpaus nobleak hautsiz.

3. Euskararen aldetik, jorraldi batzuk egin zaizkio, zuzen kontra ene ustez: baizik eta hutsak egin zituela zubereraz. Nik ez dut horrelakorik aurkitu. Alderantziz, oso euskara ederra zait horrena: zuberera klasikoa, gihartsua.

B) *Kritikak:*

1. Historia ez duela errespetatu: jadanik errana dut horretaz zer pentsatzen dutan.

2. Oraiko gizon bat aipatu du eta hori gauza minbera da.

3. Bere mezua gehiegi sartu duela erran dute batzuek eta horretan Xalbadorrez gehiegi baliatu dela.

4. Ez dela gehiegi akitu asmakizunetan, Xalbadorren bertsuak hor baitzituen ugari. Baditeke.

Dena dela, funtsezko auzi bat badago hor: heia gaur-gaurko gai bat edo pertsona bat aipatu behar ote den pastoralean, ala, historiazaleek bezala, historia pixka bat hoztera utzi behar ote duen idazleak, eman dezagun, hogeita hamar urtetako epe batekin adibidez...

VIII. Patrick QUEHEILLE
Herriko Semeak, 1998, Barkoxen

A) *Ekarpen berriak:*

1. Usaiakoa baino motzagoa du neurtitza, 7/7-koa, batzutan Etxahun-Irurik erabiltzen zuena bezalakoa. Bizitasuna dakar. Türkentzat oso egokia zait.

2. Euskara, nagusiki Pettarrekoa, nahiz Basabürüan dagoen Barkoxe, baina hizkuntzaz pettarra, Topet-Etxahunen gisara; ñabardura gutikoa da Patrickena, baina ginarritsua, zaintsua, ozena, teatroko egokia.

3. Hiru süjet (Mardo, Etxahun-Barkoxe, Uthurburu), bat bakarra ohi delarik. Elkarri ongi lotu ditu. Hargatik horretaz kritika batzuk entzun dira, trajeria kolektibo guzietan bezala.

B) *Tradizioaren ildotik:*

Testu nahiko luzea ondu digu: 237 bertset arrunt + 61 bertset 13 kantutan, orotara 300 hurbil, *Etxahun Koblakari* sonatuak bezalaxe (302). Beraz, historiari garrantzi handia eman dio Queheillek. Hiru ordu fatidikoez axolatu gabe, hats luzeko lana burutu du eta halere arrakasta ederra bildu. Badugu hor zer pentsa!

C) *Huts ttiki batzuk:*

Plegu oker batzuk aipatu ditu Junes Casenavek, baina Queheilleren lana orokorki laudatuz. Oso gaztea da Patrick pastoral idazle batentzat, hogeita hamar bat urteetan hasia. Hobetuz joanen da, beraz, etorkizun ederra du. Berrogeita hamar urteetan hasi ginen Junes Casenave eta ni, urte zenbaitez gazteago Etxahun-Iruri: hots, idazteko trebetasun handia genuen orduko.

V. HERRI LITERATURA JARDUNALDIAK: ONDORIOAK

Tolosa, 1998-XI-14

ONDORIOAK

Euskaltzaindiaren Herri Literatura azpibatzordeak, herri-antzerkia gai hartuta antolatu dituen V. Jardunaldien amaieran, honako ondorio hauek atera eta jakinarazi nahi ditu:

Azpibatzorde honek jardunaldiz jardunaldi, herri-literaturako arlo bana jorratu eta ikertzea izan du helburu. V. Jardunaldi hauetarako, herri-antzerkia aukeratu zuen aztergaitzat, Antonio Maria Labaien antzerkigile, idazle eta euskaltzain izandakoaren jaioturtearen lehen mendeurrena ospatuz. Aurkeztutako lanen aurrean eta gauzatutako ekitaldien ondoren, azpibatzorde honek betetzat ematen ditu aldez aurretik ipinitako helburuak.

Aurreko jardunaldietan bezala, onuragarritzat jotzen du kanpoko adituen ekarria; izan ere, geure ikuspegia zabaldu eta gure herri-kultura era beraiena alderatzeko aukera eskaini digute, herri-antzerkiaren ildotik; aldi berean, elkarren arteko harremanak sortu eta lantzen hasteko parada egokia izan dugu. Beraz, bihoakie gure esker ona.

Azpimarratzekoa da, aldi berean, Euskal Herriko Unibertsitateko sailean eta gure Herriko gainerako kulturguneetan diharduten aditu eta euskaltzaleen ekarria eta jakinbidea. Azpibatzorde honi pozgarria zaio gure herri-kulturan eta herri-literaturan sakontzeko egiten ari diren ahalegina.

Biziki eskertu nahi die, era berean, Jardunaldi hauek bideratzen, gauzatzen eta gozatzen lagundu dutenei, batez ere Tolosako Udalari eta Cafés Baqué enpresari.

Eta eskertu nahi du, guztien gainetik, bi egunotan, hitzaldiz hitzaldi eta ekitaldiz ekitaldi Herri Literaturaren V. Jardunaldietan entzule, hartzaile eta lagun izan direnen partaidetza.

Azpibatzorde honek adierazi nahi du, azkenik, Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian argitaratuko direla jardunaldiotako hitzaldi eta txostenak.

Tolosan, 1998ko azaroaren 14an.

(Sinatzaileak, Euskaltzaindiaren Herri-Literatura azpibatzordeko kide hauek: Antton Aranburu, Joxe Mari Aranalde, Jesus Mari Etxezarreta, Pello Esnal, Emile Larre, Abel Muniategi, Xabier Kaltzakorta, Joxe Ramon Zubimendi).

XI. BARNE JARDUNALDIAK

Baiona, 1999-II-26

XI. BARNE JARDUNALDIAK

Baiona, 1999-II-26

Euskaltzainburuaren aginduz, goian aipatzen diskizudan Jardunaldietara deitzen zaitut.

Egitaraua honela izango da:

Eguna: otsailaren 26a, ostirala.

Ordua: arratsaldeko 3etatik 7 eta erdietara.

Tokia: Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatearen BAIONAko Fakultatea.

Gaiak:

1. *Iker* Saileko eta egiturazko batzordekideak izendatzea.

2. *Jagon* Sailari buruzko hausnarketaz txostenak.

2.1. Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailearen txostena: *Jagon* Sailaren organigrama Barne Jardunaldietan zehar: 1979-1999.

2.2. Miren Azkarate *Jagon* sailburuaren txostena: *Jagon* Saila: gaurko egitasmoak.

2.3. Juan San Martin euskaltzainaren txostena: *Jagon* Sailaren ardurapeko lehen lanari buruz.

2.4. Koldo Zuazo euskaltzain urgazlearen txostena: Euskararen osasuna eta euskalkiak.

2.5. *Jagon* Sailaren organigrama finkatzea.

3. Euskaltzaindiaren Barne Erregelak.

3.1. Lehendik onartuta dauden Barne Erregelen testua banatzea.

3.2. Euskaltzaindiaren lana. Jabego eta erabilera. Barne Erregelen kapitulu berria aurkeztea.

Oharra: Euskaltzainburuaren erabakiz, hil honen 26an aztertzen edo erabakitzen ez diren gaiak, datorren hilaren 26ko arratsaldean burutuko dira. Beraz, larunbat goizean ez da Barne Jardunaldien jarraipenik.

Bilbon, 1999.eko otsailaren 17an

J.L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea

JAGON SAILAREN ORGANIGRAMA BARNE JARDUNALDIETAN ZEHAR: 1979-1999

Baiona, 1999-II-26

Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea

1978.eko abenduaren 29an, Bilboko Erriberako egoitza zaharrean egindako bilkuran, batzordeen berrantolaketa aztertu zuen Akademiak, A. Luis Villasante euskaltzainburuaren txostena onartuz. Segida hurrengo urteko martxoaren 30ean, Gipuzkoako Diputazioan egindako osoko bilkuran eman zitzaion eta bukatu apirilekoan. Printzipioz honela gelditu zen Jagon Sailaren organigrama: 5 batzordetan banatua: 1. Bertsolariena; 2. Alfabetatze-Euskalduntzearena bi azpibatzordez, harremanetakoa eta gidaritza teknikoa; 3. Irakaslegoarena; 4. Oinarrizko Euskararena eta 5. Elebitasunaz harremanak deritzana (ikus 1. eranskina).

I. Barne Jardunaldiak, 1979 (Forua)

Foruko frantziskotarren etxean hiru egunetan Jardunaldi oparoak egin ziren, lehendabizikoak. Hala ikus dezakegu *Euskera* 1979, 825-830 orrialdeetan, A. Luis Villasante eta Jose Mari Satrustegik egindako txostenetan. Urriaren 29ko goizean, Juan San Martinek txosten interesgarri bat aurkeztu zuen Jagon Sailaz. Horri dagokion Satrustegi idazkari jaunaren laburpena bakarrik dakart hona:

"... 4. Euskaltzaindiak gaur bere gain hartuak dituen zenbait eginkizun utzi beharrak direla agertu du San Martinek. Irakasle tituluak, esate baterako, beste bide batez eman daitezke. Irakasle eskola sortzea izango litzateke hoberena eta geroago unibertsitatearen eskuetan uztea. Alfabetatze-Euskalduntze mogimendua bera ere, Euskal Kontseilu eta Diputazioen bidez ofzialtasunera helduerazi beharra dago. Edozein modutan, jagonsailean liberatu bat behar beharrezkoa du Euskaltzaindiak, orain arte gertatzen ari diren gehiegikeria eta isiljokoak bideratzen joateko."

II. Barne Jardunaldiak, 1981 (Loiola)

Loiolako Gogarte-etxean izan ziren bigarrenak eta hor, besteak beste, batzordeen Barne Erregelen berraztertzeaz gain, batzordeen eraketa zehatz bat eztabaidatu eta onartu zen. Hain zuzen, 1981.eko urtarrilaren 24an, Patxi Altunak Azpeitiko Udaletxean sarrera hitzaldia egin zuen egun berean, onartutako batzorde organigrama, Jagon Sailari zegokiona, ikus daiteke 5 batzordetan banatua zela: 1. Oinarrizko Euskara, 2. Irakaslegoa, 3. Euskalarien harremanak, 4. Bertsolaritza eta 5. Literatura batzordea (ikus 2. eranskina). Irakaskuntzako alorrean bi batzorde ikusten dira indarrean, bata Oinarrizko Euskararena Imanol Berriatua buru zelarik; bigarrena Irakaslegoarena. Berau, jadanik Alfabetatze-Euskalduntzea bere bidea bikoitza hartu baitzuen, alde batetik HABE eta bestetik AEK elkartea sortuta. Hirugarrena, sortu berria Euskalariekin harremanak, aurreko urtean Nazioarteko Euskalarien Jardunaldiak egin ziren jarraipenerako asmoz. Bertsolaritzak jarraitzen zuen, zeren eta garai hartan Bertsolari Txapelketak Euskaltzaindiak antolatzen baitzituen. Literatura batzorde bat ere izendatu berri zen, F. Krutwig buru izendatua zena.

III. Barne Jardunaldiak, 1983 (Angosto)

Arabako hego mendebaldean dagoen Angostoko Andra Mariaren santutegian bildu zen Euskaltzaindia 1983.eko apirilaren 28, 29 eta 30ean III. Barne Jardunaldiak egiteko. Hirugarren gai bezala batzordeen egoera aztertu zen eta organigrama onartu, kideak hurrengo hilabetean onartu baziren ere. Idazkariaren txostenak honela biltzen du Jagon Sailari zegokion arloa:

"Jagon Saileko batzorde iraunkor batek har ditzake bestelako ekintza guziak: *Literatura.* Azpi-batzorde hauek osa dezakete: a) Literatur-batzordearen eragintza. b) Bertsolaritza. c) Herri jakintza. Azkenekoz, *Diruzaintza* eta *Azkue Biblioteka*, batzorde berezien bidez eramango dira. Oraingoz, gelditzen diren beste batzorde suntsikorrak bi dira: *Oinarrizko euskararena* eta *etsaminak* egiten dituena. Azken hau Nafarroako azterketei begira, batez ere. Euskalarien harremanetarako sortu zen batzordea desagertzen da. Ondoren hauek Euskaltzaindiari proposatzea erabaki zen eta, era berean, batzorde bakoitzerako zenbait izen jaso ziren. Pertsona bakoitza batzorde askotan egoterik ez dela komeni esan zen". Ondorioz, Jagon Saileko batzorde bezala, Literaturakoa, Bertsolaritzakoa, Etsaminetako eta Oinarrizko Euskararena gelditzen ziren. Beraz, badoaz batzorde batzuk desagertzen, beste batzuek irauten badute ere. (Ikus 3. eranskina).

IV. Barne Jardunaldiak, 1985 (Lekaroz)

Lekarozko ikastetxe famatuan egin ziren 1985.eko apirilaren 29 eta 30ean, IV. Barne Jardunaldiak; amaieran, Arizkunen, P. Salaburu euskaltzainak sarre-

ra hitzaldia egin zuelarik. Organigrama bertan aurkeztu eta onartu zen, nahiz eta kideak hurrengo bilkuran, Bilbon, maiatzaren 31an bukatu. Jagon Sailari mugatuz, Literatura batzordeak jarraitzen du eta Bertsolaritza batzordeak, baina izena pixka bat aldaturik, Herri Literatura batzordea deitzen baita oraingoa ere. Azterketen batzordea deitzen da, aurrekoa Etsaminen batzordea deitutakoa eta Oinarrizko Euskarak lehen bezala jarraitzen du, nahiz eta batzorde suntsikortzat jo, alegia, azken bi hauek, bai Azterketena eta bai Oinarrizko Euskararena suntsitzeko asmoa hartu baitzen Lekarozen. Zergatik? Batetik, Oinarrizko Euskararen buru eta arima izandakoa, Imanol Berriatua hilda zegoelako eta Imanol Unzurrunzaga ordenakideak, ordezkotza harturiko lanari bukaera emateko lana agindu zitzaion eta. Azterketen batzordeak bazekien zer egin behar zuen, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoan, Hezkuntza Sailak bere baitan hartu baitzuen zeregin hori ofzialki eta Nafarroan jarraitzen zuen oraindik. Ikustea baino ez dago nortzuk osotua zen: Alfonso Irigoien, buru, eta Juan Jose Zearreta, idazkari, lehendik zetozenak, alegia; buruorde, Jose Mari Satrustegi, Nafarroako ordezkaria eta kide, Andres Iñigo, garai hartan Iruñeko Hizkuntza Eskolako zuzendaria. (Ikus 4. eranskina).

V. Barne Jardunaldiak, 1987 (Angelu)

Angeluko "VVF" delakoan itsasoaren aurrez-aurre bildu zen Euskaltzaindia 1987.eko martxoaren 27 eta 28an. Bertan onartu ziren batzorde guztien organigrama eta kideak ere. Aurreko hilabetean, Gipuzkoako Diputazioan, otsailaren 27an egindako osoko bilkuran, A. Luis Villasante euskaltzainburuak Jardunaldi gaiez txosten sakon eta zehatza aurkeztu zuen. Lau gaietariko bat batzordeen berriztatzea zen eta, ondorioz, Jose Mari Satrustegi idazkariak Angelun egindako Jardunaldien agiriaren kronikan ez zen ezer berezirik agertzen Jagon Sailari buruz. Jagon sailburu jarraitzen du Juan San Martinek, azken bi urte guztietan bezalaxe. Bestalde, Literatura, Herri Literatura (Bertsolaritza) eta Oinarrizko Euskara agertzen dira, Jagon Saileko batzorde bezala, eta harrigarria bada ere, besterik ez. (Ikus 5. eranskina).

VI. Barne Jardunaldiak, 1989 (Lazkao)

HABEren Lazkaoko "Maizpide" euskaltegian egin ziren 1989.eko otsailaren 24 eta 25ean, VI. Barne Jardunaldiak. Lehen gaia batzordeen berriztapena izan zen eta lehen azpigaia ere, Jagon Saila. Hara zer dion batzar agiriak:

"a) **Jagon Saila.** Lazkaoko Barne Jardunei hasiera euskaltzainburuak eman die Arautegian aipatzen diren helburuak aztertuz, goizeko 9 t'erdietan, otsailaren 24ean. J. San Martin, Jagon sailburuak karguan egon den urte hauetako ekintza nagusiak eta gertatutako aldaketen azalpena egin du gero. 1979ko

lehen jardunaldietatik euskararen normalizapen bidean emandako urratsak aipatu ditu. Euskaltzaindiaren babespean ziren AEK, Euskararen Gaitasun Agiriak, Bertsolarien txapelketak eta Itzultzaileen Eskola, dagozkien eskuetan utziak dira orain. Euskararen legezko eskubideak zaintzeko agintariei igorritako adierazpenak aipatu ditu gero. Etorkizunari begira, herrialde bakoitzean euskararen egoera desberdina da, eta tokian tokiko arazoak sortzen dira hiru mugaz eta hiru jokabide politikoz banatutako Euskal Herrian. Hori dela eta, ordezkaritzen arduradunekin osotu beharra ikusten du Jagon Saila, eta Arabako ordezkaria proposatu du Sailburu. Elkarrizketa luzearen ondore nagusiak hauek izan dira: Herri egoera normaldutako batean agintariei dagokie zuzenean hizkuntza zaintzeko ardura. Baina, ofizialki onartutako legeak ere ez dira beti betetzen, bete nahi direlarik ez da euskara jatorra erabiltzen eta gure hizkuntzaren ahuleziak beste bultzada batzuren beharra badu. Euskararen Aholku Batzordean baditu Eusko Jaurlaritzak zenbait euskaltzain eginkizun hori betetzen laguntzeko. Hala ere, aho batez aitortu da Jagon Sailaren beharra Euskaltzaindiaren barnean. Jagon Saila, beraz, pertsonetan sartu gabe, kargu hauek osotuko dute: Arabako ordezkaria buru, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroako ordezkariek, diruzainak eta idazkariordeak. Oso interesgarria da aldaketa hau. Beraz, Jagon Saila zertara mugatzen den eta batzorde bakarrekoa bihurtu. Horretarako esan behar da hirugarren azpigaian honako hau esaten dela: *Literatura.* Batzorde honek birmoldaketa sakona behar duela ikusi da. Alde batetik, orain arte Jagon Sailean egondako bi batzordeak, euron gogoa ontzat emanez, Iker Sailera aldatzen dira. Eta beste aldetik, batzarrean agertutako eritziak jasoz, sortzaileen arloko presentzia falta da eta kritika egiten dutenen hutsunea ere nabarmena da. Euskal literatura lantzen dutenen batzorde bat sortzea begi onez ikusten da. J.M. Lekuona izango da Literatura batzordearen buru. Hiru azpibatzorde izango ditu: *Literatura klasikoa*, F. Krutwig arduradun dela eta J.L. Lavin idazkari. *Herri Literatura*, A. Zavala izango da arduradun eta P. Esnal idazkaria. *Gaurko Literatura*, J.M. Lekuona arduradun dela, proposamen bat aurkeztuko du apirilerako, datorren urteko aurrekontuetan sartu ahal izateko". (Ikus 6. eranskina).

Lazkaon bi aldaketa nabari egiten dira, alde batetik, Jagon Saila batzorde bakarra eta statusari begira bakarrik, eta bigarrena, Herri Literatura eta Bertsolaritza desagerturik, Literatura klasikoa eta Gaurko literatura bihurturik, Literaturako hiru azpibatzordeak, Iker Sailera pasatu. Hala jarraitzen du, gaur egun ere, Iker Saileko V. batzorde iraunkor gisa.

VII. Barne Jardunaldiak, 1991 (Ziburu)

Lapurdiko udal horretako egoitzan egin ziren 1991.eko otsailaren 1ean eta 2an VII. Barne Jardunaldiak. Gehienetan bezala, Jagon Sailak bere kapitulua izan zuen eta H. Knörr sailburu izendatu berriak eman zuen bere txosten eta proposamena. Hara hor zer dioen batzar agiriak:

"VI. Jagon sailaren berri E. Knörr sailburuak eman du. Batzorde bakarreko sail honen ekintzen azalpena egin ondoren, lehengoez gain kide berriak proposatzen ditu, hots, lehengo herrialdeetako ordezkariez gain, beste batzuk ere beharrezkotzat jotzen direlarik, hain zuzen hurrengo hauek: J.M.ª Velez de Mendizabal, arabarra; X. Kintana eta A. Urrutia, bizkaitarrak; J.A. Letamendia, gipuzkoarra; A. Iñigo eta P. Zabaleta, nafarrak; R. Camblong, lapurtarra. Onartzen da proposamena. Beraz, honela gelditzen da Jagon Saila: buru E. Knörr, idazkari J.L. Lizundia, kideak: J.A. Arana Martija, R. Camblong, P. Charritton, A. Iñigo, X. Kintana, J.M. Lekuona, J.A. Letamendia, J.M. Satrustegi, A. Urrutia, J.M.ª Velez de Mendizabal, P. Zabaleta, M. Zalbide."

Hor ikusten da Lazkaon bi urte lehenago hartutako erabakia, alegia, statusaz mugatutakoa batzorde bakarrean jarraituarren, pixka bat zabalduago gelditzen zela Jagon Saila. Herrialdeetako ordezkariez gain, beste batzuk ere beharrezkotzat jotzen baitzituen sailburuak. (Ikus 7. eranskina).

VIII. Barne Jardunaldiak, 1993 (Zornotza)

Zornotzako Barnetegian egin ziren 1993.eko maiatzaren 27 eta 28an, VIII. Barne Jardunaldiak. Baina kasu honetan aurrerago, martxoaren 26an, Nafarroako Diputazioaren jauregian egindako bilkuran, onartu zen batzorde organigrama eta kideak ere. Jagon Sailak, lehen bezala, batzorde bakarrekoa jarraitzen zuelarik. Hala eta guztiz ere hiru aholkulari ere izan zituen, nobedadea da hau dena den. Hara zer dioen batzar agiriak:

"Batzordeen berriztapena egin da gero. Azken bi hilabeteetan jaso diren eskari-iradokizunak jaso ondoren Zuzendaritzak bere proposamena aurkeztu du eta onartua gelditu da (ikus organigrama)."

Zornotzako Barnetegiko jardunaldien xede nagusia Arautegia eta Barne Erregelak aztertzea eta eraberritzen hastea izan zen. Horri lotu zitzaion jardunaldien xedea eta nahiz eta hor Barne Erregeletan batzordeen egituraz hitz egin, eta gero hala onartu, izendapenak, esan bezala, bi hilabete lehenago Iruñean eginak ziren. Hala eta guztiz ere, interesgarria da gerotxoago onartu ziren Barne Erregelek zer esaten duten Jagon Sailaz eta batzordeez. (Ikus 8. eranskina).

IX. Barne Jardunaldiak, 1995 (Legutiano)

Legutiano/Billerleko Larrabea Golf etxean egin ziren 1995.eko martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, IX. Barne Jardunaldiak. Gai nagusia, baliabideak aztertzea zen, alegia, giza eta diru baliabideak, baina beste gaiak bertan behera utzi eta Euskaltzaindiaren diru egoerari ekin zioten bereziki, egoera larrian baitzegoen Akademia une hartan. Hala eta guztiz ere, bigarren egunean, batzorde

berriztatzeari ekin zion Euskaltzaindiak eta proposamena onartu zen, alegia, Jagon sailburuari dagokionez, Miren Azkarate izendatu zelarik batzordeburu eta hurrengoa hilari zegokion osoko bilkuran, alegia, apirilaren 28an, Donostian, Miramongo ETBren bigarren egoitzan, batzordeen horniketaz hara zer dioen agiriak:

"J.L. Lizundia idazkariordeak idatziz bidalitako eskaintzak irakurtzen ditu, hots, L. Villasantek Euskara Baturako; F. Ondarrak, Gramatika batzorderako; Miren Azkarate Jagon sailburuak, orain arte dagoen batzorderako... Euskaltzainburuak batzordeburuei datorren maiatzaren 20rako idakarien eta kideen proposamenak igortzeko eskatzen die, gero hileroko batzarrean hornitzeko."

Heletako Herriko etxean, maiatzaren 26an burutu ziren batzordekideen izendapen guztiak. (Hara hor 9. eranskina). Aldaketa bat nabari da, dena dela, Barne Jardunaldi hauen ondorioz eta Heletan buruturiko batzorde organigraman eta hau da: bi eratako kideak dituela Jagon Sailak, alde batetik, buru eta idazkariaz gain, 6 kide eta bestetik aholkulariak eta gehienbat, herrialdeen ordezkari gisa daudenak Ramuntxo Camblong eta Pierre Charritton Iparraldetik, Patxi Goenaga Arabatik, Juan Mari Lekuona Gipuzkoatik eta Jose Mari Satrustegi Nafarroatik. Ez zen agian zehatz finkatu batzuen eta besteen arteko berezitasuna eta zeregina. Baina kontuan har genezake Euskaltzaindiaren Barne Erregelak: "34. Ordezkaritzei dagokie neurri handi batean —nahiz eta ez berei bakarrik—, bakoitzak bere eskualdean, Euskaltzaindiaren bi Sail nagusietarik baten arta izatea: hots, hizkuntzaren *Jagon* Sailarena (Arautegia, 2. art.)".

X. Barne Jardunaldiak, 1997 (Iraizotz)

Kontzeju-etxean egin ziren 1997.eko martxoaren 21ean eta 22an. Jardunaldi horietako gai nagusia batzordeak berriztatzeaz gain, Iker Saila izan zen. Ondorioz, ez zen Jagon Sailari buruzko hausnarketarik egin, hori bai, batzordea berriztatua zegoen urtarrilaren 31n, egoitzan egindako batzarrean. Honela osatua gelditu zen: buru: Miren Azkarate, idazkari: Xabier Mendiguren, kideak Dionisio Amundarain, Erramun Baxok, Joseba Butron, Piarres Charritton, Igone Etxebarria, Patxi Goenaga, Juan Luis Goikoetxea, Andres Inigo, Patxi Inigo, Daniel Landart, Juan M. Lekuona, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia, Jose Ramon Zubimendi. Beraz, ia lehengo berberak, aholkulariak ere kide bihurtuz. (Ikus 10. eranskina).

XI. Barne Jardunaldiak, 1999 (Baiona)

Orain hemen gaude Baionan, XI. Barne Jardunaldietan, hirugarren itzuliari hasiera emanez, eta hirugarrenez Iparraldean egiten ditugularik gainera. Jagon Saila, une honetan, bidegurutze baten aurkitzen da. Azken 20 urteotan, ba-

tzorde anitzez osotua izan da, astiro-astiro, batzorde bakarrera lerratuz. Zenbait osoko bilkuratan eta bestetan aipatu da, statusaz eta bestetaz arduratu beharra ere. Agian, euskararen kalitatea jagoteaz gain, statusaz ere arduratzea lekarke, Juan San Martinen txostena irakurria dudanetik bide hori berreskuratzera doala dirudi. Aipatu da euskalkien jagotea ere beharrezko dela, zenbait iradokizun egin zituzten ildo horretatik, Juan Luis Goikoetxea sailkideak eta Juan Martin Elexpuru bergararrak, Tolosan egin ziren II. Jardunaldietan. (Ikus karpetako II. Jagon separata). Oraintsu, ildo horretatik zerbait idatzi du Koldo Zuazo euskaltzain urgazleak ere. Hiru hauen asmoa ez dirudi doanik euskalkien ikerketa dialektologikora, alegia, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren esparrutik, ez gainontzeko ikerketa monografikoetatik, alegia, Iker Sailetik, baizik eta Jagon Sailetik. Miren Azkarate andreak 1995az geroztik Jagon sailburuak ere badu txosten orokor bat guzti honetaz.

Beraz, Jagon Saila lehengo organigramara itzuliko ote?, bi edo hiru batzordeetara? Badut nire iritzia eta hitza, zuena da ordea hitza eta boza. Eta txosten hau bukatu dut.

1. ERANSKINA

BATZORDEEN ORGANIGRAMA 1979



2. ERANSKINA

EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN ORGANIGRAMA

(Loiolan, 1981-I-24ean, onartu zen arabera)

Jagon Saileko Batzordeak

Buru: J. San Martin

Oinarrizko Euskara:

I. Berriatua, *buru*
J. J. Zearreta, *idazkari*
J. L. Alvarez
X. Kintana
J. L. Goikoetxea

* * *

Irakaslegoa:

A. Irigoyen, *buru*
J. J. Zearreta, *idazkari*
P. Altuna
E. Knörr
P. Arregi
P. Charritton
J. Fz. Setien
X. Kintana

Kideak:

X. Mendiguren
J.A. Mujika
P. Uribarren
J. M. Aleman
A. Ariznabarreta
G. Aurrekoetxea
M. Azkarate
R. Badiola
G. Elorza
J. L. Goikoetxea
I. Usabiaga

Bertsolaritza:

A. Zavala, *buru*
J. M.ª Iriondo, *idazkari*
A. Irigoyen
E. Larre
J. M.ª Aranalde
F. Artola
M. Itzaina

Kideak:

M. Izeta
J. M.ª Lekuona
A. Aranburu
J. M. Etxezarreta
R. Iraola
A. Muniategi

Euskalariekin harremanak:

Batzorde Eragilea:
J. San Martin, *buru*
J. A. Arana, *idazkari*

Kideak: J.A. Etxebarria
X. Gereño
P. Sancristoval

Kontseilariak:

L. Mitxelena, Iker Sailburua
J. M.ª Satrustegi
P. Altuna, *aleman eremua*
E. Knörr, *ingal., japoniar eremua*
J. Haritschelhar, *frantses eremua*
K. Rotaetxe, *frantses eremua*
X. Kintana, *sobiet eremua*
J. Bilbao, *Ipar Amerika eremua*

Literatura batzordea:

F. Krutwig, *buru*
(gainontzekoak oraindik izendatzeke)

3. ERANSKINA

EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA

Batzorde iraunkorrak (1)

V. *Literatura* (J.S.) (*)

F. Krutwig, *buru*
A. Lertxundi, *idazkari*
X. Diharce
J. Hiriart-Urruty
J. Kortazar
K. Otegi
A. Urretabizkaia

VI. *Bertsolaritza* (J.S.)

A. Zavala, *buru*
J. San Martin, *buru-orde*
A. Aranburu, *idazkari*
A. Irigoyen
E. Larre
J. M.ª Aranalde
J. M.ª Iriondo
M. Itzaina
J. M.ª Lekuona
J. M.ª Etxezarreta
A. Muniategi

(1) 1983-V-23ko batzarrean onartua.

(*) **Oharra:** (J.S.) = *Jagon* Saileko batzordeak direla aditzen ematen du.

Batzorde suntsikorrak

Etsaminak (J.S.)

A. Irigoyen, *buru*
J.J. Zearreta, *idazkari*
P. Altuna
P. Arregi
M. Azkarate
J. M.ª Azpiroz
P. Charritton
J. Fdez. Setien
P. Goenaga
J.L. Goikoetxea
X. Kintana
P. Uribarren
J. M.ª Aleman
A. Ariznabarreta
G. Aurrekoetxea

Oinarrizko Euskara (J.S.)

J. San Martin, *buru*
I. Unzurrunzaga, *idazkari*
R. Badiola
J. L. Goikoetxea
P. Uribarren
G. Aurrekoetxea
N. Agirre

* * *

4. ERANSKINA

III. JAGON SAILA

III.1. Literatura batzordea

Burua: Federico Krutwig

Buruordea: Alfonso Irigoyen

Idazkaria: Manu Ertzilla

Kideak: Juan Luis Goikoetxea
Jesus Lavin
Michael Morris
Martin Sansinenea eta
Iparraldeko bat izendatu gabe

III.2. Herri literatura batzordea

Buru: Antonio Zavala

Buruordea: Juan San Martin

Idazkaria: Antton Aranburu

Kideak: Jose M.ª Aranalde
Jesus M.ª Etxezarreta
Jose Mari Iriondo
Mitxel Itçaina
Emile Larre
Juan M.ª Lekuona
Abel Muniategi

III.3. Azterketen batzordea
(Batzorde suntsikorra)

Burua: Alfonso Irigoyen

Buruordea: Jose M.ª Satrustegi

Idazkaria: Juan Jose Zearreta

Kidea: Andres Iñigo

III.4. Oinarrizko Euskararako batzordea (*)
(Batzorde suntsikorra)

Burua: Juan San Martin

Idazkaria: Imanol Unzurrunzaga

Kideak: Norberto Agirre
Gotzon Aurrekoetxea
Ricardo Badiola
Juan Luis Goikoetxea
Patxi Uribarren

(*) Lekarozko Barne Jardunaldietan 1985-IV-29/30 aurkeztua eta Bilbon, 1985-V-31an birretsia.

5. ERANSKINA

BATZORDE GUZTIEN ORGANIGRAMA (*)

Literatura:

F. Krutwig, *buru*
A. Irigoyen, *buru-orde*
J. Lavin, *idazkari*
M. Erzilla
J. A. Etxebarria
J. L. Goikoetxea

Herri Literatura (Bertsolaritza):

A. Zavala, *buru*
J. M. Etxezarreta, *idazkari*
J. M. Aranalde
A. Aranburu
A. Irigoyen
J. M. Iriondo
M. Itçaina
E. Larre
J. M. Lekuona
A. Muniategi

Oinarrizko Euskara:

J. San Martin, *buru*
N. Agirre
R. Badiola
J. L. Goikoetxea

(*) 1987.eko martxoaren 27 eta 28an, Angelun, onartua.

6. ERANSKINA

VI. JAGON SAILAREN BATZORDEA

Jagon Sailburu eta Gasteizko Ordezkari: Endrike Knörr
Donostiako Ordezkari: Juan M.ª Lekuona
Iruñeko Ordezkari: Jose M. Satrustegi
Baionako Ordezkari: Pierre Charritton
Egoitzatik: Jose Antonio Arana, *Diruzaina*
Jose Luis Lizundia, *Idazkari-ordea*

7. ERANSKINA

VI. JAGON SAILA

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija
Ramuntxo Camblong
Pierre Charritton
Andres Iñigo
Xabier Kintana
Juan M.ª Lekuona
Juan Antonio Letamendia
Jose M.ª Satrustegi
Andres Urrutia
Jose M.ª Velez de Mendizabal
Patxi Zabaleta
Mikel Zalbide

8. ERANSKINA

VI. JAGON SAILA

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Andres Urrutia

Kideak: Ramuntxo Camblong
Pierre Charritton
Andres Iñigo
Xabier Kintana
Federico Krutwig
Juan M.ª Lekuona
Jose Luis Lizundia
Manue M. Ruiz Urrestarazu
Jose M.ª Satrustegi
Jose M.ª Velez de Mendizabal
Mikel Zalbide

Jose Antonio Arana Martija (aholkulari)
Juan Antonio Letamendia (aholkulari)
Patxi Zabaleta (aholkulari)

9. ERANSKINA (*)

VII. JAGON SAILA

Buru: Miren Azkarate

Idazkari: Andres Urrutia

Kideak: Erramun Baxok
Andres Iñigo
Federico Krutwig
Xabier Mendiguren
Mauen M. Ruiz Urrestarazu
Jose M. Velez de Mendizabal

Aholkulariak: Ramuntxo Camblong
Pierre Charritton
Patxi Goenaga
Juan M. Lekuona
Jose M. Satrustegi

(*) 1995-05-26an, Heletan, onartua.

10. ERANSKINA (*)

B. Jagon saila: *Sailburua:* Miren Azkarate

Buru: Miren Azkarate

Idazkari: Xabier Mendiguren

Kideak: Dionisio Amundarain
Erramun Baxok
Joseba Butron
Pierre Charritton
Igone Etxebarria
Patxi Goenaga
Juan Luis Goikoetxea
Andres Iñigo
Patxi Iñigo
Daniel Landart
Juan M. Lekuona
Manuel M. Ruiz Urrestarazu
Andres Urrutia
Jose Ramon Zubimendi

(*) 1997-01-31an, Bilbon, egoitzan, onartua.

JAGON SAILA: GAURKO EGITASMOAK

Baiona, 1999-II-26

Miren Azkarate,
euskaltzain osoa eta Jagon Sailburua

A) 1995eko HELBURUAK

1995eko urrian aurkeztu nuen *Jagon Sailaren Egitasmoaz* izeneko txostena, Jagon sailkideen artean lehenik, eta euskaltzainen osoko bilkuran hurren, epe luzerako balio zezakeen egitasmoaren nondik norakoak finkatu nahian. Mikel Zalbidek 1991an aurkeztutako txostena abiapuntu harturik, Euskaltzaindia, eta honekin batera Jagon Saila, 1918an sortu zirenetik, gauzak zertan aldatu diren, eta gaur egun zein eginkizun izango genituzkeen aztertu nahi nituen. Funtsean, 1991an esan bezala, bi adar nagusitan bil daitezke Jagon Sailaren eginkizunak:

a) Euskararen erabilera bermatzea eta zabaltzen saiatzea: hots, jendaurreko agerkari desberdinetan gure hizkuntza neurri egokian presente egon dadin ahalegintzea.

b) Euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea, jendaurreko edota jendarteko hainbat esparrutan (komunikabideetan, iragarki-seinale eta publizitate-agerpenetan, ikasliburuetan...) hain sarri agertzen diren erabilera desegokiak ahal den neurrian zuzenduz. Honek, besteak beste, esan nahi du:

— Egunkari-aldizkarietako eta irrati-telebistetako euskarak garbia, ereduzkoa, izan behar lukeela. Eta horren ardura badela Jagon Sailarena.

— Ikasmaterialak ere euskara onean beharko genituzkeela.

— Bide-seinaleak, kale- eta toki-izenak, denda-iragarkiak etab. euskara jator eta ulerterrazean ikusi beharko genituzkeela eta Jagon Sailak laguntza eskaini behar lukeela.

— Administrazio-alorreko idazki ofizialak ere euskaraz, eta euskara egoki batean, jaso beharko genituzkeela.

Helburu horiek begien aurrean izanik, honako helburuak aipatzen nituen 1995ean:

1. Erakunde eta lantaldeekin harremanak sortzea

Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin eta Nafarroako Zuzendaritzarekin, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuarekin, Foru Diputazioetako Euskara Zerbitzuekin (edo itzulpen taldeekin), HABErekin, EUDELekin, EKBekin, Euskal Kultur Erakundearekin, eta luze-zabal euskara bultzatu nahian herrietan sortu diren taldeekin harremanetan jarri, Jagon Sailari zer eskatuko lioketen entzun, eta ondoren eskariei erantzunik emateko modurik egokienen bila hasi (edo horretarako indarrik dugun neurtu).

Argitaletxeetako euskara-arduradunekin harremanetan jarri eta galdetu orain arteko batasunerako arauak ondo heltzen zaizkien, nahikoa diren, zeren beharra ikusten duten...

2. Hezkuntzaren munduan

Hiru modutako kezka eta beharrak:

a) Euskara zuzena, gramatikala: ikastaroen beharra, batetik ume eta gazteen ahotan entzuten diren akats larrienak zuzentzeko (horren garrantziaz jabearazteko), bestetik irakasleen zalantzei erantzuteko eta, beharrezko ikusiko balitz, batasuneko gomendio eta arauen berri emateko.

b) Ahoskera-ikastaroak: ahoskera-arauen hedatzea.

c) Euskalkien lekua: hezkuntzako arduradun eta irakasleekin eztabaidaguneak sortu; bai eta eskolaz kanpoko jarduerak prestatzen dituztenekin ere.

3. Komunikabideetan

a) Ikastaroak.

b) Terminologia: Jagon Sailak berak ez du lan handiegirik egin beharrik, hasierako akuilu-lana nahikoa izan daiteke. Dabilen terminologia bildu, corpus bat osatu, lantalde zabala (Ipar eta Hegoaldeko irratietako, EITBko, egunkari eta aldizkarietako ordezkariak bilduko dituena) bildu, datuak aztertu, akordioetara iritsi eta horren zabalkundea egitea, lehendik urratutako bideak jarraitzea baino ez da.

4. Administrazio mundua

Koordinazio beharra, terminologia kontuetan, idazki oflzialetan... IVAP eta HAEEren artean, esaterako; edo Nafarroako Gobemuarekin.

5. Euskaltzaindiaren corpusaz

Horiek guztiak jendearen esku nola jarri, zein baldintzatan, etab. aztertu beharko litzateke ahalik lasterren. Informatizazio egoki baten bidez, nahi duenak bere ordenadoretik sarbidea izatea lortu beharko genuke. Horretarako zein urrats eman behar den eta norekin hitz egin behar den tratatzen hasi beharko genuke hainbat arinen.

6. Jagon Sailaren "status" mailako eginkizunak

Euskararen erabilera bermatzen eta zabaltzen saiatu, kasuan-kasuan gerta daitezkeen arazo eta zuzengabekeriei erantzuna emanaz.

B) HIRU URTEAN EGINDAKOA

Hiru urtean lanean jardun ondoren, 10 bat bilera eginaz urtero, egun osoko barnejarduna egitea erabaki zuten Jagon sailkideek. Ondoren aipatzen ditudanak, urrian Donostian egindako gogoeta horretarako prestatutako txostenetan daude jasoak.

Erakunde eta lantaldeekin harremanak sortzea

Neurri batean lortu dugu; beste neurri batean ez. Egia da hiru bider egin ditugula Jardunaldiak edo Topaketak, eta beti izan ditugula irakaskuntzako, komunkabideetako, administrazioko edo argitaletxeetako jendearen galderak. Gai izan gara haien galderak eta zalantzak jaso, zegozkien batzordeei pasa, eta, ahal izan denean, erantzunak jasotzeko. Baita zalantzak sailkatuz eta erantzunak emanez txostenak egiteko ere, *Euskara*-n argitaratu direnak. Horretaz gain, Tolosan 1996ko urrian II Jagon Jardunaldiak antolatu ziren, Euskalkiak, tokian tokiko hizkerak eta batua aztergai hartuz, baita "hizkuntza-ereduen" gaia ere.

Behar bada, alde horretatik ezin dugu askoz gehiago espero. Baina, bi urte hauetan izan dugun harremanaren ondoren, bi puntu azpimarratu nahi ditut:

a) Batetik, jendeak urtean behingo harremanaz gain, unean uneko zalantzak argitzeko bideren bat galdegiten du. Horixe da, bestalde, *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*-n, arlo bakoitzerako helburuak zehaztean, euskararen corpusari eta kalitateari dagokion VI.3.3.a. puntuan jasotzen den kontuetako bat: "Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar". Uste dut izan dezakegula aukera horren gainean zerbait egiteko. Hau dela eta, Joxe Ramon Zubimendik

"Jagon Sailaren Garapena" izeneko txostenean aipatzen dituen bi kontu jaso nahi ditut hemen bereziki:

— Azken urteetan lanean hasi diren euskara teknikari, hizkuntza arduradun, zuzentzaile, etab.en zalantzez, horiek koordinatzeaz nor arduratuko da? "Esaterako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, IVAP delakoa, *Dudamuda* izeneko kontsulta-zerbitzua eskaintzen hasia da (telefax bidez eta posta elektronikoz) administrazioaren alorreko hizkuntz zalantzak argitzen laguntzeko. Baina nork argituko ditu IVAPeko bertako aholku-emaileen hizkuntz zalantzak? Noiz? Nola?".

— Jagonet azpisare informatikoa sortzea; Euskaltzaindiak berak antolatutako sare informatikoaren zati bat: Jagon sailaren eginkizunak bete ahal izateko antolatutako zerbitzu informatikoa. "Jagonet azpisarean sartzen denak, Euskaltzaindiarengandik hartarako sarbidea eta giltza eskuratu dituenak, euskalgintzako profesionalen zerbitzura antolatutako plaza aurkituko du. Plaza hori, profesionalen ordezkariekiko harreman bizietarako zerbitzu hori, etengabeko Jagon topalekua izango da, Euskaltzaindiaren kontrolpean. Jagonet azpisarean zerbitzuok eskainiko dira [euskalgintzako profesionalen araberako] sei alorretan berezita (hezkuntza, komunikabideak, euskararen irakaskuntza, herri-administrazioa, itzulpengintza eta enpresa eta elkarteak):

- Kontsulta eta aholku-zerbitzu bateratua eta eguneratua.
- Trebakuntza-ikastaroetako partaidetza koordinatua.
- Euskaltzaindiari buruzko albisteak (komunikabideetarako).

Kazetaritzari dagokion alorreko aholku-zerbitzua (alor hori bereziki) ordutegi jakin batekin antolatu beharko da, komunikabideetako behar izanen bapatekotasuna dela eta. Besteak ere, hor nonbait. (Iker saileko batzordeetako kide bana Jagon sailkide ere izateak guztik bermatuko luke, eta asko arinduko, alorrez alorreko aholku zerbitzua)".

Baina ondo neurtu beharko litzateke nor arduratzen den erantzunak emateaz, nola lortu bakoitzak bere iritzia ez ematea... Aholku-taldeak eratu nahi badira, erakunde edo elkarte bakoitzarekin nola landu puntu hori; nola hasi lanean, gure ahaleginaren biderkatzaile izango diren lagunekin. Hala ere, uste dut egin dezakegula zerbait.

b) Bestetik, harreman-sarea osatzeko deiari kezka eta interesa dutenek erantzun diote. Nola lortu, ordea, eguneroko langintzan beren euskara hobetu beharrean dauden horiengana iristea? Nola lortu gaur horrenbeste hedatzen ari diren egitura okerrei ateak ixtea? Nola lortu alorrez alor "kalitatezko ereduak" landu eta bultzatzea? Eta honek, ikastaroen beharretara narama.

Ikastaroak

Batez ere hezkuntza eta komunikabideetako lagunentzat. Egiten diren akatsak zuzendu, ahozko eredu egokia lortzen ahalegindu. Hauxe idatzi zuen Xabier Mendigurenek "Euskararen Kalitatea eta Euskal Erakundeekiko Harremanak" izeneko txostenean:

"Balantze bat eginez gero esan genezake euskalgintzako sektore batzuek, orohar, arreta handiarekin jarraitu izan zaizkiola araugintza-prozesuari eta zenbait idazle, kazetari eta itzultzaile arau-betetzaile fidel izan direla ere aitortu beharra dago, nahiz eta oraindik hedapen oso eta egokia egiteko lan egin beharra dagoen. (...)

Ez dago gauza bera esaterik irakaskuntzari buruz, bere osotasunean harturik, ezta adierazpen mintzatuaren sostengutzat idatzia erabili izan duten komunikabideez (irratia eta telebistaz) ere orohar. Idatzitik mintzatura pasatu beharra, inprobisazioa, hizkuntz kalitate desberdineko jendearen diskurtsoak eskaini beharra, komunikagaitasunaren aitzakia eta abar izan dira, oraindik eman beharreko pausoak agerian jarri ez ezik, alor horretan dauden arazo ugariren aurrez aurre jarri gaituztenak. Erdi-ahozkotasunak gero eta garbiago jarri digu mintzatuaren eta idatziaren arteko lotura estua eta sail horien arteko zubiak ezarri eta finkatu beharra, standarra eta euskalkiaren arteko harremanak ere argitu eta zehaztuz. Eta hauxe bihurtu da etorkizuneko hizkuntz kalitaterako erreferentzigune garrantzitsu."

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia-n ere jaso den beharra, bestalde: "Euskara hobetzeko ikastaroak antolatu, euskaltegietako irakasleentzat, komunikabideetako esatari eta kazetarientzat".

Behin baino gehiagotan izan dugu hizpide ikastola eta euskal eskoletako hizkuntzaren kalitatea; arduradunekin ere hitz egin da. Nola jarraitu behar dugu urratsak eginez? Hemen ere, astiro-astiro, ikastoletako arduradunekin eta Hezkuntza Sailekoekin bilera bat baino gehiago egin beharko genituzke, egoeraz jabetu daitezen eta ikastaroak antolatzen eta jendea kontzientziatzen lagun diezaguten.

Ikastaro hauek helburu bat baino gehiago bete ditzakete batera: hutsak zuzendu, ahozkotasun egokia lortu, batasunerako arauak ezagutarazi eta eredu egokia (besteak beste, Juan Luis Goikoetxeak bere txostenean azpimarratzen duen legez, euskaraz estandarrerako egon daitezkeen aukeren artean, ingurukoa kontuan hartzea) eztabaidatu eta landu.

Ikastaroak nork emango dituen, zein gai jorratuko den, etab. ere aztertu beharko da, koordinazioa nahitaezkoa eta funtsezkoa da eta. Izan ere, askotan ez dugu geuk jardun beharko horretan. Zorionez bada jende prestatua. Baina bildu egin behar dira, beren lanlekuetan horretarako aukerak eskaini behar zaizkie, haiekin bildu eta ikastaroetako edukiak landu behar dira...

EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) lortzeko ematen diren ikastaroetan, horko azterketetan, zuzentzaile-batzordean... egiten diren hizkuntza-aukerak hizpide izan ditugu bizpahiru bider Jagon saileko bileretan. Baina arrazoi desberdinak direla medio, ez dugu lortu oraindik ezer egiterik.

Euskalkien lekua

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia-k aipatzen du puntu hau ere: "Irakasleak eten gabe prestatu euskara batuaren eta euskalkiaren artean zubiak egiteko, eta euskalkietan bizi-bizirik dauden egiturak eta errejistro diferenteen ereduak irakatsi ikasleei, tokian tokiko hizkerara egokituz". Bada, gainera, talde bat baino gehiago tokian tokiko hizkera indartzeko ahalegian dabilena. II Jagon Jardunaldietan ere txosten bat baino gehiago izan zen kontu honen gainean. Ez dut uste guri dagokigunik lekuan-lekuan zer bultzatu behar den eta zer ez eztabaidatzen hastea; baina bai jende lanean jartzea, akuilu-lana egitea. Irakaskuntzan ikusten dut behar gorriena, komunikabideetan baino areagokoa. (Praktikan badira irratiak euskalkia darabiltenak nagusiki, baita herri-aldizkariak ere. Azken hauek, gainera, badute gai horren gaineko kezka eta antolatzen dituzte jardunaldiak eta eztabaidaguneak).

Terminologia

Beharrezko lana izanik ere, ez nioke lehentasunik emango, badirelako horretaz arduratuko direnak, nahiz Euskaltzaindiak eman beharko lituzkeen oinarrizko irizpideak, nire iritziz.

Arau, kontsulta eta corpusen informatika bidezko zabalkundeaz

Dakizuenez, hilabeteak dira Jagon Sailak, alor honetan ikusten zituen beharren berri eman zionetik Zuzendaritzari. Erantzuna ere jaso genuen. CENTRISA etxeak ere egin zuen txosten mardula, Euskaltzaindiaren beharrak zein ziren zehaztuaz. Espero dezagun hurrengo hilabeteetan izango dela aukera informatikaren munduan aurrera pauso garrantzitsuak emateko.

Estatus mailako eginkizunak (Iparraldea eta Nafarroa)

a) Euskal Autonomia Erkidegoan euskarari egiten zaizkion erasoak: Zerbait berezia gertatzen denean erantzuna prestatzea, hala baderitzogu Zuzendaritzari eta euskaltzain osoei horren berri ematea izango da aurrerantzean ere gure eginkizun garrantzitsuetako bat.

b) Euskarak egoera ahulagoa duen lurraldeak: Nafarroa eta Iparraldea. Guztiok dakigu, "jagote" lana beharrezkoago izan daitekeela Nafarroan eta Iparraldean. Erramun Baxok-en "Euskaltzaindiaren zeregina Ipar Euskal Herrian" txostena irakurri ondoren, Garapen Kontseiluarekin eta Hizkuntz Kontseiluarekin elkarlanean nola ari gaitezkeen, zein laguntza-mota eman dezakegun ikusi beharko dugu.

Bestalde, Ipar eta Hegoaldearen arteko koordinazioa, hizkuntza kontuetan, nola segurtatu ikusi beharko genuke. Berriro ere informatikak laguntza eskain dezake, baina ardura hartuko dutenak beharko genituzke berriro ere.

Eta, zer esanik ez, akatsak zuzentzeko, eredu egokia lortzeko... ikastaroek hona ere iritsi beharko lukete, bai eta tokian tokiko hizkera indartu eta biziberritzeko ahaleginak ere.

Helburuak nola lortu

1995ean baino sailkide gehiago izan arren, eta lurralde eta lanbide desberdinetako ordezkariak biltzen ahalegindu arren, ezinbestekoa da, nire iritziz, beste modu batean antolatzea. Bestela, hilero bilduta ere, nekez lortuko dugu aurreko orrialdeetan aipatutako beharrei erantzuteko aurrera pausoak ematea. Beraz, niri dagokidanez, gaurko barne jardunaldi honetatik beste lan-eskema bat atera nahiko nuke. Hauxe da nire proposamena: bakoitzak zein eginkizunetan jardun nahi duen (edo non ikusten duen bere lekua) esan, eta eginkizun bakoitzaren arduradunak izendatzea. Horiek hasi beharko dute alor bakoitzean urratsak egiten, eta proposamenak ekartzen. Gerta daiteke sailkide gehiagoren beharra izatea, edo Jagon Saila ere batzordetan antolatzea komenigarri izatea. Joxe Ramon Zubimendiren iritziz "eraginkortasunari begira, alde bietako sailkidez hornitzea komeniko zaio Jagon sailari:

— Lanerako alor bakoitzean jakitun dagoen sailkide bana (1).

— Iker saileko batzorde bakoitzetik sailkide bana".

Jardunak erakutsiko du bide egokiena zein den. Gero, bi edo hiru hilabetetik behin egin ditzakegu bilera orokorrak, egitasmo bakoitza zertan den elkarri berri emateko.

Urtea amaitu baino lehen aurkeztu nahiko nioke Zuzendaritzari, hurrengo bi urteetan Jagon Sailak bere gain hartuko dituen eginkizunak zein diren, gutako nor arduratuko garen bakoitzaz, eta lehen urratsak zein izan daitezkeen. Uste dut mahai gainean ditugun txostenetan gauza batzuk nahikoa landuak daudela. Beste batzuk gehiago zehazten ahalegindu beharko dugu. Nolanahi ere,

(1) Lehen ere aipatu ditugun alorrak dira horiek: hezkuntza, komunikabideak, administrazioa...

Euskaltzaindiak Barne Jardunaldiak egiten dituenean azaldu nahiko nituzke gure jardunbide berriak.

C) ETORKIZUNARI BEGIRA

B. puntuan aipatu dudana izan zen urriko barnejardunaldiko gaia; han egindako gogoetak. Egun hartako erabakia, ostera, alor desberdinak hartuz (hezkuntza, komunikabideak, euskararen irakaskuntza, administrazioa...), gutun bana zuzendu Jagon sailaren egitasmo nagusiaren berri emanaz, eta galdetu zer eskatuko lioketen Euskaltzaindiari, zertan lagun diezaiekeen Euskaltzaindiak (edo Jagon sailak). Oraindik ez dira erantzun guztiak jaso, Itzulpengintza eta argitaletxeen mundukoak falta dira, eta Herri-administraziokoak), baina hauxe da heldutakoaren laburpena, Jagon sailak azken urteetan begiz jo dituen eginkizunetan oso oker ez zebilela erakusten dutenak:

1. Komunikabideak

a) Arauen inguruko zalantza, eskaera eta kexuak.

b) Euskalkiak eta euskara batua ("Euskaltzaindiak argitu beharko luke noiz erabili behar den euskara egunerokoa eta noiz dotorea"; hau da, noiz *martitzen* eta noiz *astearte*).

c) Kalitatea "une egokian eta era egokian" egitea. Baina hori lortzeko "Mendebaldean ez bada bertakoa indartzen alperrik izango dira arauak, eta «euskal-totelen aberri erdalduna» baino ez da izango".

d) Ahozko erregistroa: zuzentasuna zer den definitu eta noiz den bete beharrekoa finkatu. "Ahozkotasunari begira irizpide falta itzela dago, formal/ez formal banaketa dela eta".

e) Profesionalak trebatzeko ikastaroak eta arautze-lanaren berri eman.

f) Komunikabideetako hizkuntz arduradunen foroa, "Euskaltzaindiak oraindik ebatzi ez dituen hizkuntz arazoei buruz konponbide bateratua lantzeko foro iraunkorra sortu".

g) Hezkuntza Sistemak, hizkuntzaren kalitatearen inguruan dituen hutsune eta gabeziez jabetu eta hori konpontzeko urratsak egitea.

h) Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak.

2. Hezkuntza

a) Doinuera egokia landu nahi bada, ezinbestekoa euskal azentuaren erabilera ezagutzea.

b) Hezkuntza Sailari eskatu konponbidean jar dezala irakasleen akatsen auzia eta ikastaroak antolatu arauen berri emateko.

c) Unibertsitateari eskatu ergatiboaren irakaskuntzari eta ikasketari buruzko ikerlanak egin ditzala.

d) "Soziolinguistikako oinarrizko printzipioak gure Euskal Herriko gazteriari egokituta ikasgelaratzea eragin handiko izan liteke."

3. Euskararen irakaskuntza (euskaltegiak, HABE)

a) Euskararen kalitatea (egokitasuna) definitu. Argi eta garbi adierazi beharko luke Euskaltzaindiak kalitatea ez dela zuzentasunera mugatzen; kalitatea = egokitasuna dela. Gramatikako lanak, "perpaus mailara mugatu gabe, esaldiarte mailara ere zabaldu".

b) Egokitasunaren kontzientzia pizten lagundu euskaldunei. Ez da nahikoa egokitasuna definitzea, horren kontzientzia ere piztu eta zabaldu behar du Euskaltzaindiak.

c) Irakasleen prestakuntzarako baliabideak eskaini. Irakasleen euskarazko komunikazio-gaitasuna landu eta areagotu. Ikastaro hauetan, zalantzei erantzun (joskera eta jokabidea, ortografia, gramatika-hiztegia...).

4. Euskara elkarte eta herri aldizkarien topagunea

a) Euskara estandarra eta tokian tokiko barietatearen gaineko erabilera.

b) Euskara pizgarria, txinpartaduna, guztiz komunikatiboa. "Arlo hau da nire uste apalerako lehentasunezkoa eta JAGON sailak jorratu eta bideratu beharrekoa (...) argi ikusten dugu euskara estandarrak duen linealtasun hori bizitu egin behar dugula, komunikazioa benetan komunikazio izan dadin eta ez soilik informazio huts".

Iparraldeko eta Nafarroako egoera kontuan hartuta, eskaera berezia egin zitzaien Erramun Baxoki eta Andres Iñigori Jagon sailaren egitasmoaren berri eman zezaten. Nafarroatik ez da oraindik erantzunik etorri, Gobernuko itzultzaileen atalekoa izan ezik (hiztegi zalantzak), nahiz gutuna 11 gune desberdinetara bidali izan, aldi berean, ikastetxe, ikastola eta euskara teknikari guztiengana iritsiko zela ziurtatuaz.

5. Iparraldea

a) "Euskaltzaindiaren eginbidea da botere publikoari ulertaraztea hizkuntz antolaketa lehenik hiztunen gain dela eta beraz toki bat behar dela erakundeak eta botere publikoak elkarretaratzeko."

b) Euskararen zuzenbidezko onarpena.

6. Antolamendu-proposamenak

Jose Luis Lizundiak bildu du bere txostenean Jagon Sailaren ibilbidea, eta hor ikusi dugu, azken hamar urte hauetan batzorde bakar izan arren, aurreko urteetan bazirela batzordeak Jagon sailaren barruan. Badirudi garaia iritsi dela ostera ere batzordeak edo lantaldeak eratzeko. Izan ere, honako eginkizunak izango genituzke:

— Euskararen egoeraz, statusaz arduratzea, bereziki Iparraldean eta Nafarroan. Ordezkaritzetako arduradunez gain, esparru honetan ibiliak diren euskaltzainak, lurralde bakoitzeko jendea, etab. beharko da bildu. Eta lanerako modu malguak aurkitzea, batzuetan erantzun azkar samarra emateko, hurrengo bileraren zain egon beharrik gabe. Hala ere, Mikel Zalbidek 1991an gogoratzen zuen bezala, zorionez Euskaltzaindia ez dago bakarrik hizkuntzaren defentsan.

— Ikastaroak antolatzea, euskalgintzan diharduten sektore desberdinentzat, araugintza, zalantzak, akatsak eta ahozkotasuna, behintzat, landuko dituztenak.

— Euskalkiek eta tokian tokiko hizkerek zein leku behar duten eztabaidatzeko foroen akuilu izatea, batez ere hezkuntzan eta komunikabideetan (nik uste). Geuk zuzenean egitea baino gehiago horretan jendea gogoeta egiten jartzea izango litzateke gure eginkizuna, oinarrizko irizpide batzuk ezarriaz gai horretan.

— Galdera eta zalantzak jaso eta erantzuten jarraitzea, kontsulta-zerbitzua antolatuz. Honekin batera.

— Kontsulta horiek eta erantzunak (bai eta orain arte egindako guztiak ere (badira 81 orrialde Pello Telleriak idatziz erantzundako hizkuntza-kontsultak bilduaz osatuak: Euskaltzaindiak orain arte emandako arauen gaineko zalantzak, terminologia auziak, atzizkiei buruzkoak, sintaxiari dagozkionak, etab.)) datu-base batean jaso eta norberak etxeko ordenagailutik kontsultatzeko moduan jarri.

— EGA azterketetan, horiek prestatzeko ikastaroetan, egiten diren hizkuntza-aukeren berri izan, eta, behar izanez gero.

— Hizkuntzaren kalitateari buruzko eztabaida, alorrez alor kalitateak zer eskatuko lukeen aztertzen ahaleginduz.

Beste eginkizun batzuk ere egon daitezke, eskariak egin zaizkigu behintzat (terminologiako koordinazio lanak, hizkuntza bizia eratzea...). Behar bada horiek ere aztertu beharko dira eta ikusi ezer egin daitekeen. Bestalde, euskalgintzako jendearengandik etorri diren eskari guztiak ikusita, agian esan beharko da halako edo halako eginkizun ez dela gurea, ez eta Euskaltzaindiarena ere.

Edo ez dagoela hizkuntzako puntu guztiak arautu beharrik, aukera zabalak ere egin daitezkeela, hango eta hemengo egiturentzat lekua uzten dutenak. Baina hori guztia patxadaz aztertu beharko da.

Orain arte esandakoaren arabera, izenen kontuan arreta handiegirik ipini gabe, eta eginkizunak harturik gogoan, honako proposamen hau egingo nuke Jagon Sailari hurrengo bi urteetan (edo 1999an zehar, nahiago bada) eman dakiokeen organigramaz:

JAGON SAILA

(Jagon sailburua)

CORPUSAREN BATZORDEA (batzordeburua)

STATUSAREN BATZORDEA (batzordeburua)

LANTALDEAK
Ikastaroak: morfologia, sintaxia / ahoskera
Kontsulta-zerbitzua
euskalkien lekua
kalitatea, euskara ereduak
EGAren inguruko mundua
.....

BATZORDE IRAUNKORRA

(*Jagon* sailburua eta idazkaria, Corpus eta Status batzordeetako buruak, Lantaldeetako arduradunak)

Ez dakit eginkizun guztiei batera aurre egiterik izango dugun. Jagon Sailaren azkenengo bileran, otsailaren 12an Donostian egindakoan, errazenetik hastea proposatu zen, landuen izan ditzakegun arloetatik. Nolanahi den, jende gehiago bildu beharko litzateke lanera (Joxe Ramon Zubimendiren proposamena oso baliagarria izan daiteke). Lantalde bakoitzari bere autonomia eman, eta bilera orokorrak bakanagotu. Koordinazioa, batzorde iraunkorrak ziurtatuko luke. Uste dut azken hiru urteetako harreman-sarea sendotu eta hedatzeko balio dezakeela horrelako organigrama batek, baita euskalgintzatik datozkigun eskariei erantzuteko ere.

JAGON SAILAREN ARDURAPEKO LEHEN LANARI BURUZ

Baiona, 1999-II-26

Juan San Martin

Gasteizen, iragan abenduaren 18ko batzarrean, Euskaltzainburuak esan zidan Jagon Sailaren eginkizunetaz zerbait prestatu behar nukeela eta hara hemen laburki bederen, euskararen bizibiderako hain beharrezko iruditzen zaizkidan ikus pundu batzuk, eta horien aurrean, nire uste apalean, nola jokatu genezakean.

Oroi, orain baino lehen, frankismoaren denboran, Jagon Sailetik ahal zen neurrian burutu genituela zenbait ekintza euskara suspertzeko asmoz. Adibidez: bertsolari txapelketak, Bizkaiko lehen ikastolak eta bertarako testuak babestea, Euskal Idazle Elkartea eta Itzultzaile Eskolaren sorketa eta abar. Orain beste ekintza batzuri eman beharko diegu lehentasuna. Gure erakunde hau lau Diputazioen babespean sortua denez eta Erret Dekretuzko onarpenaz baliatuz.

Euskara dela eta politikariek tira-bira gehiegiz eta era txarrean agertzen dituzte iritziak, zein alde batekoek zein bestekoek eta gure egitekoetarik bat iritzi horiek bideratze zuzenketa da. Lehenik har dezagun oinarritzat, ONUk 1948an agerrarazi zuen Giza Eskubideen aitorpena, zenbait gomendioren artean non esaten duen: hizkuntza bizi baten hiztunek, bere baitan, berez dutela erabili ahal izateko eskubide osoa. Aitorpen horrek mende erdia osatzean, gai hortaz, iragan abenduaren 18.ean agertu nuen *Euskaldunon Egunkaria*-n artikulu aski luze bat, "Giza eskubideak" zeritzana, 4. orrialdean.

Lehenago, urriaren 24ko *Egunkaria*-n, beste artikulu bat argitaratu nuen, "Eurogutuna" zeritzana. Baionan Eurokarta duintasunez sinatzea Abertzaleen Batasunak, Berdeek, CFDT sindikatoak eta AEK-ak galdegiten zuten egun berean. Izan ere, Estrasburgoko Kontseiluak 1992ko otsailaren 19-21.ean aurkeztu zuen proposamen legea, Europako hizkuntza gutituen alde. Eta gaur egun oraindik geldi dago. Frantziako Errepublika Kontseiluak bere esku omen du hizkuntzei dagokien arazo hau eta bera da Europako Batasunean hizkuntza gutituen alderako gutun horri betoa jarri ziona, arrazoi bidetzat adieraziz bere Konstituzioaren 2. artikuluaren kontrakoa dela.

Artikulu horrek, horrela, Europaren izaera naturala ukatzen du eta anaikiro elkartasunean bizi ahal izateko era arriskuan jarri. Bestela, esan dezatela nor noren menpe egon behar duen, Europa Frantziarena ala Frantzia Europarena?

Iparraldeko euskaldunek hori nolabait mugiarazteko baliatu beharra dute, baina Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren laguntzaz noski. Hortarako sortua bai da gure sail hau.

Espainiak ere, 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua aldatu behar luke, Estadupean dituen hizkuntza guziak behar bezala babesteko. Konstituzio hori onartu baino lehen, Euskaltzaindiak, 1978.eko irailaren 29an, garaiz agertu zuen bezala (ikus *Euskera*, XXIV, 1979, 131-132. orrialdeak).

Zein bata zein bestea, ez datoz bat 1948an ONUk agerrarazi zuen Giza Eskubideen agerpenarekin, eta gu hortaz baliatu gindezke.

Baina, horrez gainera, Hegoaldean ere badugu zerbait gehiago egin beharra, baliabidea ematen digunez *DECRETO 573/1976, de 26 de febrero*-ko Erret Dekreto harek (ikus *Euskera*, XXI, 1976, 5-23. orrialdeetan).

Oroit zer zioen Juan Carlos erregeak 573/1976ko *DECRETO* haren sarrerakoan: *"Pero junto a esa preocupación por conservar y fomentar la cultura y la lengua transmitida por un pueblo, está también la de promover su desenvolvimiento en todos los órdenes, tanto en el puramente literario como en el de la investigación o la técnica. Para ello, se hace preciso que el idioma tenga acceso a los centros de enseñanza y a los medios escritos y audiovisuales de difusión, con la imprescindible adaptación de su léxico a las terminologías modernas".*

"Para asegurar estos objetivos nació la Academia de la Lengua Vasca, bajo el patrocinio de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. La Diputación de Vizcaya acordó en sesión de venticinco de enero de mil novecientos dieciocho, promover su fundación, y las Diputaciones hermanas se adhirieron a dicho acuerdo. Por otra parte, en el Congreso de Estudios Vascos, celebrado en la antigua Universidad de Oñate en el citado año de mil novecientos dieciocho, se llevó a cabo la consagración de la Academia. Su Majestad el Rey Don Alfonso XIII en la sesión inaugural de dicho Congreso pronunció estas memorables palabras: «Consagraos al estudio y fomento de todo cuanto pueda contribuir al adelanto y progreso del País, cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habéis recibido de vuestros padres y debéis legar incólume a vuestros hijos»."

Gainera, 1976ko urte berean, Espainiako Ministerio de Educación y Ciencia berak argitaratu zuen liburu eder batean bidez, *Decreto* haren testua, ondotik Euskaltzaindiaren historia laburra adieraziz, *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia* deritzana. Hitz horiekin baliatu beharra dugu; aldi berean, gure arautegiak Jagon Sailaren egitekoaz dagokionari jarraituz, gaur egungo politikarien aurrean.

Ondotik, euskara hezkuntzan babestea ere ezin ahantzi, beste *Real Decreto 1.049/1979, de 20 de abril* delako hartan dioenez (ikus *Euskera*, XXIV, 1979,

7-11. orrialdeak). Espainian bertan ikus eta jakin dezaten euskara ez dela Sabino Aranak asmatua, baizik Estaduko hizkuntzarik zaharrena eta agian Europakoa ere bai.

Espainia parteari dagokionez, nire ustez, horien arabera, Jagon Sailari dagokio Erret Dekretoa onharturiko arauetan biltzen denean oinarriturik aurrera egitea, besteak beste:

e) Euskararen enplegua aintzinatzea.

f) Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.

g) Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.

h) Literatur eta ikas lehiaketak eragitea.

i) Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren irakas-aulkiak sortuz.

Ikus *Euskera*, XXI, 1976, 8. orrialdean gazteleraz eta 18. orrialdean euskaraz datorrena, edo era berean Ministerioak argitaraturiko *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia* (1976) liburuan, gazteleraz 8. or. eta, euskaraz, 26. or. datorrenaren arabera. Ohar bat eginaz, aditzera eman beharrezkoa zait, liburu honetako orrialdeak zenbakirik gabe datozela.

Euskararen erabilerarako Eusko Legebiltzarrak onartu zuenez, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritza da euskararen alde zuzenen jokatzen ari dena. Baina hala ere hutsak nabari dira eta zaindu beharra dugu. Era berean, Euskal Herriko Udaletan.

Nafarroan, ordea, bertako Legebiltzarrak herrialdeak zatitu zituen *apartheid* lotsagarri batera eramanaz: *a) inguru euskalduna, b) inguru elebiduna, d) inguru gazteleraduna.* Baina, inguru euskaldunean badira euskararik ez dakiten nafarrak, inguru erdaldunean euskaldun nafarrak diren bezala. Hori, 1948an ONUk azaldu zuen Giza Eskubideen kontrakoa da. Nafarroa osoak elebiduna izan behar luke, hizkuntzari buruzkoan bertako biztanleek eskubide berdinak izango badituzte.

Hori, Giza Eskubideen arabera, ez da zuzena historian berez *Lingua Navarrorum* delakoarentzat. Baina, horrez gainera, ez dio laguntzen Nafarroako Gobernuak sortu zuen *Ley Foral del Vascuence* delakoari, Aholku Kontseilua jarriz 1986ko martxoaren 11n, 135/1996 Foru Dekretuaren bidez. Dekretu horretan argi agertzen dena, hara hemen bere egitekoa, 4. artikuluak dakarrenez: *a) Hizkuntza normalizazioari dagozkion plan orokor eta proiektu arauemaileei buruzko iritzia ematea, horiek onetsi aintzin. b) Hizkuntz plangintza eta normalizazioari dagokienez, Gobernuak eginen dizkion galdereri erantzutea. c) Euskara erabili eta bultzatzeari dagokionez, Gobernuak proposamenak egitea.*

Bestalde, oroi 1997ko apiriiaren 25ean Barañaingo Udalarekin gertatuaz. Orduan oso ondo jokatu zuen Euskaltzaindiak (ikus *Euskera*, XLII, 1997, 193-

196). Baina urte askotan euskaraz ari den irratiari orain baimenik ez emateaz zer? Eta nafar Gobernu buruak oraintsu euskaragatik esan dituenetaz zer?

Ez dugu inork esan beharrik kazetaritzaren bidez salatzea ez dela Euskaltzaindiarentzat biderik egokiena. Hortarako beti izango dugu aukera eta denbora eta hobe zaigu zuzenean gutunez adieraztea, edo gaia berez latza edo irristakorra denean dei egin elkarrekin batzartzera eta ahalik eta erarik diplomatikoenarekin azaldu gure eta berain bete beharra. Oroi, beti eskuetan ditugularik ONUren 1948 agiria eta 1976ko 573/1976ko Erret Dekretua eta behin eta berriz oroitaraziz Giza Eskubideak bete beharra, aldi berean gogoaraziz ez deritzaigula ondo kazetaritzaren bidez salakuntzak egitea, zuzenean elkar onarturik eta ahal den neurrian lagunduz baizik.

Lotsarik gabe ari diren politikari edo idazleei bakarrik erantzun behar genieke, gaiak edo jarrerak hala eskatzen duenean. Zeren, alde batetik euskararik ez dakiten abertzale politikoak hor ari dira erdararen aurka eta, bestetik, abertzaleen aurka daudenak euskara politikarekin nahasturik baztertu nahian. Hori ez da legezko, ez aipatu dudan ONUren aholkuan, ez Estrasburgoko Parlamentoan Frantziagatik geldi dagoen Lege proiektuan, ez Eusko Legebiltzarraren 10/1982 azaroaren 24koan. Eta Euskaltzaindiak 1976ko Erret Dekretuarekin baliatu ezinik ez du Euskal Herriaren hegoaldean erabiltzeko eta Iparralderako eredu gisa hartuz esan behar direnak esateko.

Beti kontutan izan dezagun egungo talde politikoak baino lehenagotik hor zela gure hizkuntza jatorra. Eta Euskaltzaindiak, bere sorreraz, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek erakunde hau bere arauekin onartuzkoa dela, euskara ikertzeko eta zaintzeko, bi sailetan osaturik: Iker eta Jagon.

Euskal Herriko hiriburuetan ditugun ordekaritzak, ordea, beude adi beren eskualdeetan euskarari buruz zer gertatzen ari denaz eta Euskaltzaindiaren zuzendaritzara berriak eman.

Aldiz, aditzera eman beharra dut, historian zehar euskarak izan dituen eragozpenik nagusienak hor daudela jasoak, bildu ahal izan ditudan neurrian, nire *Euskararen ostarteak* (1998) deritzan liburuan. Liburu honen erabilera errazten du azken orrialdeetan egilez eta gaiez daraman aurkibideak.

EUSKARAREN OSASUNA ETA EUSKALKIAK

Baiona, 1999-II-26

Koldo Zuazo,
euskaltzain urgazlea

Hogeita hamar urte luze egin berri ditu euskara batuak, eta gogoeta bat plazaratzeko erabili nahiko nuke urtemuga hau.

Hasteko, esango dut, gauza bitan behinik behin, euskaldunik gehienok batera samar gatozela:

a) Euskara batua ezinbesteko tresna dugula.

b) Euskara batua erdialdeko euskalkian eraiki izana erabaki zuzena izan zela.

Ostera, euskara batu hori erabiltzeko moduek banatzen gaituzte euskaldunok sarri, eta horretan ere iritziak bateratzeko garaia badela iruditzen zait.

Esan dezadan aurrera baino lehen, 1960ko hamarkada hartan batez ere hutsune nagusi bi bete nahi izan zirela euskara batuaren bidez:

1. Leku urrunetako euskaldunek batak bestearekin euskaraz ulertu ahal izatea.

2. Gairik jasoenak ere euskaraz erabili ahal izatea.

Euskara batua bultzatzeko beste arrazoi batzuk ere baziren, jakina, baina hauexek biok ziren zuzen-zuzenean hizkuntzari berari zegozkionak.

Eta hogeita hamar urteko ibilbideak euskara batuak hutsune bi horiek egoki bete ditzakeela erakutsi du. Dagoeneko ez dugu zertan erdarara jo behar beste edozein euskaldunekin hitz egiteko, eta dagoeneko ez dugu zertan erdarara jo behar edozein gairen inguruan jarduteko. Eta baldin eta erdarara jotzen badugu, euskaldunarena da hobena eta ez euskararena.

Baina kontua da aipatutako baldintza nagusi bi horiek aldatzen direnean, ez dugula denok hain *ezinbestekotzat* jotzen euskara batua. Hau da: leku urrunetako hiztunak gabe, herri edo eskualde berekoak batzen garenean, eta oso gai jasoak gabe, eguneroko bizimodukoez dihardugunean, nahitaez erabili behar ote dugu, orduan ere, euskara batua? Ez ote zaizkie esparru horiek betiko

euskalkiei utzi behar? Sarri egiten dira galdera hauek, eta batzuek eta besteek emandako erantzun desberdinek piztu ohi dute eztabaida.

Gauzak bere leku egokian ipintzen hasteko, hiru hiztun multzo bereizi behar direlakoan nago:

a) Erdialdeko hiztunak, hau da, Gipuzkoako giputzak —Deba arrokoak ez besteak— eta Nafarroako mendebalekoak.

b) Euskaldun "berriak" ala ez, euskara batua besterik ez dakitenak.

c) Erdialdeko euskalkia ez den besteren bat hitz egiten dutenak.

Garbi dago arazoa oso desberdin ikusten dela multzo batekoa edo bestekoa izan. Erdialdeko eremukoendako euskara batua ez da, azken baten, maila jasoagoko hizkera baino eta, beraz, ez du horretan ikusten oztopo larririk.

Euskara batua baino ez dakitenek, berriz, dakiten horrekin euren beharrizan guztiak asetzea lor dezakete, eta multzo honetako zenbaitek ere ez du ikusten horrela jarraitzeko ezinik. Badira, dena dela, behin euskara batua ikasita gero, hango edo hemengo hizkera ere ikasi eta bertakotzen direnak.

Baina batez ere hirugarren multzokoak dira auzia oso bestela ikusten dutenak. Betidanik erabili ohi duten euskara nabarmen aldentzen da eredu estandarretik. Kontua ez da hitz bat edo beste ikasi behar dutela. Kontua ez da egitura hau edo hura bere hizkeratik batura aldatzen dela. Kontua da sistemaren zati haundi bat dela desberdina. Multzo honetakoena da, beraz, arazoa, eta batez ere eurok dira korapiloa askatzen ahalegindu beharko dutenak.

ARAZOAREN OINARRIAK

Euskalkien auzia aipatu ohi denean, Bizkaiko edo Zuberoako adibideetara jo izan da beti, baina ez dago zertan hain urrun joan. Hurbilagoko beste edozein lekutan, Baztanen, esate baterako, geldi gaitezke. Jo dezagun etxekoengandik *errain datzut* eta *gaki naiz* ikasi duen hiru urteko haurra eskolara joan, eta eskolatik etxerakoan *esango dizut* eta *noa* esanez itzuli dela. Hor hasi da arazoa.

Eta arazoa ez da soilik Baztanen beti esan ohi diren *errain datzut* eta *gaki naiz* belaunaldi bakar batek galtzea. Horrek ere eman beharko liguke zer pentsa, baina galtze horren ostean dagoena da benetako kezka. Euren seme-alabak etorkizunerako prestatze alde eskolara bidali dituzten gurasoak berehala ohartzen dira eurena ez bezalako euskara irakasten dietela. Eta berehala ohartzen dira eskolan ez eze, gainerako esparru esanguratsuetan ere eurena ez bezalako euskara erabiltzen dela: telebistan, irratian, egunkarian, herriko iragarkietan... Eta galdera hauxe egingo dio beraren buruari: zertako Baztango euskara? Baztan ibarreko muga estuetan erabiltzeko, bistan da. Baina ez edozein baztandarrekin ere, gero! Baztango hizkerak ez baitu, nonbait, eskolara doazen gaz-

teekin eta eskolan ibili diren helduekin erabiltzeko balio. Baserri giroko eta adin haundiko baztandarren artean erabiltzeko baizik ez baitu, nonbait, Baztango hizkerak balio.

Horrela edo horrelatsu ikusi ohi ditu gauzak Baztango gurasoak, eta gauzak horrela ikusteak beste ondorio batzuk ekarriko ditu.

1. Hizkuntza loturaren etena

Beraren euskarak gizarte hiritar eta modernorako ez duela balio uste duen gurasoak nekez erakutsi ohi die seme-alabei. Ahal duen neurrian, telebista ikusiaz, irratia entzunaz, seme-alaben jarduna adituaz... ikasi duen euskara berria erabiltzen saiatuko da bera ere. Garbi dago euskara berri hori menderatzen ez duenez, hanka sartze galantak egingo dituena. Garbi dago, era berean, euskara berri horretan ez duela lortuko bere betikoan izango zukeen jarioa, grazia, zehaztasuna eta dotoretasuna.

Eta argi izan behar dugu gaurregun hitzetik hortzera aipatzen dugun euskararen osasun edo kalitate ezak gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura ezarekin ere baduela zerikusia. Ez diezaiogun, beti bezala, osasun txarraren erru guztia erdaran murgilduta bizitzeari egotz. Horrek ere badu bere eragina, baina ez da inondik inora ere gure ezin guztien iturburua.

Era berean, ez dezagun sinistu haurrak eskolara bidaltzea eta ETBren aurrean jarrita ipintzea euskara ona ikasteko nahikoa denik. Eskola eta hedabideak lagungarri dira, ezbairik gabe, baina etxea eta lagunartea dira denetan oinarririk sendoenak. Eta osasun oneko euskara nahi badugu, belaunaldi batetik besterako hizkuntza lotura horri —*hizkuntzaren transmisioari*, zenbaitek esan ohi duenez— eutsi beharko diogu.

2. Hizkuntza okerrei ezikusi egitea

Gurasoak izan ohi dira seme-alaben lehen irakasle. Hainbat bider gertatu zaigu geuri ere *Josemariri ikusi deutset kalien* esan, eta gurasoen oharra entzun izana: *Zer ikusi deutsek, ba? Belarrixe, ala?* Baina gurasoak horrelako zuzenketa bat egin ahal izateko konfiantza osoa izan behar du beraren buruan. Eta nola izango du beraren buruan konfiantza, baldin eta seme-alabek ikasten duten euskara berarena bezalakoa ez bada? Nola izango du beraren buruan konfiantza, azken baten beraren euskararen lotsa baldin bada? Baldin eta beraren euskara txarra dela, kaxkarra dela, zaharkitua dela uste badu?

Bestalde, seme-alabek eskolan ikasten badute euskara, nor da gurasoa ezer zuzentzeko? Ez ote dira irakasleak horretarako? Eta zer, gainera, irakasleak irakatsitakoa bada haurrak dioena? Eta, azken baten, isil-isilik geldituko da gu-

rasoa... badaezpada ere! Eta hona hemen atzera berriro euskararen osasunaren auzia jokoan.

ARAZOAREN BESTE OSAGAI BATZUK

Hogeita hamar urteko ibilbidean mintzagai dugun auziarekin zerikusia duten beste akats batzuk ere sumatu dira euskara batua erabiltzeko orduan. Horietarik bi aipatuko ditut jarraian:

1. Urruneko intxaurren lilura

Urruneko gauzak, gauza exotikoak sarri sortu ohi dute lilura, eta hizkuntza kontuetan ere gertatzen da hori. Eta, jakina, zenbat eta norberaren hizkuntzarenganako lotsa eta konplexu haundiagoa izan, orduan eta haundiagoa izango da urrunekoarenganako lilura. Hori dela-eta, esate baterako, mendebaleko hiztunengan, eta zer esanik ez idazleengan, oso nabarmena da mendebaleko hitzak eta egiturak bertan behera utzi eta inorenak erabiltzeko joera. Aldi eta alde orotako hitzak eta egiturak nahastuaz, euskara aberastu egiten dela uste du, gainera, zenbaitek; baina aberastu beharrean, hoztu eta arroztu egiten du horrek.

Esango dit norbaitek aldi eta alde orotako osagaiak jakitea onuragarria eta noraezekoa dela, eta esango diot norbait horri zeharo bat natorrela berarekin. Baina gauza bat da jakitea eta, oso beste bat, inolako oreka eta zentzu gabe erabiltzea. Adibide baten bidez erakutsiko dut esan nahi dudana. Gaztelaniaren komunitatean, esate baterako, egokia eta onuragarria da *guagua* eta *fríjoles* zer diren jakitea, baina desegoki eta zentzugabe irudituko litzaiguke Bilboko kaleetan bilbotar biren solasean hitz horiek erabiltzea. Petralkeria eta sasiletraukeria hutsa iritziko genioke, ezbairik gabe, horrela mintzatzeari, *autobús* eta *alubias* direlako Bilboko jardunean ohikoak. Eta euskaraz dihardugula, ostera, zenbat petralkeria eta sasiletraukeria ez ote ditugu entzuten Bilboko eta beste hainbat lekutako bazterretan!

Bizkaitar baten euskara ez da hobea eta aberatsagoa *bainator, konpontzen ari naiz, zure zain nengoelarik, dela medio, politikari buruz, demagun, adibidez, bederen, noski, agian...* esateagatik. Izatekotan ere, pedanteagoa izango da. Zeren eta Bizkaiko jardunean *nator-eta, konpontzen nabil/dihardut, zure zain nengoela, dela eta, politikaren gainean, jo daigun* (= dezagun), *esate baterako, behintzat/behinik behin, jakina, beharbada/baliteke* dira ohikoak. Zer dela-eta, orduan, Bizkaian ohikoak diren, eta betidanik izan diren, horiek alde batera utzi eta inorenak erabili? *Bizkaikoak direlako*, hain zuzen. Eta gauza jakina da Bizkaiko euskara ez dela ona, ez dela dotorea.

Garbi dago inorena ere jakin egin beharko duguna, eta jakin ez eze, erabiltzeko gai ere izan egin beharko duguna; baina noiz den, non den eta norekin den erabiliko dugu. Eta noiz, non, norekin horiek zuzen bereizten dituenak daki ondo euskaraz; ez bateko eta besteko osagaiak noiznahi, nonahi eta nornahirekin nahas-mahasean darabiltzanak.

2. Eskolako euskararen lilura

Bada gurean bestetan ez den berezitasun bat. Edozein herritan hizkuntza eskolan ikasi duenak, behin maila jakin bat iritsi ondoren jatorrizko hiztunak hartu ohi ditu eredu eta irakasle. Eta hiztun horiek bere inguruan ez dituenean, dauden lekura joan ohi da bertan egonaldi bat egitera.

Kontua ez da eskolan hizkuntza txarra irakasten dela; kontua da eskoletan hizkuntzaren zati bat baino ez dela irakasten. Eta delako hizkuntza hori erabiltzen duten jatorrizko hiztunekin hobetu ohi da fonetika eta prosodia, aberastu ohi da lexikoa eta, azken baten, ikasi ohi da hizkuntza bere osotasun eta zabaltasun guztian.

Euskal Herrian, ostera, munduko eskolarik hoberenak ditugu nonbait, zeren behin eskolan agiri edo profil jakin bat lortuz gero, ez dago zer ikasi gehiago. Eskolako agiria duenak lasai asko egin dezake lan Iparraldean, Bizkaian zein Nafarroan. Irakaskuntzan dela, leihatila baten herritarrekin hartu-emanetan dela... edozertan jardun dezake eskolako agiria eskuratu duenak. Arrakasta osoa, benetan, gure eskoletakoa!

Baina gure egoera ez dela batere arrakastatsua ikusiko dugu kalera irten bezain laster. Zer zirrara eta zer tristura sortzen duen euskara bere osotasunean ezagutzen eta aintzakotzat hartzen ez duen kazetariak euskaldun peto-petoari zer edo zer galdetu eta honek bere euskara ez dela ona eta ez duela hitz egin nahi erantzuteak! Zer zirrara eta zer tristura sortzen duen euskaldun peto-petoa bulego batera joan eta bertako langile euskaldunarekin erdaraz jarduteak! Zer zirrara eta zer tristura sortzen duen guraso euskaldun peto-petoa seme-alaben irakasle euskaldunarengana joan eta bien arteko solasa erdaraz izateak!

Eta joan den urteetan zenbat bider ez ote ditugu horrelakoak entzun eta ikusi! Ezbairik gabe, meritu haundia dauka agiriak eta profilak lortzeak; baina askozaz ere meritu haundiagoa dauka hizkuntzaren bidezko komunikazioa lortzen eta inkomunikazioa saihesten egoki asmatzeak.

ETORKIZUNARI BEGIRA OHAR BATZUK

Gaurregungo ikuspegitik begiratuta, harritzekoa ere bada euskalkien arteko aldeak hain handiak izan, eta euskara batua zabaltzeko inolako plangintzarik

tajutu ez izana. Horrek, jakina, badu bere arrazoia. Ez dugu ahaztu behar 1968an aurkeztu zela euskara batua, bete-betean Francoren diktadura garaian. Euskaltzaindia zen orduan euskara garatzeko eta bultzatzeko erakunde bakarra; bitartekoetan urri eta ahalmenetan mugatu zen Euskaltzaindia. Ahal bezala egin ziren gauzak orduan, eta ahal bezala egin dira gauzak gero. Baina, joanak joan, etorkizunari begira jarri behar dugu, eta nahiz eta berandu gabiltzan, oraindik ere ez dago dena galduta.

Helburua behinik behin argia da: euskararen osasuna hobetu behar da, eta horretarako hiztunak beraren euskaran konfiantza osoa izan behar du. Eta beraren euskara erdialdeko euskalkia ez bada, batuarekin batera eta batuaz gainera, beste horiek ere erabili egin beharko dira.

Euskalkiak erabiltzeko, berriz, lau arlo ikusten ditut:

a) Aisialdia.

b) Irakaskuntza.

c) Herri hedabideak.

d) Administrazioa, batez ere udal eta foru esparruetakoa.

Izango da arloz arlo gauzak hobeto zehazteko aukera, baina ohar orokor batzuk egingo ditut behinik behin.

1. Aisialdia

Alor honexeri deritzot euskalkiak lantzeko bitartekorik egokiena. Neskamutilek eskolorduetatik kanpo egin ohi dituzten kirol saioak, ikastaroak (pintura, musika, argazkigintza, zeramika, bideogintza...), ibilaldiak, kanpaldiak... sartzen dira sail honetan. Ekintza hauetan guztiotan ahozko hizkuntza erabili ohi da gehienbat; nekez hizkuntza idatzia. Esparru hau zeharo eta erabat dagokio, nire ustez, euskalkiari.

2. Irakaskuntza

Irakaskuntzan badirudi mailaz mailakoa izan beharko lukeela euskalkitik baturako bidea. Esango nuke, Europako beste herrialde batzuetan bezala, lehen mailetako irakasleak haurraren euskalki berekoak izan beharko luketela. Ez da nahikoa irakasleak euskaraz jakite hutsa; haurraren euskalkia ere jakin egin behar du. Ondorengo mailetan, berriz, irakurmenaren eta idazmenaren bidez landu liteke euskara batua, eta mintzamena bertako euskalkian egin.

Irakaskuntzaren barruan leku esanguratsua dute euskaltegiek, eta arlo honetan ere gauzak zeharo beste era batera egin beharko liratekeela iruditzen zait.

Inguruko jardunean erabilienak diren hitzak eta egiturak irakatsi beharko litzaizkioke lehenengo eta behin ikasleari. Horrela egitera, eskolan ikasitakoa berehala baliatu ahalko luke eskolatik kanpo ere. Baina, ostera, bertako hizkerarekin zerikusirik ez daukan bat irakasten bazaio, *Kutsidazu bidea, Ixabel* kontakizuneko protagonistari bezala, suahiliera begitanduko zaio autoktonoek darabiltena eta hauek, berriz, amaigabeko eztabaidetan galduko dira euskaltegiko ikaslearen euskalkia Bonaparteren mapan kokatu ezinda.

3. Herri hedabideak

Ez dago zalantzarik ETBko, Euskadi Irratiko, *Euskaldunon Egunkariko, Argia* aldizkariko hizkuntza euskara batua izan behar duela. Euskal Herri osoko hedabideak direnez, bidezkoa da Euskal Herri osoko hizkuntza erabiltzea. Baina bidezkoa da, era berean, esparru murritzagoko hedabideetan esparru horietako entzule, ikusle eta irakurleei gertuagokoa zaien hizkera erabiltzea. Horixe da, esate baterako, Bizkaia Irratiak, Eibarko Arrate Irratiak eta *Eta kitto!* aldizkariak egin duten aukera, eta aukera hori egin izatean dago, besteak beste, hedabideok lortu duten arrakasta.

Herri hazietan —aipatu berri den Eibar bera, esate baterako— bidezkoa da euskalkiarekin batera euskara batua ere erabiltzea, asko direlako halako herrietan euskara batua besterik ez dakitenak. Baina estandarra erabili arren, lexikoan eta sintaxian bertakoari eman beharko litzaioke erabateko nagusitasuna.

Hedabideen artean, gainera, ahoz eta idatziz dihardutenak bereizi behar dira. Batez ere ahozko hizkuntza lantzen duten herri irrati eta telebistetan erabili beharko litzateke euskalkia.

4. Administrazioa

Nahitaezkoa da herritarrekin hartu-emanetan jardun behar duenak herritarren hizkera jakitea. Hizkuntza nolakoa den, halakoa izango da herritarren eta Administrazioko ordezkarien arteko hartu-emana. Eta hurbileko hartu-emana nahi bada, hurbilekoa izan beharko da hizkuntza.

Dena dela, administrazio mota asko dira, eta bakoitzean erabili beharreko hizkera motak ere desberdinak izango dira. EAE osokoa den *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* (alegia, boletin ofizialean), esate baterako, euskara batua erabiltzea da zentzuzkoa. Ostera, Nafarroako Malerreka eskualde euskaldunean pediatra lanetan diharduenak bertako euskara erabiltzea litzateke zentzuzkoa. Orobat Bizkaiko Lea-Artibai eskualde euskaldunean basozain lanetan diharduenak.

EUSKALTZAINDIAREN GIDARITZA

Baina ezin dugu itsu-itsuan euskalkien basoan barrena abiatu. Gidaritza on bat behar da, zeren, bestela, edozein zuhaitzek eragotz dezake basoa bere osotasunean ikustea. Eta horixe da, hain zuzen, euskalkien auzi honetan sarri askotan gertatzen dena. Hizkera baten ezaugarri peto-petotzat daukaguna atzo goizean sortutako berrikuntza izan daiteke eta, gainera, erdara bera ere izan daiteke ezaugarri horren jatorria.

Helburutzat euskararen osasuna sendotzea dugunez, oso kontuan izan beharko dugu zer bultzatzen eta zer babesten dugun. Euskalki edo hizkuntza eremu zabal baten antzinatik dagoena babestu beharko da. Inondik inora ere ez azken herriko, azken auzoko, azken baserriko ehun urteko emakume xaharrak erabiltzen duen hitza edo esapidea eta, zer esanik ez, hizkuntzaren tradizioan sustraituta ez dagoena.

Goian aipatu den Nor-Nork saileko adizkien ordez Nor-Nori-Nork sailekoak erabiltzea da esan nahi dudanaren adibide bat. Nafarroa gehienean oso arrunta da joera hau, eta Bizkai-Gipuzkoetan ere geroz eta zabalduago dago, eta, hala ere, ez nuke esango horren alde egin beharko genukeenik. Bizkai gehienean, eta aspalditik gainera, ohikoak dira *ez dakit etorriko bada* tankerako esapideak, baina ez dut uste joera hau ere bultzatu eta babestu beharko genukeenik. Bizkaian barrena *atzo ikusi doten* tankerakoak ere entzungo ditugu, eta baita *erosi leikezu* tankerakoak ere, baina ez dut uste honelakoak ere bultzatu eta babestu beharko genituzkeenik.

Dena dela, honetan ere mailak eta mailak daude. Ez dute zertan berdinak izan lagunarteko eta irratiko hizkerak, esate baterako. Eta irratian bertan ere aldeak izan daitezke irratsaio batetik bestera. Gaia zein den, nori zuzentzen zaion... hainbat gauzak izango dute zerikusia.

Garbi dago asko eta askotarikoak izango direla bidean barrena sortuko diren korapiloak. Korapilo horiek askatzeko beti izango da lagungarri euskararen historian eta dialektologian adituak direnen argia, eta horrexegatik iruditzen zait euskalkiak bultzatzeko egitasmo hau Euskaltzaindiaren barruan garatu beharko litzatekeela. Baina, jakina, Euskaltzaindiaren baitan sortutako batzorde berezi horren ardatz eta zutabe nagusi gorago aipatu diren lau arloetako ordezkariak eta soziolinguistika gaietan adituak —edo, behinik behin, arituak— izan beharko lukete.

TXOMIN AGIRRE-REN *AUÑEMENDIKO LOREA*-REN MENDEURRENA

Zumaia, 1998-XI-19

AUÑEMENDIKO LOREA (1898): EUSKAL ELEBERRIGINTZAK EHUN URTE

Zumaia, 1998-XI-19

Ana M.ª Toledo

Atseginez jaso nuen Euskaltzaindiaren zuzendaritzak gaurko ekitaldian parte hartzeko egin zidan gonbita. Abagunea probetxatuz eskertzen dudan gonbitak ospakizuna gogarazten zidan, *Auñemendiko Lorea*ren mendeurrena, alegia, eta gai horren inguruan mintzalditxoa eskatzen. Gaiak mintzaldi batzuetarako ematen duenez, nik neuk hartu ahal izan dut gaurko ihardunaldiari izenburua jartzeko lizentzia: *Auñemendiko Lorea (1898): euskal eleberrigintzak ehun urte*. Izenburu honekin *Auñemendiko Lorea*ren mendeurrena, euskal eleberrigintzaren mendeurrenera zabaldu nahi nuke, hain zuzen ere, zabaltze hori zilegiztatzen duten oinarriak izan badirelakoan. Nire ondorengo hitzak horretara zuzenduko dira, hau da, euskal eleberrigintzaren mendeurrena ere ospatzen ari garela azaltzera.

Jakin badakigu, data, egile eta titulu konkretuak mugarritzat ipintzeak piska edo puska bat zor diola konbentzioari eta ihardunaldiari eman diogun izenburua bide, 1898an, Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorea*n ari gara jartzen euskal eleberriaren sorrera. Gertaera honek ere konbentzioari zerbait zor dio. Zinez euskal kontagintza ez da hasten 1898an, lehenago baino. Mende hasieraz geroztik, poliki-poliki lantzen joan den soroa da kontagintzarena: eleberria ez da sortzen egun batetik bestera. Astiro-astiro esparru-hedaketari ekin dio prosak. XIX. menderarte prosa diskurtsiboak ez du besterekin banatu bere alorra. Prosa-mota bakar legez landu da XVI. mendean sortu zenetik. Ia hiru mende beharko ditu, hesiak hautsiz, bide berriak urratzen hasteko autu, eta oro har kontaketaren bidez. Ibilaldi luze eta urri samar baten ondotik, mende-mugan, 1898an, kokatuko genuke eleberriaren sorrera. Beraz, "*Auñemendiko Lorea* (1898): euskal eleberrigintzak ehun urte" horrek konbentzioari zerbait zor dio. Zorrak zor, izenburua eta, jakina, beronen esanahia onar daiteke. Onarpen hau oinarriztatzera bideratuko da nire gaurko mintzaldi hau.

Ezarri dugun helburua betetzeko XIX. mendean barrena ibilaldi arin bat egingo dugu. Ibilaldi horrek bi gertaera utziko dizkigu agerian. Gertaera horietako bat honakoa da: testu-ekoizpenaren aldetik, XIXan zehar prosa diskurtsiboak nagusi izaten jarraitzen du, baina halako oparotasunarekin ez bada ere, apal-apal prosa narratiboak bere agerrera egiten du. Bestea, berriz, ondokoa:

prosa narratiboak mendearen azken herenean agerrera eginagatik, mende-mugararte, 1898rarte, nekez jar daiteke eleberriaren sorrera. Sorrera hau egile, data eta titulu batean zehaztekotan, Agirre, 1898a eta *Auñemendiko Lorea* hirukotea aipatu behar.

Honela bada, gaurko ihardunaldiaren lehen urratsa *Auñemendiko Lorea*ren aurretik euskal prosa diskurtsiboaren eremua uzten duten testuen altxorrak hartzen duen neurria azaltzea izango da. Altxor horretan eleberri izendapena eman dakiokeen titulurik nabarmenduko ez denez, *Auñemendiko Lorea*ren azterketara joko dugu xede jakin batekin: izenburu horretan euskal eleberriaren hasiera ezar daitekeen atzeman. Azterketa burutzeko bi ikuspuntutatik begiratuko dugu Txomin Agirrek argitaratutako lehen liburua. Lehen begiradak ezaugarri estrintsekoetan erreparatuko du, alegia, eleberri deitu izan diren testuak mugatzean erabili diren kanpo-ezaugarriak izango ditu ardatz, datu objetiboen bidez neur daitezkeen haiek, hain zuzen ere: luzera, kasu. Ondoren bai, ondoren ezaugarri intrintsekoak bihurtuko dira aztergai, barnera begiratuz, testua, *Auñemendiko Lorea* eta bere eraketa eraikiko da aztergune. Beraz, labur bada ere, deskribatu egingo dugu eleberria, zer eta nola kontatzen duen azaldu eta deskripzio honen argitan eleberritzat jo dezakegun planteatu, kontrako eta aldeko arrazoiak emanaz. Azkenik, ondorioen ordua izango da, ibilbidearen amaierarena. Amaiera horrek erakutsiko ahal du mintzaldi honi eman diogun izenburuaren egokitasuna! Hau da, *Auñemendiko Lorea*ren mendeurrena betetzean euskal eleberrigintzak mendeurrena betetzen duela, izenburuaren egokitasuna frogatua edo erakutsia gelditzen dela.

Honenbestez, jarraituko dugun bidea honakoa da: izenburuan tesia ezarri, tesi honen aldeko eta kontrako argumentuak eman garapenean eta, bukatzeko, ondorioetan tesia "frogatua" utzi. Ihardunaldiari egituratze-modu ezaguna emango diogu, nahiz eta aurretiaz jakin, Agirrek egituratze-modu honen erabileran agertu zuen trebezia erdiestea ez dugula eskuratuko. Ezta urrik eman ere. Berak nola sermoiak hala eleberriak taxutzerakoan arrazonamendu-modu honi atera zion etekinetik eta erakutsi zuen maisutasunetik urrun geldituko garela, alegia. Maila hori lortzea ezinezkoa bazaigu ere, bihoa hitzaldiaren eraketa hau lehen eleberrigileari egindako omenaldi xume legez, bere lehen eleberriaren mendeurren honetan.

Gatozen bada agindutakoa betetzen hastera. Esan bezala XIX. mendearen hastapenetan koka daitezke prosa diskurtsiboaren eremua zabaltzen hasi dela adierazten duten lehen zantzuak. Ordurarte prosa diskurtsiboak ez du besterekin banatu prosaren alorra (1). Berea eta berea bakarrik izan da. Baina Juan

(1) Izan bada 1653ko eskuizkribu bat honako izenburupean: *Modo breue de aprender la lengua Vizcayna compuesto por el Ldo. Rafael Micoleta, presbyt.º de la muy leal y noble Villa de Bilbao*. Jakina denez, Mikoletaren idazlan honen atal bat autu edo elkarrizketak osatzen dute. Itzulpenak dira. Ik. IRIGOYEN, Alfonso: "Bilbo eta euskara" in *Euskera*, XXII (2. aldia), 1977. Ik., halaber, SARASOLA, Ibon: "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos" in *ASJU*, XVII, 1983. Edonola ere, Mikoletaren idazlanak ez zuen argirik ikusi XIX. menderarte.

Antonio Mogelek mendearen hasieran *Peru Abarca* idazten duenean (2), autuari irekitzen dio bidea; bere iloba Bizenta Mogelek *Ipui onac* 1804an argitaratzen duenean, alegiari. Bizenta Mogelen alegiak itzulpenak dira; Juan Antonio Mogelen idazlanak jarri zion azpituluari erantzuten dio: "Euskaldun baserritar bakarti baten eta Maixu Juan izeneko bizargin kaletar baten arteko autuak". Marko narratibo xume baten barnean garatzen badira ere, eta, noiz edo noiz, euskal eleberriaren sorrera bertan jartzeko tentazioa sortu badute ere, autua den genero horren deskripzioari gehiago egokitzen zaizkio beste ezeri baino.

Horrela, XIX. mendearen hasieran autu eta alegi itzulpenen bidez prosaren esparrua hedatzen hasten da. Ez dira, gainera, isolaturik gelditzen diren generoak. Autuak titulu berriak eskainiko ditu mendean barrena: Agustin Pascual Iturriagaren *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842) edo Jean Duvoisinen *Laborantzako liburua* (1858) lekuko. Berdin gertatuko da alegigintzarekin, ugarituz joango baita, nahiz eta aurrerantzean egile desberdinek neurtitza hobetsiko duten hizlauaren aurrean. Autu eta alegiei leienda batuko zaie Donostiako euskal festen sorrerarekin 1879an; izan ere, festa hauetako literatur lehiaketaren atal batek leienda edo tradizioren batean oinarritzen diren kontaketa laburrak saritzen ditu. Batipat Donostiako euskal festek alderdi honetan eginiko ekarriari esker eta beste zenbait euskal festaren eskutik argitaratu zirenak bide, hogeita hamarren kontaketa labur inprimatu ziren lehen saria edo aipamenen bat eskuratzeagatik.

Gisa honetan prosaren barrutia zabalduz doan arren, eleberriaren sorreraz hitz egiteko, gorputz sendoagoa aurkezten duten kontaketetara jo behar, dela 1870ean Jean Baptiste Dasconagerrek kaleratzen duen *Atheka-gaitzeko oihartzunak* izenekora, dela Jean Duvoisinek 1884-1885 urteen artean *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*en argitaratutako *Baigorriko zazpi liliak* izenekora, dela 1888an Jean Baptiste Elizanburuk kaleratutako *Piarres Adame* izenekora edo 1893an Resurreccion Maria Azkueren eskutik datorren *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko*ra. Aipatu zerrenda ez da exhaustiboa, bai ordea, 1898a baino lehen argitaratutako kontaketa-prosaren erakuskari zabal eta adierazgarria.

Jean Baptiste Dasconagerreren *Atheka-gaitzeko oihartzunak* euskal lehen eleberritzat jo izan bada ere (3), itzulpena da. *Les échos du Pas de Roland*

(2) Nahiz eta argirik ikusterik ez zuen izan mendearen azken laurdenerarte, harik eta *Betibat* aldizkariak atalka-atalka 1880an argitaratu zuen arte eta Durangon 1881eko datarekin liburu gisa kaleratu arte, mende hasierarako idatzita zegoen. Juan Antonio Mogel 1804an hil zen. Beraz, ordurako idatzita behar zuen. Angel Zelaietarentzat 1802rako burutua du Mogelek *Peru Abarca*: "Gauza bat, behinik behin, zihur dakigu: 1802.eko Otsailaren 26a baino lehenago egina zuela. Izan ere, fetxa honetan Vargas Ponceri bidali zion gutun batetan hori adierazten zion". ZELAIETA, Angel: *Peru Abarcaren berrirakurtzea*, Kriselu, Donostia, 1979, 7. or.

(3) "Lafitte saluda esta obra como la primera novela que se haya escrito en vasco". Ik. VILLASANTE, Fr. Luis: *Historia de la literatura vasca*, Editorial Aránzazu, Burgos, 1979, 2.ª edición revisada y completada, 169. or.

idazlanak jatorriz euskaraz idatzitako eleberri baten itzulpena zela zioen. Baina jatorriz euskaraz idatzitako eleberri hori ez zen inoiz agertu eta berez ezagutzen dugun *Atheka-gaitzeko oihartzunak Les échos du Pas de Roland*-en itzulpena da. Dasconagerrek berak egin ez zuen itzulpena, gainera; izan ere, besteren esku utzi zuen eta itzulpenak sortutako gorabehera frankoren ondotik argitaratu zen egun ezagutzen dugun testua.

Izendatu ditugun gainontzeko tituluak gogoan, 1898an *Euskalzale* aldizkarian *Auñemendiko Lorea*ren atalka-atalkako argitalpenari hasiera ematean Resurreccion Maria Azkuek esana dakargu:

> "Auxe da euskeraz egin dan lenengo irakurgaia. Au baiño aurrerago jaio direnak, batzuk erdiz-erdizean baiño eztira agertu (*Batxi guzur, Peru Matraka ta Pedranton* da besteren bat); beste batzuk irakurgaia baiño irakurgaitxuaren izena egokiagoa edo aiutuagoa dabe" (4).

Azkuek Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorea*n jartzen du euskal eleberriaren sorrera, garai hartan eta baita beranduago ere, besteren artean, genero honen izendapenerako erabili zuten hitza erabiliz: irakurgaia. Gainontzekoak edo "erdiz-erdizean" agertu dira (5) edo "irakurgaitxu" izendapena egokiago dute. Ez zebilen oker. "Irakurgaitxu"-tzat jotzen dituenak izendatzen ez dituenez, ez dago zehatz-mehatz jakiterik zeintzuk zituen gogoan baiezpen hori egitean. Dena den ez zuen hutsik egin. Begi bistakoa da luzera darabilela irizpidetzat. Ez da Azkuek asmatutako irizpidea, ezta Azkueren garaian gainditurik zegoena ere: luzera erabili da kontaketa-generoak elkarrengandik bereizteko bide moduan.

Eleberria mugatzeko egin da saio franko. Saio hauen emaitzetatik ez da sortu, ordea, gogobeteko mugaketarik. Ezin aurki daiteke bakar bat ahobatez onartzen denik, nola eta ez den mugagabetzat jotzen duena (6). Genero mugagabea baino muga estuagorik jartzeko biderik eman ez duenean, mugaketa orori ihes egiteko ahalmena erakutsi duela ondorioztatu behar. Bere ibilbide askeak hesi oro gainditu du. Kritiko eta azterlariek kanpotik nahiz barnetik atzeman dute eleberria gainontzeko kontaketa-generoetatik bereizteko. Luzera bezalako kanpo-ezaugarria hartu dute irizpidetzat edo eta pertsonaiei emaniko tratamentua bezalako barne-ezaugarria. Mugaketa-ekintzan egindako hurbilpenak izatetik ez dira igaro. Ez dago bete-betea den eleberriaren definiziorik.

---

(4) *Euskalzale*, II, 1898, 12. or.

(5) Azkuek berak idatziak dira aipatzen dituen tituluak. *Batxi guzur*-en atal batzuk *Euskalzale* aldizkarian eman zituen (I, 1897). *Peru Matraka ta Pedranton*-enak *La Abeja* aldizkarian (1889-1890) "Ezti-Abauak" goitizenaren azpian ezkutatuz bere burua. Egitura irekia aurkezten dute bi kontaketek. Atal bakoitza kontaketen izenburuek izendatzen dituzten pertsonaien ibilerak osatzen du: atal berri bakoitza pertsonaia berdinen ibilera berriekin burutzen da. Honenbestez, ez da harrigarria egileak berak "erdiz-erdizean" argitaratutakotzat jotzea.

(6) Ik. ROBERT, Marthe: *Novela de los orígenes y orígenes de la novela*, Taurus Ediciones, Madrid, 1973. "El género indefinido" izenburua darama lehen atalak.

Goraxeago esan den bezala, gogo oro asetzeko gauza izan ez den arren, luzeraren irizpidea erabili da eleberria mugatzeko (7). Mugarri finko, hertsi eta mugiezinak jartzeko ahalmena ezin eman dakioke luzeraren irizpideari, bai ordea hala-moduzko mugarriak jartzeko beste, norabidea erakusteko beste. Badirudi eleberriek kontatzen dituzten istorioek orrialdeak eskatzen dituztela beren garapenerako. Dirudienez, Azkue ohartu zen honetaz eta bere *Bein da betiko* (1893), tituluaren aurretik "lenengo irakurgaia" zeramala argitaratua bazuen ere, "irakurgaitxu"-an utzi zuen 1898an, *Auñemendiko Lorea*ri eskaintzeko lehen irakurgaia izatearen ohorea.

Auñemendiko Lorea heldu aurretik jatorriz euskaraz idatzitako kontaketa guztiak dira laburrak. XIX. mendean idatzitako kontaketarik luzeena *Auñemendiko Lorea* da, modu nabarmenean gainera, eta, hala ere, ez da luzea.

Dena den, eleberriaren hasiera lekutzerakoan, hitz-kopuruaren irizpide hutsean gelditzea arinegia izan daiteke. Osa dezagun, beraz, berau, beste kanpo-ezaugarriren batekin barne-ezaugarrietara jo baino lehen. Luzeraren irizpideari beste kanpo-ezaugarri hau erants diezaiokegu: kontaketak idazlearen idaztekintzan hartzen duen tartea. Txomin Agirrek kontaketa-prosari heldu aurretik euskal idazle desberdinek adierazpen-modu honi eskainitako arretaz ari gara, hain zuzen ere.

Jean Duvoisinek eta Jean Baptiste Elizanburuk lehentxoago aipatutako kontaketak besterik ez zituzten argitaratu. Ezin esan daiteke generoari jarraipenik eman ziotenik.

Euskalgintzan fruitu ugari eman zuen Duvoisinentzat kontagintza ez zen izan, ez arretagune nagusia ezta eskerronekoena ere. Duvoisin ez zen iritsi Fénelon-en *Aventures de Télémaque*-ren (1699) itzulpena bukatzera; are gutxiago, itzulitakoa argitaratzera. XX. mende honen azken alderarte ez du aurkitu edizio-prestatzailerik (8). Duvoisinek *Baigorriko zazpi liliak* kontaketarekin zorte hobea izan zuen: *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkariak argitaratu zuen, baina ez zuen liburu gisa kaleratuta ikusterik izan. XX. mende honen azken urteak heldu zaizkio liburu-mailako plazaratzea lortu orduko (9). Zinez, ez da idazle baten lana balioztatzeko modurik aproposena eta aipatu gorabeherak nekez bihur daitezke gogo-pizgarri. Edo etsi zuelako edo beste mota bateko lanei lehentasuna eman zielako, Duvoisinek ez zion tarte handiagorik egin kontaketari.

Duvoisinek eta Elizanburuk erretratu desberdinak projektatzen dituzte, nola bataren eta bestearen testugintzaren neurrien ikuspuntutik, hala testugintza

(7) Azkenean E.M. Forster gutxi-gorabeherako luzera mugatzera iristen da: "aunque tal vez nos atrevamos a añadir que la extensión no debe ser inferior a las cincuenta mil palabras". Ik. *Aspectos de la novela*, Editorial Debate, Madrid, 1983, 12. or.

(8) Ik. FÉNELON-DUVOISIN: *Telemake. Ulisen semearen gertakuntzak*, Elkar, Donostia, 1988. Patri Urkizuk prestaturiko edizioa.

(9) Juan San Martinek prestaturiko edizioa Elkar argitaletxeak 1987an argitaratu zuen.

horrek argia ikustean ezagututako zortearen ikuspuntutik. Elizanbururen idaztekintzak esker hobea jaso zuen inprentan, itxura batean behintzat. *Piarres Adamek* aldizkari-mailako atalka-atalkako argitalpenaz gain, 1888an (10) liburu gisakoa izan zuen. Elizanburuk *Piarres Adame*ren bukaeran agindu ere agindu zuen jarraipena, hots, beste liburu bat edo gehiago (11). Ez zen iritsi, ordea. Elizanburu ez zen izan idazle oparoa ez hizlauz, ez neurtitzez.

Arras bestelako aurkezten zaigu Resurreccion Maria Azkue. Ugaria da benetan. Ugaria ez-ezik, ikerketaren eta idaztekintzaren barruti desberdinak jorratzen dituena. Kontagintza soil-soilik begiratuz, berehala atzematen da Duvoisinek eta Elizanburuk baino askoz gehiago garatu zuela adierazpen-modu hau. Azkuek "erdiz-erdizean" argitaratu zituen kontaketa laburrei *Bein da betiko* eransten die, beranduago, *Ardi galdua* (1918), laburra, halaber. Luzeena, luze samarra gainera, Euskaltzaindiak bultzatuta plazaratu da 1989an: *Latsibi.* Edizio honen hitzaurreak 1930. urte inguruan kokatzen du idazketa-garaia eta azal-hegalean esaten zaigunez "Azkue esperó toda la vida a que apareciera algún mecenas que financiase su obra, pero al parecer infructuosamente". Azalhegal horrek berorrek idazlanaren izaeraz zenbait argitasun ematen ditu: "es una obra de carácter narrativo" eta aurreraxeago, berriz, honela dio: "*Latsibi*, podría ser calificada de «novela», aunque con algunas restricciones" (12).

Honela bada, Txomin Agirre joko genuke lehen euskal eleberrigiletzat. Agirre da lehen euskal idazlea eleberriak eskatzen duen luzera-modua erakusten duten lehen hiru idazlanak plazaratzen dituena: *Auñemendiko Lorea* (1898), *Kresala* (1906), *Garoa* (1912). Laugarren baten lehen kapituluak ere argitaratu zituen: *Ni ta ni* (13). Azkuek *Ardi galdua* plazaratu orduko plazaratuak zituen guztiak.

Agirreren idaztekintza ez zen mugatu eleberrigintzara, ezta, kontzeptu zabalago batera joaz, kontaketara ere. Irakurgaiez gainera (egun eleberri izendatzen ditugunak), berak erabilitako izendapen-modua jarraituz, ipuinak, izkirimiriak, irakurkizunak, hitz neurtuak, itzulpenak, hitzaldiak, sermoiak idatzi eta argitaratu zituen. Baina, XX. mende honen bukaeratik begiratuta, zalantzarik gabe, Agirre eleberrigilea nagusitu da, haren eleberriak izan baitira bizi-iraupenik sendoena lortu dutenak. Eleberriak izan dira denboraren igarotzeak dakarren higadura gaindituz, arrazoiak arrazoi eta zirkunstantziak zirkunstan-

(10) Ik. LARZABAL, Frédéric Batiste: "J.B. Elissanburu eta Oxalde, bi gorri. I. Elissanburu" in *Ekaina. Revue d'Etudes Basques*, Editée par l'Association culturelle Amalur, n.º 15, 1985, 161-162. orr.

(11) "(Denbora laburrik barnean, berriz hasteko xedea dugu mintzatzen Piarres Adameren gaztetasuneko, bai eta ere zahartasuneko hitztorio zenbaitez.)". ELISSAMBURU, Jean Baptiste: *Piarres Adame*, Klasikoak Saila, 5, Elkar, Donostia, 1986. Ibon Sarasolak prestaturiko edizioa.

(12) AZKUE, Resurreccion Maria: *Latsibi*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1989. Edizio-prestakuntza: Mirari Alberdi, Labayru Ikastegiko "Mikel Zarate" Mintegia.

(13) *Euskal-Esnalea*, VII, 1917, 169-173, 200-203, 210-215. orr.

tzia, "irakurgai" izaten jarraitzen dutenak eta garai baten mundu-ikuskera eta idazkera-moduaren adierazpen biziak.

Orain arte azaldutakoa, kanpo-ezaugarrietan barrena egindako ibilbidea izan da. Kontaketa-prosa erabiliz burututako idazlanak aurkezten zuen luzeran oinarritu da lehen irizpidea, luzeran oinarritutako irizpideari beste hau erantsi zaio: zentzu testimoniala baino harantzagokorik ematen ez duen titulu bakarra gainditzea, edo bestela esan, generoari jarraipena ematea. Agirre da lehenbiziko euskal eleberrigilea irizpide horiek jarraituz, Agirre delako eleberriak eskatzen duen luzera-moduaren barnean hiru idazlan argitaratzen dituena, beste inor baino lehen. Honelako baiezpen batek, jadanik esan denez, badu zorrik konbentzioekin. Agerian gelditu da XIX. mendearen hasieraz gero hizlauaren barrutia zabaltzen hasia zela, baina eleberriaren hasiera data, titulu eta egile bati atxikitzea ez dirudi Agirreren *Auñemendiko Lorea* aurretik egin daitekeenik, erabilitako irizpideen arabera: kontaketa-prosaz baliatuz burututako idazlanaren luzera eta idazlanen kopurua.

Hitzaldi honen hasieran ezarri dugun bidean aurreratzeko, jo dezagun *Auñemendiko Lorea*ren barne-ezaugarrien deskripziora. *Auñemendiko Lorea*k kristau-fedearen garaipena irudikatzen du Auñemendi mendietan eta Auñemendi mendi hauei balio sinekdotikoa emanaz Euskal Herri osoan. Garaipen hori irudikatzeko Riktrudis pertsonaiaz baliatzen da Agirre. Riktrudis da Auñemendiko Lorea, edertasunak ezaugarriztatzen duen pertsonaia protagonista, kristau-fedearen edertasuna irudikatzeko erabiltzen den bitartekoa. Riktrudis ederra da, zintzoa, aingeruak langoa, usoa. Projektatzen duen edertasun honek, besterik gabe, lortuko du gesta epikoa: kristau-fedearen garaipena. Tamaina horretako gesta bere edertasuna erakutsiz egonaz burutzen du. Ez du bidaia arriskutsurik egin beharrik auñemenditarren esku jartzeko betiko zoriona agintzen dien ondasuna. Riktrudis kristaua, kristautasun honen edertasuna erakutsiz egon dago harik eta edertasun horrek Portun euskal agintari fede zaharrekoa liluratzen duen arte. Horra hor, Riktrudis heroearen gesta, Portun kristautu, fede zaharreko agintaria kristautu eta modu honetan ondasun neurtezina jarri auñemenditarren eskuetan: kristau-fedea, betiko salbazioa agintzen duen ondasuna. Riktrudisek erdietsitako garaipena gozatuko dutenak ez dira bere etxekoak; ez da maila pribatuan gelditzen den garaipena; aitzitik, herri osoarentzat, auñemenditar guztientzat lortutakoa, nahiz eta bere herkideak ez izan eskaera luzatu diotenak. Izan ere, berezi samarra da Riktrudisek aldaketa protagonizatzeko darabilen modua: ez du ekintzarik burutu beharrik izan. Riktrudis ez dabil etxerik-etxe fede berria zabaltzen, edo ez du gerraterik sortzen fede zaharrekoak kristautzeko, edo... Egonaz, bere edertasuna erakutsiz egonaz burutzen du aldaketa: kristau-fedearen garaipena lortu Auñemendi mendietan. Bere senar Adalbaldo lurperatuta zegoen tokian otoitzean ari zela, Portun hurbilduko zaio, auñemenditarrek hil zuten bere senar Adalbaldo frankotarrari azken haizkorakada eman ziona, hain zuzen ere. Hilerri honetan Riktrudisek eta Portunek izandako elkarrizketaren ondotik, "Portun, emakume donea azkenen-

go ikusi ebanetik laster bere erruak ezaguturik, kristiñau egin zan, eta arako done Pablo baten gisara, zar-zarra zala bere, erririk-erri ebillen Iesukristoren legea zabaltzen, bere gaztetako gaiztokeri guztiak autortuaz. Riktrudisegaz gura eban bizi zeruetan" (14). Edertasunak, kristau-fedearen edertasunak lortutako miraria da. Kristau-fedearen edertasuna erakusten egon den Riktrudisek azkenean erdietsi du bere mezua heleraztea: Portun euskal agintari fede zaharrekoak entzun du.

Edertasunak mugatzen du Riktrudis, frankotarren kontrako sentimenduek eta fede zaharrak Portun... eta *Auñemendiko Lorea*ko pertsonaien mundua zabaltzen denean, bigarren mailakoak ere atzemateko, protagonista-antagonistak erakusten duten karakterizazio-modu sinple berberaz janzten direla begi bistakoa da: leialtasunak mugatzen du Pedro Mari morroia, desleialtasunak, berriz, Lope Nagi morroia. Edertasuna, frankotarren aurkako gorrotoa eta fede zaharra, leialtasuna, desleialtasuna... kualitate bakarrera mugatzen da pertsonaia. Ez dira pertsonaiak, ez dute hezur-haragizko pertsonen antzik, ez dira gizakiak, ez gizabanakoak, gizakiok kontraesanak ditugulako, antinomiak gugan bizi direlako, aldarteen arabera jokatzen dugulako... hitz batean, gizakiaren konplexutasun psikologikoa sinplifikaturik agertzen da; izan ere, pertsonaia ezaugarri bakar baten arabera, eta horren arabera bakarrik, jokatzen jartzen da gainontzeko alderdiez abstrazioa eginaz: edertasuna, leialtasuna, desleialtasuna... Ezaugarri horietako bat irudikatzeko bitarteko bihurtzen da pertsonaia. Hori da bere eginkizuna kontaketan eta ez da garatzen beste alderdirik.

Ideia bat irudikatzeko darabiltzan pertsonaiok VII. mendean kokatzen ditu egileak. Aldaketa garrantzizkoa dakarren VII. mendean bizi dira auñemenditarrak, jentiltasunetik kristau-sinismenerako iraganbidean murgildurik dagoen mendean. Frankotar eta auñemenditarren arteko borrokak, kristauak diren frankotar eta fede zahardunez eta berridunez osatuta dagoen auñemenditarren arteko gatazkak pil-pilean dituen garaia da. Baina Agirreren *Auñemendiko Lorea*k ez du Euskal Herriko VII. mendearen kronikarik egin; izan ere, pertsonaien izaera eta ekintzak ez dira aurkezten giro historiko jakin batean txertaturik, oso bestela baino: modu sinplean, dikotomikoan eta manikeoan. Ez da giro historikoa xehe-xehe aztertzen, are gutxiago pertsonaien jokabideak zirkunstantzia historikoekiko harremanean arakatzen. Hain gatazka bortitzen azpian bizi den gizarteak aurkez zezakeen konplexutasuna sinplifikatu egiten da *Auñemendiko Lorea*n. Gizakien jokabideetan ez du eraginik giroak eta, honenbestez, ez dago koordenada historikoetan kokatu beharrik.

Riktrudis, *Auñemendiko Lorea*ko protagonista, izaki perfektua da: ez dauka ikasi beharrik, ez hobetu beharrik, ez ezer bilatu beharrik, ez galderarik, ez zalantzarik. Ez du inolako gatazkarik ez bere buruarekin, ezta munduarekin ere. Erabat konformista da. Erantzunak ditu. Honela bada, egonean dago bere eder-

(14) AGIRRE, Txomin: *Auñemendiko Lorea*, Klasikoak Saila, 65, Ostoak, Donostia, 1998, 173. or. Ana Toledok prestaturiko edizioa.

tasuna erakutsiz. Bada, ordea, *Auñemendiko Lorea*n bere erraiekin eta munduarekin konforme bizi ez denik. Ezin izan zitekeen beste modu batean; gainontzean, ez baikenukeen izango istoriorik. Pertsonaia hori Portun da. Fede zaharrekoa izaki, ez du erantzun zuzenik emango dion kristau-federik. Txomin Agirreren eleberrietan kristau-fedeari tinko atxikirik bizi direnak bakarrik dauzkate erantzun zuzenak. Horrela, fede zaharrari eusten dion bitartean, Portun kondenatuta dago noraezean ibiltzera, huts egitera. Kristau-fedea besarkatu arte, han-hemenka liskarrak, gatazkak, borrokak eta zer-esanak sortzen ditu antagonistak. Zinez, han-hemenka sortzen ditu: Aitz barrengo eliz atarian edo oraindik mugagabeago gelditzen diren lekuetan. Salaketa latzak entzungo dira istorioan barrena, eliz ataritatik datozenak, Auñemenditik, eta abar, baina gertaera lazgarrien eragile izango diren liskar eta zer-esan horien sor-lekua ez da zehazten, ez da ñabarduraz betetzen, ez da partikularizatzen. Mugagabean ematen da eta zer-edo-zer mugatzera heltzen denean izen propioaren jabe izatera iristen da gehienez. Banakotzeko ahaleginik nagusiena izen propioaren bidez izendatzea da. Beraz, orokortasunak menderatzen du *Auñemendiko Lorea*. Oso modu orokorrean aurkezten diren koordenada narratiboak ditu euskarri.

Idazlanean barrena egindako ibilbide honen ondotik ez da zaila ondorioztatzea *Auñemendiko Lorea*k eleberriaren deskripzioari ez diola erantzuten. Hau da, honelako eraketa erakusten duen testua ezin izan daitekeela eleberri. Edo bestela esan, eleberria genero gisa deskribatu denean, kontaketa-forma honen ezaugarri bereizletzat jo diren markak ez dituela aurkezten *Auñemendiko Lorea*k eta, honenbestez, ezin koka daitekeela eleberriaren barrutian. Ez litzateke funtsik gabeko ikuspegia.

Orain artekoan, izenburutik bertatik hasita, *Auñemendiko Lorea*k irekitzen duela euskal eleberrigintzaren ibilbidea erakutsi nahi izan dugu. Ihardunaldiaren hasieran iragartzen genuen aldeko arrazoiak ez-ezik, kontrakoak ere azalduko genituela. Kontrako arrazoiei, kontrako argumentuei heltzeko une egokia izan daitekeenez, gatozen *Auñemendiko Lorea*ri eleberri izaera kentzera. Hona hemen ezabaketa horren arrazoi nagusia. Bada eleberriaren azterlaririk berau mugatzean planteamendu-modu hau egiten duenik: eleberria aurrekoak diren kontaketaren beste forma eta beste generoetatik bereizten da pertsonaiak eta beren ingurua banakotzeari eskaintzen dion arretagatik (15). Ez da azterlari isolatu baten eskutik datorren eleberriaren mugaketa. Eleberriari eskainitako hainbat azterketatan gisa honetako ezaugarriak atxikitzen zaizkio: eleberriak gizakia bizi den giroan aurkezten du eta horregatik giroaren aurkezpenak balio garrantzitsua eskuratzen du, garaiko ohiturak, pertsonaiaren bizitzako gauzarik

(15) J. Souvagek Ian Watt-ek egindako bereizketa bat jasotzen du: "Llegados aquí podemos considerar brevemente dos de las principales características por las que, según Ian Watt, la novela se distingue de otros géneros y otras formas anteriores de la narrativa, a saber, «la cantidad de atención que habitualmente presta... a la individualización de sus personajes y a la detallada presentación de su entorno»". SOUVAGE, J.: *Introducción al estudio de la novela*, Editorial Laia, Barcelona, 1982, 113. or.

nimiñoenak, egoera bat ezaugarriztatzen duten faktorerik txikienak tokia du. Premisa hauek jarraituz, *Auñemendiko Lorea* ezin izenda daiteke eleberri. Agirrek *Auñemendiko Lorea*ko koordenada narratiboak banakotzea hastapen-hastapenetan utzi du: izen propio baten jabe egin ditu pertsonaiak eta beren nortasuna mugatzen duen ezaugarriren bat atxiki die, beste hainbeste eta ez gehiago egin du gertaera-leku eta garaiarekin. Pertsonaia eta bere ingurunea banakotu gabe gelditzen da.

Kontrako argumentu honen aurka ere azal daiteke. Hara. Pertsonaiak eta beren ingurunea banakotzeari arreta eskaintzea ez da eleberri deitu den testu ororen ezaugarri, eleberri-modu batena baino, eleberri errealistarena, hain zuzen ere. Zinez, ez da edozein eleberrigintza-modu eleberrigintza errealista, baizik eta eredu eta erreferentzi puntu saihestezina. Zentzu honetan errealismoa eleberrigintzaren urrezko arotzat jo daiteke. Eleberri errealistak munduaren ikuspegi feudalarekin erabat hautsi eta kontzientzia modernoak dakarren mundu-ikuskera berria adierazten du. Kontzientzia moderno honek gizabanakoak diren pertsonen arteko harremanak ditu oinarri.

Eleberri modernoak partikularismoa, indibidualismoa, berezitasuna, banakotasuna ikusten du. Gizaki bakoitzak bere egia du. Tipo eta abstrazioak aurkezten zituzten historia eta mataza-modu tradizionalak arbuiatuz errepresentatzen du errealitatea eleberri modernoak. Pertsonaia banakotasun moduan eraikitzeari arreta eskaintzen dio, pertsonaia honen biziguneak xehetasunez janzten ditu, pertsonaia honek fikzioan bizi dituen abenturen denboraren berri astiro-astiro ematen du. Ñabardura eraikuntza-euskarri da... (16)

Kontatutako historiek ehotuz doazen matazek gizabanakoak aurkezten dituzte errealismo modernoan, zirkunstantzia berezitan bizi diren gizabanako bereziak eta ez giro-modu orokorrean bizi diren tipo orokorrak.

Eleberri errealistak nork, zer, non eta noiz egiten zuen xehe-xehe azaltzen zuen eta gisa honetan gizarte baten kronika egiten zuen, ez modu dokumental batez, jakina, baizik eta modu sinboliko eta mitiko batez.

Eleberri izendatu dugun testu orok ez ditu, ordea, giza jokabideak aztertu, ez du gizartearen azterketarik egin, ez du istoriorik kontatu, ez du mundu jakin eta mugatu batean garatzen den heroe nobelesko baten historia kontatu, ez die nork, zer, non, noiz galdetzaileei xehe-xehe erantzun. Ez errealismo moderno horren aurretik, ez ostean. Ez Ertaroko abentura-liburuak, ez mende honen lehen hamarkadatan ematen den iraultza nobeleskotik sortzen diren tituluak. Ertaroko abentura-liburuak ordena feudalaren produktu dira, XX. mende honen

(16) Errealismo moderno honetan I. Watt-ek dioenez, "les personnages de l'histoire et la scène de leurs actions devaient être situés dans une perspective littéraire nouvelle: l'intrigue devait se jouer entre individus particuliers, dans des circonstances particulières, contrairement à ce qui se passait d'habitude autrefois, où des types généraux d'humanité se détachaient sur un fond déterminé d'avance par une convention littéraire appropriée". WAT, I.: "Réalisme et forme romanesque", in *Littérature et réalité*, Editions du Seuil, París, 1982, 14. or.

lehen hamarkadetakoak mende-mugan hezurmamitzen doan krisiaren produktuak.

Eleberria ez da gor eta mutu gelditu gizakia eta beronen kezken aurrean, gizartea eta beronen ibilbidearen aurrean. Malgutasun ikaragarria erakutsiz egokitu egin du idazkera atzematen duen errealitate berria adierazteko. XIX-XX. mendeen arteko mugan azaleratzen den krisia ezin utzi zezakeen erantzunik gabe. Errealismotik urrutiratuz erantzun zion. Eleberriak istorioak kontatzeko eginkizuna utzi egiten du sentzazio eta inpresio batzuen berri emateko, istorioa ordenatu eta modu ulergarrian ematen zigun kontalari orojakilea desagertu egiten da, nortasun jakina eta ñabarduraz betea zuen pertsonaiaren tokia edozeinek hartzen du, denbora kronologikoaren tokia, berriz, denbora subjetiboak...

Beraz, errealismo modernoa erreferentzi puntutzat hartzen den heinean bakarrik ukatuko litzaioke eleberria izatea *Auñemendiko Lorea*ri, baina errealismo modernoa erreferentzi puntutzat hartzen bada, beste askori ere ukatu beharko litzaioke izaera hori, nola errealismo horren aurretik, hala ondotik.

Zirkunstantzia berezitan bizi diren gizabanako bereziek eraikitzen zuten mataza eleberri errealistan, nork-zer-noiz-non galdetzaileei xehetasun eta ñabarduraz beteta erantzuten zien; arras bestelakoa da eleberrigintza hau iraultzen duenak hartzen duen norabidea eta eleberrigintza antierrealista honi garaikide zaion euskaldunak, berriz, modu orokorrean erantzuten die aipatu galdetzaileei.

Biak urrutiratzen dira eredutik, nola errealismoaren ondoren subjetibizazio-prozesu batera lerratzen den eleberrigintza, hala Agirre eta bere garaikideena, batzuen eta besteen eredu-hausketak edo eredua jarraitzeari uko egiteak zer-ikusirik ez duen arren. Ereduaren hausketak edo eredua arbuiatzeak ez du zer-ikusirik, Agirreren *Auñemendiko Lorea* errealismo modernoaren ikuspegira oraindik iritsi ez delako eta XIX-XX. mende-mugan gatzatutako krisiari erantzuten diona errealismo modernoaren ikuspegitik igaro ondoren beste munduikuskera baten adierazle delako. Ideiak ez daude argi eta garbi, aitzitik erabat nahasirik; XX. mendeko gizakiak ideia nahasiak dituenez, ideia nahasiez baliatuz egingo du eleberria eleberrigile antierrealistak. Horra hor XX. mendearen lehen hamarkadetan eleberri errealistaren patroiarekin hausten dutenen munduikuskera.

Agirrek, ordea, ideiak argi eta garbi zituen eta ideia argi eta garbiez baliatuz burutu zitzakeen bere eleberriak. Ideia ziurretan oinarritzen zen mundu batean bizi zen. Eta errealismoaren ikuspegia azaleratzen du. Errealismoarena, bai, baina ez partikularismoa, indibidualismoa, berezitasuna eta banakotasuna dakarrenarena. Hitz batean, berea ez da errealismo modernoa, errealismo eskolastikoa baino. Ertaroko errealista eskolastikoen mundua erakusten du: tipoak, motak, klaseak eta abstrazioak dira benetako "errealitateak" eta ez zen-

tzuek somatzen dituzten objetu partikular edo konkretuak (17). XVIII-XIX. mendeetan barrena adierazi zen errealismo modernoaren ikuspegia alboratu, kontzientzia modernoa adierazi zuena arbuiatu eta errealismo eskolastikoaren mundu-ikuskerari ematen dio bizitza. Agirrek denbora modernoetan idatzi zituen bere eleberriak, baina munduan kokatzeko duen modua ez dator bat garaiarekin. *Auñemendiko Lorea*n, baita *Kresala*n (1906) eta *Garoa*n (1912) ere, tipoak, klaseak, unibertsalak, abstrazioak daude. Pertsonaiak, gertaerak eta berauen garapen-zirkunstantziak ez dira konkretatzen. Pertsonaia-tipoak lekudenborazko koordenada orokorretan burututako ekintzak dituzte euskarri eleberriok. Azkenean tesiak jartzeko eta berauek argumentatu ostean korolarioak ateratzeko bitarteko du kontaketa.

Agian ez dugu gaurko ihardunaldi honetan tesia behar beste argumentatu. Agirrek euskal izaerak izan beharko lukeena mugatzea zuen xede eta horretarako arrazonamendu-modu eskolastikoaz baliatu zen, guk, berriz, *Auñemendiko Lorea*ren mendeurrenean euskal eleberrigintzaren mendeurrena ere ospatzen ari garela "frogatzea" genuen helburu eta bide beretsua jarraitzea nahi izan dugu. Ez genuen egingo Agirreren argitasunarekin, ziurtasunarekin eta maisutasunarekin. Norgehiagoka horretan sartzea galtzaile ateratzeko besterik ez da. Hark ez bezala lizentziaren bat edo beste ere hartuko genuen. Haatik, korolariora goaz. Anakronikoa izatea lepora dakioke *Auñemendiko Lorea*ri, errealismo-naturalismoaren garaian sortua, XX. mendeko iraultza nobeleskoaren atarian, ez da kontzientzia modernoaren azalpen izatera heltzen. Abstrazio-mailatik jeitsi eta objetu berezi, partikular, konkretuena oraindik eriden ez duen mundua agertzen du. Mundu horretan bizi zen, ordea, Agirre, eta mundu hori adierazi zuen mende batzuk lehenago beste batzuek egin zuten bezala, Ertarokoek kasu, eta beste hauen sorkariak ere, zirkunstantzi berezitan bizi diren gizabanakoak ez ekarri arren, eleberri izendatu ditugu. Beraz, koordenada narratiboak banakotu ez dituzten kontaketak eleberri deitu direnez, Agirrerenak ere dei daitezke. Ez da harrigarria gero, eleberria genero moduan mugatu ezinik ibiltzea eta egun oraindik gogobeteko definiziorik ez izatea. Generoaren ibilbide askearen ondorio da. Hala, hizpidea sortu digun "irakurgei"a, *Euskalzale* aldizkariak deitutako "irakurgei edo roman" lehiaketa irabazi zuen *Auñemendiko Lorea* irakurgeia, bere egile Txomin Agirrek jarri zion izendapena, egun horren ordezkotzat erabiltzen dugunagatik ordezkatuz, eleberri izendatu ahal izan dugu. Eta bere lehen mendeurrena bete duen honetan euskal eleberrigintzaren mendeurrenera zabaldu ospakizuna.

(17) "Par un paradoxe qui ne surprendra que le néophyte, le terme «réalisme» en philosophie s'applique en toute rigueur à une vision de la réalité diamétralement opposée à celle de l'usage commun. C'est la vision des réalistes scolastiques du Moyen Age: les universaux, classes ou abstractions, et non les objets particuliers ou concrets de la perception des sens, seraient les vraies «réalités»". WATT, I.: "Réalisme et forme romanesque" in *Littérature et réalité*, 15. or.

DOMINGO DE AGIRRE ETA ZUMAIAKO KARMELDARREN IKASTETXEA

Zumaia, 1998-XI-19

Sebastián García Trujillo

Gaurkoa ez da euskaltzaleek Domingo de Agirreri Zumaian eskaintzen diogun oroimenezko lehen horma-plaka. Haren heriotzatik hurrengo urtean, 1921.ko azaroaren 21.an, lehen omenaldia eskaini zioten zumaiarrek Domingo de Agirreri, gaurkoa baino jendetsu eta zaratatsuagoa, Probintzia eta herriko agintariak, baita abade mordo bat ere, etorri baitziren ikastetxe honetara Agirre omentzeko, musika banda eta guzti. Honelaxe idatzi zuen ospakizun honetaz, domeka hartako *La Constancia* egunkari integristak:

"Homenaje a la buena memoria del virtuoso sacerdote don Domingo de Aguirre. Adhierámonos a la fiesta.

Hoy se viste de fiesta el pueblo de Zumaya, para honrar la buena memoria de don Domingo de Aguirre. Una lápida recordará la casa donde vivió y entregó su alma a Dios; y una calle perpetuará su nombre.

Hoy se congregarán en la risueña villa costera, lo más significado de nuestros euzkarólogos: don Resurrección Azkue, la Academia Vasca en pleno, "Euskal-Esnalea", don Carmelo Echegaray (1), el Diputado a Cortes señor Churruca, el Presidente de la Diputación señor Elorza, el culto sacerdote don Ramón Inzagaray, Reverendo Padre Azpiazu, S. J., y tantas otras personalidades salientes de nuestra cultura vasca, rindiendo un testimonio de admiración y cariño, al compañero muerto.

Por la tarde habrá velada necrológica en la que departirán con la elocuencia en ellos características, los señores Azkue, Echegaray, Lecuona, P. Saraiza y otros; se cantarán obras de Guridi, Otaño, Frank, Brahms, etc." (2)

(1) Geixo egon zen eta ezin izan zen etorri. Ikus, ECHEGARAY CARMELO DE, *Cartas a D. Serapio Múgica* (1899-1925), Grupo Doctor Camino, San Sebastián-Donostia, 1987, 576. or.

(2) *La Constancia,* Diario Integrista.

Orduko ospakizun hartan "kardinale itxurako"(3) Don Domingo(4) kapelauaren oroimenez plaka bat jarri zioten La Ribera kaleko bere etxearen aurreko lehen solairuan. Don Domingo de Agirreren etxearen aurrean esan dut, eta Karitate Karmeldar mojen etxean esan beharko nukeen, mojena baitzen etxe hura. Baina Domingo de Agirrek inon etxerik izan bazuen, Zumaian izan zen (5), Maria eta Jose ikastetxearen aurreneko egoitzan, hain justu. Ekonomia errekurtsorik ezagatik inon etxe propiorik izan ez zuen Don Domingok, berea bailitzan erabili zuen, hogeitamar urte eta zortzi hilabete eta erdiz, ikastetxeko etxe hura ("aquí en la soledad de mi casita procuraré tener fiestas íntimas saboreando las delicadezas de los buenos ingenios") (6) eta mojek etxekoa bailitzan hartu zuten "una verdadera alaja nuestro simpático capellancito de Zumaya" (7):

"el Padre Domingo, padre por antonomasia de esta casa... figura noble y digna a la par que llana, aquel caballero intachable a la vez que sumamente amable, aquella cabeza privilegiada y aquel corazón de santo, aquella sonrisa apacible y amorosa, expresión inconfundible y fiel de aquella alma soberanamente hermosa que trascendía al exterior y era figura de ángel nimbada de luz y gloria". (8)

Gauzak horrelaxe, euskararen aldeko gune berezia bihurtu zen ikastetxe hau Don Domingo eraginez, baita euskaltzale askoren bilgune ere. Hona etortzen zen Resurrección M.ª de Azkue "behin baino gehiagotan... burubide eta aholku eske" (9). Egonaldi hauetatik hiru gogoratuko ditut, adierrazgarrienetarikoak, agian:

— Lehena, Azkue bere *Cancionero Popular Vasco* eta *Diccionario Vasco Español Francés* liburuetarako abesti eta hitzen bila etorri ohi zenetakoa. Jose M.ª de Olaizolak dioskunez, Zumaiako atsoek irrikiz itxaroten zituzten Azkueren etxe honetako agerraldiak eta

(3) ANASAGASTI, P. de, "La arrolladora personalidad de Domingo de Aguirre", *Arantzazu,* XLV, 1966, 24-26. or.

(4) Honelaxe dei egiten zioten Agirreri herrikoek, Luis Alberdi abade zumaiarrak zihurtatzen didanez, eta ez zabalduago dugun lagun minentzako soilik gorderiko "Txomin" izena erabiliz.

(5) AGUIRRE, A. I. DE, "Itz bi", in *Garoa,* Arantzazu, 1956; "Zumaia, etxea zun; baño Euskalerri, baratz". Zumaiari eskaini zion Agirrek artikulu bat. Ikus *Euskal-Erria,* 1900, XLVII, 278-280. or.

(6) ECHEGARAY C. DE, *Cartas a D. Serapio Múgica,* o. a., 28.07.03.

(7) *Ibidem,* 17. or., Junio/17/1990.

(8) Argitaratu gabeko eskuizkribua.

(9) VILLASANTE, L., "Domingo Agirre Badiola", in *Garoa,* Talleren Gráficos del Santuario de Arantzazu, Oñate, 1966, 7. or. *Cartas a D. Serapio de Múgica,* o. a., 29.12.05."El sábado comí en Zumaya con don Resurrección Azkue, que ha venido a pasar las pascuas con su madre y hermano. Con él y con don Domingo hablé largamente de usted, con el cariño y la simpatía vivísima que usted nos inspira".

"Bilbo apaiz aundi ura? -galdetzen zioten Domingo de Agirreri-. Ez al du etorri biar? Esan tzun'n etorriko zala. Kanta berriyakin akordatu naiz". (10)

— Bigarrena, Agirrek Gasteizko seminarioko Azkue laguna euskarako salbatu ei zuenekoa. *Urlo* opera hondamendiaren ondoren, jesuiten nobiziadoan sartzea bururatu zitzaion Azkueri, "para dedicarse el resto de su vida a misionar infieles". Loiolara abiatu baino lehen, Azkue Zumaiara etorri zitzaion Agirreri eta bere etxe honetan hartu zuen azken honek:

"Don Resurrección, esan zion, —con aquella calma de D. Domingo— espera, las resoluciones no hay que tomarlas así' -despues le cuidó muy bien y le consoló durante ocho días. Vuelve a Bilbao, da la cara a todo lo que has dejado allí; ya tendrás colaboradores, que si corporaciones y amigos y efectivamente encontró, salvó aquella situación". (11)

— Eta hirugarrena, Agirreren hiltzerakoan (1920.go urtarrilaren hogeian), Teudia (Azkue) Don Rodrigoren (Agirre, "bera zen artarako gayena ere-ta" (12) albora etorri zitzaion lagundu eta beronen azken hitzak guretzat gordetzeko:

"Azken itzak erdizka ebakiak, euskerazkoak izan omen zituen, noski, Andre Maria'ri zuzenduak". (13)

Agirre hil eta hurrengo egunean, beronen "azken-naya lenengoz irakurri zanean", bertan egon zen Azkue, hilberriko lagunaren pobretasunaz miraritzeko:

"Dirutsu izateko era onak aukeran izan omen zituen ta bere aide urkoak beartsuak izanarren 'lenengo ta bein apaiza naiz' esan ta damutasunik gabe utzi izan ditu era oriek". (14)

Baita askotan etortzen zen etxe honetara Agirrek anaiatzat izen zuen Karmelo Etxegarai ere:

"Zenbat aldiz, dio honek, Zumaia'ko txoko maitagarrian, biok, besteren olerkiak, egiazko olerkiak, irakurtzen biotza pozez beterik zalarik egon izan gera". (15)

Agirre hil eta egun gutxira, hona itzuli zen Etxegarai, beste batean:

"Recogí en Zumaya el domingo de Carnaval una porción de manuscritos del inolvidable don Domingo, y con ellos no pocos autógrafos míos de alguno

(10) Argitaratu gabeko eskuizkribua.
(11) Argitaratu gabeko eskuizkribua.
(12) AZKUE, R. Mª de, "Agirre, beretergoan", "Itzaldiak", *Euskal-Esnalea*, San Sebastián, 1923, 73. or.
(13) AZKUE, R. Mª de, *Ibidem*, 79. or.
(14) AZKUE, R. Mª de, *Ibidem*, 77. or.
(15) ETXEGARAI, K., "Agirre, olerkaria", "Itzaldiak", *Euskal-Esnalea*, San Sebastián, 1923, 86-87. or.

de los cuales ni me acordaba siquiera. Me impresionó mucho ver aquel despacho en que tantas veces hablé con el amigo entrañable y fraternal, cuya pérdida es irreparable por muchos conceptos. En Zumaya se ha de notar mucho la desaparición de sacerdote tan ejemplar. Su vacío no es de los que se llenan fácilmente". (16)

Sarritan etortzen zitzaion ikastetxe honetako Agirreri Unamunok miretsi zuen Francisco de Iturribarria abadea ere (Agirrek 'Iturri' deiturikoa; "Eran dos almas gemelas", dio biotaz *La Constancia* egunkariak). Ahaztuxe dugun Agirreren ikaskide eta gaztelerazko bilbotar olerkari fin honek, osasuna makala zela eta, Zumaiako etxe baten udak emoten zituen Agirre lagunaren alboan.

Ez zen, haatik, Agirreren kulturaren aldeko eragina ikastetxeko hormetan mugatu:

"Sus anhelos de unidad del clero le inspiraron la idea de una tertulia diaria en la plaza Berria, hacia el mediodía, a la que acudían los sacerdotes de Zumaya y hasta extraños y donde discutían métodos y se unificaban consignas. Esta tertulia, por la magia de Aguirre, se convirtió pronto en seminario de artistas, políticos, catedráticos y literatos, domeñados por Don Domingo. Eran asistentes señeros Ruiz Jiménez, ex-ministro de Romanones, Don Bartolomné Feliú, representante de Carlos VIII; el Marqués de Foronda, el Marqués de Boil, los Condes de Albatera y de Plasencia, el Duque de Castro Enrique. Nadie podía sustraerse al fluido de su bondad y de su mansedumbre verdaderamente extraordinarios. Y nada digamos de los vascófilos Urquijo, Echegaray, Campión, Azkue..., a quienes aparte el atractivo personal de Aguirre, les unía su entrega a la lengua y a la historia vascas". (17)

Agian, José Ortega y Gasset filosofoak parte hartu ei zuen tertulia haietan, zeren, Aita Villasantek dioskunez:

"cuando Ortega y Gasset veraneba en Zumaya, distinguía con su aprecio a don Domingo, porque el pintor Zuluaga le había informado de las actividades literarias de éste". (18)

Eta Domingo de Agirreren ikastetxe honetako "intra muros"-ko bizitza nola ematen zuen?. (19)

(16) ECHEGARAY, C. de, *Cartas a D. Serapio Múgica, (1899-1925)*, o. a., 1920.02.20, 544. or.

(17) ANASAGASTI P. de, "La arrolladora personalidad de...", 24-25. or.

(18) VILLASANTE, L., *Historia de la Literatura Vasca*, Editorial Aranzazu. 1979, 325. or.

(19) Domingo de Agirreren eskuizkribuen artean honako "Ordu banaketa" aurkitu dugu: 5 1/2, Levantarse y ofrecer a Dios las obras del día; 6 Meditación; 6 1/2 Capilla; 7 Santa Misa; 7 1/2 Acción de gracias. Confesionario; 8 1/2 Desayuno y Horas; 9 Estudio; 11 3/4 Examen; 12 Comida. Descanso; 2 Vísperas y Completas. Devociones; 2 1/2 Lectura espiritual; 3 Maitines y laudes; 4 Visita al Santísimo. Paseo o Confesionario; 8 Cena; 9 1/2 Puntos para la meditación del día siguiente. Examen. Acostarse.

Lehen eta behin, azpimarratu behar dugu Domingo de Agirre oso maitagarria izan zitzaiela bere ingurukoei: bai maila pertsonalean "ba zuela... alako santu usai bat" (20), dio Villasantek beste askoren iritzia jasoz, bai eguneroko hartu-emanetan:

"mendu ona, ayuri egokia, izakera bikaina, lur ongi layatu... ta ezo batek galazia artzen duenez... paketsua, apala, etorkorra (condescendiente), artzargia (simpático) ta otzana. Ezti utsezko breska argizai gabea... arantza gabeko arrosa ezta diote. Ura... bai... ¡Epea!, ¡Egoarria!, ¡Ezaldietan isiltzea!... egille errez, xamur ta jakintsua". (21)

Zeruko benedizio bat ingukukoentzat: mojak zein eta herrikoentzak, Domingo de Agirrek ez baitzituen soilik kapelautza lanak burutzen, baita ikastetxeko zuzendaritza zeraman eta latin, gaztelera, erretorika eta poetika irakaslea ere izan zen, baita euskerarena neska ikasleek gogoratzen baitute zelan Don Domingok prestuariko euskerazko irakurketa liburuak "oso txistosuak" zirela; ez nolanahiko irakaslea, gainera:

"Allá donde Domingo de Aguirre ponía su mano todo se convertía en perfección. Era sumamente ordenado...". (22)

Eta froga modura begiratzea besterik ez dago Euskaltzaindirako bildu dugun "Libro de propiedades del Colegio de Zumaya" delakoari, non eta Agirrek urte luzeetan ikastetxeko kontabilidadea eramaten zuen idazkera txukuna bezain garbiaz.

Aipagarria da ere, arlo honetan, Domingo de Agirrek ikastetxe honen eraikuntzari dagozkion lanetan izan zuen protagonismoa. Barrukoen ikastetxea ireki (1883. urtean) eta bospasei urtetara, Agirre etorri berriak bere gainean hartu behar izan zituen bai 1894 eta 1895eko urteetan egindako "Obras de solidificación y reforma ejecutadas en el Colegio", bai 1905. urtean oinarritik eraikia izan zen kanpoko ikasleentzako ikastetxe berria.

Jakina denez, Maria eta Jose ikastetxe hau M.ª Francisca de Echezarreta y Power-ek utzitako ondarrei esker eraikia izan zen. Bilboko andra agurgarri honen ondareak Agirre Ondarrutik Bilbora ikasketak egiteko bere etxera ekarri zuen D. Mariano Jose de Ibarguengoitia abadearen eskuetan geratu ziren. Ondare guzti hauekin fundazio bat eratu zuen D. Marianok Zumaiako ikastetxe hau eraikitzeko helburuz, eta bai eraiki ere. Don Mariano hil eta gero, ondorekoa Estanislao Jaime de Labayru abadea izan zen, hiru ondoreko izendatu zituena: don Leandro Soto y Orduna, Irungo Parrokiako abadelaguntzailea, don Francisco de Iturribarria, Bilboko Santiago parrokiako abadelaguntzailea eta Don Domingo de Agirre; ondorekook hiru zatitan banatuta hartu zuten ondarea,

(20) VILLASANTE, L., "Domingo Agirre Badiola", o. a., 6. or.

(21) AZKUE, R. Mª, o. a., 24. or.

(22) OLAIZOLA, J., Mª, in ANASAGASTI, P. de, "La arrolladora personalidad de Domingo de Aguirre", *Aranzazu,* XLV, 1966, 25 (281). or.

elkarri boterea emanez. Agirrek bere aldetik bere zatiaren ondorekoak ere izendatu zituen: Antonio Zubizarreta, Plazentziako abadelaguntzailea eta José Justo Elorza y Oyarzabal, Arronako abadelaguntzailea. Ondorekoa izateaz gain, Agirre Fundazioaren kudeatzailea izan zen hogeitamar urtez, lanik gogorren eta aspegarrienak bere gainean eramanez, baita urteoroko gestio-informeak eman beharrez Fundazioaren beste partaideei.

Zernolako zintzotasunez eraman zituen honelako lanak jakiteko, badaukagu froga bat. Odol-zurbila izanez, 1906. urtean, ez zuen ikastetxearen solo batera zihoan gurdi bidean zanga bat ireki arazteko enbarazorik, fundazioaren patrimonioari kalte ekar diezaiokeen auzoko baten temakeria ekiditeko.

Esan gabe dago esanda, kudeaketa lan hauek guztiak bigarren mailakoak zitzaizkiola Agirreri, ikastetxean, lehen eta behin, abade lanetan gogoz aritzen baitzen Don Domingo: "Gizona ez, baina aingerua ematen zuela (23)" eguneroko mezaz aparte, Domingo de Agirrek ematen zizkien Urteko Ejerzizioak bai "beti berarekin egin nahi izaten zituzten" (24) mojei, bai, askotan, ikastetxeko neskei; baita katezismo klaseak ere (berraurkitu dugu horretarako bere eskuz idatzitako liburuxka moduko kuaderno mardula); maiatzeko platikak (25) eta sermoi ugariak bai ikastetxeko jaietan (Ama Birjinaren Presentazio egunean, noiz eta prozesio luze bat egiten zen ikastetxetik herriko elizara eta herriko elizatik ikastetxera; San Jose Babespe egunetan; mojen profesio eta erlijo sarrera ospakizunetan, lehen jaunartzetan eta abar luze batean), bai inguruko herriko jaietan ere (Aizarnazabaleko elizan gaurdaino dirauten kanpaiak jarri zutuzten egunekoa, Asteasun, Beasainen, Artadin, Zarautzen..., eta "de capanillas" direlako haiek: Begoñako Andra Mariaren koroatzearen egunekoa, esateko, edo "Zeztua Eleizan Euskal Festetan Guipuzkoako Diputazio txit goituaren aurrean egintakoa"; batzutan gazteleraz, gehientan euskaraz (berrogeita hamarretik gora bildu ditugu, "argitaraztea merezi dutenak" (26). Sermoi-lana gogorra izan behar zitzaion ("hasta tres al día" (27), eman baino lehen idatzi baitzituen, baita, itxuraz, buruz ikasi ere. Lan honetaz gain, konfesio ordu luzeak (28):

"después de 5 ó 6 horas de confesonario, muy pocas ganas suele haber de escribir" (29)

(23) VILLASANTE, L., "Domingo Agirre...", o. a., 7. or.

(24) *Ibidem*, 7. or.

(25) "Ayer acabé con la serie de pláticas de mayo..."

(26) VILLASANTE, L., "Domingo de Agirre-ren eliz-itzaldiak", 31 (287). or.

(27) Carta a Carmelo de Echegaray, 24.12.96. Argitaratu gabeko eskutitza, Azkue Biblioteka. Bilbo.

(28) "Hoy, víspera de primer viernes de mes, tengo confesión de todas las niñas del Colegio, internas y externas, con más gente del pueblo que acostumbra a comulgar en las funciones del S. Corazón; mañana, los cultos mensuales a este Corazón divino y junta de asociadas para elegir cargos; pasado mañana, ya sábado, en tiempo de cumplimiento pascual". K. Etxegarairi argitaratu gabeko eskutitza, 97.04.01.

(29) Azkueri zuzenduriko eskutitza, 97.04.11, in ZUBICARAY, A. DE, "Domingo de Agui-

idatzi zion Agirrek Azkueri zenbait literatura lan eskatu ohi zionetan.

M.ª Francisca de Echezarretaren azken nahia-memorian kapelauaren honako eginbehar hauek aipatzen ziren:

"Tendrá obligación de decir misa todos los días en la Capilla del Colegio; confesar a las dichas hermanas si tiene del Sr. Obispo licencia para ello; celebrar todos los años ciento y cincuenta misas en sufragio de mi alma y las de mis parientes; explicar durante un cuarto de hora la doctrina cristiana a las muchachas que vengan a la esculea dominical los Domingos y fiestas solemnes, y rezar con ellas el Santo Rosario en la Capilla del Colegio, para sufragio de mi alma y las de mis parientes".

Hau ikusita, ez da harritzekoa Agirreren lagunek egiaztatzen ziguten hura:

"Tan sólo como excepcionales pueden citarse algunos casos en que... abandonó el desarrollo de su vida normal y la vida reconcentrada en su gabinete de trabajo, amplio y luminoso" (30).

Agirrerentzat ere gustukoa zena:

"Estoy tan desalentado —idatzi zuen 1903.ko udaldian jaso zuen etsialdi batean— que tengo intención de no salir de mi pobre concha (el colegio) y de no ser otra cosa que capellán de la casa, en que sirvo de algún modo". (31)

Agirreren lanerako honelako jarrera zabala ikusiz gero, ez da harritzekoa "Rosas y jazmines de tu invernadero" Azkuek deituriko mojek don Domingoarekiko lotura oso estua izatea (32). Batez ere, kontutan hartzen baldin badugu gazte denboretatik Domingo de Agirreren osasuna makala izan ei zela (33), kapelaua ondo baino hobeto zaintzeko abagunea mojei eman ziena:

"Urtero-urtero, uda-garaian, mojak pagatuta, Izarrako baiñu-etxe batera joan oi zan egun batzuk pasatzera" (34).

Arlo honetan Domingo de Agirreren lagunei iribarrea ematen zieten monjek kapelau gaixoari ematen zizkioten begiramenek:

---

rre, Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca", *La Gran Enciclopedia Vasca,* Tomo IV, 1976, 542. or.

(30) MUJICA, G. DE, *Los titanes de la cultura vasca,* Auñamendi, San Sebastián, 1962, 76. or.

(31) Argitaratu gabeko eskutitza, Azkue Biblioteka, Bilbo.

(32) "Podías venir tú el lunes o el martes hasta Zarautz -idatzi zion Agirrek Karmelo Etxegarairi, 1987.ko apirilaren lean-. ¡Cómo te agradecería, porque para ir a San Sebastián tengo que buscar un sustituto (con disgusto de las Hermanas) y perder la lección de los chicos". Argitaratu gabeko eskutitza. Azkue Biblioteka. Bilbo.

(33) Cartas a D. Serapio Múgica, o. a., 188. or., 06.07.08: "... como estoy bastante malucho, por si levantándome mañana indispuesto, como sucede muchas veces, desistiera de ir a esa a marearme más...".

(34) VILLASANTE, L., "Domingo Agirre Badiola", o. a., 6. or.

"No tengo tiempo más que para decir a V. que esta tarde he recibido carta de Dn. Domingo, que está ya bien y reponiéndose con las gallinas de Amezmendi". (35)

Eta Azkuek Agirreri, 1902.ko otsailaren bian:

"Adios y que conserves tu bella afición a Amezmendi, y que ella te conserve a ti". (36)

eta 1907.ko urtarilaren 7:

"Dí a las monjitas que te hagan un vol-au-vent de chitas Prats con docena y media de gotas de Martell de mimados capellanes". (37)

Domingo de Agirrek umore onez hartzen zuena:

"Estoy bien, gracias a Dios, y me voy fortificando, merced a las gallinas de Amezmendi. ¡Qué buen caldo hacen!". (38)

Txantxak utzita, onartu behar da hala Agirreri nola mojei onugarria izan zitzaiela urteetako lotura hori:

"Caeríamos en una imperdonable omisión —dio *Compendio ilustrado de la historia del Instituto de las RR. Carmelitas de la Caridad* liburuak—, si no dejásemos consignado en estas páginas, a poder ser con letras de oro, el nombre del presbítero tan esclarecido por su bondad como por su ciencia, Don Domingo de Aguirre... De sus virtudes, erudición y excelente acierto en la dirección y prosperidad del colegio, no se puede hablar con suficiente loa en el breve espacio que permiten estas páginas; y así nos reservamos su biografía extensa para la Historia General del Instituto". (39)

Bihotzezko lotura horren froga, Domingo de Agirreren testamentua dugu, zeinetan irakurtzen den:

"lega su cáliz, ropas de sacristía que puedan pertenecerle, muebles de la casa que habita y su biblioteca al Colegio de María y José de esta villa de Zumaya".

Mojek, beraien aldetik, senitartekoa bailitzan Zumaiako hilerriko komunidadearen hilobian bertan lurperatu zuten Domingo de Agirreren gorpua, Francisca de Echezarreta y Power Anderearen hondakinen ondoan:

(35) ECHEGARAY, C. DE, *Cartas a D...*, o. a., 345. or.
(36) Argitaratu gabeko eskutitza. Azkue Biblioteka. Bilbo.
(37) "Domingo de Aguirre. Poeta del mar...", o. a., 545. or.
(38) Carta de DA a C. de Echegaray, 10.04.25. Argitaratu gabeko eskutitza. Azkue Biblioteka. Bilbo.
(39) *Compendio ilustrado de la historia del Instituto de las RR. Carmelitas de la Caridad*, 1926, 225. or.

"Frente a su tumba están las montañas de Aizkorri, donde se alzaba la choza de Joanes el pastor. A sus pies, saltan sobre las peñas las olas que llegan de Arranondo. Le rendirán homenaje perpetuo el aroma del helecho y el salitre del mar". (40)

Espero dezagun, euskararen ahotsak ere hel dakizkion Agirreri betiko, euskara gustukoen baitzuen berak munduko beste gauzen gain:

"los que me conocéis sabéis que la conservación del bascuence es mi única ilusión". (41)

Ilusio horren testigu mutuak bezain iraunkorrak ikastetxe honetako horma hauek diraute ("Kapelau-etxetxo artako ikusguak (miradorak), izketan baleki" (42) hemendixe sortuak baitziren, Domingo de Agirreren eskuetatik, euskal literaturako lehendabiziko eleberriak eta euskal aldizkari, hemendixe euskal aldizkari berrietarako artikulu pila bat (*Euskalzale*, *RIEV*, Agirre lehendakariordea izan zeneko *Euskal Esnalea*, *Euskalerriaren Alde*, non eta sortzailetakoa izan zen ikastetxeko kapelaua), baita hemendixe ere irten zen, 1918. urtean, Euskal Ikaskuntzaren lehen Kongresura, non Euskaltzaindia sortzeko proposamena egin zuen Hizkuntza Ataleko burua izandako Domingo de Agirre Badiolak, hain zuzen.

Urteak igaro ahala, Mitxelenak bere belaunaldikoan onartu zuen Agirreren eragina (43) moteldu zaigu. Ez dira gutxi izango ikastetxe honetan Don Domingok euskeraren alde burutu zuen lanaz ahaztu direnak. Gaurtik aurrera eskaini diogun horma-plaka hori Agirreren oroitarri izan dakigula eta euskeraren aldeko bultzagarri; horixe izango baitzitzaion, 1916. urtean, Bilboko Campos Eliseos-en: 'Kendu zadazu nere bizitza, baño ez nire mintzoa (44)' esan zuen haren goratzarrerik aproposenak.

(40) MUJICA, G. de, "Los titanes de la cultura vasca", o. a., 73-79. or.

(41) *Zeztuako Euskal-Festetan on Domingo Agirre ta Badiola abadeak Guipuzkoako Diputazio txit goituaren aurrean egintako sermoia 1898-ko Agorraren 18-an,* Imprenta de la Provincia, San Sebastián, 1898, 60. or.

(42) AZKUE, R. Mª, "Agirre, beretergoan", o. a., 76. or.

(43) MITXELENA, K., in *Euskal idazleak, gaur,* TORREALDAY, J. Mª, Jakin, Oñati-Arantzazu, 1977, 192. or.

(44) AGIRRE, D., "Euskeraren alde", *Euskal Esnalea,* 1916, VI, 121. or.

Jesus eta Maria karmeldarren ikastetxean ezarritako plaka-testua:

Domingo Agirre Badiola jaunari

Zumaiako Karmeldarren Ikastetxeak eta Euskaltzaindiak

Auñemendiko lorea-ren mendeurrenean ohorezko oroitzapenez.

Zumaia, 1998-11-19

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK ETA ADIERAZPENAK

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

92
ZUBEROAKO HERRI IZENDEGIA

Erabilitako irizpideak

Zergatik lan hau

1998an eskatu zitzaion Onomastika batzordeari Zuberoako herri izenak berraztertzea, zenbait udalek euskal izenak bide-seinaletan eta erabiltzeko asmoa agertu baitzuten eta euskaltzaleen artean ez izaki adostasunik izen horien gainean. Kasu batzuetan, izan ere, formak zaharkitu, desegoki edo egungo euskararen kontrakotzat jotzen ziren. Hori dela eta, zenbait herritan, Euskaltzaindiak *Euskal Herriko udal izendegia*-n (1979) proposatuari muzin eginik, bestelako izenak erabiltzen ari ziren.

Bestalde, kontuan hartu behar da azken urteotan burutu lana, eta bereziki *Nafarroako herri izendegia* (1990) eta geroztik plazaratu "Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak" *Euskera*, 1997, 3, 653-666. Guzti hori ezin zitekeen inola ere bazter.

Onomastika batzordeak, Zuberoako euskaltzainen laguntza ezezik, hango euskaltzaleena ere (Sü Azia elkartearena, bereziki) eskatu zuen, iritziak hurbiletik ezagutzeko. Hiru bilkura egin ziren: Bilboko egoitzan lehendabizikoa, Iruñeko ordezkaritzan bigarrena eta Maulen hirugarrena. Proposamena Euskaltzaindiaren batzarrean aurkeztu eta 1998ko abenduan erabaki.

Aipatu behar da, halaber, *Eskiula* sartu dugula zerrendan, nahiz herri hori Zuberoatik kanpo dagoen.

Eztabaida puntuak eta erabilitako irizpideak

Egungo euskara arautua eta leku-izenak

Batzuek, hobe beharrez, euskara batuko hiztegi arrunterako onartu irizpide eta moldeak erabili nahi izan dituzte onomastika alorrean, leku-izenak zein bestelako izen bereziak, neurri batean, hizkuntza arruntaren sistematik kanpo daudela ikusi gabe. Toponimian, izan ere, bada maiz aski egungo hizkuntzari ez dagokion zerbait, aurreko egoeraren oihartzuna.

Gainera, Euskaltzaindiak aspaldi errana du, Bergaran 1978an egin zuen biltzarraren ondoren, leku-izenek trataera berezia dutela. Ikus, batez ere, kontsonante busti-palatalen grafiaz erabakia, *Euskera* 24:1, 1979, 91-92. *Ñ* letra hiztegi arruntean arras mugatua izan arren, leku-izenetan erabiltzen da: *Oñati* (G), *Abadiño* (B), *Iruñea* (N) eta *Añana* (A). Orotako balio duena, aldiz, kontuan hartzekoa da: eremu zabal batean *z / s* arteko bereizketa galdu bada (*s*-ren faboretan), *Zeanuri* edo *Lezama* idazkerak atxiki dira. Laburdurak ere ez dira euskara jasoan onartzen; ahozko jardueran *Honddarbi, Elantxo* eta *Ittuna* erraten bada, izen ofizialak *Hondarribia, Elantxobe* eta *Ituren* dira. Jakina, munduko hizkuntza gehienetan segitzen den jokabidea da hau; *Frisco* eta *Leister* ahoskatu arren *San Francisco* eta *Leicester* bakarrik dira forma ofizialak eta maila jasoan gomendatuak.

Irizpideak

1. *Ñ* grafema

Lehen aipaturiko *Euskal Herriko udalen izendegia*-n, Zuberoako izenei dagokiela *ñ* grafema ageri zen, hango tradizio zaharra errespetatu nahian eta Louis Dassanceren "Herrien eta herritarren izenak eskuaraz" (1966) zeritzanari kasu eginez: *Larrañe,* e.a. Alabaina, *-ain(e)-* taldea beti *-añ(e)-* ahoskatzen denez gero, Euskaltzaindiak *-ain-* idazkera proposatzeari iritzi dio egokien: *Garindaine, Larraine,* e.a. Gogora, bestalde, herritarren izena *garindaintar, larraintar,* e.a. dela. *Ñ* galtzen ez duen bakarra *Urdiñarbe* da, busti gabeko forma, *Urdinarbe,* ahoskera saihesteko. Hortaz:

Garindaine	*Urdiñarbe*
Gotaine	
Larraine	
Ainharbe	
Berrogaine	
Omizegaine	
Ündüreine	

2. Hitz barruko marratxoaren erabilera

Gune desberdinak ez baldin badira, adibidez: *Biurrun-Olkotz* (N), *Ezkio-Itsaso* (G), *Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz* (B) edo *Maule-Lextarre* (Z), izenetan ez da marratxorik gomendatuko. Hori dela eta, *Sarrikotapea (-a)* Nafarroa Garaiko *Abaurrepea* bezala, idatzi behar da, eta ez erdararen moldeari jarraiki *Sarrikota-pia* (Charritte-de-Bas).

3. Bukaerako artikulua

Leku-izen anitzetan ageri den bukaerako *-a,* adibidez: *Bizkaia, Azpeitia* edo *Kintoa,* ez da hitzaren zatia, artikulua baizik, eta horrela adierazi behar da deklinabidean sortzen diren aldaketak kontuan izateko, hitz arrunt bezala deklinatu behar baitira *(etxea,* baina *etxeko, etxetik).* Zuberoan horrelako kasuak aurkitzen diren arren, ez ziren 1979ko izendegian islatu eta nahasmena sortu zen batzuetan. Horren adibidea *Ospitalepea* da. Nor eta non kasuetan artikulua agertzen da: *Ospitalepea, Ospitalepean,* baina beste zenbait kasutan ez: *Ospitalepeko, Ospitalepera, Ospitalepetik.* Horrelakoetan artikulua kendu beharra garbiki adieraztea erabaki da. Bestalde, ez da ahantzi behar nor kasuan agertzen de *i,* hots, *Ospitalepia, Sarrikotapia,* ahozko gertakaria dela, *etxe / etxia* bezala, hizkuntza idatzira pasatu behar ez dena.

4. Bukaerako *-e* paragogikoa

Lapurdin eta Nafarroa Beherean bezala, Zuberoan agertzen den bukaerako *-e* paragogikoa, izena erabiltzean hitzean sartzen den *-e* hori, bere horretan uztea erabaki da, oso errotua baitago: *Larraine,* ez *Larrain.* Ez da horrela jokatu Euskal Herriko gainerako herri izenetan; demagun, *Lemoize* gabe, *Lemoiz* onartu zen, baina gertakari horren indarra askoz ere handiago da hemen.

5. Kontsonante ondoko *h*-a

Kontsonante ondoan *h*-rik ez ezartzea proposatu zuten zenbaitek. Bi arrazoi eman zituzten horretarako: batetik, ahoskatze horren desagertzea, bertako askok, eta ez soilik gazteek, egiten ez dutelako; bestetik, hiztegi baturako onetsi ez zen idazkera izaki *(etorri,* ez *ethorri),* hatxez idazteak zailtasuna eta nahasmendua ekarriko luke, haien ustez.

Lehenbiziko arrazoiari dagokionez, galtzear den zerbait gomendatzea, erran behar da Euskaltzaindiak ez duela deus ere ahoskera horren aurka, hots, *th*-ren kontra. *H* horiek euskararen berezko ondarea

dira, ez kanpotiko eraginaren fruitua. Gainera, Euskal Herri osoan erabilitako irizpide nagusia forma osoak eta ongien dokumentatuak atxikitzea da. Bestalde, lehen erran bezala, toponimia berezko eremua da, neurri batean, hiztegi arruntaren arauetan beti sartzen ez dena. Euskal Herri osorako *harri* onartu bada ere, *Arrigorriaga, Arrate* eta abar gomendatu da Hegoalde osoan, neotoponimia ez bada, jakina.

Hortaz, honako aldaketak onartu dira:

Mitikile, Pagola, biak *h*-rik gabe.

Gainerako izenetan *h*-a gorde da:

Ainharbe, Arhane, Atharratze, Atherei, Ithorrotze, Olhaibi, Sorholüze, Zunharre, Zunharreta.

6. Izen zaharren berreskuratzea

Horrelako bi kasu baizik ez ditugu: *Urdatx / Santa-Grazi* eta *Montori / Berorize.* Erran beharrik ez da, berreskuratu nahi diren forma horiek oinarrituak daude *(Urdaix,* 1476, idazkera horrekin; eta *Berorize* Belak bildu zuen, XVII. mendean).

7. Idazkera tradizionalen berreskuratzea

Hiru izen dira atal honetan, *Sohüta, Ürrüstoi* eta *Ündüreine.* Lehenbizikoari datxekola, *Sorhoeta* izena berreskuratzeko proposamena egin zitzaion batzordeari. Egia da forma horren lekukotasunak ez direla falta: besteak beste, *Sorhoëta* ageri da Belapeyreren dotrinako lehen plaman (1696); baina hori ez zen onartu, ez ohi baitu Euskaltzaindiak forma zaharkituen alde jokatzen.

Ürrüstoi izenaz denaz bezain batean, idazkera tradizionaleko *s,* egun gordetzen dena, hobetsi da, eta ez *Ürrüxtoi.* Larrasquetek ere (1939) *-s-* dakar.

Azkenik, *Ündüreine* izenarekin ere berdin jokatu dugu, hori baita idazkera tradizionala, egun bizirik dagoena, eta Nafarroako *Indurain* izen kidetik hurbilago dagoena, halaber forma ofizialetik *(Undurein), Ündürüine* forma berria baztertuz.

1) Herri izenak euskaraz

Herri izena	Herriaren izen ofiziala	Udalerria euskaraz	Udalerriaren izen ofiziala
Ainharbe	Aïnharp	Ainharbe	Aïnharp
Aloze	Alos	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Altzabeheti	Alçabéhéty	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
Altzai	Alçay	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
Altzürükü	Aussurucq	Altzürükü	Aussurucq
Arhane	Arhan	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Arrokiaga	Roquiague	Arrokiaga	Roquiague
Arüe	Aroue	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Astüe	Restoue	Liginaga-Astüe	Laguinge-Restoue
Atharratze	Tardets	Atharratze-Sorholüze	Tardets-Sorholus
Atherei	Athérey	Ligi-Atherei	Licq-Athérey
Barkoxe	Barcus	Barkoxe	Barcus
Berroeta	Berraute	Domintxaine-Berroeta	Domezain-Berraute
Berrogaine	Berrogain	Berrogaine-Lahüntze	Berrogain-Laruns
Bildoze	Viodos	Bildoze-Onizepea *(-a)* (*)	Viodos-Abense-de-Bas
Domintxaine	Domezain	Domintxaine-Berroeta	Domezain-Berraute
Doneztebe	Saint-Etienne	Zalgize-Doneztebe	Sauguis-Saint-Etienne
Erribareita	Rivareyte	Ozaraine-Erribareita	Osserain-Rivareyte
Eskiula	Esquiule	Eskiula	Esquiule
Etxarri	Etcharry	Etxarri	Etcharry
Etxebarre	Etchebar	Etxebarre	Etchebar
Ezpeize	Espès	Ezpeize-Ündüreine	Espès-Undurein
Gamere	Camou	Gamere-Zihiga	Camou-Cihigue
Garindaine	Garindein	Garindaine	Garindein
Gotaine	Gotein	Gotaine-Irabarne	Gotein-Libarrenx
Hauze	Haux	Hauze	Haux
Idauze	Idaux	Idauze-Mendi	Idaux-Mendy
Irabarne	Libarrenx	Gotaine-Irabarne	Gotein-Libarrenx
Iruri	Trois-Villes	Iruri	Trois-Villes
Ithorrotze	Ithorots	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Jeztaze	Gestas	Jeztaze	Gestas
Lakarri	Lacarry	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Larrabile	Larrebieu	Ürrüstoi-Larrabile	Arrast-Larrebieu
Larraine	Larrau	Larraine	Larrau
Larrori	Larrory	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Laruntze	Laruns	Berrogaine-Lahüntze	Berrogain-Laruns

(*) Kontuan hartu behar da *(-a)* agertzen dencan, amaierako *-a* ez dela itsatsia, artikulua baizik, hots: *Onizepea, Onizepean...*; baina *Onizepeko, Onizepera, Onizepetik...*

Zuberoako herri izendegia

Herri izena	Herriaren izen ofiziala	Udalerria euskaraz	Udalerriaren izen ofiziala
Lexantzü	Lichans	Lexantzü-Zünharre	Lichans-Sunhar
Lextarre	Licharre	Maule-Lextarre	Mauléon-Licharre
Ligi	Licq	Ligi-Atherei	Licq-Athérey
Liginaga	Laguinge	Liginaga-Astüe	Laguinge-Restoue
Lohitzüne	Lohitzun	Lohitzüne-Oihergi	Lohitzun-Oyhercq
Maule	Mauléon	Maule-Lextarre	Mauléon-Licharre
Mendi	Mendy	Idauze-Mendi	Idaux-Mendy
Mendibile	Mendibieu	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Mendikota	Menditte	Mendikota	Menditte
Mitikile	Moncayolle	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Montori / Berorize	Montory	Montori / Berorize	Montory
Muskildi	Musculdy	Muskildi	Musculdy
Oihergi	Oyhercq	Lohitzüne-Oihergi	Lohitzun-Oyhercq
Olhaibi	Olhaïby	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Onizegaine	Abense	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Onizepea *(-a)* (*)	Abense-de-Bas	Bildoze-Onizepea *(-a)* (*)	Viodos-Abense-de-Bas
Ospitalepea *(-a)* (*)	Hôpital-Saint--Blaise (L')	Ospitalepea *(-a)* (*)	Hôpital-Saint-Blaise (L')
Ozaraine	Osserain	Ozaraine-Erribareita	Osserain-Rivareyte
Ozaze	Ossas	Ozaze-Zühara	Ossas-Suhare
Pagola	Pagolle	Pagola	Pagolle
Sarrikotagaine	Charritte-de-Haut	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Sarrikotapea *(-a)* (*)	Charritte-de-Bas	Sarrikotapea *(-a)* (*)	Charritte-de-Bas
Sohüta	Chéraute	Sohüta	Chéraute
Sorholüze	Sorholus	Atharratze-Sorholüze	Tardets-Sorholus
Ündüreine	Undurein	Ezpeize-Ündüreine	Espès-Undurein
Urdatx / Santa Grazi	Sainte-Engrâce	Urdatx / Santa-Grazi	Sainte-Engrâce
Urdiñarbe	Ordiarp	Urdiñarbe	Ordiarp
Ürrüstoi	Arrast	Ürrüstoi-Larrabile	Arrast-Larrebieu
Zalgize	Sauguis	Zalgize-Doneztebe	Sauguis-Saint-Etienne
Ziboze	Sibas	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Zihiga	Cihigue	Gamere-Zihiga	Camou-Cihigue
Zühara	Suhare	Ozaze-Zühara	Ossas-Suhare
Zunharre	Sunhar	Lexantzü-Zunharre	Lichans-Sunhar
Zunharreta	Sunharrete	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete

(*) Kontuan hartu behar da *(-a)* agertzen denean, amaierako *-a* ez dela itsatsia, artikulua baizik, hots: *Onizepea, Onizepean...*; baina *Onizepeko, Onizepera, Onizepetik...*

2) Herri izenak frantsesez

Herriaren izen ofiziala	Herri izena	Udalerria euskaraz	Udalerriaren izen ofiziala
Abense	Onizegaine	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Abense-de-Bas	Onizepea *(-a)* (*)	Bildoze-Onizepea *(-a)* (*)	Viodos-Abense-de-Bas
Aïnharp	Ainharbe	Ainharbe	Aïnharp
Alçabéhéty	Altzabeheti	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
Alçay	Altzai	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
Alos	Aloze	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Arhan	Arhane	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charrite-de-Haut
Aroue	Arüe	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Arrast	Ürrüstoi	Ürrüstoi-Larrabile	Arrast-Larrebieu
Athérey	Atherei	Ligi-Atherei	Licq-Athérey
Aussurucq	Altzürükü	Altzürükü	Aussurucq
Barcus	Barkoxe	Barkoxe	Barcus
Berraute	Berroeta	Domintxaine-Berroeta	Domezain-Berraute
Berrogain	Berrogaine	Berrogaine-Lahüntze	Berrogain-Laruns
Camou	Gamere	Gamere-Zihiga	Camou-Cihigue
Charritte-de-Bas	Sarrikotapea *(-a)* (*)	Sarrikotapea *(-a)* (*)	Charritte-de-Bas
Charritte-de-Haut	Sarrikotagaine	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Chéraute	Sohüta	Sohüta	Chéraute
Cihigue	Zihiga	Gamere-Zihiga	Camou-Cihigue
Domezain	Domintxaine	Domintxaine-Berroeta	Domezain-Berraute
Espès	Ezpeize	Ezpeize-Ündüreine	Espès-Undurein
Esquiule	Eskiula	Eskiula	Esquiule
Etcharry	Etxarri	Etxarri	Etcharry
Etchebar	Etxebarre	Etxebarre	Etchebar
Garindein	Garindaine	Garindaine	Garindein
Gestas	Jeztaze	Jeztaze	Gestas
Gotein	Gotaine	Gotaine-Irabarne	Gotein-Libarrenx
Haux	Hauze	Hauze	Haux
Hôpital-Saint--Blaise (L')	Ospitalepea *(-a)* (*)	Ospitalepea *(-a)* (*)	Hôpital-Saint-Blaise (L')
Idaux	Idauze	Idauze-Mendi	Idaux-Mendy
Ithorots	Ithorrotze	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Lacarry	Lakarri	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Laguinge	Liginaga	Liginaga-Astüe	Laguinge-Restoue

(*) Kontuan hartu behar da *(-a)* agertzen denean, amaierako *-a* ez dela itsatsia, artikulua baizik, hots: *Onizepea, Onizepean...*; baina *Onizepeko, Onizepera, Onizepetik...*

Herriaren izen ofiziala	**Herri izena**	**Udalerria euskaraz**	**Udalerriaren izen ofiziala**
Larrau	Larraine	Larraine	Larrau
Larrebieu	Larrabile	Ürrüstoi-Larrabile	Arrast-Larrebieu
Larrory	Larrori	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Laruns	Larüntze	Berrogaine-Lahüntze	Berrogain-Laruns
Libarrenx	Irabarne	Gotaine-Irabarne	Gotein-Libarrenx
Lichans	Lexantzü	Lexantzü-Zünharre	Lichans-Sunhar
Licharre	Lextarre	Maule-Lextarre	Mauléon-Licharre
Licq	Ligi	Ligi-Atherei	Licq-Athérey
Lohitzun	Lohitzüne	Lohitzüne-Oihergi	Lohitzun-Oyhercq
Mauléon	Maule	Maule-Lextarre	Mauléon-Licharre
Mendibieu	Mendibile	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Menditte	Mendikota	Mendikota	Menditte
Mendy	Mendi	Idauze-Mendi	Idaux-Mendy
Moncayolle	Mitikile	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Montory	Montori / Berorize	Montori / Berorize	Montory
Musculdy	Muskildi	Muskildi	Musculdy
Olhaïby	Olhaibi	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Ordiarp	Urdiñarbe	Urdiñarbe	Ordiarp
Ossas	Ozaze	Ozaze-Zühara	Ossas-Suhare
Osserain	Ozaraine	Ozaraine-Erribareita	Osserain-Rivareyte
Oyhercq	Oihergi	Lohitzüne-Oihergi	Lohitzun-Oyhercq
Pagolle	Pagola	Pagola	Pagolle
Restoue	Astüe	Liginaga-Astüe	Laguinge-Restoue
Rivareyte	Erribareita	Ozaraine-Erribareita	Osserain-Rivareyte
Roquiague	Arrokiaga	Arrokiaga	Roquiague
Sainte-Engrâce	Urdatx / Santa Grazi	Urdatx / Santa-Grazi	Sainte-Engrâce
Saint-Etienne	Doneztebe	Zalgize-Doneztebe	Sauguis-Saint-Etienne
Sauguis	Zalgize	Zalgize-Doneztebe	Sauguis-Saint-Etienne
Sibas	Ziboze	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Sorholus	Sorholüze	Atharratze-Sorholüze	Tardets-Sorholus
Suhare	Zühara	Ozaze-Zühara	Ossas-Suhare
Sunhar	Zunharre	Lexantzü-Zunharre	Lichans-Sunhar
Sunharrete	Zunharreta	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
Tardets	Atharratze	Atharratze-Sorholüze	Tardets-Sorholus
Trois-Villes	Iruri	Iruri	Trois-Villes
Undurein	Ündüreine	Ezpeize-Ündüreine	Espès-Undurein
Viodos	Bildoze	Bildoze-Onizepea *(-a)* (*)	Viodos-Abense-de-Bas

(*) Kontuan hartu behar da *(-a)* agertzen denean, amaierako *-a* ez dela itsatsia, artikulua baizik, hots: *Onizepea, Onizepean...*; baina *Onizepeko, Onizepera, Onizepetik...*

3) Eskualdeak

Herri izena	Herriaren izen ofiziala	Udalerria euskaraz	Udalerriaren izen ofiziala
Haute-Soule (la) / Basabürüa *(-a)* (*)			
		Val Dextre (le) / Ibarresküin	
Altzabeheti	Alçabéhéty	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
Altzai	Alçay	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
Aloze	Alos	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Arhane	Arhan	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Gamere	Camou	Gamere-Zihiga	Camou-Cihigue
Lakarri	Lacarry	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Onizegaine	Abense	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Sarrikotagaine	Charritte-de-Haut	Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine	Lacarry-Arhan-Charritte-de-Haut
Ziboze	Sibas	Aloze-Ziboze-Onizegaine	Alos-Sibas-Abense
Zihiga	Cihigue	Gamere-Zihiga	Camou-Cihigue
Zunharreta	Sunharrete	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	Alçay-Alçabéhéty-Sunharrete
		Val Senestre (le) / Ibarrezker	
Astüe	Restoue	Liginaga-Astüe	Laguinge-Restoue
Atharratze	Tardets	Atharratze-Sorholüze	Tardets-Sorholus
Atherei	Athérey	Ligi-Atherei	Licq-Athérey
Etxebarre	Etchebar	Etxebarre	Etchebar
Hauze	Haux	Hauze	Haux
Iruri	Trois-Villes	Iruri	Trois-Villes
Larraine	Larrau	Larraine	Larrau
Lexantzü	Lichans	Lexantzü-Zünharre	Lichans-Sunhar
Ligi	Licq	Ligi-Atherei	Licq-Athérey
Liginaga	Laguinge	Liginaga-Astüe	Laguinge-Restoue
Montori / Berorize	Montory	Montori / Berorize	Montory
Sorholüze	Sorholus	Atharratze-Sorholüze	Tardets-Sorholus
Urdatx / Santa Grazi	Sainte-Engrâce	Urdatx / Santa-Grazi	Sainte-Engrâce
Zunharre	Sunhar	Lexantzü-Zunharre	Lichans-Sunhar
Basse-Soule (la) ou Barhoue (la) / Pettarra *(-a)* (*)			
Ainharbe	Aïnharp	Ainharbe	Aïnharp
Arüe	Aroue	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Berroeta	Berraute	Domintxaine-Berroeta	Domezain-Berraute
Berrogaine	Berrogain	Berrogaine-Lahüntze	Berrogain-Laruns
Bildoze	Viodos	Bildoze-Onizepea *(-a)* (**)	Viodos-Abense-de-Bas
Domintxaine	Domezain	Domintxaine-Berroeta	Domezain-Berraute
Erribareita	Rivareyte	Ozaraine-Erribareita	Osserain-Rivareyte
Etxarri	Etcharry	Etxarri	Etcharry

(*) *Basabürüa, Basabürüan...*; baina *Basabürüko, Basabürütik...*
(**) Kontuan hartu behar da *(-a)* agertzen denean, amaierako *-a* ez dela itsatsia, artikulua baizik, hots: *Onizepea, Onizepean...*; baina *Onizepeko, Onizepera, Onizepetik...*

Herri izena	Herriaren izen ofiziala	Udalerria euskaraz	Udalerriaren izen ofiziala
Ezpeize	Espès	Ezpeize-Ündüreine	Espès-Undurein
Ithorrotze	Ithorots	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Jeztaze	Gestas	Jeztaze	Gestas
Larrabile	Larrebieu	Ürrüstoi-Larrabile	Arrast-Larrebieu
Larrori	Larrory	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Laründze	Laruns	Berrogaine-Lahüntze	Berrogain-Laruns
Lohitzüne	Lohitzun	Lohitzüne-Oihergi	Lohitzun-Oyhercq
Mendibile	Mendibieu	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Mitikile	Moncayolle	Mitikile-Larrori-Mendibile	Moncayolle-Larrory-Mendibieu
Oihergi	Oihergi	Lohitzüne-Oihergi	Lohitzun-Oyhercq
Olhaibi	Olhaïby	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	Aroue-Ithorots-Olhaïby
Onizepea *(-a)*	Abense-de-Bas	Bildoze-Onizepea *(-a)*	Viodos-Abense-de-Bas
Ospitalepea *(-a)*	Hôpital-Saint--Blaise (L')	Ospitalepea *(-a)*	Hôpital-Saint-Blaise (L')
Ozaraine	Osserain	Ozaraine-Erribareita	Osserain-Rivareyte
Sarrikotapea *(-a)*	Charritte-de-Bas	Sarrikotapea *(-a)*	Charritte-de-Bas
Sohüta	Chéraute	Sohüta	Chéraute
Ündüreine	Undurein	Ezpeize-Ündüreine	Espès-Undurein
Ürrüstoi	Arrast	Ürrüstoi-Larrabile	Arrast-Larrebieu

Arbailles (les)Arbaila: *Arbailan, Arbailatik, Arbailara*

Grande Arbaille (la) / Arbaila Handia *(-a)* (*)

Arrokiaga	Roquiague	Arrokiaga	Roquiague
Doneztebe	Saint-Etienne	Zalgize-Doneztebe	Sauguis-Saint-Etienne
Gotaine	Gotein	Gotaine-Irabarne	Gotein-Libarrenx
Idauze	Idaux	Idauze-Mendi	Idaux-Mendy
Irabarne	Libarrenx	Gotaine-Irabarne	Gotein-Libarrenx
Mendi	Mendy	Idauze-Mendi	Idaux-Mendy
Mendikota	Menditte	Mendikota	Menditte
Ozaze	Ossas	Ozaze-Zühara	Ossas-Suhare
Zalgize	Sauguis	Zalgize-Doneztebe	Sauguis-Saint-Etienne
Zühara	Suhare	Ozaze-Zühara	Ossas-Suhare

Petite Arbaille (la) / Arbaila Txipia *(-a)* (**)

Altzürükü	Aussurucq	Altzürükü	Aussurucq
Garindaine	Garindein	Garindaine	Garindein
Muskildi	Musculdy	Muskildi	Musculdy
Pagola	Pagolle	Pagola	Pagolle
Urdiñarbe	Ordiarp	Urdiñarbe	Ordiarp

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1998ko azaroaren 27an eta Gasteizen, 1998ko abenduaren 18an, onartua)

(*) *Arbaila Handia, Arbaila Handian...*; baina *Arbaila Handiko...*
(**) *Arbaila Txipia, Arbaila Txipian...*; baina *Arbaila Txipitik, Arbaila Txipiko...*

93
HIZTEGI BATUA
nahi - oihan

nahi 1 iz.; 2 *Bizk.* junt.
nahi... nahi *Bizk.*: *nahi txantxetan zoazela, nahi benetan zoazela...*
nahi izan, nahi izaten, nahiko / nahi izango, *du* ad.
esan nahi izan: *ez dakit hitz horrek zer esan nahi duen*
nahiago izan
nahien izan
nahiera
nahierara: *mana gozoa biltzea asko zuten nahierara bazkatzeko*
nahiez: *ba al da, ezkontzeko, nahieza baino eragozpen handiagorik?; lanpostu batean nahiezik dagoena*
nahigabe
nahigabealdi
nahigabetsu
nahigabetu, nahigabe(tu), nahigabetzen, *da/du* ad.
nahikari
nahikeria
nahiko
nahikotu, nahiko(tu), nahikotzen, *da/du* ad.
nahikunde 'nahi izatea, nahikaria; bereziki, nahi izate hutsa edo ondoriorik gabea': *batasunaren aldeko gogo bizia nabari genuen; nahiz, eta ez nahikundea*
nahimen
nahita
nahita ere
nahitaez
nahitaezko
nahitanahiez* e. **nahitaez, nahi eta nahi ez**
nahitara *Ipar.* '(bere) gogoz'
nahitasun
nahiz junt.
nahiz eta
nahiz... nahiz
nahiz... edo...
nakar: *nakarrezko kutxatila*
nano iz. eta izond.
narda
narda izan
nardagarri
nardarazi, nardaraz, nardarazten, *du* ad.
nardatu, narda(tu), nardatzen, *da/du* ad.
nardo = akara: *Valeriana celtica*
nare
narerik
naretasun
naretu, nare(tu), naretzen, *da/du* ad.
narkotiko

naro
naroki
naroro
narotasun
narotu, naro(tu), narotzen, *da/du* ad.
narra = lera 1
narras 1 izond.: *hizkera narrasa*; 2 adlag. 'herrestan, arrastaka'
narraska 'herrestan, arrastaka'
narraskeria
narraski
narrastari izond.: *suge narrastariak*
narrastasun
narrasti
narrastu, narras(tu), narrasten, *da/du* ad.
narrats* e. **narras**
narraz* e. **narras**
narrazti* e. **narrasti**
narriatu, narria(tu), narriatzen, *Zah.*
narrio *Zah.* 'akatsa, orbana'
narritamendu *Zah.*
narritatu, narrita, narritatzen, *du* ad. 'haserrearazi; zirikatu'
narru *Bizk.* h. **larru**
nartziso: *Narcissus sp.*
nasa
nasai 1 *Ipar.* 'ugaria, zabala'; 2 *Bizk.* 'lasaia'
nasaialdi *Bizk.*
nasaigarri *Bizk.*
nasaikeria *Bizk.*
nasaiki *Ipar.* 'ugaritasunez'
nasaitasun 1 *Ipar.* 'ugaritasuna, joritasuna'; 2 *Bizk.* 'lasaitasuna'
nasaitu, nasai(tu), nasaitzen, *Bizk. da/du* ad.
naski *Ipar.* 'nire ustez': *bai naski!* 'bai segurki'
Natibitate *Herr.* 'Eguberria'
natura
natural
naturalismo
naturalista
naturaltasun
nausa *Ipar.* 'burla, trufa'
nausi* e. **nagusi**
naza *Ipar.* 'erretena, ubidea'
nazaretar
nazi
nazio
nazioarteko
nazioartekotasun
nazional
nazionalismo
nazionalista
nazionalitate
nazionalizatu, nazionaliza, nazionalizatzen, *du* ad.: *burdinbideak nazionalizatu zituzten*
nazionalsozialismo
nazionalsozialista
naziotasun: *finlandiarren naziotasuna asko indartu zen halako epetan*
nazismo
nazka
nazkagarri

nazkagarrikeria
nazkatu, nazka(tu), nazkatzen, *da/du* ad.
neba *Bizk.*
neba-arrebak
nebulosa = izar-laino
nederlandera
negar
negar(-)anpulu
negar egin
negar eragin
negarrari eman
negar batean
negar(-)ontzi
negar(-)zotin
negarrez
negarbide
negargale *Naf.* 'negargura'
negargarri
negargarrizko
negargura
negarraldi
negarti
negartsu
negartu, negar(tu), negartzen, *du* ad.
negatibo
negel *Ipar.* 'larruazaleko erregosia'
negel(-)belar: *Knautia arvensis*
negoziatu, negozia, negoziatzen, *du* ad.
negoziazio
negozio
negu
negualde 1 'Iparraldea'; 2 'negualdia'
negualdi
neguburu
negutar izond.
negute
negutegi h. **berotegi**
negutu, negu(tu), negutzen, *du* ad.
nehoiz *Ipar.* 'inoiz'
nehola *Ipar.* 'inola'
neholere *Ipar.* 'inola ere'
nehon *Ipar.* 'inon'
nehor *Ipar.* 'inor'
nehorat *Ipar.* 'inora'
nekabide
nekadura
nekaezin
nekagarri
nekaldi
nekarazi, nekaraz, nekarazten, *du* ad.
nekatu, neka, nekatzen, *da/du* ad.
nekazale
nekazalgo *Naf.* 'nekazaritza'
nekazari: *nekazari(-)kooperatibak*
nekazaritza: *nekazaritza(-)produktuak*
neke
neke izan: *neke da beleaz aztore egitea; ez zaigu neke horrelakoak ulertzea; neke du hizkuntza ilun batek hizkuntza argi bati gogor egitea; neke izan duzu euskaraz ikastea?*

nekepe (batez ere leku-denborazko kasuetan)
neketsu
nekez 1 adlag.'eragozpen edo zailtasun handiz'
nekez 2 izond. 'neketsua, zaila'
nekezia *Ipar.*
nekoso *Heg. Lgart.*
nekosta: *Cupressus sp.*
nekrologia h. **hilberri**
nekropoli
nektar: *jainkoen nektarra*
neolitiko
neologismo
nerabe
nerabetasun
nerabezaro
nerau
nerbio
neska
neskame
neskametza
neskatila
neskato
neskatxa
neskazahar
neskazahartu, neskazahar(tu), neskazahartzen, *da/du* ad.
neskazale
neskenegun *Zub.* 'larunbata'
net *Ipar. g. er.* 'txit, oso'
neu
neumatiko* e. **pneumatiko**
neumonia* e. **pneumonia**
neurastenia
neureganatu, neuregana, neureganatzen, *du* ad. (Oharra: *neureganatu / nireganatu* eta *neuretu / niretu* sistema berria onarturik, gainerako izenordeei dagozkien eratorriak ere modu berean osatuko dira).
neuretu, neure(tu), neuretzen, *du* ad.
neurgai
neurgailu
neurgaitz
neurgarri
neurkera
neurketa
neurkizun
neurologia
neurona
neurosi
neurotiko
neurri
neurribide
neurridun
neurrigabe
neurrigabeko
neurrigabekeria
neurrigabeki
neurrigabetasun
neurriratu, neurrira(tu), neurriratzen, *da/du* ad.

neurritasun
neurritsu
neurrizko
neurtezin
neurtitz
neurtu, neur, neurtzen, *du* ad.: *zerbaiten luze-zabala neurtu; soka horrek bost metro neurtzen ditu* h. *soka hori bost metro luze da*
neurtzaile
neutral
neutralizatu, neutraliza, neutralizatzen, *du* ad.
neutraltasun
neutro
neutroi
ni
nibel
niganatu h. **nireganatu**
nigar* *Ipar.* e. **negar**
nihaur
nihilismo
nikel
nikeleztatu, nikelezta(tu), nikeleztatzen, *du* ad.
niketz *g. er.: mila goraintzi, niketz, atezainari*
nikotina
ninfa
nini
ninika
ninikatu, ninika(tu), ninikatzen, *da* ad.
nireganatu, niregana(tu), nireganatzen, *da/du* ad.: *mutil hori nireganatu arte ez naiz geldituko*
nirekoi
nirekoikeria
nirekoitasun
niretar
niretu, nire(tu), niretzen, *du* ad.: *niretu ditut bestek egin dituen bekatu guztiak*
nitrato
nitro
nitrogeno
nitroglizerina
no
noka
nobela 'eleberria'
nobelagintza
nobizio
noble
noblezia
noel *Ipar. Liter.* 'gabon-kanta'
noharroin *Zah., g. er.* 'behartsua, erromesa'
noiz
noiz... noiz...
noiz edo noiz
noiz edo behin
noiz baino noiz
noiz ere: *noiz ere uste baituzu urrun naizela zureganik, orduan zure hurbilean naiz*
noiz eta ere
noiz nola: *langilea da? Noiz nola*
noizean behin
noizean behingo
noizean behinka

noizean noiz
noizetik noizera
noizik noizera
noizik behin
noizik behingo
noizik behinean
noizik behinka
noizaldi *Jas.*
noizbait
noizbaiteko
noizbehinka
noizdaino
noizdanik
noizdanik(ak)o
noizgura
noizko 1 adlag.: *noizko bukatuko duzue lana?*; 2 izlag.: *Jainkoak daki noizkoa den*
noiznahi
noiznahi den
noiznahiko
noiznolako
noiztenka *Ipar.* 'noizbehinka'
noiztik
noiztik(ak)o
noiztsu
noka adlag.: *noka hitz egin*
noketa
nola
nola... ere!
nola edo hala
nola hala
nola... hala...
nola eta ez... -n: *etorriko gara, nola eta ez duen sekulako euri(-)jasa egiten*
nola-halako
nolabait
nolabait ere
nolabaiteko
nolakatu, nolaka, nolakatzen, *Ipar., da/du* ad.: *begira zure gorputza lurpean eta nolakatua gelditzen den*
nolako
nolakotasun
nolakotsu: *hona, nolakotsua izan zen gure solasa*
nolanahi
nolanahi ere
nolanahika *Ipar.* 'nolanahi': *ez da, ordea, nolanahika egiteko lan bat*
nolanahiko 1 'edozein motatakoa'; 2 'erdipurdikoa'
nolatan
nolatsu
nolaz h. **nola**
nolazpait h. **nolabait**
nolerebait h. **nolabait ere**
nomada
nomenklatura
nominatibo
non
non edo han
non edo non
non ere 1: *non ere baitzaude, kanpoko zara eta arrotz*; 2: *Erromara jo zuen non ere sasoi hartan aurkitzen zen Hugolino*

hala... non
halako eran (gisaz, maneraz)... non
non (eta) ez... -n: *etorriko gara, nola eta ez duen sekulako euri(-)jasa egiten*

non-nahi = nonahi
non-nahi den = nonahi den
non-nahiko = nonahiko
non-nahitik = nonahitik = nondik-nahi

nonbait
nonbaitetik
nonbaitik *Ipar.* 'nonbaitetik'
nonbaitera h. **norabait**
nonbait han
nonbait hor
nonbaiteko

nonbre**Ipar.* e. **kopuru**

nondar

nondik
nondik edo handik
nondik nora
nondik norako
nondik ere: *hitzak hartu behar dira, nondik ere baitute beren etorkia*
nondik(ak)o

nondik-nahi = non-nahitik, nonahitik
nondik-nahiko

nongo

nongotar

nongotasun

nongura *Bizk.*

nonius *Mat.*

nonnahi* e. **nonahi, non-nahi**

nontsu

nor
nor edo nor
nor ere 1: *nori ere pot eginen baitiot, hura da*; 2: *nor ere baitzara, adiskidea, barka iezadazu ene bizitasuna*
nor izan: *ez naiz nor auzi hau erabakitzeko*
nor ... nor: *herri berean bizi behar dugu, nork batera, nork bestera maite dugun herrian*

nora
nora edo hara
nora ere; *nora ere doan, hara noakizu atzetik*
nora gabe
norabait
nora ezean: *itsasontzia nora ezean zihoan*
norako

norabide 'norabide/noranzko formen adiera-banaketa argituko da'

norabideratu, norabidera, norabideratzen, *da/du* ad.

noraezean 'nahitaez, ezinbestean': *ez ohi naiz sartu ardandegietan noraezean baino*
noraezeko

noragabe izond.: *gerra alferrikako eta noragabea*

noraino
norainoko

noranahi
noranahiko

norantz

norantza* e. **noranzko**

noranzko: *norabide baten bi noranzkoak*

noratsu

noratu, nora(tu), noratzen, *Zah., da/du* ad.
norbait
norbaitzuk
norbera *Heg.*
norgehiagoka
norgehiagokan
norgehiagokako
norlehenka
normal
normalizatu, normaliza, normalizatzen, *da/du* ad.
normalizazio
normalki
normaltasun
nornahi
nornahi den *Ipar.* 'nornahi'
nortasun: *nortasun-agiria*
nortsu: *nortsu zen edo zertsu bizitze eraman zuen*
nortu, nor(tu), nortzen, *da/du* ad.
nortzuk
noski 1 (ziurtasun adierazlea) 'jakina, horixe!': *bai noski!* 'bai segurki!'; *Noski baietz!** e. *Bai, noski!*; 2 *g. er.* 'beharbada, dirudienez'
nostalgia
nota 1: 1 *Mus.;* 2: *eskolako notak*
nota 2 *Ipar., g. er.* 'lohidura, orbana'
notalgo *Ipar.* 'notariotza'
notari* e. **notario**
notario
notariotza
notizia *Heg. Herr.*
noziarazi, noziaraz, noziarazten, *dio* ad.
nozitu, nozi, nozitzen, *du* ad.
nuklear
nukleo
nulu erabileremu oso mugatukoa
numero *Gram.*
numismatika
nun* e. **non**
nuntzio
nylon

* * *

Ñ

ñabar
ñabardura
ñabartu, ñabar(tu), ñabartzen, *du* ad.
ñañan egin *Haur.*
ñaño *Adkor.*
ñandu: *Rhea americana*
ñapur *Ipar.* izond.
ñapurki *Ipar.*
ñapurtu, ñapur(tu), ñapurtzen, *Ipar., da/du* ad.
ñarro *Ipar.*
ñarrotu, ñarro(tu), ñarrotzen, *Ipar., da/du* ad.
ñimiño
ñimiñotu, ñimiño(tu), ñimiñotzen, *da/du* ad.

ñir-ñir adlag.
ñir-ñir egin
ñirñir iz.
ñirñirka
ñirñirtu, ñirñir(tu), ñirñirtzen, *da* ad.
ñu: *Connochaetes sp. + Gorgon sp.*

* * *

O

o *Interj.*
oasi
obal izond.
obalo
obediarazi, obediaraz, obediarazten, *dio* ad.
obedient *Ipar.* 'esanekoa'
obediente *Heg.* 'esanekoa'
obedientzia 'esanekotasuna'
obeditu, obedi, obeditzen, *du/dio* ad.
obeditzaile
obeditze
obelisko
objektibo
objektiboki
objektibotasun
objektu
objektore (*kontzientzia(-)objektore* hitz elkartuan bakarrik erabiltzekoa)
kontzientzia(-)objektore = kontzientzia(-)eragozle
objekzio
kontzientzia(-)objekzio = kontzientzia(-)eragozpen
obligarazi, obligaraz, obligarazten, *Ipar. du* ad.
obligatu h. **behartu, obligarazi**
obligazio *Ekon.*
obra
obramendu *Heg. Herr.* 'giza kaka'
obratu, obra(tu), obratzen, *du* ad.
obus
oda
odaiertz h. **ostertz**
odi* e. **hodi**
odieria* e. **hoditeria**
odol
odol(-)kolpe
odol(-)belar: *Parietaria officinalis*
odol(-)hodi
odolaldi
odolbatu = odolbildu, odoluri
odolbide
odolbildu = odolbatu, odoluri
odoldu, odol(du), odoltzen, *da/du* ad.
odoldun
odolemaile
odoleztatu, odolezta, odoleztatzen, *Ipar.* eta *Naf., da/du* ad. 'odoldu'
odoleztatze
odolgabe izond.
odolgabetu, odolgabe(tu), odolgabetzen, *da/du* ad.

odolgiro izond. 'odolzalea'
odoljario
odolkara 'odol kolorekoa'
odolki = odoloste
odolkide
odolkidetasun
odolkoi 'odolzalea'
odolodi* e. **odol(-)hodi**
odoloste *Bizk.* = **odolki**
odoltsu
odoluri *Ipar.* eta *Naf.* = **odolbatu, odolbildu**
odoluste
odolustu 1 odoluts, odolusten, *da/du* ad.
odolustu 2 iz. 'odolustea': *odolustea agudoago egiteko, harakinaren laguntzaileak atzeko hanka batetik oratu zion idiskoari*
odolzale
odontologia
ofenditu, ofendi, ofenditzen, *Heg.,du* ad. 'iraindu'
ofentsa
ofentsagarri *Zah.* 'iraingarria'
ofentsatu, ofentsa(tu), ofentsatzen, *Ipar., du* ad. 'iraindu'
ofentsatzaile *Ipar.* 'iraintzailea'
ofizial 1 izond.
ofizial 2 *Heg.* = **ofizier** iz. 'armadako karguduna'
ofiziale *Ipar.* iz. 'bere kontura ari den hargin, arotz, etab.'
ofizialki
ofizialtasun
ofizier *Ipar.* = **ofizial** 'armadako karguduna'
ofizio
ofrenda *Zah.* h. **eskaintza**
ogale *Ipar.* 'azienda(-)bazka'
ogasun 1 *Bizk.* 'ondasuna'; 2 *Admin.* 'finantzak'
ogen *Zub.* h. **hoben**
ogerleko
ogi 1 'jangaia'; 2 *Ipar.* batez ere, 'garia'
ogi-zuhaitz: *Artocarpus communis*
ogibide
ogidun *Bizk.* 'ogi(-)saltzailea'
ogigazta *Bizk.* = **erbinudea:** *Mustela nivalis*
ogiketa 1 iz. 'gari-uzta; gari-kopurua'; 2 *Ipar.* adlag. 'gari bila; ogi bila': *ogiketa joan dira*
ogipeko iz.
ogitarteko iz.
ogitsu 'garitsua'
ogu(t)zi* e. **ahoskatu, ebaki**
oh* e. **o**
ohaburu* e. **oheburu**
ohaburuko* e. **oheburuko**
ohaide
ohako
ohantze *Ipar.* 1 'habia'; 2 'etzauntza, etzalekua'
ohape* e. **ohepe**
ohar
ohargarri
ohargarriki
oharkabe
oharkabean
oharkabeko
oharkabez

oharkabekeria
oharkabetasun
oharkabetu, oharkabe(tu), oharkabetzen, *da* ad.
oharkizun = oharpen
oharkor
oharmen
oharpen
ohartarazi, ohartaraz, ohartarazten, *du* ad.
oharti
ohartu, ohart/ohartu, ohartzen, 1 *da/du* ad.: *ez da horretaz ohartu*; 2 *Ipar., zaio* ad.
ohartuki
ohartzaile
ohartzeke
ohatu, oha, ohatzen, *Ipar.* batez ere, 1 *da* ad. 'ohean etzan'; 2 *da/du* ad. 'oheratu'
ohatze 1 *Ipar.* eta *Naf.* 'ohea'; 2 *Ipar.* 'etzauntza'
ohe
ohe(-)bagoi
ohebagoi* e. **ohe(-)bagoi**
oheburu
oheburuko
ohepe
oherarazi, oheraraz, oherarazten, *du* ad.
oheratu, ohera(tu), oheratzen, *da/du* ad.
ohi 1 partikula: *zintzo etorri ohi zen*; 2 (elkarketako bigarren osagaia): *lehendakari ohia*
ohiz kanpoko
ohiko
ohikotasun
ohikunde
ohikuntza
ohil *Zub.* 'basa, basatia'
ohildu, ohil(du), ohiltzen, *Zub., du* ad. 'egotzi, bota'
ohitu, ohi(tu), ohitzen, *da/du* ad.
ohitugabe
ohitura
ohiturazko
ohituratu* e. **ohitu**
ohizko
ohoin
ohoingo
ohoinkeria
ohointza
ohol
oholeztatu, oholezta(tu), oholeztatzen, *du* ad.
oholtxo
oholtza
ohondikatu, ohondika(tu), ohondikatzen, *Ipar. Zah.* 'oinperatu'
ohoragarri
ohoragarriki
ohorarazi, ohoraraz, ohorarazten, *du* ad.
ohoratu, ohora, ohoratzen, *du* ad.
ohoratzaile
ohore
ohoretsu
ohorezki *Ipar.*
ohorezko
ohostu* e. **ostu**

ohots* e. **ordots, orots**
oi 1 interj.
oi 2 'hortz-haginak inguratzen eta finkatzen dituen haragi sendo gorrixka'
oial* e. **oihal**
oian* e. **oihan**
oies
oihal
oihal(-)denda
oihal(-)etxola
oihaldegi* e. **oihaltegi**
oihaldenda* e. **oihal(-)denda**
oihaldun
oihalgile
oihalgintza
oihalki
oihaltegi
oihaltxo
oihan

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1998ko azaroaren 27an, eta Gasteizen, 1998ko abenduaren 18an, onartua)

94

HIZTEGI BATUA

oihanbide - orburu

oihanbide
oihandar
oihandu, oihan(du), oihantzen, *da/du* ad.
oihaneratu, oihanera(tu), oihaneratzen, *da/du* ad.
oihanpe
oihantsu
oihanzain
oihanzaingo
oihartzun
oiher *Ipar., Zah., g. er.* 'okerra'
oihu
oihu egin
oihuz
oihuz egon
oihuka
oihukari *g. er.* h. **oihulari**
oihukatu, oihuka(tu), oihukatzen, *du* ad.
oihulari
oihuztatu, oihuzta(tu), oihuztatzen, *du* ad.
oilagor: *Scolopax rusticola*
oilakaran 'zumalakarra': *Frangula alnus*
oilaki 'oilo(-)okela'
oilaloka
oilanda
oilar 1 'oiloaren arra'; 2 'arrain mota'
oilaran: *Prunus mahaleb*
oilarite *Jas.* 'egunsentia'
oilarkatu, oilarka, oilarkatzen, *Ipar.* 'oilartu; nabarmendu', *da/du* ad.
oilarkeria
oilartoki
oilartu, oilar(tu), oilartzen 1 'harrotu'; 2 'nagusitu, gailendu' *da* ad.
oilasko
oilaskoki
oilategi
oilo
oilo(-)salda
oilokeria
oiloki 'oiloaren motako hegaztia'
oilotu, oilo(tu), oilotzen, *da* ad.
oin 1 'pertsona, animalia nahiz gauzena'; 2 'bertsoarena'; 3 'luzera(-)neurria': *hamabost oin eta hamar ontza luze da*
oinez
oin hartu
oin(-)ohar

oin(-)zola
oina eman
oinalde
oinarri
oinarritu, oinarri(tu), oinarritzen, *da/du* ad.
oinarrizko
oinatz
oinaze
oinazealdi
oinazegarri
oinazetsu
oinazetu, oinaze(tu), oinazetzen, *du* ad.
oinazkar *Gip.* 'oinaztarria'
oinazpi iz.
oinazpiratu, oinazpira(tu), oinazpiratzen, *da/du* ad.
oinaztarri batez ere *Bizk.* 'lurra jotzen duen tximista': *trumoiak hots egin du eta oinaztarria dator gure gainera*
oinaztatu, oinazta, oinaztatzen, *Ipar.* 'oinazetu', *du* ad.
oinaztu *Bizk.* 'tximista'
oinaztura *Naf.* 'tximista'
oinbete* e. **oin**
oindun
oinetako
oinetakodun: *Karmeldar oinetakoduna*
oinetxe
oinezko iz.
oinkada
oinkatu, oinka(tu), oinkatzen, *du* ad.
oinorde
oinordeko
oinordekotasun
oinordekotza
oinordetza *Zuz.*
oinpe: *oinpean erabili*
oinperatu, oinpera(tu), oinperatzen, *du* ad.
oinustu, oinuts/oinustu, oinusten 'oinetakoak kendu, erantzi', *da* ad.: *oinuts zaitez, zeren lur hau santua den*
oinuts
oinutsean 'oinutsik'
oinutsik
oixtian *Ipar.* 'arestian'
oixtion
ok egin '(janariz edo edariz) erabat ase'
ok eragin
oka iz. 1 'oka egitea'; 2 'oka egiten dena'
oka egin
oka eragin
okada *Bizk.* 'gorakoa'
okagarri
okaila 'ardien gaitza'
okapi: *Okapia johnstoni*
okaran *Bizk.* 'arana': *Prunus domestica*
okasio 1 'aukera, era'; 2 *Gip. Herr.* 'liskarra'; 3 *Bizk.* 'hileta'
okatu, oka(tu), okatzen, *du* ad.
okaztagarri
okaztatu, okazta, okaztatzen, batez ere *Ipar., du* ad.
okela 'jateko haragia, abere-hegaztiena'

oker: *hori gaizki dago, eta beste hori okerrago*
oker egin: *besteren batek oker eginda, niri nahi zidan erantsi*
oker egon
oker ibili
okerbide
okerbideratu, okerbidera, okerbideratzen, *da/du* ad.
okerka
okerkeria
okerki
okerraldi
okerrarazi, okerraraz, okerrarazten, *du* ad.
okerreratu, okerrera(tu), okerreratzen, *da/du* ad. 'okerrera jo, okertu'
okerrune
okertasun
okertu, oker(tu), okertzen, *da/du* ad.
okertzaile
okil: *Picus + Dryocopus + Dendrocopos*
okin
okindegi
okintza 'okinaren lanbidea'
okitu 1 *Ipar.* izond.: *aberats okitua*
okitu 2 oki, okitzen, 'nazkatu', *da/du* ad.
okotz* e. **kokots**
oktaedro
oktogono
okulista
okume: *Aucoumea klaineana*
okuntza 'laborantzako lur ona'
okuntzatu, okuntza(tu), okuntzatzen, *du* ad.
okupatu, okupa, okupatzen, *da* ad.
okupazio
okzitaniar
okzitaniera
ola 1 'burdin lantegia'
ola 2 *Ipar.* 'artzain-etxola, txabola'
ola 3 *Ipar.* 'pilpira'
olagarro: *Octopoda*
olagizon
olajaun
olata
olatu *Heg.*
oldar
oldarka
oldarkor
oldarraldi
oldartsu
oldartu, oldar(tu), oldartzen, *da/zaio* ad.: *Lurrari uhin zabalak azkar oldartzen zaizkio*
olde 'borondatea, nahia, gogoa'
neure, bere... oldez
oldoztu, oldoz, oldozten 'pentsatu'
oleazio 'oliadura'
olerkari
olerkaritza
olerki
olerti 'poesia'
oles
oles egin

oleska
olgatu, olga, olgatzen, *Bizk. da/du* ad.
olgeta
olgetan
oliadura 'sakramentua'
oliatu, olia, oliatzen, *du* ad.
oliba
oliba(-)olio
olibadi
olibondo: *Olea europaea*
oligarka
oligarkia
oligarkiko
olinpiada
olinpiar
olio
oliontzi
oliotegi
oliotsu
olioztatu, oliozta, olioztatzen, *du* ad.
olo: *Avena sativa*
olo gaizto: *Avena fatua*
omeleta* e. **moleta**
omen 1 'ei'
omen 2 'ospea, fama'
omenez: *A. Irigaray jaunaren omenezko liburuan*
omenaldi
omendu, omen(du), omentzen, *du* ad.
omengarri
omenka
omentsu
Omiasaindu *Ipar.* 'Domu Santu(ru)'
omonier *Ipar.* 'kapilaua'
on 1 izond.; 2 iz.; 3 *Heg. Zah.* 'praenomen gisakoa': *On Manuel Lekuona*
bere (neure,...) onetik atera, irten, ilki
on beharrez
on eduki
on egin
on iritzi *dio* ad.
onean (egon, jarri,...)
onenean ere
onera etorri
onera ekarri
onez onean
onez-onez
onezkoak egin
on izan
onik onenean
ontzat eman
ontzat hartu
on-gaitz pl.: *proposamen baten on-gaitzak*
onargarri
onargarritasun
onarkizun
onarpen
onarrarazi
onartezin

onartu, onar, onartzen, *du* ad.
onbehar *Jas.* 'behartsua'
onbehartu, onbehar(tu), onbehartzen, *da/du* ad.
onbera
onberatasun
onbide
onbideratu, onbidera(tu), onbideratzen, *da/du* ad.
onda* e. **uhin**
ondamu *Jas.* 'bekaizkeria, inbidia'
ondare
ondarez: *Oihenarten paper pila baten jabe ondarez egin zen jaun hori*
ondasun
ondasundun
ondasunzale
onddo: *Mycota*
ondeste 'ipurtestea'
ondikatu, ondika, ondikatzen, *Ipar.* 'atsekabetu', *da/du* ad.
ondiko batez ere *Ipar.* 'atsekabea, zorigaitza'
ondikoz 'damurik, zoritxarrez'
ondo 1 adlag. = **ongi**
ondo 2 'alboa; ostea'
ondoan: *etxe ondoan; gerra ondoan*
ondoko izlag.
ondora
ondotik
ondotik(ak)o
ondorik
ondoz ondo
ondoz ondoko
ondo 3 batez ere *Ipar.* 'zenbait landare edo zuhaitzen banakoa'
ondoez
ondoezik
ondoko iz.
ondokotasun
ondoratu, ondora(tu), ondoratzen, 'alboratu, alderatu', *da* ad.
ondore 1 'ondorioa'; 2 'leinua'
ondorean h. **ondoren**
ondoren 1 pospos.
ondorenean
ondorengo izlag.
ondoren 2 iz.: *bekatuaren ondorenak*
ondorengo iz.
ondorio
ondorioa(k) atera: *hauxe da nik ateratzen dudan ondorioa*
ondorioz
ondoriozko *Gram.*: *ondoriozko perpausak*
ondoriotasun *Ipar.: izan du milioi bateko ondoriotasuna*
ondoriotsu
ondorioztatu, ondoriozta, ondorioztatzen, 'ondorioa atera', *du* ad.
ondotxo
ondotxoz 'askoz': *ondotxoz oroimen handiagoz hornitua*
ondozka
ondozkatu, ondozka(tu), ondozkatzen, *du* ad.
ondra *Heg. Herr.* 'ohorea'
ondradu *Heg. Herr.* izond. 'zintzoa, prestua': *pertsona ondradua*
ondratu, ondra(tu), ondratzen, *g. er.* 'ohoratu'
ondu, on(du), ontzen, *da/du* ad.

ondugabe
oneratu, onera(tu), oneratzen, *da/du* ad.
onerizko *Jas.* 'maitasuna'
onerizte *Zah.* 'maitasuna'
onesgarri
oneski
onesle
onespen
onest *Zah.* 'zintzoa, prestua'
onestasun
onetsarazi, onetsaraz, onetsarazten, *dio* ad.
onetsi, onets, onesten, *du* ad.
ongailu
ongailuztatu, ongailuzta, ongailuztatzen, *du* ad.
ongaitz* e. **on-gaitz**
ongarri 1 iz.
ongarri 2 izond.
ongarritsu
ongarritu, ongarri(tu), ongarritzen, *du* ad.
ongarriztatu, ongarrizta, ongarriztatzen, h. **ongarritu**
ongi 1 adlag. = **ondo**; 2 iz.: *ongiaren eta gaizkiaren zuhaitza*
ongi etorri!: *ongi etorri guztiok!*
ongietorri iz.
ongile
ongin batez ere *Bizk., g.er.*, 'ongilea'
onginahi
ongintza
ongitu, ongi(tu), ongitzen, *da/du* ad.
ongitxo
ongixko *Ipar.*
ongizate
onik adlag.: *onik atera zen*
onil = inbutu
oniritzi iz. 1 'maitasuna'; 2 'ontzat ematea, onestea'; 3 izond. 'maitatua': *euskal dantza oniritziak*; 4 'onetsia'
onize
onomastika
onomatopeia
ontarte
ontasun
ontsa *Ipar.* 'ongi, ondo'
ontsalaz *Ipar.* 'onenean ere'
ontsatu, ontsa(tu), ontsatzen, *Ipar., da/du* ad.
ontsatzaile *Ipar.*
ontsaxko *Ipar.* 'ondotxo, ongixko'
ontsu
ontxo
ontza
ontzako
ontza urre
ontzaile
ontzako 'ontzako urrea'
ontzi 1 'sukaldekoa'; 2 'ur gainekoa'
ontzidi
ontzigile
ontzigintza
ontzikada

ontziola 'itsasontziak egiten diren lantegia'
ontziratu, ontzira, ontziratzen, *da/du* ad.
ontziratze
ontzitegi 1 'ontziola'; 2 'sukaldeko ontzien apala'
ontziteria 'sukaldeko ontzien multzoa'
ontzitxo
ontzixka
ontzizain
ontzurre* e. **ontza urre**
onura
onuradun
onuragarri
onurakor* e. **onuragarri**
onuratsu
oñoña *Ipar.* 'gozokia'
opa *g. er.* 'nahia, desira'
opa egin
opa izan, opa, opako, *dio* ad.
opagai
opaka
opaku
opaldu, opal, opaltzen, h. **eskaini**
opari
opari egin: *liburu bat egin diogu opari*
oparitu, opari(tu), oparitzen, h. **opari egin**
oparo 1 adlag.; 2 izond.
oparotasun
opatu, opa(tu), opatzen, *dio* ad. 'opa izan; eskaini'
opera
operatu, opera, operatzen, *du* ad.
operazio
operazio(-)gela = ebakuntza(-)gela
opereta
opetsi, opets, opesten, *Bizk., dio* ad. 'opa izan'
opil
opildu, opil(du), opiltzen, *da/du* ad. 1 'zapaldu'; 2 'pilatu, multzotu'
opiltxo
opio
opor 1
opor egin
oporretan
opor 2 h. **gopor**
oporraldi
oposizio
opots 'sega(-)potoa'
optika
optikari iz.
optiko izond.
optimismo 'baikortasuna'
optimista 'baikor'
or '(etxeko) animalia': *ora otsoen lagun*
orai* e. **orain**
orain
orainago 1 'geroztik'; 2 'duela gutxi, oraintsu'
oraingo
orainaldi

oraindaino adlag.
oraindainoko
oraindainokoan 'oraindaino'
oraindanik
oraindik adlag.
oraindik ere
oraindik orain 'arestian, oraintsu, duela gutxi' (eta ez 'oraindik').
oraindino *Bizk.* 'oraindik'
orainen *Bizk.* 'orina'
oraingo izlag.
oraingoan
oraingoz
oraingotasun
oraingotu, oraingo(tu), oraingotzen, *da/du* ad.
oraino *Ipar.* 'oraindik'
orainokoan
oraintsu
oraintxe
oraka adlag. *Bizk.* 'oratuz'
orakada iz. *Bizk.* 'besarkada'
orakarri iz. *Bizk.* 'euskarria'
orakatu, oraka, orakatzen, *da* ad.
oraldi 1 'oratzea, heldualdia'
oraldi 2 'orea egitea'
oramahai
orangutan: *Pongo pygmaeus*
orantza *Naf.* 'legamia, altxagarria'
orapilo* e. **korapilo**
oratorio *Mus.*
oratu 1 ora, oratzen, *Bizk., dio* ad. 'heldu'
oratu 2 ora, oratzen, *du* ad. 'orea egin'
oratzaile
orbain 'ebakiondoa'
orbaindu, orbain(du), orbaintzen, *da/du* ad.
orban 'zikinunea, akatsa, etab.'
orbandu, orban(du), orbantzen, *da/du* ad.
orbangabe
orbangabetasun
orbankor
orbel
orbeldu, orbel(du), orbeltzen, *da/du* ad.
orbita
orburu: *Cynara scolymus*

(Euskaltzaindiak, Gasteizen, 1998ko abenduaren 18an, onartua)

95
HIZTEGI BATUA
ordain - ortopediko

ordain
ordainez
ordainezko
ordainetan
ordainagiri
ordainarazi, ordainaraz, ordainarazten, *dio* ad.
ordainbide
ordaindu, ordain(du), ordaintzen, *du* ad.
ordaingai
ordaingarri
ordainketa
ordainkizun
ordainleku
ordainpeko
ordainsari
ordaintzaile
orde 1 *Ipar.* adlag. 'ordez': *haren orde joan nintzen*
orde 2 iz. 'ordaina; ordezkoa'
ordea 1 'baina'
ordea 2* e. **ordena**
ordean *g. er.* h. 1 **ordez, orde**; 2 *Ipar.* **ordea**
ordeinu* e. **ordenu**
ordeka *Gip.* iz. 'ordokia, eremu laua'
ordeko
ordena: *munduan ageri den ordena; karmeldarren ordena; ordenako sakramentua*
ordenagailu
ordenamendu
ordenantza
ordenatu 1 ordena(tu), ordenatzen, 1 *du* ad. 'antolatu, taxutu'; 2 *da/du* ad. 'ordenako sakramentua hartu edo eman'
ordenatu 2 *Mat.: Abzisa eta ordenatua*
ordenatzaile
ordenazale
ordenu *Ipar.* 'hilburukoa, testamentua'
ordez
ordezkari
ordezkaritza
ordezkatu, ordezka, ordezkatzen, *du* ad.
ordezko
ordezkotza
ordeztu, ordez(tu), ordezten, *du* ad.
ordinal
ordoki

ordokitu, ordoki(tu), ordokitzen, *Ipar. da/du* ad. 'lautu, berdindu': *mahai bat bezala ordokitzen den arkaitz gora bat*
ordots 'zerri arra'
ordu
ordu arte
ordu ezkero = orduz gero
ordu gaiztoan
ordu onean
ordura arte 'ordu arte'
ordurik hona *Bizk.* 'ordutik hona'
orduan
orduan eta... -ago
orduantxe
ordubete
ordudanik
orduka
orduko
ordukotz *Ipar.* 'orduko': *ordukotz haurrak zazpi urte eginak zituen*
ordulari 'erlojua'
orduraino
ordurainoko
ordurako
ordurarte* e. **ordura arte, ordu arte**
ordutegi
ordutik
orduz geroz = ordu ezkero
ore
oregano: *Origanum vulgare*
orein: *Cervus elaphus*
orein-mihi: *Asplenium scolopendrium*
oreinki
oreka
orekan: *orekan egon*
orekatu, oreka(tu), orekatzen, *da/du* ad.
oren *Ipar.*
orezta 'orina'
orga
orgabide
orgagile
orgagintza
organdi
organiko
organismo
organista
organizatu, organiza, organizatzen, *du* ad. 'antolatu, eratu'
organizazio
organo 1 'izaki biziaren zatia'
organo 2 'musika(-)tresna'
organogile
orgari
orgasmo
orgatara *Ipar.*
orgataraka
orgategi
orgatxo
orgazain *Ipar.*
orgia

orientabide
orientatu, orienta, orientatzen, *da/du* ad.
orientazio
orijinal izond.: *bekatu orijinala* h. ***jatorrizko bekatua***
orin
oritz
orka: *Orcinus orca*
orkatila
orkatz: *Capreolus capreolus*
orkestra
orkestratu, orkestra(tu), orkestratzen, *du* ad. *Mus.*
orkidea: *Orchidaceae (fam.)*
orkoi
orkoro *Bizk.* 'erpurua'
orkume *g. er.* 'oraren kumea'
orlegi 'berdea'
ornitologia
ornitologo
ornitorrinko: *Ornithorrhynchus sp.*
orno
ornodun
ornogabe
oro
oro har
orotara
ororen buruan
ororen gainetik
oroz gainetik
orotan gaindi
orobat: *hemen ez ezik, orobat gertatzen zen bestetan ere*
orobateko
orobatasun
orobatsu
orografia
oroi *g. er.* h. **oroitzapen, oroipen**
oroigailu *g. er.* 'oroigarria'
oroigarri
oroilore: *Myosotis sp.*
oroimen
oroipen
oroit *Ipar.*, *da* ad. (bereziki forma burutugabeetan erabilia): *oroit naiz* (= *oroitzen naiz*)
oroitarazi, oroitaraz, oroitarazten, *du* ad.
oroitarri
oroitu, oroit, oroitzen, *da* ad. batez ere: *gazteegia naiz hartaz oroitzeko*
oroitza *g. er.* 'oroipena'
oroitzapen
orojakile
orojale
orokor
orokorki
orokortasun
orokortu, orokor(tu), orokortzen, *da/du* ad.
oroldio* e. **goroldio**
orotar
orotariko
orots *Ipar.* '(abere) arra'

orpo
orpoz orpo
orratz
orratz(-)ontzi
orraze *Ipar.* 'abaraska, abaoa'
orrazi
orrazkera
orrazketa
orraztaldi
orraztatu, orrazta, orraztatzen, *Ipar. da/du* ad. 'orraztu'
orraztoki 'orratz(-)ontzia'
orraztu, orraz, orrazten, *da/du* ad.
orre 1 *Ipar.* 'ipurua, landarea'
orre 2* e. **ore**
orri
orrialde
orrika* e. **kurrika**
orro
orro egin
orroa* e. **orro**
orroe* e. **orro**
orroka
orrolari
ortodoxia
ortodoxo
ortografia
ortopedia
ortopediko

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1999ko urtarrilaren 29an, onartua)

XXX. ARAUEN TESTU OSOA

96

HIZTEGI BATUA

ortozik - pasmo

ortozik *Bizk.* 'oinutsik'
ortu *Bizk.*
ortuari *Bizk.* 'barazkia'
ortutsik *Ipar.* 'oinutsik'
ortuzain *Bizk.* 'baratzezaina'
ortzadar *Ipar.* h. **ostadar**
ortze* e. **ortzi**
ortzegun *L-N* h. **ostegun**
ortzi 'zeru(-)sabaia, izarrartea'
ortzirale *L-N* h. **ostiral**
orube
osaba
osabide
osaera
osagai
osagarri 1 *Ipar.* 'osasuna'
osagarri 2 'osatzen duena; sendagaia'
osagile *Bizk.* 'medikua'
osakera* e. **osaera**
osasun
osasunbide
osasungarri
osasuntsu
osatu, osa, osatzen, 1 *du* ad. 'osotasuna eman, oso bihurtu'; 2 *Bizk. da/du* ad. 'sendatu'; 3 *Naf. du* ad. 'zikiratu'
osatugabe izond.
osatzaile
osin
oskarbi
oski
oskigile
oskol
oskoldun
oskorri
osmosi
oso: *ogi osoa jan zuen; oso ederra da*
osoko (batzar edo bilerez ari garela): *osoko bilkura*
osoki
osorik
osoro
osotasun

osotoro *Gip.* 'osoki'
osotu h. **osatu**
ospa *Interj. Lgart.*
ospa egin
ospakizun
ospatu, ospa, ospatzen, *du* ad.: *norbaiten mendeurrena ospatu* (*bilera ospatu** e. *bilera egin*)
ospe
ospedun
ospegabe
ospel 1 'hotzak eragindako handitua'
ospel 2 'laiotza'
ospeldu, ospel(du), ospeltzen, *da* ad. 'ospelak atera'
ospetsu
ospitale
ospitaleratu, ospitalera(tu), ospitaleratzen, *du* ad. 'ospitalera eraman'
ostadar
ostalari
ostalaritza
ostaler *Ipar.* h. **ostalari**
ostargi
ostargi-belar: *Iris germanica*
ostarku *Bizk.*
ostarte = hodeiarte
ostatari batez ere *Bizk.*, h. **ostalari**
ostatatu, ostata, ostatatzen, *da/du* ad. 'ostatu hartu edo eman'
ostatu 1: *ostatu eske gabiltza*; 2 *Ipar.* eta *Naf.* 'taberna'
ostatu eman
ostatu hartu
ostatuz egon
ostaturatu, ostatura(tu), ostaturatzen, *da/du* ad.
oste 1 'taldea'
oste 2 'atzea'
ostean
ostegun
osteka *Ipar.* 'talde handietan'
ostendu, osten, ostentzen, *Bizk.* 'ezkutatu' *da/du* ad.
ostera 1 'joan-etorria'
ostera 2 1 adlag. 'berriro'; 2 lok. 'berriz, aldiz, aitzitik'
osterantzean
osterantzeko
ostertz
osterzuri: *Cichorium endivia crispum*
ostia
ostikada
ostikadaka
ostikarazi, ostikaraz, ostikarazten, *Ipar. du* ad.
ostikatu, ostika, ostikatzen, 1 batez ere *Ipar., du* ad. 'ostikopean erabili'; 2 *du* ad. 'ostiko egin'
ostiko 1: *ostiko bat eman zion*
ostiko egin
ostikoz jo: *pilota ostikoz joaz*
ostiko 2 'zutik dagoen zerbait bermatzeko jartzen zaion euskarria': *hormari ostikoak ipini*
ostikoka
ostikolari
ostikopean
ostikopetu, ostikope, ostikopetzen, *du* ad.
ostiral
ostots

ostra: *Ostrea edulis,* etab.
ostruka: *Struthio camelus*
ostu, ostu, osten, *du* ad.
otabera: *Genista hispanica*
otadi
otagara
otalako *Ipar.* 'abereak jateko aska'
otalore
otamen
otar 'ote(-)mota gogorra'
otardi
otarrain: *Palinurus elephas*
otarrainxka: *Penaeus kerathurus*
otarre
otarregile
otarregintza
otarretegi
otarretxo
otarteko* e. **ogitarteko**
otatxori
ote 1 iz.: *Ulex sp.*
ote zuri: *Ulex europaeus*
ote beltz: *Ulex minor*
ote 2 *Gram.: etorri ote da?*
oteketa batez ere *Ipar.,* 'ote bila (joan)'
oteme
oti: *Acrididae (fam.)*
otitis
otoi
otoika
otoitu, otoi, otoitzen batez ere *Zub. du* ad. 'otoiztu'
otoitz
otoitz egin
otoitzean
otoitzez
otoitzaldi
otoizgile
otoizka
otoizlari
otoiztegi
otoiztu, otoitz/otoiztu, otoizten, batez ere *Ipar., du* ad. 1 'otoitz egin': *otoizten zaitugu Jauna*; 2 'arrenka eskatu'
otondo 'ogi-apurra'
otondo-belar: *Stachys officinalis*
otordu
otoz otoan *Bizk.* 'ezustean, ustekabean'
otsail
otsalizar: *Sorbus aucuparia*
otsein
otseintza
otseme
otso: *Canis lupus*
otsoko
otsokume
otsotzar
otu, otu, otutzen, batez ere *Bizk., zaio* ad. 'bururatu; gogoak eman'
oturuntza

oturuntzatu, oturuntza, oturuntzatzen, *Ipar. da* ad.
otzan
otzandu, otzan(du), otzantzen, *da/du* ad.
otzantasun
otzara *Bizk.* 'otarrea, saskia'
otzaragile *Bizk.*
otzarakada *Bizk.*
otzaratxo *Bizk.*
oxala *Interj.: oxala hola mintzo balira!*
oxidatu, oxida, oxidatzen, *da/du* ad.
oxidatzaile
oxidazio
oxido
oxigenatu, oxigena, oxigenatzen, *da/du* ad.
oxigenatze
oxigenazio
oxigeno
ozar 1 *Ipar.* Zah.'ora'
ozar 2 *Ipar.* edo *Jas.* 'lotsagabea'
ozarkeria *Ipar.* 'lotsagabekeria'
ozarki *Ipar.* 'lotsagabeki'
ozartasun *Ipar.* 'lotsagabetasun'
ozartu, ozar(tu), ozartzen, *Ipar. da/du* ad. 'lotsagabetu'
ozeaniar
ozeano
ozeanografia
ozelote: *Felis (Leopardus) pardalis*
ozen
ozendu, ozen(du), ozentzen, *du* ad.
ozenki
ozentasun
ozka* e. **hozka**
ozono
ozpin 1 iz.: *tomatea ozpin-oliotan*; 2 izond.: *hitz zorrotz eta ozpinak*
ozpin-euli: *Drosophyla melanogaster*
ozpin-olio
ozpindu, ozpin(du), ozpintzen, *da/du* ad.
ozpinkeria
ozpintsu
ozta
ozta-ozta
oztoparazi, oztoparaz, oztoparazten, *du* ad.
oztopatu, oztopa, oztopatzen, *da* ad.
oztopo
oztopo egin
oztopobide

* * *

P

pa *Haur.*
pa eman
pabana
pabiloi
padera 1 *Ipar.* 'danbolina'; 2 *Heg.* 'zartagina'
padura *Bizk.*
paella

pafa
pafa-pafa *Ipar.* 'bafadaka pipatzen'
paga 1 *Ipar.* 'lansaria': *apezen paga*; 2 *Heg.* 'haurrei ematen zaiena'
pagadi
paganismo
pagano
paganotasun
paganotu, pagano(tu), paganotzen, *da/du* ad.
pagarazi, pagaraz, pagarazten, *dio* ad.
pagatu, paga(tu), pagatzen, *du* ad.
pagatxa 'pagoaren fruitua'
pagatzaile
pagauso: *Columba palumbus*
pago
pago-uso* e. **pagauso**
pagoda
pagoki
pagondo
pagotxa 'bazka(-)landarea': *Trifolium incarnatum*
pagu 'ordainketa'
pailazo
pailazokeria
pairabide
pairaezin
pairagaitz
pairakor
pairakortasun
pairamen
pairarazi, pairaraz, pairarazten, *dio* ad.
pairatu, paira, pairatzen, *du* ad.
pairu *Ipar.* 'eroapena'
pairutsu *Ipar.*
paisaia
paita *Bizk.* 'ahatea'
pake* e. **bake**
paketatu, paketa, paketatzen, *du* ad.
pakete
pala
palakada
palanka
palanka(-)joko
palankari
palari
palatal
palatalizatu, palataliza, palatalizatzen, *da/du* ad.
palatalizazio
palazio *g.er.* 'jauregia'
paldo *Ipar.* 'makila, zutoina'
paleografia
paleolitiko
paleontologia
paleta (kirol, pintura)
palma 'palmondoaren adarra; palmondoa': *palma(-)adarrak eskuetan*
palmondo
palotara *Ipar.*
palote *Ipar.*
palu *Bizk. Lgart.*

paludismo
pana 1 *Heg.* 'ehuna'; 2* e. **matxura**
panda 1: *Ailuropoda melanoleucus*; 2: *Ailurus fulgens*
pandero 1 'musika-instrumentua'; 2 *Ipar.* 'pertza'
pandero(-)jotzaile
paneka: *Gadiculus sp.* + *Trisopterus sp.*
pankrea
panorama
panp(a) *Ipar. Onomat.* (kolpe batena)
panpaka *Ipar.* adlag. 'kolpeka'
panpalina *Ipar.* 'txilina'
panpin* e. **panpina**
panpina
panpinatu, panpina(tu), panpinatzen, *Ipar. da/du* ad. 'panpina bezala apaindu'
panpox
panpoxa (emakumeentzat markatua)
pantaila
pantaloi *Bizk.* 'azpiko galtzak'
panteismo
panteista
panteoi
pantera = lehoinabar: *Panthera (panthera) pardus*
pantomima
papagai: *Psittacula sp.*
papagaitxo: *Melopsittacus undulatus*
papaia 'papaiondoaren fruitua'
papaiondo: *Carica papaya*
papao *Bizk.* 'mamua'
papar
papardo: *Brama brama*
papargorri batez ere *Bizk.*, 'txantxangorria'
paparo 1 'hegaztien hestegorriaren zabalgunea'; 2 *Ipar.* 'papoa, paparra'
paparurdin* e. **papo-urdin**
paper: *komuneko papera*
papereztatu, paperezta, papereztatzen, *du* ad.
papergile
papergintza
paperontzi
papertegi
papiro: *Cyperus papyrus*
papo 1 *Ipar.* 'paparra'
papo 2 *Haur.* (zerbait bukatu dela adierazteko erabiltzen den esapidea)
papo-urdin: *Luscinia* (Cyanosylvia) *svecica*
papogorri *Ipar.* 'txantxangorria'
papur batez ere *Ipar.* 'apurra'
papurtu, papur(tu), papurtzen, *da/du* ad.
papurtxo
para *Bizk.* 'labean erabiltzen den pala'
parabola 1 *Liter.: Ebanjelioko parabolak*
parabola 2 *Mat.*
paraboliko
parada 'aukera, egokiera'
paradigma
paradisu
paradisuko hegazti: *Paradisea sp.*
paradoxa
paradoxiko

parafina
parafrasi
paragrafo
paraje *Heg. Herr.*
paralela* e. **paralelo**
paralelepipedo *Geom.*
paralelo iz. eta izond.: *lerro paraleloak*
paralelogramo *Geom.*
paralelotasun
parametro
paramezio: *Parameciidae Fam.*
paramilitar
paranoia
paraplegia
parapsikologia
parapsikologiko
parapsikologo
parasitismo
parasito
parasola *Ipar. Herr.*
paratu, para, paratzen, 1 *du* ad. 'jarri; prestatu': *bertsoak paratu; liburu baten edizioa paratu*; 2 *da* ad. 'jarri': *gaiztagin guztien aurrean paratu zen*
paratzaile
pardel* e. **fardel**
pare
-(r)en pare
parean
parera
paretik
parez pare
paregabe
paregabeko
paregabetasun
parekatu, pareka(tu), parekatzen, *da/du* ad.
pareko
parekotasun
parentesi
pareta
paretsu
paretsuan
pariatu, paria, pariatzen, *Ipar. du* ad. 'apustu egin'
pariatzaile *Ipar.*
pario *Ipar.* 'apustua'
paristar
parkatu* e. **barkatu**
parke
parking h. **aparkaleku**
parlamentari iz.: *parlamentarien bilera*
parlamentario izond.: *talde parlamentario* (hala ere, hobe *parlamentu(ko) talde*)
parlamentu
parpaila iz. (apaingarri(-)mota)
parra-parra* e. **barra-barra**
parrafo* e. **paragrafo**
parranda *Heg. Herr.*
parrasta
parrastan
parrastaz

parrastada
parrastaka
parrokia
parroko *Heg.*
parropia* e. **parrokia**
partaide 'parte(-)hartzailea': *zure nahigabean partaide naiz ni ere*
partaidetza
partalier *Ipar.*
partaliertasun *Ipar.*
parte
-(r)en partetik
-(r)en partez
parte hartu
parte-hartze
parte-hartzaile
parte izan
parte eman
parte oneko
parte txarreko
partekatu, parteka, partekatzen, *Ipar. du* ad. 1 'zatikatu'; 2 'erdibanatu'
partiarazi, partiaraz, partiarazten, *du* ad.
partida 1 'jokoa'; 2 *Ipar.* 'aurkaria': *lana dut partida*
partidu *Heg.* 1 h. **partida**; 2 h. **alderdi**
partiketa
partikula
partikular
partila 'irabazien banaketa'
partila egin
partitibo *Gram.*
partitu, parti, partitzen, *Zah.* edo *Herr.* 1 *du* ad. 'zatitu, banatu, bereizi'; 2 *Ipar. da* ad. 'joan, irten, abiatu'
partitzaile
partizipio *Gram.*
partxe *Heg. Herr.* 1 'adabakia'; 2 'enplastoa, mantarra'
partzial
partzuer 'esku(-)hartzailea': *bi gizon partzuer direnean nekean eta gozoan adiskide mamitzen dira*
partzuergo
pasa (pilota jokoan)
pasa-marra
pasa egin 'pasa-marra igaro'
pasabide 'igarobidea'
pasadizo *Heg.* Herr. 'gertaera'
pasagarri 'neurri batean onar daitekeena'
pasaka 'pilota(-)jokoa'
pasakari
pasakor
pasaporte
pasaratu, pasara, pasaratzen, *Heg. du* ad.: *galtzerdi saretua pasaratu*
pasarazi, pasaraz, pasarazten, *du/dio* ad.
pasarte
pasatu, pasa, pasatzen, 1 *da/du* ad. 'igaro': *albotik pasatu da* (*albotik pasa da: Heg. Lgart.)*; 2 *da* ad. 'gertatu'
pase: *paseko hegaztia*
pasealeku
paseatu, pasea, paseatzen, *da/du* ad.: *karrozan paseatu ziren; bere astoa paseatzen du*
paseo *Heg.*
pasibo

pasibotasun
pasiera *Heg.*
pasillo *Heg.* h. **korridore**
pasio 1 '(Jesukristoren) nekaldia'; 2 *g.er.* 'irrika, grina'
pasio-lore: *Passiflora sp.*
pasiotar
pasmo 1 'gangrena'; 2 'zornea'
pasmo-belar: *Anagallis arvensis*

(Euskaltzaindiak, Baionan, 1999ko otsailaren 26an onartua)

97

HIZTEGI BATUA

paso - pikaldi

paso 1 (karta(-)jokoan erabiltzen dena); 2 *Ipar.* iz. 'zartakoa'
pasodoble
pasta 1 *Zub.* 'lan bat egiteko behar diren ekaiak'
pasta 2 'orea'
hortzetako pasta
pastel *Heg.* = **pastiza**
pastelgile
pastilla
pastiza *Ipar.* = **pastel**
pastoral 'Zuberoako teatroa'
patar *Ipar.* eta *Naf.* 'aldapa'
patari *Bizk.* 'piztia'
patartsu *Ipar.*
patata: *Solanum tuberosum*
patata(-)zomorro = patata(-)koko: *Leptinotarsa decemlineata*
patena
patentatu, patenta, patentatzen, *du* ad.
patente
paternalismo
patin 1 *Bizk.* 'putzu artifiziala'
patin 2 h. **irristailu**
patio
patogeno
patologia
patologiko
patriarka
patrika *Heg.* 'sakela'
patroi
patruila
pats
pattar 'edari bizia'
patu *Heg.* 'zoria'
patxada
patxadatsu
patxaran 'edaria'
pauma: *Pavus cristatus*
pausaje *Heg. Herr.* 'ibilera, pausoa emateko modua'
pausaldi
pausaleku
pausarazi, pausaraz, pausarazten, *du* ad.
pausatu, pausa, pausatzen, *Ipar.* batez ere 1 *da* ad. 'atseden hartu; hil; jarri'; 2 *du* ad. 'jarri, ipini'
pauso *Heg.* 'urratsa': *pauso bat egin, eman*
pausoka
pausu 'atsedena, geldialdia'

pazia 'pertza'
pazientzia
pazientzia hartu
pazko
pe *Ipar.* (leku-denborazko kasuetan): *zuhaitz baten pera badoa etzatera*
peaje* e. **bidesari; ordaintoki**
pedagogia: *pedagogia(-)metodoa*
pedagogiko
pedagogo
pedal
pedante
pedantekeria
pedaxu* e. **petatxu**
pederasta
pediatra
pediatria
pegar
pegargile
pegartara *Ipar.*
pegartegi
peioratibo
peita* e. **beita**
peitu Zah. edo jas.: *ur peituz zimeltzen den lorea*
peitu izan 'falta izan': *gauza baten peitu naiz*
peitutasun *Ipar.* Zah. 'urritasuna, gabezia'
peka *Heg.* 'orina'
pekada *Ipar.* 'oilagorra'
pekari: *Tayassu sp.*
pekatsu *Heg.*
pekatu* e. **bekatu**
pekazto *Bizk.* 'pekatsua'
peko *Ipar.* 'azpikoa, mendekoa'
pelagiko
pelegrin *Ipar.* 'erromesa'
pelikano: *Pelecanus onocrotalus*
pelikula *Heg.* h. **film**
pelota* e. **pilota**
peluka* e. **ileorde**
pena
pena izan
penagarri
penalti
penarazi, penaraz, penarazten, *du* ad.
penatu, pena(tu), penatzen, *da/du* ad.
pendiz 'aldapa'
pendulu
penintsula = erdiuharte
penitente
penitentzia
penizilina
pentagono
pentametro
pentano
pentoka *Ipar.* 'muinoa'
pentsabide
pentsaera
pentsaezin

pentsaketa 1 *Ipar.* adlag. 'pentsatzen': *pentsaketa dago*; 2 'pentsatzea': *gizonak anitz pentsaketa egiten du*
pentsakizun
pentsakor
pentsalari
pentsamen
pentsamendu
pentsamolde
pentsarazi, pentsaraz, pentsarazten, *dio* ad.
pentsatu, pentsa, pentsatzen, *du* ad.
pentsatzaile
pentsio
pentsiodun
pentsu 1 *Ipar.* 'gogoeta, pentsamendua'
pentsu 2 *Heg.* batez ere, *Herr.* '(abereen) bazka, janaria'
pentze 'belardia'
pentzudan *Bizk.*: *arazo hori nire pentzudan utz ezazue*
peoi
peonia: *Paeonia officinalis*
peontza
pepelerdo *Bizk.* 'irain(-)hitza'
pepino *Heg.* = **luzoker:** *Cucumis sativus*
perdigoi = draia
perediku 'pastoralen hitzaurreari eta azkenari ematen zaien izena'
perfektu 1 izond.; 2 *Gram.** e. **burutu**
perfekzio
perfekzionatu, perfekziona, perfekzionatzen, *da/du* ad.
perfume
pergamino
pergola
peria* e. **feria**
perifrasi
perigeo
peril *Zah.* 'arriskua'
perimetro
periodiko 1 izond. 'aldizkakoa': *sistema periodikoa*; 2 *Heg.* iz. h. **egunkari**
periodo batez ere *Fis.*
periskopio
peritonitis
peritu
peritutza
perka: *Perca fluviatilis*
perkal
perla
perla(-)ostra: *Pinctada margaritifera*
perlesia *Heg.* Herr. 'elbarritasuna'
perlesiadun 'elbarria'
perlesiatu *Ipar.* 'elbarria'
perloi = arraingorri: *Triglidae fam.*
pernil *Bizk.* 'urdaiazpikoa'
perpaus
perpendikular
perra* e. **ferra**
perraitz: *Anthriscus cerefolium*
perreka *Ipar.* izond. 'baztergarria, baliorik gabekoa'
perretxiko
perrexil: *Petroselinum crispum*

perruka* e. **ileorde**
perspektiba
pertika
pertola = **butroi** 'arrantza(-)tresna'
pertsegitu, pertsegi, pertsegitzen, *Heg.*, *du* ad.
pertsegitzaile
pertsekuzio
pertsiana *Heg.* 'sareta'
pertsona
pertsonaia
pertsonal izond.
pertxenta
pertz
pesia *Ipar.* 'kopuru handia; uholdea'
pesiaka
pesimismo 'ezkortasuna'
pesimista 'ezkorra'
peskiza *Ipar.* 'itxaropena'
peskizan
peso 'hainbat herritako (batez ere Hego Ameriketako) dirua'
petalo 'lore(-)hostoa'
petatxatu, petatxa, petatxatzen, *du* ad.
petatxatzaile
petatxu 'adabakia'
peto 1 izond., batez ere *Bizk.* 'berdina, erabatekoa': *aitaren petoa da seme gaztea*; *euskaldun petoa; azkoitiar petoa;* 2 iz. *Ipar.* 'balio gutxiko dirua';'hutsegitea'
peto-peto 'erabatekoa, benetakoa'
petral 1 izond.
petral 2 iz. 'teilatuko armadurako egur luzekakoa, gapirioei eusten diena'
petraldu, petral(du), petraltzen, *da/du* ad.
petralkeria
petrikilo
petrolio
petunia: *Petunia sp.*
petxa 1 *Heg.* 'zerga'
petxa 2 *Zub.* g. er. 'hutsa, akatsa'
petxatu, petxa(tu), petxatzen, *Heg., du* ad. 'zerga ipini'
petzero *Ipar.* 'mendekoa'
peza *Ipar.* 1 'zatia, puska'; 2 'makina-tresnetako zati alda daitekeena'; 3 'txanpona'
pezako 'zati bakarreko': *pezako galtzak*
pezeta
pezoi '(lurrezko) hesia'
pezoin* e. **pezoi**
pezu *Zub.* iz. eta izond. 'pisua'
pianista
piano
piano(-)jotzaile
piastra
pier* e. **fier**
pieza
pigmentazio
pigmentu
pigmeo
pijama
pijo *Gip.* 'trebea, behar bezalakoa': *andre prestu eta pijoa; Bautista Basterretxe mutiko pijoa*
pik *Ipar.* adlag. '(pilotan)'
pika 1 *Heg.* 'lantza, ezten(-)haga'

pika 2 *Ipar.* 'mika'
pikabuztan *Ipar.*
pikadore *Heg.*
pikaldi *Ipar.* 'ebakialdi'

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1999ko martxoaren 26an eta, Donostian, 1999ko apirilaren 23an, onartua)

BATZAR AGIRIAK

Bilbon, 1998ko azaroaren 27an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
P. Goenaga, idazkaria,
J.A. Arana, diruzaina,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J.L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
E. Larre,
J.M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J.M. Satrustegi
eta A. Urrutia, euskaltzainak
eta J.L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea
eta M. Gorrotxategi, Onomastika batzorde idazkaria (1. gaian)

Bilboko Plaza Barriko egoitzan 1998ko azaroaren 27an bildu da Euskaltzaindia. Bilera goizeko hamarretan hasi da. Bildu diren euskaltzainak ezkerreko zutabean ageri direnak dira. Ezin etorria adierazi dute P. Altunak, H. Knörrek, L. Villasantek eta P. Zabaletak.

Euskaltzainburuaren hitzak

Lehenbizi, Federiko Krutwig Sagredo euskaltzain jaunaren heriotzaren berri eman die euskaltzainei eta hutsarte bat gertatu dela iragarri. Hutsarte hori betetzeko hautagaien proposamenduak ondoko bi batzarretan aurkez daitezkeela adierazi du eta hirugarrengoan bozkatu.

Bestalde, Juliana Berrojalbiz euskaltzain ohorezko andrearen eta Ignazio Maria Barriola euskaltzain urgazle jaunaren heriotzen albistea ere eman du. Azaroan gertatu dira denak. Hilberri-txostenez honako jaun hauek arduratuko dira: X. Kintana F. Krutwigenaz; Jesus Atxa, J. Berrojalbizenaz eta J. San Martin, I. Barriolarenaz.

Eskuartekoak

1. F. Krutwig zenaren errautsen hegoairatzea larunbatean, goizeko 11.30etan izango dela adierazi da. Ibarrangeluko Laida hondartzan. Omenezko ekitaldi horren antolatzaile Euskaltzaindiaz gain, Jakintza Baitha eta Euskal Idazleen Elkartea dira. Xehetasunak eransten dira.

2. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak, jadanik aurreratu den bezala, Euskaltzaindiari eskaintzen dion omenaldiaren egitarau proposamenaren xehetasunak eman dira. Euskara batuak hogeita hamar urteko ibilbidea egina du jadanik. Tarte honetan euskarak berebiziko jauzia egin du normalizaziorantz. Euskaltzaindiak herri honen garapenean, normalizazioan eta eguneratzean egin duen ekarpena publikoki eskertzea da proposamenaren zioa. Beste zenbait zehaztapen ere eskaini dira: ekitaldiaren ezaugarriak, gonbidatuak eta abar. Eguna eta lekua erabat finkatua da: abenduaren 18an, arra-

tsaldeko 7.30etan, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian izango da ekitaldia. Omenaldi eskaintza hori atseginez hartzen dute euskaltzainek.

3. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuorde den Josune Ariztondo andrearen gutuna eta proposamena irakurtzen dira. 1995.eko azaroan Euskal Komunitateen eta Euskal Etxeen Mundu Biltzarra Gasteizen ospatu zen. Haren ondorioz Eusko Jaurlaritzari, Euskaltzaindiarekin batera, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzea eskatu zitzaiola azaltzen du gutunak. Sailburuordeak proposamen bateratu bat aurkezten du (ikus eranskina). Zenbait euskaltzain mintzatzen dira, oroitaraziz Ameriketako herrialde askotan egun horren ospakizuna gorde dela eta hemengo ikastola eta elkarte batzuetan ere bai. Haien ustez, abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko santuaren egunean, Euskararen Egun hori berrindartzea euskaldungoak pozik hartuko lukeela. Idazkariorde-kudeatzaileak, ildo hori frogatzeko, gerra aurreko eta 1968. urteko Euskaltzaindiaren zenbait batzar agiri azaltzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan ezezik, Nafarroan, Iparraldean eta Ameriketan ondo hedatu beharra ere aipatu da. Proposamena aho batez onartu da.

4. Iruñerriko irrati frekuentzia berrien banaketaz Nafarroako Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, 2343 / 1998 Foru Aginduaren bidez euskarazko emisorari bidea ukatu ziola eta, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bisita eskaria egin zion Miguel Sanz Nafarroako gobernuburuari. Eskari honi ezezko erantzuna eman dio Sanz jaunak. Hori dela eta, beti ere gure Nafarroako Ordezkaritzarekin adostuz, beste desadostasunezko erantzun proposamen bat aurkeztu du Zuzendaritzak, oroitaraziz, besteak beste, Euskaltzaindiak 573 / 1976 Errege Dekretuaren bidez "euskararen enplegua aitzinatzea" eta "hizkuntz eskubideak zaintzea" xedeak ofizialki aitortuak dituela (ik. Arautegiaren 1. artikuluko e) eta f) helburuak). Aho batez onartu da proposatu den gutun hori dagokionari helaraztea.

Onomastika: Zuberoako udal izendegi berriztatua onartzea

Eztabaida puntuak zein diren azaltzeko eskatu dio euskaltzainburuak M. Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkariari. Horretan hasi baino lehen, hala ere, zenbait oharr egin dira *Arbaila* dela eta. Ondoren eztabaida puntu gisa emandako zerrendari ekin zaio.

Lehenbizi, kontsonante ondoko h-rekin zer egin? Gorde, kendu, batzuk bakarrik gorde? B. Oihartzabalen ustez, printzipioak gorde behar ditu Euskaltzaindiak. Batuaren izenean Hegoaldean ez da toponimia aldatu. Hor dugu *Oiartzun*, adibidez. Printzipio hori errespetatuz, gauza bera egin beharko litzateke Zuberoan. Bestalde, irizpideak osotasunari begira ezarri behar dira, zeren gero irizpide horiek toki izen txikiagoei ere aplikatu beharko zaizkie, auzoei, esaterako. Horrenbestez, Euskaltzaindiak irizpide argia eta osoa izan behar du.

X. Kintana jaunak hartu du ondoren hitza. Aipatu diren irizpide hauen aldeko da, baina batzordearen alde egingo duela, errealismoaren izenean. Haritschelhar jaunak ere toponimia eta hizkuntza arrunta ez direla nahastu behar gogorarazi du. Dena dela, J.M. Satrustegik dio arazoa, arazo izanik ere, eskolatik sortu dela.

Lizundia jaunak, azkenean, proposatu du abendua arte uztea h-aren kontu hau, oso gai korapilatsua baita, eta hurrengo puntuetara pasatzea. Hala ere, berriro lehengora itzultzen dira euskaltzainak. Charritton jaunaren arabera, Iparraldean ere euskara kon-

tseilu bat egitea eskatu behar litzateke. Davantek erantzun dio gauzak hozki egin behar direla, ez dela surik piztu behar. Ondoren Oihartzabalek proposatzen du hurrengorako uztea puntu hau eta bitartean, ikusi zer gertatzen den Lapurdin eta Nafarroan, zein diren lurralde hauetan 'n+h' duten izenak. Hala onartu da: 13 boto izan ditu proposamen honek bere alde. Horrenbestez, hurrengoan aztertuko da eta batzordeak irizpide hau kontuan izango du.

Ñ grafemaren ordez 'in' emateko kontua ontzat eman da.

Marratxoari buruzko batzordearen proposamena ere ontzat eman da, Euskaltzaindiaren arauek hala eskatzen baitute. Marratxorik ez da erabiliko, hortaz, *Sarrikotagaine* bezalakoetan (ez, *Sarrikota-gaiñia).

Leku-izenetan ager daitekeen artikuluari buruzkoa ere onartu da. Hortaz, artikulua denean *(Ospitalepea (-a))* argiro aditzera emango da, deklinabideari begira horrek dituen ondonoengatik.

Izen zaharren berreskuratzeaz txostenak proposatzen duena onartu da.

-E paragogikoa dela eta, zubererari buruz adostasun osoa omen dago. Beste kontu bat da gauzak nola diren Nafarroan eta Lapurdin. Hauetan banan-banan ikusi beharko lirateke kontuak.

Idazkera tradizionalaren berreskuratzeari buruz, *Sohüta*-ren kasua aipatu da. Soziolinguistika arrazoien pisuak ekarri zuen Sohüta onartzea eta ez *Sorhoeta*. Nolanahi ere, irizpide orokorraren salbuespena izango litzateke.

Ozerain-en kasua ere abendurako uztea onartu da.

Horrenbestez, txostenean airean geratu diren puntuak hurrengo bileran aztertuko dira.

Onomastika: "Santu, san, done *eta ingurukoak" onartzea*

Euskaltzainek eskuartean duten txostena aztertzen hasi orduko Euskara Batzordekoei eman die hitza euskaltzainburuak. B. Oihartzabalek txosteneko zenbait puturekin duen desadostasuna agertu du. Gauza batzuk gaizki direla txosten zaharrean. Autoreen aipamenetan okerrak nabari dira. Datuak, hortaz, dudatzekoak dira. Euskara Batuko batzordeari bide *bat* proposatzea eskatzen zaio, baina horretarako oinarririk ez zen eskaintzen txostenean. Problema asko dira gai honetan: *jondone* hitz bat da ala bi? Duvoisinek darabil modu erregularrenean, baina, hain zuzen, honek tradizioa eten egin zuen. Oihartzabalen ustez, hitz bakar batean idatzi beharko litzateke. Bestalde, *jondone* ala *jondoni*? Lehenbizikoa omen da zaharrena, gero bestea nagusitu bada ere. Forma hau euskara batuan Iparraldekotzat hartu beharko litzateke eta gaurko forman emanik: *jondoni*. Beste arazo bat da zein izenekin erabili behar den. Horretarako tradizioa zein den aztertu behar da.

Euskaltzaindiak santuen izendegira mugatu behar luke eta gainerakoak, toki izenak, adibidez, beste baterako utzi. Arazoa urraska argitzen eta aztertzen joan behar da.

X. Kintanak dio *jaun done* izan beharko lukeela batasunerako forma. Oihartzabalek erantzun dio ez dela ezer asmatu behar. Duvoisinena asmatzea izan zela.

Kintana jaunak hartu du berriro hitza esateko ez duela onartzen osotasuneko zuzenketa egitea. Esan zaio ez dela hori kontua. Akordioa nahi bada, urraska joan beharra dagoela gogorarazi du B. Oihartzabalek.

Eztabaida honen ondoren erabakia hurrengorako uztearen alde agertu dira euskaltzainak. Gainera, P. Salaberri omen da txostena ongien ezagutzen duena eta prest egongo omen litzateke hurrengoan eztabaidatzeko. Azkenean, B. Oihartzabalek Euskara Batuko batzordearen proposamena izango litzatekeena banatu die euskaltzainei. Hurrengo bileran eztabaidatuko da.

Hiztegi Batua: minuet - nahastura *zerrendako* **nabarmen** *hitza*

Hitz honen sarrera eta *nabarmen izan* azpisarrera osatzeke geratu ziren aurreko bileran. Adibideak proposatu dira eta onartu.

Hiztegi Batua: nahi - oihan *zerrenda onartzea.*

Aurkeztu diren oharrak eztabaidatzen hasi aurretik, batzordearen proposamenez *narrazio* eta *narratzaile* sarrerak zerrendatik kentzea onartu da.

Ondoren, Xabier Kintana jaunaren oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak.

Nahitanahiez gaitzestea ez du ongi ikusten ohargileak. Onartu dena honako hau izan da: nahitanahiez* e. *nahitaez, nahi eta nahi ez...*

Nazionatasun hitzarekin batera *nazionalitate* hitzari ere leku egitea eskatzen da. Hala onartu da.

Neke-neke eginik sartzeko eskabidea bigarren itzulirako utzi da. Gainera, *neka-neka eginda* ere hor dago.

Nektar sarreran adibide bat eskatzen du Kintanak, *nektarra* gogorregi egiten baitzaio. *Nakar* hitzaren kasuan bezala, adibide egoki bat ezartzea nahi luke hemen ere. Eztabaida labur bat izan da eta euskaltzain gehienak *nektarra*-ren alde agertu dira. Eta ez bakarrik hori: *nakar* sarreran ematen den adibidea ere zuzentzea proposatu eta onartu da. Horrenbestez, **nakar** *Nakarrezko kutxatila* agertuko da zerrendan.

Nenufare hitza sartzeko eskaria bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Pneumonia hitza sartzea onartu da. Oraingo zerrenda honetan, hortaz, sarrera hau joango da: *neumonia** e. **pneumonia**. Jakina, *pneumonia* bere garaian agertuko da zerrendan.

Niretu-ren parean *neuretu* ere sartzea eskatzen du Kintana jaunak. Batzordeak sarrera hori dagoen bezala uzteko proposamena dakar, baina eztabaidan zehar argi ikusi da koherentzia falta handi xamarra dagoela orain arte onartu diren formetan. Koherentzia horren bila, sistema osoa ematea onartu da. *Nire / neure* bikoteari dagokionez, biak onartu dira bai *-tu* atzizkiarekin bai *-ganatu*-rekin. Horrenbestez, *niretu / neuretu* eta *nireganatu / neureganatu* sartuko dira zerrendan. Sistema hau onarturik, gainerako izenordainei dagozkien eratorriak modu berean zuzendurik emango dira hiztegian. Dena dela, argi gelditu behar du *zuenganatu* bada ere, **zuendu*-rik ez dela.

A. Urrutiak, hiztegia argitaratzen denean ohar bat jarri behar dela dio jendea kontura dadin irizpidea zein den. Adibidez, 'niretu ditut bestek egin dituen bekatu guztiak', alde batetik, eta 'mutil hori nireganatu arte ez dut atsedenik hartuko', bestetik.

Norantza baztertzeko arrazoirik ez du ikusten ohargileak. Hala ere, batzordeak dagoenean uztea proposatzen du. Ez da onartu oharra.

Notariotza baino nahiago du Kintanak *notaritza*. Ez da onartu. Hala ere, *notalgo* hitza sartzea erabaki da: **notalgo** *Ipar.* notariotza.

Nukleo-ren parean *gune* ere aipatzea eskatzen da. Gauzak zerrendan dauden bezala uztea erabaki da.

Azkenik, ogitegi* e. **okindegi** sarrera gehitzea eskatzen da. Bigarren itzulirako uztea hobetsi du batzarrak.

H. Knörren oharrak aztertzeari ekin dio ondoren batzarrak.

Nahi izaten falta da *nahi*-ren sarreran. Eranstea onartu da.

Naufragio hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Naziotasun sarreran ematen den adibidea baino egokiagoa eskatzen du ohargileak. Onartu da oharra eta *Finlandiarren* edo beste edozein ezarriko da, *alemanen* ordez.

Nekaldi dagoen dagoenean uztea erabaki da, inolako gaitzespen markarik gabe.

Nekoso hitzari *Lgart.* oharra eranstea onartu da, ohargileak eskatu bezala.

Nekosta-ren sarreran "h. altzifre" ezartzeko eskaria ez da onartu. Gainera *altzifre* hori ez zen sartu zerrendan bere garaian.

Neurtitzaile, neurtizle bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Nulu sarreran 'erabileremu' hitza ageri da. Ohargileak *erabil eremu*, bi osagaiak bereiz ematea eskatzen du. Ez da onartu, arau orokorraren arabera elkarturik behar baitu.

Numeral sartzea hurrengo itzulirako utzi da. Gauza bera erabaki da *ohezeru* hitzari buruz eta baita *ofizialkidetasun*-i buruz ere.

Hogen bizkaierazkoa ere ba omen da, ohargilearen arabera. Hala ere, Bizkaiko testuetan ez da ageri. Horrenbestez gauzak dauden bezala uztea erabaki da.

Ohi-ren sarreran *ohiz kanpoko* esapidea sartzea onartu da.

Eta honekin amaitutzat eman da H. Knörren oharren azterketa. Eta goizeko bilkura ere hementxe amaitu da, ordu bata eta erdiak direla.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

AGERIKO BATZARRA

Bilbon, 1998ko azaroan 27ean

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1998ko azaroan 27an, arratsaldeko lauak eta erdietan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak ageriko batzarrari. Batzar honen xedea Euskaltzaindiak galdu berri dituen Jaime Kerexeta eta Jon Etxaide ohorezko euskaltzainak omentzea da.

Mahaian J. Haritschelhar euskaltzainburua, Patxi Goenaga idazkaria, Jose Antonio Arana diruzaina eta txostenak aurkeztuko dituzten bi hizlariak: Karmelo Etxenagusia apezpiku eta ohorezko euskaltzain jauna eta Juan San Martin, euskaltzaina.

Aipatuez gainera, honako jaun-andre hauek bildu dira aretoan: P. Charritton, X. Diharce, X. Kintana, J.M. Lekuona, Tx. Peillen eta A. Urrutia euskaltzainak; P. Pujana, euskaltzain ohorezkoa; A. Arejita, G. Aulestia, R. Badiola, F. Barrenengoa, J. Butron, A. Eguzkitza, A. M. Etxaide, S. Garcia Trujillo, X. Gereño, J.L. Goikoetxea, M. Gorrotxategi, J.M. Larrarte, M.P. Lasarte, J.L. Lizundia, R.M. Pagola, K. Rotaetxe, M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak. Eta J. Etxaideren eta Jaime Kerexeta familietakoak eta zenbait adiskide ere aretoan ziren.

1. Goizeko bi bilkuren berri eman du lehenbizi idazkariak. Hartutako erabakiak zein izan diren azaldu du eta zuzendaritza berritzeko egin diren hauteskundeak nola joan diren.

2. Jaime Kerexeta euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena irakurri du ondoren Karmelo Etxenagusia jaunak. Apirilaren 24an izendatu zuen Euskaltzaindiak ohorezko kide. Oso pozik hartu omen zuen izendapena. Gero, Kerexeta jaunaren bizitzaren eta lanaren nondik norakoak azaldu ditu. Apaiz ikasketak egin zituen eta bere musika zaletasuna lantzeko aukera ere izan zuen. Euskaltzale amorratua, poesia landu zuen baina batez ere itzultzaile lanetan aritu zen. Eta itzulpen lanetan, batez ere Bibliarenak azpimarratu ditu hizlariak. Lan honek eragin izugarria izan zuen bizkaierari dagokionez. Urte askoan bere itzulpenak eta bere meza liburua besterik ez baitzen erabiltzen Bizkaiko elizetan. Langile handia, talde lanean baino erosoago senditzen zen bakarlanean.

3. Ondoren, J. San Martin jaunak hartu du hitza Jon Etxaide zenaren irudiaren nolakoa eskaintzeko. Oroitzapenez jositako hitzaldia izan da. Zenduaren zaletasunak aipatu ditu: mendia, euskara, historia, ... Jasandako estualdiak ere aipatu ditu. Nola egin zion uko euskaltzain izateko proposamenari, bera baino lehenagokoak bazirelakoan. Etxaideren lana idazle gisa, denon begien aurrean duguna, ez zen nolanahikoa izan.

Bi hitzaldiok gogotik txalotu dituzte entzuleek.

4. Azkenik euskaltzainburuak hartu du hitza. Ongietorria egin die senitartekoei. Euskaltzaindiak biziki estimatzen zituela hil berri diren bi euskaltzainak. Bi txostengileek behar bezala aipatu dituzte eta behar bezalako irudia osatu dute.

Euskaltzainburuak gogoratu du berak eta Etxaide zenak amodio bera erdibanatzen zutela: Zuberoa eta Etxahun.

Etxaideren familiak Euskaltzaindiari eskaini dizkio idazlearen izkribuak. Eta eskaintza hori paperean ezarria geldi dadin hitzarmen bat sinatuko da. Lehenbizi, eskerrak eman dizkio euskaltzainburuak familiari. Gero Pruden Gartzia liburuzainak izkribuok zein baldintzatan gelditzen diren zehazten duen hitzarmen dokumentua sinarazi die euskaltzainburuari eta Etxaideren alargunari. Gero Euskaltzaindiaren domina eman zaio oroigarri gisa alargunari.

5. Amaitzeko, hurrengo egunean Laidan F. Krutwigen omenez egingo den ekitaldiaren xehetasunak gogorarazi ditu euskaltzainburuak. Entzuleen artean zen Krutwigen emazte ohia ere. Doluminak eman dizkio Haritschelhar jaunak frantsesez Euskaltzaindiaren izenean, gogoratuz kultura gizona izan zela eta kultura handiko gizona.

Emazte ohiak erantzun dio eskerrak emanaz. Hurakan batekin alderatu du euskaltzain zena. Horrelako gizon bat desagertuz gero, zenbat urte beharko dira beste bat sortzeko, galdetu du. Laster argitaratzeko den lan bat aipatu du eta ale bat bidaliko diola Euskaltzaindiari.

Eta honenbestez amaitu da arratsaldeko ageriko batzarra. Seiak inguruan.

Euskaltzainburua	Idazkaria
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

* * *

Gasteizen, 1998ko abenduaren 18an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
P. Altuna,
J.L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
E. Larre,
J.M. Lekuona,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola
J.M. Satrustegi,
A. Urrutia (arratsaldean)
eta L. Villasante euskaltzainak
eta J.L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea,
M. Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria (2. gaian)
eta R. Badiola, argitalpen eragilea (azken gaian)

Gasteizen, San Antonio kaleko Euskaltzaindiaren ordezkaritzan, 1998ko abenduaren 18an bildu da Euskaltzaindia. Bilerari goizeko hamar eta erdietan eman zaio hasiera. Bildu diren euskaltzainak ezkerreko zutabean ageri direnak dira. Ezin etorria adierazi dute J.A. Aranak, M. Azkaratek, P. Charrittonek, B. Oihartzabalek eta P. Salaburuk.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Inork ez du oharrik egin. Horrenbestez, bere horretan onartu dira.

Kargu hornitzea

Zuzendaritzaz gainerako karguak hornitzeko proposamena ekarri du euskaltzainburuak. Ez da aldaketarik: Baionako ordezkaritzak, Charritton jaunaren esku jarraitzea proposatzen da, Donostiakoa, Lekuona jaunarenetan, Gasteizkoa, Goenaga jaunarenetan eta Iruñekoa Iñigo jaunaren eskuetan.

Batzordeburuei dagokienez ere, ez da aldaketarik proposatzen: B. Oihartzabal, ikersailburu. Eta Sarasola jaunak jarraituko luke Hiztegigintza batzordearen buru; P. Altunak, Gramatika batzorde buru gisa; B. Oihartzabal, Dialektologia batzorde buru; H. Knörr, Onomastika batzorde buru; J. M.ª Lekuona, Literatura batzorde buru eta P. Salaburu, Euskara Batuko batzorde buru.

Jagon sailaren lana eta antolamendua otsaileko barne jardunaldietan aztertuko da.

Euskaltzainek proposamen hau onartu dute.

J. San Martinek, bere aldetik, gehitu du Euskaltzaindiak legez duela jagon lanetan aritzeko eskua. Eta "Eurokarta" delakoa mugiarazten saiatu beharko lukeela Euskaltzaindiak, gai honetan lan handia dagoela egiteko.

Peillen jaunak adierazi du "Carcassonne" txostenarekiko desadostasuna adierazi behar lukeela Euskaltzaindiak.

1999ko egutegia

J.L. Lizundia jaunak aurkeztu du datorren urteko batzar egutegia. Egutegi horretan bereziki azpimarratu nahi izan ditu otsailaren 26 eta 27an izango diren XI. Barne Jardunaldiak, batetik, ekainean Etxarri Aranatzen egingo direnak eta irailean Aramaion egin nahi direnak.

Ontzat eman da egutegi hau.

Eskuartekoak

Ondoren, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Euskaltzaindiari arratsaldean eskainiko dion omenaldiaren xehetasunak eman ditu J.L. Lizundiak.

*Hiztegi batuko **nahi-oihan** zerrenda amaitzea*

Lehenbizi, Davant jaunaren oharrak hartu dira aztergai. Oharrok garaiz kanpo iritsi omen ziren batzordera. Hala ere, batzordeak aztergai onartzea erabaki zuen.

Natibitate sarreran "eta Zub." oharra eranstea eskatzen du ohargileak. Batzordeak ontzat eman du eta hala onartu dute euskaltzainek ere. Kintana jaunak, hala ere, gaurko egunari erreferentzia egitea, hitz honen sarreran egiten den bezala, berria dela hiztegi batuaren prozeduran. Hala dela frogatuz gero, kendu egingo litzateke erreferentzia hori.

Nekosta sarrerari 'h. altzifre' eranstea eskatzen du Davantek. Batzordea gauzak dauden bezala uztearen aldeko da. Eztabaida apur bat izan da. Azkenean, gauzak dauden-daudenean uztea erabaki da.

Neskenegun hitza dialektala omen denez, *larunbat* hitza hobestea proposatzen du ohargileak. *Larunbata* gehitzea onartu da: **neskenegun** Zub. 'larunbata' gisa geldituko da sarrera. Sarasolak esan du, ondoren, *eguen* bezalako hitzetan 'h. ostegun' oharra jarri zenez gero, koherentzia gordetzearren, denetan ohar horiek kendu beharko direla. Kintana ez dago ados. Hala ere, Sarasolaren proposamena ontzat eman da.

Ondoren, A. Urrutia jaunaren oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak.

Nahikotu, narkotiko, naroki, naroro, negoziatu, nekepe ("batez ere leku-denborazko kasuetan" oharra erantsirik), *nekropoli, pneumonia* (neumonia* e. **pneumonia**), *nihilismo, noizgura, noka* (**noka** adlag. *noka hitz egin*), *ñanan egin* (**ñañan egin** Haur.), *obelisko, odontologia* eta *oharti* hitzak sartzea onartu da.

Orobat onartu dira honako ohar hauek ere:

Negar sarreran *negar(-)anpulu* eta *negar(-)zotin* azpisarrerak jartzea.

Neskenegun-i buruzkoa jadanik onartua da.

Nor sarrerak *nor ... nor* azpisarrera izango du, honako adibide hau alboan duela: *herri berean bizi behar dugu, nork batera, nork bestera maite dugun herrian.*

Bestalde, zenbait sarreratan ageri diren hutsak zuzentzea onartu da, hala nola: *norabideratu*-k soberan duen F-a ezabatu; *odoleztatu*-n falta den hutsartea: Ipar. eta Naf.; *ofizier* sarreran *ofizial* hitzaren osteko puntutxoa ezabatu; eta *ohaburu* eta *ohaburuko* sarreretan "e." behar du eta ez "e" soilik.

Hurrengo itzulirako uztea erabaki da, bestalde, honako hitz hauek: *nahigarri, narriadura, nekepetu* eta *obsesio. Nekepetu* hitza dela eta, I. Sarasolak, Hiztegi batuko batzordearen ordezkari gisa, eskari bat egin du, alegia, hitz bat sartzea proposatzen duenak ahalik eta dokumentazio gehienarekin egin dezala. Bestela, denbora galtze handia gertatzen dela. *Neurri* sarrerari zenbait azpisarrera gehitzeko eskaria ere hurrengo itzulirako uztea proposatu eta erabaki da.

Ez da onartu, azkenik, *hala ... non* eta *halako ... non* azpisarrerak gehitzea. Datuak ez omen daude argi, batzordearen iritziz. *Odoleko* hitza sartzea ere ez da beharrezko ikusi.

Peillen jaunaren oharrak aztertu dira ondoren.

Ontzat eman da honako hitz hauek sartzea: *narkotiko* (jadanik onartua), *nausa* (**nausa** Ipar. 'burla, trufa'.) eta *negar anpulu.* Hala ere, hitz honetan zalantza sortu da, *anpulu* ala *anpulo* behar ote duen. Bestalde, batzarra ohartu da *anpulu/o* hitza ez dela ageri orain arteko zerrendan. Eztabaida labur baten ondoren, *anpulu* forma onartu da eta dagokion lekuan sartuko da. Onartu dira, halaber, *neguburu, nekezia* (Ipar. oharra alboan duela), *nekrologia* (**nekrologia**, h. **hilberri**), *neurastenia, nongura* (Bizk. oharrarekin) eta *oharti* (jadanik onartua).

Neurtezin/neurgaitz oharra dela eta, bakoitzari bere sarrera ematea onartu da.

Hurrengo itzulirako utzi dira honako hauek: *nahikara, nahikide, nahikor, nakaitzgarri, negumin, neskama, noizkotasun, noku, nomina, noragiri, ñaflatu, odiseia, ogi azal, ogi bihotz, ogisaltzale* eta *ogitegi.*

Bestalde, lekukotasunik ezagatik bertan behera utzi dira honako hauek: *nar nar egin, narneria, nausatu, nekagaitz, norberana, odolerre, odolgaitz, odolmail, ogara, ohaburuko* ('etxeko mediku' edo 'ordeinu' adieran), *oharkari, ohezur, ohigabeko* eta *ohoinkide.*

Negal/negel-i buruzko oharrak ere ez dira onartu. *Norbera*-ri buruzkoa ere ez. Beraz, sarrera hori bere horretan uztea erabaki da. *Nork nola* bezalakoak ere, batzordearen aburuz, ez dira hiztegian sartzekoak.

Zerrendan eztabaidarako utziak ziren hitzak hartu dira azkenik aztergai.

Noski-ri buruzkoa oso kontu nahasia da. Eztabaida luze xamarra gertatu da. Azkenean, ziurtasuna adierazteko duen erabilerari emango zaio lehentasuna. Hortaz, bi adiera onartuko zaizkio: 1. (ziurtasun-adierazlea) 'jakina, horixe!' *Bai noski, bai segurki*, beti zalantzarik gabeak dira. *Noski baietz!* e. Bai, noski!* 2. gutxi erabilia gaur, 'beharbada, dirudienez ...'

Obligarazi hitza eztabaidatu da ondoren. Honako hau erabaki da: **obligarazi**, obligaraz, obligarazten *du* ad. Ipar.

Ondorioz, *obligatu* eta *obligazio* sarrerak ere aldatu egin dira: **obligatu**, obliga, obligatzen, h. **behartu. Obligazio** 1. betebeharra; 2. Ekon.

*Hiztegi batuko **oihanbide-orburu** zerrenda onartzea*

H. Knörr jaunaren oharrak hartu dira lehenbizi azterkizun.

Ohargileak, beste ezer baino lehen dio urriko batzarrean sartzea onartu zen *muna* hitzaren argigarri hurrengo bilerarako (azaroko bilerarako, alegia) ekarri behar ziren adibideak ez zirela ekarri. Ez da honetaz batzarrean ezer esan.

Oihanzain hitzari buruz, *oihantzain* idazkera behar ez ote genukeen galde egiten du. Honek eztabaida piztu du. Morfema artean *t* sartzea abusua izango omen litzateke. Hala ere, badira salbuespenak. *Arrantzale* bezalako hitzak aipatu dira, adibidez. Ez dirudi hain garbi dagoenik zein litzatekeen araua eta zein salbuespena. Horregatik, Altuna jaunak proposatu du Miren Azkarate andrea batzarrean izan arte arazoa zintzilik uztea, hark ezagutzen baitu ongien gai hau. Hala onartu da.

Oilozopa-ren aipamena egitea eskatzen du Knörrek. *Oilo(-)salda* sarrera eranstea onartu da.

Olata hitza sartzea ere onartu da. Halaber, *onerizko*-ren sarrera zuzentzea onartu da, *onerizkoa* bezala ageri baitzen zerrendan. Gainera, "jas." ez, "Jas." gisa azalduko da. Azkenik, beste huts hau ere zuzendu da: *omoier* ageri da, *omonier* behar du.

On hitza izen bereziekin Hegoaldeko usadioari dagokiola dio ohargileak. Onartu da oharra: "Heg." eta "zahar" dela adieraziko da.

Ondra sarreran "Heg. herr." dela adieraziko da. "Hileta" adierarekin, berriz, ez dago aski lekukotasun, batzordearen iritziz, eta bigarren itzulirako geldituko litzateke.

Ondradu sarrera ere apur bat aldatzea onartu da. Honela emango da sarrera hori: **ondradu** Heg. *herr.* izond. 'zintzoa, prestua', *pertsona ondradua.*

Oniritzi-renean beste bi adiera gehitu zaizkio sarrerari: 3. izond. 'maitatua', *euskal dantza oniritziak*; 4. 'onetsia'.

Ontsatu eta *ontsatzaile* sarrerei "Ipar." oharra gehituko zaie.

Operazio sarreran *operazio(-)gela = ebakuntza (-)gela* azpisarrera gisa emango da.

Hurrengo itzulirako utzi dira honako hauek: *olandra, oldozpen/oldozmen, gure onetan* azpisarrera *on*-en sarreran, *ondarkin* eta *onddoketari.*

Azkenik, *olerti* sarrera dagoen bezala uztea erabaki da. *Oltz(a)* sartzea ez da onartu: *oholtza*-rekin aski delakoan. Eta *oñona* sarrera ere bere hartan uztea onartu da.

Gero, A. Urrutia jaunaren oharrak hartu dira.

Oin sarreran *oin(-)ohar* jasotzea ontzat eman da.

Oinordetza hitzari buruzko oharraren aurrean, ohargileari berari entzun beharra aipatu da. Batzarrean ez denez, hurrengorako gelditu da hitz honen adiera argitzea.

Onartu da *oinuts* sarreran *oinutsean* 'oinutsik' azpisarrera gehitzea.

Onartu da, halaber, *okzitaniar/okzitaniera* sarrerak eranstea zerrendari.

Olde sarrerari 'borondatea, nahia, gogoa' zehaztapena gehituko zaio.

On sarrerari beste honako azpisarrera hauek gehitzea ontzat eman da: *onenean ere* eta *onik onenean* 'momenturik onenean'.

Ondoko azpisarrerari "Izlg." oharra erantsiko zaio.

Ongin sarreran, adiera argitzeko 'ongilea' ezarriko da.

Onuradun-i ere sarrera egitea ontzat eman da. Baita *opereta* hitzari ere.

Opildu hitzari ere leku egitea erabaki da: **opildu**, opil(du), opiltzen *da/du* ad., 1. 'zapaldu'; 2. 'pilatu, multzotu'.

Orainen hitza ere sartzea onartu da: **orainen** Bizk. 'orina' gisa.

Oratu hitzaren ondoan beste hauek gehitzea onartu da: **oraka** *Bizk.* adlag. 'oratuz'; **orakada** *Bizk.* iz.; **orakarri** *Bizk.* iz. 'euskarria'.

Bigarren itzulirako utzi dira *okermin, oliobide, ondasuntegi, onibar, onuste/onustedun* eta *ope.*

Oixtian-i *oixtiko* azpisarrera gehitzea ez da onartu. Horrelakorik ez bide da sekula egin.

Olata-meza azpisarrera gehitzea ere ez da ontzat eman.

Oldozkor ere ez da onartu.

Omen sarrerari *omenezko* izenlaguna gehitzea eskatu du ohargileak. Ez da onartu eskaria, baina adibide bat gehitzea erabaki da: *A. Irigarairen omenezko liburua.*

Onbihurtu hitza sartzea ez da ontzat eman, nahiko lekukotasun ez dela eta.

Oniritzi aditz gisa sartzea ez da onartu.

Azkenik, eztabaidagai gisa markatutako hitzak aztertzeari ekin diote batzartuek.

Lehenbizi, *okela* hitzari 'zatia' adiera eman behar zaion jarri da eztabaidan. Ez da adiera hori ematea onartu. Horrenbestez, zerrendan *okela* sarreran idatzitako bigarren atala ezabaturik geldituko da.

Oinaztura/oinaztu ere eztabaidagai gisa markatuak datoz zerrendan. Bietan 'tximista' adiera dutela esango da. Bestalde, **oinaztura** "batez ere *Naf.*" dela esango da eta **oinaztu** *Bizk.*

Ondoren, *oldoztu* hitzaz izan da eztabaida. Botoetara jo da eta hamaika euskaltzain "h." oharra kentzearen aldeko agertu dira.

Ontsalaz/ontsala bikoteaz galde egin zaie Iparraldeko euskaltzainei. Haien iritzia entzun ondoren, *ontsalaz* forma hobetsi da. Honela emango da sarrera: **ontsalaz** *Ipar.* 'onenean ere'.

*Hiztegi batuko **ordain-ortopediko** zerrenda*

Ordain-ortopediko zerrenda banatu zaie euskaltzainei hurrengo bileran aztergai izan dezaten. Beti legez, idatzizko oharrak egiteko epea hilaren 20a artekoa izango da.

Onomastika: Santu, san, done eta ingurukoak

Txosten hau aurreko batzarrean atzera bota zen. Oraingoan, berriz, H. Knörr Onomastika batzorde buruak, hurrengo bilkura arte atzeratzea eskatu du. Zuzenketak egin behar zaizkio txostenari, baina ez dagoenez ez M. Azkarate, ez B. Oihartzabal, ez P.

Charritton, egokiago irizten dio urtarrileko bileran aztertzea kontu hau. Hileko batzarra baino lehen Euskara Batuko batzordekoekin bilduko dira proposamen egokiagoa egin ahal izateko. Horrela onartu da.

R. Badiola, argitalpen arduradunak, López de Guereñuren *Voces Alavesas* lanaren berrargitalpenaren eta azken *Euskera* aldizkariaren ale bana eman die euskaltzainei. Eta ordu biak eta erdietan eten egin da bilera, bazkaltzeko.

Arratsaldean jarraitu du Euskaltzaindiak lanean.

Onomastika: Zuberoako herri izendegia

M. Gorrotxategi batzorde idazkariari eman dio hitza euskaltzainburuak txostenaren xehetasunak emateko. Lehen dokumentua bera dela esan du orain eskaintzen dena, lehengo irizpideak eta lehengo zerrenda.

Davant jaunak azaldu du nola irailean batzar bat egin zuten Onomastika batzordekide batzuek eta Zuberoako euskaltzainek eta zenbait euskaltzalek. "Sü -Azia"-koek kontsonante ondoko *h*-ak kentzea eskatzen zuten. Salbuespenak onartzeko prest ziren, hala ere. Horietako bat *Atharratze* zen. Beste bat, *Ainharbe*. Peillen jaunak, berriz, *Atherei* ere gehitu zuen, frantsesez ere herri honek *h*-a gordetzen duela eta, euskaratik hartua. Baina beste izen asko ere egoera berean daudenez, irizpide horren arabera, bi izen bakarrik geldituko lirateke *h*-rik gabe: *Mitikile* eta *Pagola*. Hortaz, bi proposamen dira egiazki mahai gainean daudenak kontsonante ondoko *h*-aren auzi honetan: a) *h* guztiak kendu, bi salbuespen utziz (*Atharratze* eta *Ainharbe*); edo b) *h* guztiak gorde, *Mitikile* eta *Pagola* izenak *h*-rik gabe utziz. Bigarren honek esan nahiko luke, funtsean, Euskaltzaindiak 1979an hartutako erabakiari eutsiko liokeela. Hain zuzen, horixe izan da eman den argudioetako bat, zeren Euskaltzaindiak bere garaian hartutako erabakia aldatzeko pisuzko arrazoiak behar liratekeela esan da: aldaketa proposatzeko behar dira argudioak eta ez, alderantziz, hots: aldaketa ez egiteko. Nolanahi ere, gizarte onarpena lortzeak garrantzia handia duela esan da. Hori dela eta, gutun bat egin beharko litzaieke udal agintariei gauzak nola diren eta zergatik erabakitzen diren azalduz. Euskaltzaindia ez dela nornahi eta honen iritzia dela indarra duena.

Azkenean, bozkatu da: bi boto izan dira lehenbiziko proposamenaren alde (hots: h-a bi izenetan bakarrik gorde eta gainerakoetan kentzearen alde) eta hamabi, bigarren proposamenaren alde (zerrendako bederatzi izen h-rekin gordetzearen alde). Horrenbestez, 1979ko zerrendako izen guztiek h letra gordetzen segituko dute, *Mitikile* eta *Pagola* salbu.

Ñ grafemari dagokion proposamena, batzordeak ekarri bezala onartu da, hots: denetan *-añe-/-eñe-* grafien ordez *-aine-/-eine-* ezarriko da. Hamabi euskaltzainek eman dute proposamen honen aldeko botoa. Dagokion eran aldatuko da, horrenbestez, txosteneko 2. oharra.

Osserain/Oza(r)aine arazoa hurrengo bilkurarako uztea erabaki da asti faltaz. Honetaz informazioa osatuko da, gainera.

Eta horrenbestez, arratsaldeko seiak eta hamarrean, amaitutzat eman da Euskaltzaindiaren batzarra.

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

Bilbon, 1999ko urtarrilaren 29an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola eta
J. M. Satrustegi
euskaltzainak eta
J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea eta
M. Gorrotxategi, Onomastika batzorde idazkaria (1.1. gaian)

Bilboko Plaza Barriko egoitzan, 1999ko urtarrilaren 29an, bildu da Euskaltzaindia. Bilera goizeko hamar eta erdietan hasi da. Bildu diren euskaltzainak ezkerreko zutabean ageri direnak dira. Ezin etorria adierazi dute P. Salaburuk, A. Urrutiak eta P. Zabaletak.

Euskaltzainburuaren hitzak

Urteko lehen bilkura izanik, euskaltzainburuak urte berri ona opa izan die bilduei. Euskaltzaindiak urte berrian lan onak egingo dituelako esperantza agertu du.

Bestalde, Charritton jaunari zorionak eman dizkio *Manuel Lekuona* saria eskuratu baitu. Zorionak eman dizkio halaber J. M. Lekuona jaunari jaso berri duen *Rosalia de Castro* sariagatik.

Zorionak, azkenik, Abel Muniategi euskaltzain urgazle eta Lege-Ekonomia eta Literatura batzordekideari, Eusko Jaurlaritza berrian Justizia sailburuorde izendatua izan baita.

Ondoren dolua agertu du Imanol Laspiurren heriotzagatik. Euskaltzain urgazle zenak lan ederrak eginak ditu euskararen alde. Oso egun txarra egokitu bazen ere, H. Knörr eta J. San Martin euskaltzainak izan ziren hiletan. Hilberri txostena egiteko Serafin Basauri jaunari eskatuko zaio.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Nekosta-ren sarrerari buruzkoa ez dago zuzen jasoa aktan. "Her." oharra ez dagokio. Beraz, zuzenduko da. Gauza bera *niketz* sarrerari dagokionez. Hitz hau ez zen hurrengo itzulirako utzi, zegoen bezala uztea erabaki zen.

Zuzenketa hauekin ontzat eman da agiria.

1. Hizkuntz arauak

Onomastika: Zuberoako Herri Izendegiko **Ozaraine** *onartzea.*

Zuberoako Herri Izendegiaren eztabaida amaitzeko izen hori falta zen. Davantek egin duen ikerketaren arabera, gehienek *Ozaaiñe* ahoskatzen omen dute. Beraz, proposamena *Ozaraine* izango litzateke. Lekukotasun historikoek ere gauza bera adierazten dute. Proposamen hau onartu da. Beraz, *Ozaraine.*

Onomastika: "Santu, san, done eta ingurukoak" txostena

H. Knörrek hartu du hitza. Agindu bezala, Euskara Batuko batzordekoekin bilera egin dutela adierazi du. Zenbait puntutan ados omen dira, baina beste zenbaitetan ez. Horregatik, proposatzen du lau kideko talde bat osatzea eta honek egitea proposamena otsailerako.

P. Altunak ados diren puntuak zein diren argitzea eskatu du. Txostenaren lehen puntuan (*san/santa* hitzen erabilera) ados omen dira. Bigarren puntuan *(deun/done)* adostasunik ez da, nonbait. Eta, hain zuzen, hemen mugaren bat jarri beharra dagoela aipatu da, jendea hasia baita horrelakoei gustua hartzen. 11. puntuan ere (*-ko*-ren erabileran) adostasuna omen da.

Ondoren, B.Oihartzabalek azaldu du badela funtsezko diferentzia bat ikusmoldeetan. Jakin beharko litzateke, ezer baino lehen, zer eskatzen dioten euskaltzainek delako gomendio honi: erabilpen guztietarako gomendioa nahi da ala, urraska joanez, santuari otoitz egiteko orduan, adibidez, nola deitu da argitu beharrekoa? Oihartzabalen iritziz, batasuna egiten ahal da erabilera normaletarako. Eta ez litzateke urrats txikia izango Euskaltzaindiak erabakiko balu santuak zuzenean aipatzean nola jokatu behar den. Santuen izenak daude jokoan eta ez, adibidez, leku izenak.

Satrustegi jaunaren ustez, bi iritzi oso desberdinekin ari da Euskaltzaindia lanean. Historia luzea da eta ezin da orain dena hankaz gora bota, azken orduko iritzi inprobisatuez baliatuz. Urte luzeetan metatutako altxorra ezin da galtzen utzi. Bide horretatik segitzez gero, ez duela denbora gehiagorik galduko Onomastika batzordean lanean.

J. San Martin jauna ere Satrustegiren iritziko azaldu da. *Deun* hitzari ateak itxi behar zaizkiola, baina Euskaltzaindiak ez duela estuegia izan behar.

Oihartzabal jaunak hartu du hitza ondoren. Gaizki ulertu omen dituzte haren hitzak. Erabakiaren helburua erabilera ongi mugatzea da. Hurrengo bileran gaia ongi mugatu beharra dago: santuen izenak nola eman behar diren finkatu. Ebanjelisten izenak, adibidez, nola emango diren. Horretan egiten bada batasuna, ez da gutxi, aitzina doa Euskaltzaindia.

Ibon Sarasolaren arabera, gaizki ulertu etengabeko batean bizi gara. Satrustegiren lana ongi dago, ederra da. Baina horren ondorioa bada "Donibaneren ebanjelioa" bezalakoak esan beharra, bide okerra hartu da. Mailak nahastea ez da zilegi.

Kintana jaunak dio gaztelaniaz ere *San Esteban* eta *Santesteban* ongi bereizten direla.

Oihartzabalen ustez gauzak piskanaka, urraska, egin behar dira.

Eztabaida luze hau amaitze aldera, euskaltzainburuak hartu du hitza: bil dadila batzordeñoa eta ekar dezatela proposamena otsailean. Batzordeño horretako kide izango dira, alde batetik H. Knörr eta P. Salaberri jaunak eta, bestetik, B. Oihartzabal eta Miren Azkarate. Azken honek, gainera, proposamenak posta elektronikoz elkarri helarazteko gonbitea egin du. Onartu da. Dena den, argi gelditu da zein izan behar duen gomendioa: santuei erreferentzia zuzena egiteko proposamena ekarri behar dute eta ez besterik. Horrela onartu da.

Hiztegi Batuko **oihan(t)zain** *onartzea*

Hitz honi dagokion arazoan sartu aurretik Miren Azkarate andreak zenbait ohar egin ditu aurreko agiriari buruzkoak. Gero, *muna* hitza zenbait adibidez hornitzekotan geratu zenez, hurrengo bilerarako puntu hori bideratua egongo dela hitz eman du.

Oihanzain hitza dela eta, forma horretan ageri omen da nagusiki. Satrustegiren ustez, orain arteko zerrendak ikusi beharko lirateke. Eztabaidan, besteak beste, X. Kintanak ere parte hartu du eta esan du bai hitz arruntetan eta bai hitz zaharretan idatziak ahoskerari ere jaramon egin beharko liokeela.

Botoetara jo da azkenean. *Oihanzain* formaren aldeko agertu dira bederatzi euskaltzain. *Oihantzain*-en alde, berriz, lau. Beste lau abstenitu egin dira. Horrenbestez, *oihanzain* forma erabaki da.

Hiztegi Batuko ***ordain-ortopediko*** *zerrenda*

X. Kintanak egindako oharrak aztertzeari ekin dio lehenbizi Euskaltzaindiak.

Ordea hitzari, 'ordena' adieran, sarrera emateko eskaria ontzat eman da. Beraz: ordea-2* e. **ordena**.

Ordu ezkero-ren ordez *orduz gero* proposatzen du Kintanak. Kontu hori jadanik arautua dagoenez gero, ez da ontzat eman. Bestalde, *ordu ezkero*-ren baliokidea ez da *orduz geroz*, zerrendan ematen den bezala, *orduz gero* baizik.

Ordurarte hitza gordetzearen alde ageri da ohargilea. Hala ere, batzordearen proposamenez, zerrenda dagoenetan uztea erabaki da.

Orijinal hitza *original* forman ematea eskatzen du Kintanak. Bestalde, hain erabilia den hitzari "zah." oharra eransteak ez dirudi oso bidezko. Botoetara jo ondoren, *orijinal* hitzaren alde agertu dira hamaika euskaltzain. Bost izan dira *original* formaren aldeko. Beraz, *orijinal* forma onartu da. Bestalde, *Zah.* delako oharra ezabatu egingo da. Adibide bat ere erantsiko zaio: *bekatu orijinala* h. *jatorrizko bekatua.*

Oroitu-ren sarreran falta den puntua ere ezarriko da.

H. Knörren oharrak direla eta, honako bide hau eraman du batzarrak.

Orde-ren sarreran *hortz-orde* azpisarrerari leku egitea bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Ordean-en sarreran aipatzen den bigarren adiera Ipar. dela esatea onartu da: 2. *Ipar.* **ordea**.

Ordenadore/ordenagailu auzia ekarri du ohargileak mahai gainera. Lehenbiziko forma ageri omen da nagusi. *Konputagailu* ere lehiakide dute bi hitz horiek. Eztabaida izan da eta, azkenean, bozkatzea erabaki da: *ordenadore*-ren alde, zazpi boto izan dira; *ordenagailu*-ren aldekoak, berriz, bederatzi. Beraz, *ordenagailu* forma hautatu da.

Ordu sarreran *ordu onean, ordu gaiztoan* sartzea onartu da. *Orduka* sartzea ere onartu da. Hau dela eta, *orduro* hitzari buruz zalantza sortu da: *orduro/orduero/ordu oro*... Batzordeak txosten bat egingo duela agindu du.

Ohargileak ez deritza zuzen *ordulari* eta *erloju* maila berekotzat ematea. Dagoen bezala uztea erabaki da.

Oreka sarreran *orekan* azpisarrera onartu da. *Orekan egon* emango da, adibide gisa.

Oroituki oraingoz ez sartzea onartu du batzarrak.

Orlegi hitzari ohar bat eranstea eskatzen du Knörr jaunak, *berde* hobetsiz. Ez da onartu. Bere horretan utzi da sarrera hori.

Ororen buruan-en parean *ororen buru* ere sartzea eskatzen du ohargileak. Ez da onartu, forma nagusia *ororen buruan* delakoan.

Orrits eta *orohartzaile* hitzak bigarren itzulirako uztea proposatu du batzordeak. Hala onartu da.

Ondoren, A. Urrutiaren oharrak aztertu dira, ohargilea batzarrean ez bada ere.

Ordainetan mugatu singularrean ezartzea eskatzen du. Ez da onartu.

Bigarren itzulirako uztea erabaki da *ordainarazpen, ordainik* eta *ordainsaritu.*

Ordeinatu sartzea ez da onartu.

Ordu hitzaren azpisarrera gisa *ordu onean, ordu gaitzean*, etab. sartzea jadanik onartua da, Knör jaunaren oharren arabera. *Orduan*-en sarreran *orduan bertan eta orduan orduko* azpisarrerak gehitzea ez da onartu, horrelakoak ez baitira orain arte sartu izan.

Orfeoi eta *organo* hurrengo itzulirako uztea proposatu du batzordeak eta hala onartu da.

Oritz sarrera dagoenetan uztea erabaki da.

Orkume dela eta, ez da egoki ikusten *txakur* hitza aipatzea, *txakur/zakur* auzia askatu bitartean. Horrenbestez, 'oraren kumea' dela esango da. *Or* sarreran, berriz, 'etxeko animalia' aipatuko da. Besterik ez.

Ormigoi hitza ez da zerrendan jasoko. Hirugarren berrikustean erabakiko da zer egin.

Orno hitzaren gainean eraikitako zenbait hitz elkartu jasotzea komenigarri ikusten du ohargileak, *orno-muin*, esaterako. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Azkenik, *ortodoxia* nazioarteko hitzari leku egitea ontzat eman da.

2. Batzordeen organigrama berrikustea

Euskaltzainburuak aurkeztu du gaia. Ez da funtsezko aldaketarik proposatzen. Ahoskerari dagokionez, zer egin daitekeen ikusi behar da. Jagon sailari dagokionez, berriz, Barne-jardunaldietan hitz egingo da.

Nolanahi ere, batzordeetako buruei galde egiten zaie ea kide aldaketarik egin behar den.

3. F. Krutwig-en hutsunea hornitzeko proposamenak

Hautagaitza bakarra aurkeztu da, Andres Iñigo Ariztegi jaunarena. Lau sinadurarekin aurkeztu da hautagaitza hori: J. A. Arana, H. Knörr, J. M. Satrustegi eta J. San Martin dira sinatzaileak.

Datorren hilean egingo da hautaketa.

4. Eskuartekoak

J. M. Satrustegi jaunak hartu du hitza Nafarroako Euskararen Kontseiluan zer gertatu den azaltzeko asmoz. Dimisioaren arrazoia ez da irratiaren arazoa izan. Hasieran dimisio kontu hori bakarkako auzia zen. Arazoa sakonagoa omen da. Nafarroako Presidenteak ez du Kontseilua deitu eta biltzeko eskariari ere ezezkoa eman dio.

Dimisioa eman zezaketen hamalau lagunetarik hamabik eman dute. Etxaide andreak eta Izak ez dute nahi izan dimititu.

Arazo honen ingurukoak Jagon sailean aztertzekoak direla esan du euskaltzainburuak, jakiteko nola jokatu behar duen Euskaltzaindiak. J. Haritschelhar jaunak esan du bera "berezko kidea" edo dela eta ez duela dimititzen ahal, baina Kontseilua biltzen denean ez dela isilduko.

J. San Martin ez dago ados arazoa geroko uzteaz eta Jagon sailaren esku uzteaz. Gauzak berotan egin behar direla dio. Zuzendaritzak ikusi behar luke berehala zer egin. Haritschelharrek erantzun dio hurrengo bileran ikusiko duela Zuzendaritzak zer egin.

J. J. Zearretari domina

Euskaltzaindiarentzat hogeitabost urte lanean jardun duela eta zilarrezko domina eskaini zaio euskaltzainburuaren eskutik Juan Jose Zearreta jaunari. Euskaltzaindiaren eta euskararen alde egindako guztiagatik eskerrak emateko modua dela esan dio buruak. Eskerrak itzuli dizkio Zearreta jaunak.

Ekitaldi xume honekin amaitutzat eman da, ordu bietan, gaurko goizeko bilkura.

Euskaltzainburuak — Idazkariak
Jean Haritschelhar — Patxi Goenaga

* * *

AGERIKO BATZARRA

Bilbon, 1999ko urtarrilaren 29an

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan, 1999ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko lau eta erdietan, hasi da Euskaltzaindiaren ageriko batzarra. Honako jaun-andre hauek bildu dira:

J. Haritschelhar euskaltzainburua eta P. Goenaga idazkaria eseri dira mahaian hiru hizlariekin (J. San Martin, X. Kintana eta X. Gereño) batera. Aipatuez gainera honako euskaltzainak bildu dira: H. Knörr, J. A. Arana, P. Altuna, M. Azkarate, J. L. Davant, X. Diharce, J. M. Lekuona, Tx. Peillen eta L. Villasante.

Euskaltzain urgazleak, berriz, honako hauek: X. Aranburu, R. Badiola, F. Barrenengoa, A. Eguzkitza, S. Garcia Trujillo, J. L. Goikoetxea, J. L. Lizundia, A. Muniategi, K. Rotaetxe, P. Uribarren eta J. J. Zearreta.

Euskaltzain jaun-andre hauez gainera, F. Krutwigen, J. Berrojalbizen eta I. Barriolaren senitarteko ugari ere bildu dira aretoan.

Lehenbizi, idazkariak goizeko bilkuraren berri eman du: hizkuntz araugintzan egindako lana, euskaltzain berri izendatzeko hautagaitza eta Zearreta jaunaren domina.

Ondonren. euskaltzainburuak Xabier Kintanari eman dio hitza F. Krutwigen hilberria irakur dezan. Zenduaren bizitza eta lanak aipatu ditu. Jasotako sariak ere aipatu ditu. Hari zor zaio Euskaltzaindiaren berrikuntza. Kultura ikaragarria zuena eta, gizon gisa, askatasuna eta independentzia zalea.

Eskari batekin amaitu du hitzaldia: Getxok, haren jaioterriak, kale bat eskain diezaiola. Bilbok, berriz, zubi bat eskaini behar lioke, egindako zubi lana oroituz.

Ondoren, Luis Villasantek ere bizpahiru hitz egin nahi izan ditu Krutwigen omenez. Nola ezagutu zuen azaldu du hitz labur eta hunkigarriak jalkiz.

Euskaltzainburuak bi hizlariei eskerrak eman ondoren, X. Gereño jaunak hartu du hitza. Julita Berrojalbiz euskaltzain ohorezko zenaren zenbait datu pertsonal eman ondoren, andre honen euskararen aldeko lana zenbaterainokoa izan zen azaldu du. Haren izena Bizkaiko ikastolen historiari loturik ageri da, urte zailenetatik beretatik hasita.

Azkenik, J. San Martinek irakurri du Ignazio Barriola zenaren hilberri txostena. Haren bizitzako zertzeladak eman ditu, ikasketak, konpromiso politikoak, kulturari buruzkoak etab.

Bilkura amaitu aurretik euskaltzainburuak hitza hartu du bilduei Imanol Laspiur euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri emateko, alde batetik. Bestetik, berri onak ere

izan ohi direla aipatu du: Charritton jaunak Eusko Ikaskuntzaren *M. Lekuona* saria eskuratu duela eta J. M. Lekuonak, berriz, Rosalia de Castro saria. Bi euskaltzainak zoriondu ditu eta, orobat, bilduen artean aurkitzen zen A. Muniategi ere, Justizia sailburu izendatu berri izan delako.

Eta horrenbestez, arratsaldeko seiak hamar gutxitan, bukatutzat eman da arratsaldeko batzarra.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

Baionan, 1999ko otsailaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi eta
A. Urrutia
Euskaltzainak eta
J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea.

Baionan, Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Fakultatean, 1999ko otsailaren 26an, bildu da Euskaltzaindia. Bilerari goizeko hamarrak eta hamarrean eman zaio hasiera. Ezkerreko zutabean ageri dira bildu diren euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute P. Charrittonek, P. Salaburuk eta L. Villasantek.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Goizeko bilkurako akta dela eta, A. Urrutiaren oharrei buruz hartu ziren erabakiak ez datoz jasoak, eztabaidatu baziren ere. Paperekin nahasteren bat izan dela aitortu du idazkariak eta behar bezala zuzenduko dela okerra. Bestelako oharrik gabe, ontzat eman dira azken bi agiriak.

"Santu, san, done eta ingurukoak" txostena

Onomastika batzordeko Patxi Salaberriren gaixoaldia dela eta, ez dute arazoaz tratatzeko aukerarik izan. Hurrengo bilkurarako ekartzen saiatuko dira.

***Muna** hitzari dagozkion adibideak*

Muna hitza adibide egokiz hornituko zuela aspaldi hitz eman zuen batzordeak. Baina, gauzak behar bezala ulertu ez, nonbait, eta gaurkoan ere ez dira adibideok ekarri. Hurrengorako izango omen dira.

***Oinordetza** hitza*

Aurreko batzarrean *oinordekotza/oinordetza* bikotearen auzia erabakitzeke utzi zen. Bi hitzak, nonbait, aski parekatuak dabiltza testuetan. A. Urrutiak dio gustu kontua dela eta berak ez duela arazorik. Azkenean biak sartzea onartu da. Hala ere, *oinordetza* sarreran Zuzenbideko hitza dela adieraziko da.

***Ortozik-pasmo** zerrenda*

X. Kintana jaunaren oharrak jarri dira lehenbizi mahai gainean. *Oxala* sarrera dela eta, hitz hau bakarrik ere erabiltzen denez, beste adibideren bat ezartzea proposatzen du ohargileak. Azkenean, adibidea aldatzea onartu da: *Oxala hola mintzo balira!* jarriko da.

Pantaloi hitzari "Lgrt." oharra ezabatu egingo zaio.

Papourdin hitzean ageri den bokal elkarketa hori ez du onartzen ohargileak. Azkenean, batzordearen proposamenez, *papo-urdin* forman emango da hitz hori.

Paraboliko sarrerari, adibide gisa, *antena parabolikoa* jartzeko eskaria ez da ontzat eman. Dagoen bezala uztea erabaki da.

Paraje hitzak duen bigarren adiera ('hurbil') jasotzea ez da onartu. Hurrengo itzulirako utzi da. Lekukotasun gutxi da eta oso eremu mugatua du.

Paragrafo hitza bultzatu ahal izateko, ondoan "parrafo* e. **paragrafo**" ezartzea ontzat eman da.

Parranda hitzaren ondoan *parrandista* sartzeko eskaria egin du Kintana jaunak. Hurrengorako uztea erabaki da. Dena dela, *parrandero* hitza bera ezagunagoa dela dirudi.

H. Knörr jaunaren oharrak aztertzeari ekin dio ondoren batzarrak.

Ortzegun eta *ortzirale* hitzei *Ipar.* oharra ezabatu eta *L-N* ezartzea onartu da.

Oso sarrerari hiru azpisarrera ezartzea onartu da, bakoitza bere adibidearekin (*oso ederra, ogi osoa*, etab.). Hitz honen haritik, *osoko (osoko batzarra)* hitzaren premiaz eztabaida sortu da. A. Urrutiak bilatuko ditu hitz honen aztarnak eta nondik norakoak hurrengo bilerarako.

Ospitale hitza dela eta, ohargileak *eritegi*-ri eman nahi lioke lehentasuna. Ez da onartu eta lehengoan geratu da sarrera hori.

Ostatu hitza dela eta, bi adiera dituela esango da: 1. *ostatu eske gabiltza*; 2. *Ipar. Naf.* 'taberna'. Gainera, honako azpisarrera hauek gehituko zaizkio: *ostatu eman, ostatuz egon, ostatu hartu.*

Oste hitzari *jende oste* azpisarrera gehitzea proposatzen du Knörr jaunak. Izatekotan ere, *jende* hitzaren azpian behar zukeen. Zerrenda osoa berrikustean sartuko da.

Ostera-ren azpisarrera gisa, *-z ostera* sartzea ongi ikusiko luke ohargileak (*Jainkoaz ostera*). Baina hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Ostu-ren ordez *ohostu* proposatzeko beranduegi ote den galde egin du ohargileak. Batzordearen iritziz beranduegi da.

Zerrendan falta diren *otasa* eta *otin* hitzak sartzea ez da onartu. Hurrengo itzulirako utzi dira.

Otu-ri buruzko oharra ohargileak berak erretiratu du.

Oxala interjekzioa euskara jasorako egoki ote den galde egiten du Knörr jaunak. Batzordeak hala dela uste du.

Ozar-en adiera azaltzeko 'zakurra' ikusteak poztu egin du ohargilea. Hala ere, z-/tx- auzia oraindik erabakizun denez gero, 'zakurra' kendu eta 'ora' ezartzea onartu da. Pozaldi laburra, hortaz.

Paraje hitzari aldamenean "Heg. eta Herr." oharra gehitzea onartu da.

Azkenik, *pasillo* hitzari aldamenean "Herr." oharra gehitzea eskatzen du H. Knörrek bere oharretan. Hitz hori zerrendan ageri den moduan uztea erabaki da, ezer aldatu ez gehitu gabe.

Hirugarren ohargilea A. Urrutia jauna izan da.

Ortuzain eta *osabide* hitzak sartzea onartu da.

Osagabe hitza sartzeko eskaria dela eta, *osatugabe* onartu da. "Izond." dela esango da. *Osatzaile* hitza ere sartzea onartu da. Gainera, Tx. Peillenen ohar bat dela medio, *osatu*-ren sarreran ematen den hirugarren adiera aldatu du batzarrak, 'zikiratu' adieran Nafarroan ez ezik Zuberoan ere erabiltzen omen baita. Beraz, *"N. eta Z."* oharra gehituko zaio aditz horri.

Osmio hurrengorako uztea erabaki da.

Osmosi sartzea onartu da.

Oso sarreran, *oso-osoan* azpisarrera gehitzea ez da beharrezko ikusi. *Osoko* hitzari buruzko erabakia, berriz, hurrengo bilerarako utzia du, dagoeneko, batzar honek beronek.

Osotoro sartzea onartu da. *Gip.* 'osoki' azalpenarekin.

Ospedun eta *ospegabe* sartzea onartu du batzarrak.

Ospeldu aditzari leku egitea ontzat eman da: *ospel(du), ospeltzen da* ad. 'ospelak atera' gisa emango da sarrera hori.

Ostikopunta sartzeko eskariari buruz, datuak hobeki aztertu beharra ikusten du batzordeak eta hala onartu du batzarrak ere. Dena dela, *ostikopean* azpisarrera gehitzea onartu da.

Otailari/otailu/otailugile/otailatu hitzak sartzeko eskaria hurrengo itzulirako uztea erabaki da. Gauza bera erabaki da *otalur, otserri, pagamendu, palaxu, panfleto, paraxutista* eta *parrilla* hitzei buruz.

Oxidazio sartzea onartu da.

Paga hitza sartzea eskatzen du ohargileak. Eztabaida sortu da hitz honen adieraz eman behar den azalpena dela eta. Azkenean bi adiera emango dira: 1. Ipar. 'lansaria', *apezen paga.* 2. Heg. 'haurrei ematen zaiena'.

Pagaburu hitza, batzordearen ustez, hurrengorako uzteko modukoa da. Hala ere, eztabaida izan da eta, azkenean, hurrengo bilerarako A. Urrutiak hitz honen ingurukoak aztertuko ditu eta orduan hartuko da behar den erabakia.

Palu hitza sartzea onartu du batzarrak, *Bizk. Lgart.* oharrak alboan dituela.

Pankreas hitza sartzea ere onartu da. Hala ere, X. Kintanari *pankrea* forma hobea iruditzen zaio. Hurrengorako utzi da auzi hau begiratzea.

Panorama eta *pantomima* hitzak sartuko dira. *Pardeleria* hitzari ere leku egingo zaio zerrendan, *fardeleria* hobetsiz, hala ere: pardeleria* e. **fardeleria**.

Hiru ohargileon iruzkinak aztertu ondoren, eztabaidarako utziak ziren hitzak hartu dira eztabaidagai. *Ortuari* eta *ortulau* hitzak direla eta, X. Kintana "Bizk." oharra kentzearen aldeko azaldu da. Nahiago du *ortuari* eta *barazki* maila berekotzat eman. Sarasola jaunak erantzun dio esanaz literatur tradizioa hartu behar dela kontuan literatur hizkuntzak taxutzerakoan. Horren arabera, zerrendan datorren oharra zuzena dela eta gauzak dauden bezala utzi behar direla. Hala onartu da.

Hemen eten da hiztegi batuari dagokion eztabaida eta hurrengo gaiari heldu dio batzarrak.

F. Krutwig euskaltzainaren hutsartea hornitzeko bozketa

M. Azkaratek P. Salabururen ahala ekarri du, J. Haritschleharrek P. Charrittonena eta J. A. Aranak L. Villasanterena.

Hautagai bakarra da Andres Iñigo jauna. Bozketaren emaitzak honako hauek izan dira: Andres Iñigoren aldeko hamazortzi boto izan dira eta zuri, hiru. Beraz, A. Iñigo jaunak behar zituen botoak lortu ditu lehen bozketan eta, horrenbestez, bera da F. Krutwigen ondorengo euskaltzaina.

J. M. Satrustegiren txostena: Pertsona izendegiak egindako bideak

Pertsona izendegien inguruan berrogei urtetan zehar egindako lanaren berri eman du Satrustegi jaunak, izendegi lantze horren historia laburra eskainiz: argitalpen desberdinak, bakoitzaren xehetasunak, etab.

Eskuartekoak

Davanten eskaria

Euskaltzainburuak Davant jaunaren gutuna irakurri du, non proposatzen baitu "Euskaltzaindiak, Kataluniako bere kide guziz ofizialarekin, arazoa Europako erakundeetara eraman dezan, handik Frantziako gobernuaren bultzatzeko, adibidez Eurokartaren laster sintatzera, ahal oroz den bezala". Arazoa maiz aipatu da aurreko batzarretan ere. Zuzendaritzaren proposamena agertu du euskaltzainburuak: batzordeño bat osa dadila honako euskaltzain hauekin, A. Iñigo, H. Knörr, P. Charritton eta A. Urrutiarekin. Batzordeño honek proposatuko dio Euskaltzaindiari hartu behar den bidea.

Urteko Euskal Herritar Unibertsala

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kutxak sortutako *Urteko Euskal Herritar Unibertsala* izeneko sarirako hautagaiak proposatzea eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Berez, epea amaitzear da eta ez du inork izen berezirik proposatu Euskaltzaindiaren izenean aurkezteko.

Euskaltzaindiaren hurrengo kongresua

Euskaltzainburuak azaldu du 2.001. urtean Urkixoren omenez kongresu bat antolatzeaz pentsatu beharko lukeela Euskaltzaindiak. Batzorde bi eratuko lirateke, bata antolaketaz arduratzeko eta bigarrena, batzorde akademikoa. Oraindik urrun da urte hori baina komeni da ideia hori hausnartzen hastea.

Eta horrenbestez, amaitutzat eman da hil honetako batzarra, arratsaldeko ordu batean.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

XI. BARNE JARDUNALDIAK

Baionan, 1999ko otsailaren 26an

Arratsaldeko hiruretan eman zaie hasiera Euskaltzaindiaren XI. Barne Jardunaldiei, Baionan, Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Fakultatean.

Bilduak

J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina eta P. Altuna, M. Azkarate, J. L. Davant, X. Diharce, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi eta A. Urrutia euskaltzainak, Koldo Zuazo euskaltzain urgazlea eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Iker Saileko eta egiturazko batzordeetako kideak izendatzea

Zuzendaritzak aurkeztutako Iker Saileko eta egiturazko batzordeetako kideen proposamena aho batez onartu du Euskaltzaindiak. Ikus eranskina.

Jagon Sailari buruzko txostenak

Eztabaidari leku eman baino lehen, iragarritako txostenak irakurri dira.

J. L. Lizundia jaunak *Jagon Sailaren organigrama Barne Jardunaldietan zehar: 1979-1999* izeneko txostena irakurri du lehenbizi.

Ondoren, J. San Martin jaunak berea irakurri du: *Jagon Sailaren ardurapeko lehen lanari buruz.*

Gero, Koldo Zuazo euskaltzain urgazleak aurkeztu du berea. Ez du testua irakurri. Ahozko laburpen bat egin du. Gaia, *Euskararen osasuna eta euskalkiak.*

Azkenik, Miren Azkarate Jagon sailburuak hartu du hitza. Txostenaren izenburua, honako hau: *Jagon Saila: gaurko egitasmoak.*

Eztabaida

Txostenok irakurri ondoren, euskaltzainei aukera eman zaie eztabaidarako. J. San Martinek garai bateko alfabetatzea ekarri du gogora. Hasieran, duela hogeita hamar urte testu marxistak eta abarrak erabiltzen hasi zen zenbait jende. Hori ez da bidea, haren ustez. Klasikoek esan behar digute nondik jo, eta bide horrek ezagunetik ezezagunera doana behar du izan. Garai hartako dokumentuak miatzea ez legoke gaizki.

Txomin Peillenek gogorarazi du duela aspaldi kongresu batean berak ere ideia hori agertu zuela, euskalkitik abiatu behar zela. Bestalde, Iparraldean hizkuntz politika aholku batzorde bat sortzeko asmoa izan zela. Inork ez daki zertan den asmo hura.

J. Haritschelharrek hartu du ondoren hitza gogorarazteko martxoaren 3an bilduko dela Jagon Saila eta honek zer dioen beharko dela ikusi.

Ibon Sarasolak egoki irizten dio Miren Azkaratek aurkeztutako eskemari. Horretaz jardun beharko lukeela batzarrak. Haren ustez, Jagon sailean bi batzorde behar dira, biak autonomoak: hizkuntzaz beraz arituko dena bata eta hizkuntzaren sustapenaz arituko dena bestea.

Miren Azkarateren ustez, Zuazoren lana abiapuntutzat har lezake dagokion lantaldeak, euskara batuari euskalkiek duten aberastasuna nola eman aztertzeko orduan. Bestalde, Jagon Saila ez da inoiz ahaztu hizkuntzaren estatusaz. Kasu bakoitzean eskatzen zen erantzuna ematen saiatu da. Gaur, ordea, zorionez, Euskaltzaindia eta Jagon Saila ez daude bakarrik, lankideak sortu zaizkio.

X. Kintana jaunak Koldo Zuazoren txostena dela eta, ohar batzuk egin nahi izan ditu. Peru Abarkaren aurrean bageunde bezala ezin da ibili. Analfabetoez arduratzen da Euskaltziandia eta ez txikitandik euskara jakinik euskara hori lantzen saiatzen direnez. Bizkaieraz alfabetatu? Zertarako? —galde egin du Kintanak. —Zer irakurtzeko gero? Zer produkzio dago?

J. L. Lizundiak egoki ikusiko luke estatusaz arduratuko den batzordearen azpian ere lantaldeak egotea, bata eskualdeekiko arazoez eta bestea, legearekikoez arduratuko litzatekeena.

H. Knörr jaunak, estatusaren kontu honetan —hau baita gaurko hizpide nagusia— hiru hanka ikusten ditu: hezkuntza, administrazioa eta komunikabideak.

Miren Azkaratek dio gauzak teorian horrela badira ere, praktikan bestela gertatzen direla maiz. Nafarroan, adibidez, dena doa gaizki.

Estatusaz arduratzeko pertsona jakinak jarri beharko lirateke, Sarasolaren ustez. Esperientzia handia dutenez ari dela pentsatzen, adibidez, J. San Martin, Satrustegi, Charritton, Iñigo, H. Knörr. Organigrama hori izenez janzten hasi beharko luke batzarrak.

Satrustegik lehengo garaietan Euskaltzaindiak nola jokatzen zuen ekarri du gogora: legegizonengana jotzen zutela, behar zenean. Nafarroan, estrategia ez da batzorde bat eratzea, arrabotsa atera behar da.

A. Urrutiak galde egin du ea Jagon Sailak baduen zereginik. Konpetentzia gero eta handiagoa du Euskaltzaindiak, baliabide gehiagorekin jokatzen dutenak ditu inguruan. Eta baliabiderik gabe ezin da. Ezkor agertu da. Dena dela, ofentsiban ere sartu beharko lukeela Euskaltzaindiak, estatusari dagokionez. Euskalkiei buruzkoa eta hizkuntz kalitateari buruzkoa nahiko batera ikusten ditu Urrutiak eta hau dela eta, Mendebaldeko jendeari leku egin behar zaiola uste du delako batzorde edo lantaldean.

Miren Azkaratek erantzun dio esanaz Jagon Sailak beretzat erreklamatu beharko dituela Euskara biziberritzeko plangintzan esaten direnak. Hori bere-berea duela Euskaltzaindiak. Honen inguruan, azkenik, Altuna jaunak galde egin du ea aipatzen den konkurrentzia hori Jaurlaritzarena bakarrik den ala baita beste zenbaitena ere.

Berriro ere aurkeztutako organigrama-proposamenari heldu diote euskaltzainek eta bi ala hiru batzorde izan behar duten ere eztabaidatu ondoren, azkenean, oraingoz behintzat bitan utzi da kontua. Estatusaz arduratzeko, hiru lurralde administratibo desberdinek ordezkatuak egon beharko dute. Bestalde, izenak ere aipatu dira: Charritton, Iñigo, H. Knörr, J. San Martin, A. Urrutia. Batzorde honek berak pentsatu beharko du zer egin. Aurkez dezatela proiektu bat.

A. Urrutiak beste hirugarren talde bat edo nahi du, arazoak eztabaidatzeko, azterketak egiteko, proposamenak lantzeko eta formulatzeko. Talde honetarako izenak ere aipatu dira: Zuazo, Peillen, Davant, Kintana, J. L. Goikoetxea, J. M. Elexpuru, ... A. Urrutiak berak beste pare bat kide ekartzeko eskubidea izan nahi du *(ad cautelam)*. Gero, talde honek gorputz hartzen badu, batzorde gisa eratzeko eskubidea izatea nahi luke.

Hurrengo Jagon Sailaren bileran hausnarketa egingo da eta gaurko bileran mahai gainean utzitako arazoez proposamen zehatzagoei forma ematen saiatuko dira.

Barne erregelak

Azkenik, aspaldixko onartutako erregelen testu moldatua eman zaie euskaltzainei. Bere garaian onartu zen testuari zenbait axaleko zuzenketa egin dizkio idazkariak. Axaleko zuzenketa horiez gainera, Euskaltzaindiaren jabego intelektualaz diharduen atal berri bat ere proposatzen da. Hau erabat berria da eta, horrenbestez, onartzeke dago. Beraz, azken onespena eman aurretik, euskaltzainek badute oharrak egiteko aukera. Hain zuzen, hurrengo batzarrean onartzea proposatzen da eta, egin beharreko oharrak, bestelako gaietan bezala, hilaren 20a baino lehen, idatziz egitea eskatzen da.

Eta horrenbestez, arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitu da batzarra. Hausnarketa, hala ere, ez da amaitu. Izan ere, hurrengo batzarretan joango dira gorputz hartzen gaurkoan mahaigaineratu direnak.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

Bilbon, 1999ko martxoaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
J. M. Satrustegi eta
A. Urrutia
euskaltzainak eta
J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia 1999ko martxoaren 26an. Bilera goizeko hamarrak eta hogeita bostean hasi da. Ezkerreko zutabean ageri dira bildu diren euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute B. Oihartzabalek, F. Ondarrak eta I. Sarasolak.

Euskaltzainburuaren hitzak

Batzar gaietan sartu aurretik, euskaltzainburuak Andres Iñigo euskaltzain berria agurtu du. Lan ona egitea opa dio.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Inoren oharrik gabe onartu dira aurreko hileko bi agiriak.

Hiztegi batua: aurreko zerrendetan zintzilik utzitako hitzak

Aurreko zenbait bileratan erabakitzeko edo osatzeko utzitako zenbait hitz hartu dira lehenbizi eztabaidagai.

Hitz horietako bat ***osoko*** izenlaguna zen. Zenbaiten ustez, osaera badaezpadakoa du hitz honek. Bestalde, berria izanagatik, zail dirudi baztertzea, duen hedadura kontuan harturik. Eztabaida luzearen ondoren, botoetara jo da hitz hori zerrendan ezarri ala ez erabakitzeko. 'Batzarrez edo bilerez ari garela' oharra ezarriko litzaioke. Hala onartu da.

Aspaldi onartu zuen Euskaltzaindiak ***muna*** hitzari sarrera eskaintzea hiztegi batuko zerrendan. Baina zenbait adibidez hornitu beharra ikusi zen. Gaurko bilerara ekarri dira eskatzen ziren adibide horiek. Honako hauek izan dira hautatu direnak: *Ez diezaiozuela inoiz inori hesirik edo munarik ipini; munara igo nahi eta ezin.* Adibide hauez gainera, *Bizk.* dela adieraziko da.

Pagaburu hitza dela eta, lekukotasun bakarra eta behar baino ilunagoa eskaini denez, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Aztertu zen azken zerrendan ere eztabaidarako utzi ziren hitz batzuk. Horietakoak dira **ortuzain** eta **ortulau**. *Ortulau* bigarren itzulirako uztearean alde agertu dira ha-

malau euskaltzain. Beraz, oraingo zerrendatik kanpo geldituko da. *Ortuzain*, berriz, sartzea onartu da. Hemen ere hamalau boto izan dira sartzearen aldeko.

Ostu aditzean *ostuten* ala *osten* behar duen eztabaidatu da ondoren. Bateko eta besteko argudioak entzun ondoren, botoetara jo da: hamaika euskaltzain agertu dira *osten* formaren alde; bi, *ostuten*-en alde. Beraz, *osten* forma jasoko da zerrendan. Aditzoinak ere arazoak ditu: *ostu* ala *os? Ostu* forma emango da aditzoinerako ere.

Otarrainxka hitzaren grafia eztabaidagarri da. X-rekin idaztearen alde agertu dira zazpi euskaltzain; bi kontra. Beraz, forma horretan emango da. Bestalde, *otarraintxo* ez da lehengoaren baliokidetzat emango. Diminutibo soiltzat hartuko da. Beraz, zerrendatik ezabatzea onartu da.

Paisaia/paisaje bikotearen arteko hautua dela eta, adibide guztiak mende honetakoak omen dira. Batasunaren inguruan, *paisaia* forma zabaldu da batez ere. Adibideak, hala ere, aski berdinduak dabiltza testuetan. Zenbait euskaltzainen ustez, hitz horri ez litzaioke lekurik egin behar, ordainak bai baititu (*ikuspegi*, etab.). Azkenean, botoetara jo da: hamabi boto izan dira *paisaia* formaren alde. Kontrakoa bakarra izan da. Hortaz, *paisaia* forma onartu da.

Palota hitza iparraldeko euskaltzainei galdetzeko markatua zegoen zerrendan. *Palota/palote* arteko auzia da, nonbait. Iritziak entzun ondoren, *palote* forma onartu da.

Panpinatu hitzaren adieraz ere galde egiten du batzordeak. Ez da 'apaindu' soila 'panpina bezala apaindu' baizik. Hori adieraziko da sarrera honetan. Bestalde, *da* eta *du* aditza dela esango da.

Pantufla hitza ere iparraldekoei galdetzeko gisa markatua dator. Eztabaida luzea izan da. Oraingoz ez da zerrendan agertuko. Aurrerago sartuko da, *zapatilla* hitza bezala, eta bien (*pantufla* eta *zapatilla*) ordezko egokiagotzat emango da *txapin/xapin/zapin* hitza, hiru formetatik egokiena zein den erabaki ondoren.

Pankreas/pankrea bikotearen aurrean, M. Azkaratek azaldu duenez, *-s*-rik gabe agertzea dagokio, onartutako arauaren arabera. Hala onartu da.

Partidu/partida auzia aztertu da ondoren. *Partida* hitzak 'etsai' adiera ere badu eta hori behar bezala adierazi beharra ikusi da. Beste arazoa da 'joko' adieran zein forma hobetsi. Dirudienez, XX. mendean *partidu* forma nagusitu da Hegoaldean, nahiz eta ordu arte *partida* izan nagusi. Gauzok behar bezala aztertu ondoren, honela joango dira sarrera horiek: **partida-1** 'jokoa'; **partida-2** 'aurkaria' *lana dut partida. Bestalde,* **partidu-1** *Heg.* h. **partida**; **partidu-2** *Heg.* h. **alderdi**.

Hiztegi Batuko ***paso - pikaldi*** *zerrenda onartzea*

Lehenbizi, X. Kintanaren oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak.

Patari hitzean ohargileak dio ez dela 'abere' soila 'basoan bere kasa bizi den animalia' baizik. Ontzat eman da oharra eta 'animalia' kendu eta 'piztia' dela esango da.

Patin hitzaren bigarren adiera *h. irristailu* ematen da. Honen ordez, nahiago du ohargileak *e. irristailu* ezartzea. Ez da onartu. Beraz, dagoen bezala utzi da hitz hori.

Patxaran hitza sartzea onartu da, 'edaria' adiera emanaz.

Pauso-ren sarreran, *pauso bat eman* adibidea ez du egoki ikusten ohargileak. Ez da onartu. Zerrenda dagoen bezala utzi da.

Pazia hitz ezagunegia ez denez, adiera gisa 'pertza' ezartzea onartu da.

Pelegrin hitza Iparraldekoa ez ezik, Nafarroakoa ere ba omen da. Daturik ez dago, ordea, eta gauzak dauden daudenetan uztea erabaki da.

Permititu aditza gaur gutxi erabilia dela dio hitz zerrendak. Ohargileari ez zaio hau zuzen iruditzen. Testuinguru berezietan erabiltzen dela dio. Eztabaida luzea sortu da ondoren. Batzuek ez dute hitza maite, ordainak ere ugari omen dira. Azkenean botoetara jo da hitza kendu ala utzi erabakitzeko. Zazpi euskaltzain agertu dira kentzearen aldeko eta bost, berriz, uztearen alde. Beraz, oraingoz zerrendatik kanpo uztea erabaki da.

Hemen eten egin da hiztegiari buruzko eztabaida eta hurrengo gaiari ekin diote euskaltzainek.

Eskuartekoak

Euskal Irrati Telebistako Administrazio Kontseilurako ordezkari proposamena

Eusko Legebiltzarretik Euskaltzaindiari, beste batzuen artean, izen bat proposatzeko eskatu zaio EITB-ko Administrazio Kontseilurako. Sei erakunde desberdinek dute ordezkaria proposatzeko aukera (Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak, RSBAP-ek, Euskal Herriko Unibertsitateak, sindikatuek eta kontsumitzaileen elkarteek). Sei hauetatik, Legebiltzarrak lau kide hautatuko ditu. Euskaltzainburuak aditzera eman du zuzendaritzak H. Knörr-en izena eman duela.

Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutxaren 99ko saria

Aurreko urteetan bezala aurten ere erakunde horien Giza, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien saria deitu dela adierazi du euskaltzainburuak, Euskaltzaindiak norbait proposatu nahi izanez gero. Nolanahi ere, hautagaiak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaitzen da.

EUDEL-ekiko hitzarmena

Euskaltzaindiak EUDEL-ekin sinatu berri duen hitzarmenaren berri ere eman zaie euskaltzainei. Hitzarmenaren arabera, biztanle-entitateen izendegia bilduko duen datubasea osatuko da.

Lehendakariari egindako bisita

Euskaltzainburuak zuzendaritzak Lehendakariari egindako bisitaren berri eman die euskaltzainei. Bilkura hori martxoaren 18an izan zen, Gasteizen, Lehendakaritzan. Euskaltzaindiak eskuartean dituen lanen berri emateko baliagarri gertatu zen ikustaldia. Batzarrean erabilitako hizkuntza bakarra, gainera, euskara hutsa izan zen.

Nafarroako Euskararen Kontseilurako ordezkari berria

Nafarroako Euskararen Kontseilukide izateko, ordezkari berria izenda dezala eskatu dio Euskaltzaindiari J.J. Marcotegui jaunak.

Eskari hau dela eta, euskaltzainek beren iritziak eman ahal izan dituzte. Gauzak argitu bitartean, eskaria mahai gainean uztea erabaki da.

Azken ordukoak

Charritton jaunak hartu du hitza. Lehenbizi, EITB-ko kontseilurako izena ematea dela eta, komunikabideen garrantziaz pentsatu beharko litzateke. Adibidez, EITB-tik Iparraldeari eskaintzen zaiona ez da euskara batua, beste zerbait baizik.

Haritschelhar jaunak erantzun dio gai honetaz beste batean jardun beharko dela. Gainera, H. Knörren izena proposatu izanak ez du esan nahi Legebiltzarrak hura hautatuko duenik. Hautatua gertatzen bada, orduan emango zaio mezua eta Euskaltzaindiaren iritzia zein den.

Charritton jaunak beste kontu bat ere atera du mahai gainera. Iparraldean ere ba omen da euskararen aholku batzorde bat edo. Honen aurrean bi jarrera omen dira: hori ezer ez baino hobe dela uste dutenena eta horrelakorik ez duela merezi diotenena. Euskaltzaindiaren izenean mintzo dena ere, nolabait, lehenbiziko jarreraren aldeko omen da. Honetaz ere Euskaltzaindiak bere iritzia finkatu beharko lukeela uste du Charrittonek.

Arratsaldeko bilkura hasi baino lehen, Carrittonen azken proposamen honetaz erabakiren bat hartuko dela aurreratu du Haritschelhar jaunak.

Azkenik, X. Kintanak gogora ekarri du F. Krutwigen omenaldiko hitzaldian egindako eskaria: Krutwigi zubi bat eskaintzea Bilbon. Ideia hau bultza dezala eskatzen dio Kintana jaunak Euskaltzaindiari.

Ordu bata eta erdietan eman da amaitutzat goizeko batzarra.

Euskaltzainburuak — Idazkariak
Jean Haritschelhar — Patxi Goenaga

* * *

XI. BARNE JARDUNALDIAK (jarraipena)

Bilbon, 1999ko martxoaren 26an

Arratsaldeko laurak hogei gutxitan eman zaio hasiera bilerari. Helburua, Baionan erabakizun utzitakoak trenkatzea.

Bilduak

Goizeko bilkuran parte hartu duten euskaltzain berak: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina eta P. Altuna, M. Azkarate, J. L. Davant, X. Diharce, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Urrutia euskaltzainak eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea. Ezin etorria adierazi dute Oihartzabal, Ondarra eta Sarasola euskaltzainek.

Iparraldeko euskararen kontseiluaz

Goizean Charritton jaunak aurkeztutako gaiarekin hasi da arratsaldeko bilera.

Haritschelhar jaunak dio bi bilkura ezagutu dituela. Garapen Kontseiluak ezarri omen du behar dela Hizkuntz Kontseilu bat Iparraldean. Baina nork egin behar du? Iparraldean Kontseilu Orokorrak hartu du bere gain eginkizun hau. Eztabaidatu da eta batzuk kontra agertu dira eta beste batzuk alde. Euskal Kultur Erakundeak bere baldintzak ezarri ditu parte hartzeko. Dena dela, Haritschelharren ustez, urrats bat egin behar da. Zerbait sortu behar da eta gero gerokoak.

Charrittonek kontzeptuari berari buruzko zalantzak ditu. Izan ere, burokrazian erortzeko arriskua ikusten du: nahiago luke, adibidez, diru gutxiago baina euskaldunek berek erabakitzea zer behar duen euskarak.

Satrustegiren iritziz, sortzera omen doan haurtxoari ezin zaio gorputz osatua eskatu. Oso pozik ikusiko luke euskarari bide bat irekitzea Iparraldean. Ez bekio oztoporik jar. Baina Euskaltzaindiak, sartzekotan, ez luke inoren peko sartu behar. Euskaltzaindiak Euskaltzaindi gisa sartu beharko du.

Lizundia jaunak hartu du hitza ondoren. Gaur ezin da gaia trenkatu. Bil daitezela Iparraldeko zazpi euskaltzainak eta proposa dezatela egokien deritzatena.

Haristhelharrek dio baldintza ezarri dutela Kontseiluak bere autonomia izatea.

Auzia mahai gainean utzi da. Iparraldeko euskaltzainak datorren hilean bilduko omen dira eta arazo hau aztertuko dute.

Erregelak eta arautegia

a) P. Goenagak erregelen onarpenerako prozedura azaldu du. Batetik, dagoeneko onetsiak diren erregelen testuan badira egin beharreko zuzenketa txiki batzuk, estilo kontuak eta abar. Hauek bideratzeko, Goenaga, Knörr eta Urrutia euskaltzainak bilduko dira —hauek baitira oharrak aurkeztu dituztenak— eta testu bateratu bat eskainiko dute. Testu hau hurrengo bileran aurkeztuko dute. Jabego intelektualaz onartzen den testua ere testu orokorrean behar bezala txertatu beharko da. Hau dena batera aurkeztuko zaie euskaltzainei hurrengo bileran.

b) Ondoren, A. Urrutia jaunak "Euskaltzaindiaren lanen jabegoa eta erabilera" delako atalari buruzko zenbait argitasun eman ditu. Funtsean, dio, batzorde lana talde-lan gisa onartzeak lan horren eskubideak Euskaltzaindiarenak direla esan nahi du. Bozkatu da eta testua aho batez onartu da. Beraz, Erregeletan dagokion tokian txertatuko da atal hau.

c) Azkenik, euskaltzainburuak Arautegiaren bi artikuluren aldaketa proposatzen du. Aldaketa horien nondik norakoaz ere argitasunak eman dira eta datorren bilkuran onartuko da onartu beharrekoa. Oharrak hilaren hamaseirako egitea eskatzen da.

Jagon Sailaren batzorde eta lantaldeak osatzea

Jagon saileko eginkizunak behar bezala betetzeko Baionan proposatu ziren batzordeetarako kideak izendatzeaz hitz egin da ondoren. Zuzendaritzak Sustapen batzorderako (estatusaz arduratuko denerako) honako kide hauek proposatu ditu: Buru, A. Urrutia; kide, lau ordezkariak (Lekuona, Charritton, Iñigo eta Goenaga), J. San Martin eta E. Baxok. Idazkaria, Gotzon Lobera. Dena dela, hau proposamen bat dela esan da. Datorren bilerarako bestelako proposamenak egin daitezke. Nolanahi ere, proposatutako izenak behintzat egon behar luketela uste du zuzendaritzak.

A. Urrutiaren ustez, batzorde honek nolabaiteko doktrina morala edo formulatzen saiatu beharko luke, ez luke mugatu behar erasoei erantzutera. Bestalde, gororarazi du lehengo eskari berak zutik segitzen duela: *ad cautelam* bederen, euskalkien tokiaz eta abarrez arduratuko den zer batendako lekua gordetzea organigrama honetan.

Miren Azkaratek Jagon saileko lantaldeak hornitzeko denbora piska bat eskatzen du, ekaina arte edo.

Charrittonek Iparraldeko EGA azterketetarako laguntza eskatzen du. Horretarako arazorik ez dela erantzun zaio.

Azkenik, Miren Azkarate andreak galde egin du ea organigrama berri honek Erregelen 37. artikuluaren aldaketa ez ote duen eskatzen. Nolanahi ere, aldaketa erraza izango litzateke.

Eta besterik gabe, arratsaldeko seietan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

1999. URTERAKO EUSKALTZANDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Gasteiz, 1998-XII-18

Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea

Barne Erregelen arabera, urte amaierarantz, hurrengo urteko batzar egutegi proposamena Zuzendaritzara aurkeztea dagokit. Ohi bezala, horretarako euskal bibliografiari begirada zabal bat eman ondoren egun aurkezten dut. Ospakizunei dagokienez, heldu den urterako euskaltzain oso izan ziren biren mendeurrenak atzeman ditut: René Lafon eta Aingeru Irigarairenak

Duela denbora bat batzordeburu eta idazkariei idatzi zitzaien eskatuz ea beraietatik jardunaldiren bat egiteko asmoa zuten, horrela izanik ospakizunekin txertatzeko. Erantzuna jasoa da eta Onomastika eta Dialektologia batzordeak daukate heldu den urtean beraien jardunaldiak antolatzeko asmoa. Bestalde, bi urterik behin ohi diren Barne Jardunaldiak egitea tokatzen da, hain zuzen 1979an Foruan hasitakoak. Geroztik 1981ean, Loiolan; 1983an, Angoston; 1985ean, Lekarozen; 1987an, Angelun egin direlarik, Euskal Herri guztiari lehen itzulia eginez. Bigarren itzulia ere burutua da, 1989an, Lazkaon; 1991n, Ziburun; 1993an, Zornotzan; 1995ean, Larrabea-Legutianon eta 1997an, Iraizotz-Ultzaman. 1999an hirugarren itzulia hastea tokatzen da eta baita ere, gai nagusia, ez bakarra, ordea, finkatzea. Azken Barne Jardunaldietan Iker Saila izan zen gai nagusia, agian, orain, orain 20 urte bezala, Jagon Sailak izan beharko luke lekuko. 1979an hasi baitzen Jagon Saila bere zenbait batzorde edo eginkizun uzten, hala nola, Bertsolaritza batzordea, bertsolari txapelketak antolatuz; Oinarrizko Euskara, Irakaslegoa, B eta D titulu ematea eta beste. Une honetan, dirudienez, Jagon Saila kalitateaz gehien bat arduratuko bada ere (ikus Jagon Sailak aurkeztutako proposamena), statusa ere ezin du ahantzi, horretarako ere lan berezitu bat eginez. Aztertu behar da horretarako zenbait txostenez, agian, Jagon Saila bi edo hiru batzordetan banatzeko tenorea, bakoitza bere zeregin propioekin, nahiz eta kidekatuak izan. Dena dela, hori Zuzendaritzak gai nagusitzat proposatuko balu, berehala Jagon sailkideekin harremanetan sartu beharko litzateke.

Esan bezala, ene ustez, René Lafon dugu heldu den urtean mendeurrenik garrantzitsuena. Berau, abuztuaren 4an, Girondako Merinhac-en sortu bazen ere, Euskal Herriari eta euskarari zeharo atxiki eta euskaltzain oso izatera iritsi

baitzen Bordeleko Euskal literaturako katedradun izan zelako, besteak beste (*Euskera*, 1974, 68.orri., Pierre Lafittek eskainitako hilberri txostena eranskin bezala jartzen dut). Horrez gain, une honetan, laster kaleratzeko moduan dauka Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Unibertsitateko hitzarmenari esker, René Lafonen lan hautatuak *Vasconiana:* **Iker** bildumako liburukia, 11. zenbakia eramango duena. Aurkezpen hori data aproposa litzateke mendeurren ospakizunaz bat egiteko.

Aingeru Irigarairena da bigarren mendeurrena. 1899.eko martxoaren 1ean Beran sortua. Ezagutu genuenok badakigu bere euskararekiko eta Euskaltzaindiarekiko atxikimendu eta lan izugarria (ikus *Euskera* 1984ko 420-422.orri., Jose Mari Satrustegik eskainitako hilberri txostena).

Beste mendeurren bat ere badugu datorren urtean, ez euskalari batena, baizik eta Victoriano Huizi, Etxarri-Aranazko apaiz euskaltzaleak, 1899an Nafarroako Diputazioak, berarentzat, eta, Iruñeko Seminarioarentzat, ofizialki argitaratutako *Gramática Bascongada.* Etxarri-Aranazko Udalak eskari bat egin digu, honako hau esanez besteak beste: "Victoriano Huicik egindako gramatikan, batetik, euskararen batasunaren aldeko apostu garbia agertzen da eta horrexegatik egiten du gramatika bateratu bat. Bestetik, oso aipagarria da bere herriko eta inguruko hizkeren garaiko adierazgarri ere badela eta, egun, Sakana-Burundako hizkeren sailkapen dialektologikoa eztabaidagai bizia denez gero, klasiko baten lekukotasuna dela. Esandakoa kontuan harturik, ondorengo proposamen hau luzatu nahi genizueke elkarlanean gara dezagun: Jakin badakigu Euskaltzaindiak bere bilerak Euskal Herriko herrialde guztietan burutzen dituela, eta hau hala izanik, Victoriano Huiciren liburuaren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak Etxarri-Aranatzen ihardunaldi bat antolatzea eskatu nahi genizueke. Ekitaldi honek Etxarriko Udalaren babes osoa dauka eta behar diren bitartekoak bermatuko ditu". Kontuan izanik 1979an, Euskaltzaindia Beran jadanik bildu zela, agian, uztar daitezke, Aingeru Irigarai euskaltzain nafarraren eta *Gramática Bascongadaren* mendeurren biok, bi egunetan, ospatu Sakanako herri horretan, bide batez, Gramatika jardunaldiren bat antolatuz.

Mendeurren xumeago bat Mañarian dugu heldu den urtean. Hain zuzen, 1899.eko irailaren 3an jaio baitzen Rosa Bustintza Otzerin "Mañariko" izen ordeaz ezagutua. Hara hor zer zioen *Escritores euskéricos del Duranguesado* Juan San Martin euskaltzainak "Rosa Bustinza, conocida con el seudónimo «Mañariko» (1899-1953), de Mañaria. Sobrina y discípula de «Kirikiño». Rosa, al igual que su tío, escribió numerosos cuentos, que han visto la luz desperdigadamente en diversas publicaciones, principalmente en «Jesus'en Biotzaren Deya». Ultimamente, con el título de *Euskalerriko ipuinak*, se vienen publicando en «Anaitasuna» de Vizcaya a cargo del elorriano Jaime Kerexeta. Rosa también escribió algunas poesías y cantares. Toda su obra bien merece ser fundida en un hermoso libro". Ildo beretik Nikolas Altzola Gerediaga "Anai Berriotxoak" beste hau zioen bere *Cien Autores Vascos* liburuan: "Mañariko habrá sido, seguramente, la pluma de más rica fantasía escribiendo narraciones

y cuentos vascos de sabor legendario", escribí en un artículo que apareció en el semanario irunés "El Bidasoa" en enero de 1955 en homenaje a Emeterio de Arrese y de Mañariko. Para mí, *Mañariko* es lo mejor que tenemos como cuentista en la Literatura Vasca, me dijo Carrasquedo Olarra". Hileroko batzarrik programatzen ez bada ere, Literatura batzordearen bilkuraren bat antola daiteke.

Aramaioko alkateak, Iñaki Nafarrate jaunak, gutun bat zuzendu digu orain-tsu (ikus eranskina). Ene ustez, arretaz hartzeko eskaria da, komeni baitzaigu Araban Abbadiren alargunak babesturiko Euskal Jai bakarrak, Aramaion izan zirelako, datorren irailean duela ehun urte. Parada interesgarria izango litzateke zerbait antolatzeko, ene iduriko, ez Ibarran bertan hiru aldiz bildu baikara haraneko herri nagusian, baizik eta Oletako elizatean. Jardunaldiren bat, horrekin batera antolatzekoan, Jagon Sailaren Jardunaldiak orainarte Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan txandatu direnak lirateke aproposenak.

Onomastika batzordeak, bere aldetik, proposatu zuen bere VI. Onomastika Jardunaldiak egitea, Errioxan, hain zuzen, herrialde horren izena, euskal jato-rrizkoa, seguru asko, historian dokumentatua agertzen den 900. urteurrena be-tetzen baita. Bide batez, Juan Bautista Merino Urrutia euskaltzain ohorezko, errioxar ikerleari omenaldia, Ojacastron, beraren jaioterrian egitea aipatu zen batzordean, uztailaren erdi aldera, agian. Dena dela, EUDELekin batera, Bil-bon, beraien egoitzan, edo gurean, Administrazioetako euskara teknikarientzat Onomastika, eta bereziki seinalizazio alorretarako mintegi batzuk antolatzea hitz egin dugu.

Euskaltzainburuak 1989 geroztik emandako ildoari jarraituz, alegia, 4, 4, 3 delakoa, 1999rako batzar egutegi hau aurkezten dut gaurko Zuzendaritza bi-lera honetara, beronek bere iradokizun eta oharrak egin ondoren, abenduko osoko bilkuran aurkezteko moduan.

Urtarrilaren 29an, azken ostiralean, hileroko osoko bilkura, egoitzan, Bilbon.

Otsailaren 26 eta 27an, azken ostiral-larunbatean, René Lafonen men-deurrenkari, bere omenezko liburua aurkeztuz, XI. Barne Jardunaldiak eta hi-leroko arrunta, Lapurdin.

Martxoaren 26an, azken ostiralean, hileroko osoko bilkura eta Ordez-karitza berriztatuaren inaugurapena, Donostian.

Apirilaren 23an, azken aurreko ostiralean, hileroko osoko bilkura, egoi-tzan, Bilbon, eta, arratsaldean eta biharamunean goizean EUDELekin Ono-mastika Mintegia.

Maiatzaren 28an, azken ostiralean, hileroko osoko bilkura, Donostiako ordezkaritzan.

Ekainaren 24 eta 25ean, azken ostegun-ostiralean, Aingeru Irigarai euskaltzainaren mendeurrena eta *Gramática Bascongadaren* 100. urteurrena, VI. Gramatika Jardunaldiak eta hileroko osoko bilkura, Etxarri-Aranatzen.

Uztailaren 30ean, azken ostiralean, hileroko osoko bilkura, Donostiako ordezkaritzan.

Irailaren 24 eta 25ean, azken ostiral-larunbatean, Aramaioko Euskal Jaien mendeurrena, IV. Jagon Jardunaldiak eta hileroko osoko bilkura, Oleta--Aramaion.

Urriaren 29an, azken ostiralean, hileroko osoko bilkura, egoitzan, Bilbon.

Azaroaren 26an, azken ostiralean, hileroko osoko bilkura, Donostiako ordezkaritzan.

Abenduaren 17an, ostiralez, hileroko osoko bilkura, egoitzan, Bilbon.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/ UPV-R.A.L.V. / EUSKALTZAINDIA

1998.eko Hitzarmena

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/UPV
R.A.L.V./EUSKALTZAINDIA

1998.eko Hitzarmena

Euskal Herriko Unibertsitateko errrektorea den Pello Salaburu Etxeberria jaunak eta Euskaltzaindiko burua den Jean Haritschelhar jaunak, Bilbon bildurik, 1998ko abenduaren 11an, honako hau erabakitzen dute:

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Euskaltzaindiak lankidetza *hitzarmena* sinatua dute elkarlana sustatzeko eta bi erakundeetako kideentzat interesgarri izan daitezkeen lanen argitalpenak bultzatzeko. Lan horietarako 7.729.495 ptako diru kopurua jarriko du EHUk eta Euskaltzaindiak jartzen dituen baliabideak beste horrenbestean baloratzen dira. Hala egitea erabaki zuen erakunde bien Jarraipen batzordeak bere azkeneko bilkuran, 1998ko uztailaren 22an.

Honako hauek dira diru honekin bideratzen diren lanak:

1.	*Toponimia Medieval del País Vasco* - III (H-O)	2.595.840
2.	*Toponimia Medieval del País Vasco* - IV (P-Z)	2.595.840
3.	*Morfología del verbo auxiliar bajonavarro occidental*	2.537.815
		7.729.495 pta.

Bestalde, EHUko euskal ikasle eta irakasleen prestakuntzari eta gaurkotzeari begira, eta araugintza berria zabaltzeko Euskaltzaindiak duen egitasmoari begira, guztiz interesgarria ikusten da ondoko lanaren argitalpena bultzatzea: EHUko Euskara Institutuak prestatu duen *Euskaltzaindiaren Araugintza Berria. Hobekuntza Ikastaroa* (1998) liburua.

Dokumentu hau sinatzen denean ordainduko dio EHUk Euskaltzaindiari 7.729.495 pezetako kopuru hori, aldi bakarrean.

Eta hau sinatzen da Leioan eta Bilbon, 1998ko abenduaren 11an.

Pello Salaburu Etxeberria jauna,
Euskal Herriko Unibertsitateko
errektorea

Jean Haritschelhar jauna,
euskaltzainburua

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA (EUDEL) ETA EUSKALTZAINDIA/R.A.L.V./A.L.B.

Convenio / Hitzarmena

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA (EUDEL) ETA EUSKALTZAINDIA/R.A.L.V./A.L.B.

HITZARMENA

José María González Zorrilla jauna,
EUDELko elkarteburua

CONVENIO ENTRE EUDEL Y EUSKALTZAINDIA PARA LA NORMALIZACION DE LAS DENOMINACIONES DE ENTIDADES LOCALES, BARRIOS Y CALLES DE LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA

Salón de Actos de EUDEL

Bilbao, 15 de marzo 1999

Egun on guztioi:

Dakizuenez, gaur bildu gaituen *Hitzarmena* Euskadiko Udalen Elkarteak eta Euskalkaindiak elkarrekin hartutako iniziatiba baten emaitza da. *Hitzarmen* honek Euskal Autonomia Erkidegoko herri, auzo eta kaleen izenen normalizazioa izango du helburu nagusi.

* * *

Como sabéis, hoy la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL, y la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, van a proceder a la firma de un *Convenio de colaboración* entre ambas instituciones. El objeto del mismo es la creación de una base de datos que permita regularizar y normalizar los nombres de todos nuestros Municipios, barrios y calles, atendiendo a la historia y tradición que dieron lugar a sus respectivas denominaciones.

Esta iniciativa se viene a sumar a anteriores acciones en el mismo sentido, llevadas a cabo en 1986 y 1994 por la Secretaría General de Política Lingüística del Gobierno Vasco, y pretende actualizar y completar ese trabajo.

Desde la perspectiva de EUDEL, el *Convenio* que hoy firmamos, la labor de investigación subsiguiente, y la configuración de una base de datos de estas características supone un servicio más a nuestros municipios.

El proceso de normalización de una lengua, como el que el euskera está experimentando, mantiene múltiples vertientes de trabajo. Y una de las más importantes es la que hoy emprendemos.

La discriminación legal y social de una lengua, que hasta la llegada de la democracia no contaba con el reconocimiento de los poderes públicos, representó durante largo tiempo una oportunidad para el olvido, y facilitó que se difuminara, también desde el punto de vista toponímico, esa valiosa herencia cultural.

Desde el punto de vista de EUDEL, es ésta una oportunidad para la recuperación de ese legado y para su actualización dentro de una sociedad moderna donde al fin la lengua vasca ve reconocido el lugar que se merece en el seno de su propia tierra.

Para llevar adelante ese objetivo, EUDEL aporta una importante dotación económica, y Euskaltzaindia, por su parte, una contrastada competencia científica, asentada en muchas décadas de trabajo e investigación. Este esfuerzo conjunto permitirá proporcionar a nuestros ayuntamientos un instrumento para la fijación definitiva de las denominaciones de sus municipios, de sus barrios y de sus calles más tradicionales. La nueva base de datos se encontrará en todo momento a disposición de las entidades locales.

Quisiera resaltar incluso el valor de trabajos como el que vamos a emprender desde una perspectiva más personal. En zonas como aquella de la que procedo, la Margen Izquierda de Bizkaia, el euskera dejó una difusa memoria toponímica que queremos y debemos recuperar. Hacerlo así supone reconstituir también una parte irrenunciable de nuestra propia historia local, lo cual constituye un referente imprescindible en la definición de nuestra identidad colectiva.

Se trata, sin duda, de una deuda que tenemos con nuestro propio pasado, con la memoria, íntima y entrañable, de nuestros pueblos y ciudades, pero también, y quizás sobre todo, una obligación moral de cara al futuro: la necesidad de entregar a las futuras generaciones el referente claro de su historia y de sus más antiguas tradiciones.

Eskerrik asko.

EUDEL-EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *HITZARMENA* SINATZEA

Bilbon, 1999-III-15

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

José Maria Gonzalez Zorrilla, EUDEL-eko presidente jauna,
Josune Ariztondo, Hizkuntza Politikarako sailburuorde anderea,
kazetari jaun- andereak. Agur.

Eskerrak bihurtu nahi dizkizut EUDEL-eko zuzendari jauna, orain bertan eskaini dizkiguzun hitz goxo eta harrera onarengatik. Ez ditut ahantziko, Josune Ariztondo anderea, Euskaltzaindiari opa dizkiozun laudorioak. Erran duzun bezala, Euskaltzaindia lanean ari da, politikaren eta ideologien gainetik hizkuntzaren alde, hizkuntzaren normatibizazioaren esparruan. Herriaren zerbitzuan ari da, eta legeak aitortzen dizkion alor eta esparruetan aholkuak ematen dizkie Herri Aginteei hala eskatzen dutenean. Hizkuntzaren batasunari dagokionez, Akademiaren erabakiak Euskal Herri osoarentzat dira, nahiz Administrazio ezberdinetan antolatua izan: Euskal Autonomia Erkideagoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparraldea.

Euskaltzaindiko batzordeetan garrantzitsuenetakoa dugu Onomastika. Denbora luzez ari da toponomia aztertzen, bai bertakoa eta baita Euskal Herritik kanpokoa ere (munduko estatu-izenak, ibaiak, etab.). Hemen zaudete komunikabideetakoak: sarritan erabili behar dituzue euskaraz herri-izenak, kanpoko hirien izenak, auzo-izenak, eta norbaitek esan behar du nola diren horien izenak euskaraz. Lan hori Euskaltzaindiak egiten du. Aurrean ditut Henrike Knörr, Onomastika batzordeburua, Mikel Gorrotxategi, batzorde-idazkaria eta José Luis Lizundia, batzordekidea, eta horien ia eguneroko jardunean dago Onomastikari buruz lan egin beharra: ikerketak egitea, halako edo bestelako herri-aginteek eskatutako irizpena prestatzea, hiritarren kontsultak erantzutea, etab.

Gaur EUDEL-ek eta Euskaltzaindiak sinatu dugun *hitzarmena*, elkarrekin lanean arituko garen denbora luze eta emankor baten hasiera besterik ez izatea nahi nuke. Euskaltzaindiak, jarri zaizkion baliabideekin, herri-izenak, kale-ize-

nak, auzo-izenak ikertuko ditu, eta ahal den neurrian horien guztientzako irizpide bateratuak jarriko ditu, horrela lan hori udal guztientzat baliagarria izan dadin, eta egingo lanaren emaitza EUDEL-i ere emanen dio.

Amaitzeko, berriz ere mila esker EUDEL-eko presidente jaunari, *Hitzarmen* honen bidez Euskaltzaindiaren esku jartzen dituen baliabideengatik.

1999ko *HITZARMENA*, EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN (EUDEL) ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI, AUZO ETA KALEEN IZENEN NORMALIZAZIORAKO

BILDURIK

Batetik,

JOSE MARIA GONZALEZ ZORRILLA jauna, EUDELeko Elkarteburua

Bestetik,

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jaun txit argia, euskaltzainburua

Alderdi biek aitortzen diote elkarri agiri hau sinatzeko ahalmena, hori dela eta, honako hau

ADERAZI DUTE:

a) 1986an Euskaltzaindiak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien izenen zerrenda egin zuen *(Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Herrien Izenak)*. Lan hori Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratu zuen eta, guztira, 1.225 biztanle-entitateren izenak zeuden bertan bilduta.

b) 1994an Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak (HPS) Euskaltzaindiaren zerrenda oinarritzat hartuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen laguntzaz beste zerrenda bat prestatu zuen, osatua eta udalen borondatea jasotzen zuena. Trebiñoko izenak gehitu ondoren, 1.368 izenez osatutako zerrenda burutu zen.

c) 12 urte baino gehiago pasatu dira Euskaltzaindiak prestatutako zerrenda hura argitaratu zenetik eta, hori dela eta, zerrenda hori berriro aztertu, zuzendu eta eguneratzeari egoki deritzogu.

d) Euskaltzaindiak eta Herri Aginteek 1999rako sinatu duten Protokolo erantsian honako hau adierazi dute gai honi buruz: "Bestalde, onomastika alorrean, Euskaltzaindiak eta EUDELek lankidetza hitzarmena sinatu ahal izango dute, baldintza hauek bete beharko dituztelarik:

1. Hitzarmena sinatu eta jarraipen batzorde bat izendatuko da.

2. Batzordea erakunde hauetako bina kidez osatua izango da: Euskaltzaindia, EUDEL eta HPS.

3. Batzorde horren eginkizuna Euskaltzaindiak aurkeztutako lanari eta diru-kontuei buruzko txostenak jasotzea eta aztertzea izango da.

4. Herri Aginteek lankidetza-hitzarmenaren berri izango dute eta burutzen ari diren lanei buruzko informazioa jasoko dute.

5. Euskaltzaindiak hitzarmenean jasotako lan-programen emaitzak HPSk duen datutegian bilduko ditu.

6. Dirulaguntzari dagokionez, Herri Aginteek onomastika alorreko lanak burutzeko jarritako bost miloiko diru-kopuruaz gain, EUDELek beste bost miloiko diru-ekarpena egingo du 1999. urtean.

7. Horretaz gain, Euskaltzaindiak hitzarmenak egin ahal izango ditu, onomastika alorrean, udalekin bertako lan zehatzak burutzeko. Horrelakoetan, hemengo metodologia bera jarraituko da eta emaitzak HPSren datutegian jasoko dira.

8. Euskaltzaindiak berehala ekin beharko lioke bere lantaldea finkatzeari".

Esandako guztia kontuan hartuta, alderdi biok hitzarmen honetarako baldintza hauek ezartzea erabaki dugu:

BALDINTZAK

1. **Helburua**

Hitzarmen honen helburu nagusia datu-basea egitea da, eta datu-base hori Hizkuntza Politikarako Sailordetzak EAEko toponimia normalizatzeko jadanik garaturik duen datu-basean txertatuko da. Horretarako honakoak egingo dira:

a) Euskaltzaindiak toponimiari buruz gaurdaino egin dituen lanen inbentarioa egin.

b) *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateen Izendegia* argitalpena aztertu, zuzendu, bateratu eta eguneratu.

c) Kale-izendegietan agertzen diren arazo nagusiak identifikatu, aztertu eta irtenbideak eskaini.

d) HPSk duen toponimia datutegian toponimoen normalizaziorako proposamena egiteko erabili diren hizkuntza irizpideak aztertzen hasi.

2. Baliabideak

Lan hori egiteko Euskaltzaindiak bere baliabideak erabiliko ditu, bai materialak bai giza baliabideak, eta gaur egun HPSn dagoen datu-basea ere erabiliko du.

3. Epea

Hitzarmen hau urtebete egongo da indarrean, 1999ko urtarrilaren batean hasi eta abenduaren hogeita hamaikara arte. Hurrengo ekitaldietarako hitzarmenaren epea luzatu edo edukiak zabaltzeko beharrezkoa izango da bi alderdiok berariazko onespena ematea.

4. Finantziazioa

a) EUDELek lan horretarako gehienez eta guztira BOST MILIOI PEZETAKO (5.000.000 PTA) dirulaguntza emateko konpromisua hartzen du.

b) EUDELek lau zatitan emango du dirulaguntza hori, bakoitzean MILIOI BAT BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA PEZETA (1.250.000 PTA). Lehenengo zatia 1999ko martxoaren 31n emango du, bigarrena 1999ko ekainaren 30ean, hirugarrena irailaren 30ean eta laugarrena 1999ko abenduaren 31n.

c) Dirulaguntza horiek eskuratu ahal izateko Euskaltzaindiak lanaren egoerari buruzko errendapen-txostena aurkeztuko dio EUDELi hiruhilero.

5. Jarraipen batzordea

a) Bi alderdiek Jarraipen batzordea eratzea erabaki dute. Batzordeak sei kide izango ditu eta horien zeregina hitzarmen honetan zehaztutako jarduera-plana gainbegiratzea, kontrolatzea, zuzentzea eta horri buruzko akordioak hartzea izango da.

b) Horretarako Euskaltzaindiak, EUDELek eta HPSk bina kide izendatuko dituzte.

6. Zabalkundea

a) Euskaltzaindiak datu-basearen ale bat EUDELi emango dio.

b) EUDELek hitzarmen hau bere elkartekideen artean zabaltzeko konpromisua hartzen du.

c) Datu-basea erabiltzaile estrategikoen esku jarriko da. Hitzarmena sinatu duten alderdiek jabetza-eskubide berak izango dituzte.

Edozelan ere, Jarraipen batzordeak datu-base honen erabilgarritasunari buruzko proposamena egin dezake, datu-basea behin betiko bukatuta egon baino lehen.

7. **Arazoak**

Jarraipen batzordearen zeregina izango da bi alderdien artean sortutako edozein arazo aztertzea eta konpontzea.

Bi alderdiak ados daude adierazitako guztiarekin, eta agiri hau izenpetu dute.

Bilbon 1999ko martxoaren 15ean.

JOSE MARIA GONZALEZ ZORRILLA,
EUDELeko ELKARTEBURUA

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE,
EUSKALTZAINBURUA

JASOTAKO TXOSTENAK

HIZTEGIGINTZA

COMMENTAIRE CRITIQUE SUR LES "MATERIALES PARA UN DICCIONARIO ETIMOLOGICO VASCO", *ASJU* XXVIII, 1994-2, pp. 631-682

16-XI-1998

Michel Morvan

P. 631

Lertzun[1] L 'grulla', *lertxoin* AN, BN, *lersoin* G, *lertxun* AN, L 'id.'. Bouda *Hom. Urq.* 3, 226, *BKE* 26 y *EJ* 3, 326 une las variantes *lertsun, lerstun, letson, letxun, letsun* y compara avar *latchen (lačen)*, lak y darg. *latchin (lačin)* circ. *letchi (leči)* 'alcón'. J. Braun Iker 1 215 y 218 compara v. georg. *qanča* (< *qanca*) 'garza'. *EWBS* junta las diversas variantes de *lertzun* y les atribuye origen románico. De una forma fundamental **gartzun*, esp. *garza*, cat. *garsa* (?).

La comparaison établie par les uns et les autres, que ce soit J. Braun avec *qanča* ou *EWBS* avec sa reconstruction totalement gratuite **gartzun* ne me paraît pas du tout convaincante. Il faut être honnête et avouer que pour le moment le basque *lertzun* garde son mystère. Donc étymologie obscure!

P. 632

Letorkekik. Según indica Tovar *Lex. Ibér.* 312. Bähr 413 compara este término vasco ('te vendría') con ibér. *legusegik* (?).

Cette forme conjuguée est totalement inutile dans un dictionnaire étymologique et bien trop aléatoire de toute facon quant à la comparaison avec le segment ibère. Restons-en à *etorri*!

Letoi S, *letoin* AN, L, BN *letu* 'laton'. Sin duda del románico en relación con fr. *laiton* (ant. fr. *leiton*), esp. *(a)laton*, etc.

La forme *letu* est empruntée au gascon *letoû*.

P. 633

Leza, leze vid. *leuso*[1].

Le renvoi à *leuso* est quelque peu choquant, puisqu'à l'entrée *leuso* on nous renvoie à *leze*! De plus le terme *leze* "gouffre" est entièrement autonome

et mérite bien sûr une véritable entrée avec des comparaisons très importantes à travers la toponymie française comme par exemple avec le nom du département de la Lozère qui est un ancien *Lesura* dérivé de **lese* selon toute vraisemblance ainsi que les nombreux *Lez*, rivières des départements de l'Ariège, de la Drôme, du Vaucluse ou de la Haute-Garonne qui dérivent d'une base pré-indoeuropéenne **lese, *lesa-* "escarpement rocheux". Il faut y ajouter certaines rivières de Savoie comme la *Leysse* (*flumen Lesie* en 1044) ainsi que les toponymes catalans *Lés* (Val d'Aran), *Lles* (Cerdagne) cités par J. Corominas *VII Congr. Ling. Roman.* 2, 411.

P. 634

Libru (R), liburu. V, G, AN, L, BN 'libro'.

On ne comprend absolument pas pour quelle raison c'est la forme dialectale roncalaise qui est mise en entrée. C'est absurde. Peu importe qu'elle soit plus proche de l'étymon latin *librum*, ce qui compte c'est la forme basque actuelle *liburu*, qui couvre l'ensemble du domaine basque, bien évidemment.

P. 635

Liki V 'cierta planta endeble', G 'pegajoso', *likin* V 'cubierto de sudor, pegajoso', 'viscosidad'. Pertenecen al mismo grupo *likinkeri* V 'lascivia', *likhiskeri, likiski* 'suciedad', *likistu*, y otras formas. Todas derivadas de *liga*[2], *lekeda* (qu). CGuis. 244 apunta al lat. *ligare*. Iribarren registra *liquia* en Corella y Cintruénigo 'liga para cazar pájaros'. Estos distintos derivados tienen relación con *likits* V, G, AN, *likhits* L, BN, S 'puerco, sucio, inmundo', *likitx* G, AN 'zorra' (mujer de mala vida).

Il convient de mentionner absolument la forme *ligi* (cf. le toponyme basque *Liginaga* > *Laguingue*) et la variante *zikin* "sale". Enfin une comparaison avec le finnois *lika, likainen* "sale" serait la bienvenue.

P. 637

Linja S 'ropa blanca interior' (*EWBS* menciona las variantes *linje, lini*). Del fr. *linge* según Ducéré *RLPhC* 13, 222 (en última instancia, del lat. *lineum*).

La forme souletine n'est certainement pas un emprunt au français, mais plutôt un emprunt au béarnais *linja.*

P. 642

Lodoe V 'añublo, enfermedad del trigo', *ludoe* V 'id.', *lodón* 'id.' ('tizón del trigo o del maíz'; según Baraibar *RIEV* 1, 360, de *loitu* 'ciscar, manchar'). Bouda *BAP* 11, 200 dice que la raíz **lod* puede compararse con georg. *od-i*,

si se admite una *l-* protética. Comparación con avar *L'a'u*, Uslar *L'a(w)u*, 'herrumbre', dialec. también 'niebla', *añublo*. Pero se puede analizar vasco *lud-* y recurrir al oblicuo avar *L'a'uda-*. Se debe tomar un compuesto para explicar *doe; ludoe* de **lu-loe* disimilado; diferenciar el hipotético *-loe* con vasco *loi* 'sucio'. El mismo autor *Hom. Urq.* 3, 210 insiste en el cauc. oriental. Cree plausible la comparación con el georgiano.

Si le *l-* est véritablement une prothèse, alors la comparaison avec le géorgien *od-i* est effectivement possible, mais aussi avec le basque *odoi, odei* "nuage" très proche aussi bien morphologiquement que sémantiquement de *lodoe* car le lien entre "nuée, nuage" et "nielle des blés" apparaît clairement dans l'espagnol *añublo*.

P. 642

Logi AN 'sucio' AN, salac. 'barro', *logidoi* salac. *lodazal*. Mich. *BAP* 6, 455 da además *lohi* 'barro', *loi* V, G, AN 'id.', 'sucio'. CGuis. 31 y 217 compara esp. *lodo* (de lat. *lutum*). Mich. *BAP* 11, 566 (en reseña a Hubschmid *Pyrenaenw.*) dice no saber si con prov. *louino* 'terreno húmedo, pantanoso' no se podría comparar vasco *lo(h)i, logi* 'sucio, lodo, pantano' con algún derivado en este último sentido, como ya hizo Bähr *Bul* 26 refiriéndose a *Lougeon hélos* (ilirico) (de i.-e. **leug-* Mich. 1.c. cree que la mecánica del método comparativo exige la admisión de dos fonemas distintos, representados por *g* y *h* intervocálicas para el vasco común. Bähr 1.c. menciona divinidades hispánicas *Lougones Uxamae, Lougiae* y otras formas, por ej. el nombre del pueblo de los *Lugii* en Bohemia (los registra Tovar *Estudios* 78, que recoge a Bouda *EJ* 2, 5 refiriendo la palabra al caucásico). Goutman *RLPhC* 44, 73 y *RIEV* 7, 572 compara eston. *loga* 'fango, suciedad'. *EWBS* lo considera de origen céltico; forma presunta *loti*, ant. irl. *loth* (i.-e. **leu-* 'suciedad'), lat. *lutum*, esp. *lodo*.

Giacomino *Relazioni*[3] y Gabelentz 208 compara copto *loihe* 'charco'. Sch. *RIEV* 7, 303 cita bereb. *aφu*, tuar. *iluk*, copto el *loihe* mencionado. Formas que cita Tromb. *Orig.* 135, además de otras ya mencionadas. Mich. *Pirineos* 10, 436 ve *alo(h)i, logi* como idéntica en la forma a la primera parte del aquit. *Lohixsus, Lohitton*, Gorostiaga *FLV* 39, 113 deriva *loi* del ant. fr. *boe*; cf. igualmente Pokorny *ZCPh* 21, 138...

A la même page 642 on trouve l'entrée *loi* avec un renvoi à l'entrée *logi*. Il n'y a pas d'entrée pour *lohi*, or c'est pourtant cette forme qui devrait tenir lieu d'entrée, et non pas *loi*. Quant à *logi*, il s'agit probablement d'une variante secondaire de *lohi* attestée seulement en haut-navarrais. La forme *lohi* est en fait la seule qui vaille une véritable entrée, d'autant plus qu'elle est très certainement connue dès l'aquitain comme le montrent les formes citées du type *Lohixsus, Lohitton*.

P. 644

Loti 'somnoliento'. Para Tromb. *Orig.* 135 corresponde al bantu *loti* 'sueño', bedja *du-ti* 'id.'.

Que voilà une comparaison navrante! Il est évident que *loti* est un adjectif en *-ti* (*gezur-ti* "menteur", etc.) dérivé de *lo* "dormir". C'est aussi simple que cela.

P. 645

Lotzolo L, BN, S 'regordete'. Bouda *EJ* 3, 117 lo relaciona con *zokolo* R 'gordo', 'achaparrado, rechoncho'.

Avant de comparer ce terme à *zokolo*, assez proche en effet, il faut d'abord citer sa parenté plus qu'étroite avec la forme *potzolo* dont le sens est le même.

P. 645

Lualdi 'terraplenamiento'. Indica Holmer *BAP* 12, 391: de *lur*, y la final *-r* es un afijo. Desde el punto de vista de la semántica comparativa nada impide la combinación del tema vasco *lu-* con el homófono en sumerio *lu* (acad. *amêlu*) 'hombre' (?).

Cette explication est bien hasardeuse. Rien ne prouve que *lur* "terre" soit un composé *lu-r* avec affixe ou suffixe *-r*. Quant à la comparaison avec le sumérien *lu* "homme", Bible ou pas, homme tiré de la terre ou pas, elle est peut-être ingénieuse, mais demeure totalement en l'air en l'état actuel des connaissances.

P. 647

Lumare 'ballena'. De *leo maris*, dice con interrogante CGuis. 272.

Le terme *lumare* a fort peu de chances d'être *leo maris*! On ne saurait le séparer du terme *lumera* G, AN 'grasa o aceite de peces', AN 'ballena' pourtant étudié à la même page avec une tout autre explication!

P. 648

Lur, lür S 'tierra'. Se han señalado conexiones célticas por varios autores, Tovar, *BAP* 1, 37 y *Estudios* 73 relaciona con irl. *lar* 'tierra, suelo', galés *llawr*, ant. corn. *lor*, bret. *leur*. Según este autor es i.-e. (ingl. *floor*, al. *Flur*). Remite a lat. *planus, palam* (W.P.). Según Pokorny *BAP* 3, 113 (en contestación a Tovar) no cree probable que tenga que ver con el celta primitivo *laro-*. Charencey *RIEV* 2, 664 anota cómo el P. Fita lo había aproximado al celta (cf. irl. *lar* 'umbral, suelo'). Este mismo autor *RLPhC* 24, 153 compara el ya citado irl. *lar, laer*, corn. *ler*, galés *llaur*, bret. *leur*: < *plaros* (*planus* en lat.). Aunque

la aproximación al irl. parece prometedora (*VGKS* 1, 40), su solidez se desvanece. Acaso cabría comparar *Itur-* (en *CIL* 23 (cf. Mich. *TAV* 15). Comparaciones similares presenta Mich. *Pas. Leng.* 136 y Campión *EE* 41, 162. Rohlfs *Gascon*$_2$ 52 compara vasco *lerra* 'resbalar, resbaladero' con gasc. *eslerra, eslerro* 'resbaladero' para los troncos cortados. (Esto mismo en Corominas *Top. Hesp.* 2, 111). *FEW* 5, 471 s.u. *lurr-* (vasco ant.) 'tierra' (con art. *lurra*). El vasco *lur* acaso esté influido por *elur* 'nieve'. Derivado sería *lurte* BN. De éste el arag. *lurte* 'avalancha'. La forma vasca más frequente *lurta* (y *lita* R) significa 'corrimiento de tierras, avalancha'. Se halla también *elurte* 'gran cantidad de nieve'. En BN *luta* y *lita* (Duv.) 'corrimiento de tierras'. Del arag. *alud* 'avalancha', el esp. de la misma forma. Hubschmid *ELH* 1, 53 repite gran parte de estas formas de Aragón conectadas con las vascas, que son, sin duda, el origen de aquéllas. Este mismo autor *Thes. Praerom.* 2, 24 vuelve sobre lo ya expuesto y menciona Lescun *lür* 'avalancha' bearn. *eslurra* 'deslizarse', *eslur* 'id.'. En la critica a Schmoll *IF*, 71 en la o.c. insiste en estas comparaciones. El mismo Hubschmid *Med. Substr.* 40 sugiere una aproximación al bereb. *tamurt, netmurt* con la significación de 'terrestre', es decir, la de vasco *lurtar.*

Es interesante X. Ravier *ZRPh* 100 (1984), 604 en su estudio *Le thème* 'lur' *dans le lexique gascon*, en *Festschr. J. Hubschmid* 937ss. Examina vasco *lur* 'tierra, campo' y una serie de derivados en gascón. (Vid. *lurta* y variantes). Bouda *BKE* 90 se opone a la etimología chukche propuesta por Uhl. *Affin.* 9, y en *Hom. Urq.* 3, 211 s. compara avar *-L'* 'debajo' (en *r-aL'* 'tierra'). Para el sentido, cf. circ. *tch'ə'tierra', tch'e* 'debajo'. La raíz vasca es **l.* Los compuestos con *lu-* inicial resultan de *lur-*, p. ej. *luikara, lur(r)ikhara* 'temblor de tierra' (!). Vasco *lur* lo relaciona con ilirio **i-llur* Oštir *Symbolae Rozwalouski* 1, 309 (!). Gabelentz 89 y 108s. con cab. *alud* 'barro'. Garrido *EE* 54, 183 con jap. *kuga* (!). Mukarovsky *GLECS* 10, 182 y 11, 87 con somali *duul* 'tierra' y en *Mitteil.* 2, 143. Braun *Iker* 1, 218 acude al v. geor. *noqa* (< **na-qwa*) 'tierra'.

Avant toute chose, il fallait signaler le parallélisme plus que troublant, en basque même, des doublons *lur/elur* et *zur/ezur*, respectivement "terre/neige" et "os/bois"qui dénotent une couche substratique préhistorique évidente remontant au moins au néolithique et peut-être au-delà, au paléolithique supérieur. C'est beaucoup plus important que les vagues comparaisons avec le celtique par exemple qui ne convaincront pas grand monde parmi les bascologues sérieux, surtout lorsqu'on en arrive à une équivalence entre le basque *lur* et l'anglais *floor*!! En revanche les comparaisons avec le gascon sont nettement plus pertinentes. Quant à celles de J. Braun avec le caucasien *no-qa* < **na-qwa* "terre", il vaut mieux ne pas faire de commentaire! Je me suis déjà exprimé là-dessus dans mon ouvrage sur les origines du basque (Morvan, Bordeaux, 1996). Avec un peu d'ingéniosité, on peut inventer toutes les corres-

pondances phonétiques que l'on veut. Ramener la racine du mot basque à **l* est également complètement déraisonnable.

P. 650

Llerko (R) 'pino pequeño'. Según GDiego *Dial.* 207, de lat. *larice.*

Cette comparaison n'a aucune valeur. Le latin *larix* "pin, mélèze" n'a que faire ici. Le terme basque est un simple composé de *ler* "pin" suivi du diminutif *-ko*! Certains chercheurs sont vraiment dans la lune.

P. 651

Ma-altza G 'guapero, peral silvestre'. De *altz* 'aliso'; cf. Bouda *Et.* n.º 82 y *EJ* 3, 133.

On ne voit vraiment pas le rapport entre le poirier sauvage et l'aulne!! Il s'agit en réalité d'un dérivé de *madari* "poire" avec un suffixe *-tz* typique des noms de végétaux. Il faut donc partir de **madal-tz* (cp. *hari-tz, ame-tz,* etc.). L'évolution phonétique est *madaltz* > *maaltz* avec chute du *d-* intervocalique.

P. 651

Maasti V, AN, *mahasti* L, BN 'vina', *maats* v, *mahats* L, BN, S 'uva'. Mich. *BAP* 6, 452 toma la última aplicación de la teoría del desdoblamiento de vocal *ma(h)ats.*

C'est *mahats* et non pas *maasti* ou *mahasti* (dérivé en *-ti/-di* "lieu") que l'on doit mettre en entrée!

P. 654

Maidam 'persona poco estimable'. Según Larrasquet 176, préstamo del bearn. *mairam* 'ganado', 'gente despreciable'.

Cette entrée est à supprimer purement et simplement, car aucun terme basque ne finit par *-m*!!

P. 656

Maiorana V 'mejorana' (Bot.). Según CGuis. 285 del prov. *mayorana.* Cf. port. *maiorana,* esp. *mayorana* y *mejorana,* fr. *marjolaine,* etc., del lat. *amaracus,* que dio en b. lat. *majoraca.*

Encore le provençal! Il suffit de dire "emprunt à l'espagnol".

P. 656

Maira G, AN, L, BN, *maire* AN 'artesa'. De *mai* 'mesa'...

Cette étymologie est en contradiction avec celle qui est donnée à la page 654 pour la variante *maida*, qui viendrait du latin *magida* "pétrin".

P. 658

Maizango AN, L, BN, *maizanko* R. De *mai* y del esp. *zanco*, de *zanka*, y éste del al. *Schenkel.*

Cette étymologie est fantaisiste. Il s'agit simplement d'un composé basque *mai-zango*. Il n'est pas nécessaire de citer l'origine de *zango* dans le cas présent, et encore moins l'allemand *Schenkel*!!

P. 659

Makal V, G, AN 'débil', 'enfermo', 'debilitarse, acobardarse'.

Il faut citer également la forme *magalo* BN "débile".

P. 663

Malur salac., *lamur* (probable metátesis), *malura* 'lástima', 'desgraciado' (Sch. *BuR* 36). Azkue lo deriva del fr. *malheur* 'desgracia'. Larrasquet 176 del bearn. *malúr*. En Lh. *malura* L, BN, *malura* S también del bearn. *malur*. C.Guis. 258 anota la forma *malhurus* junto a *malur*, del fr. *malheureux, malheur* 'mala hora, desdicha'.

C'est bien un emprunt au gascon/béarnais et non pas au français. Par conséquent le dérivé *malhurus* est également emprunté au gascon/béarnais *malurus* et non au français *malheureux.*

P. 665

Man V 'potestad, autorización, facultad', 'consentimiento', L 'proclama de matrimonio'. Según Uhl. *Bask. Stud.* (1811), 8-2, 204 y *RIEV* 4, 74, del fr. *ban*. En esp. e ital. *bando*; b. lat. *bannum*, y éste del germ. *bandv* ('pregonar, condenar'). Algo similar en *EWBS* (del i.-e. **bha-* 'decir') (?). En la acepción de 'calma' lo da CGuis. 221, del lat. *mansus* (?).

Les points d'interrogation sont les bienvenus. Il est fort peu probable que l'on ait affaire ici à un emprunt au français *ban*. Pour le premier sens en tout cas, il convient de se reporter à *mana* "pouvoir, autorité". Le terme français pourrait à la rigueur s'appliquer à la forme labourdine qui a le sens de "publication de mariage".

P. 667

Manent S 'sumiso, obediente'. Lh. compara lat. *manentem*. Le sigue *EWBS*. Es de observar que el prov. *manent* significa 'rico'. La voz debió de ser tomada cuando según el derecho feudal el fr. *manant* significaba 'sometido a la potestad judicial feudal'.

La première chose à faire dans le cas présent consiste à vérifier d'abord si ce n'est pas un emprunt au béarnais (et non au provençal!) étant donné la localisation souletine du terme étudié.

P. 676

Marro AN, L, BN 'morueco, carnero no castrado'. Luchaire *Origines* 46 aproxima al land. *marri*, arm. *marrou, marrot, marret*, y acude al lat. *mas, -aris* 'macho', cat. *marra*. Iribarren 324 registra *marro* en Baztan, Erro y otros lugares. Lh. compara igualmente bearn. *marrou* (al que sigue *EWBS*), y lo mismo hace Charencey *Rev. Museon* 4 (cita de Unamuno *ZRPh* 17, 143). Rohlfs *Gascon*$_2$ 49 agrupa las siguientes formas: gasc. *mar, màrrou, marc, marrà, marrét, mardà, mardang*, ant. gasc. *marron*, cat. *marrè, mardà*, arag. *mardano*, esp. *mardal* (Alava), astur. *marón*, vasc. *marro*. Compara éste 'mugido', *marraka* 'balido'. Dice que es imposible de identificar el término que tratamos con el lat. *mas* 'macho'. Añade que es probable que S. Isid. haya latinizado la palabra ibérica indígena, aproximándola a *marem* (Henschel 24) . En la misma línea Bouda *EJ* 3, 127, que menciona el *REW* 5374. Hubschmid *ELH* 1, 52 atribuye a la misma el esp. *morueco*, esp. ant. *marueco*, port. *marroco* 'carnero'...

Il faut souligner ici le caractère pré-roman, peut-être ibérique ou aquitain en effet de la base **marr-*, mais aussi rappeler que d'autres termes du même type sont présents en espagnol comme par exemple *perro* "chien", forme non latine en opposition ou concurrence avec *can* du latin *canis* "id.". La morphologie étant la même, on a bien affaire à une série de termes pré-romans ou pré-celtiques.

P. 679

Matalezur AN 'hueso maxilar'. De *matale* (V. Eys) y el vasco *zur* 'hueso'.

Non, ce n'est pas le basque *zur*, qui signifie "bois", mais *ezur* "os".

P. 681

Mats V, G, AN, salac., R 'uva'; var. *maats* V, *mahats*.

C'est la forme *mahats* qui doit être mise en entrée et non *mats*.

GORPUTZA, OSASUNA ETA GAIXOA AZKUERENGAN (I): GORPUTZ ATALEN IZENDAPENA

1999-01-27

Jon Jatsu Azkue Barrenetxea,
Angel Bidaurrazaga van Dierdonck,
Jon Patrick,
Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Fakultatea,
(8) Entre esta obra y *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac* del mismo autor media una notable diferencia dialectal. Il existe entre ce livre et *l'Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac,* du même auteur, une remarquable différence dialectale.

Dechep. (9)	Dechepare
deriv.	derivativo, *dérivatif*
Deut.	Deuteronomio, *Deutéronome.* (Bibl.)
Diál. Bas.	*Dialogues basques.* - Londres, 1857.
Dic. de Plant.	*Diccionario de los nombres euskaros de Las Plantas.* J. M. DE LACOIZQUETA.-Pamplona, 1888.
Dic.	*Dictionnaire Basque-Français.* J. VAN EYS. - Paris, 1873.
Dicc.	*Diccionario basco-español.* J. F. DE AIZKIBEL. - Tolosa, 1885.
Dimin.	diminutivo, *diminutif*
Discurs.	*Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva.* P. P. DE ASTARLOA. - Bilbao, 1883.
Doctr.	*Exposición breue de la Doctrina christiana.* CAPANAGA. - Vizeu, 1893.
Doktr. (S)	*Doktrina kristia.* (Souletin.) 1869.
Duh.	Duhalde
d'Urt.	d'Urte
Duv. *ms.*	Diccionario manuscrito de Duvoisin, *Dictionnaire manuscrit de Duvoisin.*
Duv.	Duvoisin
Duv.	*Ebanjelio saindua eskuaraz.* DUVOISIN. - Pau, 1898.
Eccl.	Eclesiastés, *Ecclésiaste.* (Bibl.)
Eccli.	Eclesiástico, *Ecclésiastique.* (Bibl.)
Eph.	Epístola á los Efesios, *Epître aux Ephésiens.* (Bibl.)
Eracus.	*Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldiac.* J. B. AGUIRRE. - Tolosa, 1900.
Esdr.	Esdras. (Bibl.)
Eskaraz, Euskeraz	*Eskaraz eguia.* HIRIBARREN. - Bayonne, 1858.
Eskuald., Eskuald. on.	*Eskualduna, Eskualdun ona. Journal basque-français hebdomadaire.* - Bayonne, 1887 ss., 1904 ss.
Esku-lib.	*Esculiburua eta berean eguneango cristiñau-cereguiñac.* P. A. AÑIBARRO . - Tolosa, 1827.
Est.	Ester, *Esther.* (Bibl.)
Etchen.	Etchenique
Etchev.	Etcheverri
Euskal.	*Euskal-erria.* - San Sebastián, 1870-1890
Euskalz.	*Euskalzale.* - Bilbao, 1897-1899.

(9) Se ha empleado como llamada a su *Linguae Vasconum Primitiae.* Ce nom d'auteur renvoie à son ouvrage *Linguae Vasconum Primitiae.*

Eusker., Eusquerar.	*Eusqueraren berri onac eta undo escribitceco, ondo iracurtceco, ta ondo itzeguiteco Erreglac.* A. CARDABERAZ. - Pamplona, 1761.
Ex.	Exodo, *Exode.* (Bibl.)
Ez.	Ezequiel, *Ezéchiel.* (Bibl.)
F. Seg.	F. Segura
fig.	figuradamente, *au figuré*
Gal.	Epístola a los Gálatas, *Epître aux Galates.* (Bibl.)
Galbar.	*Jesu Christo gure jaunaren Galbarioko bidea.* F. L. JAUREGUI. - San Sebastián, 1844.
Gen.	Génesis, *Genèse.* (Bibl.)
Gèze	Geze
Goy.	Goyhetche
Gram.	*Grammaire cantabrique - basque.* PIERRE D'URTE. Bagnères-de-Bigorre, 1900.
Guer.	Guerrico
Guero. (2a)	*Gueroco guero edo gueroco luçamendutan ibiltceac.* AXULAR. - Bordeaux, s. d.
Guero. (3a)	*Gueroco guero edo arimaren eguitecoen gueroco utzteac cenbat calte eta çorigaitz dakharquen.* AXULAR. -Bayonne, 1864.
Guero. (la)	*Guero bi partetan partitua eta berecia.* AXULAR. Bordeaux, 1643.
Hab.	Habacuc. (Bibl.)
Har.	Haraneder
Harizm.	Harizmendi
Harr.	Harriet
Hebr.	Epístola a los Hebreos, *Epître aux Hébreux.* (Bibl.)
Herv.	Hervás Panduro
Hirib.	Hiribarren
Hist. de Vizc	*Historia general de Vizcaya.* J. R. ITURRIZA. - Barcelona, 1884.
Humb.	Humboldt
Ibaiz.	*Ibaizabal, Bizkaitarrez eta Gipuzkoarrez egiña.* - Bilbao, 1902-1903.
Ikas.	*Jaungoicuaren amar aguindubeetaco azqueneco bostsen icasiquizunac.* BARTOLOME. - Pamplona; 1817.
Imit. (S)	*Jesu-Kristen imitacionia.* MAISTER. - Pau, 1757.
Imit.	*Jesu-Christoren imitacionea.* CHOURIO. - Bayonne, 1825.
Imit.	*Jesu-Kristen imitacionia.* INCHAUSPE. - Bayonne, 1883.
Imit.	*Jesu-Kristoren imitazionea.* DUVOISIN. - Pau, 1896.

Inch.	Inchauspe
indet.	indeterminado, *indéterminé*
interj., interjec.	interjección, *interjection*
Ipar.	Iparraguirre
Ipui.	*Ipuiac eta baste moldaera batzuec.* ITURRIAGA. - Tolosa, 1884.
Ipuiñ.	*Ipuiñak.* ms. de la Bibl. Nat. de Paris. ZABALA.
Irib.	Iribarne
iron.	irónicamente, *ironiquement*
Is.	Isaías, *Isaïe.* (Bibl.)
Itucr.	Iturriaga
Itur.	Iturriza
Izt. (10)	Iztueta
J. Etcheb.	J. Etcheberry
Jac.	Epístola de Santiago, *Epître de Saint Jacques.* (Bibl.)
Jaur.	Jauregui
Jer.	Jeremías, *Jérémie.* (Bibl.)
Jes. Biotz.	*Jesusen compañiaco* A. SEBASTIAN MENDIBURUC *euscaraz eracusten duen Jesusen Bihotzaren devocioa.* San Sebastián, 1900.
Jesus.	(V. *Coplac.*)
Joan. Ep.	Epístola de S. Juan, *Épître de S. Jean.* (Bibl.)
Joan.	Evangelio de S. Juan, *Evangile de S. Jean.* (Bibl.)
Joan.	Joannateguy
Job.	Job. (Bibl.)
Joel.	Joel. (Bibl.)
Jon.	Jonás. (Bibl.)
Jos.	Josué. (Bibl.)
Jud.	Judith. (Bibl.)
Jud. ep.	Epístola de S. Judas, *Épître de S. Jude.* (Bibl.)
Judic.	Libro de los Jueces, *Livre des Juges.* (Bibl.)
Kant.	FELIPE ARRESE TA BEITIAK *egiñiko ama euskeriaren liburu kantaria.* - Bilbao, 1900.
Konf.	*Konfesiño ona.* MOGUEL. - Bilbao, 1898.
Kur. Kurutx.	*Kurutchiaren bidiaren debozionia.* - Bayonne, 1862.
L. de Isas.	Lope de Isasti
Lab.	*Escualdun laborarien adiskidea.* ETCHEBERRY. - Bayonne, 1848.
Labor.	*Laborantzako liburua.* DUVOISIN. - Bayonne, 1892.
Lacoiz. (11)	Lacoizqueta
Lam. Kant.	*Lamiaren Kantua.*

(10) Se ha empleado como llamada a su libro *Cond.* Ce nom renvoie à son livre *Cond.*

(11) Se ha empleado como llamada a la obra *Dic. de Plant.* Ce nom renvoie au *Dic. de Plant.*

Lar. (12)	Larramendi
Lard.	Lardizabal
Larreg.	Larreguy
Lécl.	Lécluse
Leiz.	Leizarraga
Lev.	Levitico, *Lévitique.* (Bibl.)
Lig.	*Andre dena Mariaren Botherea, edo Salve Regina, san Alfonso Ligorioc hedatuki chehatua.* - Bayonne, 1854. (??)
Ling.	*Linguae Vasconum primitiae.* DECHEPARE. - Bordeaux, 1893.
lit.	literalmente, *littéralement.*
Liz. (13)	Lizarraga
L'Offlce.	*L'Office de la Vierge Marie.* C. HARIZMENDI - Chalon-sur-Saône, 1901.
Lor.	*Lora Sorta espirituala.* P. A. AÑIBARRO. Tolosa, 1803.
Luc.	Evangelio de S. Lucas, *Evangile de S. Luc.* (Bibl.)
Luis. biz.	*Justuen Ispillu arguia Santuen Erretrato bicia: Santucho qazte biren: S. Luis, ta S. Estanislaoren miragarrizco bicitzaren Berrion Laburrac.* A. A. CARDABERAZ. - Pamplona, 1764.
M. Magd.	*Maria Magdelaren cantica.*
Mach.	Macabeos, *Machabées.* (Bibl.)
Mai., Maiatz., Marijar.	*Marijaren illa, edo Maijatzeco illa.* J. A. DE URIARTE. - Bilbao, 1885.
Mal.	Malaquías, *Malachie.* (Bibl.)
Manuel	*Guidaria edo escu liburua frantsesez eta escuaraz.* DARTHAYET. - Bayonne, 1861
Marc.	Evangelio de S. Marcos, *Évangile de S. Marc.* (Bibl.)
Matth.	Evangelio de S. Mateo, *Évangile de S. Matthieu.* (Bibl.)
Mend. (14)	Mendiburu
Mich.	Miqueas, *Michée.* (Bibl.)
Micol.	Micoleta
Mog.	Moguel
ms-Bibl. Nat.	manuscrito de la Biblioteca Nacional de Paris, *manuscrit de la Bibliothéque Nationale de Paris. (V. ms* Zab.*)*
ms-Haz	manuscrito de Hazparren, *manuscrit de Hazparren.*

(12) Se ha empleado como llamada a su Diccionario. *Ce nom renvoie au Dictionnaire.*

(13) Se ha empleado como llamada a su obra *Urteco.* Ce nom renvoie à son ouvrage *Urteco.*

(14) Se ha empleado como llamada a los tres tomos de *Otoitz.* Ce nom renvoie aux trois tomes de *Otoitz.*

ms-Lond	manuscritos de Londres, *manuscrits de Londres.*
ms-Ots	manuscrito de Otxandiano, *manuscrit de Otxandiano.*
ms-Zab	manuscrito de Zabala, *manuscrit de Zabala.* (V. *ms*-Bibl.)
ms-Zar	manuscrito de Zarauz, *manuscrit de Zarauz.*
Nah.	Nahum. (Bibl.)
Neh.	Nehemías, *Néhémie.* (Bibl.)
Noel	*Noela eta berce canta spiritual berriac Jesus Christoren misterio principalen gañean eta sainduen ohoretan besta baruetacotz.* J. ETCHEBERRI. - Bayonne, 1700? 1736 ?.
Num	Números, *Nombres.* (Bibl.)
Oih. (15)	Oihenart
Oih. *ms.*	manuscrito de Oihenart, *manuscrit de Oihenart.*
Ol.	Olaechea
Olg. (16)	*Olgeta*
Olg., Olget.	*Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizcogatz-ozpinduba.* BARTOLOME. - Pamplona, 1816.
onomat., onomatop.	onomatopeya, *onomatopée*
Oroim.	*Oroimengarria uri onteko bilguma bereziaren erabakiz argihratua.*- San Sebastián, 1894.
Os.	Oseas, *Osée.* (Bibl.)
Othoitz.	*Othoitze eta cantica espiritualac.* Tolosa, 1823.
Otoitz.	*Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai.* MENDIBURU. - Pamplona, 1760.
p. ej., por ej.; p. *ex.*, par	*ex.* por ejemplo, *par example*
Pach., Patx.	*Pachico cherren.* APAOLAZA. - Vergara, 1890.
Paral.	Paralipómenos, *Paralipamènes.* (Bibl.)
Parn.	*Parnasoraho bidea.* E.-M. DE AZKUE - Bilbao, 1896.
Pas. Sant.	*Pasiño Santua.* - Bilbao, 1865.
Per. Ab.	*El doctor Peru Abarca.* MOGUEL. Durango, 1881.
Petr.	Epístola de S. Pedro, *Épître de S. Pierre.* (Bibl.)
Phil.	*Philotea edo debocioneraco bide eracuszaillea.* J. DE HARANEDER. - Bayonne, 1853.
Philem.	Epístola a Filemón, *Epître é Philémon.* (Bibl.)
Philip.	Epístola a los Filipenses, *Épître aux Philippiens.* (Bibl.)

(15) Esto, cuando no le sigue la abreviatura *Prov.*, sirve de llamada a las páginas de sus Poesías. Ce nom, lorsqu'il n'est pas accompagné de l'abréviation *Prov.*, renvoie aux pages de ses Poésies.

(16) Esta citación debiera siempre haberse hecho así: *Olg.*, indicando que es una obra y no nombre de autor. Cette citation devrait toujours s'écrire ainssi: *Olg.*, indiquant par là que c'est un ouvrage et non un auteur.

Platic.	*Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan zazpi sacramentuen gañean eracusaldiac.* J.-B. AGUIRRE. Tolosa, 1850.
pop.	popular, *populaire*
Prar.	Proverbios, *Proverbes.* (Bibl.)
Preg.	*Pregariac Bayonaco diocezacotz.* J. D'OLCE. Bordeaux, 1651.
Prop.	*Fedearen propagacionea.* - 1877 ss.
Prov.	*Proverbes basques suivis de poésies basques.* A. OIHENART. - Paris, 1847.
Prov.	Proverbios, *proverbes.* (Bibl.)
Ps.	Libro de los Salmos, *Livre des Psaumes.* (Bibl.)
Refranes.	*Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance.* - Genève et Bâle, 1896.
Reg.	Reyes, *Rois.* (Bibl.)
Rev. Eusk.	Revista Euskara. - Pamplona, 1877-1883
Rom.	Epístola a los Romanos, *Épître aux Romains.* (Bibl.)
Ruth.	Ruth. (Bibl.)
S. P. (17)	Silvain Pouvreau
Saind.	*Sainduen bizitzca.* B. JOANNATEGUY. -Bayonne, 1890.
Sakram.	*Sacramentu Saintiaren aurhidegouaco maniac eta chediac.* - Pan, 1758
Sal.	Salaberry
Sap.	Sabiduria, *Sagesse.* (Bibl.)
Sin.	sinónimo, *synonyme*
S-*ms*	manuscrito suletino, *manuscrit souletin.*
Soph.	Sofonías, *Sophonie.* (Bibl.)
Supl. D. T.	*Suplemento al Diccionario trilingüe.* LARRAMENDI. San Sebastián, 1853.
Test.	*Testamentu zarreco eta berrico condaira.* F. I. DE LARDIZABAL. - Tolosa, 1887.
Thess.	Epístola a los Tesalonicenses, *Epître aux Thessaloniciens.* (Bibl.)
Tim.	Epístola a Timoteo, *Épître à Timothée.* (Bibl.)
Tit.	Epístola a Tito, *Épître a Tite.* (Bibl.)
Tob.	Tobías, *Tobie.* (Bibl.)
Ur.	Uriarte
Urt.	*Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac.* J. LIZARRAGA. San Sebastian, 1846.
V.	véase, *voir*

(17) Se ha empleado como llamada a su Diccionario manuscrito. Ce nom renvoie à son Dictionnaire manuscrit.

Van Eys (18)	Van Eys
Var.	variante, *variante*
Visit.	(V. *Bisit.*)
Voc. puer.	vocabulario pueril, *vocabulaire puéril*
Voc.	*Vocabulaire des mots basques basnavarrais traduits en langue française.* SALLABERRY. - Bayonne, 1857.
vulg.	vulgarmente, *vulgairement*
Zach.	Zacarias, *Zacharie.* (Bibl.)
Ziber. Bot.	*Ciberouko botanika edo lantharen Jakitatia.* ALTHABE. - Bayonne, 1900

5. EUSKALKIEN ARABERAKO LABURTZAPENAK

AN

Alto Nabarro, *Haut-Navarrais*

als	Alsasua
arak	Arakil
arez	Arezo
arib	Aribe
ariz	Arizkun
b	Baztan
bas	Basaburua
ber	Berrueta
bera	Bera (Vera)
bet	Betelu
bizkar	Bizkarret
elk	Elkano
eras	Eraso
est	Esteribar
etxa	Etšalar
g	Goñi
goiz	Goizueta
iris	Irisarri
irun	Irun
iruz, irurz	Irurzun
lak	Lakuntze
lar	Larraun
lat	Latasa
leiz	Leiza
lek	Lekunberri

(18) Se ha empleado como llamada al Diccionario. *Ce nom renvoie au Dictionnaire.*

lez	Lezaka
lezo	Lezo
narb	Narbarte
ol	Olague
olz	Olza
ond	Ondarrabia (Fuenterrabia, *Fontarabie)*
or	Oriz
os	Osakar
osi	Osinaga
oy	Oyarzun
ulz	Ulzama
zu	Zuhaire

B

Bizkaino, *Biscayen*

a	Arratia
ab	Abando
abad	Abadino
agiñ	Agiñaga
ai	Aiangiz
alb	Albia
amor	Amoroto
an, ang	Angiozar
ar	Araba
aram	Aramayona
arb	Arbazegi (Munitibar)
aretx	Aretšabaleta
arr	Arrankudiaga
art	Arteaga
b	Bermeo
bak	Bakio
bal	Balzola
bar	Barinaga
baran	Baranbio
bas	Basauri
bed	Bedia
bedar	Bedarona
beg	Begoña
ber	Berango
berg	Bergara
berr	Berriz
bil	(Areatza) Bilaro (Villaro)
bol	Bolibar
d	Durango

deust	Deusto
di	Dima
ea	Ea
eib	Eibar
el, elor	Elorrio
elan	Elantšobe
elg	Elgeta
er	Errigoitia (Rigoitia)
erand	Erandio
ere	Ereiño
erm	Ermua
esk	Eskoriatza
etx	Etšebarri
frun	Fruniz
g	Gernika
gal	Galdakano
gat	Gatika
gatz	Gatzaga (Salinas)
gaut	Gautegiz
get	Getšo
gor	Gorliz
i	Izpaster
l	Lekeitio
laud	Laudio (Llodio)
lauk	Laukiniz
le, lein	Leintza (Leniz)
lej	Lejona
lem	Lemona
lez	Lezama
m	Markina
mal	Maĺabia
mañ	Mañaria
mend	Mendeja
mo, mond	(Arrasate) Mondragon
morg	Morga
mu	Mundaka
mun	Munitibar (Arbazegi)
mung	Mungia
mur	Murelaga
nab	Nabarniz
o	Orozko
oñ	Oñate
ond	Ondarroa
ots	Otšandiano

pl	Plenzia
plaz	Plazenzia
tx	Tsorierri
ub	Ubidea
urd	Urduliz
urr	Urrejola
yu, yur	Yurre
zald	Zaldua
zam	Zamudio
zean	Zeanuri
zear	Zearrotza (Cenarruza)
zeb	Zeberio
zig	Zigoitia
zor	Zornoza

BN

Bajo Navarro, *Bas-Navarrais*

aezk	Aezkoa
aih	Aiherre
ald	(Zamukain) Aldude (Las Aldudes, *les Aldudes)*
am	Amikuse *(Mixe)*
arb	Arberatze (*Arberats*)
arm	Armendaritze
aur	Auritze (Burguete)
baig	Baigorri
bes	Beskoitze (*Briscous*)
bid	Bidarrai *(Bidarray)*
don	Donestehiri *(Saint-Esteben)*
donaz	Donazaharre *(Saint-Jean-le- Vieux)*
ezp	Ezpeleta *(Ezpelette)*
gab	Gabadi *(Gabat)*
gar	Donibane-Garazi (*Saint-Jean Pied-de-Port)*
ger	Gerezieta *(Greciette)*
haz	Hazparne *(Hazparren)*
hel	Heleta *(Hélette)*
irul	Irulegi
ist	Isturitze
itz	Itzaltzu
ka	Kanbo
larr	Larrazabale *(Larceveau)*
larres	Larresoro (*Larressore*)
lek	Lekuine *(Bonloc)*
luz	Luzaire *(Valcarlos)*
mug	Mugerre

or	Oronz
orab	Orabarre *(Orègue)*
orre	Orreaga (Roncesvalles, *Roncevaux)*
orz	Orzaize *(Ossés)*
osti, ozt	Ostibarre Oztabarre
otxa	Otŝagabia
s	(Saraitzu) Salazar
s: eaur	Eaurta (Jaurrieta)
ur, urk	Urketa *(Urcuit)*
ust	Ustaritze

G

Guipuzkoano, *Guipuscoan*

aiz	Aizarnazabal
al	Alegi (Alegria)
alzo	Alzo
alzol	Alzola
am	Amezketa
and	Andoain
ano	Anoeta
anz	Anzuola
ast, azt	Asteazu
ata	Ataun
aya	Aya
azk	Azkoitia
azp	Azpeitia
beas	Beasain
bed	Bedayo
ber	Berastegi
berr	Berrobi
bet	Beterri
bid	Bidania
bur	Burunda
deb	Deba
don	Donostia (San Sebastián, *Saint-Sébastien)*
elg	Elgoibar
ern	Ernani
erni	Ernialde
err, rent	Errenteria (Rentería)
erre	Errezil (Regil)
etx	Etŝarri-Aranaz
ez	Ezkioga
gab	Gabiria
gai	Gaintza

goi	Goierri
ik, ikas	Ikastegieta
irur	Irura
iz	Iziar
l	Legazpia
leg	Legorreta
matx	Matšinbenta
mend	Mendaro
mot	Motriko
ord	Ordizia *(Villafranca)*
orend	Orendain
ori	Orio
orm	Ormaiztegi
pas	Pasai *(Pasages)*
s	Segura
t	Tolosa
ur, urn	Urnieta
us	Usurbil
zal	Zaldibia
zar	Zarauz
zeg	Zegama
ziz	Zizurkil
zumar	Zumarraga
zumay	Zumaya

L

Labortano, *Labourdin*

ahetz	Ahetze
ain	Ainhoa
azk	Azkain *(Ascain)*
bard	Bardos
bid	Bidarte
bir	Biriatu
côte	costa, *côte*
donib	Donibane *(S.-Jean-de-Luz)*
end	Endaya *(Hendaye)*
get	Gethari
s	Senpere *(Saint-Pée)*
sar	Sara *(Sare)*
urd	Urdazuri *(Urdax)*
urru	Urruña *(Urrugne)*
zib	Ziburu *(Ciboure)*
zug	Zugarramurdi

R

Roncalés, *Roncalais*

bid	Bidankoze *(Vidangoz)*
gard	Garde
is	Isaba
uzt	Uztarroz

S

Suletino, *Souletin*

at, tard	Atharratze (*Tardets*)
bark	Barkõse *(Barkus)*
bas	Basaburua
esk	Eskiula *(Esquioule)*
gar	Santa Grazia, Garazi *(Sainte-Engrâce)*
kam	Kamu
l, lar	Larraun, Larraiñe *(Larrau)*
li	Ligi *(Licq)*
maul	Maule *(Mauléon)*
ordiña	Ordiñarbe *(Ordiarp)*
s (V.gar)	Santa Grazia *(Sante-Engrâce)*

Divers.

bilb	Bilbao
burg	Burgos
santu	Santurce
git	gitano, *bohémien.*

BIBLIOGRAFIA

1. Bizkaiko Sendalari "Euskera Taldea". *Euskerazko Senda-Jakindi Izen-Saila (Azterbidez Saiaketa).* Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1982

2. Carlos Goena. *Giza-Bizia.* C.A.P., Donostia, 1973

3. *Medikuntza/1. Liseriketa Hiztegia.* UZEI. UZEI-Elkar, Lizarra, 1986

4. Xabier Kintana, *Altea, ikusteko Hiztegiak. Giza Gorputza.* Altea, Madril, 1992

5. *Anatomiako Hiztegia.* OEE-Erein, Donostia, 1995

6. *Ihardunaldi Medikoetako Hiztegia.* OEE, Zarautz, 1994

7. Txomin Peillen. "Herri Sendakuntza eta Sendagingoa Zuberoan". *Anuario de Eusko Folklore* (1994-1995), 1998

8. Txomin Peillen. *Conception du Monde et Culture Basque.* L'Harmattan, Paris, 1998

9. Mina eta Neurozientzietako Mintegiak. UEU, Bilbo, 1998

10. Resurrección Mª de Azkue. *Diccionario Vasco-Español-Francés.* Euskaltzaindia. Bilbo, 1984

1. Irudia. Andreas Vesal (1514-1564), egungo Anatomiaren aitzindari nagusia.



2. Irudia. *Giza-gorputzaren egiturari buruz,* Andreas Vesalen irudia (1543).



3. Irudia. Garuna eta zentzumenak, Andrea Vesalen (1514-1564) irudia.



4. Irudia. Erraiak, Andreas Vesalen (1514-1564) irudia.

ONOMASTIKA

Bilbo, 1998ko azaroaren 6an

Debabarrena Mankomunitateko lehendakaria,
Luis Alberto Aranberri jauna
Egigurentarren, 2, behea
20600 EIBAR

Jaun agurgarria:

Onomastika batzordeak Iruñean izandako azken bilkuran, beste gai batzuen artean, zure eskaera aztertu zuen honako hau erabakiz:

"1.2.3. Luis Alberto Aranberri jaunak *Mancomunidad Comarcal de Debabarrena* izena euskaraz emateko irizpen galdera aztertzen da. Lehengo eta behin batzordeak mankomunitate buruari, L.A. Aranberri jaunari, bere poza adieraztea erabakitzen du hain erabaki egokia hartzeagatik. Izenari dagokionez **Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea** litzateke egokiena batzordekideen ustez. Deklinabideaz, ordea, egokiago ikusten da bertako joerari so eginez: *Barreneko, Barrenean, Barrenetik,* e.a. erabili, nahiz eta *Barrengo* ere zuzena izan".

Besterik ez, agurtzen zaitu.

Mikel Gorrotxategi Nieto,
Onomastika batzorde-idazkaria

HIRI-IZENDEGIA: IRIZPIDEAK ETA ERABILTZEKO ARAUAK: (I)
DONOSTIA/SAN SEBASTIAN

Bilbo, 1998-XII-12

Mikel Gorrotxategi Nieto,
Onomastika batzorde-idazkaria,

Patxi Salaberri Zaratiegi,
Onomastika batzordekidea

1. KALEAK, PLAZAK ETA PARKEAK

Izendegi honen helburua izenak finkatzeaz gain erabiltzaileari erreztasunak ematea ere badenez gero, izenak finkatzean erabilgarritasuna bilatzen saiatu gara. Hori dela eta, izenak bortxatu gabe, hizkuntza bietan ahalik eta hurbilenekoak aukeratzen ahalegindu gara. Arrazoi beragatik inoiz azaltzen diren izen luzeak eta erabilgaitzak, bereziki generikoa baduten izenekin, erraztera jo dugu. Generikoa dutenek arazo bi sortzen dituzte: batetik, izenak bikoizten dira, generikoak desberdinak izateaz gain joskera dela-eta lekune bana hartzen dutelako *(Calle del Doctor Begiristain / Begiristain Doktorearen kalea)*; bestetik, generiko horiek gehienetan eguneroko jardueran desagertu egiten dira, jendeak izen berezia baino ez baitu erabiltzen. Hori dela-eta, nahiz eta proposamenean azaldu, izen ofiziala aldatzea erakunde honi ez, baizik udal agintariei baitagokie, itzultzepena kentzea proposatzen da, hortaz *Begiristain kalea / Calle (de) Begiristain.*

1.1. Izen bereziekin

Egitura orokorra honako hau da: *[Izen berezia + kalea].* Adibidez: *Aizkorri kalea, Ibaeta plaza, Castelao kalea, Txurruka kaleta,* etab. eta ez **Aizkorriren kalea, *Ibaetoko kalea* edo **Castelaoren kalea.* Beraz ez da gaztelaniaz agertzen den ***de*** preposizioa itzuliko: *Calle de Cervantes / Cervantes kalea.*

Izen berezi hori elementu batez baino gehiagoz osatua egon daiteke, izendeiturez, adibidez. Horrelakoetan ere, euskal tradizioari jarraituz eta Euskal-

tzaindiaren erabakiei so eginez (partikulazki 1922.eko lotazilaren 28koa) genitiboaren kasu marka ezabatu egiten da: *Arturo Campion kalea, Julio Urkixo kalea, Toribio Altzaga kalea, Xabier Lizardi kalea*, etab.

Gaztelaniazko kale-izenetan lehenbiziko osagaian bertan batzuetan ***de*** preposizioa agertzen da izena eta deitura lotuz *(Jose Miguel de Barandiaran, Telesforo de Aranzadi, ...)*. Horrelakoetan, preposizioa kendu egin dugu gehienetan, beregainki tradizio luzerik ez dutenetan: *Josemigel Barandiaran, Telesforo Arantzadi, Juan Antxieta*, e.a. Erdal deituretan, ordea, de hori gorde egin dugu: *Simona de Lajust kalea, Antonio de Sucre kalea, Diego de Rojas kalea.* Besterik da, jakina, deitura konposatuetan agertu ohi diren ***de*** hori: *Torcuato Luca de Tena*, esaterako. Hauetan preposizioari eutsi egin zaio, deituraren parte delakoan.

1.2. **Izen arruntekin**

1.2.1. *Izen elkartu gisa*

Kale edo plaza izenaren lehen osagaia izen arrunt bat izan daiteke. Gaztelaniazko deituran, batzuetan singularra eta plurala bereizten badira ere, euskaraz, usadio jator baten arabera, izen elkartu gisa ematearen aldeko gara, hots, inolako artikulu ez kasu markarik gabe: *Konstituzio plaza, Foru pasealekua, Merkatari plaza, Portu kalea*, etab. Eta ez **Konstituzioaren plaza, *Foruen pasealekua* edo **Portuko kalea.*

1.2.2. *Genitibo markarekin*

Hala ere, zenbaitetan, ez zaigu iruditu bidezko artikulua ezabatzea. Izan ere, baztuetan, sintaxiak hala eskaturik, genitiboaren hondarkia nahitaezko gertatzen da: *Korazonisten kalea*, esaterako.

Genitiboaren hondarkia ezin ezaba daiteke, bestalde, deizioaren mugatutasunak artikulua azaltzea eskatzen duenean. Hori gertatzen da, adibidez, izen bereziaren ondoan izen generikoa azaltzen denean, bereziki pertsona izenaren ondoren lanbidea edo gainerako izen edo adjektibo deskribatzaileren bat dugunean. Adibidez: *Arbos Musikariaren pasealekua, Jose Elosegi Alkatearen kalea, Marañon Doktorearen kalea, Jauregi Jeneralaren plaza*, e.a.

Hala ere, gorago esan bezala, erabilerak generikoa desagertarazi duenean hobe da izen berezia soilik ematea: *Jose Elosegi kalea, Marañon kalea*, etab.

Genitibo marka ezin ezabatua gertatzen da, orobat, artikulua nahitaezkoa dugunean: *Abuztuaren Hogeita Hamaikako kalea* (1), *Alfontso VIII.aren kalea, Ternuako Arrantzaleen kalea.*

1.2.3. *Leku-genitiboarekin*

Batzuetan —kasu gutxitan, egia esan— deizioak leku bati erreferentzia egiten dionez gero, -en genitiboaren ordez, -ko leku-genitiboa izango dugu *Ategorrietako galtzada zaharra, Urdinzubiko kalea, Amaragañeko kalea, zubia, etab.*

Baina betiere, sintagma mugatua dugun neurrian, hondarkia (*-en* nahiz *-ko*) agerianizangoda: ***Gurutze Zuria kalea** ez, **Gurutze Zuriko kalea**, *Doktore Begiristain kalea* ez, *Begiristain doktorearen kalea*, baizik.

1.3. **Kale izena toponimo zahar bat denean**

Horrelakoetan izena bere horretan errespetatzen da, forma ihartutzat emanez. Horrek esan nahi du batzuetan artikuluarekin agertuko dela eta beste batzuetan artikulurik gabe. Nolanahi ere, kasu batean eta bestean hitza oso-osorik gordeko da, izen berezia balitz bezala. Horrela, *Ijentea kalea*, alde batetik, eta *Illunbe kalea* bestetik.

1.4. **BIDE osagaia duten kaleak**

Hauetan, bide osagaiak aski informazio ematen duenez, kale hitza ez da idatziko. Batzuetan artikuluarekin emango da: *Amezketabidea, Agitibidea*, etab., eta beste batzuetan artikulurik gabe: *Aldapabide*, adibidez. Horren arazoia berezko erabilera da, bide-dun toponimoak horrela ibiltzen direlako. Oro har, toponimoa berria denean artikuluarekin emango da.

Bide osagaia aurreko hitzari itsatsia idazten dugu, *Altxuenebidea, Errotazarbidea, Murgilbidea*, salbu ezkerreko elementu hori bi hitzez edo gehiagoz osatua egon edo gaztelaniazkoa denean. Adibidez *Elbira Zipitria Andereñoaren bidea* edo *Aingeru Zaindariaren bidea.*

Usadio zaharrari segituz izen bakarra gomendatzen da, eta ez bi, hortaz *Agerrebidea* eta *Agitibidea* soilik proposatuko dira.

---

(1) *Abuztuaren Hamaika kalea* ere egokia bada ere, gaur egun usadio zabalduena denbora marka erebiltzea denez horrela proposatzen da.

2. PERTSONA IZEN-DEITUREN GRAFIA

Dudarik ez dago arlo hau dela korapilatsuena eta zailena ebazteko. Bidezkoena hizkuntza bakoitzari berea ematea denez, deiturak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira. Hala ere Espainia edo eta Ameriketan euskal deitura dutenak ugariak izanik gogorra litzateke haiei ere aldatzea, *Bolivar askatzailea*, esaterako, eta horrelakoetan bere horretan uztea proposatzen da. Gauza bera gertatzen da garaikideak izan eta deitura euskalduntzeko aukera edukirik ere euskaldundu ez dutenekin (*Gabriel Celaya* edo *Pio Barojo* modukoak). Ponte izenen kasuan berriz jabeek erabili zuten moduan jartzea erabaki zen, izen bikoitza, hala erabili zutenentzat gordez. Hala ere, Euskal Herriko zenbait pertsonaia historikoren kasuan bidezkoa da euskaraz ematea, *Bernat Etxepare*, konparaziorako. Ez da gomendatzen mende honen hasierako idazkera. Beraz, *Uriarte'tar Joseba Andoni*-ren ordainez, *Jose Antonio Uriarte* emanen da.

2.1. Erdal izenak

Oro har, erdal izen-deiturak, dauden-daudenean utzi dira: *Calle Ignacio Mercader / Ignacio Mercader kalea, Calle Ramon y Cajal / Ramon y Cajal kalea, Calle Arturo Campion / Arturo Campion kalea.*

Dena dela, azentuari dagozkion seinu diakritikoak, hots tilde ikurrak, ezabatzea proposatzen dugu.

2.2. Euskal izen-deiturak

Gorago esan bezala euskal deiturak euskal ortografiarekin eman dira, soil soilik. Ponte izenak, berriz, bere horretan utzi dira, idazkera bikoitza pertsonaia historikoa izan edo hala erabili zutenentzat utziz. Beraz: *Calle Isidro Antsorena / Isidro Antsorena kalea, Calle Javier Barkaiztegi / Javier Barkaiztegi kalea,* baina *Calle Bernat Etxepare / Bernat Etxepare kalea, Calle Juana de Albret / Joana Albret kalea*, etab.

3. EUSKAL LEKU IZENEN IDAZKERA ETA ERDARAZKO KALE IZENEN ITZULPENA

Euskal toponimo batez osatutako izenak, euskal grafiara egokitu dira, izen bakarra emanez: *Zarautz, Zuhatzu, Munaitz*, etab.

Aurreko irizpidearen salbuespena hizkuntza bietan tradizioa desberdinak daudenean gauzatu da eta honelakoetan biak eman dira, Euskararen Erabilera

Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen 10. Artikuluan esaten denari jarraikiz. Beraz, *Nafarroa Behere kalea / Calle Baja Navarra*, etab.

Erdal izen arruntak (*Ferrerias, Astilleros*, etab.) euskarara itzulita eman dira: *Oleta kalea* (ez *Olaeta*), *Ontzitegi kalea*, etab.

Badira, ordea, beste deitura berriagoak, erakunderen bati dagozkionak (*Ur Zaleak*, etab.), hauek izen berezitzat har daitezke eta, horrenbestez, tradiziorik ez den bitartean, ez dugu ukitu beharrik ikusi.

4. SANTU IZENA DUTEN KALEAK

Gure tradizioan, bai literaturan, bai onomastikan eta bereziki hagiotoponimian horrela agertzen diren santu izen zaharrekin, aposizio honetaz horniturik azaltzen direnekin (2), *done, dona* erabiltzea gomendatzen da, *san, santa* adjektiboak gainontzekoentzat utziz. Hortaz, *Done Bladi kolea, Done Bikendi kalea, Done Joan kalea*, baina *San Frantzisko kalea.*

5. KALE EDO PLAZA HITZA AIPATU GABE ARITU BEHAR DENEAN NOLA JOKA

Errotulaziotik aparte, "kale" hitza eman gabe hitzegin nahi denean, toponimoak, izen sintagma normaltzat deklinatu beharko lirateke: baldin artikulua badute, artikuluarekin (*Azpeitian, Azpeitiko, Azpeititik*, etab.) eta ez badute, gabe, izen propio gisa: *Gaztelubiden, Gaztelubidetik*, etab.

Pertsona izena duten kaleetan ere, izen hori osorik hartuko da: *(Antonio) Gaztañetan, (Nemesio) Otañotik*, etab.

Baina izen elkartu modura eratutako izenetan (*Konstituzio plaza, Foru posealekua, Bake plaza*, etab.) arazoa sortzen da. Izan ere, kasu batzuetan pluralean eman beharko litzateke: *Foruetan*, beste batzuetan berriz singularrean *Konstituzioan.* Beste zenbaitetan, azkenik zentzugabekeria litzateke generikoa kentzea: *Bakean, Geltokian* edo *Eskolan* esaterako. Hortaz, izen elkartu disa emandako kale izenetan ezin da generikoa (*kale, plaza*, etab.) kendu: *Posta kalea, Foru plaza, Iturri kalea*, etab.

Bestalde, eta hau inportantea da, sarritan helbideak jartzerakoan, ez da "kale" hitza agertzen. Orduan, absolutiboan emango da kalea: *Done Bladi, 4; Joan XXIII.a, 3; etab. Baina Konstituzio plaza, 5; Foru pasealekua, 12*, etab.

(2) **Dona**: Alodia, Grazia / Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia. **Done**: Agustin, Bikendi/Bizente, Blas/Bladi, Emiliano/Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Fruktuoso/Murtuts, Jakue, Joane (Donibane), Julio, Jurgi, Kosme, Kristobal / Kristobare, Laurenti, Leon, Martie / Martin, Martzelo, Meteri, Mikel, Paulo, Pelaio, Petri, Salbatore, Saturdi, Sebastian, Tomas eta Zipriano.

6. AZKEN OHARRAK. XAFLEN DISEINUA BIDERATZEKO IRIZPIDEAK

Euskara eta gaztelania, hitz ordenari begira, aski desberdinak direnez, biderik egokiena hizkuntza bakoitzari bere xafla eskaintzea da. Leku askotan plaka bakar batean eta sarritan elkarren hurrren eman dira kale izenak *Avenida de Algortako* etorbidea, esaterako, erabilera okerrak (batez ere gaztelaniaz) sortuz: *"vivo en la calle Algortako"*. Beraz egokiena holakoetan xafla bitan ematea da.

Bestalde, euskaraz artikulua eta kasu marka hondarkian bat eginik azaltzen baitira, ezin daitezke bi osagaiak berezirik idatzi, gaztelaniazko *de* preposizioarekin gertatzen denaren kontra. Hori dela-eta *Antso Jakituna-ren kalea* moduko idazkerak okertzat aitortuko ditugu. Holakoetan bereiz liteke **Antso Jakitunaren** *kalea* moduko idazkerak erabiliz, baina sistema honek ez luke balioko pluralerako, pluralean artikulua eta genitibo marka bat eginda agertzen baitira. *Nafarroako Errege-erreginen kalea*-ren kasuan, adibidez. Aurrekoa ikusita bereizketarik ez egitea prosatzen da.

Bilbon, Onomastika batzordeak, 1998.eko abenduaren 12an onartua.

DICTAMEN SOBRE *EGILATZ*

Vista la solicitud del Ayuntamiento de San Millán sobre el nombre de la Junta Administrativa cuya denominación oficial única ha sido hasta ahora *Eguílaz*, la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia expone lo siguiente:

1. El nombre se documenta de diversas formas:

— *Hegiraz*, año 1025.
— *Heguilaz*, años 1076 y 1257.
— *Eguiraç*, año 1222.
— *Eguiraz*, años 1099-1122 y 1222.
— *Hegilaz*, año 1229.
— *Eguilas*, año 1417.

Véanse también las formas del apellido:

— *Eximinus de Eguiraz*, año 1203.
— *Sanchez de Heguilaz*, año 1308.
— *Iohan Periz de Eguilaz*, año 1327.

Por lo que respecta a nombres de términos, pueden citarse, entre otros:

— *Eguilazbide* (actual), *Eguilazbidea* el año 1625.
— *Eguilazbideaspea*, año 1625.

Estos testimonios pueden verse en el libro de Gerardo López de Guereñu *Toponimia alavesa seguido de Mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*, editada por esta Real Academia, y en *Colección diplomática de Irache*, edición de José M.ª Lacarra y Angel Martín Duque, 2 volúmenes, Zaragoza 1965 y Pamplona 1986.

2. El nombre se documenta en otros lugares dentro y fuera de Alava, por ejemplo, el término de Sendadiano, de 1849, escrito en la grafía castellana *Eguílaz*, y el caserío actual *Egilatz*, en el municipio guipuzcoano de Idiazabal. No hay que olvidar, por otra parte, que la terminación consonántica *-tz* es la que corresponde a este nombre, como se ha indicado, siendo *-laz* en la documentación antigua el equivalente de *-latz* y, más tarde, el reflejo de la pronunciación romance.

3. No hay duda razonable respecto al origen y significado del nombre: se trata de las palabras vascas *(h)egi*, "orilla, borde", y *latz*, "áspero". Véase Luis Mitxelena, *Fonética histórica vasca*, págs. 206 y 324.

4. De la forma originaria **Hegilatz* se pasó, de forma normal, a *Hegiraz*, como se ha citado, del año 1025, testimonio que hay que leer *Hegiratz*. Sin embargo, este paso no fue completo, muy probablemente por la presencia del adjetivo común y transparente *latz*. Así la forma *Egila(t)z* es la que ha dominado, incluso en los nombres de las heredades, etc.

5. La comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, teniendo en cuenta todo lo expuesto, propone la oficialización de *Egilatz* como forma única de esta Junta Administrativa, tanto en castellano como en lengua vasca. De este modo, se evita la duplicidad de nombres, desaconsejada, como es sabido, por la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara para los casos de formas muy semejantes entre sí.

Debe descartarse, a nuestro juicio, cualquier otra solución, incluyendo la forma *Egiraz* que figura en la *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco*, de 1986. En este caso, como ha quedado dicho, la forma con *-r-* es un arcaismo sin peso real en la tradición, amén de olvidar la necesaria terminación *-tz*.

6. Por lo que respecta al empleo del nombre en títulos, membretes y en los textos en lengua vasca, parece conveniente recordar que ante consonante no debe escribirse *tz*, sino *z*, es decir:

Egilatz, pero *Egilazko herria, Egilaztik mendebaldera*, etc.

Y para que conste a todos los efectos, se expide el presente Dictamen, en Bilbao, a doce de marzo de mil novecientos noventa y nueve.

Visto bueno:
Henrike Knörr,
presidente de la comisión
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto,
secretario de la comisión
de Onomástica

EUSKAL IZENDEGIAK EGINDAKO BIDEA

Baiona, 1999-II-26

Josemari Satrustegi

Laurogei urte bete zituen iaz Euskaltzaindiak. Euskal elkarte gutxik bezala lortu du berak gertakizun ilunen historia nahasian etenik gabe orain arte bizirik irautea.

Ibilaldi horren berrogei urte eta zertxobat gehiago daramat neuk bere gurpilean biraka, 1957an urgazle izendapena jaso eta 1963an euskaltzain oso egin nindutenetik. Euskaltzaindiaren adina erdia eta gehiago ezagutu dut beraz bere barnetik eta, zeresanik ez, gerra osteko pizkunde guztia.

Duela hogeita hamar urte, 1969an, *Euskal Izendegia*ren ardura hartu nuen, beste ekintza batzuen artean, Akademiak eskatu zidalako eta buru belarri ekin nion lanari. Ez nintzen hutsetik hasi. 1966an egina zuen Aingeru Irigaraik Akademiaren izenean *Nomenclátor Euskérico de nombres de pila* izeneko bilduma; eta lehenago, pertsona-izen euskaldunen iturburuan kokatzen da Sabino Aranak 1897an sortutako *Deun-Ixendegi Euzkotarra.* Ehun urte luzeko historia emankorra da, beraz, hegoaldean pertsona izenen borrokak egindakoa, eta altxor baliotsua da jadanik eskuartean daukaguna. Hori kontuan eduki gabe ezin da inor gaiaz jabetu eta, hainbat gutxiago, zentzuzko erabakiak hartzera sartu. Hara zergatik ausartu naizen *Euskal Izendegiak* egindako bideaz Euskaltzaindiaren batzarrean mintzatzen.

HISTORIA LABURRA

Hiru argitalpen izan ditu Euskaltzaindiaren *Euskal Izendegia* bilduma ofizialak. 1972an atera zen azal gorria duena. Bost urteren buruan, 1977an, azal berdea, eta 1983an marroia. Bi lehenbizikoak Vasconia banketxearen dirulaguntzarekin, eta Euskadiko Kutxaren babesean hirugarrena. 160.000 ale banatu ziren bataz beste.

Egoera oso desberdinetan antolatuak dira liburuxka hauek eta euskal pertsona izenenen arloan emandako urratsen lekuko zehatzak dira denbora berean. Lehenengo liburuskaren garaian pertsona izenen esparrua lege aldetik oso mugatua eta murritza zen hegoaldean. Gerra osteko giroan ateratako 1957ko le-

gearen arabera, gaztelerazko pertsona izenei bakarrik aitortzen zitzaien ofizialtasuna. Urte horretako ekainaren 8ko legeak zioen 54. artikuluan erdal itzulpena zuten izen guztiak gazteleraz ipiniko zirela juzgatuetan. Horrek esan du, kristau egutegiko santuen izenak *Pedro, Antonio* edo *Luisa* moduan, erdaraz bakarrik erabil zitezkeela. Era berean, Andra Mariren bizitzako misterioen aipamena ere erdara soilean bakarrik onartzen zen, hala nola *Anunciación, Concepción* edo *Asunción.* Ama Birjinaren debozioko hiztegiak ere ez zeukan euskaran sarrerarik eta *Carmen, Rosario* eta *Mercedes* izenen antzera erabili behar ziren beti. Eta zeresanik ez, noski, Sabino Aranaren *Deun-Ixendegia* bazterturik gelditu zen inolako baliapen ofizialik gabe eta izen zerrenda hark jai zuen. Debekaturik zegoen izen haiek ipintzea eta gerra aurretik jarritakoak aldatu egin ziren juzgatuetan. Ez Errejistroetan bakarrik, bizitzako edozein mailatan zuen eragina agindu hark. Amaia Zuloaga magisteritzako ikasketak burutzean harri eta zur eginik gelditu zen 1957an maestra titulu ofizialarekin, *Amaia* ez baino *Maria Fin* baten izenean zetorkiola ikusita. Egoera tamalgarri hartaz jendea jabetzeko esaten dut hau guztia, eta eraso lotsagarriei aurre egiteko, erdal itzulpenik gabeko izenak bildu edo asmatzeari ekin zion jendeak. Saio haien adierazgarri da, adibidez, Goierriko bilduma aipagarria. Hitzaurrean honela dio: "Ba liteke, izen batzuei buruz juzgaduan, oraingoz, zailtasun apur bat ipintzea. Elizak, ordea, ez du oztoporik ipiniko". Izen berrien atal bat zekarren, ohar honekin: "Hontan bai lehiatu garela multzo handi bat biltzen, edotariko aukera izateko moduan". Asmatuen zerrendan *Karden, Kikitz, Supizt, Seskezi* eta *Tarika* modukoak ikus daitezke.

Euskal izenen irrika gehitzen zihoan herrian eta ahal zen neurrian eskariei erantzun nahian, 1966ko bilduma osatu beharra ikusi zuen Euskaltzaindiak eta neu arduratu nintzen bildumaz. Asmakizunak alde batera utzita, hitz jatorrekin zerrenda gehitzea zen helburua, eta dokumentu zaharretako nahiz herri tradizioko izenak biltzeari ekin zitzaion. Andra Mariren ermita eta tokian tokiko izenek eskaintzen zuten harrobi nagusia. Izen berezirik ez egon arren, parrokia guztietan baziren Ama Birjinak eta horretaz baliaturik, *Ainhoa, Eneritz* eta *Nagore* moduko herri-izenak ere sartu nituen. Jakinaren gainean egin zen hori. Zaila zitzaien legegizonei muzin egitea iker-saiorik gabe. Denbora berean, beste alor batzuetako izenen bat edo beste ere sartu zen, hala nola *Saioa* mendi izena, eta *Oihana* edo *Oinaze* moduko hitz arruntak, geroago etorriko ziren beste askoren aurrelari.

Bigarren liburuxka, azal berdeduna alegia —koloreaz bereizten baitzituen jendeak— 1977ko urtarrilaren 4an ateratako 17/1977 lege garrantzitsuari emandako erantzuna da. Ordu arteko muga estuak ezabatuz, Estatu barruko edozein hizkuntzatako pertsona izenak onartzen ditu arau berriak, duintasun eta itxura onekoak izanez gero. Denbora berean, aita-amen gogoaren kontra Errejistroan ipinitako izenak doan aldatzeko bidea irekirik uzten du. Hori dela eta, bostehun izen gehitu zitzaizkion aurreko zerrendari.

Aurrerapausu eskergarria izan zen berriro 1980ko urtarrilaren 2an Errejistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorrak plazaratutako zirkularra bertan ematen diren zehaztasun eta norabide irekiengatik. Gurasoek nahi duten izena haurrari ipintzeko eskubide osoa aitortzen du, alde batetik, eta kristau izenak ezezik beste edonolakoak ere ontzat ematen ditu, bestetik. Egoera berri honen ondoren plazaratu zen 1983an *Euskal Izendegiaren* hirugarren edizioa. Horrela, aldian aldiko baldintzapean bultzada aurrerakoiaren zentzuarekin jokatu izan da hogeita hamar urte hauetan, ez beti nahi zena eginez, ahal zena baizik, berezko lorpen eta akats guztiak barne direla.

Euskaltzaindiak kontuan eduki behar du gurasoek eskubide osoa dutela haurrari izena ipintzeko. Ezin da hori mugatu. Egunero ari dira pertsona izen berriak agertzen. Legezko eskubidea da eta gure eginkizuna etorki horien aurrean grafia eta arau moduko zerbait gomendatzea besterik ez da.

LEGEZKO OZTOPOAK

Bildumak apailatzeaz bestalde, erantzunkizun itzala zekarren berekin izendegiak. Juzgatuetako iskanbilak alde batetik eta jendearen eskariak bestetik, zerbitzu astun baten zama dago kontu honen atzean. Arazoak ez ziren noski berdinak edizio guztien garaian. Hasieran hiru gai ziurtatu behar zituen gure agiriak: aukeratutako hitza egokia zela pertsona izendatzeko, neska-mutilak elkarrengandik bereizten zituela, eta ez zuela erdaraz kidekorik *(que no induce a error de sexo y carece de equivalente onomástico en español).*

Bazen epaileren bat edo beste bere kasa gauzak egin ohi zituena eta Gernikako juzgatuan, adibidez, *Golondrina* ipini zioten *Ainara*ren ordez neskatila gaixo bati.

Antzinako gure izen zaharrak nonbait ez ziren legegizonen gogokoak, eta ezetz borobilaren ondotik hasten ziren epaitegiko ibilerak. Badaki horren berri hemen Juan San Martin euskaltzainak, lau urte gosta baitzitzaion bere semeari *Unai* izena legeztatzea.

Buru-belarri sarturik ibili ginen euskararen eskubideak zaindu nahian. Bi aldizkaritan ematen nituen nik, banan-banan, euskal izenen proposamenak: *Diario de Navarrak* ateratzen zuen "Nafar Hizkuntzan Orria" izeneko euskal atalean, eta *Príncipe de Viana* euskarazkoan. Liburu bat osa liteke lantxo haiek guztiak bateratuz. Behin baino gehiagotan auzira eramana izateko arriskuan ere egon nintzen. Madrilen *Amaia* izena debekatu zuen Orozco epaileari buruz egin nuen izkribuak, adibidez, baztarrak astindu zituen eta deitua izan nitzen Iruñeko epaitegira. Izen hori, *indecoroso, extravagante e impropio de persona* omen zen. Euskaltzaindiak 1970ko ekainaren 26an Gasteizko 'Sancho El Sabio' Elkartean egindako batzarrean nirekilako adostasun osoa agertu zion Iruñeko artzapezpikuari, orduko konkordatoa baliatzeko eskatuz auzitik ni libra-

tzeko. Tabera Kardinal zenak deitu ninduen eta legegizon zen aldetik hitzez hitz izenpetu lezakeela berak gogotik lan hori, esan zidan, eta burua goian zuela agertu ere bai epaitegian. Moreno Mocholi zen Iruñeko epaitegiko burua eta nere agerpenaren ondoren honako hau esan zidan: *'Qué poco se les conoce a ustedes del Ebro para abajo. Pero poco más se nos conoce a los de Cádiz'*. Madrilgo auzitegiko erabakia Orozco epailearen aurkakoa izan zen, eta *Amaia* izena ohore guztiekin sartu zuten hango Errejistroan.

Bigarren edizioa, azal berdeduna alegia, urrats handi baten ondoren etorri zen. 1977ko urtarrilaren 4ko 17/1977 legeak bide zabalak ireki zizkion pertsonen izendegiari. Gaztelerazko itzulpenaren oztopoa gainditurik, Estatuko edozein hizkuntzatan izenak ipintzeko eskubidea ematen zuen lege berriak, alde batetik, eta aurreko egoeran gurasoen gogoz kontra ezarritako izenak doan berreskuratzeko ahala, bestetik. Aurrerapen hain garrantzitsua baliatuz plazaratu zen bigarren liburuxka. Hitza pertsona izendatzeko egokia zela eta sexu bereizketa mugaturik zegoela bakarrik ziurtatu behar zen handik aurrera agirietan. Ehundaka paper egin behar izaten genuen urtean zehar gurasoen eskariz.

Lege honen historian badu zeresanik Euskaltzaindiak. Franco hil baino hilabete batzuk lehenago, 1976ko San Isidro eguna zela esango nuke, Errejistro eta Notaritzako arduradun nagusiarekin egon nintzen Madrilen eta, haren hitzetan, ustez erabakiorra izatekoa zen handik ateratako ondorea. Baina, hara non desagertzen den negu sarreran diktadorea eta berriro kale gorrian geratu zen arazoa. Ariasen hurrengo gobernuan Robles Piquer izendatu zuten Hezkuntzako ministro, eta aurretik ezagutzen nuenez, baliagarri gerta zitekeela iduritu zitzaigun berarekin egotea. Hemen gara Villasante, San Martín, Lizundia eta neu hura ikusten egondakoak. Barregarria badirudi ere, gauez aritu ginen Gasteizko adiskide baten etxean zirriborroa prestatzen, gau erdian trena hartu aurretik. Hartueman benetan baliotsuak izan ziren eta, Gobernu berriaren hurrengo kontseiluan onartuak izan ziren Barzelonan bi erabaki guretzat oso garrantzitsuak: Euskaltzaindiaren onarpen ofiziala, eta Espainiako hizkuntza guztietako pertsona izenak legeztatzea. Akordio honen garapena da aipatutako 17/1977 urtarrilaren 4ko legea.

Hirugarren liburuxkaren inguruan ere badago juzgatuei dagokien beste gertakizun bat. Aurreko legeak irekitako bidetik 1980an abenduaren 2.eko zirkular baten arabera, kristau izenak ez ezik beste edozein ere ipini dakieke haurrei. Historia, mitologia, tradizio eta arte ederretako pertsonaien izenak, nahiz geografiakoak, adibidez, ontzat ematen ditu. Hitz batean, edozein hitz abstraktu, hiztegiko arruntak eta fantasiakoak balia daitezke pertsona izentzat.

Oraingo egoeran, izena nondik datorren eta zer esan nahi duen jakin nahi du gehienetan jendeak. Denbora galdu eta lana dohainik egiteaz bestalde, erantzunak postaz eta telefonoz eman beharrak urtean zehar dakarren gastua suposatzen du negozio mota honek. Eta musutruk egindako lanak estimu gutxi

duenez gaurko gizartean, *Euskal Izendegiak* egindako bidea azaltzera behartuak ikusi gara gu ere gaur hemen.

Nehork dudarik izan ez dezan, *Euskalkaindiak inoiz egin duen Jagon Saileko ekintzarik sendoenetakoa eta emankorrena izan da pertsona izenena.* Euskal gizartean azken hamarkadatan nortasun agiriak nola antzaldutuak diren ikusi besterik ez dago. Belarririk duenak entzun beza.

IRIZPIDEAK

Hainbeste borrokaren ondoren lortutako emaitzak legezko bi baldintza bazter-ezinak daramatza berekin: pertsonentzat hartzen den hitzaren duintasuna, eta sexu berezitasuna adieraz beharra. Horiek dira jokoaren arauak. Erdaraz ere ez dago gaurregun *Resurrección María* gizakiari ipintzeko inolako modurik.

Santutegiko izenek eta Andra Marienek ez dute arazorik sortzen tradizioak berez sailkatu baiditu. Hor ere aldaketak izan dira, noski; adibidez, *Estibaliz* gizonezkoen izena zen lehen, eta orain emakumeena.

Legez baimendutako hitz arrunt eta toki-izenek sortzen dituzte arazoak pertsona izen bilakatzen direlarik. Euskaraz neutroak direnez, era batera ala bestera zehaztu beharrean aurkitzen ginen legearen aurrean.

Onomastikak esparru honetan ez du bere aldetik ezer berririk sortu. Irekitako bide luzea aztertu eta ondoreak jasotzen ahalegindu da. Joera herrikoia edo herrikotua da hemen azaldu dena. Hona zenbait adibide:

-a atzizkidun hitza emakume izentzat eman da eta horren zergatia ikusteko ez dago begiak asko ireki beharrik. Arinkeria edo ezjakintasuna da gazteleraren eragin hutsez gertatu dela esatea. Gazteleraren oinarrian dago latina, besteak beste, deklinabideko *-us, -a, -um* bere hiru amaiera arruntekin. Ez da ahantzi behar erdara tutik ez zekiten gure euskal herrietan ere meza latinez egin dela oso berandu arte eta kanon zaharrean *Anastasia* eta *Lucia* moduko amaiera zuten emakume santuen izenak entzuten zituela jendeak. Berdin gertatzen zen letanietan errepikatzen ziren santu eta santa izenekin. Horrek ez du esan nahi gaztelerak joera hori areagotu ez duenik. Baina ez berak bakarrik.

Iturri zaharretara jotzen bada, ez dut uste, adibidez, Luzaideko lehen biztanleetan aipatzen den 1330ko *domna Nabarra* de Gorosgaray edo Bizkaiko doña *Nafarra* de Berriz XVI. mendean gaztelaniaren eraginez sortuak izango zirenik, non eta ez den Nafarroa bera arrotz bezala hartzen. Ez da erdi aroko dokumentuetan ugariegia euskal pertsonen kopurua, hala ere hor ditugu *Auria, Oneka, Ximena* edo *Urraka* moduko izenak gure erregeen jendakietan. Arrotzak ote haiek ere?

Alderantziz, ez da hain zaharra Sabino Aranaren iraultza saioa, jaioberrien negarra gorabehera —edo erdararengandik aldendu nahian— *-a* atzizkia gi-

zonentzat proposatu zuena. *Joseba, Gorka* eta galtzen doan *Koldobika* modukoren bat edo beste jaso du herriak, eta ez ditugu baztertuko noski, baina nola zalantzan jar daiteke gaurregun herriak egina duen bide garbia? Izan gaitezen serioak eta har ditzagun gauzak diren bezala.

Emakume izenak ugariago dira euskaraz gizonenak baino eta bikoiztu egiten dira askotan hitz mugatu eta mugagabeetan errepikatuz. Lehenbiziko edizio gorrian aurrerapauso bat eman zen izenen normaltze bidean, eta Euskaltzaindiak eragozpenik gabe onartu zuen 40. orrian datorren ohar hau:

> "*Zuri* y *Zuria* figuran indistintamente en los documentos y se refieren a personas de ambos sexos. Ahora que la advocación mariana *Zuria* empieza a tener más aceptación, creemos conveniente para la diferenciación de sexo establecer la siguiente norma: *Zuri, Txuri* y *Txurio* para designar varón. Y *Zuria* o *Zuriñe* para la mujer."
>
> Lo mismo podríamos decir de *Eder, Ederra; Urdin, Urdina*, etc.

Ez dira asmaketa hutsak. Urdiainen *Andra Mari Zuria* egunean omen ziren herriko festak uztailaren bian. Artaxonako dokumentuetan *Sancta Maria Zuria* aipatzen da. *Andra Mari Zuria* esaten da Oñatin. *Txurio* etxe-izen zaharra da Arruazu nere herrian eta gizonezkotzat hartzen da *Txurioneko* nagusia. *Txuriko* da Lakuntzako beste etxeizen bat gaur ere eta *txurikonekoak* bertako biztanleak.

Hain gauza traketsa ote da Tolosako artxiboan agertzen den *Nabar* gizon izena onartzea, *Nabarra* eta *Nafarra* daudelarik Nafarroan eta Bizkaian emakumezkoentzat dokumentaturik? Zer arrazoi dago Onomastika batzordeko proposamenari horretan eragozpen itsuak ipintzeko?

Onomastika batzordeak beste proposamen bat egiten du aurrekoaren gehigarri, *Jaun* eta *Mari/Andre* izen lagun bezala ipintzea dudako kasuetan bereziki. Joera hau ere tradizioan oinarritzen da: *Jaundone Petri, Marierramu, Andre Madalen*, e.a. Baina jendeak izen laburrak nahi ditu eta luzeak moztu egiten ditu. Gu horren aurka ezin gara joan eta inor ezin dugu behartu.

Ez ditut hemen Onomastika batzordearen lanari zalantzan ipinitako puntu guztiak bana-banan arrazoituko. Aski luze doa adibide batzuen aurkezpena, baina ikusi eta entzundakoen ondoren beste puntu eztabaidatu bat labur aipatuko dut. *-e* atzizkidun hitzak emakumezkoentzat ibili ohi dira gehien bat, *Adame, Estebe, Jakobe, Mamiñe* eta hain ezagunak ez diren beste salbuspen batzuk gora-behera. Sabino Aranaren emaitzari muzin egiten diotenen aurrean esango dut, herriari bagiratzen diodala beti laguntza eskaintzeko xede bakarrarekin keriak alde batera utzita. Sabinoren zerrendatik gehiengoa baztertu du herriak, baina hor dago sendo oinarriturik *-e* atzizkiaren alde hark egindako apustua. *Edurne* eta *Nekane* izenen ereduko emaitza euskararen ondarea da gaur eta, keria koxkorrak alde batera utzita, ez dut uste desegokia edo kaltegarria gerta daitekeenik hizkuntzarentzat. Joera horrek bultzatuta edo inguruko kulturaren eraginez, *-a* amaiera garbia duten izenak *-e* bokalez amaitzera jo du jendeak,

Ana/Ane, eta *Oihana/Oihane* bezala. Eta zer axola du horrek? Azken aldian erdaraz ere *Ane* gero eta gehiago entzuten da, eta *Oihane* aldakinari dagokionez, *Silvia* eta *Silvana* kide biak ibili ohi ditu erdarak inork horrengatik jantzirik urratu gabe. Zer eragozpen egon daiteke jendeak gogoko dituen bi aldakinak onartzeko? Batasuna hautsiko ote luke horrek ala euskal izenen altxor murritza aberastu?

Ez dut sartu nahi muga gabeko hitz neutroekin, baina ez genioke eragozpenik ezarri behar egindako lanari bidean, bazterturik gelditu nahi ez badu Euskaltzaindiak herriaren aurrean. *Joar* mendi izena neskatilentzat sartu nuen aita batek bultzaturik. Gaurregun mutil izena bezala nagusitu da eta aldatu beharrean aurkitu gara. Arau inposatzaile ez baino jendearen lagungarri izan behar genuke, eta sudur fina du horretan gure herriak erabaki desegokiak baztertzeko.

Azkenik, *deun* eta *done* hizñoei buruz ohar bat. Gurekin edo gu gabe, lagungarri horren erabilera indartzen doa. Alde batetik, Sabino Aranak bere zerrenda *Deun-Ixendegi* deitu zuen. Bazter guztietan nagusitzen doa barra-barra *deun* aukera aparteko luxu bat bezala. Alderantziz, *done* izan da Euskal Herri osoan santu izen multzo batekin erabilitako forma zaharra. Hainbesteko astokeria iduritzen al zaizue, jaun ikasiok, *izen multzo horrekin bakarrik eta san santu kidea baztertu gabe* onartzeko Onomastika batzordeak egin duen proposamena? Ala nahiago al duzue idi mutuen isilunean *deun* moda berrikoari bidea irekirik uztea? Hegoaldeari begira eragozpenik sortzen ez badu *done* horrek, Iparraldean *jaundoni* edo *jaundone* ere onar daiteke. Baina, besterik da Iparraldeko egoera eta hemengo jokabidea.

IPARRALDEKO EGOERA

Zoritxarrez, harresi handiko muga du Euskal Herriak Pirinioetakoa. Hizkuntzaz eta tradizioz, burubidez eta bihotzez bikoiztu gaituen muga itsusia.

*Euskal Izendegia*rekin gure artean gertatzen ari den hau egoera horren ondore argia da. Ehun urteko historia egin du hegoaldean, lan, neke eta borroka latzarekin, eta Iparraldean zer? Nire esperientziako hogeita hamar urte hauetan ez dut inoiz sumatu urrats handirik ematen. Hartu ditut noski hango zenbait gutun, hitzezko galdera eta telefono ukaldi, beti kezka berarekin: *Kristau izena al da? Bataioz ipini al daiteke?*

Erraz ulertzekoa da ehun urtez ibilitako bide jorratuaren eta, alderantziz, zaindu eta landu ez den basamortuaren artean dagoen desberdintasuna. Bada hala ere arlo honetan Iparralde eta Hegoaldea sakonago banatzen dituen beste diferentziarik. Gurean latinak izan zuen eraginaren ordez, germaniar edo ez dakit nik zer bide jarrai baitzuen frantsesak izenen esparruan. Mugaz bestaldeko euskaldungoaren eta Hegoaldekoaren artean dagoen zaletasunaren alde handia azpimarratu beharrik ez dago euskararen jarraipenari begira. Hori dena

nozitu du azkenean beste gai askotan bezala *Euskal Izendegiak* ere. Ez dugu ikuspegi berdina horretan B. Oihartzabalek eta nik. Ezin dugu inola ere izan, bi muturretan baikaude.

Diferentzia hauek, eta dena esan behar da, ez dira orain duela berrogei urte mugaz bi aldetako euskaltzainok herrian aurkitzen genituenak baino handiago. Ni gazte izan arren orduan eta Dassance, adibidez, adinekoa, untsa konprenitzen genuen elkar eta bi alderdietako egoera desberdinak ikus eta errespetatzeko gai ginen. Anitz ikasi nuen Iparraldekoengandik jendetasun, bihozkada eta harremanen giro goxoan. Ez dut ukatuko. Jakintsunak ziren Lafon, Epherre, Lafitte eta Dassance bera, besteak beste, eta ni gaztea izan arren eta ezjakina ez nuen inoiz maisukeriarik sumatu haiengan. Beste giro bat zen hura.

Nik proposa niezaieke borondate onez Iparraldeko euskaltzainei eta euskalzale guztiei, noski, ahal den neurrian saia daitezela euskal izenen munduan euren bidea egiten, asko baita ekar dezaketen uzta hemen egindakoaren gehigarri. Elkarren arteko lanean lorpenak murriztu ez baino areagotu ditzagun euskararen onerako.

Hamasei urteotan ez du Euskaltzaindiak *Euskal Izendegia*, bere bilduma berritu jendea eskez ibili arren, eta bitartean Iruñean atera zuten orain dela denboratxo bat gurearen izena lapurtuz beste *Euskal Izendegi* bat, eta ez zuen hemen nehork ezer esan. Azken aldi honetan Gipuzkoan egin omen duten beste Izendegi baten berria jaso dut egunkarietan, eta bitartean gu eztabaida antzutan denbora galtzen ari gara. Honela ez dugu aurten ere argitalpen berria aterako.

Onomastika batzordeak lehengoaren jarraipena egitea proposatzen du, zenbait ukitu eta gehigarri sartuz. Izen bakoitzari bere azalpentxoa egitea izango litzateke aldaketa nagusia, jatorria, santuen festa eguna eta ermiten kasuan herria eta imajinen zehaztasunak emanez.

Besterik ez, jaunak. *Ekin eta jarrai.* Egin dezagun lan eta egiten utz, denon beharra baitago.

LITERATURA

EUSKALDUNAK POEMAREN SORTAROA ETA BERAREN IKUSPEGI OROKORRA

Donostia/San Sebastián,
E.U.T.G., 1989

Joxemari Aranalde

SORTAROA

Ohar bat eginez hasi nahi dut nere hitzaldi hau. Nik hemen sarrera honetan, esan ditzakeedanak eta gehiago, zehazkiago adierazita eta zabalago emanik, *Jakin* aldizkarian aurki ditzakeela nahi duenak. Joxe Azurmendi, Jon Kortazar eta Lurdes Otegi dira idazleak, eta 29, 36 eta 39 dira aldizkariaren numeroak. Hiru euskalzaleei zor nien aitormen hori eginik, hasi nadin poemaren Sortaroa deitzen dutan sarrera honekin.

Euskal Pizkundea esaten zaion garaia da. Bada ekintza ederrik aldi honetan, gure herri hau suspertu beharrez. Eta besteak beste, bada talde bat —elite bat—, euskaltzale eta abertzale dena aldi berean, eta gure "herritasuna" —Orixek liokeenez— eskolaren kulturan eraiki nahi duena.

Berak, jende eskolatua dira; baina non eskolatuak? Erdal eskoletan. Eta beren jakintza erdal hizkuntzetan jaso dute. Eta erdal kultura jaso dute bakarrik. Ez bitarteko izan dute euskara beren ikasketetan, ez gai izan dute. Ez euskaraz ikasi dute, ez euskara ikasi dute, eta ez euskal gauzarik ikasi dute. Berek, ordea, maite dute gure hizkuntza, eta maite dute gure herria. Eta nahiz bata eta nahiz bestea, landu egin nahi dituzte.

Berak, hainbat erdera-mota ikasitako jendea dira. Eta miretsiak eta ederretsiak dituzte erdera horiek eta berorietan ikusi dituzten kulturak. Euskaran eta euskaraz ez dago horrelakorik. Gure hizkuntza, batez ere, ahotik belarrira eta belarritik ahora eta ahotik ahora dabilen eta bizi den hizkuntza bat da. Izatekotan ere, eliz literatura dauka zerbait landua; baina hori hizkera didaktiko bat da. Ez da literatura izena merezi duen zerbait. Eta gainera, zer da hori kultura haundien aldean? Gure jende honek, erdal hizkuntzetan ikusi eta ikasi dituen pareko kultura bat sortu nahi du gurean. Ezin du jasan, jende abertzale haren bihotzak, guk besteek hainako kultura bat ez izatea.

Ederra asmoa benetan! Asmoa edo ametsa? Artean behintzat asmo eta amets. Laister esnatuko dira. Entzungo da beren uste ustel horretatik atzarra-

raziko dituen abotsik. Miguel Unamunokoak asaldatazten ditu gure euskalzale amestiak. Haiek hain maite duten hizkuntza horrek ez dauka kulturarik, eta ez dezake eduki ere. Hori "lengua de aldeanos" bat besterik ez da. Ez du balio kultura haundi baten ontzi izateko. Hori zahartua dago, eta zahar guztiari bezala, hiltzea dagokio.

Esan bazuen esan zuen gure On Miguelek berea. Izan zuen zeinek erantzunik. Orduan, eta geroxeago, eta gerozko honetan guztian, esan zaio esatekorik errektore famatuari. Bereak entzuna da.

Ez al du arrazoirik izango Unamunok; baina, zoritxarrez, oraindik ez diogu demostratu ez zuenik. Ez al gara orain bertan euskararen hil-kanpaiak jo eta jo ari?

Salamancako errektorearenak ez zituen kokildu gure euskalzaleak. Haren ateraldiaren mina bera, ezten bihurtu zen haientzat. Hitzezko gezurtapenak egin zizkioten haren esanari, eta egintzazkoa ere egin nahi zioten. Baina nola lortu beren asmo hura?

Erantzuna xinplea eta ulerterreza da: Literaturaren bidez. Zer da jendeak irakurtzen duena? Zerk egin ditu izendun beste erdara horiek eta zerk ikasarazi? Literaturak. Hori da egin behar dena gure honetan ere, berarenganako istimazioa sotarazi nahi bada.

Badakit norbaitek esango didala ez zela elederra, literatura, bakarrik sartzen beren asmoetan. Besterik ere nahi zutela, eta egin ere egin zutela. Eta egia da. Ele zientziazkoa ere sortu nahi zuten, eta hasi ere egin ziren zeregin horretan. Hor daude beren *Fisia* eta *Kimia* eta Biblia eta abar eta abar. Dena zen euskaran eta euskaraz egin nahi zutena: Literatura eta zientzia.

Hala ere, etxean eta kanpoan itzala eta estimua izan zitzan gure hizkuntzak, eta jendea erakar zezan, eta ikasia izan zedin hemen eta kanpoan jende eskolatuarengatik, literatura zen beharrezkoena.

Baina zein literatur-mota, ordea? Poesiaren aldera jotzen dute gure euskalzale hauek. Hori da Pizkunde aroari dagokiona. Lizardik esango duen bezala, "olerkariak berotu izan baitute erria bizkunde guzietan". Poesiaz ongarritu behar da, beraz, euskaldunaren gogoa, herritasunaren fruituak eman ditzan.

Eta poesia hori sortu egin behar da. Itzulpenak ez du balio. Itzulpenak behar dira. Eta nolako indarrez ekiten diotelako lan horri! Baina ez da nahikoa. Sortu egin behar du gure herriak berea. Horrela bakarrik makurtuko da gure jende ikasia gure hizkuntzara. Bestela, berezko sorkuntzarik gabe, gure hizkuntzak ez du izango itzalik. Horrela bakarrik izan gaitezke, besteen pare, eta hori gabe, besteen morroi izango gara.

Poesia honek nolakoa edo zertsu izan behar zukeen ere, halako susmo bat bazebilen. Gero Orixek poemaren sarrerako bertsoan ederki adieraziko duenez,

"erri baten arnasa mamitu" beharko zuen poesia horrek. Euskal Herriaren nortasuna kantatu behar zuen, eta beraren agerpen poetiko bat izan. Ikus nola adierazten duen idea hori garai hartako kronistarik hoberenak, Lizardi haundiak, bertso ezagun haietan:

"Eder aunagu, mintzo joria
eder, benetan, garoz jantzia;
larre-loretik eztia,
basotik euskal mamia,
laster sortzen al duk, Olerkaria!

Ta, ala Jaunaren gogo baledi
nik gogo dudan bezin gartsuki,
euskotar azal ta mami,
gure erriaren olerki
garaia, norbaitek lenbait-lên begi!"

"Gure erriaren olerki" izatea dagokio, beraz, sortu behar dugun horri. Zehazkiegi ez bada ere, asmoa hor dago.

Lizardik "lenbait-lên" nahi du obra hori, eta On Manuel Lekuonak ez daitekeela urrun uste du. Hala aitortzen du:

"El genio no se hará esperar, su germen vive y palpita en el seno de esta evolución, que lo va fomentando, porque como dice Balmes, los genios no son los que hacen la evolución, son más bien su fruto, su producto, el verbo que fija su expresión definitiva."

Ateetan daiteke beraz guk behar dugun *genio* hori. Pizkundearen haziak berak daukake bere baitan gure Homero edo gure Dante edo gure Verdaguer. Pizkundea heldua dago. Eboluzioa bere gingan da. Denborak kunplituta dago. Laister da umea.

Jaio da umea. Nikolas du izena. Ormaetxea abizena. Eta Orixe izenordea. Hau da hautatua. Gauza izango ote da gure gipuzkoar Naparroan hazia, tamaina horretako lan bati erantzuteko? Jakingo ote du "erri" honen "arnasa" nola "mamitu"?

Gomendio hori egiten diote Orixeri; baina inork ez daki hemen zer poesiamota izan behar duen "gure erriaren olerki" delako horrek.

Herri honetan oraindainotsu —ordura artetsu— egin izan den poesia bakarra, herriarena da. Ez da jende ikasiarena edo landuarena edo eskolatuarena izan. Bertsolaritza du bere izen gure poesia gehientsuenak. Horren harira egin behar al da "erriaren olerki" delako hau? Edo elite baten gustoko eta zerbitzuko egin behar da? Herriaren molde zaharretan egiten bada, izango al du gure jende ikasia bereganatzeko hainbat edertasun?

Zein poesia mota behar dugun auzi honetan, Lizardik eman du epai zuzena. Ohizko moldeen aldekoen eta berrien aldekoen artean dagoen auzia, honela erabakitzen du Lizardik: "Bide berriak? —galdetzen du—. Bide guztiak" erantzuten du. Danak behar ditugu, lehengoak eta oraingoak.

Gure zarauztarraren erantzuna ederki dago, eta haren izpiritu elkarkoi, eta elkargarriari dagokiona da. Ez dago dudarik; baina horrek ez dio Orixeri korapilorik askatzen. Egilearentzat auzia lehenean gelditzen da.

Moldearena bat dela, moldekoarena da bestea. Zer molderatu da hurrengo arazoa, zer olerkitu —barka aditza—, zer kontatu eta kantatu. Ikus nola adierazten digun egileak berak gorabehera hori poemaren hitzaurrean: "Aspaldiago asia nintzan, Europa'n gertakari ezaguna dala ta Orreaga'ko edo Roncesvalles'ko gudu-erasoa ointzat artuki, lengo epopeia zarren antzera euskal-biziera emateko asmoz; baina gauzak ekarri egin bear ziran tiraka, etorri ez baitziran egiten.

Carlomagno, Roldan eta euskaldun buru ez-ezagunai agur eginik, bestetara jo behar izan dut bada azkenean. Europako poema geienak irauli ta aztertu nitun begiratuki, ta alakorik egiterik ez neukala igarri nion; batez ere, etxebarneko gauzak, lanbide, apustu, dantza ta abar, ezin agertu baititezke beren etorrizko burubide batean. Etorrizkoa egiten saiatu naiz beraz, ez ekarrizkoa.

Gauzak aroak dakartzin bezela ederrago ageri zaizkit.

Ekarria ez da erraza, ongi ekartzen behintzat; etorria, ots, ugaritasuna ez ta ere, gairik aski biltzen ez bada; etortasuna da zailenik eta bearrenik eta nere poema ontan ori ager dedin nai nuke".

Beraz, albora utzi du Orreagako gudua. Hura "ointzat" hartu eta haren inguru Euskal Herria kantatzea, gauzak gehiegi behartzea iruditu zaio. Eta nahiago izan du "etorrizko" jatortasunean herriaren biziera hartu eta bere horretan kantatu. "Erri bat bere oiko lanbideetan, jolasetan, ipuietan, sukaldean, bizian, eriotzean agertu" nahi izan du, poemaren hitzaurrean dioen bezala. Eta bi orrialde geroago, hona nola adierazten digun bere helburua biribilki: "'Res ipsa loquatur', ots, 'gauza bera mintza bedi'. Bein esan: Euskalerriak nire agoz mintzatu izatea nai nuke. Eunetatik larogeita amabost, gutxienik, nere begiz ikusiak, neure belarriz entzunak ditut; nik josi ta moldatuak ordea, batasuna ar dezaten".

Horra, beraz, erabakia moldekoarena. Badaki zer kantatu behar duen. Badaki zer olerkitu —barka berriz ere— nahi duen. Herria du kantagai.

Eta herria duenez gero gai, kantatzeko era ere, herriarena hautatzen du. "Bertsua bai, asma nezakeen —dio— ene belarrieri ta jakintsuren batenari obeki letorkiona; ez ziteken ordea erriarena, ta ez errirakoa. Erri-bertsua egin dut ortaz, erriak kantuz ematen diguna".

Hala ere badu kezka, gogortxoa atera ote zaion lehenbiziko partean. Baina bere horretan uzten du. Beste norbaitzuren bertsoak ere, onak direlako ez-ezik gaizto xamarrak direlako ere atsegin omen zaizkio herriari, eta berak ez ditu ... goxatzen, ez errazten eta ez orrazten. Pello Mari Otaño hartzen du lekuko bere alde.

Horregatik, "nere lan oni kera berri bat ematen saiatu naiz —dio—: ez Homer'ena bezain lasaia, ez Horati'rena bezain tinkoa, bien artekoa baino".

Hor dugu, bada, argi eta garbi adierazirik, zer nahi den. Moldearena erabakia dago, eta moldekoarena ere bai. Badakigu zer poesia-mota hautatzen duen Orixek eta zer poesi-gai hartzen duen. Nola eta zer egin esana dago. Egitea falta da bakarrik.

Eta 1931.garren urtean bere sorterrira biltzen da Orixe, neurri horietako poema egiteko enkarguarekin.

Eta horrenbestez esanik eman dezagun poemaren "Sortaroa" deitu dugun hori, eta sar gaitezen poemarekin.

"EUSKALDUNAK"

Euskaldunak izenarekin bataiatua dagoen obra haundi hau eskuetan har dezakeenak, jakin beza —hartu izan duenak badaki— hamabost kapitulu edo kantutan banatua dagoela, eta beste hainbat eta hainbat kantu-kumetan, kantu nagusiaren barnean sartzen baitira beste kantu batzuk, asko, herritik jasoak, eta zenbait, egileak berak jarriak. Den-dena bertsotan dagoela esan beharrik ez dago. Eta aipatu hamabost kantu horietatik aparte, bi bertso gelditzen dira. Bata poema hasi aurretik dago eta bestea bukatu ondoren. Aurrenekoa otoitz bat da, eta bigarrena fetxa. Hona hemen bata eta bestea:

"Zatozkida, Goi-arnas, / eizu nerekin lan,
erri baten arnasa / mamitu dezadan.
Geroak esan beza: / "Erri bat izan zan";
edo-ta ats emaiogun / ontan iraun dezan."

Bigarrena:

"Bertsolariak oitura baitu
esaten urtegarrena,
bertso-lan oni, jakin zer urtez
eman diodan azkena:
Kristo jaiorik emeretzireun
ogei ta amalaugarrena...
Ederrik badu, Arena du, ta
txarrik badu, neronena."

Apustulariek aitaren eginez bezala hasten du bere lanaldia gure Orixek eta urtea izendatuz bukatzen, bertsolariek bezala.

Kantu horietan zehar kontatzen den historia ez da luzea. Urtebetekoa da guztia. Urte bateko herriko festen bezperan hasten da, eta herri bereko hurrengo urteko festa bezperetan bukatzen. "Urren astean Pestaburu da: Urteak eman du adarra" esanez amaitzen da poema.

Melodia soil batez bezala hasten da "Euskaldunak" poema. Historia honen gerta-leku den herria zein den eta non dagoen esanez hasten zaigu: "Naparroa zarrean Larraunen Uhitzi". Horra hor herriaren izena, eta beraren geografia. Eta hala jarraitzen du: "belar goxo tartean eper-kabi iduri. Belardien inguruz, kabi horren esi, baso maite dago, ikazkin lantegi". Hor ditugu izena, geografia eta orografia.

Baina horrekin ez dago guztia esana. Egileak egin nahi duen historia honetarako, bada beste zerbait jakitea komeni zaiguna. Herrixka batean kokatzen den historia honek, "erri baten arnasa mamaitu" nahi du, ez herrixka batena bakarrik, eta horretarako zer alderdi duen hautatu den herri horrek, jakin behar dugu. Eta hala, beste Euskal Herrietako jendeek beren kultur-hazia hemen nola erein zuten aditzera emango zaigu hurrengo bertsoan. "Bost ipui eder orok emen erein zuten" esango digu. Beraz, Naparroako Uhitzi, euskaldunen izate osoaren gordailu gertatzen zaigu horrela. Eta bertan eta beraren bidez ezagutu daiteke Euskal Herri osoa.

Eta oraindik hari bakarreko doinuan segitzen du haserako musika honek. Historia honetan guztian erdi-gune izango dugun bikotearen izenak ematen dizkigu hurrengo bertsoan, eta maitez elkarri lehenengo aldiz noiz behatu zioten esaten. Garazi eta Mikel dugu bikotea. Hor bukatzen da hari bakarreko melodia, eta sinfonia hasten da. Herritar guztiak sartzen dira kontzertu horretan eta bakoitza hari banarekin.

Pesta-bezpera dute eta hor dator artzai bakoitza bere ardia lepoan duela, "maldar oro bera". Eta etxe bakoitza "arategi" bihurtu da. Beste behin ere gertatuko da hori historia honetan: Txerri-hiltzerakoan. Etxeko denek ardi-hilketa-lanetan dihardute. Aitonak badu zereginik; amonak zer esanik ez, eta haurrek ere bai. Besterik ezean, behatu egiten dute; bi begiak zabalik. Eta ardiaren puskak zeharo jasotzen dira. Larrua ere bai, besteak beste, balio baitu "babesteko aurraren ipurdi". Hori pintzelada!

Eta honetan, hor non entzuten den Amazkarren behera danbolin soinua. Zubietako Pontxo da, urtero bezala. Horrek jarri du hankajokoa! "Kabia aizatzen diten txorien antzera / etxe-barna garbituz haurrak atarira". "Mutilak, auzo-etxera doaz. An dute danbolin". Nexkak oraindik etxeko lanetan; baina hasi dira galdezka "apaltzera danbolin zeiñetan ote da". Eta pesta usaiak badu beste bisitaririk. Eskaleak ere hasi dira biltzen eta beste zenbait "esku-kako" ere bai.

Hori da martxa, gaur esango lutekeen bezala, sortu dena herrian! Hor dabiltza denak. Bakoitzak bere papera du. Horrela dihoakie arratsaldea. Eta "gatzemaile gaxoa" sutean utzita, ohera doaz denak ordua datorrenean, biharamon alaiaren pozetan.

Pestaburu dute. Inork ez du perezarik jeikitzeko. Zutitu dira denak. Ez dira bakarrik izango egun honetan. Badatozkie pestale berriak. Beren "kabi" duten herri horren inguru, dakigunez "baso maitea dago, ikazkin lantegi". Basagizon hauek ere pestara datoz. Ez dira arrotzak herrian. Igandeetan han izaten dira eta ezagutzen dituzte. Gaur ez da igandea, baina jai hartu dute, eta han datoz herrira, sartu aurretik garbitu bana hartuz iturriko askan. Zeinen deskribapen polita hauen sarrera!

Bada beste pestalerik. Bidea betean dator jendea auzo-herrietatik. Hor dira denak. Egin da bilera. Mezatarako deia ari du kanpandorretik. Elizara doa jendea. Meza nagusia dute. Gero dantza izango dute. Hurrena bazkaria. Bazkari haundia. Eta berriro dantza atsaldean.

Ekarri du Orixek herria plazara. Hor dira denak. Bakoitzak erakutsiko du bere burua, dagokion lekuan eta orduan eta moduan, eta antzeztuko du bere papera. Hor dira haurrak, hor dira aiton-amonak, hor da jende larria, hor da gaztejendea. Hitz batean, hor dira antzerki honetan antzezle izango ditugun herritar eta auzo-herritar denak. Ikus dezagun bakoitzak zer dantza egiten duen eta Orixek nola kontatzen digun.

HAURRAK

Zer koadroak pintatzen dituen Orixek, mundu honetan zorioneko gerra bakarra egiten duen jende honekin! Esan dugu lehen txistulariarengana nola joan diren? Esan ez duguna da, atsaldekoa egiten gelditu den etxean han dituela denak begira. Han daude denak dena begi. Beren begiratuz josia daukate txistularia. Meriendatzeko atera dioten gazta zaharrak ez omen, txistulariak berari begira hainbat zulo. Zeinen konparazio polita!

Elurrak ere ekar araziko dio Orixeri haurra aurrera. "Haurraren jostailu" definituko du ederki "zai-bageko iriña". Zer bi definizio! Eta gure ttikiak kristoak egiten jarriko ditu, eta gurasoaren bizkarrean eskolara bidean, eta negu egun motzeko iluntze luzeetan, afalondoko errezoak noiz bukatuko zai-zai, amonaren ipuiak entzuteko. Baina ipuietan ere ezina datorkio, eta loak "menderatzen du" gure haur bihurria.

Hor ditu haurrak txerria hiltzerakoan ere. Aurrenetik bildurti, txerria azkenetara etorri arte. Baina gero hankapetik bialdu ezin. "Barnean sartuko aut" desapio egin behar izan dio bati txerribiltzaileak, hustu duen txerriaren barnean sartuko duela, alegia. Odolkiak partitzerakoan ateratzen duten tema ere, nola

utzi aitatu gabe? Biak etxe berera joan nahi, bai baitakite non zer propina ematen duten odolkiekin joandakoan.

Eta haurrak, jakina, elizan meza laguntzen. Hiletetan apaiz asko dator meza ematera, eta badakite zeinek ematen duen propinarik haundiena, eta han dabiltza zeinek haren meza harrapatuko gure txikiak. Bat ez da haserre. Eskuzabalenarena harek harrapatu du, eta halako eskupekoa jaso du. Joan da etxera eta erakutsi du bere altxorra. Han dira komeriak! Ostu egin duela. Gure haurra negarrez. Noizpait jakinerazi die, ordea, zeini meza lagundu dion. Orduan denak paketu. Baraibarko apezak eman ziola jakin zutenean, denak trankil. Hartarainoxe izan behar zuen eskuzabala herri hartako erretoreak, Orixe mezalaguntzaile zen garaian.

Eta ezin dut utzi beste pasarte bat osorik aipatu gabe. Ihauteriak dira. "Emakunde" eguna. Haurrak aterik ate dabiltza, ohituraz, "ziztor-miztor" esanez, puskak biltzen. Baina puskak biltzeko, "burni-burruntziak" behar dituzte, haietan puskak sartzeko. Hona haur baten kasua:

"Aur bat etxean negarti
ez dula burni-burruntzi;
aitak ain dio lizar zuzenez,
aiztoz koska, burniz gori gori...
Erdi-lotsaz badoa auzora;
negarra doi-doi du geldi.

Lenen atean asi da,
bildurrez, "ziztor-miztor"ka.
Andre xaloak ekarri dio
janaldi on bat lukainka.
Goxoagorik izketan dio:
"Ori burruntzi apaiña!".

Beste atetan berori.
Poztu diote belarri.
Etxeratzean, barna zabalduz,
adierazi aitari.
Ark: "Tutulu, ez nin esaten?
Urrena siñesta neri."

Zeini ez dio jartzen koadro honek ezpaina lerdejario, begia irriz, eta bihotza jauzlari? Izugarria da. Horrelakoxe edertasunez pintatzen du haurra Orixek poeman zehar.

Eta hor dira haurrak "Eultzia" kantuan. Zeinen ederki ekarriak berei dagokien lekura: hesiaren gainera. Eta apustukoan? Nola kontatzen duelako haundiek eta txikiek hartzen duten postura ezberdina. Hitz batean, paregabeki jarriak daude haurrak poema osoan zehar berei tokatzen zaien bezala.

AITON-AMONAK

Hor azaltzen da aitona pestetarako ardia hiltzen duten unetik. Erritualki, ardiaren barea erretzea dagokio, eta hori egiten du. Hor da aitona baxter-lan guztietan. Arto berria iritsi denean, lehen ehotaldia prestatzen ikusiko dugu errotarako. Neguaren etorrera ere berak gaztigatuko du "Ai ene" batekin, beste inor baino lehenago joko baitu bera hotzak. Metereologoa ere bera izango dugu. Bera aterako da leihora, zertsu eguraldi egingo duen ikustera. Eta landetako gurutzeak ere berak sartuko ditu San Joan egunez patxara ederrean. Eta nola ez? Aitonari konta araziko zaio behin eta berriz sega apustu famatua. Eta beti hitz berekin kontatuko du.

Baina aitona tertulian jarriko digu Orixek. Eta esan beharko dizkio, aditzeko pazientziz datorren arrotzari, bere bizitzako pasadizo guztiak. Esan beharko dio gaztetan non ibili zen lanean, non zer ikasi zuen, noraino iritsi den bere ibilaldietan eta non ez den oraindik izana. Orixeren aitona Donostian izan gabea da. Horrelaxe pintatzen du gure aiton hortz-bakar, "erratza" iduri duten bekaindun, eta abar.

Eta amona? Lehengoan entzun genituenak entzunda, jakina zegoen poeman amonak har zezakeen lekua. Gainera, poema honetan, ama haurretan galdutakoa da protagonista emakumezkoa, eta ez da harritzekoa amona lakoa izatea. Mutilak ere, berriz, badu amona, eta bienak agertzen dira.

Amona da sukaldeburu. Etxeko martxa ere haren kontu dago. Hura da otoitz-gidari. Harek esango die gazteei, hara edo honera doazenean, non nola ibili behar duten. Amona da txerria hiltzean odola nahasten duena. Amona da odolkiak nora eraman eta nora ez esaten duena. Amona da soroko babarrunen ardura daukana, harek jarri behar baitu egunero eltzea etxeko guztientzat. Amona da eskaleari ohea jarriko diona. Hor da beti amona poeman zehar bere zeregin xehe eta ugarietan. Eta hor da ere amona San Joan suaren gainean erritualki salto egiten, bere gona luzeak altxata, sua moteldu denean.

Eta amona da hiltzen dena ere poema honetan. Bizi izan den bezain ixil eta paketsu doa beste mundura. Langileak eta zintzoak izateko esango die bakarrik. Gazteak ere hiltzen omen dira, baina zaharrak denak egiten baitira, amonaren hileta dakar poema honek. Tajurik hoberenean emana dago amonaren irudia poema honetan.

BESTEAK

Haurtzaroaren eta zahartzaroaren artean hor dira beste bi adinak ere: Helduak, edo larriak edo haundiak, eta gazteak. Hauen papera ere paregabeki pintatzen da poema honetan.

Itzai, nagusia dabil, bai gaztain karretoan, bai belarrekoan eta bai eultzian. Honek erabakitzen du eultzia noiz zabaldu, eta noiz altxa. Hauek baieztatzen dute ere gazteen arteko amodioa. Ikustekoa da bien bi aitek hartzen duten posturaren deskribapena. Gure baserritarrik herri txikietako zimitorioetan beren arteko gauzaren bat aparte tratatzen inoiz ikusi duena, ahoxabalik gelditzen da koadro horren ederrez.

Gaztea ere bere gisara ageri da poeman. Gaztea, bizkorra da, odolbero, jostalari, pestazale eta pestagile. Eta hala da epopeia honetakoa. Gaztea doa mendira eultzirako behor bila. Gaztea da segari belarrekoan. Gaztea da apustulari. Eta gaztea da borrokari. Ihauterietan, jan-edanaren faltarik ere ez, eta berotzen dira behar baino gehiago eta hor hasten dira burrukan. Ez nolanahiko burruka! Haserrea dakar berekin familiartera. Eta hori deskribapena Orixek egiten duena, herrixka bateko bi familiaren arteko ezinikusia adierazteko. 245. orrialdea ez dago irakurri gabe uzterik. Horiek dira trazoak. Zer da hori!

Eta gazteak festan, jakina. Festa asko da poema honetan. Ia lan guztiek badute ondotik beren dantza errituala. Eultziak badu. Artazuriketak badu. Artajorrak badu. Euleak ere bai. Eta gero festak. Herriko festak, ihauteriak, San Joanak eta beste. Eta hor, gaztea da batez ere lehentasuna duena.

Eta gaztea da, nola ez, poema osoan zehar irauten duen amodiozko historiaren protagonista ere. Mikel eta Garazi dugu bikotea. Pestaburu egunean dantzalagun hautatzen du Mikelek Garazi. Eta badu detaile bat izugarrizko grafismoz Orixek adierazten duena poeman. Neska horretaz interesatua dagoen mutil bati ekar erazten dio Mikelek neska. Plazan egiten den isiltasuna, entzun erazi egiten du Orixek bere poeman. Egun horretatik hasi, eta bien aita biek baietza ematen dioten arte maitasun horri, igotzen igotzen doa emozioa. Eta handik aurrera baretu egiten da, lasaitu eta sendotu. Arku baten jarraiera hartzen du istorioak. Nolako konparazioz dagoelako adierazia! Zenbat modutako aitzakiz berrituak maite solasak, eta zer sikologiaz pintatuak bi maitaleak!

Eta istorio horren bazterrean Gorritxo. Hori du izena Garaziz interesatua zegoen beste mutilak. Aztikerien bidez berritu nahi du, neska berriz eskuratzeko esperantza; baina huts egiten diote hainbatek. Hala ere badu oraindik beste bat. Azkena du hau. Eta han dabil froga egin ala ez egin dudan. Alde batera nahi, eta bestera oker aterako ote zaion beldur da. Froga hori zera da: belar sortatxo bati su eman, eta kea norbere aldera okertzen bada, oraindik besteak maite duen seinale da. Kea zuzen gora joaten bada, baztertu duen seinale. Froga horrekin dabil atrebitu ezinik gure Gorritxo. Ikus nola kontatzen duen Orixek ("Iruleak" kantua, 201 lerroa):

(16 orrialdean sartzeko, 24. lerroaren ondotik)

"Artean, izkutuka ari da Gorritxo,
iztupa ta suaren aztarrena artzeko.
Gerriederrek Mikel ote-dun maiteko,
luza arren, nai baiño len zaigu jabetuko.

Sorgin-agin-zuloan koka-âla mullaztar
lurrean ipintzen du ikara ta dardar.
Eskutan atzera artu, artu-utz milla bidar,
bere burua atzitzen naiko lana dakar.

Igartxo dalakoan, agoz du lurrintzen;
erabiliz, ordea, geiago sorgintzen.
Zer gogora, zer asma, ez deusik asmatzen;
noizbait utzi bear ta, erabat dio uzten.

Zarpatik atera du sua piztekoa,
—erretzalea da ta berekin daroa—,
Mustulur'en an dago zuti pagondoa:
aren katxak luzaro sua gorde doa.

Oilloa baitabilla suge erdi-illarekin,
lepo-illea laztu, el nai ta ausar ezin,
mokozko bat eman ta izuz igesegin,
mizto ager-gordeak eman bailezo min?

Ala ari da Gorritxo su eman, ez eman;
irazeki baiño lên bai baitakus egan.
Urrats alperrik aski eginik birundan,
kokoriko jartzen da belaunak ikaran.

Ustekabe luza du suaren eskua,
onela laburtuko du arnas-estua.
Garra arturik, berêla billa nai zerua,
ezin zuzenagorik jun da aingeru-sua.

Itzali zaio oraintxe lêngo itxaropena:
neskaren ordez, gauzek diote etsipena.
Ark ere emain lioke, dudarik ez dena.
Mikeli jarkitzeko non, orde, kemena?"

Hori konparazioa! Hori adierazteko modua! Azkenean nahi gabe bezala eman dio su, eta hor bukatu da gure Gorritxoren itxaropena. Eta ez da gehiago amodiozko historia honetan agertuko.

Horra hor gure obra honetako pertsonaiak sailkatuak eta aipatuak. Bikoteaz aparte, izengabeak ia denak. Izendunik ere ekarri zitekeen. Badira beren izenez eta abizenez aitatuak daudenak.

Hor da Iriondo, basamutilen burua, egundaino hitz bat bestea baino altuago inori esan beharrik izan ez zuen gizona, mendiko kamaina etxeko ohe zuria baino maiteago zuena lo egiteko, goizean ANGELUS batekin bere mutilak altxaerazten omen zituena. Ederra gizona, ederrik bada!

Hor da Marimil Dorronsoro, andre ikaragarria, festa jartzaile amorratua, bertsolaria, lanean bezain ardoa edaten bizkorra. Hori figura! Badakar elkarrizketa lehergarri bat ama-alaben artean, alabaren dotea eta amaren ardotarako joera dela eta. Hori andre puska!

Hor da Baraibarko apaiz txintxoa. Hor da Mikela Otsanbelakoa, uhitziarren ongile haundia. Eta hor da beste horrelakoren bat.

Eta hor da Mikela Borda. Emakume gajo bat, atzeratu horietako bat. Horrek ere badu lekua poema honetan. Eta nolako lekua! Hura ere ateratzen dute dantzara eztaietan eta bertso bat kantatu ere egiten du. Mundiala da emakume honen deskribapena.

Lehenengoa "Gaztañaro" kantuan egiten zaigu, 713. lerrotik aurrera. Hona:

"Ortzak zorrotzik, su-atzean da
Mikela-borda baldana.
Amaika baba ta artopil bero
ango sukaldean jana.
Etxeko andre zabalak ba du
zabala bear-izana:
otordu batez errez jan leza
lau egunetako lana.

Arta-jalkitzen aria duzu
bazkaltzetik afaltzera;
arek jalkia zamari batek
ba deramake eiotzera.
Etxe-orde dun baztar artara
laister datorke atzera,
egun ta iguzki egin ez dizun
artzekoa lakatzera.

Okotzaundia, begi-ezkela,
galbaia aiñeko ezpaiña;
ortzez ederra, agoz betea,
gaiñez dario mingaiña.
Oiñak igesi, besoak zintzil,
koloka du bizkar-gaiña;
ipurdia, aldiz, galdu- eiñean:
orra neskazar liraiña."

Bigarrena "Eztaietan" kantuan dago, 489. lerrotik aurrera. Hona:

"Sukuntzak, deneri par arazten diela,
dantza-lagun billa du Borda'ko Mikela;
ezetz aurrena; baiña etsi de berêla;
oinbestetzat etzuten artu, gazte zela.

Ur bedeikatu-arri dirudin ezpaiña
aurrenik ezatu du ibiliz mingaiña;
beatzak an bustita jasoz anka-zaiña,
agerian jarri du gorpuz ez liraiña."

Hor dira denak. Baina hor, batez ere, herria da. Herri izenik gabea. Hori da egiazko protagonista. Eta poema honetan herritar bakoitza hor dago dagokion bezelako. Noiz, eta non, eta nola; baina denek dute beren lekua. Orixeren arte harrigarria, horiekin denekin herriaren irudi ezin-esan-alako ederra ematea da.

Denak orekan daude, direnez diren, ez haundiago ez txikiago, ez hobe ez txarrago. Beren-berenean ageri dira. Bada jende ederrik, eta bada nolabaitekorik; baina ederra, ez da ederregi; eta itsusia, ez da itsusiegi. Ez da inor baztertzen. Denek egiten dute herria, den bezela-bezelako.

Eta herri langile, alai, pobre eta xehe hau, benetako herri bat da. Ez da aingeruzko herri bat. Erreala da. Egiazko errealismoz erakutsia, ez errealismo asmatuzkoz eraikia. Bada onetik eta bada txarretik. Gogor salatutako akatsak ageri dira. Eta bakoitzari berea ematen zaio. Apaizak ere ez dira salbatzen. Beraz, ez da herri-erakusketa erromantiko bat. Kritikoa da. Hitz batean, egiazkoa da. Benetakoa.

Hori da Orixek arterik liluragarrienez aurkezten duen herria. Berea. Berak ezagutu eta bizitu izan duena. Ez du asmatu beharrik izan. Berak aurkezpena egin du bakarrik. Estetika bat eman dio. Eta zer kolorea duen pintura horrek! Eta zer joskura dantza horrek! Eta zer egokitasuna antzerki horrena!

Eta antolamendu hori egiterakoan, herri horren beraren estetikaz baliatu da, herri horrek ere bai baitu bere estetika, eta ez Greziak eta horrelako haundimaundiren batek bakarrik, zenbaitek uste dezakeen bezala. Estetika horren erara ondu du Orixek bere arte lana. Eta herri horrek landurik zituen zenbait pieza ere, asko, hor sartu ditu tartean: Ipui, kantu, dantza, aztikeria, esaera, eta zer ez! Pieza horiek denak tartean direla, eta bakoitza berari dagokion lekuan kokatuz, eta horien araberakoak berak asmatuz, tajutu du Orixek, etxe baten fatxada bat bezala, gure herriaren irudi paregabea.

Nola lotzen dituelako elkarrekin pieza horiek denak! Beti badu konparazio berria pertsonaia bera modu berriz deskribatzeko. Beti badu irtenbidea aurrera segitzeko. Beti badu kolpe orijinala egoerak errematatzeko. Berdinak diruditen sekuentzia guztiek ezberdina dute soluzioa eta irteera. Inoiz ez dago inspirazioa atertu zaion aztarnarik. Hori etorria.

Hitz batean, gizaki batena izatea beste mugarik ez du poema honek ederrean. Hobea izateko, jainko batena beharko zuen izan.

AXULARREN AIPAMEN BIBLIKO-ERLIJIOSOEZ ZERBAIT

Patxi Salaberri Muñoa

Aurreko artikulu batean azaldu genuen bezala (1998), *Gero*-ko aipamenen arloan luze mintza gintezke Axularrek erabilitakoez, izan ere liburuaren zati zabal bat aipamen-exenpluen "menpe" baitago. Are gehiago, zinez esan liteke nagusiki *auctoritas* arlokoak direla Axularrek argumentazioan darabiltzan baliabiderik oparoenetakoak.

Jakina da aipamen mota horiek autoritate argumentua bideratzeko tresnatzat hartu izan direla betidanik. Alabaina ezin zaie tesi-baieztapenerako elementu horiei ukatu berbaldi edo diskurtso bati, legozkiokeen entzule-irakurleekiko hurbiltasuna, errealitatearen zentzua, praktikotasuna eta erudizio kategoria ere ematen dizkiotenik. Hein batean, elementu horien guztien uztartze egokiak eskaintzen dio testuari balio gehiagoko edo gutxiagoko izaera.

Balio hori, Axularren kasuan, obraren funtzionamendu aszetikoaren araberakoa izango zen, praktikan irakurlearengan pizten (ez) zituen barne-mekanismoen araberakoa alegia.

Oroitzekoa da, dena den, testu-funtzionamendu horretarako erabili ohi ziren *auctoritas* arloko elementu horiek gradazio kuasikanoniko baten bidez eratuak izaten zirela erretorika eklesiastikoaren esparruan. Ildo horretatik, garbi esan daiteke bai teologikoki nola kronologikoki Axularren *loci*-ak eta, ondorioz, aipamenen sistema bera Melchor Canoren berrikuntza teologikoak (Bataillon 1979, 724-725) jaso zuenaren ondokoak direla. Haren arabera markatuko dira handik aurrera literatura erlijiosoan erabiliko den iturri eta aipamen hierarkia orokorra, Axularrek berak baliatuko duena.

Guztiarekin ezin ahaz daiteke aipamenetan Axular bere garaiaren semea dela, eta Mitxelenak adierazi legez, "aipamenak (eta aipamenen bidez seinalatzen diren iturburuak) giro baten fruitu dir[el]a, inondik ere. Giro horren barruan bizi denak adi ditzake; ez, ordea, arrotzak" (Mitxelena 1981, 287). Puntu inportantea hau, besteak beste testuaren egokitasunari buruz mintza dakigukeelako.

Aipamenak, beraz, zitekeen irakurleriaren mailaren araberakoak gertatuz gero, espero izatekoa zen laborari arrunten mundu-ikuskeratik hurbileko aipamenak eta beraiek erraz uler zitzaketenak suertatzea ugarienak.

Agian horixe izan liteke nabarmentzeko ezaugarri bat eremu bibliko eta erlijiosoko aipamenen erabilera eta arazoak marrazten saiatuko den artikulu honetan.

1. BIBLIATIK JASOTAKO AIPAMENAK

Erlijio katolikoaren iturria Eskritura Sainduak —Ebanjelioak batik bat— diren heinean, badirudi ez dela gehiegi luzatu behar prediku eta idazki aszetiko-moraletan hauek duten garrantziaren diskurtsoa. Halere, oinarria eta doktrinaren gailurra izateaz gain, Eskriturak biderik eraginkorren bezala hartu izan dira kristauaren adimendua aldarazteko eta haren borondatea bertutera mugiarazteko. Bertan Jainkoaren eta Jainkoak hautatuen hitza azaltzen denez gero, doktrinalki mezu-argitasunaren eredutzat joko da liburua, eta, aldi berean, predikazioaren iturri eta eredu formaltzat ere bertako exenplu eta konparazioak.

Horretan oinarrituz, Eskritura Sainduetako aipamenak (1) ezinbesteko bihurtu ziren Elizako lehenengo Gurasoen garaietatik aurrera, sermoietan bezala gainerako liburu erlijiosoetan otoitzen azalpenerako eta jaurtikitako iritzien berme gisa erabiltzen zirelarik. Horrela, "en momentos de crisis doctrinal, el recurso a los lugares se hizo más frecuente por temor a desviaciones punibles y como defensa de la palabra personal" (Herrero Salgado 1993a, 507).

Zenbaitetan, halere, Eskritura Sakratuak ahozko nahiz idatzizko berbaldien benetako bizkarrezurra izan ohi ziren. Eta ez bakarrik bizkarrezur idelologiko-erlijiosoa, ez; maiz asko azaldu nahi zenaren hari bideratzailea ere izaten zen, elementu desberdinak uztartu eta interpretatzeko eredu formala alegia.

Betiere, eta hau gogoratu beharreko puntua da, predikazioetako argumentazio teologikoetan pasarte biblikoen interpretazioa San Tomas Akinokoak markatu irizpideen barnean (haren "I, q.1, a. 10, ad 1" erreferentzia klasikoan daudenak hain zuzen) egin ohi zen, hots, zentzu literalean. Diego de Estellak garbi eta umore garratzez jasotzen du predikazioan gorde behar den zentzu literalaren premia hori:

(1) Herri-hizkuntzak direla eta, aipatua da jadanik Eliza Katolikoak zeraman politika estua. Bibliatik jasotako aipamenei dagokienez, erabilera ere zehaztuta zegoen: "Como la experiencia aya enseñao, que de permitirse la sagrada Biblia en lengua vulgar, se sigue, por la temeridad de los hombres, más daño que provecho, *se prohibe la Biblia con todas sus partes impressa, o de mano, en qualquier lengua vulgar*; i assi mismo los Sumarios, i compendios, aunque sean historiales, de la misma Biblia, o libros de la Sagrada Escritura, escritos en qualquier idioma, o lengua vulgar: *pero no las clausulas, sentencias, o capitulo, que della anduvieren insertos en los libros de catolicos, que los explican i alegan*: ni menos las Epistolas i Evangelios, que se cantan en la Missa por el discurso del año, no estando solos, sino juntamente el sermon, o declaracion, que para edificacion de los fieles sobre cada uno dellos se ha compuesto, o compusiere". (*Index librorum prohibitorum...*, 3 or.; gurea da letrakera etzana).

> "De los cuatro sentidos de la Sagrada Escritura, que son literal y moral, alegórico y anagógico, de los dos ha de usar el predicador, que son literal y moral... Ahora que la Iglesia está fundada, y predicamos no a gentiles sino a cristianos, que aunque tienen fe son viciosos pecadores, piérdese el tiempo en alegorías y anagogías, y por eso es necesario doctrina moral, donde se reprendan los vicios y enseñan las virtudes... Dime, ¿qué provecho se saca estar una hora haciendo a nuestra Señora castillo, y que la torre del homenaje es la fe, y cómo la fe es el marfil? ... ¿Qué doctrina y qué reformación de costumbres se saca de todo esto? Si de esta manera has de predicar, no gastes dineros en comprar Crisóstomo, ni Agustín, sino compra a *Amadis* y a *Florambel* y entre todos es muy lindo *Cristalián de España*, porque tiene más encantamientos que los otros; y harás más presto tonto a ti y al auditorio" (2).

Axularrek ere parametro horren arabera moldatuko du *Gero* guztia. Bibliatik at jasotako aipamen, interpretazio, exenplu eta bestelakoek liburu sakratuaren menpe egongo dira etengabe, haren interpretaziorako txertatuak. Areago, lehenengo orrialdeetan alferkeriaren inguruan planteatu arazo biblikoarekin hasi eta azken orrialdeetako konbertsio premiaren ondorioraino iritsi arte tartekatutako pasarte guztiek funtzio interpretatzaile eta argi-emaile hori baino ez dute izango.

Ugaria da Axularrek Bibliaz egin zuen erabilera -betiere zentzu literala gordeaz edota, gehienik ere, zentzu literal horrekin kontraesanean erortzeko arriskua saihestuz, jakina-, izan ere obran zehar ematen dituen aipamen guztietatik ia erdia Bibliatik jasoa da eta. Baina hau ez da inorentzat sekretua, Axularrek berak liburuaren azalean bertan aitortzen baitu "Escritura saindutik, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debocinozcoetaric ... vilduac" direla *Gero*-n daudenak, aipamenak eta bestelakoak hain zuzen.

Lafittek 350 bat aipamen testu aurkitu uste zituen Axularren obran (3). Guk hogeita hamar bat gehiago zenbatu dugu denetara (4). Halere, beste baterako utziko dugu *Biblia*-n dagozkien erreferentzia zuzen guztien zerrenda eskaintzearena (5).

---

(2) Diego de Estella, *Modus concionandi*, Salamanca, 1576,18-36 or. (apud Herrero Salgado 1993b, 280).

(3) "350 textes scripturaires, que généralement il paraphrase savoureusement, au lieu den donner une traduction littérale" (Lafitte 1943, 38). Dena den, askoz ere urriago izan zen Etxeberriak aurkitu uste zuena: "Bibliako irakurgaiak dira geien darabilzkianak: 286 aldiz" (Etxeberria 1973, 76). Kopuru desberdintasun hauen arrazoia erreferentziarik gabeko aipamenetan eta gaizki erreferentziaturikoetan datza besteak beste.

(4) Iturrien arazoa dela eta, Axularrek egiten dituen aipamen guztiez gain, liburuan barrena Bibliatik jasoak diren pasarteak ere identifikatzen saiatu gara.

(5) Hemen, zenbakietarako, 1592an argitaratutako testua —betidaniko *Vulgata*— erabiliko den arren, Biblia osatzen duten liburuen izenak eta laburdurak emateko *Elizen arteko Biblia* burutu berrian (1994) proposatzen direnez baliatu gara.

1.1. Testamentu Zaharra

Adierazgarria da oso zeintzu diren Axularrek aipamen garbietarako (6) gehien erabiltzen dituen liburuak ikustea, desoreka haundia baitago, nolabait esateko, liburuen arteko erabileran.

Erabilienen artean honako hauek aurki daitezke (7): *Salmoak* (39 aldiz) (8), *Esaera Zaharrak* (37) eta *Siraken Jakinduria* edo *Eklesiastikoa* (34).

Beste maila apalago batean honako hauek ditugu: *Hasiera* edo *Genesia* (19 aldiz), *Job* (13), *Isaisasen Profezia* (9), *Jeremias*-ena (9), *Erregeak* (9) (hots, *1 Samuel* 3 aldiz eta *2 Samuel* 6 aldiz), *Irteera* edo *Exodoa* (7), *Kohelet* edo *Eklesiastesa* (6) eta *Deuteronomioa* (5).

Erabilera apalagoa da honako liburu hauena: *Jakinduria* (4), *Daniel-en Profezia* (4), *Makabearrak* (4) (*1 Makabearrak* eta *2 Makabearrak* bina aipamen), *Negar Kantak* edo *Jeremiasen Deitoreak* (3), *Ezekielen Profezia* (3), *Oseas*-ena (3) eta Salomonen *Kantarik Ederrena* (3)

Bestalde, ia erabat testimoniala da beste liburu hauen presentzia: *Jonasen Profezia* (2), *Malakias*-ena (2), *Mikeas*-ena (2), *Lebitarrena* (2), *Zenbakiak* (1), *Habakuken Profezia* (1), *Sofoniasen Profezia* (1).

Vulgatan *Biblia*-tik at dauden *Esdras*-en 3. eta 4. liburuetatik Axularrek laugarrena baino ez du erabiltzen, eta behin bakarrik gainera.

Ez dira behin ere aipatzen : *Josue, Epaileak, Rut, Erregeak III* eta *IV* (hots, gaurko *Bibliako I Erregeak* eta *II Erregeak* hain zuzen), *Kronikak* edo *Paralipomenak I* eta *II, Nehemias, Tobias, Judit* eta *Ester.* Profeten artean baztertuta daude *Baruken Profezia, Joel*-ena, *Amos*-ena, *Abdias*-ena, *Nahumen*-ena, *Ageo*-rena eta *Zakarias*-ena.

Ikusten denez, nabarmena da liburu poetiko-jakinduriazkoen presentzia, batik bat *Salmoak, Esaera Zaharrak, Job, Kohelet, Jakinduria, Ben Sirak* eta

(6) Aipamen garbitzat hartuko ditugu latinezko testua daramatenak edota alboan —"in margine", alegia— erreferentzia daramatenak.

(7) Gorago esan bezala, hemen emango direnak baino nabarmen gutxiago aurkitu bide zituen Etxeberriak: "*Ecclesiastes-Ecclesiasticus* 36 aldiz (Gogoetak-Ikastuna); *Proverbia* 35 aldiz (Itzurrak); *Liber Psalmorum* 32 aldiz (Eresiak); *Matheus* 31 aldiz (Matai); *Epistolae Paulinae* 29 aldiz (Erromarrei, Korintoarrei, Galatiarrei... eta abar); *Luca* 15 aldiz (Luka); *Genesis* 13 aldiz (Asiera); *Johannis* 12 aldiz (Yon); *Iob* 12 aldiz (Yob); *Hieremia* 9 aldiz (Yeremi); *Liber Regnum* 8 aldiz (Samuel-Bakaldunena); *Exodus* 6 aldiz (Irtenera); *Sapientia* 5 aldiz (Yakintza); *Deuteronomium* 5 aldiz (Italdiak); eta beste gañerako liburuak bein edo beste" (Etxeberria 1973, 76).

(8) Salmoei dagokienez, *Vulgata*-ko kapitulu eta bertsikulu zenbakiak ezin daitezke bat etorri *Biblia* modernokoarekin, ezaguna baita *Vulgata*-k ez duela bertsio hebraitarraren ondozkapena jarraitzen, hots, zenbaki bat atzeratuta doala 10. salmotik 147.era bitartean. Guk hemen Axularrek eta autore zaharrek erabilitako ondozkapenari segituko diogu, *Vulgata*-k daramanari alegia. Okerrik gerta ez dadin, berdintsu beste puntu honi buruz ere: *Vulgata*-n oinarritutako edizioetan *I Erregeak* eta *II Erregeak* liburuak gaur eguneko *Biblia*-n *I Samuel* eta *II Samuel* dira.

Kantarik Ederrena izeneko liburuena. Denetara, Itun Zaharrari dagozkion 235 pasarte, erreferentzia edota aipamenen artean, 136 aipamen zuzen zenbatu ditugu jakinduriazkoen arlokoak (9). Biziki atzerago geratzen dira liburu profetikoak eta Pentateukokoak (hogeita hamabosna aipamen inguru) eta liburu historikoak (14 aipamen).

Horren esplikagarri oratoria sakratuan aholkatzen dena izan daiteke neurri batean behintzat (10). Baina, horrezaz gainera, badirudi liburuaren mezu-hartzaile izan behar zuen herriko jendeak ongien uler zitzakeen liburuak zirela horiek, mamian eta mamitzat duten planteamendu gnomikoagatik, hain zuzen. Izan ere, Bibliako liburu grafikoenak dira gehien erabili diren horiek. Grafikotasun hori, esan gabe doa, esaldi motzetan (atsotzitzen parekoak) eta irudi arinetan letzake nagusiki; horrelakoak dira *Salmoak, Esaera Zaharrak* eta *Siraken Jakinduria.* Areago, jakina denez, topiko bihurtu da dagoeneko *Esaera Zaharrak* liburuak jakituria gnomikoa jasotzen duela, herri jakituriaren lehenengo maila dela, nolabait esateko. Baieztapen honek badu oinarririk, izan ere jakinduriazko eremu bibliko hau, herri xehearengandik hurbilen dagoena hain zuzen, eguneroko giza-esperientzietatik aterea baitzen, naturarekiko harremanetatik jasoa.

Liburu mota horrek zuen helburua, hots, errealitatetik jokabide zuzen eta egoki baterako ikasgai praktikoak ateratzea, helburu hori bera izango da testu horietan oinarrituz Axularrek bilatuko duena bere lan aszetiko honetan. Didaktismoa, beraz, nagusi.

1.2. **Testamentu Berria**

Denetara, Itun Berriari dagozkion aipamenak ehun eta berrogeita sei dira, Itun Zaharrekoak baino biziki gutxiago, laurogeita hamar bat gutxiago.

Aurrekoan bezalaxe, honetan ere haundiak dira "desorekak". Batik bat ebanjelioen artean nabarituko da desorekarik handiena: *Mateo*-rena gehien aipatua da (46 aldiz) eta *Markos*-ena guxien erabiltzen dena (behin bakarrik), tartean *Lukas*-ena (19) eta *Joan*-ena (13) daudelarik.

Lukasena omen den *Apostoluen Eginak* liburua 4 aldiz erabiltzen da.

(9) "Zuzen" diogu 136 aipamen horietan ez direlako kontutan hartu beherago aipatuko diren zeharkako aipamen "izkutuak", ez eta, beste liburuetakoak izan arren, hurbileko ideiak ukitzen dituztenak ere. Itun Zaharreko berrehun eta hogeita hamabost erreferentzietan, ordea, bai, sartuta daude horiek guztiak. Portzentaiak, hortaz, jakinduriazko liburuen erabilpen kopurua areagotuko luke eta esandakoa berretsi.

(10) "De la licion de las santas escrituras procuremos escoger los lugares más recónditos, que con su novedad y dignidad exciten á los oyentes: muchos de los cuales pueden recogerse de los libros de los profetas y de la Sabiduria" (Granada, *Retórica,* 513).

Era berean Gutunen artean *Erromatarrei* zuzendua da erlatiboki gailentzen dena (13 aldiz), atzetik *Korintoarrei* zuzendua (10 aldiz, hots, lehena 7 aldiz eta bigarrena 3 aldiz), *Galaziarrei* (4), *Efesoarrei* (4), *Filipoarrei* (1), *Kolosarrei* (1), *I Timoteori* (2), *II Timoteori* (3), *Hebertarrei* (2), *Santiago* (4), *II Pedro* (2) eta *I Joan* (2) aurkitzen direlarik. *Apokalipsia* liburutik 7 aipamen jasotzen dira.

Beste modu batez esateko, *Mateo*-ren gailentasunaz aparte, San Pauloren protagonismoa nabarmena da, haren gutunetatik 40 bat aipamen egiten dira. Ondoko hauek, aldiz, aipatzeke geratzen dira *Gero* guztian: *Tesalonikarrei, Titori* eta *Filemoni* zuzendutako gutunak eta *Judas, I Pedro* eta *II Joan* eta *III Joan.*

Edozein modutan, eta planteamendua gehiegi sinplifikatu nahi gabe, garbi esan liteke hemen ere eredu didaktikoaren menpe dagoela Axularren aukera (aszetikak berez eskatzen duenaz gain, jakina), esparru horietakotzat hartu izan dira betidanik *Epistola* novotestamentarioak (hemen, berrogeita bost bat denetara)

1.3. **Aipatu edota erreferentziatu gabekoak**

Aurrekoez gain, badira zenbait pasarte, normalean zati narratibo-esplikatiboak aberasteko testuan tartekatuak, Bibliaren erabilera aski zuzena (nahiz eta zeharkakoa ere egiten den) adierazten dutenak. Agi denez, ez dute inolako erreferentziarik alboan, narrazioan txertaturik bezala baitaude. Besteak beste, eta exhaustibotasun asmorik gabe, hona hemen erabilienetariko batzuk: Testamentu Zaharreko *Hasiera* liburua (11), *Irteera* (12), *Erregeak* (13), *Zenbakiak* (14), *Lebitarrena* (15), *Kohelet* (16), etab. Testamentu Berriari dagokionez, honako hauek dira aurkitu ditugun argienetariko zenbait: *Mateo* (17), *Lukas* (18), *Timoteori* (19), *Erromatarrei* (20), etab.

Hauek guztiak, adierazi bezala, tartekatuak izan dira liburuan bertan jasotzen diren gertaerak edota irudi desberdinak azaltzeko, eta, sarri askotan,

(11) Hona hemen erreferentziak eta *Gero*-n aurkitzeko orrialdea: Has 1, 26-27 (*Gero*, 21or.), Has 19, 26 (*Gero* 466 or.), Has 27, 42-45 (*Gero*, 290 or.), etab.

(12) Ir 12, 37 (*Gero*, 26 or.); Ir 28, 33-34 (*Gero*, 458 or.), etab.

(13) 1 Erg 17,50 (*Gero*, 89 or.), 1 Erg 17, 54 (*Gero*, 90 or.), 2 Erg 13, 1-15 (*Gero*, 388-389 or.), etab.

(14) Zen 21, 5 (*Gero*, 519 eta 601 or.)...

(15) Lb 1, 14 (*Gero*, 171 or.)...

(16) Koh 12 (*Gero*, 182 or.)...

(17) Mt 11, 30 (*Gero*483 or.)...

(18) Lk 2, 42-46 (*Gero*, 82 or.); 15, 4-5 (*Gero*, 554 or.); 15, 8-10 (*Gero*, 549-550 or.); 15, 11-32 (*Gero*, 554 or.); 16, 24 (*Gero*, 597 or.)...

(19) 1 Tm 1, 19 (*Gero*, 450 or.)...

(20) Erm 2, 5-11 (*Gero*, 574 or.)...

exemplum modura. Normalean aski pasarte ezagunak dira kristau arruntarentzat eta ez bide dute, berez, erreferentzien beharrik. Orduko sinistunen ohiko irudi multzoko pasarteak ziren (21).

1.4. **Bibliako aipamenen arazoez**

Formalki *Biblia*ko aipamenen artean ez dago oker handirik, normalean grafiari dagozkion akats txiki batzuk izan ezik.

Bestalde, argi da *Biblia*tik jasotako aipamenen erreferentzia gehienak ondo eta zuzen daudela, 1. eta 2. tauletan ikus daitekeen bezala. Badira, dena den, agian inprimatzaileari testua konposatzerakoan isuritako akatsak. Akats hauek konstante batzuk erakusten dituzte eskuarki: bi zifratako erreferentzi zenbakietan edo lehena edo bigarrena zuzenak ohi dira (22); hauxe da, zalantzarik gabe, akatsik hedatuena. Bestalde, betiko okerrak ere ez dira falta: 2 eta 7 zenbakien arteko konfusioa, 1 eta 2, eta 3 eta 5aren artekoa, etab. Honek, printzipioz, eskuz idatzitako testuaren irakurket gaiztoaren ondorioa dela adieraz lezake

Hipotesi bezala, beraz, zinez pentsa liteke *Biblia*koak direnak bertatik hartutakoak direla oro har. Edonola ere, inoiz beste testu batetik hartua izan bada, Axularrek zuzenean konprobatzeko aukera izan zuela, eta horrela egingo zuela agian.

Azpimarratu behar da, halaber, zenbait pasartetan egileak zatiak moztu edota ezabatu egiten dituela, testuinguruak edo argumentazioak hala eskatzen dionean. Beste zenbaitetan, interes berdinek eramanda, jatorrizko aipamenaren hasiera bukaeran jarrita agertuko da eta bukaerako pasartea hasieran, erreferentziekin ongi lotuak betiere.

Nolanahi ere, Fr. Dolbeau-k (1986) jorratutako hipotesietatik abiatuz gero, balirudike tarteko iturririk ere erabili zuela Axularrek *Biblia*ko aipamenetarako. Hipotesi horien arabera, tarteko iturria nabarmen geratuko litzateke baldintza hauek emango balira:

> "a) la présence d'un commentaire un peu développé; b) des écarts importants entre la Vulgate et la version citée; c) l'association en chaîne de versets scripturaires empruntés à des livres différents" (apud Reu 1993, 334).

---

(21) Hona hemen, esaterako, ezagunenetako bat: "[...] eta dantzatic (Herodes baithan eguin çuen beçala) heriotcea atheratcen du" amorio desordenatuak (*Gero*, 356 or.). Erreferentzia biblikoa *Mk* 6, 22-28 da.

(22) Erreferentziak gaizki dituztenen artean adierazgarriak dira, esaterako, *Ben Siraken Jakinduria* liburuaren aipamenak (*Gero*, 336, 360 eta 415 or.) eta *Esaera Zaharrak* izenekoarenak (*Gero*, 49 eta 559 or.). Modu berean, ikus *Salmoak* (*Gero*, 509 or.), *Erregeak* (*Gero*, 61 eta 312 or.), *Isaias* (*Gero*, 119 or.), *Daniel* (*Gero*, 449 or.), *Ezekiel* (*Gero*, 196 eta 380 or.), *Job* (*Gero*, 94 or.), etab. Berdintsu gertatzen da Testamentu Berrikoetan: *Mateo* (*Gero*, 97, 103, 200, 231, 260, 494 eta 506 or.), *Lukas* (*Gero*, 247, 310 eta 548-549 or.), *Apostoluen Eginak* (*Gero*, 23 eta 128 or.), *Erromatarrei* (*Gero*, 294 or.), *Apokalipsia* (*Gero*, 581 or.), etab.

Edozein orrialdetan zabalduta ere, badirudi horko baldintza horiek, noiz gehiago, noiz gutxiago, eurrez ematen direla *Gero*-n: 55-56 or.; 111-113; 187-188; 211-213; 482; 499-502; 508-509; 568 or.; etab. Agian adibiderik adierazgarriena XLVII. kapituluaren lehen atalekoa genuke, dozena bat aipamen bibliko eskaintzen da elkarren segidan (*Gero*, 474-478). Hori bai, ez dago testuan akats edota alderik jatorrizko bertsioarekin, *Vulgata*-rekin alegia, konparatuta.

Testamentu Zaharra

	ERREFERENTZIAK EDOTA LATINEZ EMANDAKO TESTUAK				BESTERIK
	KOPURUA	ONDO	GAZKI	GABE	
HASIERA	19	17	2	—	3
IRTEERA	7	5	1	1	1
LEBITARRENA	2	2	—	—	1
ZENBAKIAK	1	1	—	—	2
DEUTERONOMIOA	5	5	—	—	—
ERREGEAK (1, 2) (1 Samuel) (2 Samuel)	9	6	3	—	3
4 ESDRAS	1	1	—	—	—
JOB	13	10	1	2	—
SALMOAK	39	33	3	3	—
ESAERA ZAHAR.	37	29	6	2	—
KOHELET	6	5	—	1	1
KANT. EDERRENA	3	2	1	—	—
JAKINDURIA	4	3	1	—	—
SIRAKEN JAKIND.	34	26	6	2	—
ISAIAS	9	7	1	1	—
JEREMIAS	9	7	—	2	—
NEGAR KANTAK	4	4	—	—	—
EZEKIEL	3	1	2	—	—
DANIEL	4	2	1	1	—
OSEAS	3	2	1	—	—
JONAS	2	1	1	—	—
MIKEAS	2	2	—	—	—
HABAKUK	1	1	—	—	—
SOFONIAS	1	1	—	—	—
MALAKIAS	2	1	1	—	—
MAKABEARRAK	4	2	1	1	—

Testamentu Berria

	ERREFERENTZIAK EDOTA LATINEZ EMANDAKO TESTUAK				BESTERIK
	KOPURUA	ONDO	GAZKI	GABE	
MATEO	47	26	9	11	1
MARKOS	1	1	—	—	—
LUKAS	19	16	3	—	5
JOAN	13	11	—	2	—
APOST. EGINAK	4	2	1	1	—
ERROMATARREI	13	7	2	4	1
1 KORINTOARREI	7	6	—	1	—
2 KORINTOARREI	3	2	1	—	—
GALAZIARREI	4	3	1	—	—
EFESOARREI	4	3	1	—	—
FILIPOARREI	1	—	—	1	—
KOLOSARREI	1	1	—	—	—
1 TIMOTEORI	2	1	1	—	1
2 TIMOTEORI	3	2	1	—	—
HEBERTARREI	2	2	—	—	—
SANTIAGO	4	3	1	—	—
2 PEDRO	2	2	—	—	—
1 JOAN	2	2	—	—	—
APOKALIPSIA	7	5	2	—	—

2. ELIZAKO GURASO ETA DOKTOREAK ETA IDAZLE KRISTAUAK

Esana dugu jadanik Axularren obran aipamenak etengabe agertzen direla orrialdeetan barna. Horietatik, egile kristauen esparrukoak izango dira gehienak, nahiz eta bestelakorik ere aurkitzen den.

Oro har, Bibliari dagozkion aipuak aparteko multzo batean utziko bagenitu, Axularrek libururatzen dituen guztiak beste bi multzo orokorretan bereiz genitzake: autore kristauena, batetik, eta "jentilena" (23) (hau da, kristauak ez diren klasikoenak), bestetik (24).

Iturri kristauen artean denetatik aurki daiteke Axularrenean: doktore handi ezagunak, hain handi ez direnak, ezezagunak, autore garaikideak, teologoak,

(23) Ikus gorago aipatu artikulua (Salaberri, *Euskera*, 1998).

(24) Katoliko "onetsia"-k edota klasikoak ez diren autoreak ez ditu Axularrek aipatzen: ez Granadarenean hain garrantzitsua zen Erasmo bera ere; are gutxiago protestanteak eta ateoak.

kontzilioetako testuak, eskrituretako exegesian erabilitako glosak, etab. Hemen guztietako ezaugarri esanguratsuenak baino ez ditugu agertuko.

2.1. **Tradizio zaharrekoak**

Ezaguna da Bibliaren iturria ez dela inoiz nahi bezain gardena izan. Are gehiago, iluntasun eta zalantzek alor exegetikoa urratzera bulkatu zuten neurrian, badirudi erlijio edota dibergentzia erlijioso batzuen jaiotza testu eta pasarte zenbaiten interpretazio desberdinetan zetzala.

Jakina, erlijio katolikoak tinko eta estu bideratua zuen interpretazioen kanona (zer esanik ez Trentokoaz geroztik!), Eskritura Sainduen ondoren, Elizako Gurasoen multzoa osatzen zuten saindu —Jainkoaren inspirazioagatik— jakitunak zirelarik liburu sainduen interpretatzaileak eta argi-emaileak.

Oro har, Axularrek aipatzen dituen "Eliçaco Doctor" horien kontzeptuak Elizako Guraso direnak (25) eta benetan "Elizako Doktore" zirenak (26) barneratzen ditu zaku berean —inolako bereizketarik egin gabe, jakina—. Egia esan, eskolastika kanon patristikoa aberastera aspalditxo etorria zen.

> "Con el Concilio de Trento empieza una nueva consolidación y una extensión del poderío de la Iglesia; se inicia entonces la costumbre de elevar a la dignidad de Doctores de la Iglesia a los grandes maestros cristianos de la modernidad, como Santo Tomás, San Anselmo, San Bernardo de Claravalle, San Alfonso de Ligorio, San Francisco de Sales [...] Los *Doctores Ecclesiae* forman una corporación santa en la que conviven amigablemente los *antiqui* con los *moderni*" (Curtius 1976, 366).

Horren ondotik etorritako kanonak idazleen araberakoak ohi ziren. XVI. mendeko erretorika eklesiastikoaz ziharduten liburuetan, esate baterako, oso zehatz aholkatzen zitzaien predikariei zeintzuk ziren kanon horretatik gehien erabili behar ziren autoreak. Honela zioen Fray Diego Valades-ek berean (*Rhetorica Christiana*, Perusa, 1579): "Aquel par sin par de verdaderos amigos, Gregorio y Basilio [...]. Y los santos Ambrosio, Crisóstomo, Agustino, Jerónimo, Cipriano [..]. Estos son los maestros que ha de seguir y los modelos que ha de imitar el predicador evangélico" (apud Olmedo 1960, civ).

Esan bezala, beraz, gertu eta prest zuten prezeptista guztiek irakurri beharreko autoreen zerrendaren bat edo beste, luzeagoa edo motzagoa. Bide ho-

(25) Ezaguna da Eliza kristauak kanon biblikoa osatzeko beharra nabaritu zuenean ekin ziola idazle kristau zahar-klasikoen arteko hautaketa (= kanon teologiko berria) egiteari. Horietatik sortuko zen "Elizako Guraso" delako kontzeptua. Oro har, ekialdeko Elizak ezarritako San Basilio Magno, San Gregorio Naziantzokoa eta San Joan Krisostomoa eta mendebaldekoak aukeratutako S. Atanasio, S. Agustin, S. Anbrosio, S. Jeronimo, S. Gregorio Magno izan ziren hasierako "maisuak" (cfr. Curtius, 1976, 366)

(26) "Elizako Doktoreak" ez dira "Guraso" ezinbestean.

rretatik abiatuko zaio Terrones del Caño hasiberriari (27), aholkatutako horietara jo behar baitzen doktrinaren garbitasuna mantendu ahal izateko

Garaiko aszetika-autore gehienek bezala, Axularrek ere bere egin bide zuen jarraitu beharreko autoritateen aholku nagusia, Trentokoaz geroztik autore batetik bestera ia aldaketarik ez zuena hain zuzen.

Erabilpenaren maiztasunari gagozkiolarik, honako hauek dira, oro har, *Gero*-n agertzen zaizkigun patristika arloko idazle garrantzitsuenak: San Agustin (84 aldiz), San Joan Krisostomoa (55 aldiz), San Isidoro (50), Santo Tomas (38), San Anbrosio (17), San Basilio (11), San Jeronimo (11), San Bernardo (4), San Gregorio (20), San Juan Climaco (2), San Zipriano (behin), San Pedro Damiano.

Prestakuntza unibertsitarioa zela eta, horietatik Axularrek ongien eta sakonen ezagutu behar zuen autorea Santo Tomas zen, etengabe ihardun behar izaten baitzuten orduko teologogaiek eskolastika ikasten. Horren ondorioz agian, Axularrek Akinatea testuratzen duenetan erakusten duen aztertze prozedura ere Salamancako unibertsitateko estatutuen arabera klaseetan erabiltzen zena bezalakoa da:

> "Los [...] dos Cathedraticos de Prima y Visperas sean obligados en los principios de las questiones a *leer la letra del maestro* [Santo Tomasen sententzia liburuei buruz ari da] que a ellas corresponde, *declarando las conclusiones y auctoridades del Maestro, y de los Doctores que tratan aquella materia, y en que es comunmente aprouado, o no*" (Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 62; gurea da letrakera etzana).

Ildo horretakoa izango da ohiko glosak ere *(glossa ordinaria)* beteko duen funtzioa. Nabarmendu beharrik ez dago Erdi Aroan predikari eta elizako idazleen artean izan zuen arrakasta. Horrezaz gainera, gogora bedi, komentario patristikoetara iristeko bidea izan zen glosarena. Longèrek dioen bezala,

> "La *glossa ordinaria* eut auprès des maîtres et des prédicateurs un succès durable et jouit peu à peu d'une autorité qu'on a pu comparer à celle du décret de Gratien ou des Sentences de Pierre Lombard" (Longère 1983, 186).

Arrakasta, dena den, apalduaz joan zen XVI. mendearen hasieran eta, batik bat inprentaren bidez lortu zen liburu-demokratizazioagatik, bestelako testuak ere (patristikakoak, besteak beste) areagotu ziren predikari eta elizgizonen lan-

(27) "Para comenzar a estudiar la Sagrada Escriptura, en general son libros a propósito para principiantes: de los modernos las *Hypotyposes* del Cantapretense; *Bibliotheca Sancta Sixti Senensis*; *Regulæ Scripturæ* del Obispo de Osma; *Annotationes in Sacram Scripturam* de Pedro Antón Benter; *Phrases* de Villavicencio; *Aparato Sacro* de Arias Montano, y sus *Prolegómenos*, y del Padre Ribera sobre los Profetas Menores; Cano, *De Locis Theologicis*, 1.2. Con estos libros y otros así se sabe lo general de los libros y reglas de la Sagrada Escriptura; pero en particular, cuanto al sentido literal, los libros a propósito son: San Jerónimo en todo lo que comentó; [...] y otros que van saliendo cada día, especialmente portugueses y otros extranjeros" (Terrones del Caño, *Instrucción de Predicadores*, 31-32).

mahaietan, ordurarte predikazio eta lan idatzietan glosak izandako lehen mailako garrantzia difuminatuaz joan zelarik.

Arrakasta apalduaz joan zen, era berean, Pedro Lombardoaren *Liber Sententiarum* izeneko obra garrantzitsuari dagokionez, XVI. mendearen erdi aldean Santo Tomasen *Summa* delakoak kendua baitzion Teologia fakultateetan ordurarte Lombardoarenak ikasketa eta prestakuntza erlijiosoan bete zuen leku pribilegiatua.

Bien adierazgarri izan daitezke Axularrenean ikusten diren aztarnak, Lombardoarenak aipamen bakarra jasotzen baitu.

Bestalde, glosaren eragina norainokoa izan den atzematea zail xamarra litzatekeen arren, zenbaitetan Axularrek klarki adieraziko du glosa erabili izana. Aipatzean, dena den, hiru modutako glosak aipatzen ditu: *glosa ordinaria* moduan (40 eta 384 or.), *glosa lirana* bezala (119, 220, 384, 475, 526 eta 529 or.) eta, hirugarrenik, *glosa interlineal* moduan (271 or.).

Bestelako autore erlijiosoez bezainbatean, Axularrek garaikideen ohiko joera erakusten du. Aurreko mendeetakoak direnean normalean aipatuak eta erreferentziatuak izango dira. Ezinbestekoa zuen, esaterako, P. Lonbardiarraren *Libri quattuor sententiarum* liburua aipatzea, besteak beste honako hau zelako, hots, "sistema teológico en que se engloban las «decisiones» (sentencias) de los Padres de la Iglesia y de los autores más recientes, y que quedaría muy pronto constituído en texto escolar [...]" (Curtius 1989, 87). Halaz ere, hain ezaguna bide zen obra hari aipamen bat baino ez dio Axularrek aitortzen.

2.2. **Autore garaikideez**

Axularren garaikide izandakoekin edo, bera bizirik zegoela, oraindik ere garaikide zituenen obrekin erakutsitako jokabidea ez da aurrekoekin izandakoa bezain "gardena". Frai Luis Granadakoari, frogatu den bezala, ez dio inolako aipamenik eskaintzen. Noski, zorra handiegia gerta zitekeelako, inondik ere.

Beste garaikide batzuekin, aldiz, zorrak —txikiagoak ziurrenik— kitatu egiten bide dira arazorik gabe. Hau da, esaterako, Zumelen kasua:

> "Bere garaiko autoreetarik Zumel da Axularrek aipatzen dituenetako bat, bere eskola nabusitzat aitortuaz, gainera (n.º 69). Bekatari ostinatu, gogortu eta itsutuen kontua esplikatzen du hemen Axularrek, bere eskola-nabusia gidaritzat hartuz. Seguru asko honen liburuak izango zituen bai Axularrek. Hemen, Arantzazuko liburutegian, badira Zumelen bi liburu: *De Deo ejusque operibus, Salamanca* [sic] 1590. Eta beste bat, aurreko orriak falta ditüena, Salamancan 1585. urtean agertua. Biotan azaltzen da Axularren pundu hau: lehenbizikoan 659. orrialdean; bigarrenean 616. orrialdean. Eta Axularrek

> pundu honi buruz dakarzkien zitak (Bibliatik edo Eliz Gurasoetarik hartuak), ia denak Zumelen obretan datozen berberak dira. Zumelen beraren pasartea hitzez hitz Axularrek dakarren bezala ez dut aurkitu, baina bai antzera xamar" (Villasante 1972, 134-135).

Zumeli dagokionez, jakina da ospe handiko gizon hau Molinaren etsairik handiena izan zela XVI. mendearen azken urteetako eztabaida teologikoetan. Horrezaz gain, kontutan hartu behar da Salamancako unibertsitateko kantzelariordekoa eta Teologia Fakultateko dekanoa izandakoa Zumel aipatze hutsak berak, eta batez ere irakasle izan zuela esateak, prestigioa baino ez ziola ematen Axularri. Pérez Goyenak adierazten duen legez, XVII. mendeko teologoek "le alegaban bastante, ora en apoyo de sus opiniones, ora para impugnarle" (Pérez Goyena 1919, 37). Berdintsu esan liteke "doktor Navarro" deitzen zuten Martin Azpilkuetari buruz (*Gero*, 243-244).

Domingo de Sotoren erreferentzia biak direla eta, *In Quartum Sententiarum commentaria* liburutik jasoak direla dio urdazubiarrak (28). Dena den, Sotoren testuak eta dotrina egile espainiar askoren obretan ere aurki daitezke. Maiztxo aipatu izan da Luis de León, Herrera, Suárez eta beste hainbatengan izandako eragina, hauetako batzuetan plagioraino iritsi zena. Hortaz, hain zabaldua eta ospetsua izan bazen haren obra, ez da harritzekoa Axularrek haren —zeharkako?— erreferentziak erabili izana.

Granadako Luisek biziki laudatua izan zen Ribadeneira Axularrek behin baino ez du aipatzen. Aipamena, gainera, exenplu gisara ekarria da eta inolako erreferentzia berezirik gabe, beste edonondik hartua izan bailitzen.

Garaikideen arteko gehienak, beraz, oso gutxitan eta ia erreferentziarik gabe agertuko dira *Gero*-n. Aurrekoenez gain, sintomatikoa da Osorio delako baten aipamen bakarra ere (*Gero*, 33 or.). Bertan ematen diren aztarnak direla medio (29) —"Indietako herri batzuetan"—, agian Mexikoko misioen berri jakiteko ezinbestekoa den Antonio Osorio de San Román izeneko agustindarrari buruz (30) diharduela pentsa daiteke; baina, edozein modutan, aipamen bakar horrek tarteko iturrien bidea edo planteiatzen duela dirudi.

Era berean, aipamen harrigarrienetariko bat, Axularrek aipatu bai —behin bakarrik— baina izenburuaz gain bestelako erreferentziarik eskaintzen ez duen

(28) Liburu horren argitarapenerako baimena. Trenton bertan onartu zen 1562an eta Tellecheak dioenez, "resulta un tanto misterioso el iter de la aprobación del *In quartum Sententiarum* (Salamanca 1557) de fray Domingo de Soto, fallecido hacía unos años, en noviembre de 1560. ¿Acaso fue acción cautelar de la Orden por miedo al inquisidor general Valdés, poco favorable a Domingo de Soto, al plegarse éste menos a sus deseos que Melchor Cano? El texto de la aprobación se titula «Licentia pro commentariis Dominici Soto, Ordinis Praedicatorum, imprimendis». Se trata, pues, de proteger una posible nueva edición en Venecia" (Tellechea 1993, 310).

(29) Eskasa da alboan ezarritako erreferentzia: "Osor. lib. I I.".

(30) Inkisizioko kide izan zen autore honen liburu ospetsuenen artean *Consuelo de penitentes* (1583) eta *Mesa franca de espirituales manjares* (1585) aurkitzen dira.

Theatrum humanae vitae liburuari deritzogu. Theodor Zwinger medikuarena bide den liburu honek (Basilea, 1565) ez dirudi bide zuzena izan zuenik *Gero*-ra iristeko. Baina honekin ere berriro planteatzen zaigu aipamenen errezepzio edo harreraren arazoa.

2.3. **Literatura erlijiosoaren arloko aipamenen arazoaz**

Gaur egun nekez manten liteke Axularrek liburua osatzeko erabili materiale guztiak lehen eskukoak zituela dioen iritzia. Halere, esan gabe doa, orain-tsurarte izan dira Axularren irakurketa erraldoietan sinetsi dutenak. Ildo honetakoa zen, esate baterako, Duvoisinen ustea:

> "Axular avait étudié, non sulement l'Ecriture et les Pères de l'église, mais encore les philosophes de l'antiquité profane. Il citera, suivant l'occurrence, St. Paul et Ovide, Jérémie et Juvénal, St. Thomas et Sénèque, et beaucoup d'autres. Ce mélange du sacré et du profane fut le défaut de son siècle; on ne peut lui en faire un grief, sans adresser le même reproche aux auteur ecclésiastiques de son temps, et même aux prédicateurs chargés de porter la parole de Dieu dans nos basiliques; témoin Abbon, cet abbé de Fleury, l'un des plus savants écrivains du Moyen-Age" (ikus Altuna1987, 78).

Alabaina, Axularren liburu-konposaketaren errealitatetik hurbilago lirudike ziurrenik liburu-kopuru mugatuaren eta aipamenetako iturrien mediatizazioaren hipotesiak.

Beraz, nekez pentsa liteke ez Axular ez beste predikari arruntak ere horrelako bibliografia luze-zabala ezagutzeraino iritsi zitezkeenik, modu zuzenean behinik behin. Ildo horretatik, garbi eta apalki planteiatu zuen Lacombek arazoa:

> "On ne s'était pas demandé comment un ecclésiastique rural, travaillant loin de toute grande bibliothèque, pouvait citer tour-à-tour et abondamment Aristote, Sénèque, Plutarque, saint Augustin, saint Jean Chrysostome, saint Ambroise, saint Thomas, etc., etc..." (Lacombe 1943 [1956, 366]) (31).

Horren adibide gisara, Axularrek erabili bide zituen Eskritura Sainduez gain, bada *Gero*-n zehar zenbait pista liburuen erreferentziak ematean behar bezala aztertu ez direnak eta arreta gehiagorekin aztertuak izatea eskatuko luketenak. Horietariko batzuk autore sainduen obrak zein tomotan dauden esaten

(31) Ildo berekoa zen Itziar Mitxelenaren susmoa ere: "Sus libros de consulta no eran seguramente muy variados: apuntes recogidos en la Universidad, la Biblia, alguna obra de San Agustín, el autor más citado por Axular, algo también de algun otro Santo Padre, ¿una antología? quizá, sermonarios y obras piadosas de autores más modernos, entre los que por lo menos en el caso de Axular podría estar Fray Luis de Granada, Alejo de Venegas y quizá algún Erasmo. Los intercambios de notas o libros serían seguramente corrientes. La fuentes, pues, no fueron seguramente muy variadas" (Mitxelena Mtz. de Ilarduya 1981, 73-74).

digutenak dira. Elementu horren arabera, Axularrek ehundaka tomo kontsultatu izan zituen (32).

Horrezaz gainera, bada bestelako arazorik ere: obren eskuragarritasunarena hain zuzen. Krisostomoaren adibideari (55 aldiz aipatua *Gero* guztian (33)) begirada bat emanez honako hau ikusten da, hots, Axularrek aipatutako obra (8 tomotakoa) Eton-en argitaratutakoa izan zitekeela. Halere, XVII. mendean Ingalaterrak Euskal Herriarekin zeukan harreman ekonomikoa gora-behera, badirudi eskuragarriago izan behar zuela 1609-1624 bitartean Fronton du Ducek argitaratutako 6 tomokoak (34). Axularren 55 erreferentziei jarraikiz, bakarrik Krisostomoaren obraren lehenengo 5 tomoak erabili zituen *Gero* idazterakoan (behin baino ez du aipatzen 7. tomoa (35)).

Beraz, predikarien eginkizuna egokiro betetzeko prestakuntza sendoa behar-beharrezkoa bazen ere, normalean bestelako bidezidor bibliografikoak erabil zitzakeen sermoia gertatu behar zuenak. Hortaz, gauza bat zen garrantzitsutzat jotzen zen prestakuntza teorikoa eta beste bat, errealitatetik hurbilago zegoena eskuarki, elizgizonek zegitena. Izan ere, haien eginkizunetarako baziren sermoi prestatuak, ereduak, antologia modukoak, tematikoki antzekoak izan zitezkeen liburuak eta, guztien gainetik, *loci*, *sylva* eta bestelako *collectanea* izenekoak, erabilgarrienak eta hedatuenak, inondik ere.

Edozelan, oso esanguratsu deritzogu Tomas Trujillo dominikarrak aholkatzen duenari, izan ere ezinbesteko jotzen du predikariak liburu asko izatea eta asko irakurtzea eta oso zerrenda interesgarria eskaintzen dio (36), hain zuzen ere Axularren iturri-aipamenetatik aurkitu dugun hurbilena. Zer esanik ez dago, Axularrek darabiltzan iturri eta aipamen sorta handi batek badu horretan bere tokia.

Aipamenen artean, eta Sarako erretoreak liburuan adierazten duenari jarraitu nahirik edo (testuok "Escritura saindutik, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debocinozcoetaric" atereak direna alegia), Lafittek sailkapen moduko bat ar-

(32) Izan ere, S. Agustinen obren erreferentziak egitean 10. tomo baten aipamena lau bat aldiz egiten du, tomo horretan obra hau edo bestea dagoela adierazteko. Hiponakoaren obrak, beraz, gutxienez 10 tomotako bilduma batean zeuden. J. Krisostomorenak 7 tomotan gutxienez. S. Gregoriorenak 7 tomotan; Suriorenak 10 tomotan (10.a aipatzen baita). S. Basiliorenak ordea 25 tomotan. S. Anbrosiorenak 5 bat tomotan. Ikusten denez, aipatu sei autore hauen lanak bakarrik batuko bagenitu, tomo gehiegi aterako litzaiguke garai hartan pertsona bakar baten etxean izateko: 64 tomo. Eta aipatzeke ditugu oraindik beste askoren obrak.

(33) Eta Elizako Gurasoen artean aholkatuenetarikoa, ezbairik gabe: "De entre los padres de la Iglesia, quien mas debe leerse es San Crisóstomo, por ser elocuentísimo, y tan acomodado á los oídos del pueblos" (Granada, *Retórica*, 513 b).

(34) Handik urte batzuetara, 1636an hain zuzen, obra osatzeko falta ziren azken 6 tomoak argitaratuko zituzten Morel eta Cramoisy-k.

(35) Bestalde, erreferentzia hori zuzena dela ziurtatu beharko litzateke, bestetan ikusi den bezala, zitekeena baitzen 7 zenbakia akatsa izatea.

(36) Trujillo, *Thesauri concionatorum libri septem*, Barcelona 1579 (Cfr. Olmedo 1960, cxii-cxii).

gitaratu zuen, nahiz eta ez beti ongi neurtua aipamenen maiztasun eta kopuruari dagokionez (37).

Aipamen biblikoen atalean bezalatsu, "patristiko"-tzat edo hartu ditugun hauetan Axularrek jatorrizkoak edota bestelako iturririk erabili izan zuen finkatzen hasteko zailtasunak handiak dira zeharo, ez baita hori jakiteko arau edo era zehatzik.

Horrezaz gainera, metodologikoki zailtasunak areagotu egin ohi dira, gurean bezala, testua bakarra denean: "Avec pour base un seul texte, il est quasi impossible de présumer l'utilisation d'une source intermédiaire" (Reu 1993, 334).

Edozein modutan, honako honetan ere bada hainbat iturri tartekoren hipotesia argitzeko faktorerik. Besteak beste, kontutan hartzekoak dira:

a) Liburuaren hasieran egileak berak egindako aitorpena, hots, "Escritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetatik [...] bildua" dela adierazten duena. Horretan ez dago egilearen hitzaz zalantza egiteko motiburik, berak esan legez, hiru arloetakoak erabiltzen baititu Axularrek, eta beharbada gehiago hirugarren esparrukoak beste bietakoak baino.

b) Egileak espreski adierazi ez arren, argia da nolabaiteko testu menpekotasuna, besteak beste eta zenbait pasartetan bederen Granadaren obrarena dirudiena hain zuzen.

Garbi dago aipamen asko eta asko nonbaitetik (*silva* batetik?) hartuak direla. De Reu-k proposatzen duen irizpidea erabiliz, garbi dago zenbaitetan ezohiko aipamen pilaketak ere ematen direla Axularren obran (*Gero*, 353-354, 406, 474-477 or., etab.)

Baina, edonola ere, pilaketa horietan garbi asko ikusten da Axularrek ez zituela jatorrizko liburuak erabili, izan ere erreferentziez aparte ez baita inolako arretarik antzematen esaten dena nork esan edota nori dagokion bereizteko.

Kasu bat baino ez aipatzeagatik, Juan Casianoren hitz bezala aurkezten dizkigunak ditugu: *Mulierem ignoro et virgo non sum* (ik. *Gero*, 369 or.). Casianok jasotako hitzok, izatez, S. Basiliorenak badira ere, bost aipamen elkarren ondoan ematean garbi asko susma daiteke Axularrek bostak hartu zituela puntu horretaz (haragiaren bekatuan obratzeko gogo hutsaz, alegia) ziharduen *silva*,

(37) Lafittek Elizako Doktoreen artean hamar aurkitu zituen liburuan barrena. Haren ustez, erabilienak honako hauek izan ziren hurrenez hurren: San Juan Crisostomo, San Agustin ("en ses Confessions") eta San Thomas Akinokoa. Horiezaz gain, gutxiagotan erabiliak honako hauek: San Jeronimo, San Gregorio, San Ambrosio, San Basilio, San Isidoro, San Bernardo, San Pedro Damiens. Idazle eklesiastiko direlakoen artean hauek aurkitu omen zituen: sainduak (San Zipriano eta San Klimaco), teologoak [Hugo de San Victor, Soto eta "Navarrus, oncle de saint François-Xavier"]; bestelakoak (Suri hagiografoa. Casiano diakonoa eta Ludolphe le Saxon) (ik. Lafitte 1943, 38).

collectanea, loci, addenda edo antzeko batetik, eta ez testuingurua argi eta garbi erakusten duen Casianoren obra originaletik.

Jakina, San Basiliorenak izanda (eta hain ezagunak gainera; ikus bestela, S. Frantziskoo Saleskoaren *Filotea* bera —1609—, non luze aipatua agertzen baita eskuen artean dugun Casianoren hau), gero Axularrek S. Basilioren obrak aipatzen dituenean (orduan ere aurkitzeko zailak) zilegizko dirudi irakurriak izango ote zituen galdetzeak.

Areago, Axularrek *Gero*-n egiten dituen Casianoren hiru aipamenak hain zehatz erreferentziatuta egon arren ("lib. 6, cap. 19", "lib. 18 cap. 14." eta "lib. 10 cap. 8"), ez da ikusten obraren erabilpen aztarna argirik, izan ere oso erabilia izan baitzen Casianoren obra XVI eta XVII. mendeetako aszetikako autoreen artean. Adibide gisa, eta S. Basilioren aipatu hitzez gainera, Axularrek 23. orrialdean dakarren *exemplum*-aren pareko bat Granadaren *Memorial*-ean ere agertzen da, nahiz eta erreferentzia desberdinarekin (10 lib., 24. kap.):

> "Casiano escribe de aquellos padres del yermo, que tenían por tan importante cosa esta [alferkeriatan ez egotea], para perseverar en la observancia de la virtud y religion, que cuando algun monje vivia tan apartado de la compañía de los hombres que no le podia prestar para nada su trabajo, no por esto dejaba de trabajar, y al cabo del año pegaba fuego á sus trabajos, para desembarazar la celda, y comenzaba de nuevo a trabajar" (*Memorial*, 273 or.).

Erabilera handikoa da baita ere hirugarren aipamena, hots, *Mens otiosa nihil aliud novit nisi de escis atque ventre.*

Granadak bere *Silva* delakoan honela eskainiko dio jaso nahi duenari (38): *Mens otiosa nihil aliud* ***cogitare*** *novit, quam de escis, atque ventre* (355 or.; azpimarra gurea da). Garbi dago Axularren bertsioan galdutako *cogitare* hura egilearen buruan eta euskarazko bertsioan ez dela inolaz ere galdu: "Alferraren gogoetac, eta solhasac, ian-edanaz, eta sabelaz dira, eztu bertcetan pentsatcen ere" (*Gero*, 380 or.)

Aipatu berri dugun tarteko iturrien hipotesia areagoturik agertzen da beste faktore batzuk gogoan izanez gero. Garrantzitsuenak baino ez ekartzearren, liburuan barrena gehien agertzen diren sainduen aipamenen lekukotasunaz, hots, San Agustinen eta Krisostomoarenenaz baliatuz azalduko ditugu.

Ez San Agustin bezainbeste, baina bai berrogeita hamabost aldiz aipatua den San Joan Krisostomoaren lekukotasunari interesgarri deritzogu arazoak argitzen hasteko. Eta Krisostomoaren aipamenak ekarri nahi ditugu hona erregulartasun falta agertzen dutelako. Izan ere, liburu beretatik edoski duen autore baten aldetik espero dena, jasotzen duen guztia modu ahalik erregularren ema-

(38) Granadak ematen duen erreferentzia hau da: "Cassia. lib. 10. de Spiritu accidiae", Axularrek, aldiz, "lib. 10 cap. 8". Horrelako erreferentzia diferenteak eta testuan antzematen diren aldaketak direla medio, badirudi baztertu egin daitekeela Granadaren *Silva* hau Axularrek erabilitako liburuen artetik.

tea bide da, hau da, formula tinkoen bitartez. Axularrek, aldiz, "urrezko ahoduna" delakoaren homiliak aipatzean era desberdinetan egiten du (39). Besteak beste, maizen agertzen direnak "homil." (272 or.), "hom." (50 or.; 90 or., etab.), "ho." (296 or.) bezalakoak ditugun arren, zenbaitetan honelako formulak ere erabiltzen dira liburuan: "serm." (319 or.; 403 or.), "episto." (296 or.) "conc." (440 or.) /"concio" (424 or.; 437 or.). Azken hauek (Conc., concio) obra baten (Krisostomoaren obra guztiak jasotzen dituena, agian?) 2. tomoan bide dagoen "De Lazaro" izenekotik ateratakoetan bakarrik agertzen dira, eta ia jarraian emanak; bestalde, tomo beretik ateratako gainerakoak "hom." bezala azalduko dira.

Guztiarekin ere, aipamenen tratamenduan askoz adierazgarriagoa da San Agustinen testuekin egindakoan ikusten dena. San Agustin Axularrek gehien aipatzen duen autorea da (84 aldiz erreferentziaturik agertzen baita), eta horrexegatik izan daiteke, hain zuzen, Axularren jokabide orokorraren erakusgarri.

Egia esan, aipamenen erkaketak ez digu garbi utzi Axularrek haren testuak zuzenean erabili zituenentz. Areago, sarri asko susmoak ditugu aipamenak ez ote diren beste obratatik jasoak izan, gehiegi baitira akatsak eta hutsuneak, eta ez bakarrik testuen alboan jarritako erreferentziei dagokienez; aipamenetako testuetan ematen diren aldaketek berek (lexikoa, hiperbatonak, etab.) bestelako susmoak sortarazten dituzte. Eta ez da bakarra San Agustinen *De Disciplina Christiana* latinezko liburua aipatzen duenean honela ematea: "August de disciplina Christiana *libro unico*" (*Gero*, 216; letrakera etzana gurea da).

Kasu honetan, zalantzarik gabe, Axularren iturria ez da San Agustinen jatorrizko obra izan. Aipamena gazteleraz idatzitako liburu batetik jasoa bide da.

Gainerakoan, hona hemen aipamenetan ematen diren bestelako alde eta desberdintasunen adibide zenbait:

— "fratres charissimi", "sed tantum conscientiae puritas" (*Gero*, 439-440)
"fratres dilectissimi", "sed conscientiae puritas" (Migne XL, 1252 zut.).
— "Nec ira consilii est repletus capax" (*Gero*, 302)
"Nec ira repletus, consilii potest esse capax" (Migne XL. tom., 1251 zut.).
— "vos esse video" (*Gero*, 381)
"vos esse cognovi" (Migne XL. tom., 1264 zut.).
— "manifeste", "consumatum" (*Gero*, 125)
"manifestissime", Ø (Migne XL. tom., 1036 zut.).
— "compleverit", "completo", etab. (*Gero*, 112)
"repleverit", "consummato", etab. (Migne XL. tom., 1035 zut.).

Batzuetan itzuli (edo moldatu) egiten du urdazubiarrak jatorrizko aipamenean egon arren berak latinez ematen ez duena:

(39) Ez ditugu aipatuko "hom."-en akats diren hasierako 40 orrialdeetako "tom." guztiak.

— "sicut venantium, aucupantium, piscantium" ekartzen du (*Gero*, 488), ondoren datorren "vindemiantium, negotiantium, *ludo aliquo sese oblectantium*" (Migne XL. tom., 448 zut.) (azpimarrak gureak dira) aipatu gabe uzten duelarik; hori bai, itzulpen-moldaketan honela dio: "ihiztariak, arranzaleak, *pilotariak, dantzariak*" (*Gero*, 488) (azpimarrak gureak dira).

— "Quo exemplo manifeste instruimur" (*Gero*, 125) dio Axularren aipamenak, San Agustinen testuak honela dioenean: "Quo exemplo manifestissime instruimur et docemur" (Migne XL. tom., 1036 zut.). Axularren itzulpenak ez du ahaztuko "docemur" delakoa: "Exemplo hunetzaz emaiten zaiku aditzera, eta erakusten klarki..." (*Gero*, 125).

Bestalde, anabasa handia dago erreferentziak ematerakoan. Horren adierazgarri gisa, liburu bereko adibideak ekar litezke hona. Horietatik, batzuetan sermoi-zenbakia eta guzti eskaintzen da: "ad fratres in eremo. serm. 17. T. 10" (*Gero*, 381), "serm 17 ad fratres in eremo. tom 10" (202 or.); bestetan lakoniko samarrak dira informazioak: "ad fratres in Eremo" (*Gero*, 302 or.). Oker emanda daudenak ere badira: "ad fratres in eremo. serm. T. 10" dio (439-440 or.), baina izatez erreferentziak "10. sermoia" esan beharko luke.

Gogoratu behar da bost baino ez direla Axularrek *Ad Fratres in Eremo* liburutik hartutakoak (edo erreferentziatuak, nahi bada). Hain kopuru txikirako salbuespen kasuistika zabalegia lirudike zalantzarik gabe (40).

Bestalde, erreferentzietarako S. Agustinen *De vera et falsa poenitentia* erabiltzen du maizkara; alabaina, ez du ematen Granadarenean horrenbeste aipamen aurkitzen denik, nahiz eta zenbaitetan azken honen testutik atereak diruditen aurre-atzeko pasarte askok (ik. *Gero*, 183 or.). Aurrekoetan bezalatsu, hemen ere urdazubiarrak beste iturriren bat(zuk) erabili bide z(it)uen horretarako, aszetika agustindarrean garatutako iturriak edonola ere (inoiz S. Agustinen liburua bera barne). Hori baino ez lukete adieraziko testu kidetasun zenbaitek, hala nola Axularrek 208-209 orrialdeetan San Agustinena bailitzen ematen duen testukoak (41).

Aipamenen artean bada nolabaiteko aztarnarik ere ematen duenik, nahiz eta guk asmatu ez dugun. Hauxe da, esate baterako, honako honen kasua: "August. lib. 3.. contra Perili. donatistae. Luter. T. 7." (444 or.). Argi dago aipamen bakar bati dagozkiola hitz horiek. Halere, "Luter." delako horrek ez du zentzurik San Agustinen liburu baten izenburuan. Arrazoia erreferentzia jaso den

(40) Honi guztiari erantsi beharko litzaioke ondo erreferentziatutako aipamen batean (381 orrialdekoan hain zuzen) testuak baduela alderik Migne-k ematen duenarekin erkatuz gero (*Patrologia*, XL. tom., 1264 zut.). San Agustinen testuan "vigilate, et nolite deficere" tartekatua izateaz gainera, bukaerako aditza ez da "video", Axularrenean bezala, "cognovi" baizik.

(41) Granadaren pasarteak objektiboago edo utziko luke testuratzen diren hitzen egiletzaren arazoa: "Sant Ambrosio también en el libro de la penitencia (aunque otros atribuyen este dicho al mesmo Sant Agustín) trata copiosamente esta materia..." (Granada, *Guía*, 96a).

lekuan egon liteke, agian bi aipamen desberdinei zegozkien erreferentzia desberdinak zirelako.

Nolanahi ere den, eta ondorio gisara, zinez pentsa daiteke Axularrek ere florilegio edo testu hautatuen bilduma moduko liburuen laguntza izan zuela *Gero*-n egin zituen aipamen erlijioso gehienetarako. Ahaztu gabe, jakina, prestakuntza eskolastikoa jaso zuten predikari eta apaizen artean, beraiek egin bildumak eta testu-hautaketez betetako karpetak erabiltzeko ohitura. Ikertzailearen erronka bat, beraz, horiek guztiak identifikatzen ahalegintzean letzake.

BIBLIOGRAFIA

AXULAR: *Guero*, Bordele, 1643 (faksimila: Bilbo, Euskaltzaindia, 1988).

Biblia Sacra iuxta Vulgatam Clementinam, Biblioteca de Autores Cristianos, Matriti, 1959.

Biblia Saindua, Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik itzulia, Londres (Edizio faksimila: Bilbao, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 3 tom.).

GRANADA, Luis de: *Retórica Eclesiástica o de la manera de predicar*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, III, Madrid, Imprenta de la Publicidad (*BAE* XI), 1945, 488-642 or.

——: *Guía de Pecadores*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, I, Madrid, Imprenta de la Publicidad (*BAE* VI), 1944, 1-470 or.

——: *Memorial de la Vida Cristiana*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, II, Madrid, Imprenta de la Publicidad (*BAE* VIII), 1945, 203-411 or.

——: *Collectanea Moralis Philosophiae, in tres tomos distributa: quorum primus selectissimas sententias ex omnibus Senecae operibus, Secundus ex moralibus opusculis Plutarchi, Tertius clarrisimorrum principum & philosophorum insigniora apophtegmata ... complectitur..* Olisippone, 1571.

Index librorum prohibitorum et expurgatorum (...) Madriti, Ludovicum Sanchez, 1612.

Patrología Latina, Migne-ren edizioa CD-Rom formatoan, CETEDOC, 1994.

TERRONES DEL CAÑO, Fco.: *Instrucción de Predicadores*, Granada, 1617, [orain: Olmedo (ed.)1960, Madrid, Espasa-Calpe].

* * *

ALTUNA, Patxi, 1987: "Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea", *FLV* 49, 65-95.

BATAILLON, Marcel, 1979: *Erasmo y España*, Madrid, FCE.

CURTIUS, Ernst Robert, 1976: *Literatura europea y Edad Media latina*, 1 eta 2, Madrid, F.C.E.

DOLBEAU, F., 1986: "Ratheriana III. Notes sur la culture patristique de Rathier", *Sacris Eruditi* 29, 155.

ETXEBERRIA, P., 1973: "Axular-ekin ikasle", *Euskera* XVIII, 75-118.

HERRERO SALGADO, Félix, 1993a: "La oratoria sagrada en el siglo XVII: tradición e innovaciones" in García Martín, M. (ed.): 1993, 501-508.

——, 1993b: "La *Rhetorcia ecclesiastica* de fray Luis de Granada y las retóricas cristianas del Siglo de Oro", in A.A.: 1993, 265-302.

LACOMBE, George, 1943: "Varia sur Axular et son livre", in A.A.: *Axular 1643-1943 (Troisième Centenaire du Guero)*, 19-2; eta *Gure Herria*, 1956, XXVIII-6, 365-370.

LAFITTE, P., 1943: "Les citations dAxular", in A.A.: *Axular 1643-1943 (Troisième Centenaire du Guero)*, 38-39.

LONGÈRE, J., 1983, *La prédication médiévale*, Paris.

MITXELENA, Koldo, 1981: "Euskal Literaturaren kondairarako oinarriak" in A.A.: *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak.* Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.

MITXELENA MTZ. DE ILARDUYA, Itziar, 1977: "Axularren titulua", *FLV* 25, 57-68.

——, 1981: "La literatura religiosa labortana del siglo XVII", *Muga* 17, 62-74.

OLMEDO, Félix G., 1960: "Prólogo", in Terrones del Caño: *Instrucción de Predicadores*, Madrid, Espasa-Calpe, IX-CLVI or.

PÉREZ GOYENA, A., 1919: "Los grandes teólogos mercedarios", *Razón y Fe*, 54, 28-41.

REU, Martine de, 1993: "Divers chemins pour étudier un sermon", in Hammesse, J. & Hermand, X. (ed.): *De l'homélie au sermon. Histoire de la prédication médiévale*, Louvaine-la Neuve, Université Catholique, 331-340.

SALABERRI, P., 1998: "Aipamen klasikoak Axularren *Gero* liburuan", *Euskera* 43, 231-252.

TELLECHEA, J.I., 1993: "Aprobación por el Concilio de Trento de la obra de fray Luis de Granada (1 diciembre 1563)", A.A.: *Fray Luis de Granada. Su obra y su tiempo*, Granada,...301-319.

VILLASANTE, Luis, 1972: *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Ed. Franciscana Aranzazu, Oñati.

GRAMATIKA

GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENA AZKUE BIBLIOTEKAKO ZUZENDARIAREN GALDERARI BURUZ

-(t)ar atzizkidun *Espainiar filologia* nahiz *Espainiar literatura* itzulien gramatikaltasunaz egin du galdera Azkue Bibliotekako zuzendaria den Pruden Gartziak.

Gramatika batzordeak, arazo hau dela, eta honako iritzi hau ematen du:

1. Egia da *-(t)ar* atzizkiak jatorria adierazten duela, herritar izenak osatzeko balio duela. Horrenbestez, agian, berez okerrak izan litezke *"Britainiar uharteak"* bezalakoak. Arrazoi beragatik, **Azpeitiar basoak* ere txarra litzateke, adibidez. Honen ordain zuzena, euskaldunak ongi dakikeenez, *Azpeitiko basoak* izango litzateke.

2. Hala ere, galderaren idazkian bertan esaten direnak aski bidezkotzat jotzen ditu Gramatika batzordeak. Han ematen diren adibideek erakusten dutenez, hedapen bat gertatu dela esan liteke *-(t)ar*-en erabileran eta hedapen hori ez dela zabarkeriaz gertatu, arazo bati erantzun egokia eman nahiagatik baizik. Izan ere, *Filología española* edo *Literatura española* modukoak itzultzeko, badirudi *Espainiako filologia* edo *Espainiako literatura* baino egokiagoak izan daitezkeela *-(t)ar* atzizkidunak. *Espainiako* bezalako izenlagun batek leku bati egiten dio erreferentzia batez ere (ez beti, nolanahi ere), eta argi dago batzordeari egiten zaion galderan agertzen diren sintagmetan ez zaiola lekuari erreferentzia egiten, zuzenean behintzat. Horrenbestez, *espainiar* bezalako hitz bat, *Espainiako* baino definitugabeagoa denez, egokia izan liteke gure kasuan. Ematen diren adibideek, gainera, beste euskaldun batzuek ere gure aurretik horrela pentsatu dutela erakusten digute. Erabat garbizale jokatuz gero, oso irtenbide txarra geldituko litzaiguke.

3. Gainera, *italiar literatura* bezalakoak erabiliz gero, halako anbiguitate bat gertatzen da. Hala, *italiar literatura* hurbilago egongo litzateke *"italiarren literatura"*tik, *"Italiako literatura"*tik baino. Izan ere, goian esan bezala, *italiar* markatugabeagoa dela dirudi *Italiako* baino.

4. Horrenbestez, zilegi ikusten du batzordeak *italiar literatura* eta antzekoak erabiltzea. Baina garbi dagoenean lekuaz ari garela, orduan *-(t)ar*-en ordez *-ko* erabiliko da. *"Geografia española"* ez dugu itzuliko *"Espainiar geografia"* gisa, *"Espainiako geografia"* gisa baizik. Modu berean, gauza bat izango litzateke *Frantziako literatura* eta beste bat *Frantziar literatura.*

5. Azkenik, gogorarazi behar da hizkuntzari erreferentzia egiten zaion kasuetarako badugula instrumentala oinarritzat hartuz eraikitako atzizki bat: *-zko*. Hala, *Italierazko literatura* litzateke kasu horretan egitura zuzena.

Gasteizen, 1999ko urtarrilaren 7an.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

* * *

GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENA SANTUTXUKO AEK-KO PATXI ZULUAGAK EGINDAKO GALDEREI BURUZ

"Me gustaría" egitura itzultzeko aukera batzuk ematen ditu Patxi Zuluaga jaunak eta horien artean zein hobetsiko litzatekeen galdetzen.

1. Malagara joan nahi nuke.
2. Malagara joango nintzateke.
3. Malagara gustura joango nintzateke.
4. Malagara joango banintz...!
5. Malagara joatea gustuko nuke.

Horiek guztiak jatorrak eta erabilgarriak dira Gramatika batzordearen ustetan. Funtsean esanahi bertsua lukete guztiek, baina idazlearen estiloaren edo beharrizanen esku legoke batzuen edo besteen aukeraketa.

Bigarren galderari buruz ("gustatuko litzaidake" eta "gustatzen zait"-en arteko desberdintasunez edo erabileraz), esan behar da lehena baldintza baten geroaldiko ondorio hipotetikoa denean edota kortesiazko erabileretan eman daitekeela; bigarrena, berriz, indikatiboko orainaldi ez-burutua da.

Azken galderari erantzunez (1.200.000 nola idatzi behar den), "milioi bat eta berrehun mila" litzateke egitura egokia eta ez "milioi eta berrehun mila".

Gasteizen, 1999ko urtarrilaren 7an.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

* * *

GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENA DURANGOKO UDALETIK EGINDAKO GALDERARI BURUZ

Durangoko irudi korporatiboa adierazteko erabili nahi den eredua ezin esan daiteke gaitzestekoa denik Gramatika batzordearen ustetan: isolaturiko egiturak dira hor irudiaren hiru osagaiak:

DURANGO

Udala Ayuntamiento

Esan bezala, era isolatuan ematen denerako (paper ofizialetako menbrete gisa edo izenburu gisa, adibidez) bakarrik litzateke baliagarria. Ezin liteke erabil, ordea, testu edo perpaus batean txertatua; honako hau, beraz, baztertzekoa litzateke:

*DURANGO UDALAK erabaki duenez, ...

Horren ordez DURANGOKO UDALAK eman behar-ko litzateke, zalantzarik gabe, euskal gramatikaren arauek agintzen duten bezala.

Azkenik, gogorarazi nahi da ontzat eman den goiko ereduaren ondoan badela euskal eta erdal gramatikei atxiakiagoa den bat, hitz bat gehiago eman behar bada ere molde horretan. Ondoko hau litzateke:

DURANGOKO UDALA	armarria	AYUNTAMIENTO DE DURANGO

Gasteizen, 1999ko urtarrilaren 7an.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

BERRIAK

FEDERIKO KRUTWIG-EN HILETA ZIBILEAN

FEDERIKO KRITWIG-EN HILETA ZIBILEAN

Derioko hilerrian,
1998-XI-17

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Gogo eta kultura zabaleko euskaltzainkidea joan zaigu; hemen gaude, haren gorputzaren inguruan euskaltzain gehienak eta haren adiskideak, Federiko Krutwig Sagredori azken agurraren egiteko.

Kultura zabaleko gizona: 1921eko maiatzaren 15ean Getxon sortua, letra klasikoetan hezia izan zen, greko-latindar ikasketak zirela orduko jende jakintsuen egiazko kultura. Orduz geroz eta beti fidelki Greziari bereziki erakutsi dio bere atxikimendua Federiko Krutwigek. Alabainan, gure zibilizazioaren ama da Grezia. Greziar filosofoen pentsaeran edan dezake bakoitzak eta edan du gure adiskideak, xurgatuz Rabelais-ek deitzen zuen "la substantifique moelle", hots, muina, mami hoberena.

Greziari Krutwigek eskaini dion maitasuna, Greziak ordaindu dio nasaiki, gomitatuz eta ohorezko medailak eta diplomak emanez bere ezagutzaren erakusteko.

Greziatik heldu zaigun bigarren erakaspena demokrazia da eta demokraziaren errespetua, demokraziak sortzen baititu jendeen arteko harremanak, demokraziaren errespetuak gizartearen bizi-molde baketsua. Ongi bazakien hori Federiko Krutwigek, bere bizi guzian aski jasan baitu erbesteraino demokraziaren eskasa.

Kultura zabaleko gizona: hain zuzen hogeita sei urtez erbestean egonik, harat-hunatetan ezagutu ditu Frantzia, Belgika, Alemania, Suitza, Italia, erresuma horien hizkuntzak ikasten zituela. Batetik bertzera zabilan, deus trabarik gabe. Lekuko naiz enekin maite baitzuen euskaratik frantsesera lerratzea, bereziki frantses literatura aipatzen genuelarik.

Irakurle amorratua zen, eta hainbertze hizkuntza jakinez hedatu, zabaldu du bere kultura, ez baitzen harentzat hizkuntza mugarik. Idazle nasaia ere, luma zorrotza noski, hemeretzi liburu idatzi ditu, hamaika euskaraz, zazpi espainieraz eta bost frantsesez: uzta ederra.

Nahi nuke orain aipatu Federiko Krutwigen eragina Euskaltzaindian. Gazterik sartu zen urgazle gisa, Azkueren hegalpean, 1942-an, 21 urte zituela, orduan euskara zokoratua, zangopilatua, debekatua zelarik, Euskaltzaindia katakunbetan.

Krutwigi zor diogu Euskaltzaindiaren berriztatzea. Euskaltzain oso izendaturik 1947ko azaroaren 29an, 26 urte zituela, proposatu zuen hamabitik hemezortzira gehitzea euskaltzainen kopurua, orduan sartu zirela lau euskaltzain berri Iparraldetik: Lafitte,

Saint Pierre apezpikua, Dassance eta René Lafon Bordeleko Unibertsitateko katedraduna. Alabainan, Krutwigen ametsa zen idatz-hizkuntza bat sortzea, oinarritzat hartuz lapurtera klasikoa. Aspaldiko hizkuntz politika, Campion-Broussainen txostenetik hasiz, Azkueren gipuzkera osotua, Krutwigen lapurtera klasikoa eta Arantzazuko biltzarraren erabakiak arte. Belaunaldiz belaunaldi euskara batu baten beharra senditu da, oraiko belaunaldiak betetzen duela aitzinekoen ametsa. Badakigu ez dela beti ados izan gurekin Federiko Krutwig, nahiz ikusten zuen ematen genituen urratsak onargarriak zirela, beti demokratikoki hartu baititugu erabakiak eta egin zoazkoten proposamenak. Demokraziak bere eginbideak ere baditu.

Hogeita sei urtez erbestean egon arren eta, beraz, Euskaltzainditik urrundurik, ez du sekulan Euskaltzaindiak Krutwigen ordezkorik izendatu, are gutiago ondokorik. Betetzen zuen aulkia hutsik egona da eta 1978an Euskal Herriratu zelarik orduko euskaltzainburuak, Aita Villasantek agurtu zuen, ongi etorri anaikorrenarekin.

Duela urte bat, hain zuzen 1997ko azaroaren 28an, ene proposamena euskaltzainek onarturik, Euskaltzaindiak eskaini zion Akademiarekilako urre-ezteikari merezi zuen omenaldia, euskaltzain osoek beren artikuluekin hornitua, orotara 422 orrialdeko liburu ederra.

Bururatzen nuen mintzaldia erranez:

> "Federiko Krutwig adiskidea: Badu orain 50 urte euskaltzain oso zarela. Zuk ezagutu dituzu lehendabiziko euskaltzainetan hiru bederen: Azkue, Urkijo eta Aita Lhande, horiek oraino bizi baitziren euskaltzain oso izendatua izan zarelarik, eta, hain zuzen, hiru horiek bilkuran zeuden proposatu zenuelarik Euskaltzaindiaren berritzea, hamabi kidetarik hemezortzira pasatuz Donostiako Diputazioan 1949ko irailaren 30ean. Azken hogei urte hauetan, zu berriz etorri zarelarik honara, hamalau euskaltzain berri sartu dira Euskaltzaindian, erdia baino gehiago, beraz; zortzi gara 1962-1977 arte horretan sartuak eta Aita Villasante bakarrik 50eko hamarkadan. Zu zara oraiko gazteen, ez hain gazteen eta lehenbiziko euskaltzainen arteko lokarria. Alde batetik, Azkue, Urkijo, Lhande eta, bertzetik, berrikitan sartuak, Xabier Kintana, Patxi Goenaga, Andres Urrutia. Euskaltzaindiaren berriztatzaile lehen, euskaltzain belaunaldien arteko lokarri orain, goresmen zuri bihotz-bihotzetik eta urte askotarako."

Ez nuen pentsatzen orduan hain laburra izanen zela epea, urte xoil eskas bat. Euskaltzain belaunaldien arteko katea hautsi da Federiko Krutwig lokarri zen heriotzarekin. Euskaltzaindiak bere historiaren orrialde bat itzultzen du. Joan zaigu gogo eta kultura zabaleko euskaltzainkidea.

Bakean dagoela.

FEDERIKO KRUTWIG-N HILETA

Derio, 1998-XI-77

Josu Lavin

GEURE ADISKIDE
En Frederiko Karol Murde Krutwig eta Sagredo jaunari
Euskal Herriko seme
Eurôpêko seme
Munduko seme
izan zaren,
zaren eta
izanen zaren horri

AGUR ETA OHORE

KHAÎRE PHÍLE
KHAÎRE DIDÁSKALE HÊMÔN

KYRIE ARISTÔN AMMÔN

Hê kháris tôn athanátôn theôn éstô metá sû

Hitzik gabe geratua naiz, Heiko. Hainbertzenarekin, bada, mintza bedi zutaz Axular euskal letren printzea:

"Geure jaun maitea, joan zatzaizkigu lurretik, bainan ez gogotik, eta ez bihotzetik. Ez deraukuzu iguriki".

Zeren iduritzen zaiku ezen oraino bizi zarela, begien aitzinean zaitugula: eta halatan, hala ba zintugu bezala, mintzatu nahi gatzaizkitzu.

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz eta aitzineko eta ondoko fama on famatuaz nork zer erranen du?

Nor da Euskal Herrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu ez zaitzunik?

Zu izan zara eta izanen zara euskaldunen habea, jabea, sostengua eta euskal graiko fina, naturala eta egiazkoa.

Bada ez duzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, ez zara zeure leinhutik eta ethorkitik hastandu, berhezi eta ez aldaratu.

Utzirik alde batera zure merezimendu handiak, eta Euskal Herriari anhitz occasionetan egin derauzkiozun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain eta abantail suertez dotatu, hornitu eta complitu bait zaitu. Adimendu eder bat,

memorio handi bat, eta borondate onera, ohorera eta prestutasunera erori bat, isuri bat eta eman bat eman bait derautzu.

Bainan zertako sartzen naiz ni itsas hondargabe hunetan, zure laudorioen aiphamenean? Zure obrak dira bere buruz asko gora mintzo, berak dira bere baithan asko clar eta ozen. Utz ditzadan beraz nik hek, hutsik ez dagidan. Eta iragaiten naizela aitzina, derradan ezen zer ere scriba bait dadi euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagokizula, zuri zor zaitzula, eta arrazoinez orai ere, zuri eskerrak rendatu behar derauzkitzugula.

Bai ordea joan zara: lekhuz aldatu zara: hemengo aldia egin duzu.

Egia da, hala da. Eta aldez damu dut, eta aldez atsegin. Damu, zeren ez bait zaiku nehori ere handik, guri bezainbat kalte ethorri. Atsegin. Zeren nola ez bait gara bi mendetako eta zuk zeurea, hain ongi, hain ohorezki eta ...iragan bait duzu, esperantza bait dut, jainko-jainkosen compainian zaudela... eta handik helduko zatzaizkigula, eskua emanen deraukuzula: eta arranoak, airean doanean, bere umeetara bezala, zuk ere gure gana, euskaldunon gana, begia edukiko duzula.

Jainkoek hala nahi dutela.

Zure adiskide graiko Triantáphyllos Karayannisen hitzez agur derautzugu erran nahi:

Enthyméisthe, Ándres tês Baskônías, hóti to men sôma thnêtòn hápantes ékhomen, katá de tên eulogían kai tus epaínus, kai tên phê'mên, kai tên mnê'mên tên khrónôi symparakoluthúsan athanasías metalambánomen.

Considerad, gentes de Vasconia, que si por un lado tenemos un cuerpo mortal, por otro, a través del buen decir, de las alabanzas, de la reputación y del recuerdo que nos acompaña en el tiempo, participamos de la inmortalidad.

EUSKAL HERRIAREN IZENEAN

ESKERRIK ASKO, FEDERICO,
ESKERRIK ASKO.

CEREMONIA CIVIL CELEBRADA CON MOTIVO DEL FALLECIMIENTO DE D. FEDERICO KRUTWIG SAGREDO

Cementerio de Derio,
17-XI-1998
Manuel Antonio Federico Etxabe Krutwig

Buenos días. Deseo expresaros mi más sincero agradecimiento a todos cuantos habéis acudido a despedir a mi tío. Muchas gracias. Eskerrik asko.

FEDERIKO KRITWIG-EN HILETA ZIBILEAN

Derioko hilerrian, 1998-XI-17
Xabier Amuriza, euskaltzain urgazleak kantatuak

Bileran gagoz iraigaiteko
historiaren plazara,
geroko ikasgai bezala edo
eztanda baten gisara;
zu, Federiko, ahoz ez ezik
burrunda bat izan zara,
garai bateko "Vasconia" edo
garai oroko euskara,
zure irudi joana beti
itzuliko da bistara (bis).

Zure ahotik labe usaina
ateratzen zuen hitzak,
ohore zuri, Federiko, ta
ez agurrik Krutwigentzat.
Zu bezalako trumoiei esker
hartzen du indar ekaitzak;
izan gintezke herri txiki bat,
egon gintezke apaltzat,
izan gintezke nahi dena, baina
anonimoak ez behintzat (bis).

Trumoiak ere eduki arren
tximistortzian sorburu,
errenditzen da herioekin
aurkitzean buruz buru.
Zutaz ez dago esan beharrik
gogoratuko zaitugu,
izkutatzera zoazen lurrak
nola batuko gaitun gu,
betiko Krutwig, bizia bera
ikusten segiko dugu (bis).

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA-SARIAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA

1998.eko Literatura-sariak

Bilbo, 1998-XII-11

Txomin Agirre Saria, *Eleberria.*
Toribio Altzaga Saria, *Antzerkia.*
Felipe Arrese Beitia Saria, *Olerkia.*
Mikel Zarate Saria, *Saioa.*

Epaimahaikideak

TXOMIN AGIRRE eleberria: Gorka Aulestia, Txomin Peillen, Ana Toledo.

TORIBIO ALTZAGA antzerkia: Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu.

FELIPE ARRESE BEITIA olerkia: Jon Kortazar, Mikel Lasa, Juan Mari Lekuona.

MIKEL ZARATE saioa: Andolin Eguzkitza, Adolfo Arejita, Luis Mari Muxika.

— Mikel Zarate saiakera saria:
Jon Sudupe: *Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak.*

— Felipe Arrese Beitia olerki saria:
Jose Luis Padron: *Ibaia euri-erasotan bezala.*

— Toribio Altzaga antzerki saria:
Juan Karlos del Olmo: *Jon gurea, Parisen hatzana.*

* * *

EUSKALTZAINDIA ETA BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa) erakundeek antolatutako Toribio Alzaga Antzerki Saria 1998-ko epai-mahaia bildurik aho batez erabaki du ondorengoa adieraztea:

1. Hamalau antzerki aurkeztu direla, eta beraz, pozik daudela, euskal antzerki idazleen une ona agertzen duelako.

2. Bere antzerki balioak kontuan harturik saria ematea *Jon Gurea, Parisen Hatzana* titulua daramanari.

3. Lanen interesa kontsideraturik erakunde antolatzaileei hurrengo urteetan bi sari ezar ditzaten eskatzea.

Sinatzen dute epai-mahaikideok:

Daniel LANDARTek Patri URKIZUk Eujenio AROZENAk

Azpeitian, 1998ko abenduaren 3an, Ander Artzelus eta Antonio Maria Labaien.

Azpeitiko Antzerti Topaketetan omendu diren egunean.

* * *

Euskaltzaindia-BBKk antolatutako Literatura sarien artean, "Felipe Arrese-Beitia" Olerki Saria 1998an nori eman erabakitzeko, Euskaltzaindiak izendaturik, bildu dira:

Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona.

Behar diren deliberazioak burutu ondoren, hau izan da hartu duten erabakia: "Felipe Arrese-Beitia" Olerki Saria, 1998an *Ibaia euri-erasotan bezala* poemategiari ematea.

Agiri honek bere ondorioak izan ditzan behar den une eta lekuetan, izenpetzen dute epai-mahaikoek.

Donostian, 1998ko abenduaren 9an.

Jon Kortazar Mikel Lasa Juan Mari Lekuona



* * *

BBK-k eta Euskaltzaindiak antolatutako "Txomin Agirre" Sarira aurkeztutako eleberriak epaitzeko Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo bildu dira. Behar diren araketak egin ondoren honako erabaki hau hartu dute: Saria ez ematea.

Donostian, 1998ko azaroaren 24an.

Gorka Aulestia Txomin Peillen Ana Toledo

* * *

Egun, 1998ko abenduaren 5eko arratsaldeko seietan Euskaltzaindiak antolatutako "Mikel Zarate" saio-sariko epaimahaikideak Bizkaiko Durangon baluta, ondoko erabakia hartu dute batez, saria *Euskaldunak, liberalak eta Komunitatezaleak* izeneko lanari ematea.

Eta dagozkion ondorioak bete daitezen, behean sinatzen dugu.

Adolfo Arejita Luis Maria Muxika Andolin Eguzkitza

"R. M.ª AZKUE" LITERATURA-SARIAK

Bilbo, 1999-III-92

Jose Ramon Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria

Lagun agurgarriok, egun on:

Dakizuenez, gaurko honetan, euskal literaturaren ganeko barri onak emoten gatoz, egintza apal honetan. Hasteko, igazko "Azkue" sariketako sarien banaketea egingo dogu, narrazio eta olerki sailetan, ume eta gazteen arloan. Horren ostean, 1997an irabazle izan ziran lanak batuz, argitaratu dogun liburua aurkeztuko dogu.

Sari honeek antolatzen diran bederatzigarren edizioa da honakoa. Halan da guztiz bere, BBK-k, euskereari eta euskal literaturari eskainitako laguntzak tradizio zaharragoa dauka.

Hor daukaguz, esate baterako, urtero-urtero antolatzen diran beste sari garrantzitsu batzuk. "Txomin Agirre" Saria elaberri arloan, "Toribio Altzaga" Saria antzerki arloan, "Felipe Arrese Beitia" Saria olerkian eta "Mikel Zarate" Saria saioan. Sari honeetarako aurtengo deialdia, gitxi barru egingo dogu, BBK-k eta Euskaltzaindiak batera, lankidetza, estu bezain luze baten barruan.

Gaur banatuko doguzan sariei jagokenez, azpimarratu beharrekoa da, aurkeztu diren lanak, ia 500 izan dirala eta kalitate handikoak ganera. Epaimahaikoek ez dabe egin-kizun erraza izan irabazleak bereizteko, eta horrek atseginez betetzen gaitu, sariketaren antolatzaile zein babesleok.

Hain idazle gazteengan honelako kalitatea topateak, pozez betetzen gaitu, sariaren beraren eta gure literatura idatziaren etorkizunerako bermea diralako.

Ezin dira egintza honetan, laguntzaileak aitatu barik itzi. Eurak dira, egile gazteak parte hartzera bultzatu eta, euren iradokizun eta zuzenketakaz, literaturarenganako gustua sortzen eta mamitzen laguntzen dabenak. Eskerrik asko eta zorionak eurei bere.

Zeuon lanak bialduz parte hartu duzuenoi bere, eskerrik asko, BBKren izenean. Sariketa honetara zein beste batzutara aurkezten segitu daizuela, zuentzat ona izateaz gain, euskararentzat bere ezin hobea dalako. Irabazi dozuenoi eta ez dozuenoi, eskerrik asko danori, eta animo, zeuon zaletasunaren bitartez, ea etorkizuneko sortzaileak bihurtzen zarien.

Eta liburuari jagokonez, ezin oraindino gauza handirik esan. Hortxe dozue. Bertan, Juan Luis Goikoetxea irakasleak, gustu handiz jaso dauz aurreko edizinoko irabazleen lanak, xehetasunez eta maitasunez. Ea hurrengo urtean bere bardin egiten deuskun aur-

tengo irabazleen lanakaz. Eskerrik asko eta zorionak berari bere. Guri ahalik eta hedapen handiena emotea baino ez jaku geratzen, liburuak merezi dau eta.

Beste barik, Euskaltzaindiagaz, euskal literatura sustatzeko lankidetzan jarduteak, BBK atseginez betetzen dauela adierazo gura dot. Gure ustean, holan, egunez egun, gure hizkuntza, gure kultura eta gure Herria eratuz goazalako.

Eskerrik asko.

"R. M.ª AZKUE" SARIAK, 1998

Bilbo, 1999-III-12

1998ko Resurrección Maria Azkue sariek partaidetza markak hautsi dituzte berriro

Euskaltzaindiak eta BBKk antolatzen duten literatura sariketaren 8. ediziora ia 500 lan aurkeztu dituzte

Gaur, ostirala, hilak 12, Euskaltzaindiaren egoitzan 1998ko Resurreccion Maria Azkue sariak banatu dira. Akademiak eta BBKk gazteen artean literatura sorkuntza bultzatzeko antolatzen duten txapelketaren zortzigarren edizioak aurreko partaidetza markak hautsi ditu berriro ere, guztira 491 lan bidali baitira. Hain zuzen ere, 242 lanek parte hartu dute 10-13 urte bitartekoentzako A mailan eta 249k 14-17 urte bitarteko gaztetxoentzako B mailan. Generoari dagokionez —maila bakoitza olerkian eta narrazioan banatuta dago—, 374 narrazio egon dira eta olerki gutxiago, 117.

Idazle gazteek ikastetxeen bidez bidali dituzte lanik gehienak. 1998.eko edizioan 50 herri ikastetxe, eskola pribatu, ikastola eta institutuk parte hartu dute. Azpimarragarria da Gernikako Seber Altube ikastolaren partaidetza, bertako ikasleek A eta B mailetako 163 narrazio bidali baitituzte, baita Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastola eta Pasai Lezo lizeoarenak ere, bi ikastetxe hauek lau kategorietan parte izan duten bakarrak baitira. Nahiz eta idazle nafar eta arabar bakan batzuk eta lapurtar bat ere egon, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak dira egile gehienak eta bi lurralde horietakoak dira saritu gehienak ere (bi bizkaitar, arabar bat eta zortzi gipuzkoar, horietariko batek bi sari eskuratu dituelarik). Bi mailetako narrazioan zein poesian lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuek 50.000, 40.000 eta 30.000 pezetako dirusaria eskuratu dute. Bestalde, gazteak lana taxutzen lagundu dituzten irakasle edo senitartekoari 10.000 pezetako saritxoa eman diote. Aipatzekoa da aurten irakasle bat lau sarituren laguntzailea izatea eta beste irabazle batek, aldiz, inolako laguntzailerik ez izatea.

Saritutako lanak aurten argitaratuko den liburu batean bilduko dira. Gaurko ekitaldian ere 1997ko edizioan saritutako eta aipatutako idazlanak biltzen dituen liburua ere aurkeztu da.

PREMIOS LITERARIOS: BBK - EUSKALTZAINDIA

Los premios Resurreccion Maria Azkue 1998 vuelven a superar sus marcas de participación

Casi 500 trabajos tomaron parte en la octava edición del concurso literario para jóvenes de Euskaltzaindia y BBK

Hoy, viernes, día 12, ha tenido lugar en la sede de Euskaltzaindia en Bilbao la entrega de los premios Resurrección María Azkue 1998, el concurso literarario que la Real Academia de la Lengua Vasca y BBK organizan para fomentar el interés por la creación literaria entre los más jóvenes. Esta octava edición del certamen volvió a superar, como ya viene siendo habitual, sus marcas de participación, pues se recibieron un total de 491 trabajos. En concreto, fueron enviados 242 en la categoría A, destinada a niños de 10 a 13 años, y 249 en la categoría B, para jóvenes de 14 a 17. En lo que al género se refiere —cada categoría se divide en poesía y narración— se recibieron más narraciones, 374 obras en total, que poesías, 117.

La inmensa mayoría de estos trabajos fueron enviados a través de los centros escolares de los jóvenes escritores. En esta edición de 1998 han participado medio centenar de colegios públicos y privados, ikastolas e institutos. Destacan especialmente la ikastola Seber Altube de Gernika, cuyos alumnos mandaron al concurso un total de 163 narraciones, tanto en la categoría A como B, así como la ikastola Karmelo Etxegarai de Azpeitia y Pasai Lezo lizeoa, pues estos dos centros son los únicos que han participado en todas las categorías. Aunque también se cuentan entre los participantes varios alaveses, navarros y un joven de Lapurdi, la mayoría de los autores procede de Bizkaia y Gipuzkoa y también son de esos territorios los premiados (8 guipuzcoanos, uno de los cuales se lleva dos galardones, dos vizcaínos y una alavesa). Los primeros, segundos y terceros clasificados tanto en narración como en poesía de las dos categorías han recibido 50.000, 40.000 y 30.000 pesetas respectivamente. También se ha hecho entrega de una ayuda simbólica de 10.000 pesetas al profesor o familiar que ha ayudado al joven en la confección del trabajo. En esta edición resulta reseñable que un mismo profesor ha dirigido cuatro de los trabajos premiados, mientras que otro de los ganadores no recibió ayuda de ningún adulto.

Los doce trabajos premiados serán reunidos en un libro que se publicará este mismo año. Durante el acto celebrado hoy se ha presentado también el volumen que reúne las obras galardonadas y mencionadas en la edición de 1997.

* * *

1998.eko SARITUAK/PREMIADOS 1998

A MAILA/CATEGORIA A (Edad: 10-13 urte) (242 lan/242 trabajos)

Epaimahaia/Jurado: Amagoia Lopez de Larruzea, Gerardo Markuleta eta Manu Lopez Gaseni.

Narrazioa/Narración (221 lan/221 trabajos)

1. saria/1.er premio: Malen Zobaran Santos (Busturia)
Seber Altube ikastola (Gernika)
Izenburua-Título: *Joan doa, etorri dator*
Laguntzailea/Ayudante: Luis Carbonell Oiartzabal

2. saria/2.º premio: Ane Larrañaga Epelde (Azpeitia)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Baso babestua*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua Imaz

3. saria/3.er premio: Argia Akarregi Garalde (Ondarroa)
Txomin Agirre ikastola (Ondarroa)
Izenburua/Título: *Zonbisorginak*
Laguntzailea/Ayudante: María Luisa Larreina Ibarlucea

Olerkia/Poesía (21 lan/21 trabajos)

1. saria/1.er premio: Iban Izagirre Uranga (Azpeitia)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Eromena... amen*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua Imaz

2. saria/2.º premio: Ainhoa Aranberri Eizagirre (Zestoa)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Maitasunaren arrastoa*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua Imaz

3. saria/3.er premio: Amaia Bereziartua Paredes (Azpeitia)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Badakit*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua Imaz

B MAILA/CATEGORIA B (Edad: 14-17 urte) (249 lan/249 trabajos)

Epaimahàia/Jurado: Xabier Altzibar, Joan Otaegi eta Joseba Butron.

Narrazioa/Narración (153 lan/153 trabajos)

1. saria/1.er premio:	Imanol Carballo Tolaretxipi (Pasai San Pedro) Pasai Lezo lizeoa Izenburua/Título: *Aingerua naiz* Laguntzailea/Ayudante: Julen Ezkudia Mujika
2. saria/2.º premio:	Naiara de Miguel Pinillos (Mañueta-Baños de Ebro) Assa ikastola (Lapuebla de Labarca) Izenburua/Título: *"El mejor descanso"* Laguntzailea/Ayudante: Enrike Fernández de Pinedo
3. saria/3.er premio:	Nerea Pérez Anguas (Irun) Pio Baroja Institutua (Irun) Izenburua/Título: *Batek daki* Laguntzailea/Ayudante: Jon Puy Maiezkurrena

Olerkia/Poesía (96 lan/96 trabajos)

1. saria/1.er premio:	Imanol Carballo Tolaretxipi (Busturia) Pasai Lezo lizeoa Izenburua/Título: *Itsasoa* Laguntzailea/Ayudante: Julen Ezkudia Mujika
2. saria/2.º premio:	Irati Goikoetxea Asurabarrena (Beasain) Alkartasuna lizeoa (Beasain) Izenburua/Título: *Soberakinekin jolasean* Laguntzailea/Ayudante: Joxe Goikoetxea Jauregi
3. saria/3.er premio:	Iñaki Gurrutxaga Zubimendi (Orio) Lizardi Institutua (Zarautz) Izenburua/Título: *Korrespondentzia erratua da nirea* Laguntzailea/Ayudante: Ez

BBK-EUSKALTZAINDIA: "R. M.ª AZKUE" SARIA

A MAILA (10-13 urte)

Narrazioaren alorrean, lehen saria jasotako ipuinean, *joan doa, etorri dator* itsas giroko herri kontakizun bat txukuntasun handiz berritu izana nabarmendu genuen. Bigarren sarituari buruz, *Baso babestua*, animismoaren erabilera eta jakinarazi nahi duen mezu ekologikoa dira azpimarragarriak. Hirugarrenean, *Zonbisorginak* izenekoan, euskal mitologiaren eta terrorezko zinemaren uztarketa bitxia saritu nahi izan genuen.

Poesiaren alorrean, orohar, lirikotasun tonuan eta baliabide poetiko modernoak erabiliz ederki burututako maitasunezko poema intimistak izan dira saritu ditugunak.

"R. M.ª AZKUE" SARIA

Bilbo, 1999-III-12

IDAZLE GAZTEENTZAKO LITERATURA SARIA

14-17 urte

Aurreko urteetan bezala, zerbait orokorra aipatu nahi dugularik, ezin dugu albora utzi lanen kopurua. Olerki sailean aurreko urtekoaren parekoa izan da: 98. Baina narrazioan bikoiztu egin da: aurreko urtean 71eta, 1998garrenekoan: 150. Horrez gainera, testuen lantze eta aurkezte maila igo egin da jeneralean. Epaimahaikook eskertu egiten ditugu lan txukunak.

Dena dela, aurten zerbait pertsonalagoa esan nahi genuke, bidezko baldin bazaigu, behintzat.

OLERKIA. B

Lehenengo saria: *Itsasoa.*

Autorea: Imanol Carballo Tolaretxipi. Pasai San Pedrokoa.

Itsasoaren ikuskera poetikoa eta pertsonalizatua. Deskribapena. Kontenplazioan bakez dago kontalari poetikoa haren ederra dastatzen. Zerbait berri ekartzen saiatu da.

Bertso askean emana.

Tonuz egokia. Kontenplazio baketsu gozamenezkoa poetak dakarrena. Paralelismoaz eta similikadentziaz baliatzen da poema eraikitzerakoan. Tonuaz gainera, beste hainbat baliabide poetikoz jantzia, iruditeriaz hornitua, pertsonifikazioz biribildua. Intuizioa eta ofizioa erakusten ditu egileak.

Hizkuntza ondo erabilia.

* * *

Bigarren saria: *Soberakinekin jolasean.*

Autorea: Irati Goikoetxea Asurabarrena. Beasaingoa.

Gaia originala. Zeri heldu ondo pentsatu du. Ez du lehen kolpean hautatu gaia eta forma. Bertso neurtuan mamitua; hamarreko haundian. Monorrimoan osatua. Neurriari zehatz heltzen dio, naturaltasuna galdu gabe.

Hondakinez baliatuz, edo, hobeki esanda, soberakinez baliatuz hainbat gauza egin ditu: kometa, sorgina, Txiribiton, Urolako trena. Jolas poesia da. Aparteko naturaltasuna somatzen zaio kontaketan eta bertsoa eraikitze moduan. Estrofa bakoitza poematxo betea da, bukaeran, epifonema gisa, soberakinez zer gauzatu duen aitortzen du.

Hizkera egoki darabil.

* * *

Hirugarren saria: *Korrespondentzia erratua da nirea.*

Autorea: Iñaki Gurrutxaga Zubimendi. Oriokoa.

Maiteari diosala eta agurra da olerki honetan gauzatua. Irudi literario originalez egina den ikuskera poetikoa eskaintzen digu autoreak.

Bertso askean emana. Olerkia bi gorputzetan gauzatua da.

Iruditeria berria maite du olerkariak. Alde horretatik topikoak albora utzi nahi izan ditu eta maitasuna adierazteko irudi mundu berriagoan eraiki. Poetizitate landua erakusten du autoreak, sentimendu heziak, artifizioaren agindura daudenak.

Hizkera ondo erabilia.

* * *

NARRAZIOA. B

Lehenengo saria: *Aingerua naiz.*

Autorea: Imanol Carballo Tolaretxipi. Pasai San Pedrokoa.

Yonkiaren istorioa. Ondo irudikatua. Kontaketa, baina, aldi berean, une bakoitzari dagokion generoa erabiliz gauzatua: kontaketa, elkarrizketa, poema, deskripzioa. Kontatzeko modu airoso eta argia. Ganbelua eta Yonkiaren arteko elkarrizketa bizia. Yonkiaren zorabioaren errepresentazioa trebeki gauzatua.

Fikzio landua. Lortua benetan egoera bakoitzari dagokion generoen erabilera.

Tonua egoerari egokitua. Amaierako sorpresa. Ironia tonu disimulatua, irakurleari etengabe irribarrea eragiten diona.

Hizkera trebeki erabilia

* * *

Bigarren saria: *El mejor descanso.*

Autorea: Naiara De Miguel Pinillos. Minueta (Baños de Ebro) Arabakoa.

Ehorztetxe bateko langile bihurtu da protagonista INEMen lana eskatu eta gero. Istorio barregarria da. Edozein lanetarako prest zegoen gazteari eman dioten lan honetan lehen gaua da. Ugazabak azaldu dio gau horretan zer lan egin behar duen eta joan da bera gaztea bakarrik utziaz. Loak harrapatu du lehenengo. Gero, ezustean, ehorztetxean

sartu zaio andre zahar bat bere eskuetan motoserra duela. Ez bat eta ez bi han hasi zaio lehen mailako aberatsen hilkutxak motoserraz zatitzen. Andrearekin dituen istiluak eta ondorengoak barregarriak dira.

Kontaketa-elkarrizketa da. Bizia. Hizkuntzen nahasturaren grazian oinarritua. Nahastura hori ez gaizki hitz eginaren araberakoa. Gaur egungo kultura ezberdinen elkarrekin bizitzearen araberakoa baizik.

Hizkuntza desberdinen jolasa. Esperpentoa. Ironia eta barrea.

* * *

Hirugarren saria: *Batek daki.*

Autorea: Nerea Pérez Anguas. Irungoa.

Kazetari batek xakelari batekin bizitzen duen istorioa, hain zuzen. Istorio polita. Kazetariak ikasle zelarik xakelariarekin izandako harremanak; gero, galdu egiten dira ikasketak amaitu ondoren. Xakelariak izena aldatzen du eta ospe handiko xakelari egiten da. Biok gorde dute bihotzean noizbait elkarrekin topo egiteko itxaropena. Azken unean bat egiten dute, hain zuzen, beste erreportaia bat egiterakoan.

Egitura landua. Kazetariak eta xakelariak hizkera ezberdina egiten dute. Ahots karakterizatuz hornituak daude kontaketan. Ideiez, pentsamenduz, istorioz elkarren osagarri dira bi pertsonaiak.

Aipagarriak dira hizkera erregistroak. Bi ahotsetako jokoa. Hitano / zutanoz gauzatua. Letra molde desberdinez irudikatua.

EUSKARAREN KONTSEILUAK
EUSKALTZAINDIARI OMENALDIA

OMENALDIA EUSKALTZAINDIARI

1998-XII-19, Gasteiz/Europa Jauregia

Xabier Mendiguren,
Kontseiluko idazkari nagusia

Euskaltzaindia, herri-agintariok, jaun-andreok:

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren eta euskalgintza guztiaren izenean ongi etorri eta eskerrik asko Euskaltzaindiari omenaldi honetan esku hartzera etorri zareten guztioi.

Seguraski arrazoi asko daude Euskaltzaindiari eskerrak eman eta ageriki omen egiteko, izan ere Euskaltzaindian euskararen zerbitzuan emandako urte luzeak eta egindako ekarpenak ugariak eta askotarikoak izan baitira. Horien guztien berri emateko Haritschelhar jaun euskaltzainburua arituko da laster, ohikoa duen kemen eta suharraz. Eta ez iraganekoez soilik, baita etorkizunean Euskaltzaindiak egin nahi dituenez ere.

Nik neuk, Kontseiluak Euskaltzaindiari gaurko ekitaldi hau eskaintzeko ditugun bi arrazoi aipatu nahi ditut, besteak beste:

Batetik, orain 30 urte euskara batzeari ekin izana. Euskaltzaindia bere sorreratik bertatik arduratu izan duen auzia da euskalki desberdinetan banaturiko gure hizkuntza batzearena; hala ere, gerra eta ondorengo isilaldiaren ondoren 1968an ekin zion batzeprozesuari, irakaskuntzak eta belaunaldi berriak euskalgintzan sartzeak indar nabariarekin sentiarazi baitzuen premia hori. Luis Mitxelenaren eskutik Arantzazun egin zen biltzar hartan ezarri zen gaur ezagutzen dugun euskara batuaren etxagintzako giltzarria. Erabaki hura eta ondorengo urratsak ezinbestekoak izan dira gaurko euskararen eta euskalgintzako taldeen aurrerabiderako. Horregatik, gaur egun Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluan bilduta dauden 57 elkarteren izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari -iraganeko eta oraingoari- hemen ageriki, euskara batze horretan egin dituen ekarpen handiengatik. Hori gabe ezinezkoa izango zatekeen gaur egun irakaskuntzan lortu duen hedadura eta egungo gizartearen premietara egokitzea, hitz batean modernotu eta gaurkotzea. Euskal Herrian zehar egunero lanean aritzen garen milaka irakasle, idazle, itzultzaile, kazetari eta abarren lana erraztu eta hobetu duelako. Jakina da, Leizarraga, Axular, Etxeberri, Mendiburu, Mogel, Iturriaga, Añibarrorengan -antzinakoenak baizik ez aipatzearren-, nabari zen euskara batuaren mira eta amets hura, gure mendean eta bereziki bigarren atalean burutu da eta gertakari hori funtsezkoa da euskararen biziraupenerako.

Bestetik, duela 20 urte, "Bai euskarari" goiburupean Euskaltzaindiak egin zuen kanpaina hura gidatu eta arrakastaz burutu zuelako ere ongi merezia du omenaldi hau.

Diktaduraren gau luze eta iluna bukatu eta aro politiko berri baten atarian Euskaltzaindiak eta orduko euskalgintza xumeko indarrek begirada argikuslearekin ekin zioten Euskal Herriko gizarte zanpatua inarrosiko zuen deiadar zolia egiteari. Euskaltzaindiak eta laguntzaile-andana beharginak urtez urte indartuz eta handituz joango zen prozesua abian jartzea lortu zuten. Horregatik gaur hemen Euskaltzaindiarekin batera, kanpaina arrakastatsu haren euskarri eta eragile izan zirenak ere aipatu eta omendu nahi dira. Bejondeizuela guztioi!

20 urte geroago nabarmen hazi, ugaldu eta aberastu den euskalgintzako baratza gehientsuena bere baitan biltzea lortu duelarik, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak "Bai Euskarari" kanpaina haren lekukoa hartu eta "XXI. mendeko akordioa" goiburua aurretik ezarriz beste kanpaina eragile eta indartsu bat antolatzea lortu du.

* * *

Gaurko kanpaina honek asko zor dio orduko hari. Egia da, ordutik hona, euskarak urrats handiak egin dituela hezkuntzan, kulturan, Unibertsitatean eta komunikabideetan, oro har, eta seguraski orduko kanpainagileek amestu ere ez zutela egiten gaur egungo egoera. Zentzu horretan baikor egon eta etorkizunari ilusioz begiratzeko eran gaude, baina orduan bezala gaur ere etorkizuna ez daukagu ziurtaturik Euskal Herriko lurralde batzuetan, eta orokorrean ere nekez aurre egin diezaiekegu etorkizuneko erronkei, baldin eta gizarte-sektore guztietara, lanarenera bereziki, euskararen erabilpena hedatzen ahalegindu ezean.

Orduan bezala gaur ere "Bai Euskarari" esaten jarraitu beharrean gaude, baina oraingoan gizarte-eragileei dei berezi bat eginez gero eta ugariago diren haur eta gazte euskaldunentzat etorkizunean gizartearen sektore, erakunde, elkarte eta enpresetan, Euskal Herri osoan zehar, abegizko egitura euskaldunduak lehenbailehen prestatzeko eskatuz. Horiek gabe lehen urteetan egiten diren inbertsioak oso murrizturik gelditzen baitira lanaren munduan sartzeko orduan batik bat. Hori lortu ahal izateko eskatzen ditu Kontseiluak eta euskalgintzak gizarte-osoaren akordioa eta konpromisoa, zeinek bere egoera eta borondatetik urratsak etengabe egin ditzan, euskaldun izatea etorkizunean gero eta erosoagoa gerta dadin.

Beraz, nola euskara batzea hala euskara azkartu eta bultzatzea, duela 30 eta 20 urte jazotako gertakari haiek inoiz behar adina Euskaltzaindiari eskertuko ez dizkiogun egintzak izan dira, eta gaur egun baino askozaz baliabide gutxiago eskuan zituen garaietan.

Puntu honetara iritsirik, esan beharra daukat, Euskaltzaindiaren iraganeko ekarpenak aitortu eta omentzea ongi egonik ere -eta helburu horrek bildu gaitu gaur hemen- Euskaltzaindiak une honetan eskuartean dituen eta etorkizunean izango dituen egitekoen garrantzia ere aipatu nahiko nukeela. Jakina da Euskaltzaindiak garai desberdinak ezagutu dituela politika, gizarte-bizitza eta euskalgintzari berari dagokienez eta aldian-aldian egokituz joan dela herri-agintariek eta gizarteak eman dizkioten baliabideak erabiliz bere helburuak betetzeko. Bestalde, baliabideak aipatzean era askotakoak izan daitezkeela gogorarazi nahi dut, ez ekonomiko soilak, nahiz eta sarritan eta neurri handi batean lotura estua izaten duten diruzko laguntzarekin.

* * *

Nik neuk Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren idazkari naizen aldetik

gure baitan dauden 57 elkarteen aldekotasun, atxikimendu eta oinegitura bere lanerako baliagarri izan daitekeen heinean eskaintzen diot. Eta bide batez gure euskal gizarteak gero eta lastertasun handiagoarekin eskatzen dituen zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna eta bitartekoak izatea opa diot.

Uste dut gaur egun eta etorkizunean euskalgintzaren aldekotasuna beti izango duela aitortzea baliozko gertatuko zaiola. Gainera, hasieratik beretik Euskal Herri osoan eta osoarentzat lan egin duen erakundea izanik, maila guztietako herri-agintaritzen laguntza beti izango duela zinez uste dut, etorkizunari begira dituen erronkei erantzuteko, eta zer esanik ez, gero eta indartsuagoa den euskalgintzako milaka eta milaka profesionalen atxikimendu eta prestutasuna bere gidaritza onartzeko.

Haziz doan euskararen mundu honetan Unibertsitatearekiko lankidetza ere ezinbesteko eta ondorio biderkatzaile handiko ari da gertatzen euskararentzat, eta bertan alor desberdinetan lanean ari diren aditu euskaltzaleekiko harremana garrantzi handikoa gertatuko da euskararen etorkizunerako. Ziur nago Euskaltzaindiak jakingo duela guztiekiko zubiak egoki ezartzen, eta dagoeneko badituenak sendotzen orain arte bezain fruitu egokiak ematen jarraitzeko, azken batean horixe baita gizartearekiko lokarriak estutuz etorkizuneko erronkei irtenbideak bilatzeko biderik egokiena. Baina badira Euskaltzaindiari eska ezin lekizkiokeen lanak ere, eta horiek hizkuntzari dagokionez adin-nagusitasunari iritsitzat jotzen ditugun euskaldun guztiek eta bakoitzak hartu beharko ditugu geure gain, banaka zein taldeetan elkarturik. Azken aldi honetan sortzen ari den giro politiko berrian -ez da topikoa Euskal Herriarentzat aro berri baten atarian gaudela esatea-, ziur nago, euskarak inoiz baino indar, borondate eta adostasun gehiago bildu ahal izango duela bere inguruan eta horixe izango dugula guztiok XXI. mendean euskarak garapen osoa lortuko duen bermerik sendoena herri-eta gizarte-erakundeen arteko lankidetza leial eta zintzoan.

EUSKARAREN GIZARTE KONTSEILUAK EUSKALTZAINDIARI OMENALDIA

Vitoria/Gasteiz, 1998-XII-18

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Euskararen Gizarte Kontseiluko jaun-andereak,
Agintari jaun-andereak,
Euskaltzainkideak.
Jaun-andereak, agur.

Pozik hartzen dut hitza areto nagusi honetan eta, berehala, eskertzen zaitut Xabier Mendiguren jauna, orain bertan zure ganik entzun dudan mintzaldiaren gatik. Euskararen Gizarte Kontseiluak omenaldi bat eskaintzen dio gaur Euskaltzaindiari. Etorria da, beraz, omentzeko garaia eta uste dut Euskaltzaindia ohoratua dela omenaldi honekin.

Errana dut jadanik bertze biltzar batean zortzi zenbakiarekin bukatzen delarik urtea zoriontsua dela Euskaltzaindiarentzat. Adibidez, 1918: Euskaltzaindiaren sortzea, 1968: urre-ezteietako egin zen Arantzazuko biltzar famatua; 1978: Bergarako biltzarra eta *Bai Euskarari* ezin ahantzizko kanpaina; 1998: hogei urteren buruan, lema berarekin Euskaltzaindiari egiten zaion omenaldia.

Hogei urte iragan dira. *Bai Euskarari* kanpainaren eragileei —batzu zenduak, bertze batzu hemen gurekin direnak— oroitaraziko diet Aita Villasantek, orduko euskaltzainburuak idatzi zuena orduan:

> "Bittor Artola, Iñaki Azpitarte, Pedro María Basañez, José María Beaskoetxea, Jon Castañares, Juan María Covian, Alberto Elorriaga, Enrique Ibabe, Iñaki Juaristi eta J. J. Zearreta.
>
> Jaunak,
>
> Guztiok dakigu nolako eragina, nolako zizarra eta oihartzuna izan zuen Bai Euskarari kanpainak.
>
> Kanpaina horren eratzaileak bada, une hontan hementxe ditugu geure artean, geurekin. Gizon prestu hoiek gabe ez genuen ezer egin ahal izango. Jaun hoien buru-bihotzetan erne zen kanpaina hori egiteko lehen asmoa Beroiek antolatu zuten, beroiek etengabe egon dira gainean, eta beroiei esker bere helburuak lortu ditu kanpaina horrek. Beroien laguntza, oso-ososko ardura eta emaitza gabe Euskaltzaindiak ezer gutxi egin zezakeen. Arlo hoietan trebe direnen eskua behar-beharrezkoa genuen, eta jaun hoiek eskua ezezik baita bihotza eta astia eta dena eman digute.

Kanpaina bukatu da, baina Euskaltzaindiak ezin ahantz ditzake jaun hauek.

Eskerrak ematen dizkiegula esateak badu halako hitz hutsal eta hotz baten itxura. Ordaindu, berriz, guk ezin ordain diezaiekegu, inondik eta inolaz ere, euskaragatik eta Euskaltzaindiagatik jaun hoiek egin duten lana."

Hogei urteren buruan ez du Euskaltzaindiak ezer ahantzi, hor dauka gogoan jaun hoiek egin zuten lan baliosa euskararen eta Euskaltzaindiaren onerako. Hortakotz errepikatzen ditut, gaur, Aita Villasantek erran zituenak 1978-ko irailaren 29-an.

Norbait omendua bada, zerbait egin duelako da; pentsa dezagun zer egin duen Euskaltzaindiak, azken hogeita hamar urteotan, 1968-tik orain arte. Koldo Mitxelena zenak erakutsi zuen bidetik ibili da Euskaltzaindia. Hamar urtez batu du ortografia "h" famatu hura barne, deklinabidea, erakusleak, aditz laguntzailea, ikusirik euskaldun gehienek onartzen zituztela Euskaltzaindiaren proposamenak, erabakiak hartu zituen 1978an Bergarako biltzarrean. Geroztik ez da lo egon Gramatika batzordea, batu dituelarik hikako formak eta joskera aztertzen hasi. Hor daude lekuko agertu diren lau liburukiak.

Hiztegi batzordea ez da alferrik egon.

Berrikitan agertu da *Orotariko Euskal Hiztegia*ren hamaikagarren liburukia. Denbora berean Euskaltzaindiak hiztegi batuko formak aztertzen ditu hilabetero, hogei mila hitz eskainiko dituela 2000. urterako.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa Dialektologia batzordearen eskuetan dago. Lan ikaragarria, 2.800 galdera egin direlarik Euskal Herriko 145 herritan. Datorren urtean agertuko da Atlasaren lehen liburukia 300 mapekin. Aspaldiko ametsaren gauzatzen ari da Euskaltzaindia.

Onomastika batzordearen lanetan ikus daitezke herri-izenak, pertsona-izendegia, euskal deituren-izendegia, herriei eta jendeei eginikako erantzunak milaka. Exonomastika aztertuz (atzerrietako hiri, mendi, ibaien izenak) euskara batuari mesede handiak egiten dizkio.

Literatura batzordeak antolatzen ditu Jardunaldiak gai batzu hautatuz hala nola ipuinak, antzertia, paremiologia edo euskal literaturak dauzkan idazleak aztertuz: Elizanburu, Lizardi, Oihenart eta iaz Eusko Ikaskuntzarekin apailatu du biltzar nagusi bat Hendaian eta Saran Anton Abbadiari eskainia haren heriotzaren mendeurrenakari.

Jadanik aipatu ditut argitalpen batzu (hiztegia, gramatika, Atlasa), baina ez nituzke ahantzi nahi Onomastikakoak (16 liburuki), Euskararen lekukoak deritzanak (19) eta Iker sailekoak (11). Gehitzen baldin baditugu *Euskera* aldizkaria eta Arauak, neurt daiteke zer izan den Euskaltzaindiak Euskal Herriari egin dion emaitza: orrialdeak milaka, hamar milaka ere, dudarik gabe.

Jagon Sailak ere badu berea, bete du bere eginbidea urte latz haietan, hartuz bere gain bertsolaritza, alfabetatze kanpainak eta abar. Geroxago utzi ditu bertzeren eskuetan bakoitzak behar baitu berea egin. Halere pentsatzen dut bi gogoeta egin behar dituela Jagon Sailak geroari buruz: alde batetik, euskara egoki bat bultzatu eta agertu komunikabideen aurrean eta irakaskuntzan bereziki eta, bertzetik, euskararen estatusa zaindu, ez baita berdina Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean.

Erran nezake ere Euskaltzaindia Euskal Herriaren, Euskal Herri osoaren zerbitzuko dela hiri nagusietan dauzkan ordezkaritzei esker, bere egoitzan dituen biblioteka eta zerbitzu guziei esker. Egia da zerbitzu publiko izanez diru publikotik bizi dela eta beharrezkoak dituela baliabide guziak izan diten dirubaliabideak edo gizabaliabideak. Parada honetaz baliatzen naiz gure agintariei eskerren bihurtzeko orain arte emaiten dizkiguten ahalen gatik pentsatuz ere gure beharrak gero eta handiagoak direla nahi balinbadugu, tresnerian adibidez, III. milenioan sartu burua gora.

Euskaltzaindiari egiten zaion omenaldi honetan nola ez aipa Koldo Mitxelenak erran zuena Bergarako biltzarrean, duela orain hogei urte:

> "Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua."

Euskaltzaindiaren izenean zer erran dezake orain Euskaltzainburuak, ikusiz azken hogeita hamar urtetan egin den lana, euskarak ukan duen bultzada, euskara batuak ukan duen haurtzaroa XXI. mendean gerturik izaiteko eta betetzeko Euskal Herri osoko eremu guzia hizkuntza ofizial gisa? Bai, errepika nezake senditzen dudala poza eta damu izpirik ez.

Segitzen zuen Mitxelenak erranez:

> "Erabakirik onena hartu zuen (Euskaltzaindiak) Euskal Herriari euskaldun guztiak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea."

Hogei urteren buruan erran nezake ez dela gerotik gerora ibili Euskaltzaindia, ez dela luzamendutan sartu, aldiz gogotik eta deliberatuki abiatu dela euskara batuaren bide luze horretan. Aipatu ditut egin diren lanak eta ez dizkit nehork ukatuko azken mende laurden honetan agertu diren etekinak.

Euskararen bultzada eta aurrerapena zor diogu oraiko euskaltzainen belaunaldiari, ez bakarrik euskaltzainei baina ere Euskaltzaindiaren batzordeetan sartuak direnei, izan diten euskaltzain urgazle edo Unibertsitateko ikerle edo irakasle, Euskaltzaindiak biltzen baititu Euskal Herriko unibertsitate guziak Hegoaldekoak nola Iparraldekoak. Horretan datza Euskaltzaindiaren idekidura eta indarra. Duela hogei urte sortu zuen *Bai Euskarari* lemari jarraikiz Euskaltzaindiak beteko ditu bere xedeak eta helburuak agintarien eta euskaltzale guzien laguntzarekin. Atzo bezala, orain eta bihar ere, *Ekin eta jarrai* duela gogoan aldarrikatuko du *Bai Euskarari.*

DURANGOKO XXXIII.
EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

DURANGOKO XXXIII. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

1998.eko abenduaren 3, 4, 5, 6, 7 eta 8an.

J. L. Lizundia - R. Badiola

EUSKALTZAINDIAREN AZKEN ARGITALPENEN AURKEZPENA

Aurkezleak:

1. Jose Luis Lizundia, euskaltzain urgazlea, Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzailea eta Onomastika batzordeko kidea.

2. Ricardo Badiola Uriarte, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko argitalpen eragilea.

AURKEZTU DIREN ARGITALPENAK

1. Euskaltzandiaren Arauak: lehen karpeta.

1. karpeta: 1994-1997: 1. zenbakitik 75.rainoko Arauak barnetzen ditu: CD-ROM interaktiboan.

2. ARAUAK 2. karpeta: 1997-X: 76. zenbakitik 84. artekoak.

3. *A. d'Abbadie: 1897-1997:* Euskaltzaindiaren XIV. Biltzarra. Hendaia, 1997.

4. *Nomenclátor de Apellidos Vascos / Euskal Deituren Izendegia.*

5. *D.G.V. / Orotariko Euskal Hiztegia: Kor- Maj.* XI. liburukia.

6. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia: '1997.eko literatura sariak' eremuko irabazleen liburukiak, hots:

6.1. *Ipuinak eta bertsoak*: R. Maria Azkue saria, 1996.

6.2. *Hizkuntza, Kultura eta gizartea*: Mikel Zarate saria, 1997.

6.3. *Nada de agua en Madrid*: Txomin Agirre saria, 1997.

6.4. *Kea urruntzen*: Felipe Arrese Beitia saria, 1997.

6.5. *Burdindenda*: Toribio Altzaga saria, 1997.

AURKEZTEN DIREN LIBURUKIEN EDUKIAZ

1. Euskaltzaindiaren ARAUAK: karpetak: eta 2. Lehen karpeta 1994.eko urrian hasi zen eta 1997.eko irailean bukatu, alegia hiru urte bitarteko ARAUGINTZA sartzen

Ikasketa formalak merkataritzan, zuzenbidean eta ekonomian egin zituen, Merkatal Irakasletza lortuz. Hortik landa, Sorbonne-n eta Bonn-en Ekialdeko hizkuntzak ikasi zituen, gaztetandik zetorkion jauginari jarraikiz.

Hizkuntzez gainera, giza mintzamen sakonaren azalerak diren hizkuntza horietan hitz egiten zuten herrien berri ere jakin nahi izaten zuen Krutwigek. Alde horretatik, hizkuntzazaletasunarekin batera, geografia, historia eta zibilizazioak ere biziki interesatzen zitzaizkion. Herrialde ezberdinen mapa historikoak egiteko ohi ez bezalako trebetasuna zuen, adibidez, muga aldakorren zergatiak ere ongi gogoan izanik. Ekialdeko erlijioez ere kezkaturik ibili zen garai batean Federiko, buddhismoaz batez ere, eta dakigunez hor ikasketa sakonak burutu zituen.

Euskarari gagozkiola, gaztetan hasi zen gure hizkuntza ikasten, hamar urte inguru zituenean, aitaren etxean, berak aitortzen zigunez, neskamearen gelako ohepean, inork ikus ez zezan, ez baitzen garai hartan, non eta Getxoko giro aristokratikoan, batere ongi ikusia denbora hala galtzea, euskara bezalako hizkuntza kaxkar bat ikasten. Hamalau urte bete zituenerako, ba omen zekien mintzatzeko adina euskara.

Hemezortzi urte inguru zituenean, euskal zaletasunak Federiko Euskaltzaindira erakarri zuen, gerra galduaren ondoko bakartasunean ia erabat ahantzirik zegoenera, eta bertan R.M. Azkue ezagutu, biak lagun minak izatera helduz.

Ez datorke gaizki gogoratzea Krutwigek zer nolako Akademia aurkitu zuen orduan. Dakigunez, garaiko errepresio politiko espainolistagatik, euskara erabat zapaldurik zegoen, eta kalean euskaraz mintzatzeagatik ere isunak jartzeraino heltzen ziren oraingo betidaniko demokrata batzuen gurasoak.

Halere, honekiko kontraesanean, Euskaltzaindiak bizirik zirauen. Izan ere, Errepublika garaiko Autonomi Erkidegoen ahalbideei ate guztiak ixteko, Francok Estatuaren eta probintzien arteko erakunde guztiak, atzeranzko balioaz, ezabatu zituen, eta horregatik, Euskaltzaindia, hegoaldeko lau diputazioen babespeko erakundea izanik, lege-nortasunik gabe gelditua zen. Baina Azkue orduko alderdi nazionalistetan behin ere afiliatu ez nabarmendu ez zelako, eta

zeukan apaiz kontsiderazioagatik, bere Euskaltzaindi 'izoztuan' utzi zuten bakean, horrela, gainera, Estatuak, kanpora begira, museoko hizkuntza zahar hura errespetatzen zuelako itxura egin ahal izateko.

Bilerak bakan eta erdi klandestinoak izaten ziren urte ezin tristeago haietan. Euskaltzain abertzale asko ihes eginik edo atzerrian zeuden, euskara ikertzeko bitartekorik ez, eta ofizialtasun hispano-frantsesetik kontrako eraso etengabeak zetozkion, desprestigio kanpaina latzekin. Idazleen arteko giroa, gainera, garbizalekerian itorik zegoen, erdarazko eztabaida antzuetan noraezean. Euskal argitalpenak oro, zer esanik ez, guztiz debekaturik... Eta Azkue lekeitiarrak, gure kostetako karramarro ermitauen antzera, legez kanpoko Euskaltzaindi hartako oskol ahulean gorderik, gerrarik izan ez bailitzen, gure hizkuntzaren aurkako girorik ez balego bezala, egunero lanera joaten segitzen zuen Ibaiondo kalean, bere hiztegirako berba aurkitu berriekin eranskinak prestatzen, folklore eta herri musika aztertzen, bera inguratzen zuten baina atsegin ez zituen egoera eta denbora haietatik at erabat.

Giro benetan hits horretan, Federiko Krutwigen agerrera egiazko argia izan zen euskal munduaren iluntasunean, zeren hizkuntzetarako zaletasunaz gainera, Krutwig antolatzaile ona baitzen, hurrengo urteetan ederki erakutsiko zuenez. Azkuek 1942.eko urriaren 29an euskaltzain urgazle izendatu zuen, 21 urte zituenean, eta urte batzuk geroago, 1947.eko azaroaren 29an euskaltzain oso, 26 urterekin, gure Akademiak inoiz izan duen euskaltzainik gazteena, oker ez banago (2).

Krutwig pausoka Euskaltzaindiaren barne funtzionamendua eta egitura egokitzen saiatu zen. Ordurarte bilerak erdaraz egiten baziren, berari esker euskara 'lan-tresna' izatera pasatu zen. Hori, garai hartarako, urrats garrantzitsua izan zen, eta haustura garbia zekarren aurreko mentalitatearekiko. Bestalde, euskaltzain berri batzuk izendatzea proposatu zuen. Horietako batzuk frankismoak begi onez ikusiriko euskaltzaleak ziren, horiei esker gobernuak Akademiaz izan zitzakeen susmo txarrak uxatzeko, baina beste batzuk maila handiko idazle eta azterlariak (Luis Villasante eta René Lafon, adibidez), gure erakundearen prestigioa goratzeko asmoz.

Literaturzalea ere genuen Federiko. Euskaltzaindiarekin erabat loturik egon zen garai horretan artikulu, poema eta itzulpen ugari argitaratu zituen *Gernika, Egan* eta *Euzko gogoa* aldizkarietan. Horiez gainera, ehundaka poema aleman itzuli zituen Bizkaiko euskarara, atzerriratu behar izan zuenean, familiaren kalterako izango zirelakoan, itsasora jaurtiak. Bereziki gogoratzekoak dira, besteak beste, Euskaltzaindiaren berregituraketaz eginiko txostenak.

(2) H. Knörrek ohartarazi didanez, Azkuek bere *Estudio comparativo dentre el vascuence y varias lenguas cultas*, Bilbao, 1949, 65. orr., hungarierari buruz ari delarik, honela dio Krutwigez: "Debo a nuestro académico, el joven y notable vascólogo guechotarra Federico Krutwig Sagredo, estos otros datos". Hau da, seguraski, Krutwigi buruz eginiko lehen aipamena.

Ikerkuntza ere ez zuen alde batera utzi Krutwigek. Julio Urkixo Mintegiaren buru izendatua izanik, Ekialdeko Ikasketen Atalean arabiera, persiera eta indierazko gramatikak idatzi zituen, obra hauek, dirudienez, geroago galdu ziren arren.

Akademiaren egitekoak, fundazio garaian argi ezarriak baina geroago, girorik ezagatik, tamalez, luzaroegi zokoratuak, hau da, hizkuntzaren ortografia eta hizkuntza batuaren literatur eredua finkatzea, berriro ere plazaratu zituen Federikok. Berak euskal tradizio zaharra, Iparraldeko idazle klasikoena bereziki, berreskuratu beharra aldarrikatu zuen, Europako beste hizkuntza batzuen batasunean gertaturikoaren ildotik. Bestalde, gerraurreko garbizalekeria gainditu behar zela zekusan, eta euskaldunok mendebaldeko mundu greko-latindarrean partaide izanik, nazioarteko kultura terminologia horretaz baliatzeko eskubidea eta premia planteatu zuen zuhurki.

Krutwigek literatur euskara baturako proposatu zuen bide berriak, hots, alde batetik, gure klasikoei atxikiak eta, bestetik, nazioartekotasun terminologiaz osatuak, laster bereganatu zituen haren inguruko idazleak (Villasante, Erkiaga, Berriatua, Mirande...). Egia da, noski, geroago, inguruko egoera soziologikoak denboraz erakusten digun pragmatismoak idazle horiek, gauza batzuetan —grafia etimologikoetan batez ere—, bide teorikoegi hartatik urrunaraziko zituela, baina ezin ukatuzkoa da, oro har, berak seinalatu zigun bideak gaur arte irekirik dirauela, bere balio osoan. Alde horretatik, zinez jo dezakegu Federiko Krutwig gaurko euskara batuaren gerraondoko lehen teorilari eta bultzatzaile nagusitzat.

Euskaltzaindiaz gainera, Federiko Krutwigek harreman zabalak izan zituen bere inguruko herritarrekin, arte eta kultur munduan batez ere. Horren adibidea Bilboko *Asociación Artística Vizcaína*-k 1951ean eskatu zion hitzaldia dugu, "El Simbolismo en la Plástica", *Mikelditarrak* deritzon bere eleberrian, 107. orrialdetik aurrera tartekatua. *Mikeldi* pintatzaile-taldearen sortzailea ere izan zen. Alde horretatik, kultur foro ezberdinetan zehar zebilelarik, Federikok adiskide ugari zituen era guztietako artista eta intelektualen artean, politika eta iritzi ezberdintasunek hor inolako oztoporik jarri gabe. Adibidez, Agustin Ibarrola pintatzaile komunistaren adiskide ona zen, beronek duela gutxi kontatzen zidanez, bai eta Enrique Múgica ministro sozialista-ohiaren eta Adolfo Careaga Unidad Vizcaína-ren fundatzailearena ere.

Bada, ordea, Federiko Krutwigen bizitzan gertatu zen une erabakigarria, haren harrezkeroko ibilbidea erabat markatuko ziona. 1952.eko maiatzean Luis Villasante Kortabitarte jaunak bere sarrera-hitzaldia egin zuen Bizkaiko Diputazioaren Jauregian, *"Litteratur Euskara Laphurtar Klassikoaren gain eratua"* zeritzona. Erantzunez, harrera-hitzaldia Federikok egin zion. Hartan, Krutwigek, garai hartarako ezin sinetsizko ausartziarekin, Francopean Eliza Katolikoak euskararekiko zerabilen zabarkeria salatu zuen gogorki, hargatik kritika bortitza eginez. Txalo beroak jaso zituen, baina bertan zeuden agintari

faxistetako batek, susmo txarrez, euskarazko hitzaldi hura eskuetatik kendu zion, gaztelaniara itzularazi eta Krutwigen aurka kartzela-neurriak hartzeko. Federikok baina, itzalpean egoteko gogorik ez eta atzerrirako bidea abiatu nahiago izan zuen, gure herriko beste hainbesteren antzera.

Erbestean hogeita sei urte eman behar izan zituen Federikok, harik eta 1978.ean, Franco hil ondoren, Hego Euskal Herrira itzuli arte. Artean, Parisen hiru urtez egon zen. Ondoren, sei urte iragan zituen Alemanian. Han Johannna Lück andrearekin ezkondu zen, ezkontza horretatik seme bat izan zuen, Chandra Alexandros, sinologoa, gaur egun Alemanian ordenagailu enpresa batean lanean aritua, euskaraz ere badakiena. Geroago Euskal Herrira itzulirik, Biarritzen hiru urte egin zituen, De Gaulle-ren gobernuak, *Vasconia* liburua argitaratzeagatik (1963), kanporarazi arte. Ipar Euskal Herrian izan zen garaian, ordea, ez zuen Euskaltzaindiarekiko harremanik galdu; aitzitik, Xabier Dihartze 'Iratzederren' izendapena bultzatu zuen. Geroztik, Belgikan izan zen, Erroman (lau urtez), Aljerian (zazpi hilabetez) eta Aosta haranean (zortzi hilabete), hortik berriz ere Belgikara joanez. Han Agnes Caers irakaslearekin ezkondu zen.



Federiko Krutwig Sagredo.

Atzerrian zelarik, gorago aipatu *Vasconia*-z gainera, Federiko Krutwigek anitz liburu izkiriatu zituen, Fernando Sarrailh de Ihartza ezizenarekin: *La Cuestión Vasca*, Espainiako Alderdi Komunista Marxista Leninistak eskariz prestatua (1965); *Praktikaz* (1968), *Mao Tzedung Buruzagiaren aiphuak* edo Liburu Gorria (1970), *Vasconia y la nueva Europa* (1976). Herriratu ondoren, ez zion argitaratzeari utzi eta beste obra batzuk ere kaleratu zizkigun: *Garaldea* (1978), *La nueva Vasconia*, berrargitarapena (1979), *Ekhaitza* eleberria (1980), *Belatzen baratza* saila (9 liburuki) (1979-1983), *Computer Shock Vasconia. Año 2001* (1984). Fantasia lantzea atseginago zuen errealitate arrunta kontatzea baino.

Obra horiez gainera, erbesteratze-urte horietan Federiko ETAren ideologo eta militantea ere izan zen. *Branka* aldizkarian gerrilla-borrokari buruz, taktikaz eta estrategiaz maiz idatzi zuen. Berak esanik, jakin badakigu garai batean frankismoaren aurkako erresistentziarako armak erosten jardun zuela, non eta Txekoslovakian, Pragako udaberriaren bultzatzaile izan zen Alexander Dubcek-en inguruan. ETAren V. Asanbladan Krutwigek eginiko txostena oinarrizkotzat jo zen, erakundean sortzen ari zen espainolismotik saihesteko.

Diktadura egoera hartako bidegabekeriei aitzi, Federikok armak erabiltzeari beharrezko bazeritzon ere, demokrazia formala heldu ondoan, berehala aldatu zuen lehengo jarrera, eta behin eta berriro esaten zuen egoera berrian borroka armatuak euskal kausari mesede baino kalte handiagoa egiten ziola, hura erabat gaitzetsiz.

Ideologiaz ezkerreko gizona bazen ere, pixkanaka, marxismo klasikotik, kulturan eta jakintzan oinarrituriko ezker aristokrazia intelektualerantz lerratu zen. Komunismo errealak eginiko kalteak eta izandako porrot ekonomiko soziala ikusita, ez zuen dogmakeria itsuetan iraun. Halere, ez zuen horregatik herriarekiko eta eguneroko arazoekiko loturarik behin ere hautsi eta, hil arte, konpromiso politikoak onartzen jakin zuen, *Euskal Herritarrok* talde eratu berriaren bultzatzaile gisa aurkeztu zen eta.

Haren obra politiko guztietatik eragin handiena utzi duena, ordea, *Vasconia* izan da, zalantzarik gabe. Egia esan, ene ustez, liburu gutxi izan dira Euskal Herrian gerra ondoko belaunaldiak horrenbeste inarrotsi dituenik. Obra hori, noski, erabat galerazirik zegoen, baina ironiaz, Manuel Fraga Iribarne jaunaren kalkulu txarrei esker jakin genuen euskaldun askok horren berri. Galiziako gaurko Xuntako presidentea garai hartan Francoren gobernuko Informazio eta Turismoko ministroa zen. Jendearen irizpidea moldatu eta gidatzeko, propaganda-astekari bat argitaratzea bururatu zitzaion, *El Español* deitua, hain zuzen. Eta non eta aldizkari horretan hasi ziren publikatzen, Krutwigen *Vasconia*-ren pusketa hautatuak, *Los delirios del separatismo*-ren izenburupean.

Eta zer esanik ez, aitortu behar dut, ene hamazortzi urte haietan delirio haiek ni eta nire inguruko lagunak behintzat erabat liluratzen gintuztela, gure historia zaharra era berriaz kontatzeaz gainera, gertakari hurbilak interpretatzeko era tremendista eta epantante hartan egia sakon ugari esaten zituelako, askoren begien irekiarazle. Ordurarteko nazionalismo geldikor, erdaltzale eta probintzianoa ez bezala, Krutwigek askatasunaren aldeko borroka, euskara, unibertsaltasuna eta kultura predikatzen zigun. Eta gazteok era horretako mezuak nahi genituen, eta behar ere bai.

Euskal Herrira itzuli ondoren, Krutwig zenbait urtez Zarautzen bizi izan zen, azkenean Bilbon kokatu arte. Gure artera etorri bezain laster bere lehengo tokia bete zuen Euskaltzaindian, Literatura Batzordean (1981-1991), Jagon Sailean (1988) eta Exonomastika azpibatzordean (1985-1998) lan eginez. Azken honetan maiz guztiok txunditurik uzten gintuen bere jakituria sinesgaitzarekin,

ekialdeko hizkuntzetan batez ere, horiei buruzko fonetika-datu zehatzak eskaintzean.

Liburugile izateaz gainera, artikulu ugari ere idatzi zituen azken urteotan, *Egin*en, *Deia*n *eta Bilbao* udal hilabetekarian batik bat. Irrati eta telebista-elkarrizketak ere izan ditu, gehienetan zorrotz eta kritiko, gizarte-akuilari. Azken urteetan zibernetikaz eta fisika kuantikoaz kezkatua zebilkigun, euskarak denboraren kontzepzio berriak adierazteko zeuzkan baliabide interesgarriak azpimarratuz. Hor garbi ageri da Krutwigek ez zuela hautsi nahi, gure P.M. Etxenike fisikariak hainbestetan salatu duenez, zientzien eta letren arteko zubia, XX. mendearen bukaerako intelektualak arlo biak ongi gogoan izan behar zituela kontsideratuz. Honek, besterik gabe, ederki asko erakusten digu nolako jakintza-egarria mantentzen zuen Federikok bere azken urteetan ere.

Bazuen gure gizonak beste ezaugarri bat, ene ustez, behar bezainbat azpimarratu ez dena: bere Akitaniazaletasuna. *Vasconia* irakurri duen orok badaki Akitania behialako Euskal Herriaren funtsezko ataltzat aldarrikatzen zuela. Dirudienez, René Lafon Akitaniako eskualdearen euskaltzaintzat proposatu zuen. Ildo beretik, gaskoiera Euskal Herriko erromantze berezitzat jotzen zuen eta Akitaniarekiko loturak sendotzearen aldekoa izan zen beti. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Akitaniarekin Atlantiko aldeko ekonomi eskualde nagusia antolatzeko, azken aldion ibilian ari den proiektua, nolabait, Sarrailh de Ihartzak aspaldian aurrikusia betetzera letorkiguke.

Krutwigek, bere agerraldi guztietan, europar tradizio klasikoaren bideari jarraikiz, ongi bereizten zituen, alde batetik, herri mailako kultur adierazpen xumeak eta, bestetik, goi mailako kultura landua. Eta Euskal Herrian bereziki laudatzen zena herri mailako emaitza apala zela kontuan izanik, baserri girokoa batik bat, bera behin baino gehiagotan sala-arbuiatzen zuen jebismoaren apoteosi horretatik urruntzen saiatu zen.

Bera hiritarra zen, kaletar-kaletarra, eta horregatik, taberna ilun, zikin eta merkeetako ardo txar edo sagardo garratzaren ordez, Bohemiako kristal landuzko kopan zerbitzaturiko ardo onaren maiestatea gurago zuen. Arrazoi berberagatik, letra gabeko bat-batekotasuna barik, berak ikasketan, irakurketetan eta luzaroko gogoetetan oinarrituriko lan ongi pentsatu eta mamituak zituen nahiago. Horrexegatik, noski, erdeinatzen zuen bertsolaritza, era horretako lan gehienak iraute laburreko lore zirelakoan.

Bai, aristokrata genuen Krutwig; jakitearen aristokrata intelektuala, agian zorrotzegia, baina gaztetako hainbat urtetan ikasteari egunero hamalau ordu eskaintzen zizkion pertsonak bazuen, nolabait, besteekin ere zorrotz izateko eskubiderik.

Ba omen zekizkien hogeitaka hizkuntzen artetik, Federikok bi maite zituen bereziki: euskara eta greziera, eta bietan goi mailako aditua genuen. Lehenak euskaldun egiten zuen, bigarrenak, ordea, europar, unibertsal, mundutar, eta bi

maite horiek lantzen saiatu zen gaztedanik. Haren ustez, edozeinek, kulturaduna izateko, greziera klasikoa jakitea ezinbestekoa zuen, eta greziar ikasketak gure artean bultzatzeko asmoz, *Jakintza baitha* izeneko elkartea sortu zuen 1985.ean Bilbon, lagun batzuekin. Horko kideen artean Joan Jose Pujana Arza Eusko Legebiltzarraren buru-ohia, Josu Lavin, Manu Ertzilla, Juan Luis Goikoetxea, Erramun Gerrikagoitia eta beste euskaltzale ezagun batzuk aurkitzen dira. Era honetako elkarteetan tradizioz izandako ohiturarekin bat, kide bakoitzak halako goitizena darama grezieraz. Federena 'Αριστων 'Αμμων *Ariston Ammon* zen, Getxoko 'Areetako Hoberena' alegia. Elkarte honek ΙΕΡΑΞ *Hierax* aldizkaria publikatzen du, 'belatza' hain zuzen, eta plazaratzen den bakoitzean, Greziako telebistak saio berezia eskaintzen omen dio. Hor Krutwigen artikulu luze bezain sakonak argitaratu dira grezieraz.

Kultura bultzatu nahian, Krutwig kultur erakunde batzuen kide izan zen, adibidez Erromako Accademia Internazionale di Propaganda Culturale (1994), Atenasko Nazioarteko Zientzi Forumaren ohorezko presidentea (1994), Thessalonikako grezieraren zabalkunderako erakundearen ohorezko kidea (1994) eta Atenasko Bizantziar Ikasketen Zientzi Elkartekoa ere ('Επιστημονικη 'Εταιρεια Βυζαντινων Σπουδων).

Grezieraren eta nazioarteko kulturaren alde eginiko lanen esker onez, Federiko Krutwigek sari eta ezagutza asko jaso zituen. Horien artean Atenasko Homero saria (1989), Greziako Kabala hiriko ohorezko domina (1995), bai eta Delphos hirikoa ere. Hermes fundazioak, gainera, beka eman zion Europako munizipalismoari buruzko saiaera bat idazteko (1995).

Euskaltzaindiak ere ez du ahantzirik Federiko. Aitzitik, ongi gogoan izan ditu euskararen eta gure Akademiaren alde eginiko lan ugariak. Horregatik, duela bi urte, haren euskatzaingoaren berrogeita hamargarren urteurrena betetzean, gorazarre berezia eskaini zion, omenezko liburu eder batekin batera. Bera izan genuen geure arteko euskaltzain zaharrena, urtez ez bada, izendapenez bederen, eta ongi merezia zuen guztion ezagutza.

Bilbok, halaber, ez zeukan ahantzia. Bidebarrieta Biblioteka Kulturguneak, horren zuzendaria zen Joseba Agirreazkuenaga jaunaren ekimenez antolaturik, 1997.eko ekainaren 19an omenaldia egin zion, Bilboko agintarien, Bizkaiko intelektualen eta Greziatik bereziki etorririko Triantaphylos Karayannis Irakasle Akademikoaren presentziarekin. Han euskaraz, greziera klasikoaz eta modernoaz, eta gaztelaniaz, gure humanista bikainaren merezimenduak goraipatu ziren, geroago liburu batean bilduak (3).

Obra horretan Josu Lavinek gogoratzen digunez, εγω μονον λογοζ ειμι 'hitza besterik ez naiz' idatzia zuen Federikok bere buruaz, apalki. Hitza, egia, baina hitz bizia, hitz eragilea, gogo-bultzatzailea, kezkak sortzen zekien hitza. Hitzak maiz ideia eraberritzaileen lehen haziak izaten direlako, proiektu han-

(3) Ikus 1. oharrean aipaturiko obra.

dien aitzindari. Horrexegatik goraipatzen zuen hitza Done Joanek bere ebanjelioaren hasieran, berri onaren ekarle: 'Εν άρχῆ ἦν ὁ λόγος 'Hatsean zen Hitza' eta maiz, bataiatzaileari gertatzen zitzaionez, φονὴ βοῶντος ἐν τῇ ερημω 'desertuan oihuz dagoenaren boza' irudi dakigun arren, historiak eskuarki erakusten duenez, arrazoizko argudioetan oinarrituriko hitzei arrakasta ohi darraie atzetik.

Amaitzera noa. Ez nuke kronikatxo hau bukatu nahi, ordea, Krutwigen bizitzako beste puntu bat, gainetik bederen ukitu gabe. Ongiegi dakit ohiko hilberri batean honelakorik ez dela egiten, gizabide xumeenak hala gomendatzen duelako. Halere, arazo hau aurretik plazaratu da, eta modu aski trakets, desegoki eta, ene ustez, maliziatiaz plazaratu ere, ahoa isilik ukan balu dotoreago egongo zatekeen alkate izandako baten nabarmenkeriagatik gainera. Beraz, ene iritziz, besteok ezin gaudeke horretaz deus esan gabe. Noski, Federiko abandonuan, bazterkerian zokoratua eta hila zelako gezur maltzurraz ari naiz. Eta hemen kontua ez da nork bere buruari dominak ezartzen hastea, iraina argitzea baizik.

Federiko Krutwigek, gorago esan denagatik, bere bizitzako zati luzean erbesteraturik bizi izan behar zuen, kanpoan era askotako lanetan (itzultzaile, interpretari...) ibiliz. Hori dela eta, Euskal Herriratu zenerako, jadanik adineko pertsona zen eta, berton Gizarte Segurantzapeko jardunik aski ez zuenez, egoera ekonomiko larrian aurkitzen zen. Horretaz jabeturik, bai bere lagunek —eta beste askoren artean Anton Artiñano, Manu Ertzilla, Juan Jose Pujana, Josu Lavin aipa litezke— eta bai Euskaltzaindiak laguntza eskaini nahi izan zioten, bere azken urteetan lasaitasunez bizi zedin. Lagun zintzo bezain eskuzabal horiengandik etxea eta bestelako sorospideak eskuratu zituen, Euskaltzaindiarengandik, ordea, hileroko diru-laguntza. Akademiaren bileretara joateko, bestalde, hainbat euskaltzainek ukan dugu bera leku batetik bestera eramateko ohorea.

Batzuek eta besteok gehiago ere eskaini nahi genion, egia, baina ezinezkoa zen. Federiko Krutwigek bere bakartasun intelektuala eta askatasun pertsonala uki ezineko altxortzat jotzen eta babesten zituen. Alde horretatik, ez zuen inola ere nahi inor bere etxean eta bere barruko gauzetan sar zedin. Alferrik izan ziren, beraz, bere bizilekura, garbi-ikuziak egiteko edo, zerbitzariren bat bidaltzeko proposamen guztiak. Eta horren aurrean, bai lagunek eta bai Euskaltzaindiak azken unerarte errespetatu nahi izan dute haren borondatea.

Besterik izan zen, ordea, iazko udaberrian aldakan istripua izan eta ospitaleratu beharra ukan zuenean. Bere inguruko adiskideen urgazpenaz gainera, Euskaltzaindiak eta Euskal Idazleen Elkarteak andre laguntzaile bat jarri eta ordaindu zuten, haren ezintasunetan sorosteko. Lagundu bai, baina edozein kasutan berak nahi eta uzten zuen neurrian, haren nahia behin ere bortxatu gabe. Eta hori behintzat behin betiko argi eta garbi gelditu beharko litzateke.

Arestian aipaturiko aldaka-istripuaren ondorioz, makal xamar zebilen azken hilabeteetan, horregatik, ahal zuen neurrian, gizarte eta politika-ekintzetara joateari uko egin gabe. Horrela, Guggenheim-en egon zen irailean, ETAren su-etena baino bi egun lehenago, Katalan-galego-euskaldunen forumaren aurkezpenean, bai eta *Euskal Herritarrok* taldearen jendaurreko prentsaurrean ere. Heriotza 1998.eko azaroaren 15ean etorri zitzaion, igandez, bere etxean zelarik.

Fededuna ez izaki, haren omenezko ospakizunak Derioko hilerrian egin ziren, senide, adiskide, euskaltzain, unibertsitario eta era guztietako politika eta kultura agintari eta lagunen artean. Azpimarratzekoa da, berriz ere, bertan izandakoen iritzi, pentsamolde eta ideologia ugariak, Federiko Krutwigen gogo zabal eta anitzaren ispilu.

Haren hilkutxa euskaltzain eta lagunen artean jasorik, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, euskaraz, Krutwigen merezimenduak goraipatu zituen, gerra aurreko eta ondoko belaunaldien zubia izan zela azpimarratuz. Josu Lavinek, greziera klasikoaz, haren glosa egin zuen bokantza handiz. Haren loba ere esker oneko hitzekin mintzatu zen gaztelaniaz. Xabier Amuriza bertsolariak, bere boz ederraz, guztion izenean azken agurra eskaini zion bertso hunkigarrietan.

Egun batzuk geroago, azaroaren 27an Euskaltzaindiak, Bilboko egoitzan egin zuen hileroko bileran, *postume*, gorazarre bat eskaini zion, euskaltzainburuaren bidez. Hartan, Agnes Caers haren emazteak, Belgikatik bereziki helduak, laudorio eta omenezko hitzak esan zituen.

Biharamunean, azaroak 28an, Federiko Krutwigen azken nahiari jarraikiz, emazteak eta adiskideek haren errautsen herena Laidako hondartzan itsasoratu zuten, Euskal Herritik mundu zabalera heda zedin, zenduak *eman ta zabal zazu* lema berea eginik. Errautsen beste heren bat senideek gorde dute, familiaren panteoirako. Azken herena Atenasen barraiatzekoa da, Federen azken ekaiak hegaz egin dezan betiereko, berak hainbat maite ukan zuen Heladeko zeru urdinetan zehar. Horrela, bi urte lehenago, 1997.eko omenaldian Xabier Iratzederrek eskaini zion poeman profeta gisa eskainiriko hitzak betetzen ziren: *"Badakit euskaltzain bakoitzak, zuk bezala, bi Herri dauzkala: Euskal Herria... eta mundu zabala"*.

Gure artean ere haren bizialdi eta mezu distiratsuaren itzala ez da erraz iraungiko, zeren hura zen kandela zatxekana eta argi egiten zuena.

Bukatzeko, erregu bat egin nahi nioke Euskaltzaindiari: eska diezaiola Getxoko udalari haren jaioterrian, Areetan, Federiko Krutwigen izena kale bati ezartzeko. Bilboko udalari, aldiz, Ibaizabalen gainean eraikitzeko omen diren zubi berrien arteko bat, halaber, *Krutwigen zubia* gisa izendatzea kontsidera

dezala, belaunaldien artean eta kultura ezberdintasun artean hainbeste aldiz zubi izaten jakin zuen euskaldun ospetsu honen ohoretan.

Zaude bakean. 'Εν ειρηνη ισθι!

Xabier Kintana Urtiaga

* * *

KRUTWIG JAUNARI BURUZ

Xabier Kintanak esan duenari ezer kendu gabe, nik ere nahi nituzke hitz batzuk esan, gehituz, Federiko Krutwigi buruz, neronek ezagutu nuen aldetik. Eta hasiko naiz Krutwig nola ezagutu nuen esanez. Teologian graduak egiteko Comillasera bidali ninduten eta han hiru urte pasa nituen, udako bakazioetan Arantzazura etorriaz, Bilbotik pasatuz, noski. Han -Comillasen- tesia egin nuen Ama Aingeru Sorazuri buruz, Aita Eusebio Hernández jesuitaren zuzendaritzapean. Arantzazun bagenuen inprentatxo bat eta han tesia argitaratzea pentsatu nuen, baina esan zidaten ezetz, han ezin zitekeela atera, lehendik ere bazutela lanik aski, etab.

Norbaitek esan zidan orduan Bilboko Erruki Etxean (Casa de Misericordia deritzonean) bazela inprenta bat, han bizi eta lan egiten zuten gazteei ofizioa irakatsi eta liburuak ateratzen erakusteko, eta hara jo nuen. Eta argitaletxe horretara maiz egin behar izaten nituen joan-etorriak Arantzazu eta Bilbo artean. Orduan hasi nintzen Federiko Krutwig Sagredoren izena ere entzuten. Berau bilbotarra zen, baina aita alemana zen, Bilbon fabrikaren bat zuena. Bilboko gure komentuko telefonotik deitu nion, eta bai berak puntualki erantzun ere. Esan nion nahiko nukeela bera agurtu eta ezagutu. Eta esan zidan "Ba etorri!". Eta beste gabe joan egin nintzen. Etxe eder bateko pisu batean bizi zen. Esan nion zertara nentorren: bera ezagutzeko, alegia, bere entzutearen berri banuenez gero.

Hauxe izan zen, bada, nire lehenengo harremana Krutwigekin. Berak Euskaltzaindiarekin bazituen harremanak eta lortu zuen ni euskaltzain egitea ere. Horretarako hitzaldi bat behar nuen egin, eta eguna eta herria ere finkatu behar ziren. Nik esan nuen neure herria -Gernika- orduan bonbardeoarekin deusezta tuta gelditu zela eta han ezin zela egin. Krutwigek bere aldetik esan zuen: "Ez, hori hemen Bilbon, Bizkaiko Foru Diputazioan egin behar da".

Jarri zen, bada, epea eta eguna hori egiteko. Eta eguna heldu zenean eta, entzule gisa, jende asko zegoelarik, nik neure hitzaldia irakurri nuen, ez osorik, ordea, luzeegia zelako. Euskaltzaindia zer zen, zertarako zen, bere historia etab. azaldu nuen pixka bat, laburki. Gero Krutwig jaunaren aldia izan zen. Izugarri txalotua izan zen. Eraso bortitzak egin zituen orduko egoerari buruz. Gero, berriz, Krutwig laster desagertu zen. Aitak gomendatu zion estranjerira ihes egiteko eta han makina bat urte igaro zituen, barkazioa iritsi zitzaion arte. Eta bai, urte batzuk pasata, iritsi zitzaion.

Gordetzen dut oraindik egun hartan eman zidaten diploma. Eguna, 1952ko Orrilaren 23an eta zadorlari bezala firmatzen du Nazario Oleagak. Eta Euskaltzainburuaren ordez Lekuona'tar Imanol-ek.

Krutwigek, bada, urte asko pasatu zituen ihes egina bezala Italian, Alemanian... eta ez dakit nik non gehiago. Niri ez zidan kartarik egin, bera kanpoan zegoen bitartean ni ez konprometitzeagatik edo uste dut.

Akademiaren aktoa izan zen hura. Baina Bizkaitik izan ezik, ez zen han beste euskaltzainik izan, Lekuona jaunaz kanpo.

* * *

Nik ezagutu nuen aldetik begiratuta, nolakoa zen, bada, Krutwig jauna? Euskaltzaindiko batzarretara beti etortzen zen, hutsik egin gabe. Gero gurekin bazkaltzen zuen, hotelean. Ez zuen asko hitz egiten. Beharbada hori konprenitzeko, esan behar da pixka bat totela ere bazela.

Behin bakarrik uste dut egon zela Arantzazun Euskaltzaindiko batzar bat han egin zenean. Eta mendiak eta paisajea ikustean, hauxe esan zuen: "Esto no es bello, esto es sublime".

Euskaltzaindiko batzarretan nahikoa isilik egoten zen. Esaten zirenak errespetoz entzuten zituen, hori bai.

Behin gogoan dut nola etorri zen Krutwigen aita Gernikako gure etxera (hobekiago esan, Errenteria aldean bizi ginen etxera). Pentsatzen dut berak norbaiti galdetuko ziola non bizi nintzen, eta hala etorri zen. Gogorrak bota zizkidan semearen kontra, ez baitzegoen pozik atzerrian zeraman bizimoduarekin.

Hori ez dakit, baina Krutwig atzerritik etorri zenerako, uste dut aita hila egongo zela jadanik.

Nik entzuna dut Bilbon bazirela —eta orain ere izango dira agian— *Deutsche Schule* deituak, hots, aleman eskolak, Bilbon fabrikak zeuzkaten alemanen

seme-alaben eskolak, eta dirudienez, gure Krutwigek horietako batean egingo zituen haurtzaroan bere eskolak. Eta agian horregatik bazuen alergia bat kristau eskoletarako, baina ez dakit hala den.

Jaunak, hori da nik dakidan guztia.

Fr. Luis Villasante O.F.M.

JAIME IÑAZIO KEREXETA GALLASTEGI
(Elorrio, 1918-1998)

Bilbo, 1998-XII-18

SARRERA

Joan zan abuztuaren 4an hil zan Elorrion Jaime Iñazio Kerexeta abadea, aspalditik euskaltzain urgazlea (1964). Hiru bat hilabete lehenago, apirilaren 24ean, Ohorezko Euskaltzain egin eban Euskaltzaindiak, eta izendapen hori guztiz pozik hartu eban Jaimek. Baina ez eban berak etxe honetara etorterik izan, Agiria hartzeko: bezperan buruko ondoeza agertu jakon, eta gatx horrexek eroan euskun gure artetik, aste gutxi barru.

Jaimeren omenez berbalditxu hau egiteko eskatu eustenean Euskaltzainditik, ezin nik ezelan ere ezetzik emon: aspaldiko laguna eta sarritan lankidea neban Kerexeta jauna, haren lan eskergearen txalotzaile izan naz beti, beragaz batera eta egun berean jaso neban Euskaltzaindiagandik ohorezko izendapena, eta ganera neuk emon behar izan neutsan azken agurra, Eleiza Amaren izenean, Elorrioko parrokian, joandako abuztuaren bostean.

1. BIZITZA

Elorrion jaio zan Kerexeta, 1918. urteko uztailaren 31.ean, Aita San Iñazio Loiolakoaren jaiegunean, hain zuzen ere. Mutiko zala, abadetzarako bidea hartu eban eta hainbat ikastetxetan burutu zituan bere ikasketak: Gaztelu Elexabeitian, Comillasen, Burgos, Sevilla eta Galiziako Tui-n. Azken hiru uriotan musikarako eukan trebetasuna ere erakutsi eban. "Schola Cantorum"eko zuzendari Burgosen, organujole Sevillan, musika-irakasle Tui-ko Seminarioan: hementxe egin zan abade, 1947. urtean, eta katedraleko organujole izatea irabazi eban, norgehiagokan, benefiziadu lez... Urte bi lehenago, pianu-titulua ere eskuratu eban Bilboko Musika Konserbatorioan.

Bere etxean eta herrian ikasitako euskerea ez eban guztiz galdu erbesteko egotaldi luzean. Nik dakidala, urrutian bizi beharrak biziagotu egin eutson herrimina, eta batez ere Tui uri apal baketsuan zaletasunik handienaz ekin eutson euskerea ikasteari, Resurrección María de Azkueren *Morfología Vasca* eta Seber Altuberen *Erderismos* gidari zituala. Bere bizitza guztian ez dau Jaimek ukatuko, ez isilduko, maisu handi bioi zenbat zor deutsen.

1952. urtean Galiziako lurralde gozoak utzi eta bere Euskal Herri maitera biurtuko jaku Kerexeta betiko. Urkiolako Santutegian emongo ditu 4 urte, 1956. urtean Elorriora jatsi arte. Harrezkeroko bizitza guztia Elorrion emongo dau: San Agustin eta Sortzez Garbia eleizetan abade (urtebete labur baten Iurretako abade laguntzaile ere izan zan). Berrogeta bi urte luze, Elorrion, amaibako lanean.

2. EUSKAL IDAZLEA

2.1. Olerkaria

1954. urtean agertzen jaku Kerexeta euskal idazle lez, *Euzko Gogoa* aldizkarian. "Arantzibia" izenordepean bere burua lotsor estaltzen dauala, 15 olerki argitaratzen ditu. Gero, *Euzko Gogoa* eta *Olerti* aldizkarietan argitara emoniko olerkiak liburu bitan batuko ditu: *Orbelak* (1958) eta *Bitargi* (1960). Hogei urte geroago liburu bioi barri bat erantsi eta *Orbelak, Bitargi, Udazken* (1980) liburua argitaratuko dau, gaztelaniazko itzulpen eta guzti ("versión castellana revisada por Luis de Castresana").

Bere burua, poeta lez, apal agertzen dau hasiera honetan Kerexetak: bere olerkitxuak "xume ta mengel" dirala autortuko dau, "edonok egin daikezanak"... Etzan hori *Euzko Gogoa*ren zuzendaria zan *Udalaizpe*ren (Jokin Zaitegiren) eritzia: "Belarri-biotzetan samur, goxo eta gogor iosi ta itsatsi oi diran olerki errex, arin eta bigunak... Orainaldi ontan bizkaieraz nabarmentzen diran olerkari gorengoen artean gorengoetariko bat dugu «Arantzibia», nonbait: dana neurri, dendu ta musika". (*E.G.*, 1959, 294-6).

Kerexetak hasiera hasieratik autortzen deusku bere euskalzaletasun bizia ere: "Euskeraganako maitasunak erabilli nau; bai, aldarrika diñot: argitara damodazan lerro oneik, arek sortu ta eragiñak dozuz..." (*Orbelak*, Hitzaurrea, 9). Geroko ahaleginak eta lan ugariak argi eta garbi erakutsiko deuskue benetako bizkaitarra izan zala honetan, "corto en palabras, pero en obras largo", "hitzetan urri, egintzetan ugari".

Poesiaren munduan murgilduta ibili zan lehenengotan. Baina *Euzko Gogoa*ren urteotan, beste alderdi bi ere erakutsi euskuzan: bata, musikazalearena; bestea, berak "mazmarroizti" deritxonak, erderazko "heráldica". Hori bai: gai biok ere euskera hutsean erabiliko ditu eta prosaz.

Musika gaiari hiru artikulu eskeiniko deutsoz:

1. *Ereslari batzuen oldozkunak* (itzulpena, 1954).
2. *Frederic Chopin* (1954).
3. *Ereslari erromantikuen aldia* (Schubert, Mendelssohn, Schumann) (1955).

Chopinzale dala autortzen da: "Ez diñot besteak baiño geiago balio dauanik, atsegiñen izango yatzula baiño... Bein baiño geiagotan esan dot neurekotan: Al izango ba'neu nik Chopin'en antzerakoa izan, aren eskuak euki, aren adorea lortu!" (*E.G.*, 1954, 9-10z., 151).

Mazmarroiztia dalako horri 11 artikulu labur eskeini eutsozan *Euzko Gogoa*n, hiru urtetan (1956, 1957, 1958). Bere bizi guztian ekingo deutso gogotsu gai honi eta hainbat liburu eskeiniko deutsoz, gaztelaniaz: *Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco* (5 tomotan, 1970-74); *Casas solariegas de Bizkaia* (tomo bitan, 1987. 1989), *Linajes y Casas solariegas de Elorrio* (1988), *Linajes y Casas de Gipuzkoa* (1993), *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII* (1992).

Gramatikazale zorrotza ere, agertzen jaku Kerexeta, *Euzko Gogoa*ren aldi horretan, Aita Pi karmeldarraren *Kristoren Antz-bidea* eta J.B. Ibargutxiren *Otoia* liburuei egindako kritika laburretan (E.G., 1957).

2.2. **Euskal Biblia**

Bibliari eskeini eutson Jaime Kerxetak bere bizitzako ekitaldirik luzeena eta emonkorrena. Hamabi liburu, gutxienez, argitaratu ditu gai honen inguruan. Itun Barriagaz hasiko da eta Biblia osoa Bizkaiko euskerara itzuli arte ez dau bakerik izango. Bere Euskal Biblia dau Kerexetak lanik ospetsuena, Bizkaian hutsune luzea ederto bete dauan liburu txalogarria.

— *Jesu Kristo gure Jaunaren Barri Ona* (1960) da lehenengo liburua gai honetan. Ebanjelio alkartuen itzulpen honek zabalkunde handia izan eban: aspaldiko egarri bizia asetzera etorren ur garbia zalako. Ebanjelioak bizkaieraz irakurteko ez geunkan besterik *Argi Donea* baino, eta honek domeketako ebanjelioak baino ez ekazan. Bai abadeok, bai kristinau herriak pozarren hartu genduan Kerexetaren itzulpen hau: edozeinek neke handi barik ondo ulertzeko euskera garbian egoan bizkaieratuta. Gerora ere birritan ekingo deutso Jaimek gai beroni: *Ebanjelio alkartuak* (1973 eta 1989, baiña azken hau *Biblia Interconfesional*-etik euskeratua).

— Langile amorratu honek aurkitu dau gai egokia eta ez da lotan egongo: hurrengo urtean *Apostoluen Egiñak* (1961) kaleratuko deusku eta lau urte geroago *Apostoluen Egiñak eta Idazkiak* (1965). Ez jako gauza handirik falta Testamentu Barri osoa euskeratzeko. Hurrengo urtean lau ebanjelioak osorik itzuli eta *Jesukristoren Barri Ona* (1966) argitaratzen dau. Zatika egindako lana batu eta *Alkartasun Barria* (1972) eskeiniko deusku, lehenengo aldiz Bizkaiko euskeran.

— Behin Testamentu Barria egin ezkero, Zaharra zergaitik ez? Lan gogorra eta luzea da hori itzultzaile bakarrarentzat. Baina lan eskerga hori osotzeko eskatzen deutsoe, behin eta barriro, hainbeste adiskidek, baita Bilboko gotzaina dan Antonio Añoverosek ere. Liburu barriaren edizinoa ta zabalkundea aurrera eroateko lagun-aldra batek Batzorde bat sortu dau eta dirua aurreratu. Baina, buztarri bakarreko idi indartsuaren antzera, testuaren itzultze-lan ikaragarri hori Jaimek berak bakarrik egingo dau. Oharrak, abade talde batek euskeratuko deutsoz eta liburuaren Sarrera guztiak Lorentzo Zugazaga abadeak. Holan, inok uste izango eban baino bizkorrago ikusiko dau argia *Euskal Bibliak* (1976). Urte bian egin dau Kerexetak Testamentu Zaharraren itzulpena. Harrigarria, benetan, eta eskertzekoa lan eder hau. Baina han bere etxeko ganbaran edo "txori tokian" sartuta, egunero bederatzi ordu lan egiteak ez deutso mesede handirik egingo Jaimeren osasunari.

Dakigunez, Kerexetaren aurretik beste bizkaitar batek ere euskeratu eban Biblia osoa: Arrigorriagako semea zan Aita Uriarte frantsizkotarrak. Duvoisin kapitainak lez, honek ere Luis Luziano Bonaparte printzearen aginduz egin eban, eta egin ere, ez bizkaieraz, gipuzkeraz baino, printzearen aginduari jarraituz. Bonapartek, ostera, Duvoisinena baino ez eban argitara emon; Uriarterenetik Bibliaren lehenengo liburu batzuk baino ez, Otaegi gipuzkoarrak zuzenduta. Printzeak, antza, langile sutsua aurkitu eban Aita Uriartegan, baina bizkaitarraren gipuzkerea orrazteko langilerik ez eban aurkitu, nunbait. Horregaitik edo geratu zan Uriarteren Biblia argirik ikusi barik.

Batzordeko lagunak "Eskintza"n autortzen dabenez, eurak "bizkaierazko Biblia osoaren bearrizana somatzen" eben, eta ganera "gaurko gure erriarentzat..., gaur bizkaieraz egiten dauan erri onek erraz-erraz ulertuko leukean eraz..." (*Euskal Biblia*, V). Aita Olabideren *Idazteunak* ez zituan beteten egarriok: gasteiztarraren euskerea ilunegia zan gure herriarentzat. Eskatzen jakon helburua lortu ete eban Kerexetak? Baietz uste

dogu. Lehen ere bere maisutasuna ondo erakutsita eukan horretan. Bibliaren itzulpen barri honen zabalkundeak ere beste horrenbeste dinosku: lehenengo edizinoa urte gitxitan agortu zan, eta harrezkero beste argitalpen bi egin dira (1993. 1994). Dana dala, apal eta bihotz-zabal agertzen jakuz batzordekoak Kerexetaren Biblia eskeintzerakoan: "Zabalik geratzen dira —dinoskue— ekinbideak, zabalik eginbideak; Biblia-arloan diarduen jakitunak jarraitu daikeoe euren lanari, euren arazoari, Biblia jakintza-aldetik obetzen, apaiñagotzen, bikaiñagotzen, eta bide-zidorrak argiagotzen... Ekin dagiola bakotxak bere lan-arloari!" (Ib. V).

Horixe lortu nahi izan dau oraintsu Euskal Herriko jakitun talde batek: Kerexetak bere Biblia-itzulpena gazteleniatik egin badau, talde honek jatorrizko hizkuntzetatik egingo dau zuzenean, gaur egin ohi dan legez. Ganera, azken urteotan Euskara batua nagusitu da gure artean, eta eskabide barri honi erantzun nahi izan jako, *Elizen arteko Biblia* (1994) argitaratzean. Itzulpen barriaren arrakasta handia ikusirik, hurrengo urtean, *Itun Berria* ere argitaratu deuskue, hiru hizkuntzetan hatan ere (grekoz, latinez eta euskaraz), Biblia barriaren itzulpen ekumenikoaz baliatuz. Holan, bai Bizkaiko kristinauak, bai beste euskaldun kristau edo giristino guztiak badoguz orain Biblia osoa geure hizkuntzan irakurteko erea eta poza.

2.3. **Liturgia euskeraz**

Danok dakigunez, Erromako Eleizeak, azken Kontzilioaren aurretik, latina erabili izan dau bere hizkuntza bakartzat otoitz ofizialetan: mezarako, sakramentuetarako, Orduen liturgiarako... Mende luze askotan horrelantxe.

Baina herriak latinik ez ekian eta, hainbat eleiz gizon arduratu zan latinezko testuen itzulpenak egin eta herriaren eskuetan jarten, batez ere mezako testuenak.

Euskeraz ere hutsune hori beteteko ahalegin batzuk aspalditik egozan eginda: letra handiko esku-liburu edo debozionario zaharrak gogora ekarri daiguzan, baita *Argi Donea* mesedegarria ere. Oraintsuago, 1949.ean, Orixek euskeratutako *Urte guziko Meza Bezperak* zabaldu zan gure artean, latinaren parean euskerazko itzulpena ekarren liburu dotorea. Nik neuk ez deutsat gitxi zor liburu honi. Mezearen beste euskal itzulpen bat ere ezagutu neban, Jon Gurutz Ibargutxi abadeak bizkaieraz egina. Argitaratua izateko eleiz baimena ere lortu ebala uste dot Bilboko gotzaitegian, baina ez eban argirik ikusi. Ez dakit zergaitik. Orixerenaren itzulpen soila ete zan? Non ete dabil orain ubidetarraren itzulpen hori?

Orixeren eta Ibargutxiren bidetik ekin eutson gure Kerexetak. Bere *Eguneroko Meza* 1963. urtean argitaratu aurretik, domeka eta jaiegunetako mezen itzulpenak orri solteetan argitaratzen zituezan Aita Onaindiak eta Jaime Kerexetak. Hau dala eta, *Eguneroko Meza*k argi dinosku liburu barri hau "Kerexeta'tar Jaime'k eta Aita Onaindia-'eginda, ta Kerexeta'ren ardurapean atonduta" dagoala. Baina egiari berea zor jako eta, esan daigun mezaliburu honen egile nagusia Jaime izan zala.

Jaimek, jakina, Orixeren meza-liburua ondo ezagutzen ebanez, behin baino sarriago izango eban begien aurrean haren itzulpena. Baina *Eguneroko Meza* ez da, ez, bestearen bizkaieratzea: alde batera utziko ditu haren Bezperak, latina, goratzerretako doinuak, Rituala eta azkenenko eliz abestiak. Apalago eta laburrago dator Kerexetaren liburua

Orixerena baino, ahal danik eta merkeen eta Bizkaiko kristinau askoren eskuetan lagateko borondatez edo...

Sekulako harrera ona egin jakon Bizkaian, honen antzeko mezaliburu baten premina gorria egoalako gure artean. Izan ere, *Argi donea* zaharra laburregi ta estuegia zan orduko eskabideentzat; Orixerena, ostera, agortuta egoan eta, ganera, ilunegia zan bizkaitarrik geienentzat, bere nafar usaineko euskera bereziagaitik. Kerexetak ondo hartuta eukotson bere neurria Bizkaiko euskereari. 5.500 ale argitaratu ei zituan, eta, urtebeteren barruan, dan-danak egozan salduta edo zabalduta. Egilea bera ibili zan, herririk herri, Bizkaiko eleizarik gehienetan bere "ume" barria aurkezten.

Beranduegi etorrela *Eguneroko Meza*? Alde batetik, halan dirudi: argitaratua izan zan urtearen azken aldian, hain zuzen ere, Kontzilioko Gurasoak ontzat emon eben Erroman liturgia barriztatzeko agiria. Laster hasiko ziran loratzen eta frutuak emoten liturgia barriaren lanak.



Ezkerretik eskubira: H. Knörr, J. Kerexeta —euskaltzain ohorezkoaren diploma etxean jasotzen—, J. L. Lizundia.

Esan daigun. horraitino, Kerexetak bere meza-liburua euskeratu ebanean inongo inok ez ekiala etorkizun barri horren barririk. Artean, Kontzilioa iragarrita egoan, bai, baina batzeko. Eta nok jakin orduan handik lasterrera zer etorriko jakun? Beste hau ere esan daigun: liturgia barrirako lehenengo baimenak eta aldaketak etorri ziranean, zorionez guk bageunkala Bizkaian Kerexetaren liburu hau. Esaterako, meza irakurgaiak —ordukoak, ez gaurkoak— herriko hizkuntzan egiteko baimena eldu zanean, Bizkaiko Eleizeak erraztuta eukan bidea: Kerexetaren itzulpena erabilteko baimena emon eban gotzainak eta danok pozik. (Bizkaitarrok baino estu ta larriago ibili ziran orduan gure auzoko beste euskaldunak, itzulpen egokirik ez eukela eta).

Domeka ta jaiegunetako irakurgaiak hainbat urtetan entzun izan dituez Bizkaiko gure eleiztarrak Kerexetaren hizkeran; asteguneta ko eta santuen mezetako irakurgiak, ostera, oraindino luzeroago, *Irakurgaiak* deritxon liburu lodikote ofiziala 1988. urtera arte ez zalako Bizkaian argitaratu. Horra hor zelan, Kontzilioari eskerrak, Kerexetak eleiztarrendako asmatu eta egindako meza-liburu txikia, gero Altarako liburu bihurtu zan urte askotan Bizkaiko abade euskaldunontzat.

Kontzilio ostean, urteak joan urteak etorri, mezeak aldaketa asko eta sakonak izan ditu: egituran, otoitzetan, irakurgaietan, oikune edo ritoetan... Hau holan dala, Kerexetaren *Eguneroko Meza* ere, beronen antzeko beste liburu asko lez, alboratu egin behar izan da, liburu ofizialei lekua emonez. Baina esan daigun, testu eta liburu ofizialok argitaratu eta gero ere, gure arteko abade batek baino gehiagok jarraitu izan dauala Kerexetaren liburu txikia erabilten, honen berbetea argiago, samurrago, bertokoago egiten jakolako-edo, hizkera horretara belarria eginago eukalako-edo...

Eguneroko Meza da, liturgi arloan, Kerexetaren lan nausia, baina ez bakarra. Hor doguz, beste batzuen artean, *Astegunetako Meza-Otoitzak eta Jainko-Erriaren Otoitza* (1977), *Elizearen otoitza* (1982), (Orduen liturgiako Gorespenak eta Bezperak, era laburrean), *Domeka eta Jaiegunetako Ospakizunak, Abade bagarik* (1982) eta *Fededunen Otoitza* (1988)...

Elizbarrutiarteko itzultzaile-taldean ere partaide izan genduan, lehenengotik hasita. Baina geroago eta gitxiagotan etorten zan talde-batzarretara: Jaimek erosoago aurkitzen eban bere burua bakar-lanean jo ta ke, talde-lan gogaikarrietako eztabaida luzeen artean baino. Berak argi ikusten eban bere bidea, arau jakinak eta zehatzak zituan euskera-gaietan, eta nekez aldenduko eban inok bere erizpide ta jokabideetatik, talde-lanetan behin baino sarriago egin behar danez, norberaren hizkerearen berezitasunen kaltetan, batasunaren mesedetan.

Hutsuneak betetea: horixe izan da beti Kerexetaren asmoa, Bibliaren eta liturgiaren arloetan. Testu barrien itzulpen ofizialak astiroegi etozala? Gure eleizetan horreen premina handia egoala eta, berak, bere kontura, inok esanaren zain egon barik, behingoan euskeratu eta argitaratuko zituan.

2.4. **Beste erlejino-gai batzuk**

Biblia eta meza-liburua dira, duda barik, Kerexetaren lanik behinenak, gure Herrian eraginik handiena izan dabenak. Euskerazko zenbat liburu irakurriago eta, batez ere,

entzunago gure Bizkaian mende honetan? Eta, Jaimeren meza-liburua bazterrean utzi behar izan badogu ere, *Euskal Bibliak* mesede handia egingo dau luzaroan ere, nik uste.

Baina etzan horretan itota gelditu Kerexetaren ahalegina. Erlejino gaien artean, ezin guk aitatu barik utzi beste itzulpen batzuk:

— *Didaché eta Apostoluen Siniskitza* (1965), *Eliz-Guraso Apostolikuak* (1975) eta *Kunran*-eko esku-izkribuak (1989), antxinakoak.

— *Gure Salbaziño-egintza* (Alkartasun Barria) (1972), *Kristau-Ikasbidea* (4. maila) (1974), katekesi-arloan.

— *Berrio-Otxoa* (1988), *Kenpis* (1989), *Kristau-Gaiak* (1995) eta Escrivá de Balaguer-en *Bidea* ospetsua (1995).

3. GAI PROFANOAK

Olerkiak alde batera uzten baditugu, Kerexetaren euskerazko lana, ia oso osorik, itzulpenari eskeinita dago, erlejino gaien itzulpenari, ikusi dogunez. Baina gai profano batzuk ere euskeratu zituan, euron artean: Luis de Castresanaren *Iparragirre'ren Bizitza* (1978) eta *Gernika'ko beste Arbola* (1979); Bohórquez-en *Bolibar* (1984). Euskal idazle batzuen euskerazko lanak zerbait orraztu eta eratu ere bai: Aita Basaberen *Gogarteak* (1963), Bustintza'tar Errose "Mañariko"ren *Ipuiñak* (1990) eta Xabier Goitiaren *Eusko-Umeak Atzerrian* (1991).

Hiztegigintzan ere lan egindakoa dogu. Horra hor, adibidez, bere *Diccionario Euskérico* (1977) eta *Diccionario AMAYA de la Lengua Vasca* (1991).

Nire ustez, ondo merezidute eukazan Jaime Kerexetak Euskaltzaindiak berari egindako izendapenak: lehenengo, urgazle; aurton, ohorezko. Berrogeta hamar euskal liburutik gora egin eta argitaratu dituan langile nekaezin honi horrenbeste eta gehiago zor deutsoe Herriaren eta Eleizearen ordezkariak.

Kerexetaren lanik gehientsuenak itzulpenak baino ez dirala, eta itzulpen soilak ez deutsola ospe handirik emoten, ez egileari berari, ez euskereari, literatura ederraren aldetik, behintzat? Holan uste izango dau batek baino gehiagok. Baina Kerexetaren lan luze eta ugaria guztiz dogu aintzat hartzekoa eta txalogarria:

— Alde batetik, Bizkaiko Eleizearen —hau da, bizkaitar asko ta askoren— beharrizanei erantzun egokia emoten jakin daualako, beste inok baino lehenago, gehiago eta hobeto.

— Eta bestetik, azken berrogei urteotan beste noren euskerea izan dogu hemen irakurriagoa edo, behinik behin, entzunagoa? Hizkera argia, gehiegikeria bako garbia, zuzena, arau zehatzez ondo hornitua, zentzun handiz landua eta txukuna, gure herriak egunero ahotan erabilten dauan berbetatik hur-hurrekoa... Gogoangarriak dira, duda barik, gure idazle "klasikoen" lanak, hori ezin ginei ukatu. Baina euron artean, zeinek izan dau bizkaitarron gogo-bihotzetan Kerexetak hainako eragin luze ta sakonik?

Amaitzeko, Juan Mari Lekuonaren bertso dotore bat jatort gogora. Behin Urkiolako Santutegian, Bizkaiko Eleizeak omenaldi apal bat egin eutsen 5 eleizgizoni, euskeraz

eleiz gaietan egindako lan ederragaitik; boston artean, han zan gure Jaime ere. Bakotxari bertso bana kantatu eutson Juan Marik. Kerexetari hauxe:

"Elorriotik dator
Jaime Kerexeta.
Nork du sendoagoa
idazteko seta?
Bizkaiera hotsegin
gogor lau haizeta...
Euskaran bere pare
gaur askorik ezta."

Karmelo Etxenagusia Uribe,
Bilboko Gotzain Laguntzailea/
Obispo Auxiliar de Bilbao.
Euskaltzain urgazlea

YON ETXAIDE ITHARTE
(1920-1998)

Bilbo, 1998-XII-18

Donostian hil zaigu 1998ko ekainaren 30ean Yon Etxaide Itharte. Gipuzkoako hiriburu berean jaioa zen 1920. urteko martxoaren 20an, bere bizitzan zehar euskarari eta euskaltzaletasunari eskaintza oparoa emango zion idazle. Ongi merezia zuen 1957. urtean Euskaltzaindiak urgazle izendatzea eta baita ere 1991ean euskaltzain ohorezko egitea (ikus *Euskera*, III, 1958, 169. or. eta XXXVI, 1991, 453. or.).

Lagun minak izan ginen ezagutu ginen une beretik. Anaiarteko gerrate haren ondotik urri ginen mendizaleak eta urriago euskaltzaleak, batez ere, hauek ziren lekuan zirela, beraien buruak isilpean gorde beharra zuten. Baina garai haietan, elkar hobeto ezagutuala adiskidetzen ginen. Donostiako Amaikak-bat mendizale taldearekin ibiltzen Yon eta hortik ezagutu genuen elkar berrogeitagarren urte ilun haietan. Pundu honetan ohar bat egin beharra dut, bere izenaren grafiaz *Yon* erabiltzen dut, bere gogozkoa zena bete nahirik.

Euskarazko liburu bila aritzen nintzelarik zein ustekabea izan nuen mendi lagun nuen Yonek *Alos-torrea* (1950) eleberria bere sinadurazko eskaintzaz igorri zidanean. Ez nenkien zelan eskertu ere eta Donostiara joan nintzen batean, Kale Nagusian Grupo de Puertos de Guipúzcoan delineante lana egiten zuen bulegora joan nintzaion pertsonalki eskertzeko. Eleberri hura berriturik eman zuen 1981ean.

Orduz geroztik, elkarren lagun minagoak bihurtu ginen. Eta aitortu beharra dut euskal kulturaz inori ezer zor badiot, lehen lehenik Yon Etxaideri zor diodala, zeren bere gomendioek gidatu baininduten gure literaturako autorerik hoberenak ezagutzera, aldi berean baita ere bultzatu ninduen gure historia eta izaerak hobeto ezagutzeko Arturo Campión zenaren lanak irakurtzera. Beti esaten zidan gure literatura ongi ezagutzeko, Ekialdera begiratu beharra dagoela, han hemen baino lehenagotik idazle asko eta oso onak izan zirelako. Ekialde horri, gaurko idazleek, Iparraldea deritzate baina geografia koordenadak kontutan hartzen baditugu, hobe zaigu Ipar-ekialde bezala izendatzea.

Euskaraz idazten noiz hasi zen galdetu nionean esan zidan gaztetxoa zela, bere lehen lana Till Eulenspiegel Erdi Aroko alemanaren abendurak euskaratu eta *La Cruz* astekarian argitaratzen hasi zenetik.

Yonen lana, ordea, urte ilun eta larri haietan iraultza bezalakoa iruditzen zitzaidan. Bera idazlea izateaz gainera, bere ogibidezko langela hartan klandestinoki euskara irakasten aritzen zelako. Sarri egiten genituen elkarrekin mendi ibilerak eta maiz etortzen zen bere ikasleak lagun zituela. Ikasleetariko bat zuen gero bere bizitzan emazte eta laguntzaile bikaina izango zuen Pilartxo Rekalde.

Mendian ibiltzaile bikaina zen, nekeak ongi menderatzen zituenetarikoa eta 1952an elkarrekin ginen Pirinioetako gailurrik altuenetan, zenbait egunez Aneto eta inguruko beste zenbait gailurretara igoaz. Donostiar eta eibartar talde txiki bat ginen eta, besteak beste, han lagun izan genuen Agustin Barrena donostiarraren gogoa zen Balaitus gailurrera heltzea, baina berak eskaladarik egiten ez zuenez, lagunduko ote nion eskatu zidan, eta handik urtebetara han ginen Balaitusen. Baina Yon Etxaide bera ere ez zen atzean gelditu, gurekin batean gailurra hartu zuen. Horrek erakusten du norainoko mendizalea zen. Gainera, Pirinioetako ibilera haietan, eguneroko ibilaldiaren ondotik, ilunabar aldera kanpinera itzultzen ginenean ohizko euskal kantak kantatzen genituen elkarren artean eta Yonek horretarako zuen zaletasunez ohartzen ginen, gutako beste inork baino gehiago zekizkiela. Esan beharrik ere ez, zein egun alai bezain atseginak igarotzen genituen, Yonengandik beti zer ikasirik jasoaz.

Bere euskaltzaletasuna eta euskal idazle bikaina izateari ikuspegi bat ematean deritzat gaur egin nezakean ohoretik hoberena.

Purra! Purra! (1953) zeritzan ipuin parregarriz osaturiko liburu hura argitaratu zuenean nioen, bilduma hortakoak baino askozaz biziagoak zirela Plaentzia eta Eibarko kaleetan barra-barra kontatzen ziren umorezko ipuin eta gertaerak. Eta gure mendi ibileretan eibartarrok ahoz kontatzen genizkion. Nik, batzutan idatziz igorri ere bai. Horren fruitua izan zen *Pernando plaentxiatarra* (1957). Bertako azken hiru gertakariak non eman zituen idatzi nizkion bezala. Geroago, gehigarriz eta haurrentzako irakurgai eran, 1987-1989. urteetan sei aletan emango zuen *Purra! Purra!* gehiturik eta berritua.

Eibarren euskal gramatika ikasketan ari ginenok, lehenik Zabala-Aranaren metodoa erabili genuen, gero Bonifazio Ataunen hura, B. Arrigaraik hobekuntzaz berritutakoa. Yon Etxaidek, ordea, Umandirena erabiltzen zuen, artean orri multikopiatu soiletan zena eta, bere gomendioz, metodo hobetzat kopiak igorri zizkigunetik hori erabili zen gureartean. Baina, Gipuzkoako Diputazioak Urkixo Mintegia sortzean, arduradun izendatu zituztenen artean Mitxelena eta Irigaray ere baziren. Orduan horiengana jo genuen, Andoni Urrestarazu "Umandi"ren *Gramática vasca* hura Mintegiaren babespean gure diruz argitara ematea proposatuz. Ontzat hartu zuten eta hala lortu ere 1955. urtean. Egia esan, isilpean aldez aurretik ordaintzeko gertu ziren harpidedunak lortu genituen, lehenik eibartar euskaltzaleen artean eta gero kanpoan. Adibidez, Yon Etxaidek inprimatuaren sorta ederra hartu zuen bere lepora. Gasteizen asko zirenez metodo horrekin euskara ikasten ari zirenak eta erosketa handia egin ziguten. Beraz, diru laguntza erraz lortu eta baita ere argitalpen hura laster agortu.

Urte haietan eskatu nion Yoni, Eibarko euskaltzale talde bati hitzaldiren bat ematea, euskal literaturari buruz. Jakina, mendian klandestinoki izan behar zuen, bestetara ezin baitzen urte haietan. Hala bete zuen eskari hura, Elgetako Egotxeaga pagadipean, autorerik hoberenen bizitza eta lanen berriak emanaz. Gerora, hitzaldi hartarako prestatu zuen materialetik sortu zitzaion *Amasei seme Euskalerriko* (1958) zeritzan liburua, 1990an berralgitaratua.

Aipagarrientzat joko nuke eleberrigintzan goi mailetara eraman zuen lana, *Joanak-joan* (1955), Piarres Topet Etxahun barkoxtar koblakariari buruz egin zuena. Gainera, hura izan zen Euskaltzaindiaren eleberri lehiaketan lehen saria jaso zuena. Gero, euskaldun irakurleen artean berebiziko harrera ona erakutsi zigun eleberri harek, eta 1980, 1986 eta 1992. urteetan berralgitaraldiak izan zituen. Bere berrargitaldi guzietan bezala,

pasarteetako xehetasunen hobekuntzaz kezkaturik, lana zabalduz eta hobetuz emanak dira.

Hurrengo lana Pio Barojaren *Las inquietudes de Santi Andía* eleberriaren itzulpena izan zen, *Itxasoa laiño dago* (1959) izenburupean. Lan hura berritu zuen gero bi liburukitan argitaratzeko, baina oraingoan *Santi Andiaren kezkak* (1984) izenburuz.

Esan beharra dut, ordurako bere beste idazlan laburragoak aldizkari askotan argitaratzen zituela. Nik dakidanez, gehienetan honako izenordeak erabiliz: *Karranka, Zelai, Aldapeko, Uarrain, Igeldo* eta *Etxaithar*. Hortatik nonbait, harreman zabalak zituen euskal kulturagintzan ari zirenekin, eta beti guziei laguntza emanez. Zer esanik ere ez Jon Mirande, Jokin Zaitegi, Isidoro Fagoaga eta beste zenbaitekin zituela harreman hertsiak. Adibidez, 1962ko urtarrilaren 26ko Euskaltzaindiko batzar agirian irakur daiteke honako hau: "Rudolf De Rijk jaunari Azkue-ren «Particularidades del Dialecto Roncalés» eta «Aezkera» bialdu jakozan Jon Etxaide jaunaren eskabidez eta eskerrak emoten dituz euskeraz oso ondo idatzitako karta batean".

Bere idazlan laburrok gogoan izateko, aipaturiko izenordeekin batean, artikulu, itzulpen, saio, bertso eta abar idatzi zituen aldizkarien artean aipa nezazke: *La Cruz, Gernika, Euzko-gogoa, Egan, Jakin, Gure Herria, Karmel, Olerti, Euskera, Zeruko Argia, El Diario Vasco, Bol. R.S.V. Amigos del País* eta abar.



Yon Etxaide Itharte.

Euzko-gogoa eta *Gernika* aldizkariekin zituen harremanegatik, Miarritze eta Donibane Lohizunera maiz joaten zen. Behin, harpidedunentzat zekartzan *Gernika*-ren sei ale mugan atzeman ziotelako, zenbakirik adina kartzela eman zioten, sei hilabete Martuteneko presondegian. Harpideetariko bat ni neu nintzen, baina Etxaidek, zigorra leporatuz, ez zuen eman harpideetariko inoren izenik.

Beste honako oroitza hau ere badut, 1962ko azaroaren 30ean, Dassance jaunak Euskaltzaindiko batzarraren buruorde eginik, Inazio Maria Etxaideren hilberria ematean, aipatu zuen haren hutsunea betetzeko bere seme Yon Etxaideri aulkia eskaini behar zitzaiola. Baina Yonek uko egin zuen, idazkari zen Mitxelenak 1963ko urtarrilaren 25eko batzar agirian jasorik datorrenaren arabera: "Eleuke euskaltzain izan gura. Bera baiño leenago egokiagoa badagoela diño". Eta Irigaray jaunak berakin hitz egitea erabaki zen orduan. Baina ezin lorturik etsi zuten.

Handik laster, 1964an, Sebero Altuberen heriotza gertatu zen eta hutsunea betetzeko, euskaltzain osotarako proposatu nindutenean. Batzar agiriak biltzen zituen *Euskera* argitaratzeko txanponez urri genbiltzalako atzerapen handiak zituen eta oraindik ez nuen arestian aipatu dudan ukapenaren berririk. Mitxelenak deitu ninduen proposamena ontzat har nezan eta nik erantzun nion, Yon Etxaidek merezimendu hoberik bazuela eta haren alde egin zezatela. Orduan aditzera eman zidan Yonen ukapenaz. Eta nik bereala deitu nion Yoni, baina alperrik, ezezkoan zegoen, lehen ere ukapenarekin batean berak eman ziela nire izena eta nik har nezan bultzarazi ninduen. Esanaz, bere iritziz jendaurrerako berak baino dohai hobeak nituela eta izakera irekiagoa euskararen arloan beharrezko lanak hobeto egin nezazkeela. Amor eman beharra izan nuen.

Baina nihoan berriz bere idazlanen adierazpenera, askok ez baitakite Yonek burutu duen lan handi bezain bikainari buruzkorik eta, azken batean, gizona bere obratik ezagutzen baita. Aipatutakoekin bateratsu, hiru drama aipagarri idatzi zituen: *Amayur!* (*Euzko-Gogoa*, 1951), eta gero hiru ekitaldiko antzerki hau, bi agerraldi hobetutan, liburu bezala argitaratua da 1978 eta 1983, urteetan. Iturrinoren bertsoetan oinarriturik *Markesaren alaba* (*Egan*, 1958) gerora, 1982an liburu batean berralgitaratua. Eta bestea, *Begia begi truk* (*Egan*, 1962), baina, hau ere liburu bezala berrargitaratu zuen 1978 eta 1984an.

Jose Artetxe zenaren *Caminando* euskaratu zuen, *Egan* aldizkarian zatika argitaratzeko, *Bidez-bide* (1952-1954) izenpean. Baita Yvar Lissner-en *Ainsi vivaient nos ancêtres*, hau ere *Egan*-en *Egipto'ko gizalantze miresgarriaz idatzia* (1961) izenpean.

Historia gaiaz eleberri luzeago bat eman nahirik, Oiñaz-Ganboar borroketan oinarritu zen *Gorrotoa lege* (1964) deritzana burutzeko. Eleberri hau ere, hil baino lehenxeago, berralgitaratua izan da 1998. urtean.

Etxahun Zuberoako koblakariaren bertsoak hunkigarri zitzaizkion eta mugaz hemendik zabalkundea izan zezan, *Etxaun'en bertsoak gipuzkeraz* (1969) publikatu zuen, Jon Miranderen lankidetasunez. Gainera, hori aski ez zitzaiolarik, *Etxahunen bertsoak*, egileak bere garaian eman bezala eta gazteleraz zein euskara batuan jarriak publikatu zituen *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-en 1972-1989. urteetan.

Tartean, liburu berezi batean, Isidoro Fagoagak gazteleraz burutu zuen *Domingo Garat. El defensor del Biltzar* (1951) biografia bikain hura, euskaraturik *Domiku Garat. Biltzarraren defendatzaille* (1979) agertu zuen.

Yonek, bere etsipenezko uneak lanez gainditzen zituen eta lehengoen jarraipenez zetorren *Eneko Agerroa* (1981) eleberri historikoa. Hain gogoko zituen Zuberoa eta Baxenabarre artean, Behorlegiko larradi inguruetan kokatzen den gaia du eta hain maite zituen Agosti Xaho eta Johañe Miranderi eskainia da. Eleberri hau ere bigarren izkribaldi hobetuan eman zuen 1991.urtean.

Baina, nire ustez, hain hunkigarri zitzaizkion Etxahun Barkoxekoaren bertso haiek ez zioten laguntzen bere izate etsipenduaren egoerari, bai ordea etsipena areagotu. 1987ko irailaren 24an Joseba Etxarri kazetariari *Eguna* egunkarirako egin zion elkarrizketan agertu zizkion iritzien artean zioen: "Ezaguera nuen ordutik ez nuen bizia maite" (ikus uztailaren 1eko *Egunkaria*, 23 or.). Esaldi hori niri ere behin baino gehiagotan agertu zidan. Eta nire aldetik erantzuten nion, gizarte hobeago bati begira euskaltzalerik gehienok genituela holako etsipenak, baina gizarte hobekuntzaz hainbeste egin beharren aurrean, ekintzari lotuz gainditu beharrezkoak zirela biziaren arrazoiak.

Bere etsipenezko jaistaldiak ezagunak nituen, lagundu nahirik, behin baino gehiagotan mintzatu nitzaion eta baita berak erantzun ere, esanaz: "Eta zuk, fedearekiko zalantzak izanik, mundu hontan bizitzeko gogoa duzu?". Nire erantzuna: "Zergatik ez? Pertsonak bere naturarekikoa du bizitzari atxekirik irautea eta iraupenerako beharrezko idealei oratuz aurrera joatea edo gogozko gaietan murgilduz zerbait landuz bideratzea; zuk zerorrek euskalgintzan egiten ari zeranean aurkitu beharko zenuke bizinahi gogoaren askapena, nioen, gure belaunaldian jasan beharrezko zaiguna lasaiago har zezan".

Baina, behin, Etxahunen lan horiek *Bol. R.S.V. Amigos del País* aldizkarian burutzen ari zen garaian, etorri zitzaidan Martzelo Esnal elkarren adiskide mina laguntza eske, Yon beha jota ikusten zuela, eta inoiz esaten ziola nire itxaropena bekaizten zuela. Bere fede tinko bezain zintzoa ezaguturik, Patxi Altuna euskaltzainkidea lagun harturik jo genuen Karlos Goena sikiatrarengana eta harekingo harremanean jartzeak bideratu zuen ezbeharren batetik aldeaz seneratzea.

Bere abertzaletasuna, sorreraz Aitzolen idazlanetatik zuzpertua zen. Baina ez zen talde hertsi batean mugatzeko gizona. Gainera, demokraziaruntza abiatu ginen neurri berean, behar bada abertzale askoren gure hizkuntzaganako huts nabarmena ikusiz, lehengo bidetik, euskaran eta euskalgintza soilean mugatzen zuen bere ekintza guzia. Jakina da ideetan ez zetorrela bat bere aitarekin, baina ez, ordea, bere aita maite ez zuelako. Yonegan aitaren euskaltzaletasunak eragin handia izan zuen eta eskergarri zitzaion. Alderantziz, aitak ere oso maite zuen bere Yon, behin baino gehiagotan hala agertu zidanez. Bestalde, aitarenganako maitasuna argi utzi zuen gure erakunde honek I.M. Etxaide Lizasoain, 1952tik 1962ra artean euskaltzainburu izan genuenaren mendeurrena ospatzean, Yonek bere aita zenaren oroitzapenezko bio-bibliografia txostena irakurri zigun: "Inazio Maria Etxaide Lizasoainen bizitza eta lanak" zeritzana. Ondotik, bere arreba Ana Mari urgazleak, beste laburrago bat aitaren oroitzapenez (ikus *Euskera*, XXX, 1985, 345-374. orr.).

Gero, *Etxaide jauna* (1986) deritzan liburu mardula argitaratu zigun, bere lehen partean Euskaltzaindian aurkeztu zigun txostenarekin baliatuz, zabalago eta zehatzago landurik, noski. Baina liburu honek, gehigarrizko beste arlo batzuk ere baditu, aitaren pentsakeraz gainera, bere lanetarik asko erakusgarri hor biltzen dituenez gero.

Azken urteotan, Yon Etxaidek, euskaltzain ohorezko izendapenez gainera beste zenbait omenaldi ere izan ditu. Adibidez, zituen merezimenduegatik, EIZIE (Euskal

Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea) delakoak eta Euskal Idazleen Elkarteak ohorezko bazkide izendatu bai zuten.

Barnekoia zen, ez zitzaion gogoko jendaurrean agertzerik, baina lagunekin oso maitakorra eta zintzoa zen. Guk, hain hurbildik ezagutu dugunok, bera ere benetan maitatzen genduen. Zuberoa eta zuberotarrak hain gogoko zituenez, azken urte hauetan Txomin Peillen euskaltzainkide eta adiskideak maiz uzten zion Santa-Graziko etxea, Pilartxo emaztearekin udaran oporrak han igarotzeko. Zer esanik ere ez, etsipenezko jaitsialdi haietatik irteteko, bere emazte Pilartxok asko laguntzen ziola.

Historiazalea zen eta hortaz asko irakurria, egin zituen eleberri batzuek argi erakusten digutenez. Arturo Campiónen lanak gogoko zituen eta maiz aipatzen zuen 1200. urtean Euskal Herriaren zatiketa etorri zenez, geroztik ez dugula izan bakerik.

Gure mundu honetan bakezko lasaitasunik aurkitu ez zuen adiskide honek, bere fede zintzoaren laguntzaz, beste mundurik baldin bada, hemen aurkitu ez zuena han izan dezala opa diot (G.B.).

Juan San Martin

JON ETXAIDE EUSKAL IDAZLE ETA OHOREZKO EUSKALTZAINAREN JATORRIZKO IDAZLANEN DOHAINTZA

Bilbo, 1998ko azaroaren 27an

BILDURIK

Alde batetik, EUSKALTZAINDIAren izenean JEAN HARITSCHELHAR, N.A. 13348/89, euskaltzainburua,

Eta bestetik PILAR REKALDE, N.A. 15001355, Jon Etxaide zenaren alarguna,

ADIERAZTEN DUTE

1) Jon Etxaide euskal idazle eta ohorezko euskaltzain zenak bere jatorrizko idazlanak Euskaltzaindiari emateko nahia adierezi zuela, Azkue Bibliotekan gaurko eta biharko mundu osoko ikerleek eta euskaltzaleek modu erraz eta atsegin batean kontsultatu eta beren ikergaietarako erabili ahal izan dezaten.
2) Bere familia osoak pozez eta atseginez ikusten duela Jon Etxaide zenaren borondatea betetzea.
3) Euskaltzaindiarentzat ohore haundia dela idazle zoli honen jatorrizko idazlanak jasotzea.

HITZARTZEN DUTE

1) Pilar Rekaldek ondoko eranskinean aipatzen diren jatorrizko idazlanak ematen eta eskualdatzen dizkio Euskaltzaindiari, beronen jabegopean Azkue Bibliotekan ikerle eta euskaltzaleen eskura izan daitezen.

J. Haritschelhar P. Rekalde

JON ETXAIDEREN JATORRIZKO IDAZLANEN DOHAINTZAREN ERANSKINA

Bilbo, 1998ko azaroaren 27an

1. karpeta

— Etxaide jauna (original. Inprentarako prest).

Donostia: Erein, 1986ko argitaldiaren orijinala 95. orrialdetik aurrera, lehen eskuzko zuzenketekin (makinaz).

2. karpeta

— Etxaide jauna. Copia nº 2. Inprentarako prest.

Donostia: Erein, 1986ko argitaldiaren kopia osoa, bigarren zuzenketekin; bukaeran argitaratu gabeko gaztelaniazko aurkibidea (makinaz).

3. karpeta

— "(E)za" aditz-erroa datiboko aditz-jokoetan autoretan zehar. Original y copia nº 3.

Euskera, 1984, 29. t., 601-730. orr. testu orijinala; kopia bat; "zuzenketak" orijinala eta 2 kopia (makinaz).

— Euskal pontizen zahar batzuk aztarrikatuz (orijinalak).

Euskera, 1985, 30. t., 513-525. orr. testuaren kopia, 525. orr.ko "Oharra"ren faltan (makinaz).

— Inazio Maria Etxaide Lizasoain (orijinalak).

Euskera, 1985, 30. t., 344-367. orr. "Inazio Maria Etxaide Lizasoainen bizitza eta lanak" titulupeko testuaren kopia , 367-371. orrialdeetan argitaratutako kapitulua falta da. Orijinala, Jon Etxaidek Jose Antonio Aranari emanda, Euskaltzainen txostenetako bere karpetan gordetzen da (makinaz).

4. karpeta

— Xanti Andiaren kezkak (orijinal).

Donostia: Lur, 1984 (2 libk.), argitaldiaren testu orijinal osoa, azken zuzenketekin (makinaz).

5. karpeta

— Xanti Andiaren kezkak (copia nº 2).
Donostia: Lur, 1984 (2 libk.), argitaldiaren kopia osoa, bigarren zuzenketekin (makinaz).

6. karpeta

— Xanti Andiaren kezkak (Copia nº 3).

Donostia: Lur, 1984 (2 libk.), argitaldiaren kopia osoa, lehenengo zuzenketekin (makinaz).

7. karpeta

— Amaiur...! (Drama, hiru ekitalditan) Hirugarren agerraldi hobetua.
Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983.eko argitaldiaren kopia osoa, azken zuzenketekin (makinaz).

8. karpeta

1. Usoa Alostorreko.

Donostia: Hordago, 1981.eko argitaldiaren orijinal osoa, bigarren zuzenketekin. Azken zuzenketak fotokopian (ez ziren kontuan izan argitaldian), (makinaz).

2. Markes baten alaba.

Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1982.eko argitaldiaren orijinal osoa lehen zuzenketekin (makinaz).

3. Amaiur...!

Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983.eko argitaldiaren orijinal osoa lehen zuzenketekin (makinaz).

4. Begia begi truk.

Donostia: Erein, 1984.eko argitaldiaren orijinal osoa zuzenketekin (makinaz).

5. "Begia begi truk" eta "Amaiur"en huts zuzenketa.

Lau orritan Gerok egindako edizioan dauden hutsak zerrendatzen ditu, Ereingo edizioan kontuan hartzeko.

9. karpeta

1. Usoa Alostorreko.

Donostia: Hordago, 1981.eko argitaldiaren kopia osoa, lehenengo zuzenketekin. Azken zuzenketak fotokopian (ez ziren kontuan izan argitaldian), (makinaz).

2. Markes baten alaba.

Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1982.eko argitaldiaren kopia osoa. Testuaren bukaeran "hirugarren iraztaldia" dela dio (makinaz).

3. Amaiur...! (3. aldakia).

Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983.eko argitaldiaren kopia osoa bigarren zuzenketekin (makinaz).

4. Begia begi truk. (Drama, hiru ekitalditan). Hirugarren argitaldi hobetua.

Donostia: Erein, 1984.eko argitaldiaren kopia osoa, orijinalaren zuzenketa berdinekin (makinaz).

10. karpeta

— Etxahunen bertsoak (1) (orijinalak).

1. Gaztalondo handian. 2. Oraiko neskatilak. 3. Musde Deffis.

BRSBAP, 1983, 485-532. orr. testu orijinala.

4. Sohütako ezteietan. 5. Urx'apahl bat. 6. Amodio gati.

BRSBAP, 1984, 35-110. orr. testu orijinala; "Fe de erratas"en orijinala.

7. Ahargo eta Kanbillu. 8. Hauzen bada laborari. 9. Idorroki olha.

BRSBAP, 1984, 511-548. orr. testu orijinala; "Fe de erratas"en orijinala.

10. Montebidorat juailiak. 11. Gaztalondoko prima. 12. Bi ama alhaba.

Donostia: Euskalerriaren Adiskideen Elkartea, 1985, 37-94. orr. testu orijinala; *BRSBAP*, 1986, 89-90. orr. argitaratutako "Fe de erratas"en kopia.

13. Musde Clérisse. 14. Gure Jaun Aphezküpia. 15. Musde Legouvé.

16. Musde Hegobe.

BRSBAP, 1986, 13-89. orr. testu orijinala; "Fe de erratas"en orijinala.

11. karpeta

— Etxahunen bertsoak (kopiak) .

1. Gaztalondo handian . 2. Oraiko neskatilak. 3. Musde Deffis.

BRSBAP, 1983, 485-532. orr. testuaren kopia; BRSBAP, 1984, 109-110. orr. argitaratutako "Fe de erratas" orijinala eta kopia bat.

4. Sohütako ezteietan. 5. Urx'aphal bat. 6. Amodio gati.

BRSBAP, 1984, 35-110. orr. testuaren kopia; "Fe de erratas"en kopia.

7. Ahargo eta Kanbillu. 8. Hauzen bada laborari. 9. Idorroki olha.

BRSBAP, 1984, 511-548. orr. testuaren kopia; "Fe de erratas"en kopia .

10. Montebidorat juailiak. 11. Gaztalondoko prima. 12. Bi ama alhaba.

BRSBAP, 1985, 37-94. orr. testuaren kopia; BRSBAP, 1986, 89-90. orrialdeetan argitaratutako "Fe de erratas"en orijinala.

13. Musde Clérisse. 14. Gure Jaun Aphezküpia. 15. Musde Legouvé.

16. Musde Hegobe.

BRSBAP, 1986, 13-89. orr. testuaren kopia.

12. karpeta

— Etxahunen bertsoak. Orijinalak.

1. Gaztalondoko neskatilak.

BRSBAP, 1979, 81-118. orr. testu orijinal osoa. BRSBAP, 1979, 353-354. orr.etan argitaratutako "Fe de erratas"en orijinala.

2. Belhaudi'ko bortian.

BRSBAP, 1979, 327-353. orr. testu orijinal osoa. BRSBAP, 1981, 205-206. orr. "Fe de erratas"en orijinala

3. Barkoxe-ko eliza.

BRSBAP, 1980, 21-71. orr. testu orijinal osoa."Fe de erratas"en orijinala.

4. Musde Tiraz.

BRSBAP, 1980, 289-311. orr. testu orijinal osoa.

"Fe de erratas"en orijinala.

5. Mündian malerusik

BRSBAP, 1981, 150-207. orr. testu orijinal osoa. BRSBAP, 1982, 57-58. orr. "Fe de erratas"en orijinala.

6. Maria Solt eta Kastero. 7. Sarrantzeko senthoralak. 8. Bi ahizpak.

BRSBAP, 1982, 32-58. orr. testu orijinal osoa.

9. Ahaide delezius huntan.

BRSBAP, 1983, 127-198. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas"en orijinala.

13. karpeta

— Etxahunen bertsoak. Kopiak.

12. karpetako testuen kopia guztiak.

14. karpeta

— Etxahunen bertsoak. Orijinalak.

1. Bi berset dolorusik.

BRSBAP, 1986, 451-492. orr. testu orijinal osoa. BRSBAP, 1987, 280. orr. "Fe de erratas"en kopia

2. Musde Xaho. 3. Musde Renaud.

BRSBAP, 1987, 237-280. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas"en kopia.

4. Jinkuaren manuak. 5. Hiltzerako khantoria.

BRSBAP, 1988, 17-49. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas"en orijinala.

6. Filipiñekuak. 7. Arengaraiko primaren khantoria.

BRSBAP, 1988, 369-414. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas"en orijinala.

8. Galharragako khantoria.

BRSBAP, 1989, 25-35. orr. testu orijinal osoa. BRSBAP, 1989, 483. orr. "Fe de erratas"en testu orijinala.

9. Etxahun eta Otsalde.

BRSBAP, 1989, 37-64. orr. testu orijinal osoa. (Zuzenketak Galharragako Khantoria-rekin batera).

10. Eihartxe eta miñau.

BRSBAP, 1989, 409-483. orr. testu orijinal osoa, salbu azken orri biak, hauek fotokopiatuak dira eta beste orrialdeztapen bat dute.

15. karpeta

— Etxahunen bertsoak. Kopiak.

14. karpetako testuen kopia guztiak.

16. karpeta

— Etxahunen bertsoak. Orijinalak.

1. Mendi-ko herrian.

BRSBAP, 1973, 547-556. orr. testu orijinal osoa.

*La Voz de España*ko prentsa mozkina lana goraizten, 25.2.1975.

2. Üdoi-en prozesaren khantoria.

BRSBAP, 1976, 199-228. orr. testu orijinal osoa, eta "Fe de erratas".

3. Igaran Sen Bladi'z.

BRSBAP, 1975, 59-73. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas y observaciones"en testu orijinala.

4. Bi berseten egitez.

BRSBAP, 1977, 205-232. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas"en kopia.

5. Khantore berria (Eguiluz).

BRSBAP, 1976, 519-549. orr. testu orijinal osoa. *BRSBAP*, 1980, 310-311. orr. "Enmiendas a "Khantore berria" y "Ofizialenak" ".

6. Khantoren khantatzeko (Urdiñarbeko andregaiarena).

BRSBAP, 1975, 409-427. orr. testu orijinal osoa.

7. Phixtako olha.

BRSBAP, 1977, 471-488. orr. testu orijinal osoa.

8. Ofizialenak.

BRSBAP, 1978, 169-213. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas"en orijinala.

9. Etxahunen bizitziaren khantoria.

BRSBAP, 1978, 413-529. orr. testu orijinal osoa. "Fe de erratas"en orijinala.

17. karpeta

— Etxahunen bertsoak. Kopiak.

16. karpetako testu guztien kopiak (8. eta 9.ak bi kopia)

18. karpeta

— Etxahunen bizitziaren khantoria (1834) (orijinalaren fotokopia).

BRSBAP, 1978, 413-529. orr. testuaren fotokopia.

19. karpeta

— *Purra! Purra!*. Orijinala.

Donostia: Erein, 1987-1989, 6 libk. Lehen liburuakiaren 7. orrialdeko "oharra"-k esaten duenez ez zen testu orijinalaren ordena mantendu.

Erein argitaldariarekin egindako hitzarmena.

Testuaren kopia osoa, sorrerako ordenan:

- Hitz aurre gisa	a-b orr.	(1. libk.)
1. Eskola maisuaren kalluak	1-3. orr.	(3. libk.)
2. Intxaurra, sagarra eta kalabaza	3-5. orr.	(3. libk.)
3. Irabazi ustez galdu	5-7. orr.	(3. libk.)
4. Entzun! Entzun!	8-11. orr.	(3. libk.)
5. Txomin, langile bizkorra	11-13. orr.	(3. libk.)
6. Pigmeo artean	13-18. orr.	(3. libk.)
7. Zapatak merke asko erosi	18-20. orr.	(3. libk.)
8. Ingeles maitabera	20-22. orr.	(3. libk.)
9. Dirubide bikaina	23-24. orr.	(3. libk.)
10. Garagardoaren ondorenak	24-26. orr.	(3. libk.)
11. Nola-nahi hatzemateko, izarrak goitxo	26-28. orr.	(3. libk.)

12. Lapur dotorea	28-31. orr.	(3. libk.)
13. Bartolo, txerri nagusi	31-32. orr.	(3. libk.)
14. Larruz urri	32-34. orr.	(3. libk.)
15. Ameriketako berri zenbait	34-36. orr.	(1. libk.)
16. Dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon	36-37. orr.	(3. libk.)
17. Ume kakontzia	37-39. orr.	(3. libk.)
18. Don Boscoren ateraldi bi	39-42. orr.	(3. libk.)
19. Dirua gizonaren atzetik	42-44. orr.	(3. libk.)
20. Nor gehiagoka	44-45. orr.	(3. libk.)
21. Txitxirio-mitxirio	45-47. orr.	(3. libk.)
22. Argi ibili labur jendearekin	47-48. orr.	(3. libk.)
23. Joan-etorri onurakorra	48-50. orr.	(3. libk.)
24. "Superproduzioa" dela eta ez dela	50-52. orr.	(3. libk.)
25. Olio kontuak	52-53. orr.	(3. libk.)
26. Igarkizun asmagaitza	53-54. orr.	(3. libk.)
27. Nora jo jakin ezean	54-56. orr.	(3. libk.)
28. Eskularru batzuren istorio polita	56-59. orr.	(1. libk.)
29. Nik oso gutxi jaten dut eguerditan	59-64. orr.	(1. libk.)
30. Azkenak izango dira aurrenak	64-69. orr.	(3. libk.)
31. Jaungoikoa ikusi nahi eta.. kataplun!	70-72. orr.	(3. libk.)
32. Arangioko basalorea	72-78. orr.	(3. libk.)
33. Ezin aberastua	78-83. orr.	(3. libk.)
34. Hogei miloi zirtzileria baten truk	83-91. orr.	(1. libk.)
35. Ziri eta miri ahal duenak ahal duenari	92-93. orr.	(3. libk.)
36. Maltzurra galtzaile	93-97. orr.	(3. libk.)
37. Zakua ezin beteko gizona	98-99. orr.	(3. libk.)
38. Hamar urte lo eta hamar kantari	99-101. orr.	(5. libk.)
39. Txiki bixkorrak	102-104. orr.	(5. libk.)
40. Jesus jauna eta jaun Doni Petri...	104-118. orr.	(5. libk.)
41. Andre Leokadiren odoluzkiak	119-121. orr.	(5. libk.)
42. Astoak asto	121-122. orr.	(5. libk.)
43. Pello Kaikuren hiru bazkoaldi	122-127. orr.	(5. libk.)
44. Ingeles baten buruaustea	127-128. orr.	(5. libk.)
45. Ostikozale bi.. puzkarka	129-131. orr.	(5. libk.)
46. Ziri sartzaile trebea	131-133. orr.	(5. libk.)
47. Albiste berri-berria	133-135. orr.	(1. libk.)
48. Apez burutsua	135-137. orr.	(5. libk.)
49. Zureak egin du, Jauna	138-140. orr.	(5. libk.)
50. Haur jolasa	140-142. orr.	(5. libk.)
51. Ezkontzeko tratuetan	142-148. orr.	(5. libk.)
52. Azkeneko jentila	148-154. orr.	(5. libk.)
53. Onartuko ala baztertuko?	154-156. orr.	(5. libk.)
54. Hanka bat eta hanka bi	156-157. orr.	(5. libk.)
55. Sakabi	157-159. orr.	(5. libk.)
56. Hitz gutxiko zopa jalea	159-160. orr.	(5. libk.)
57. Eskolapioa eta jesuita	160-161. orr.	(5. libk.)
58. Haundiputza	162. orr.	(5. libk.)
59. Martin katillu	162-163. orr.	(5. libk.)
60. Ahüzkiko herensugea	163-168. orr.	(5. libk.)

61. Kanpaiaren esana 168-170. orr. (5. libk.)
62. Egia eta gezurra 170-173. orr. (5. libk.)
63. Musde Haritxabalet 174-181. orr. (5. libk.)
64. Urumea errekako krimena 181-194. orr. (1. libk.)
65. Gudari baten promesa 195-201. orr. (2. libk.)
66. Euskaraz egitea bekatu zenean 197-199. orr. (2. libk.)
67. Lizarrara-n salatuak 199-201. orr. (2. libk.)
68. Ez dira, ez, sartuko.. 202-259. orr. (2. libk.)
69. Arturo Campion-en Pedro Mari 260-305. orr. (4. libk.)
70. Elkar hizketa irudikorrak 306-364. orr. (6. libk.)
- Aurkibidea 365-36. orr.

20. karpeta

— *Purra! Purra!* (Lehenengo kopia) Inprentarako.

19. karpetako testuaren kopia, azken zuzenketekin.

21. karpeta

— *Purra! Purra!* (Bigarren kopia).

19. karpetako testuaren kopia, lehenengo zuzenketekin.

22. karpeta

— *Joanak joan.* Orijinala.

Donostia: Erein, 1986ko argitaldiaren testu orijinal osoa. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1980 argitaldiaren "huts zuzenketa".

23. karpeta

— *Joanak joan.* Copia nº 1 .

Donostia: Erein, 1986ko argitaldiaren kopia azken zuzenketekin.

24. karpeta

— *Gorrotoa lege.* Orijinala.

Donostia: Elkar, 1984ko argitaldiaren testu orijinal osoa.

25. karpeta

— *Hamasei seme Euskalerriko* (1).

Donostia: Erein, 1990eko argitaldiaren testu orijinal osoa.

26. karpeta

— *Eneko Agerroa* (berria) 1989-1990. Argitaratu gabea.

Donostia: Erein, 1991ko argitaldiaren testu orijinal osoa eta bi kopia.

27. karpeta

— *Domiku Garat.* Orijinala. Bigarren eskribaldi berria. Argitaratu gabe.

Donostia: Erein, 1997ko argitaldiaren testu orijinal osoa.

28. karpeta

— Arturo Campion-en *Beltzak eta zuriak (Blancos y negros).* Orijinala.

Argitaratu gabea.

29. karpeta

— ZENBAIT IZKRIBU. VARIOS.

— Etxaithar'ek: Euskal-kezka Baroja'ren baitan. *Jakin*en argitaratzen hasia eta moztua.

Jakin, 1966, 21. zb., 16-24. orr. argitaratutako lana.

— *Compendio historial de Esteban de Garibay.*

— *Los cantares antiguos del euskera* (Juan Carlos de Guerra).

— *Cuestionario-Bidania = Bidania'ko galdegaiak.*

— Uri eta toki-izen batzuen euskal izendegia, orain arte bildutakoen osagarri.

Egan, 1961, 217-228. orr. argitaratutako lanaren kopia.

— Mitxelena-Elizalte jaunari biotzez-biotz.

(Mitxelenak, *Euskera* 1959, "Euskal-itzak zein diren" artikuluari erantzunez).

— Eleberri Langaia. Lope Garzia de Salazar.

— Bereterretxe'en Khantoria. Jean de Jaurgain.

— Ene aitaren biografia liburutik ateratako euskal-hiztegia (1969.03.20an Jose Antonio Loidi jaunari bidalia).

— (Aditzari buruzko ikerketa: Arrue, J.B. Agirre, Iztueta).

— Erroldan'en eresiaz eta Altabizkar'ko kantuaz berri zenbait.

Egan: 1960, 186-196. orr. argitaratutako lanaren kopia.

— Aymeric Picaud Euskalerria'n barna.

Egan: 1957, 32-36. orr. argitaratutako lanaren kopia.

— Orio'ko Francisco Lertxundi'k jarritako bertsuak. Nik Orio'ko bentan jasoak.

— Titta Ruffo eta emakumearen betikotasuna. Isidoro Fagoaga'k bilbatua eta "Uarrain"ek euskeratua.

Egan: 1963, 90-97. orr. argitaratutako lanaren kopia.

— Alfonso Irigoien-i azken hitza.

Zeruko Argia 1979, Ekainak 10, 833. zb. argitaratutako lanaren kopia.

— Erantzunak (21 galderei).

(Zeruko Argiarako??)

— Xabier Tolaretxipi'ren oroiz.

— Xabier Tolaretxipi Lizarralde.

BRSBAP, 1976, XXXII. zb. 290-291. orr. argitaratutako lanaren orijinala.

— Isidoro Fagoaga'ren oroigarri.

— El último "jentil".

Jesús Olaso jaunari, bere semearentzako, bidalitako ipuina.

— "Axmutil" jaunari nere azken-hitza.

Jakin, 1966, 23. zb. 60-64. orr. argitaratutako lanaren orijinala

30. karpeta

— Idazlan zahar berrituak (I). (Argitaratugabeak). Orijinala eta bigarren kopia. Zenbait aldizkari.

Egan:

4. Erroldanen eresiaz eta Altabizkarko kantuaz berri zenbait. 1960, 3-6.zb.

6. Azkoitiko zalduntxoak eta... 1978-79, 1-6.zb.

7. *Lamennais*, bide urratzaile. 1980-1981, 1-6. zb.

8. Orain ehun da hogei urte...1982, 1-6.zb.

Gernika:

1. Itsutasunari... minezko kanta. 1951, 15. zb., 126. orr.

2. "Giputz" ala "gipuzkoar"? 1951, 16. zb., 11. orr.

3. -URR eta -ORR atzizki hilotzak. 1952, 18. zb., 53. orr.

4. Herrimin. 1952, 21. zb., 259. orr.

5. Ernioko gurutze hegalpean. 1953, 22. zb., 50. orr.

6. Argi urratze1953, 24. zb., 167. orr.

7. Elkor!... *Gernika*n argitaratzeko igorritako olerkia eta galdua.

31. karpeta

— Idazlan zahar berrituak (2) (Argitaratugabeak). *Zeruko Argia.* Orijinala eta bigarren kopia.

0. Xabier Mendigurenek, Elkar argitaletxearen izenean, 1992.08.28an egindako gutuna, azalduz ez dituztela lan hauek argitaratuko (kopia).

1. Ignacio Maria Etxaide jaun agurgarriaren heriotza gogoratuz. 1963, epail/martxoa, 3.

2. Etxahun munduan eta teatruan. 1963, epail/martxoa, 10.

3. Esker bederatziurrena Jaun Done Antxiko Xabierrekoaren omenez. 1962, epail/martxoa, 10.

4. Hiru bertsolari aintzinako? 1963, epail/martxoa, 7.

5. Txirrita bertsolari iaioa. 1963, epail/martxoa, 24.

6. Axular eta euskara. 1963, epail/martxoa, 31.

7. "Pacem in Terris"en inguruan. 1963, jorrail/apirila, 21.

8. Joane XXIII-garrena nor izan den. 1963, garagarril/ekaina, 9.

9. Paul Laxalt, Ipar-Ameriketako gobernadore euskalduna. 1963, uztaila, 7.

10. Luis Mitxelena jauna euskal-hizkuntzaren atlas delakoaz mintzatu da. 1963, uztail,7.

11. Paulo VI-garrena koroatua. 1963, uztaila, 7.

12. Bertsolarien zaindari. 1963, uztaila, 28.

13. Josepe Paulo Ulibarriko, Ukondoko semea. 1963, iraila, 1.

14. Iruñea euskal soinekoz. 1963, abendua, 1.

15. "El borracho burlado"ren bigarren ehunurrena dela-ta. 1964, jorrail/apirila, 5.

16. Jaun Peru Abendañoko. 1964, lorail/maiatza, 13.

17. Jaun Matxin Ganboa Olasoko. 1964, dagonila/agorrila, 2.

18. Jaun Gomiz Onzalutx Butroeko. 1965, jorrail/apirila, 4.

19. Artetxe jaunari esker onez. 1971, urria, 10.

20. Jon Mirande hil zaigu. 1973, otsaila, 11.

21. "Baitu" ala "bait du"?. 1973, uztaila, 29.

22. Zuzenketa bat eta galdera bat. 1979, epail/martxoa, 18.

32. karpeta

-Idazlan zahar berrituak (3) (Argitaratugabeak). Zenbait aldizkari. Orijinala eta bigarren kopia.

30. karpetan dauden lanekin elkartu beharreko lanak.

Egan:

1. Aymeric Picaud Euskalerrian barna. 1957, enero-abril.

2. Fabliaux izeneko ipuinak. 1959, 1-4. zb.

3. Margarita Angulematarra. 1959, 5-6. zb.

5. Euskal eresi zaharrak. 1977, 1-6. zb.

Euskera:

1. Euskal-pontizen zahar batzuk aztarrikatuz. 1985, 513. orr.

2. Etxahunen sortzearen bigarren mendeurrena dela eta. 1987, 45. orr.

Euzko Gogoa:

1. Donaphaleura Getharia zehar. 1950, 11-12. zb., 15. orr.

2. "Gogo" dela ta..1951, 7-8. zb., 36-37. orr.

3. Euskaldunak Ipar-Amerikan. 1951, 1-2. zb., 47. orr.

4. Etxahun. 1957, orrilla-garagarrilla, 73. orr.

33. karpeta

— Idazlan zahar berrituak (4) (Argitaratugabeak). Euskara harriaroan (1 eta 3, hots, orijinala eta 2-gn. kopia).

— Euskara harriaroan. (*Euzko Gogoa*, 1954-55, orijinalaren 29.orr.raino argitaratua, 29/110. orr.ak argitaratu gabe) .

34. karpeta

— *Egan*-en argitaratuak 1972-tik 1981-era. Ikusi idazlan zahar-berrituak.

1. Psikolojia alorrean pizkunde Aintzindari: Huarte Donibaneko. Egille: Isidoro Fagoaga.

Egan, 1973, 24-31. orr. argitaratutako lanaren orijinala (berriztatu gabe).

2. La Mennais, bide urratzaile. (Berritua dago. Anulatua. Ikus berriztatua).

Egan, 1980-81, 1-6. orr. argitaratutako lanaren orijinala.

3. Euskal opera. Isidoro Fagoaga'k gaztelaniaz egiña.

Egan, 1973, 33-54. orr. argitaratutako lanaren orijinala (berriztatu gabe).

4. Azkoitiko Zalduntxoak eta Paulo Olabide-Jauregi, Europako kultur hedatzaile. (Anulatua. Ikus berriztatua).

Egan, 1978-79.

5. Euskal-eresi zaharrak. (Anulatua. Ikus berriztatua).

Egan, 1977, 1-6. zb., orijinala .

6. Euskal-eresi zaharrak. (Desbaliatua. Ikus berritua).

Egan, 1977, 1-6. zb.; bi kopia.

7. Arturo Campion: Jaun Done Antxiko Xabierrekoren maiñada.

Egan, 1976, 1-6. zb., 23-48. orr. argitaratutako lanaren orijinala (berriztatu gabe).

8. id.id. (Karpetan azaldu arren, ez dago beste kopiarik).

9. Lehenengo euskal-olerki sariketa Urruña-n. (Ikus bi zatitan berriztatua).

Egan, 1981, 1.6. zb. "Orain ehun da hogei urte..." tituluarekin argitaratua .

10. Ivan Lissner'ek Egipto'ko gizalantxe miresgarriaz idatzia, "Ainsi vivaient nos ancetres" deitu liburuan.

Egan, 1961, 71-100. orr. argitaratutako lanaren orijinala (berriztatu gabe).

11. Pierre Topet Etxahun (1786-1862).

Egan, 1970-1971, (berriztatu gabe).

12. Printze euskalzale bat: Luis Luziano Bonaparte (Egille: I. Fagoaga).

Egan, 1975, 3-13. orr. argitaratutako lanaren orijinala (berriztatu gabe).

35. karpeta

— *Egan*-en argitaratuak 1972-tik 1982-era. Ikus: idazlan zahar berrituak.

34. karpetan dauden lan guztien kopiak.

36. karpeta

— Bidez bide. Orijinala.

(Jose Artetxeren "Caminando"ren itzulpena).

Egan, 1950-1954.

37. karpeta

— ARTURO CAMPION:

1. Itzaltzuko koblaria.

2. Villalba koronela.

3. Gamio anaiak.

4. Yan Pier.

5. Erraondoko azken ttunttuneroa.

Donostia:Erein, 1993ko argitaldiaren testua.

— 1990.06.20an Jose M. Satrustegi jaunari zuzendutako karta .

("Erraondoko azken ttuntuneroa"ren itzulpenaz).

38. karpeta

— Zenbait lan. Besteren artean: "Domiku Garat", 3-gn. kopia..

— Domiku Garat, 3-gn kopia.

(27. karpetako testuaren kopia).

— *Eguna*-ren galdegintza. (Orijinala, kopia bat, eta egunkaria).

Eguna, 1987.09.24an argitaratua.

— 1987.03.6, 1987.04.4, 1987.04.21, 1987.04.30ean Luis A. Aranbarri (Amatiño) *Eguna*-ko zuzendariari idatzitako lau gutun.

(1987.09.24an argitaratuko zen elkarrizketari buruzko oharrak).

— 1987.04.27, Luis A. Aranbarri (Amatiño)k, *Eguna-ko* zuzendaria, Jon Etxaideri zuzendutako gutuna.

— *Eguna*: 1987.10.8 eta 1987.10.15eko Joxeagustin Arrietak egindako "Etxaide izeneko baten bideak" artikuluen mozkinak.

— 1988.04.19an *Argia* aldizkariko zuzendariari gutuna.

(Elkarrizketa ukatuz eta *Egunak*in izandako eztabaida azalduz).

— Pierre Topet-Etxahun (1786-1862). Etxahunen sortzearen bigarren mendeurrena dela eta...

Euskera, 1987, 45-52. orr. argitaratutako lanaren orijinala, kopia bat eta "Zuzenketa"ko orria.

— "Echahun, el bardo maldito", por José Mª Donosty (*La Voz de España*, 27.04.1948) artikuluaren makinazko kopia.

— (Gernikako bonbaketari buruzko txostena).

— Carlo Carretto: ¡Iglesia cuánto te quiero! (*Vida Nueva*, 14.03.1987) artikuluaren bi fotokopia.

— 1980.an Rafael (Etxaide)ren gabonetako zorion txartela.

— *HABE* aldizkaria, 1984.04.1, 40. zb. (Jon Etxaiderekin hizketan).

— 1985.09.30ean *HABE* aldizkariko zuzendariari egindako gutuna.

HABE, 1985.11.1, 74. zb.an argitaratua.

— 1985.11.25ean *HABE* aldizkariko zuzendariari egindako gutuna.

HABE, 1985.12.15, 77. zb.an argitaratua.

— 1990.05.17an Izarberri S.A.ren gutuna (*BRSBAP*ko inprentako frogak).

— 1990.10.17an Ereineko gutuna (liburu bat oparituz)

— d/g, J. Oregi Aranbururi zuzendutako gutunaren fotokopia..

— 2 orri solte (zuzenketak eta oharrak).

Beraz, guztira 38 karpeta dira.

J. Haritschelhar P. Rekalde

JULIA BERROJALBIZ-EN OMENEZ

(1923-1998)

Bilbo, 1999-I-29

1. DATU PERTSONALAK

Julia Berrojalbiz Berrojalbiz, Gernika-ko auzategia den Ajangizen jaio zen, 1923-ko otsailaren 19an. Haren aita Juan Pedro Berrojalbiz Uriarte izan zen, eta ama, Teresa Berrojalbiz Abaitua. Aita gizon ikasia zen, urte batzuetan apaiz ikasketak egin zituelako, baina apaizgaitegitik irten eta nekazaritzan arduratu zen. Urte batzuetan Bake Epailea izan zen. Ama etxeko lanetara emana zegoen. Ezkontzatik hiru seme-alaba izan zituzten, zaharrena Julia.

Juliak Gernikako eskoletan egin zituen bere lehen ikasketak, hamabi urte bete arte.

Hamabi urte zituela Bilbora bidali zuten bere ikasketak jarraitzera. Teresianen ikastetxean hasi zen Batxillergoa ikasten, eta ondoren Gasteizera bidali zuten, hango ikastetxe famatu batean Batxillergo Nagusia egitera.

Batxillergo Nagusiaren titulua lortu ondoren, Juliaren asmoa Medikuntza ikastea izan zen, baina, tamalez, ezin izan zuen bere nahia bete, garai haietan ez zegoelako ondo ikusia emakumek horrelako ikasketak egitea. "Emakumea, etxean". Hori zen orduko ohitura. Gehienik, Magisteritza ikastea toleratzen zen.

Horretan zegoela, zer egin jakin ezinik, mutil bat ezagutu eta hartaz maitemintzen da. José Andrés Andia zeukan izena, eta oso gazterik hasi ziren ezkongaietan.

Zer ikasi behar zuen Juliak? Berak, esan digunez, Medikuntza egin nahi zuen, baina gurasoek alde batetik, eta nobioak bestetik, burutik kendu zioten asmo hori.

Juliak amore eman zuen, eta Medikuntza ikastea baztertuz, beste aukera baten bila hasi zen. Berari Zientziak atsegin zitzaizkion, eta Kimika ikastea erabaki zuen.

Erabaki hori hartu ondoren, berriro jarri zitzaion kontra familia. Hala ere, Valladolidera joan zen, Kimika ikasketak hastera, baina etxetik zetorkion presioa handiegia zen eta hori ere utzi egin behar izan zuen.

